

URREZKO ABARRA
JAMES GEORGE FRAZER

Urrezko abarra bidaia handi bat da; hamabi liburutako peripezia ugariren ondoren ongi bukatzen den bidaia. Eta jakina, bukaera onak onarrarazi egiten omen dio penatu izanari. Bidaia luzetsiko al dugu, bada? Akaso; baina azkeneko etapara arte, intriga asko falta ez delarik, ez zaio erantzungo hasierako galdera kezkatu bati. Hori jakinik ere, liburuak banan-banan irakur daitezke, etapaz etapa bidaia osoa egin beharrik ez dago, halaxe esana zuen-eta Frazerrek berak Adonis izeneko liburuan, frantsesez argitaratu zen lehendabizikoan alegia: “Urrezko Abarra zikloa argitaratzerakoan, asko zaindu dut monografia bakanetan banatuz joatea, arazo osoaren adar bakarren batek bakarrik kezkatzen duen irakurleak arazo zati horri heldu, horixe ongi konpreni dezan eta ziklo guztia irakurri beharrean gerta ez dadin”, Bidaia bat, beraz, baina etapa bakunak bakarrik ere aldian aldiko ametzuten dituen.

Zatika eman zen argitara liburu hau: bi aletan lehendabizikoan, 1890.ean; gero, 1900.ean, hirutan, eta hamabost urte beranduago, hamabi aletan. Hala ere, 1922.ean, guztiaren laburbilketa bat eskaini zuen egileak berak, mamia gorde bai, baina adibideak asko moztuz. Argitalpen laburbildu honen itzulpena da gaurko itzulpen bikain hau, eta akordeoi kolpe batez musika osoaren doinu bildua hauxe litzateke:

Apaiz erregea antzinako gizartean. Erromatarren garaian, Erroma inguruko Albano mendietan zegoen osin beltz batean hasten da bidaia. Han, ba omen zegoen Diana jainkosa basatiaren omenez santutegi bat, eta bertan “Basoko Errege” izeneko apaiz bat zaindari. Zahartzen hasi ahala, apaiz hura bertan behera botako zuenik ez zen inoiz faltako, ihesi zebilen edozein esklabok-edo apaiz zaharkitua hil egingo baitzuen. Haren indarrak behera zihoazela konturatu orduko, zelatariak azken erasoari ekingo zion, aldezturik abisu gisara santutegiko hariztitik abarren bat-edo moztuz. Jakin, bai bazekien apaizak gauza berbera egin zuela berak ere, eta oraingoan berari heriotza ematera etorria zela beste norbait.

Diana jainkosaren omenezko erakunde harrigarri horrek, apaizak errege titulua daukalarik, boterearen oinarria adieraziko luke, hau da, sakratutasunak boterearekin daukan harreman bereziak plazaratuko omen lituzke. Horixe dateke, Frazerrek dioenez, lehen galderaren erantzuna: Erromako erakundeetan beretan nola iraun ote dezaketen antzina-antzinako apaiz-errege eta jainko-errege izeneko horren erakunde primitiboa. Nemi santutegiko apaizgoa eta jainkotasuna lotzen omen ditu Dianus/Diana bikoteak; hau da, ama lurraren oparotasuna eta gizakumeen nahiz animalien ugalketa; bi-biak, lokarri batez lotuta omen daude. Boterearen legitimitatea bi indar hauek lotzea omen da nolabait, natura eta giza ordenamendua uztartzea, alegia.

Tabuaren eta arimaren arriskuak. Jainkotasunez kutsatutako erregeak, jainko-erregeak alegia, naturaren joan-etorri ongarriaz arduratzen omen dira, eta ongizate hori ez omen lukete hondatu beharko –ez ekintzaz, ezta erruz ere–. Horretarako dauzkate gainera beren inguruan garrantzi handiko apaiz batzuk, adibidez Flamen Dialis apaiza Erroman, debekuz, arauz eta preskripzioz erregea babestu dezaten. Debeku horiek bakarrik iraunaraz lezake bizirik subiranoa, haren desagertzea gizartearentzat guztiz kaltegarria denez gero. Eta hiltzean ere, gorputzari arimak nolabait alde egiten dion neurrian, debeku horiek direla medio, arima hori berrekartzea ere lortuko omen litzateke. Tabuak, beraz, bizia gorde eta zaintzeko araubide dira. Arima edota biziaraziko gintuzkeen indar

hori gure barreneko maniki edo panpina antzeko zerbait balitz bezala imajinatua izan omen da, edota barne itzal bat bezala, beti mehatxuz eta arrisku handiz inguratuta, hori bai. Ahoa litzateke gorputzetik kanpo alde egin lezakeen toki bat; hortik omen letozke, beraz, janariei buruzko tabuak, hain ugari eta harrigarriak izanik erregeei berei dagozkienak. Baina hain sakratutasun-zama handikoak dirateke erregeok, non beren ukitu hutsaz arriskuan ezarriko bailukete beste edozein gizaseme. Eta horixe gerta ez dadin, apartatu, zaindu eta gorde egin behar izaten dituzte. Halakoetan, haien ukitzea bera galarazia gertatzen da, eta haien antzera omen daude antzeko indar arriskugarriak duketen beste guztiak, hala nola erditzeko dauden emakumeak, hilerokoa dutenak eta, heriotzarekin zerikusirik badutelako-edo, jende gerrariak ere bai. Horien antzera, beste gauza asko eta izen pila bat ere arriskugarri gerta dakioke gizasemeari: burdina, mozteko labana biluziak, odola, burua, ileak, azkazalak, listua, korapiloak, eratzunak, jainkoen izenak, baita pertsonarenak ere, baldin izenaren eta gizakumearen artean loturarik badago behintzat. Izenordeak eta beste goitzen asko tranpa bat omen dirateke arrisku hori gainditu ahal izateko.

Jainkoen heriotza. Mitoetan jainkoak hil egiten dira, baita gizarteko haien ordezkariak ere, errege, apaiz nahiz buruzagiak. Ordezkariorik, naturaren joan-etorri oparo eta jainkotiarra babesten duten eran, ez lukete beren indarrak ahultzen utzi beharko, hori gertatuz gero gizasemeei ondorio txar asko gerta lekieke-eta. Arrisku hori gainditzeko modu bat da, indarrak murrizten ari zaizkiola ikusi orduko, jainko-gizon hori hilaraztea; horrela, haren arima-indarra txertatu egingo litzateke bere jarraitzaile gaztearengan. Afrikako shillukdarrek horrela egiten omen zuten eta beste zenbait herritan buruzagiak berak aukeratzen omen zuen bere buruaz beste egiteko unerik aproposena, hurrengoari indarra pasa zekion. Herri askotan, berriz, normala izaten omen da bizpahiru urtetako epea ezartzea buruzagia hilarazi eta berritzeko. Gai hori darabil Frazerrek handik eta hemendik lortutako berri emanez: han zoro bat izendatuko omen dute errege batengandik bestearengana dagoen hutsunea betetzeko; hemen, aita erregeak seme zaharrena akabatuko du, edo bestela semearen ordezkoren bat, animalia adibidez, semearen jaiotzak aitari arima-indarra kendu diolakoan, noski. Nemiko santutegian ere, Basoko Erregea zuhaitz-indarraren eta oparotasunaren baldintza zenez gero, haren indarra oso-osorik pasarazi behar izaten zitzaion jarraitzaileari. Ipar European dagoen hainbat zuhaitz-festaburu ere landare-indarra gordetzearren egin ohi diren erailketa sinbolikoak besterik ez dirateke; gaurko baserritar festa horietan, arbaso zeltar, germaniar nahiz eslaviarrek buruzagiekin egiten zutena disimulaturik omen dago. Garizumako inauterietan ere izaki jainkotiarren erailketa legoke ezkutaturik, haren ordezkor bat erre eta desegiten denean, adibidez, edota negua hil eta udararen indarberritzea aurkezten denean.

Adonis. Landare nahiz animalien dagoen bizi-indarra naturara ez ezik pertsonengana ere murgiltzen dela imajina dezakegu. Horixe litzateke, Frazerren ustetan, magiatik erlijiora dagoen tarte: natura-indarra gurtzetik indar pertsonalak gurtzera omen dagoen tarte, alegia. Halakoetan, gizatiarren buruhauste ez litzateke jadanik natura nolabait kontrolatu beharra, jainkoen arteko harremanak zaintzea baizik, horien esku baitago sasoiak sasoiak joan-etortzea eta egunak bere gauaz korapilatuz joatea. Horregatik erlijioari ezinezko izango zaio erritual magikorik gabe agertzea, gizakumeok jainkoei beti lagundu nahi izango baitiegu naturaren kontrol hori zuzen eramaten: erregutu egingo diegu, mesedez eskatuko edota belauniko jarrita errezatuko. Eki Mediterraneo itsas ondoko jendea izan omen da arazo horretan trebeena: Osiris, Tammuz, Adonis edota Atis izeneko jainkoez adierazten omen zuten naturaren joan-etorri oparoa, urtero

jainkoa hilarazi eta bestea berpiztaraziz. Tammuz gaztetxea, Babiloniako jainkosa handiaren amorantea nonbait, urtero hiltzen omen zen eta lurrazpiko infernuetara jaisten. Handik berriro aterako zuen bere maitelagunak, baina bitarte hartan lur zabalak desegiteko bidea hartuko zuen. Jainko horixe da Adonis greziarra, Afrodita eta Persefone jainkosek maitatzen duten gaztetxea. Hori ikusita, Zeusek agindua ematen dio, emakumea bietarako izan dadin, urte erdiz zerurako eta beste erdiz lurrazpirako. Baina Ares jeloskorrak hori eraman ezinik, Adonis ederra basurde-itxura hartuz ehizan zegoen batean, jo eta bota egingo du.

Adonisen urteroko heriotzak garia jo, eultzitu eta ehotarriz eho eta txikitu beharra adierazten omen du. Horri darioke “Adonis baratzetxoak” deritzan greziar festako otartxoan errituala, jainkoari erregutuz egiten zaien oparia omen da. Kristo bera, hil eta berpizten den jainkoa alegia, Adonis festa berorren oroitzapen besterik ez omen litzateke.

Atis eta Osiris. Artzaina eta ederra omen zen Atis; Zibeles, oparotasun jainkosaren mutil maitea. Hori ere hil egin zen, basurde batek jota, pinu batean barrabilak hautsi eta odolustuta, ala nork daki nola. Martxoan ospatzen zen haren festa, 22tik 27ra bitartean, Zibelesen elizara pinu bat lorez eta paineluz hornitua eramanez. Hogeita lauan, Odolaren egunean hain zuzen, apaiz batek besoan ebaki eta bere odola aurkeztu egiten zuen opariz. Jendetzak bere buruarekin gauza bera egin ohi zuen, eta mutil askok zikiratu ere bai bere burua (Atis jainkoaren apaizak eunukoak ziren beti); biharamunean, jainkoa piztu egiten zen eta Pozaren eguna zenez gero (hilaria), mozorrotu egiten zen jendea, sekulakoak eta bost egiteko libre izanik. Handik bi egunetara Zibelesen estatua garbitu egiten zen ibaian. Kristauen Pazko jaiak festaburu horren ordezkioak dirateke.

Antzinako Egipton ere bazen antzeko jainkoa, izenez Osiris ezaguna, nekazaritza asmatu eta anaia jeloskor batek hil eta hamalau zatitan txikituta lau haizeetara banatu zuena. Familiako beste batek ordea, Isisek, haren arreba eta alargunak, zatiak bildu eta lurperatu egin zituen; Ra eguzki jaunak berpiztu egin zituen. Osiris berpiztuak ziurtatuko omen zien gizasemeei heriotzaren garapena, betiereko bizitza. Hildakoen eguna ospatzen omen zen urtean behin Egipton, Osirisen izenean ospatu ere, eta, Frazerren ustetan, kristautasunak festa bera ospatzen omen du azaroaren bian. Osiris gariaren indarra da, bizitzekotan estreina hil behar duen guztiarena; zuhaitzaren arima ere bada Osiris, eta ugalketarena bezala hildakoena ere bai. Osiris ez da Atis eta Adonis kastakoa, gizaseme hutsa baizik, eta baduke Kristoren antza, gizon bezala bizi eta gizon bezala hil egin baitzen. Hiru kasu horietan agertzen omen da nola andere jainkosak (Astartek, Zibeles, Isisek) bere senarrak baino bizi luzeago duen. Arrazoia zara omen litzateke, gizarte sistema zaharragoetan ahaidegoa amari zeriola, eta jainkosak jainkoak baino zaharragoak izan direla, apaizgoan, beraz, goimaila handiagoa izan dutela inoiz emakumeek gizonezkoek baino.

Gari eta oihan espirituak. Lurraren eta landareen indarberritzea adierazteko, jainkoren bat bizi eta hil egiten dela antzezten zutenen artean ez dago antzinako jende ekialdekoa bakarrik, dio Frazerrek, Grezia klasikoan bertan ere pertsona mitiko eta jainkotiarrek ez omen dira falta. Bada, kausa berdinak ondorio berdina izaten duenez, ez da uste izan behar antzeko ohitura asko eta asko leku urruti haietatik etorri izan direnik; ez, naturaren ekitaldi oparoak mitologia beretsua bururatzen baitio gizasemeari nonahi.

Grezian, Dionisos da ardo-indar pertsonifikatua eta ardoaren gozoak dakarren alaitasuna bera. Mahastien jainkoa zen. Jaiotzean mahats-ale gihar eta pipitatan banatzeko otarrean ipini zuten. Horregatik omen da hark haur jaioberriari eskain diezaiokeen hazteko laguntza. Demeter eta bere alaba Persefone landareen berritzea dirateke, baina alaba lurrazpiko Hadesek bahitu duelarik, amak ez ditu aleak hazten utziko, harik eta Hadesek bere Persefonetxo itzuliko ez dion bitartean. Tratu bat egingo dute azkenean, Persefone lur azpian biziko da sei hilabete eta landare hilda geldituko da; beste sei hilabete, berriz, alaba irten egingo da kanpora, amaren ondora, eta landareak hazi egingo dira. Gariaren pertsonifikaziotzat hartzen omen zituzten greziarrek ama-alaba bi horiek. Ama-izaera eta emakume-izaera bikoitz horiez garia irudikatzekeko modu berbera ba omen zegoen Europaren iparraldean (“Ama garia” pertsonaia, adibidez, edota “Amabirjina”) baita Ameriketako ere (“Ama artoa”) Gari-indarra animaliak direla medio ere adierazi izan ohi zen: otso, zakur, ahuntz, azeri, oilar, erbi, eta abar. Horiek akabatu eta jan egiten zituzten gari uztaroko afarietan, benetan ezin zenean, animalia-aren itxurarekin egindako gari-opil bat janez. Hori dela eta, komeni da azpimarratzea nola landare-jainko asko ere animalia-itxura hartzen duen: Dionisos, zezen-; Demeter, txerri- eta zaldi-; Atis eta Adonis, zerri-; Osiris, txerri- eta idi-itxura. Askotan, animalia horiek jateko errito berezietan, animalia-aren ordeztu eta sakramentu gisa, lehendabiziko uztat jaten zen. Lehendabiziko uztak gizaseme-ari beti bururatu izan baitio indar berezi baten aurrean aurkitzen zela eta indar berri hori onetsi eta gurtu beharra zuela. Geroago, lehendabiziko uztok jainkoei eskaintzen hasiko omen ziren opariz, baina aldeztu aurretik antzeko magia-operazioak izanak ziren, animaliak nahiz gizasemeak daukan indarra nolabait biltzearen beroriek jaterakoan. Logika hutsa omen litzateke gainera jaten den animalia bera gurtu nahi izatea, zeren animaliak badutelakoan, jaten de animalia-arena beste batengan sartzeko erritua omen da-eta. Izan ere, espezie hori ez desagertzen uzteko ekintza da, egitasmo ekologikoa azaltzeko operazio bat, funtsean.

Aker erru-jasalea. Jainkoaren heriotzak dakarkigun arazoa argitutzat eman nahi luke hemen Frazerrek, jainkoaren heriotza gurtzen dutenek haren bizkar gainera gaitz guztiak pasarazteko asmatua izan dela esanez, gure kulpak hark bekatu beharko lituzkeelakoan. Eta hori itxuragabekeria bat edo nahasketa huts bat omen litzateke, zeren materiazko zerbait eta ez-materiazko den beste zerbait nahasi egiten baitira, norbaiten gainean zama bat ezarriz, bestetik, gure ezinak, zikinak eta antsiak beste norbaiti jasanaraziko geniokeela usteko gendake-eta. “Lelokeria bat besterik ez; hanka sartze handi bat, funtsean” dio Frazerrek. Edonorengandik beste zerbaitetara edo norbaitengana gaitza pasarazterik badagoelakoan beti egon omen da gizasemea. Harri eta makiletara pasatu nahi izan da gizatiarren gaitza, animalia nahiz beste gizon-emakumeengana ere bai; maiz, deabru edota espiritu txarren kanporatze publiko eta zuzenaren itxura hartu ohi du besteari erru-jasanaraztea: beti ordea, herriaren ondoeza eta sufrimendua garbitu nahi izan dira. Kanporatze hori aldiari aldiro egin ohi zen eta, normalean, urte-sasoi bati jarraitzen zitzaion; orduan, gizarte arauak hankaz gora ezarri ohi ziren aldi baten segidan edo ondoren. Antzinako Grezian mota askotako erru-jasaleak zeuden; Erroman, Saturnalak. Horren ondorio omen lirateke kristauen arteko inauteriak, dio Frazerrek, baina bera ez da hori esaten lehena izan.

Norvegiako Balder. Hasiera-hasierako galdera beti erantzuteko izan da orain arte esan den guztia: zergatik hilarazi behar ote zuen Dianaren santutegiko apaizak bere aurrekoa? Hasiera hartan ordea, bazegoen beste bigarren bat, eta horrek jakin nahi zuena oraintxe argituko da, alegia, ea zergatik hiltzaileak urrezko abarra eskuratu behar zuen eta ea zer ote zen ditxosozko abar hura.

Jadanik esana dauka Frazerrek garrantzi handikoa zela erregeen tabu edo debekuren arteko bat, alegia, beren hanka-zoruz lurra ukitu ezina. Horri, askotan, beste debeku ikaragarri bat erantsi ohi zaio: eguzkia ikusi ezina. Baina erregeari ez ezik, beste zenbait jende bereziri ere gauza berbera galaraztea normala izan omen da, hala nola haurtzaroa utzi eta emakumetzen hasi berri den neskatilari –hori, hilekoaren odolak gizartean eragiten duen beldurragatik omen--. Neskatxa bakandua izaten da orduan “zeruaren eta lurraren artean”, ez zeruari so ez eta lurra ukitu ere ezin duela. Bi kontaktu horiek galarazita dauzkalako, gorde ditzake hark bere barnean horren arrisku handiko energiak eta indarrak, beste inori kalterik egin gabe. Zeruaren eta lurraren arteko mugarri-egoera hori omen da kontu eta ipuin askotako gaia, hilezkortasuna omen duela helburu.

Eskandinaviako antzinako mitologian badago Balder izeneko jainko bat, Odinen seme, zuhur gozo eta maitagarriena. Betiko gorde nahi izan zuten jainkoek berekin batera mutil ezti hori, eta edozerk min egin ez ziezaion, munduan zegoen orori galarazi egin zioten mutilari kalte egitea. Jainkoek ahaztu egin omen zuten ordea mihurari abisu pasatzea, eta Loki izeneko jainko gaizto bat han ere falta ez zenez, Loki honek itsu baten eskutan mihura adar bat ezarri, Balder hilaraztea lortu zuen. Kontu horrek dramatizazio ugari eragin omen du European zehar, besteak beste, mihuraren bilketa erritualak eta jainkoaren hiletak su handi batekin ospatzea. Suaren festa ugarien artean San Joan-, Kandelario-, Pazko-festa eta beste hainbeste daude, eta magiazo suok eguzkiari eragiteko egiten zirela dioten arren, Frazerrek nahiago du garbitzeko egiten zirela iriztea, su horietan antzinako zeltarrek gizasemeak erre egiten zituztela ikusita; erre ere, gaitzez eta sorginkeriaz kalte egiten zutenak erretzen omen zituzten-eta.

Balder jainkoari dagokion beste ezaugarri bat mihura-abaraska horixe da. Galiako jendearentzat mihura zein sakratua zen jakinik, Frazerrek lotu egiten du hori guztia zera aldarrikatzeko: su-zeremonietan erretzen zutena gizon bat zela, zuhaitza adierazten zuena, izan ere. Gizona haritza bera omen litzateke, zuhaitz hori izan baita indoeuroparrentzat sakratutasunaren adierazgarri. Balder haritza da eta bizi egiten da, mihura moztan ez dioten arte, mihurak zaindu egingo bailuke zuhaitza, neguan hostoak ez ditu-eta galtzen. Mihura iraunkor horixe jainkoaren bizitzaren babesle nagusia litzatekeela. Gero istorio eta kontu asko dakartza Frazerrek, nola pertsonaia baten arima beste edozein gauzaren barnean ezkututzen den agertuz, pertsonaia hori hilezko bihurtzeko: haren arima beste nonbait dagoelarik, bizia inork ezin kendu izango diolakoan. Hala, Balder, haritzaren indar hutsa denez gero, bere arima mihuran omen dauka gordeta, “zeruaren eta lurraren artean”.

Liburuko bigarren galdera erantzunda dagoke, beraz: Basoko Erregea zuhaitzaren pertsonifikazioa da, haritzarena hain zuzen ere, eta enborraren inguruan Urrezko Abarra hazten zaio, mihura. Errege hori erail baino lehen, abar horixe hautsi behar zen, baitzegoen haren arima ezkutaturik.

* * *

Erroman hasi eta munduari itzulunguru osoa emanda, Eskandinavian amaitzen den bidaia luze honen bukaeran, munduan zehar dagoen jende desberdinen ohitura eta sinesmenei buruz Ilustrazioak izan zuen eztabaida argitutzat ematen du Frazerrek. XIX eta XX mendearteko atea itxi eta irekitzen den horretan, Frazer da atezain ilustratua, eta “primitibotasuna” da ate horren erroa. Izan ere, ilustratu jendearentzat bat bakarra den

“gizatasun” edo giza izaera multzoa bitan banaturik uzten baitu Frazerrek: gutasuna alde batetik, gizatasun eboluzionatu bat alegia, eta primitibotasuna, bestetik.

Darwinen teoria eboluzionista ardatz, Ezkontza primitiboa liburua zuen idatzia J.F. McLennan ezkoziarrak 1865 urtean. Liburu hark L.H. Morgan amerikar abokatua bere Gizarte primitiboa idaztera bultzatu zuen berehalaxe, eta handik gutxira, 1871 urtean, E.B. Taylor ingelesak Kultura primitiboa argitaratu zuen. Hala ere Frazer da “primitibo” zakua guztiz antolaturik utzi zuena, gure kulturarekin ez duten beste guztiak bertan sartzekoa, axola gutxi izanik zakuan zer nolako ezaugarria bilduko ote, den-dena ezaugarri desberdinez osatua badenik ere. Frazerrek ere bere azken liburuari Beldurra eta heriotza erlijio primitiboan izenburua jarri zion, baina Urrezko abarrari dario dudarik gabe “primitibo” kontzeptuaren eraginez munduko gurea-ez-beste kultur guztiak berdinurik uzten dituen indarra. Indar hori etnozentrikoa da, geure burua geuk ederrago genukeen erara ezagutzeko egina, bistan da. Hartarako, geuregan ederresten dugun ezaugarria besterengan erdiesten ez eta “beste guztiak” asmatuta gelditzen da, aukeratutako ezaugarriaren gabekotzat hartuz geroz. “Bestelakoak” dira besteak, magia eta erlijioan bizi diren neurrian, odol lotura magikoz biltzen dituztelako nork bere ekonomia eta politika, eta estaturik ezagutzen ez dutelako: jakintzazko eta ezaupidezkoa omen da geure gu-tasuna, arrazoiz eta argumentuz eraiki ditugu-eta ekonomia eta politika, horra hor arrazionaltasunaren Estatua. Hala ere, “beste” horien portaera harrigarriak eta jokaera beldurgarriak sinesgarri bihurtarazten dizkigu Frazerrek, exotismorik eta ezentrizidaderik nabariena ere izutzen ez gaituztela, bai baitakigu ezagutzaren hutsune bat besterik ez direla adierazten ari. Gure artean ere superstizio eta sasi-sineste ugari ez ote dirau oraindik orain? Bai, baina... Ez hori bakarrik.

Frazerrek zera uste zuen: gizakumea ezaupidez bereizten den animalia dela, ezagutzarako egindako tresneria berezi bat besterik ez zela. Betidanik ezagutu nahi izan omen du gizakumeak eta bere ibilbidea ezagutzaren atzetik ibiltzea izan omen da. Zientzia da ezagutza nagusia, berandu oso etorri izan zaiguna, hasieran zientzia antzeko ezagutza anker bat atzeman baitzuten gizakumeek. Magia, alegia. Ezaupidean desbideraketa txikia suposatzen omen du magiak, ideien arteko harreman kausala lortu nahirik, antzekotasuna eta kontaktua besterik ez omen zituen atzeman-eta. Gero, magia-gizon batzuen maltzurkeriak direla medio, ezagutza murriz haren kritika egin ordez, eta haien lorpen eskasak esplikatzen baina nahiago izan zuten lelokeria berri batzuk asmatzen hasi. Horrela izan omen zen asmatua erlijioa, zientzia-bidean barrena euren jakintza modifikatu nahi ezean, izaki ez-materialak egokiago iruditu baitzitzaizkien. Magiaren materialiazko harremanak baztertu eta espirituzkoak onartzen hasi baitzituzten; jakina, Europako jende jakintsuaren ustetan naturako gauza materialetan ez dago geroa espiriturik! Erlijioa atzerakada galanta izango litzateke bada, nahiz eta magiaz geroztik asmatua izan. Aldrebeskeria hori gainditzea asko baina gehiago kostatuko omen zitzaion gizarteari, geroaren gero ilun eta luze bat etorri baita harrez gero. Magia, erlijioa eta zientzia dirateke, beraz, giza bilakaeraren kokaguneak, jakin-mina izanik motor bakarra.

Leloa ez bazen guztiz berria, XIX. mende osoa antzeko eboluzionismoak zeharkatu baitzuen, oraingo “urrezko” berritasuna konparatibismoan kokatu behar, hau da, arrazoiaren pilatzea eta frogaren ugaritzea erabili egiten da gai harrigarri bati heldu (erakunde sozial bati nahiz sineskeria bati) eta munduan zehar berori nolakoa den ikusteko. Gainera caveat berri bat ere plazaratzen du oraingo konparatibismoak: eboluzioa ez omen litzateke linealtzat hartu behar, magia ez baita desagertzen erlijioa

asmatu ahala, ezta guztiz desagertzen ere zientziaren hedatzearekin batera. Eboluzioa guri ulertaraztearren, oihala baten metafora dakar Frazerrek bere Urrezko abarra-ren azken lerroetan: hiru hariz, bakoitza kolore batekoa, ehundua omen litzateke gizartearen oihala kulturala; hari beltza magia da; gorria, erlijioa; eta zuria, zientzia. Gizartearen hasierako oihala beltzez legoke ehundua, zuri-beltzez ere bai han-hemenka, oihalak gorritzen hasi eta gorri-beltzera pasatzen diren arte. Gorria zurituz joango litzateke gero, gorritik baino zuritik askoz ere gehiago hartuz azkenean. Inoiz izango ote da guztiz zuriargi? Pena handiz, ez dakiela esaten du Frazerrek, baina bere zuri-goseak koloretan ikustarazi zion giza arazoa.

Zuri-gose hori garaiko zientismoari dario, egia arrazoiz lortzen dakien sinesmen bakarra baita. Zientzia beste sinesmen mota guztien galbahe omen da. Erritoak, sakrifizioa, gurtza, espiazioa, errukizko ekintzak, estetikazko taupadak, beharkizun eta erantzukizunaren ekiteak eta gizarteko beste edozein praktika sinesmen batzuen ondorioz eginak izan omen dira. Sinesmen faltsuz eraginda, beraz.

Gizatiarren joan-etorria zuri-beltz-gorrian islatzen duen ikuspegi intelektualista horrekin eta Frazerren formato handiko pantailarekin gelditu zen bideratuta Antropologia. Bere ikasle batek, Malinowskik alegia, teknikolorea asmatuko zion geroago, giza sentimenak nolabait integratu nahian, baina pantaila txikira itzuli zuen, hau da, herri bakan, txiki eta xehetako berri bakanak banan-banan ematen saiatuz, lurralde urrutietaraino joanez. Bulegoko lana egin izana leporatu zion Malinowskik bere maisuari eta liburutegitik aldendu ez izana. Baina ikaslea maisuaren zeluloidea erabiltzen ari zela ez zen konturatu, hark ere eta oso berandu, 1948an, Zientzia, magia eta erlijioa izeneko liburu trakets samar bat idaztera behartuta ikusi baitzuen bere burua. Frazerren kodigo oker hori gainditzea ez baitzaigu erraz-erraza izan Antropologian.

Arrakasta handia izan zuen, beraz, Urrezko abarra-ren primitibozale zaku intelektualistak. Durkheim, Mauss, Freud, Bergson, Spengler eta Malinowski jakitunek ez ezik, poetarik handienek ere liburu horretan edan baitzuen, gizatasunak aurpegi ezkutu, misteriotsu eta ilunik baduela irizten zuten haiek bereziki, hala nola Kipling, Ezra Pound, Yeats, Joyce eta D. H. Lawrence. T.S. Eliot poetak, adibidez, argi eta garbi aipatzen du, The Waste Lande-rako egin zituen oharretan, zein zor handia dion Frazerri bere belaunaldiak. Berak bereziki Adonis, Atis eta Osirisi buruzkoak irakurri omen zituen, “hauek ezagutzen dituenak berehala ikusiko du zein antz handia daukan neuk landaretza-erritoak aipatzen ditudanarekin”.

* * *

Jakintzazko ahulkeria biak (magia eta erlijioa, alegia) beti erakunde tinkoetan azaltzen direla uste izatea da Antropologiari gainditzen gaitz gertatu zaion kodigo frazertarra. Kodigo horren arabera, erakunde tinko eta orokor lirateke landareei gurtzea, jainkoa jatea, aker erru-jasalea, animaliekin odolez loturik gaudeneko ahaidegoa, tabu edo debeku xelebreak betebeharra, gizarteko politika harremanak jainko-gizonen bidez konpontzea, sorginkeria, sasi-medikuntza, zeruaren eta lurraren arteko muga arriskugarriak, eta abar. Izan ere, noiznahi eta nonahi eraturik atzemango ditugunak dirateke erakunde horiek, zientziazatik urrun samar dauden gizarteetan behintzat. Ondorioz, antropologoei Frazerrek asmatu bidetik barrena eztabaidatu behar izan zuten, kodigo haren arrasto nagusiak horiexek izanik:

Tabu gaiaren ildotik saiatuen aritu zena Freud izan zen Totem eta tabu (1913) liburuan, izenburu txikiz “Neurotikoen eta jende basatien arteko bizitza psikikoaren antza” zeraman liburuan, alegia. Frazerrek ireki omen zion pista, primitiboa zikinkeriak kutsa dezakeen arriskuaz axolaturik bizi omen delakoan:

“Lehen gizarteetan, erregeek, buruzagiek eta apaizek bete beharreko zeremoniako garbitasun-arauak bat datoz alderdi askotan giza hiltzaileek, ehorzleek, emakume erdituek, lehen hilekoa izan duten neskek, ehiztariek, arrantzaleek eta abarrek gordetako arauekin. Guri pertsona-mota anitz horiek, izatez eta egoeraz guztiz desberdinak direla iruditzen zaigu; batzuei santu deituko genieke, beste batzuei bekatari eta kutsatu. Baina basatiak ez du halako bereizketa moralik egiten haien artean; santutasunaren eta kutsaduraren ikusmoldeak oraindik ez dira banandu haren gogoan. Harentzat, pertsona guztiok dugu ezaugarri bikoitz hau: arriskutsuak gara eta arriskuan gaude, eta arrisku horri, guk besteei edo besteek geuri gaineratutakoari, espiritual edo mamuzko eta, beraz, irudimenezko deituko genioke. Arriskua ordea, bene-benetakoa da irudimenezkoa izan arren; irudimenak grabitateak bezain seguru hil dezake. Pertsona horiek beste guztiengandik apartatzea (arrisku espiritual beldurgarri horrek atzeman ez ditzan eta haiengandik barreia ez dadin), horixe da bete behar dituzten tabuen helburua. Tabu horiek, nolabait esan, elektrizitate-isolatzaileen gisan jarduten dute, pertsona horiek duten indar espiritualak minik hartu edo egin ez dezan kanpoko munduarekiko harremanetan¹”.

Baina psikoanalisiaren historia klinikoak erakusten omen zion Freudi tabua eta obsesiozko neurosia antzekoak zirela. Gauza ezaguna da gorputza ukitzeak plazer handia ematen diola haurrari, baina grina hori laster asko galarazi egingo zaio; haurrak hori onartu egiten omen du, bere debekutzailea maite egiten duelako. Baino grina ez da ordea deseginik gelditzen, inkontzientean gordeta baizik, eta honi omen dario fijazioaren egoera bikoitza: galarazitakoaren eta grinaren arteko gatazka larri bat. Tabua, beraz, grina inkontziente handiegitxoa pizten duen ekintza debekatua baino ez da. Eta Frazerrek dakartzan hiru tabu-mota aztertu ondoren, primitiboaren sentimenezko bizitzak neurotikoen bikoiztasun berbera azaltzen duela dio Freudek. Gure kulpazko moralitasuna ere angustia berberaren ispilu besterik ez litzateke, “inor ez duzu hilko” agintzen zaigun hori adibidez, norbait erailtzeko gogoia edukitzea baita. Arteia histeria litzateke funtsean, satisfazio huts batean amiltzen den zerbait; erlijioa, berriz, obsesiozko neurosi bat, libidoa gurasoengan finkatzen dabilen aldikoa. Zientzia plazerari nahita uko egitea litzateke, errealitatea nolabait atxikitzea.

Totemismoari, berriz, Durkheimen eta Freuden berek heldu zioten, funtzionalistek geroago, baina Levi-Strauss dago azken kolpea berak eman diolakoan, Frazerren iritziz, ba omen da gune sozial bat totemismoan, hau da, naturako espeziekin ustezko gizatiar lotura exogamiazkoa, klanari datxekiona alegia. Beste une psikologikoa ere ba omen da, ahaidetasuna alegia, sakramentua nolabait bideratzen duen horixe; eta erritozko gune magiko bat ere bai omen, gizakumeari errespetuzko jokaerak eragiten dizkiona:

“Baina basatiak bere buruari animalia baten izena ematen dionean, anaia deitzen dionean eta akabatu nahi ez duenean, esaten da animalia hori haren totema dela. Beraz, aztertu ditugun Australiako hego-ekialdeko tribuetan, saguzarra eta hontza, txepetxa eta lezkaria, sexuen totemtzat har daitezke. (...) Askoz arruntagoa da totema sexu bati ez baina klan bati egozte, eta gizonezkoen lerrotik edo emakumezkoenetik oinordetzea.

¹ Kurtsibaz daude neronek azpimarratu nahi nituzkeen esaldiak.

Norbanako baten eta klaneko totemaren arteko erlazioa ez da desberdina beraren eta sexuaren totemaren arteko erlazioa ez da desberdina beraren eta sexuaren totemaren arteko erlazioa ez da desberdina beraren eta sexuaren totemaren arteko erlazioa ez da desberdina beraren eta sexuaren totemaren artekoarenetik; ez du akabatuko, anaiatzat hartzen du eta bere izenez deitzen dio. Hala bada, erlazioak berdinak badira, batarentzat balio duen azalpenak balio behar luke bestearentzat ere. Beraz, klan batek animalien edo landareen (zeren eta landare bat ere izan baitaiteke klanaren totema) espezie jakin bat begiramenez hartzeko, haren izena ere hartzeko duen arrazoa, sineste bat litzateke: klaneko norbanako bakoitzaren bizia espezie horretako animalia edo landare batekin lotuta dagoela, eta gizon edo emakume horren heriotza animalia hori akabatzearen edo landare hori desgitearen ondorio dela. Totemismoaren azalpen hori oso ondo egokitzen da G. Greik Australiako mendebaldeko totem edo kobong batez ematen duen definizioarekin. Honela dio: “Halako lotura misterioitsu bat dago familia baten eta bere kobongaren espezieko animaliarik, ezta lo aurkituko balu ere; hil, beti hiltzen du beldurrez, eta inoiz ez ihes egiteko aukeraren bat eman gabe. Hori familiaren sineste batetik dator, espezie horretako norbanakoren bat bere lagunik minena dela, eta hura hiltzea krimen handia litzatekeela, kontu handiz saihestu beharrekoa alegia. Era berean, kobongtzat landare bat duen natibo batek ez du hura bilduko zirkunstantzia jakin batzuetan, eta urteko aldi jakin batean”. Hemen ohartu beharra dago ezen, nahiz eta gizon bakoitzak espezieko animalia edo landare guztiak errespetatzen dituen, denak ez zaizkiola neurri berean preziatu; oso bestela da: espezie osoa ez baina bat bakarra zaio bereziki kutuna; baina kutun hori zein den ez dakienez, behartuta dago denak errespetatzera, hura zauritzeko beldurrez. Orobat, klanaren totemaz emandako azalpen hori egoki dator totem espezieko bat hiltzeak ustez dakarren ondorioarekin”.

Horren kontrako joera antiintelektualista bat bururatu zuen Durkheimen bere Erlijio bizitzaren eraketarik xeheena (1912) liburuan. Totemari zaion errespetua sinbolo hutsa dateke, gizarteak bere burua islatzeko edota jainkotzat hartzeko. Erlijiorik xeheenean (totemismoan alegia, Durkheimen ustez) beste erlijio guztietako mamia atzematerik izango genukeen, hor garbi ikusten baita herriak bere burua jainkotiar bihurtzen duela eta gizarteak bere burua baizik ez duela gurtzen erlijioaren aitzakiaz: hori guztia solidaritatea bermatu eta elkarrekiko loturak sendotzearen hain zuzen ere, omen. Mezu horri gehiegitxo iritzita, funtzionalismoak uste izango du animalia errespetuz begiratzea balore sozial hutsa dela, mahaian jateko ona den seinale, inondik inora. Malinowskik garbi adierazi zuen lehen aipatu liburuan idatzi zuenean “laburra da basotik tripara daraman bidea, eta laburragoa, tripatik basajendearen adimenerainokoa”. Levi-Straussek, Totemismoa gaur (1962) liburuan, animalia ona da baina ez “jateko ona” delako, baizik ongi pentsarazten duelako. Gizakumea eta gizarteak ez ezik, munduko beste gauza guztiak ere sailkatu eta kategoriatan banatzeko proposa omen da animalia; estrategia intelektual hutsa litzateke erlijio nahiz magiazko prozedura. Frazer bizi izan balitz, estrukturalismoaren proposamen dotore hori onartzea ez zitzaion askotxo kostatuko, basatia eta gu logika bakar baten atzetik ibiliko ginatekeelakoan.

Estatuaren sorrera magia-erlijioz eragindako zerbait dela esatea da, akaso, gaurko antropologoek zalantzan ez duten ia gauza bakarra. Nemi santutegi hartako apaiz-errege haren gorabeherari buruzko intuizioari esker, Frazer oso gaurkotua dugu. Bistan da, magia-gizon lotsagabearen karikatura frazertarra ez da inorentzat onargarri gaurgero:

“Baina horrez gain, gizarte basatian bada magia publikoa dei genezakeena ere, hau da, gizarte osoaren onerako egindakoa. Mota horretako zeremoniak denon mesedetan egiten

direnean, argi dago magia-gizona ez dela mediku pribatua, baizik eta funtzionario publiko bihurtzen dela nolabait. Halako funtzionarioen jarduera oso garrantzitsua da gizartearen bilakabide politiko zein erlijiosorako. Tribuaren ongizatea errito magiko horiek burutzearen menpe dagoela uste denean, magia-gizonak eragin edo ospe handia izaten du, eta erraz lor ditzake buruzagiaren edo erregearen maila eta agintea. Lanbideak, beraz, tribuko gizon abil edo anbiziotsuenetako batzuk erakartzen ditu, beste edozein lanbidek nekez eskainiko dien ohorea, aberastasuna eta boterea lortzeko itxaropenez. Buru azkarrekoek sumatzen dute zein erraza den hurko ahulagoa liluratzea, eta beren alde erabiltzen dute superstizioa”.

Gizarte eta natura ikuspegi bakar batez ikusmiratzen dituen mundu-ikuskizun orokorra da subiranotasun politikoa Frazerren ustetan, maiztxo erregeak (Afrikako Yoruba, Ashanti eta Evetarren artean) euri-egile direla ikusi eta gero. Boterea sakratutasun-zoru gainean datzala badio Frazerrek

“(…) Aurreko testigantzen arabera, onar genezake lurralde eta arraza askotan magiak naturako indar handiak gizakiaren mesedetan kontrolatu nahi izan dituela. Hala izan bada, arte horretan jardun dutenek garrantzizko eta eraginezko pertsonaiak izan behar izan zuten, nahitaez, haien asmo bitxiei fede eman dien edozein gizartean, eta ez litzateke harritzekoa, inola ere, duten ospearen eta sorrarazten duten errespetuaren kariaz, haietako batzuk aginte gorenera iristea beren kide sinesberen gainetik. Izan ere, badirudi magia-gizonak sarritan bihurtu direla buruzagi eta errege”.

Gauza berbera dio L. de Heusch antropologoak, gure egunotako Afrikako estatu tradizionalak aztertu dituenak, Boterea eta sakratutasuna (1962), Errege mozkorra eta Estatuaren sorrera (1972) eta Behiaren bihotzean sortutako erregeak (1982) liburuetan: biolentzia eta begirunea biak batera omen daude subiranotasun horietan, indarra alde batetik zeren “ni naiz ahalguztiduna” erantzuten baitu subiranoak gerrari gisa (magia-apaiz gisa, Frazerren hiztegian), baita “zuek, herritarrok, onartu egiten nauzue” ere (jainko-apaiz gisa), oinarri juridikoak adieraziz.

G. Dumézil jakitunak, Frazerrek darabilen Erromako Dianus/Diana mito indoeuropar hura aztertuz (Mitra, Varuna: subiranotasunaren bi aurkezpen indoeuropar, 1948; Mito eta epopeia, 1973) Erromako boterea regnum (Mitra) eta flaminium (Varuna) artean banatua zegoela frogatzen du, gizabanako berezi baten indar gainean, baita, aldi berean, gizarte osoaren gainean ere. Politikako hizkuntzara itzulita, Romulus heroiaeren celeritas legoke batetik eta Numa legegizonaren gravitas bestetik. Ez zebilen oker Frazerren galdera:

“...askotan eta askotan, betekizun sakratuen eta errege-tituluaren arteko batasun bera, Nemiko Basoko Erregeagan, Erromako Errege Sakrifizialagan eta Errege deitutako Atenasko Magistratuagan topatu duguna, eta maila guztietako gizartearen ezaugarri komuna dela, barbarotasunetik zibilizazioraino. Gainera badirudi errege apaiza, izenez ez ezik, izatez ere errege dela maiz, eta berdin darabiltzala erregearen eta pontifizearen aginte-makilak. Horrek guztiak berretsi egiten du antzinako Grezia eta Italiako errege sekularren eta apaiztarren jatorriari buruzko ikuspegi tradizionala, besteak beste, tradizio greko-latindarrak botere espirituala eta sekularra konbinatuta zeudeneko oroitzapena gorde duelako, eta konbinazio hori berez leku askotan izan dela erakutsiz, baztertu egin ditugu tradizioari erants zekizkiokeen gezur-susmo guztiak. Beraz, orain arrazoi osoz galde dezakegu honako hau: ez ote du izan Basoko Erregeak, tradizio

egiantzeko batek Erromako Errege Sakrifizialari eta Atenasko Errege Sekularrari egozten dien jatorriaren antzekoa?”

Erritoaldietan “ez zeru ur lur” ezartzen dela gizakumea, berori beste norbait berri bilakatzearen, derrigorrezko eta oinarrizko gaia bihurtu da Antropologian. Frazerren intuizio hori gorpuzten lehena A. Van Genep izan da, Pasako erritoak (1909) liburuan muga beroaren sarrera, egoera eta irteera aztertuz. Gure egunotan, besteren artean V. Turner (Sinboloen basoa, 1980; Erritoen prozedura, 1988) da bereziki erritoari dagokion ezaugarri horri heldu diona, Ndembu afrikarren artean nola neskamotza emakume bihurtzen den, nola mutil koskorra gizon, jaioberria gizakume, hildakoa inor ez edo beste norbait agian, eta abar adieraziz. Gaurko gure gizartean bertan liminaltasun erritualetik zertxobait baino gehiago badagonez, soldaduska bera “ez zeru ez lur” muga antzeko bat badela frogatu de J. Zulaikak, Txiboak eta soldaduak (1984) azterketan.

Magiari zegokion ikerketan sinpatiazko eta kontaktuzko psikologia frazertar harenik ezer onartu gabe ere, jokaera bikoitz berbera badagoela haur afasikoengan frogatu dute. R. Jacobson eta M. Halle jakitunek, Hizkuntzaren oinarriak (1974) liburuan, paradigmazko afasia eta sintagmazkoa bereizi dituztela. Frazerren magia-nozioa, beraz, metafora eta metonimia darabiltzan joko erretorikoan uler genezakeela bideratuta dago, horietxek baitira paradigmazko/sintagmazko harreman semantikoak dakarzkigutenak. Antropologian, neronek adibidez baserritarraren nortasunari dagozkion ikerketetan: Euskal nortasunaren animaliak (1989) eta Izendu eta sorgindu (1993) liburuetan totemismo eta sorginkeria izenez ezagutuak izan diren nozioen zentzu ona erakutsi nahi izan dut. Aker erru-jasalea nozio frazertar berau erabili du orain gutxi R. Girard irakasleak (Boterea eta sakratutasuna, 1989) munduan zehar, atzo eta gaur, beti horixe izan balitz bezala erakunde etiko, juridiko eta politikoko guztien iturburu.

Adibide horietan ikus daitekeenez, kodigo frazertarrak ez dirau, hark Urrezko abarra-n utzi bezala behintzat, baina etnozentrismoa ez da horratik desagertu Antropologian. Eboluzionismoa nolabait baztertu ondoren, “primitibo” ez da jadanik esaten, baina esaten da “gu ez besteak”. Nola “beste horiek” ez nortasun zibilez ezta gizabanakoz gizabanako ere bereizten ez diren, denentzat zaku bat badauka prest Antropologiak Ahaidegoaren antropologia izen txukuneko. Nola eta “magiazko” erakundeek adieraziko luketena bere testuinguruan ulertu behar den eta dirudien ez beste zerbait adierazten duen, Antropologia sinbolikoa eratu da. Nola eta Estaturik gabe diren, horra hor Antropologia politikoa “beste horientzat”. Nola eta ekonomia harremanak logika eta arrazoirik gabe erabiltzen dituzten, odolezko loturak eta sexu gorabehera xelebreak direla medio, gure Antropologia ekonomikoak gu-ez-beste-denak ikertzen ditu batera. Gabeak direlakoan eraiki izan ditugu “beste horiek” guztiak, zientziarik gabeak ez noski, baina bai gure logikarik gabeak. Frazer jo zuen gaixotasunak berak jota ginateteke geu ere, baina hori guztia beste bidaia bateko hausnarketa da, eta horretan ere orobat “urtea bere ondora” izango delakoan egon.

Mikel AZURMENDI

sarrera

Liburu honen lehen asmoa Ariciako Dianaren apaizgoaren oinordetza arautzen zuen legea azaltzea zen. Arazo hau argitzeko erabakia hartu nuenean, orain hogeita hamar

urte baino gehiago, soluzioa berehala aurkeztu ahal izango nuelakoan nengoen, baina laster ohartu nintzen beste hainbat arazo orokor jorratu beharra zegoela, batzuk aurrez azaldu ere egin ez zirenak, haren nondik-norakoa sumatzeko eta era ulergarriaz interpretatzeko. Harrezkeroko argitalpenetan, gai hauen eta hauekin lotutako azterketak gero eta leku gehiago hartu du; ikerketa gero eta norabide gehiagotan adarkatuz joan da, harik eta jatorrizko obraren bi tomoak hamabira hedatu arte. Aldi berean, liburua laburbilduta argitaratu nahi dutela adierazi didate. Honako laburbilduma hau nahi hori betetzeko eta, bidenabar, obra irakurlego zabalagoaren eskumenean jartzeko saioa da. Liburuaren tamaina nabarmen txikiagotu den arren, ideia nagusiei eusten saiatu naiz, berauek behar bezala argitzeko adina adibiderekin batera. Jatorrizkoaren hizkuntza bere hartan mantendu da gehienez, nahiz eta han-hemenka azalpena zertxobait trinkotu dudan. Testutik ahalik eta gehien gordetzeko, ohar guztiak kendu ditut, eta haiekin batera autoritateen erreferentzia zehatz guztiak ere bai. Edozein baieztapenen iturria aztertu nahi duten irakurleek obra handira jo behar dute, erabat dokumentatuta eta bibliografia osoaz hornituta baitago.

Laburpenean ez dut material berririk gehitu, ez azken argitalpenean adierazi nituen kontzeptuak aldatu, zeren eta orduz geroztik iritsi zaizkidan datuak, ia beti, aurreko konklusioak berresteko izan baitira, edota emandako legeak adibide berriz hornitzeko. Esaterako, erregeei, epe jakin baten buruan nahiz osasuna edo indarrak gainbehera hasten zitzaizkienean, herio-zigorra ezartzeko ohitura funts handikoari dagokionez, erruz ugaritu zaizkigu denboraldi honetan usadio horrek zabal iraun duela erakusten duten adibideak. Horrelako monarkia mugatuaren kasu harrigarri bat aurkitu dugu khazartarren Erdi Aroko erresuma boteretsuan, Errusiako hegoaldean: hil egiten zituzten erregeak nahiz epe jakin baten buruan nahiz hondamendiren batek -hala nola lehortekak, eskasiak edota gerra-porrotak- berezko boterea agortu egin zitzaizela adierazten zuenean.

Beste nonbait¹ eman dut khazartarren errege-hilketa sistematikoaren berri, antzinako bidaiari arabiarren kontakizunetatik aterata. Afrikak ere eman dizkigu errege-hilketaren antzeko usadioaren zenbait adibide, eta horien artean nabarmenena, garai batean Bunyoron ikusitako ohitura dateke: klan berezi batean trufa-errege bat aukeratzen zuten urtero, hildako erregea harengana haragiztatzen omen zela-eta, eta alargunekin bizi izaten zen tenplu/hilobian; astebetez errege izan ondoren, irato egiten zuten². Ohitura honek antz handia du Sacaea izeneko jaialdi babiloniar zaharrarekin: errege-arropaz janzten zuten trufa-errege bat, benetako erregearen ohaideez gozatzen uzten zioten eta, bost egunez errege izan ondoren, biluztu, zigorkatu eta hil egiten zuten. Jaialdi hau, bestalde, asiriar inskripzio batzuek³ egiaztatu dute aspaldi ez dela, eta uste dut aurrez eman dudan jaialdiaren interpretazioa bermatzen duela, alegia Urte Berriko ospakizun gisa eta judutarren Purim jaialdiaren jatorri gisa⁴. Ariciako errege apaizen beste parekide batzuk, berriki aurkituak, zazpi urteren edo bi urteren buruan hiltzen zituzten afrikar apaizak eta erregeak ditugu; denboraldi horretan zehar erregea edo apaiza gizon indartsu batek eraso eta hiltzeko arriskupean egon ohi zen, eta berau izaten zuen oinordeko apaizgoan edo erregetzan⁵.

Antzeko ohituren adibide hauek eta beste batzuk aurrean ditugula, Ariciako Dianaren apaizen oinordetze-araua ez dago salbuespentzat hartzerik; oso hedatua den instituzio baten adibide da. Instituzio honen kasu ugariak eta antzekoenak, orain arte, Afrikan aurkitu dira. Ez daukat esaterik egintza hauek noraino frogatzen duten Italiak aspaldi batean afrikar eragina izan zuela, edota Europako hegoaldean populazio afrikarra izan ote zen. Bi kontinenteon arteko historiaurreko harremanak ilun daude oraindik, eta ikergai dira.

Eskaintzen dudan interpretazioa zehatza den ala ez, geroak esan beza. Hoberik ematen bazait, beti egongo naiz nire hau uzteko prest. Bien bitartean, laburbilduma hau jendearen epaipean jartzean, beronen nondik-norakoaren interpretazio oker baten kontra ohartarazi nahi dut, oraindik ere sarri gertatzen bide baita, nahiz lehenago ere zuzentzen saiatu naizen. Obra honetan zuhaitzen gurtzaz luze samar aritu banaiz, ez dut hala egin, horretan nago behintzat, erlijioaren historian duen garrantzia exajeratzeagatik, are gutxiago hortik mitologi sistema osoa ondorioztatu nahi dudalako, ezikusia ezin egin diodalako baizik, besterik gabe: Basoko Errege titulua zuen apaiz baten esanahia azaltzen saiatu behar izan dut; kargu horri eustekotan, bere betebeharratarik bat abar bat erauztea baitzuen, baso sakratuko zuhaitz baten urrezko abarra. Baina oso urrun nago zuhaitzekiko begirunea erlijioaren bilakaerarako garrantzi ezin handiagokotzat jotzetik; bilakaera hori beste faktore batzuen menpe egon dela uste dut, batez ere hildakoenganako beldurraren menpe. Beldur hau indarrik handiena izan da, nire ustez, lehen erlijioen eraketan. Espero dut argi eta garbi egindako ukapen honen ondotik ez didatela leporatuko faltsutzat ezezik, irrigarri eta burugabetzat ere badaukadan mitologi sistema baten alde egotea. Baina okerraren hidra ezagunegia dudanez, ez daukat itxaroterik mustroaren buruetarik bat moztuz gero beste bat sortuko ez denik. Irakurleen zintzotasunaz eta adimen argiaz fidatzea besterik ez daukat, nire ikuspuntuen eragabetze handi hau adierazpen argi eta garbi honekin alderatuta zuzenduko delakoan.

J. G. FRAZER

I Brick Court, Temple,
Londres, 1922ko ekaina

Longior undecimi nobis decimique libelli
Artatus labor est et breve rasis opus.
Flura legant vacui.
Martzial,

XII

5

I

Basoko Erregea

1. Diana eta Virbio

Nork ez du ezagutzen Turnerren "Urrezko Abarra" izeneko koadroa? Ikuskizuna, artistaren irudimen jainkozkoak parajerik ederrena ere biltzen eta antzaldatzen zuen distira urre-kolorez blai, Nemiko basoko aintziraren ikuspen amets-itxurakoa da, antzinakoek "Dianaren ispilua" deitu zioten harena. Albano muinoen arteko sakon berdean sehaskatutako ur geldiei so egon denak ezin ahaztuko du. Hegietan lokartutako bi herrixka italiar petoek eta jauregiak, zeinen lorategi mailakatuak lakuraino jaisten diren, apenas hausten duten ikusmiraren barea eta bakardadea. Diana bera ere han dateke oraindik, ur-ertz bakarti hartan. Oraindik ere ager liteke basotza hartan.

Antzinatean, oihan-bazter hau tragedia bitxi eta errepikatuaren gertaleku izan zen. Lakuaren iparraldeko ertzean, gaurko Nemi herrixka zintzilikatzen den amildegia azpi-azpian, Diana Nemorensis edo Basoko Dianaren zuhaizti sakratua eta jainkotezia zeuden. Lakuari eta zuhaiztiari, batzuetan, Ariciako lakua eta zuhaiztia deitu zieten, nahiz eta izen horretako herria (gaur egun La Riccia), Albano mendiaren oinetik bost bat kilometrora egon, aldapa batek lakutik bereizten zuela; laku hori krater moduko hutsune batean datza, mendi-hegalean. Zuhaizti sakratu horretako zuhaitz baten inguruan, irudi zoribeltzeko bat ibiltzen omen zen egun osoz eta, beharbada, gau berandura arte. Eskuan ezpata biluzia eraman ohi zuen, ingurukoei erne zelatan, etsairen batek noiz erasoko ote zion edo. Beilaria apaiz eta hiltzaile zen aldi berean; eta bera hilko zuena ere etorriko zen, lehentxeago edo geroxeago, eta apaiz-lekuan ordezkaturiko zuen. Halakotxea baitzen jainkotezia hartako araua: apaiz izan nahi zuenak apaiza hil beharra zeukan, eta hura hil ondoren kargua bereganatzen zuen, harik eta beste indartsuago edo trebeagoren batek bera hil arte.

Hain badaezpadako bizibideak errege titulua ematen zion, baina, ziurrenera, ez da izan hark baino gaizkiago deskantsatu duen erregerik, ez amesgaizto gaiztoagoek bisitatu dutenik. Urtez urte, uda nahiz negu, eguraldi onez zein txarrez, bere goardiari lotu beharra zeukan, lokartzeko beldurrez beti, lo zegoenean bizia galtzeko arriskuan jartzen baitzen. Beilan arreta txikiena galtzeak, bere indarrak edo trebetasun-pixka bat galtzeak, arriskutan jartzen zuen; lehen ile urdinek herio-epaia adieraziko zioten. Hura ikusteak paisajea ilunduko zien jainkotezira joaten ziren erromes apal eta otoitzaleei, egun argian eguzkia estaltzen duen hodeiak bezala. Italiako zeru urdin zoragarria, basoetako argitzalak eta eguzkipeko uren dizdiza ez ziren bat etorriko irudi ikaragarri zorigaiztoko harekin. Hobeto irudika genezake ikuskizuna ibiltari berandutu batek udazkeneko gau ilun horietako batean ikus zezakeen moduan: hostoak etengabe erortzen dira, eta badirudi haizeak hil-otoitza kantatzen diola azkenetan dagoen urteari. Ikusmira goibela da, musika malenkoniatsua dagokion horietakoa: basoaren beltza hondoan, ortzi ekaiztsu baten kontra ageri dela; haizea abar artean txistuka, orbelak hankapean dagien karraska, ur hotzaren talasta lakuaren ertzak zigortzen, eta aurrealdean, hara eta hona ilunabar goibelean, irudi iluna ageri da, distira altzairuzko ilargi zurbilak, laino artetik kirika, bere argia abartza trinkoan zehar iragazten duenean.

Apaizgo honen arau bitxi honek ez du parerik antzinate klasikoan, eta han ezin aurkituko diogu argibiderik. Beste norabait jo beharko dugu azalpen bila. Inork ez du ukatuko, noski, ohitura honek garai barbaroetako kutsua duenik eta, inperioaren garaian ere bizirik zirauelarik, italiar gizarte jantzi hartatik oso isolaturik irauten zuela, lorategiko belar ondo ebakiaren artean azaltzen den haitzaren antzo. Ohituraren zakarrari eta ankerrari esker dugu, hain zuzen, azalpena emateko itxaropena. Gizakiaren lehen historiari buruz berriki egindako ikerketetan ageri denez, giza gogoak, funtsean

berdintsu oratu eta eratu du, axaleko desberdintasun ugari gora-behera, bizitzaren filosofia, lehen filosofia gogorra. Ondorioz, baldin eta erakusten badugu beste toki batzuetan ere izan zela Nemiko apaizgoaren antzeko ohitura barbarorik; baldin eta aurkitzen baditugu bera ezartzeko arrazoiak; baldin eta frogatzen badugu arrazoi horiek eragin zabala, unibertsa agian, izan dutela gizartean, hainbat instituzio desberdin baina oro har antzeko sorraraziz, tokian tokiko zernolakoan arabera; azkenik, baldin eta frogatuko bagenu arrazoi horiek eta berorietatik eratorritako instituzio zenbait bizirik zirautea antzinate klasikoan; orduan eta horrenbestez, bidezkoa genuke ondorio hau: aspaldi batean arrazoi berberak sorrarazi zutela Nemiko apaizgoa ere. Ondorio hori, apaizgoa nola sortu ote zen froga zuzenik izan ezean, ezin frogatuko da inoiz, baina zenbat eta hobeto bete seinalatu ditugun baldintzak, hainbat eta egiantz handiagoa izango du. Lan honen xedea horixe da: baldintza horiek bildu eta Nemiko apaizgoaren azalpen argi eta egiantzekoa eskaintzea.

Gai hau dela-eta iritsi zaizkigun egintza eta legenda urriak aurkeztuz hasiko naiz. Tradizio baten arabera, Nemiko Dianaren gurtza Orestesek ezarri zuen; Orestesek, Kersoneso Taurikoko (gaur egungo Krimeako) errege zen Toante hil ondoren, arrebarekin egin zuen ihes Italiara, eta Diana Taurikoaren irudia ekarri zuen egur artean ezkutaturik. Hil zenean, haren gorpua Ariciatik Erromara eramán zuten, eta Kapitolioko hegian ehortzi, Saturnoren tenpluaren aurrez aurre, Gogaidetasunaren tenpluaren ondoan. Autore klasikoak irakurtzen dituztenek ondo ezaguna dute legenda hau Diana Taurikoarekin lotzen duen erritual odoltsua: ur-bazter hartara iristen zen atzerritarra sakrifikatu egiten omen zuten jainkosa haren aldarean. Baina Italiara eramánik, erritoak itxura emegoa hartu zuen. Nemin, jainkotegiaren barruan, bazen zuhaitz bat abarrik hautsi ezin zekiokkeen; hori ihes egindako esklabo bati eta ez besteri zegokion, ahal bazuen behintzat. Saioa ondo burutzeak apaizarekin buruz buru borrokatzeko eskubidea ematen zion eta, hiltzen bazuen, haren lekuan jartzen zen Basoko Errege titulaz (Rex Nemorensis). Antzinakoek uste zutenaren arabera, zorioneko abar hura Urrezko Abarra zen, Eneasek, Sibilak aholkaturik, Hildakoen Etxerako bidaia arriskutsuari ekin aurretik erauzi zuena. Esklaboaren ihesak Orestesen ihesa irudikatzen omen zuen, eta apaizarekiko borroka Diana Taurikoari eskainitako giza sakrifizioen aztarna omen zen. Inperioaren garairaino eutsi zioten ezpata bidezko oinordetze-lege horri, baina Kaligulak, beste hainbat erokeriaren artean, pentsatu zuen Nemiko apaiza denbora luze zegoela bere postuan eta gizatxar indartsuagoa sobornatu zuen hura hil zezan. Bidaiari greko batek, antoninotarren garaian Italian ibiliak, berresten digu bere denboran, artean, apaizgoa buruz buruko borrokan irabazten zela.

Nemiko Dianaren gurtzak zuen beste zenbait ezaugarri nagusi ere atera daitezke oraindik. Han aurkitutako zinpeko eskaintzetan azaltzen denez, ehiztaritzat omen zeukaten hura, eta gainera gizon eta emakumeak seme-alabaz betetzen omen zituen, eta berari esker haurdunak zoriontsu erditzen omen ziren. Orobat, badirudi suak zeregin garrantzitsua zuela haren erritualean, zeren eta, urtero abuztuaren 13an ospatu ohi zen jaian, urteko sasoirik beroenean, basotxo zuzi ugariz betetzen baitzen, haien distira gorrixkak lakuan islatzen zirelarik. Egun hura errito sakratuz ospatzen zen italiar lurralde osoko etxe guztietan. Esparru hartan brontzezko estatuak aurkitu dira: jainkosa eskuineko esku jasoan zuzia duela. Erreguen erantzuna jasotako emakumeak ere lore-sortaz koroaturik eta zuzi irazekiak eskutan etortzen ziren jainkotegira, zin egindakoa betetzera. Ezezagun zaigun norbaitek lanpara beti irazekia eskaini zuen Klaudio enperadorearen eta haren familiaren alde, Nemiko kaperatxo batean. Beharbada, jende pobreak ere xede berberaz baliatu zituen buztin egosizko lanparak. Hala izan bazen, agerian legoke ohitura honen eta elizetan bedeinkatutako kandelak eskaintzeko ohitura katolikoaren arteko analogia. Gainera, Dianak Nemin zuen Vesta

izenak argi adierazten du haren jainkoteagian beti piztuta edukitzen zela su sakratua. Tenpluaren iparrekialdeko angeluan dagoen plataforma zirkular handi batek, hiru mailaren gainean eta mosaikozko harzolaaren aztarnekin, Dianak Vesta izenez zuen tenplu biribil bati eutsi bide zion, Erromako Foruko Vestaren tenplu biribilaren antzeko tenplu bati, hain zuzen. Vestaleek zainduko zuten sua, bertan vestale baten buztin egosizko burua aurkitu baitzen, eta badirudi birjina sakratuek zaindutako betiereko suaren gurtza gauza arrunta izan zela Lazion lehen garaietatik azkenetaraino. Gainera, jainkosaren urteroko jaian, koroaz apaintzen zituzten ehiza-zakurrak eta ez zen esesten piztiarik. Gazteriak haren ohorezko zeremonia garbitzailea izaten zuen; ondoren, ardoa ekarri eta oturuntza egiten zen: antxumea, opil sutatik atera berriak hostozko ohantze batean ipinita, eta sagarrak, artean arbola-abarretatik sortaka zintzilik.

Baina Diana ez zen bakarra Nemiko basoan; beste bi jainko apalago ere partaide zituen jainkoteagi menditar hartan. Bat Egeria zen, basaltozko haitzen artetik borborka irten eta, Le Mole deritzan lekuan (egungo Nemi herriko errota han ipini dituztelako), jauzi meheetan erortzen diren ur gardenetako ninfa. Ovidiok aipatzen du korronteak legarrezko ubidearen gainean egiten duen murmurra, ur haietatik sarri edaten zuela kontatzen digularik. Andre haurdunek sakrifizioak egin ohi zizkioten Egeriari, hau ere, Diana bezala, erditze zoriontsua emateko gai zelakoan. Tradizioak dioenez, ninfa hura Numa errege jakintsuaren emazte edo maitale izana zen, eta berarekin egon zen zuhaizti sakratuko misterioan, eta erregeak erromatarrei eman zizkien legeak jainkosak iradoki zizkion, beren harremanak bitarte. Plutarkok jainkosen eta gizaki hilkorren arteko amodioen beste istorio batzuekin konparatzen du legenda hau, hala nola Zibelesek eta Ilargiak Atis eta Endimion gazte ederrekin izandako amodioekin. Beste autore batzuen arabera, maitaleen elkartokia ez zegoen Nemiko basoan, Erromako Porta Capenaren ingurumarietako zuhaizti batean baizik; beste iturri bat sortzen zen han, Egeriari sagaratua hura ere, leize ilun baten barrualdetik. Egunero, eta Vestaren tenplua garbitzeko, erromatar vestaleek iturbegi hartatik ateratzen zuten ura, eta lozazko pitxarretan eramaten zuten buru gainean. Juvenalen denboran marmolez jantzita zegoen haitza, eta leku santu hura judutar behartsuen jendailak profanatzen zuen, basotxoan babes hartzen uzten baitzitzairen ijitoen antzo. Uste dugu Nemiko lakura isurtzen zen iturbegia zela benetan jatorrizko Egeria eta, lehen kolonoak Albano muinoetatik Tiberreko ibarretara jaitsi zirenean, berekin ekarri zutela ninfa, eta egoitza berria egin ziotela hiritik kanpoko basotxo batean. Esparru sakratuaren barruan aurkitutako bainutegiaren aztarnek eta buztin egosiz egindako gorputz-atalen modelatu askok iradokitzen dute Egeriaren urak gaixoak sendatzeko erabili zirela, eta hauek beren fedea azaldu edo eskerrona aitortu ziotela, beren gorputz-atal gaixoen irudiak eskainiz, oraindik ere Europako hainbat aldetan egin ohi den bezala. Gaur egun ere iturbegiak sendatzeko ahalmenak omen ditu oraindik.

Nemiko beste jainkoxka Virbio zen. Legendak dioenez, Virbio Hipolito zen, heroi greko gaztea, kastua eta ederra, Quiron zentauroagandik ehizatze artea ikasi eta denbora osoa oihanean piztiak ehizatzen ematen zuena, Artemisa birjina ehiztaria (Dianaren parekide grekoa) beste lagunik ez zuelarik. Jainkosarekiko elkarketaz harro, muzin egin zion emakumeen maitasunari. Horrek ekarri zion galbidea, zeren eta Afrodita, muzinak mindurik, harenganako maitasuna eragin zuen bere amaorde Fedrarenagan. Honek, bere errekeritze gaiztoak mesprezatu zitzaizkionean, aita Teseoren aurrean salatu zuen mutil gaztea. Teseok, berriz, kalumnia sinetsi, eta erregua egin zion bere jaun Poseidoni, ustezko irain hartatik arren mendeka zezala. Hala, Hipolito bere zalgurdian paseatzen ari zen batean, Saroniar golkoaren bazterrean, itsasoko jainkoak olatuetatik irtendako zezen oldarkor bat bidali zion. Zaldiak izutu egin ziren, eta gurditik bota eta ostikopean hil zuten Hipolito. Baina Diana, mutil hari zion maitasunak

eraginik, Eskulapio sendagilea limurtu zuen, hark bere sendagaiez ehiztari eder gaztea berpiz zezan. Jupiterrek, haserre bizian gizaki hilkor xume batek heriotzaren ateak berriz iragan zituelako, Hadesera jaurti zuen sendagile sarkina, eta Dianak, bere gogokoa jainko suminduagandik libratzeko, laino lodi batean ezkutatu zuen, itxura zahartu zion eta, Nemiko ibarxketaraino urrun eramanez, Egeria ninfaren esku utzi zuen, ezezagun eta bakarti bizi zedin, Virbio izenez, Italiako oihañen sakonean. Hango errege izan zen, eta bertan egin zion esparru bat Dianari. Haren seme ederrak, Virbio izeneko hura ere, aitaren patuagatik batere errezelarik gabe, zaldi bezatu gabeek tiratutako gurdia gidatu zuen, latindarrekin bat eginda, Eneas eta troiarren kontrako gerran. Nemin bakarrik ez, beste hainbat lekutan ere jauretsi zuten Virbio jainkoa. Badakigu Campanian apaiz bat zuela bere zerbitzupeko. Zaldiek ekarri baitzioten heriotza Hipolitori, debekatuta zeuden Ariciako oihañean eta jainkotegian. Haren irudia ukitzea debekatuta zegoen. Batzuek uste zuten eguzkia zela. "Baina egia haxe da -dio Serviok-, Virbio Dianarekin lotutako jainkoa dela, Atis ere Jainkoen Amarekin lotuta dagoen bezala, Eriktonio Minervarekin eta Adonis Venusekin". Laster arakatuko dugu nolakoa ote zen lotura hori. Hemen seinatu beharra dago pertsonaia mitiko honek, bere ibilbide luze eta aldakorrean, setatsu eutsi ziola biziari. Egutegi erromatarreko San Hipolito, abuztuaren 13an zaldiek herrestan eramana eta hila, Dianaren egun berean alegia, izen bereko heroi grekoa bera da ezbairik gabe: bekatar pagano gisa bi aldiz hil ondoren, santu kristau gisa zorionez berpiztua.

Ez dugu frogaz zehatz-mehatzen beharrik uste hau izateko, alegia, Nemiko Dianaren gurtzari buruzko kontakizunak ez direla historikoak. Zalantzarik gabe, erritual erlijioso baten jatorria azaltzeko asmatutako mitoen sail zabal horretako da, eta ez dute beste funtsik, ezpada horien eta atzerriko beste erritoren baten artean suma litekeen antza, benetakoa edo irudimenezkoa. Nemiko mitoen desagokitasuna begi-bistakoa da benetan, gurtzaren jatorria batzuetan Orestesengan eta besteetan Hipolitorengan jartzen baita, erritualaren xehetasun hau ala hura azaldu nahiaren gora-behera. Kontakizun horien benetako balioa gurtzaren izaeraz argibideak ematean datza, konparaziorako arau bat ezarri. Gainera, gurtza horren antzinatasun handiaren testigantza dira zeharka, erakusten baitute benetako jatorria alegiazko antzinate baten gauduan galtzen zela. Hau dela eta, Nemiko legendak sinesgarriagoak dira itxura historikoko tradizioak baino. Hauetan, hara zer dioten Katon Zaharraren honek: baso sakratua Tusculumgo Egerio Bebio edo Levio izeneko batek eskaini ziola Dianari, alegia Tusculum, Aricia, Lanuvium, Laurentum, Cora, Tibur, Pometia eta Ardea herrien ordezkari zen diktadore latindar batek. Egia da tradizio honek antzinatasun handia egozten diola jainkotegiari, K.a. 495. urtea baino lehenago fundatu zela erakusten baitigu: urte hartantxe desagertu zen Pometia historiari, erromatarrek zakuratu. Ez daukagu pentsatzerik apaizgo ariciarrarena bezalako arau barbaroa komunitate zibilizatuen liga batek -halakoxea osatuko baitzuten ezbairik gabe latindar hiriek- deliberatuki ezarri zuela. Jendearen oroimenetik galdutako garai batetik etorri bide zen; Italiak, artean, aldi jadanik historikoetan ezaguna zaigun edozein egoera baino primitiboagoa zuenetik. Tradizio honek merezi lezakeen sinesgarritasuna, baieztatu ez baina ahuldu egiten du beste istorio batek, jainkotegiaren sorrera Manio Egerio izeneko bati egozten diotena. Jatorri haxe duke esatera zahar hark, "Manio ugari dira Arician". Norbaitek honela azaldu zuen hau, Manio Egerio sendi luze eta ospetsu baten aurrekoa izan zela; beste batzuek, ordea, Manio izena Mania-tik eratorriz, haurrak ikaratzeko fantasma edo txorimalo batetik alegia, uste izan zuten Arician ugari zebiltzan jende itxuragabe eta higuingeriei zor zitziela esatera hori. Erromatar satiragile batek Manus izena darabil Ariciako hegietan etzanda erromesen zain zeuden eskaleentzat. Iritzi desberdin hauek, Ariciako Manio Egerioren eta Tusculumgo Egerio Levioren arteko ezadostasunekin batera, eta

izen hauek Egeria mitikoarekin duten antzak, susmoak eragiten dizkigute. Hala ere, Katonek gogoratutako tradizioa xehetasunez beteegia iruditzen zaigu, eta beronen aurkezlea errespetagarriegia, ipuin txorua bailitzan baztertzeko. Pentsa dezakegu estatu konfederatuek eraikitako jainkote giaren aspaldiko eraberritze edo berreraikitze bati buruzkoa dela. Nolanahi ere den, sineste baten lekuko da, alegia baso hori, garai aspaldikoenetatik, gurtza-leku izan zela herrialdeko hiri zaharrenentzat, apika konfederazio latindar osoarentzat.

2. Artemisa eta Hipolito

Esan dugu Orestesen eta Hipolitoren legenda ariciarrekin, balio historikorik ez izan arren, badutela garrantzirik, Nemiko gurtza hobeto ulertzen laguntzen digutelako, beste jainkote gietak mito eta erritualekin konparatuz. Eta orain galdera hau egin beharrean gara: legenda hauen sortaileek zergatik aukeratu zituzten Orestes eta Hipolito, Virbioren eta Basoko Erregearen azalpena emateko? Orestesi dagokionez, erantzuna argia da: bera eta giza odolez bakarrik ase zitekeen Diana Taurikoa, apaizgo ariciarreko oinordetze-arau ankerra ulergarri bihurtzeko hartu ziren. Hipolitoren legendari dagokionez, berriz, erantzuna ez da hain erraza. Hala ere, hura hiltzeko erak berehala iradokitzen digu zaldiei basoan sartzen ez uzteko arrazoi bat, baina ez dirudi hori berez aski denik identifikazioa argitzeko. Saia gaitezen, beraz, hala gurtzaren nola Hipolitoren legenda edo mitoaren azterketan sakontzen.

Hipolitok jainkote gi ospetsua zuen arbasoen sorterrian, Trezenen, badia ezin ederrago eta ia itxian kokatua. Laranjondo eta limoiendoen basoek estaltzen dute egun urbazter emankorra mendi zimurren oinean, eta altzifre tantaiaak goratzen dira, dorre ilunen antzo, Hesperideen baratzaren gainetik. Badia lasaiaren ur urdinetan, itsaso zabaletik babestuta, Poseidonon irla sakratua altxatzen da, tontorrek pinuen berdetza itzaltsuan lausotzen direlarik. Hango jainkote giaren barruan tenplu bat zegoen irudi zahar batekin. Apaiz batek hil arte izaten zuen gurtzaren ardura, eta urtero ospatzen zen jaia, sakrifizio eta guzti; dontzeilek lantua izaten zuten urtero haren zoritxar goiztiarregiatatik, eresi triste eta saminez. Mutil eta dontzeilek beren biloetako ile-xerloak eskaintzen zizkioten ezkondu aurretik. Haren hilobia Trezenen zegoen, baina jendeak ez zuen erakusten. Iradoki izan da, eta ez da horretarako arrazoirik falta, Hipolito ederra, Artemisak maitatua, gaztaroko lorean hila eta urtero dontzeilak lantuan jartzen zituena, jainkosen maitale hilkor haietako bat dugula. Antzinako erlijioetan sarri ageri dira halakoak, eta denen artean Adonis da ezagunena. Artemisaren eta Fedraren arteko lehia, Hipolitoren maitasuna zela eta, Afrodita eta Proserpinak Adonisen maitasunaren kausaz izan zuten etsaigoa ispilatuko luke, Fedra Afroditararen parekide hutsa izaki. Teoria hau ondo samar egokitzen zaie Hipolito eta Artemisari, zeren eta Artemisa emankortasunaren jainkosa handi bat izan baitzen jatorriz; eta, antzinako erlijioaren legeen arabera, natura emankortzen duenak berak ere emankor izan behar du. Horretarako, orde, ezkontide gizonezkoa izan behar du derrigor. Hau honela izatekotan, Hipolito zatekeen Artemisaren ezkontidea Trezenen, eta neska-mutilek ezkondu aurretik eskaintzen zizkioten ile-xerlo eta txirikordek, hura jainkosarekin bategitea indartzea zuketan helburu, eta, hartara, lurraren, ganaduaren eta gizakien joritasuna eragitea. Ikuspuntu hau sendotze aldera, Trezengo Hipolitoren esparruan bi indar emakumezko gurtzen zituzten, Damia eta Auxesia, lurraren emankortasunari lotuta zeudenak ezbairik gabe. Behin, Epidaurok eskasia handia jasan zuen batean, herriak, orakuluari men eginez, Damia eta Aurexiaren irudiak egin zituen olibondo-zurez, eta haiek egin eta eraiki bezain laster, lurrak atzera bere igaliak eman zituen. Gainera, Trezenen bertan, Hipolitoren esparruan bertan nonbait, harriketa liturgiko bitxia ospatzen zen birjina hauen ohoretan (halaxe deitzen zieten trezendarrek); eta erraz froga daiteke antzeko ohiturak herrialde askotan izan direla, uzta ugariak lortzeko xedez. Hipolito gaztearen

heriotza tragikoaren legendan analogia bat antzeman genezake beste gazte hilkor eta eder batzuei buruzko antzeko ipuinekin; jainkosa hilezko batekiko maite-jolas eztizko laburra beren biziaz ordaintzen duten gazteei buruzko ipuinekin, alegia. Baliteke zoritxarreko maitale horiek beti mito hutsak ez izatea, eta berorien odol-arrastoa bioletaren kapulu purpurazkoan, anemonaren gorriminean edo arrosaren gorri bizian utziz doazen legendak, gaztetasun eta edertasun iheskorren enblema poetikoak baino zerbait gehiago izan bide ziren. Alegia horiek filosofia sakona gordetzen dute giza bizitzaren eta naturaren bizitzaren arteko loturaz, aztura tragiko bat sorrarazi zuen filosofia tristea. Aurrerago jakingo dugu zeintzuk izan ziren filosofia eta aztura horiek.

3. Laburbilduz

Orain beharbada ulertuko dugu zergatik identifikatu zuten antzinakoek Hipolito, Artemisaren ezkontidea, Virbiorekin. Serviok dioenez, Virbio Dianari lotzen zaio, Adonis Venusi edo Atis Jainkoen Amari bezala. Diana, Artemisa bezala, emankortasun orokorraren jainkosa zen, eta batez ere haurgintzarena. Alde horretatik, parekide grekoak bezala, lagun arra behar zuen, eta lagun hori Virbio izan zen, Servio zuzen badabil. Zuhaitzi sakratuaren sortzaile eta Nemiko lehen errege gisa, Virbio, argi eta garbi, Basoko Errege tituluaz Dianaren zerbitzupuan zeuden apaizen dinastiaren aitzindari mitikoa edo arketipoa da; bera bezala, beste haiek ere, bata bestearen atzetik, fin gaizto egin beharra zuten halabeharrez. Bidezkoa da, beraz, basoko jainkosarekin zituzten harremanak Virbiok harekin zituenak bezalakoak zirela susmatzea. Laburbilduz, Basoko Errege hilkorrek Diana oihandarra bera zuen erreginatzat. Bizia galtzeko arriskuz babesten zuen zuhaitza jainkosa zela jotzen bazen, apaizak, bere jainkosa gisa gurtu ezezik, bere emazte gisa besarkatu ere egingo zuen. Hipotesi hau ez da hain zentzugabekoa, Plinioren garaian erromatar noble batek berdin tratatzen baitzuen pago eder-eder bat Dianari sagaratutako baso batean, Albano muinoetan: hura besarkatu, musu eman, haren itzalpean etzan eta ardoa isurtzen omen zion enbor gainera. Agi danean, zuhaitza jainkosa zela jotzen zuen. Gizon eta emakumeak zuhaitzekin esposatzeko ohiturak bizirik dirau orandik ere Indian eta Ekialdeko beste toki batzuetan. Ez ote zen berdin gertatuko antzinako Lazion?

Aurreko guztia laburtuz, esan dezakegu Dianaren gurtza Nemin hari sagaratutako zuhaiztian oso garrantzitsua eta antzina-antzinakoa izan zela; oihanen eta piztien jainkosa gisa gurtu zutela, baita, agian, etxeko azienden eta lurreko igalien jainkosa gisa ere; ustez gizakiei haurrak ematen zizkiela, eta amei erditzean lagundu egiten ziela; haren su sakratua, birjina garbiek zainduta, etengabe erretzen zela esparruaren barruko jainkotegi biribil batean; uretako ninfa batekin elkartuta zegoela, Egeriarekin, eta honengan uzten zuela Dianak bere betekizunetako bat, alegia emakumeei haurgiten laguntzea, eta ustez antzinako erromatar errege batekin esposatu zela baso sakratuan; gainera, Basoko Dianak berak ere Virbio zeritzan kide arra zuela, Venusek Adonis edo Zibelesek Atis zeukaten bezala; azkenez, garai historikoetan Basoko Errege izenaz ezagunak ziren apaizen leinu batek ordezkatzeko zuela Virbio mitikoa. Apaiz horiek beren ondorengoen ezpataz hiltzen ziren beti, eta bizia, nolabait, zuhaiztiko zuhaitz jakin bati lotuta zuten, ez baitzuten erasorik izaten zuhaitzak kalterik izan ezean.

Bistan da ondorio hauek ez direla aski apaizen oinordetze-arau bitxia azaltzeko, baina beharbada, ikerketa honen eremua zabalduz gero, aurkituko dugu konklusioetan dagoela problemaren ebazpidearen ernamuina. Hala bada, orain berrikuspen zabalagoari ekingo diogu. Luze eta neketsua izango da, baina aurkikuntza-bidaia baten xarma eta interesa izango dituen hein batean, jende eta ohitura arrotzeko herrialde arrotzak bisitatuko baititugu. Haizeak putz dagi masta-oihaletan; zabal ditzagun belak, eta alden gaitezen aldi baterako Italiako itsasertzetik.

Errege apaizak

Bi galdera ditugu batez ere erantzuteko: lehena, zergatik hil behar zuen bere aurrekoa Dianak Nemin zuen apaizak, Basoko Erregeak?; bigarrena, zergatik, hura hil aurretik, erauzi behar zuen zuhaitz jakin bateko abar bat, antzinakoen iritzi publikoak Virgilioren Urrezko Abarrarekin identifikatzen duena?

Argitu beharreko lehen puntua apaiz titulua da. Zergatik deitzen zioten Basoko Errege? Zergatik esaten zioten "erreinu" haren jardun-lekuari?

Errege-titulua apaiz-betebeharrekin lotzea gauza arrunta izan zen antzinako Italian eta Grezian. Erroman eta Lazioko beste hiri batzuetan bazen apaiz bat, sakrifizioen errege edo errito sakratuen errege zeritzana, eta haren emazteak errito sakratuen erregina zeraman titulutzat. Atenas errepublikarrean, hiriko urteroko bigarren magistratuari errege deitzen zioten, eta emazteari erregina; bien betekizunak erlijiozkoak ziren. Greziako beste demokrazia askok errege-tituludunak zituzten, eta halakoen betebeharrak, dakigunetik, apaizgoari zegozkionak izaten ziren, eta hiriko suetearen ingurukoak. Greziako hiri estatu batzuek errege-tituludun hauetako zenbait zituzten aldi berean beren zeregina betetzen. Erromako tradizioaren arabera, sakrifizioen erregea monarkia abolitu ondoren izendatu zuten, aurrez erregeek egin ohi zituzten sakrifizioak eskaintzeko. Antzekoa izan bide zen Grezian nagusitu ziren errege apaizen jatorria. Iritzi hau, berez, ez da ezinezkoa, eta hor dugu Espartaren adibidea: garai historikoetara arte ia estatu greko peto-peto bakarra izan baitzen gobernu-moldetzat erregetza gordetzen. Espartan estatu-sakrifizio guztiak erregeek eskaintzen zituzten, jainko baten ondorengoak izaki. Bi espartar erregetarik bat Zeus Lazedemoniarraren apaiza zen; bestea, Zeus Zerutiarraren apaiza.

Apaiz-betekizunak eta errege-agintea elkartze hau ezaguna zaigu denoi. Asia Txikian, adibidez, zenbait erlijio-hiriburu handiren oinarri izan zen; milioika esklabo sakratu bizi ziren bertan eta aginte izpirituala eta sekularra, biak batera zituzten pontifizeek gobernatzen zituzten, aita santuek Erdi Aroko Erroman bezala. Zela eta Pessinok ditugu apaizek gidatutako hiri bi. Antzinako garai paganoetako errege teutoniarrak ere antzerakoak izan ziren: apaiz nagusien agintea izan zuten. Txinako enperadoreek opari publikoak eskaintzen zituzten, errito-liburuetan araututako xehetasunez. Madagaskarko erregea ere erresumako apaiz nagusia zen. Urte Berriko jai handian, idi bat eskaintzen zutenean erresumaren alde, erregeak, zutik jarrita, otoitz egiten zuen eta eskerrak ematen zituen, laguntzaileek animalia hil bitartean. Afrikako ekialdeko gallatarren artean oraindik ere independente diren estatu monarkikoetan, erregeak opariak egiten ditu mendi-gailurretan, eta giza opagaien inmolazioa arautzen du. Eta Ertamerikako eskualde zoragarri bateko erregeengan ere, tradizioaren argizalek antzeko batasuna erakusten dute botere izpiritualaren eta sekularren artean, alegia apaizgoari eta erregetzari dagozkion betebeharren artean. Antzinako hiriburuak, orain oihan tropikal oparoak jana, Palenqueko hondakin harrigarri eta misterioetsuetan erakusten ditu bere aztarnak.

Antzinako erregeak gehienetan apaiz zirela esan badugu ere, urrun gaude haien betekizunen alderdi erlijiosoa agortzetik. Garai hartan, erregea babesten zuen jainkotasuna ez zen formula hutsa, sineste sendo baten agerpena baizik. Kasu askotan, erregeak ez zituzten apaiz soil gisa gurtzen, hau da, jainkoaren aurrean gizakien ararteko izateko soil-soilik, jainko gisa baizik; alegia, gai bailiran beren menpeko eta gurtzaileei hilkorrek iritsi ezinak dituzten eta, apeta izanez gero, izaki ikustezin eta gizagaindikoei eskaintzen dizkieten otoitz eta oparien bidez bakarrik lor daitezkeen onurak emateko. Adibidez, erregeengandik espero izaten ziren garaian garaiko euria eta eguzkia, ereindakoen uzta ugaria, eta beste gauza asko. Itxaropen hori bitxia iruditzen bazaigu ere, guztiz bat dator hastapenetako pentsaerarekin. Basatiak ez ditu bereizten naturakoa eta naturaz gaindikoa, herri aurreratuagoek bereizi ohi dituzten bezala. Harentzat

mundua, hein handi batean, naturaz gairako zenbait jardularen bitartez dabil, hau da, nor batzuen bitartez. Nor horiek basatiarenak bezalako indar eta arazoiez jarduten dute, eta norberaren alde jar daitezke berorien errukiari, itzaropenei eta beldurrei dei eginez gero. Gisa horretan gogoemandako munduan, basati hark ez dio ikusten mugarik naturaren nondik-norakoa bere aldera ekartzeko duen botereari. Jainkoei egindako otoitz, agindu edo mehatxuek eguraldi ona eta uzta ugariak segurtatzen diezazkiokete; eta gertatuko balitz, hark maiz uste izan duen bezala, jainko bat beragan hezur-haragizkotzea, jadanik ez luke izaki garai horiengana jo beharrik; basatiak berak izango lituzke, bere baitan, bere ongizatea eta urkoarena gehitzeko behar diren botereak.

Bide honetatik gizon jainkoaren ideia iritsi gara. Baina bada beste bide bat ere. Indar izpiritualak betetako munduaren kontzeptu honen ondoren, gizon basatiak badu beste ikuspegi desberdin eta agian zaharrago bat, lege naturalaren ideia modernoaren ernamuina agertzen diguna: natura gertaeren segida gisa ikusten du, ordena aldaezinaren eta inork horretan jardun gabe jazotzen diren gertaeren sail gisa. Mintzagai dudaren ernamuin hau sinpatiazko magiaren esparruan sartzen da -halaxe izenda daiteke- superstizio-sistema gehienetan eginkizun garrantzitsua duen magia-mota horretan alegia. Lehen garai haieiako gizarteetan erregea magia-gizon izan ohi zen apaiz izateaz gainera; are gehiago, badirudi sarritan magia zurian nahiz beltzean ustez zuen trebetasunari esker lortu zuela bere boterea. Hau dela eta, eta herri barbaro edo basatien begietara karguak zuen maiestate eta jite sakratuaren bilakabidea ulertu asmoz, ezinbestekoa da magiaren printzipioak ezagutzea eta ideien bat izatea superstizio-sistema zahar honek, herrialde eta aldi guztietan, giza gogoan izan duen eta oraindik ere duen botereaz. Horretarako, astiro samar helduko diogu gaiari.

III

Sinpatiazko magia

1. Magiaren printzipioak

Magiaren oinarri diren pentsamenduaren printzipioak aztertuz gero, bitara bilduko genituzke: lehena, zerbaitek bere antzekoa dakarrela, edo efektu batek bere kausaren antza duela; eta bigarrena, inoiz elkar ukitzen egon diren gauzek elkarri eragiten diotela urrunetik urrunera, are ukipen fisiko oro eten ondoren ere. Lehen printzipioari antzekotasun-legea dei dakioke, eta bigarrenari ukipen edo kutsatze-legea. Antzekotasun-legea deritzan lehen printzipioaren arabera, magia-gizonak uste du nahi duen ondorioa lortzeko aski duela hura imitatzea; bigarren printzipioaren arabera, berriz, uste du gauza bati zerbaitek eginez gero, hori bera egiten diola gauza horrek ukitutako pertsonari, gauza pertsona horren gorputzaren zatia izan nahiz ez. Antzekotasun-legean oinarritutako xarmak antzeko edo homeopatiako magia izenda daitezke, eta ukipen edo kutsatze-legean onarrituak, berriz, kutsadurazko magia. Magiaren bi adarrotan lehena izendatzeko, egokiagoa dateke "homeopatiako" hitza; izan ere, aukeran ditugun beste hitzek, imitatzaile edo mimetiko, iradokiko lukete badela jardule imitatzaile kontziente bat, eta, hartara, magia-mota honen alorra mugatuegia geratzen da. Magia-gizona sinetsita dago, inplizituki, bere trebetasun horretan erabiltzen dituen printzipioek natura bizigabeko gora-beherak erregulatzen dituztela; hots, ziurtzat jotzen du antzekotasun eta kutsatze-legeak orotarako direla, eta ez giza ekintzetarako bakarrik. Laburtuz: magia naturako legeen sasi-sistema bat da, baita jokabidearen gida okerra ere; zientzia faltsua eta trebetasun hutsegina da. Naturako legeen sistema gisa harturik, hau da, mundu osoko gertaeren segida erabakitzen duten arauen adierazpen gisa, magia hori magia teorikotzat har dezakegu; gizakiek beren helburuak lortzeko betekotzat dituzten arau gisa hartuta, berriz, magia praktikotzat dei dakioke. Baina aldi berean, gogoan izan behar da antzinako magia-gizonak alderdi praktikotik bakarrik ezagutzen duela magia; inoiz ez ditu aztertzen bere jardunaren oinarri diren

prozesu mentalak, eta hauek ez ditu inoiz islatzen bere ekintzetan dautzan printzipio abstraktuen gainean. Harentzat, gizaki gehienentzat bezala, logika inplizitua da, ez esplizitua; elikagaiak liseritzen dituen bezalaxe arrazoitzen du hark, hau da, eragiketa bati eta besteari dagozkion prozesu fisiologiko eta mentalez inola ere ohartu gabe. Labur esanda: harentzat magia beti da artea, inoiz ez zientzia. Zientziaren ideia bera falta zaio gogo garatu gabe. Filosofi ikertzaileari dagokio magia-gizonaren jardunaren oinarri den pentsaerak segitu duen bidea aurkitzea; mataza nahasia eratzen duten hari urriak askatzea; printzipio abstraktuak aplikazio konkretuetatik bereiztea, hots, sasiarte baten atzean zientzia izunari antzematea.

Magia-gizonen logikaz egin dugun azterketa hau zuzena bada, bi printzipio nagusiak ideia-elkarketaren bi aplikazio desberdin eta oker besterik ez dira izango. Homeopatiatzko magia ideiak antzagatik elkartzean datza; kutsadurazko magia ideiak albokotasunagatik elkartzean datza. Homeopatiatzko magiak huts egiten du antza duten gauzak gauza bera direla kontsideratuta; kutsadurazko magiak huts egiten du behin elkar ukitzen egondako gauzek hala segitzen dutela kontsideratuta. Baina, praktikan, bi adarrak konbinatu egiten dira sarri edo, zehatzago esanda, homeopatiatzko edo antzezko magia bere hartan, nahasi gabe, egin daitekeen bezala, aurkituko dugu kutsadurazko magia, praktikan, homeopatiatzko edo antzezkoarekin nahastuta joan ohi dela gehienetan. Zail samarra dateke bi magia-mota hauek orokorrean ulertzen, baina berehala ulertuko dira zenbait adibide egokiz argitutakoan. Pentsabide biak dira guztiz sinple eta tolesgabeak, eta ezin bestela izan: konkretutasunean, ez ordea abstraktutasunean, ezagun-ezagunak baitzaizkio, gizakume basatiaren adimen landugabeari ezezik, baita nonahiko jende ezjakin eta adimen motzekoari ere. Magiaren bi adarrak, homeopatiatzkoa eta kutsadurazkoa, aise bil daitezke sinpatiazko magia izen orokorraren azpira, bi-biek ezartzen baitute gauzek badutela elkarrekiko eragina urrunetik urrunera, erakarmen sekretuz, ezkutuko sinpatiaz. Batetik bestera iragaiten da sinpatia horren bultzada, eter ikustezin gisa suma dezakegunaren bitartez. Eter hori ez da zientzia modernoak antzeko xedez postulaturakoa oso desberdina (zer azaltzeko eta, hain zuzen, gauzek nola elkar kutsa dezaketen, ustez hutsik dagoen espazioan zehar).

Komenigarri dateke magiaren adarrak taula-eran jartzea, azpian dituzten pentsamendu-legeen arabera:

SINPATIAZKO MAGIA

(Sinpatia-legea)

HOMEOPATIAZKO MAGIA KUTSADURAZKO MAGIA

(Antzekotasun-legea) (Ukipen-legea)

Ondoren adibide batzuk emango ditut sinpatiazko magiaren bi adarrok argitzeko. Homeopatiatzkotik hasiko naiz.

2. Homeopatiatzko edo antzezko magia

Beharbada "antzekoak antzekoa dakar" ideiaaren aplikazio ezagunena jende askok garai guztietan egindako saioa da: etsai bati gaitz egiteko edo suntsitzeko, haren irudiari gaitz egitea edo suntsitzea, irudi hark jasaten duena etsaiak ere pairatuko duelakoan, eta irudia suntsi tzen denean hura ere hil egingo delakoan. Adibide batzuk emango ditugu, besteak beste, praktika honek munduan zehar zein hedapen handia izan duen ikusteko, eta zelako iraupen nabarmena izan duen garaietan barrena. Orain dela milaka urte, India zaharreko, Babiloniako eta Egiptoko magia-gizonek ezaguna zuten, baita Grezia eta Erromakoek ere; gaur egun ere, hartara jotzen dute Australia, Afrika eta Eskoziako basakume maltzur gaiztoek. Adibidez, iparramerikar indiarrek sinesten omen dute ezen, harea, buztin edo errautsetan pertsona baten irudia marraztuz, eta edozein objektu haren gorpuztat hartuz eta ondoren makila zorrotz batez zaztatuz edo beste kalteren bat

eginez, antzeko zauria egingo diotela irudikatutako pertsonari. Ojibwa indiar batek norbaiti gaitz egin nahi dionean, etsaiaren zurezko iruditxoak egin eta orratza ziztatzen dio buruan edo bihotzean, edo gezi bat jaurtitzen dio, uste izanik irudia ziztatu edo zulatzean etsaiak, une hartantxe, min izugarria sentituko duela gorputz-atal hartan, eta hura hiltzea erabakitzen duenean, panpina erre edo lurperatu egiten du, hori egin bitartean hitz magiko batzuk esanez. Peruko indiarrek labore-aleak eta bilgorra nahastuta egindako iruditxoak moldatzen zituzten, gorroto edo beldur zieten pertsonen ahalik eta antz handiena emanez, eta ondoren ustezko biktimak pasatuko ziren bidean erretzen zituzten giza irudiok. Horri haren arima erretzea deitzen zioten.

Mota bereko xarma malakar bat honelakoxea da: bildu azkazal-zatiak, ileak, betileak, listu pixka bat eta biktima izango denaren gisa honetako beste zenbait gauza, haren pertsonaren atalak irudikatze aski direnak; ondoren, hori guztia eta hustutako erlategi bateko argizaria hartuta, haren antzeko iruditxoak egin, eta mantso-mantso kiskaltzen utzi, zazpi gauetan lanpara baten gainean jarrita, hau esanez:

Ez naiz argizaria erretzen ari;

Urliaren gibela, bihotza eta behazuna ari naiz erretzen.

Zazpigarren gaua iragan ondoren, erabat erre irudia; biktima hil egingo da. Bistan da xarma honetan homeopatiako magiaren eta kutsadurazko magiaren printzipioak elkartzen direla, panpina etsaiaren irudira egina baita, nolabait, eta hura ukitzen egondako materialak baitauzka, batez ere azkazalak, ilea eta listua. Hona hemen malakar xarmaren beste era bat, ojibwa indiarren ohitura gogorazten duena: hustutako erlategi bateko argizariak urrats bat luze den iruditxoak egin, etsai hila irudikatzen duena; ondoren begiak ziztatu eta etsaia itsututa geratuko da; urdaila zauritu eta gaixotu egingo da; burua ziztatu eta hark buruko mina sentituko du; bularra zulatu eta bularreko gaitza sortuko zaio; etsaia kosta ahala kosta hil nahi bada, ziztatu irudia burutik behera, hilotz bat bezala jarri, haren gainean otoitz egin hildako batengatik otoitza bailitzan eta, ondoren, etsaiak pasatu behar duen bidearen erdian ehortzi. Haren odola norberaren buru gainera eror ez dadin, haxe esan behar da:

Ez diot nik lur ematen

Gabrielek ematen dio.

Hartara, krimenaren errua Gabriel goiaingeruari leporatzen zaio, hura askoz gaiago izaki pisu astun hori jasateko.

Iruditxoak erabiliz egiten den homeopatiako edo antzezko magia, sarri gorroto den jendea mundu honetatik botatzeko asmo gaiztoaz erabili bada ere, halaberean, bakanago baina, erabili izan da beste norbaitzuk mundu honetara ekartzeko asmo onaz ere; alegia, jaiotzak errazteko eta emakume antzuak haurdun gera daitezen. Adibidez, Sumatrako bataktarren artean, emakume antzuak ama izan nahi duenean, zurezko haur-iruditxoak egin eta magalean ipiniko du, hartara bere desirak beteko zaizkiolakoan. Babar artxipelagoan, emakume batek umea izan nahi duenean, erregua egiten dio seme-alaba askoren aita den gizon bati, arren otoitz egiteko bere alde Upulerori, eguzkiaren izpirituari alegia. Kotoi gorritzko panpina egiten dute, eta emakumeak besoetan hartzen du, titia emateko bezala. Ondoren, aita umetsuak oilo bat hanketatik hartu eta emakumearen burura hurbilduz, honela esaten du: "Har ezazu hegazti hau, Upulero, eta arren ekar ezazu ume bat hona behera, halaxe erregutzen eta eskatzen dizut. Bidal ezazu ume bat nire eskutara eta nire altzora". Hori esanda, emakumeari galdegiten dio: "Iritsi al da umea?" Eta hark erantzuten: "Bai, eta titia hartzen ari zait". Ondoren, hegaztia senarraren buru gainean eutsiz, hitz batzuk esaten ditu ahapeka. Azkenez, hegaztia hil eta, betel-pixka batekin batera, etxeko sakrifizioetarako tokian ipintzen dute. Zeremonia amaitu ondoren, emakumea erditu egin delako berria zabalduko da herrian, eta adiskideak etxera etortzen zaizkio bisitan. Kasu honetan haurraren jaiotzaren simulazioa

errito magiko hutsa da, imitazioaren edo pantomimaren bitartez umea benetan jaioko dela segurtatzeko; baina erritoaren eraginkortasunari otoitzaren eta sakrifizioaren bitartez laguntzen zaio. Bestela esanda, magia erlijioarekin nahasita eta indartuta dago kasu honetan.

Borneoko dayak batzuen artean, emakume bat erdiminetan dagoenean, sorgin bati deitu ohi diote. Hau arrazoizko eraz saiatzen da erditzea errazten, emakume erditu beharraren gorputza eskuztatuz alegia. Bitartean, beste sorgin bat, gelatik at, helburu bera lortzen saiatzen da, baina guk erabat irrazionaltzat jotzen dugun moduan. Hain zuzen, berak egiten du emakume erditu beharrarena: gorputza zapi batean bilduta, haurra umontzian irudikatzen duen harri handi bati heltzen dio, eta, kideak benetako gertalekutik oihukatzen dizkion argibideei jarrituz, bere gorputzaren gainean mugitzen du haur-ustekoa, benetakoaren mugimendua zehazki imitatuz, haurra jaio arte.

Haurrek hain gogoko duten imajinatzearen printzipio berberak eraman ditu beste herri batzuk jaiotzaren antzezpena norbait seme edo alabatza hartzeko bide gisa erabiltzera, are hildakotzat jotzen dena berpizteko prozedura gisa ere. Norbaitek mutil batez erditzen dela egiten badu, edota zainetan haren odolaren tanta bakar bat ez duen gizon bizardun batez, gazte edo gizon hori haren semea izango da halaz guztiz ere. Horregatik, Diodorok dioskunez, Zeusek bere emazte jeloskor Hera konbentzitu zuenean Herkules semetzat har zezan, jainkosa oheratu egin zen eta, heroi handia bere bularraren kontra estutuz, bere jantzien azpitik bultzatu eta lurrera erortzen utzi omen zuen, hartaz benetan erditu izan balitz bezala; historialari horretxek eranstean du behiala barbaroek gauza bera egiten zutela umeak seme-alabatza hartzeko. Gaur egun hala egiten omen da oraindik ere Bosnia eta Bulgariako turkiarren artean. Emakume batek mutil bat semetzat hartu nahi duenean, bere arropen artetik atera edo bultzatuko du: harrezkero, haren benetako semetzat joko dute denek, eta gurasotzakoen ondasun guztiak jasoko ditu herentzian. Sarawakeko berawandarren artean, emakume batek pertsona heldua seme edo alabatza hartu nahi duenean, jende asko biltzen da jaia ospatzera. Amaordeak, jendearen aurrean, gonadun aulki altu baten gainean eserita, seme edo alabatza hartutako pertsona zangoen artean herresta dakion uzten du. Hau aurrealdetik agertu bezain laster, areka-palmondoaren kapulu urrinduez jotzen dute eta emakumearekin lotzen dute. Ondoren, ama eta semeorde edo alabaordea, elkarri horrela lotuta, etxe barruraino joaten dira eta berriro itzultzen ikusle guztien bistara. Erditzearen irudikapen argi honen bitartez bien artean ezarritako lotura oso estua da. Esate batera, semeorde edo alabaorde bati egindako iraina benetako seme edo alabari egindakoa baino larriagotzat hartzen da. Antzinako Grezian, kanpoan zegoen gizon bat hil egin zelako ustea ustel gertatzen bazen, eta hiletak eginak bazituen, itzulitakoan hilda bailegoen tratatzen zuen jendeak, harik eta berriro jaiotzearen zeremoniatik pasatu arte. Emakume baten zango artetik pasarazten zuten eta gero garbitu eta jantzi egiten zuten haur-oihalez, eta inudearen esku uzten zuten. Zeremonia xehetasun guztiez burutu artean, ez zeukan jendearekin harreman normalak izaterik. Antzeratsu, antzinako Indian, hildakotzat jotako gizonak ur koipetsuz betetako tina batean iragan behar izaten zuen ehortzi ondorengo lehen gaua; eserita, besoak tolestuta, ukabilak bilduta eta hitzik esan gabe, haurra umontzian bezala egoten zen, eta bitartean emakume haurdunaren gainean egin ohi ziren sakramentu guztiak egiten ziren haren gainean. Biharamun goizean tinatik irten eta berriz ere gartzetan hartutako sakramentu guztietatik pasatzen zen, eta batez ere emakume batekin ezkontarazten zuten, edota bere emaztearekin berarekin, behar bezalako ospe eta arrandiz.

Homeopatiatzko magiaren beste erabilera onurakor bat gaixotasunak sendatzea edo gaixotasunei aurrea hartzea da. Antzinako hinduek zeremonia bihurria egiten zuten, homeopatiatzko magian oinarriturik, ikterizia edo larumina sendatzeko. Aldaketa

nagusia kolore horia gauza eta izaki hori-koloreetara pasaraztea zen -eguzkira, kasu, halako izakiei baitagokie batik bat-, eta gaixoari kolore gorri osasuntsua ematea igorle indartsu eta bizidun batetik, zezen gorri batengandik adibidez. Horretarako, apaiz batek honako arao hau botatzen zuen: "Eguzkiak ere zure tristura eta larumina jasoko ditu; zezen gorriaren kolorean bilduko zaitugu. Nabardura gorrietan bilduko zaitugu bizitza luzerako. Pertsona hau osaturik eta kolore horitik libre gera bedi! Behien forma eta indar guztietan bilduko zaitugu, Rohini baitute beren jainko, eta gorriak (rohinih) baitira. Kakatuen, zozoen barruan jarriko dugu zure horitasuna, eta gainera isats ikaratidun muturmotz lasto-kolorearengan ipiniko dugu zure horitasuna". Hitz hauek esan bitartean, apaizak, gaixo zurbilari osasun aurpegia emateko, zezen gorri baten ileekin nahastutako ura edanarazten zion; ura aberearen bizkar gainera isuri eta hura edanarazten zion gaixoari; zezen gorri baten larruaren gainean eserarazi eta haren zati batez lotzen zuen. Gero, tinte horia erabat kendu eta kolorea hobetzeko asmoz, hauxe egiten zuen: kurkumaz (landare hori batez) egindako ahiaz gantzutzen zuen oinetatik bururaino, ohean etzaten zuen eta, soka hori batez, hiru txori hori lotzen zituen ohearen oinean, hots, loro hori bat, birigarro bat eta buztanikara hori bat. Ondoren, ura isurtzen zuen gaixoaren gainera, ahi horia garbituz, eta horrela ziur zen laruminak lotutako hiru txoriekin aldegingo zuela. Hori egin eta gero, eta haren gorpuzkerari osasunezko errematea emateko, hartu zezen gorriaren ile batzuk, bildu orri urre-kolore batean, eta gaixoaren azalari itsasten zizkion. Antzinakoek uste zuten larumina zuen pertsonak basoilo bati edo urre-txirri bati arretaz begiratu eta hegaztiak ere begia ematen bazion, hura gaixotasunetik sendatuta geratzen zela. "Halako izaera eta halako jitea du hegazti honek -dio Plutarkok-, gaixoaren begiradatik korrante baten gisan irteten den gaixotasuna atera eta hartu egiten du". Hain zen ezaguna txorizaleen artean hegazti hauen tasun baliotsua non, bat edo bat salgai zutenean, kontuz estalita gordetzen baitzuten, laruminak jotako gaixoren batek txoriari begiratu eta doan sendatuko ote zen beldurrez. Txoriaren gaitasuna ez zetzan lumen kolorean, begi hori handietan baizik; haiek kentzen omen zuten larumina. Pliniok beste hegazti baten edo agian berberaren berri ematen digu: grekoek "larumin" izendatzen omen zuten txori hori, zeren eta, laruminak jotako norbaitek begiratzen bazion, gaixotasunak gaixoagandik aldegin eta hegaztia akabatzen baitzuen. Laruminak jotako azalaren antza zuela-eta gaitz hau sendatzen omen zuen harri bat ere aipatzen du.

Homeopatiatzko magiaren merezimendu handietako bat, berari esker sendaketa sendagileagan eta ez bezeroagan gertatu ahal izatea da. Bigarrena arrisku eta neke orotarik libratzen da, sendagilea oinazeak bihurrituta ikusten duen bitartean. Adibidez, Frantziako Percheko nekazariak, goragale edo botaguraren estualdiek luze irauten dutenean, uste izaten dute urdaila erorita egon ohi dela eta, ondorioz, sendagile bati deitzen diote organo hori bere lekura ekar dezan. Sintomak entzun ondoren, medikua dardara izugarrienetara ematen da bere urdaila askatzeko asmoz. Indarraldi batean hori lortzen duenean, berehala katigatzen du berriro urdaila, hainbat bihurraldi eta sino-minoz, eta gaixoa ere horrekin batera gozatzen da; prezioa, bost libera. Antzeko metodo batez, osagin dayak batek, gaixo baten deia jasota, lurrian etzan eta hildakoarena egiten du, eta, hilda dagoelakoan, gorpu bat bezala tratatzen dute, xerra-zumitzetan bildu eta etxetik ateraz. Handik ordubetera edo, beste osaginek estalkiak kendu eta bizia itzultzen diote ustez hilda zegoenari; honek onera egin ahala, gaixoa ere hobetu egiten omen da. Homeopatiatzko magiaren printzipioetan oinarritzen da Bordeleko Martzelok, Teodosio Iaren gorteko medikuak, medikuntzari buruzko bere obra bitxian azaldutako tumore baten sendaketa. Honela dio: "Har bedi berbena-zain bat, ebaki erditik eta zintzilika bedi zati bat gaixoaren lepo inguruan, eta beste zatia tximiniako suaren gainean. Zaina su gaineko ketan ihartuz doanarekin batera, tumorea ere ihartu egiten da desagertu arte.

Gero gaixoa esker txarreko gertatzen bazaio medikuari, honek erraz har dezake mendeku: berbena uretara bota besterik ez du egin behar, zeren, zainak berriz ere hezetasuna xurgatu ahala, tumorea berriz sortu egiten baita". Idazle jakintsu berberak gomendatzen dio zaldarrek gogaitzen duten edonori, egoteko zelatan izar uxu bat noiz ikusiko eta, izarra artean zeruan zehar doan bitartean, bizkor igurtzitzeko bikorrak eskueran den lehen ehunaz. Izarrak zerutik erortzen diren bezala, halaxe zaldarrak ere gorputzetik; baina gaixoak kontu izan beharko du esku hutsez ez igurtzitzeko, bikorrak eskura pasatuko lirateke eta.

Bestalde, homeopatiatzko magiak eta, oro har, sinpatiazkoak, egiteko handia dute ehiztariak edo arrantzaleak, elikagai ugariz hornitu ahal izateko, hartzen dituzten arduretan. "Antzekoak antzekoa dakar" delako esanaren arabera, hark eta lagunek lortu nahi dutena deliberatuki imitatuz egiten dute gauza asko eta, aitzitik, arreta handiz saihesten dituzte beste batzuk, ondorio txarreko gauzeekin nolabaiteko antza dutelakoan. Sinpatiazko magiaren teoria inon ez da praktikatzen sistematikoago, elikagaien hornizioa babestearren, Australia erdialdeko eskualde elkorretan baino. Han tribuak hainbat klan totemikotan daude banatuta, eta bakoitza bere totema komunitatearen ongizaterako ugaltzeaz arduratzen da, zeremonia magikoen bitartez. Totem gehienak abere eta landare jangarriak dira, eta zeremonia horren bidez, oro har, tribua elikagaiz eta beharrezko beste gauza batzuez hornitzea lortu nahi izaten dute. Sarritan, errittoa jendeak lortu nahi dituen ondorioen imitazioa izaten da; bestela esan, haien magia homeopatiatzkoa edo antzekoa da. Warramungen artean, adibidez, kakatua zuriaren totemeko buruzagia kakatua zuriak ugal daitezen saiatzen da, eskuan hegaztiaren irudi bat edukiz eta haren oihu lakarrak imitatuz. Arunten artean, witchettyaren larbaren totemeko gizonak zeremoniak egiten dituzte tribuko beste kideek jan ohi duten zomorro hau ugaltzeko. Zeremonia hauetako bat pantomima bat da: intsektu guztiz garatua kuskua kapulutik irteten antzeztzen dute, eta haren barruan, eserita, totemizat larba hori duten zenbait gizonak intsektuari buruzko aipuak intonatzen dituzte itxuraldaketako une jakinetan. Ondoren, egituratik irteten dira makurtuta eta, irten ahala, kuskutik irteten den intsektuari kantatzen diote. Horrek larben kopurua ugaltzen omen du. Era berean, emuak ugaltzeko xedez, jaki garrantzitsua baita, emuaren totemeko gizonak beren totemaren irudi sakratua marrazten dute lurrian; batez ere jateko atseginen dituzten emuaren parteak alegia, koipez ugarien direnak eta arrautzak. Gizonak marrazkiaren inguruan eseri eta kantuan hasten dira. Ondoren, aktoreek, emuen lepo luzea eta buru txikia itxuratzen dituzten kapusai batzuk jantzita, hegaztiaren itxura imitatzen dute, burua alde guztietara mugitzeari ekiten diotenean.

Britainiar Columbiako indiarrek arrantzatik bizi dira batez ere, ugari baitute itsasoan eta beren ibaietan. Baldin arrainak komeni den urte-sasoian iristen ez badira eta indiarrek goseak badaude, nootkatarren sorgin batek igerian ari den arrain baten irudia egiten du, eta uretan ipintzen du arrainak sarrien etorri ohi diren norabidean. Zeremonia honek, arrantza erakartzeko otoitz batekin batera, hura berehala iristea lortuko du. Torres itsasarteko irlatarrek itsasuskien eta dortoken ereduak erabiltzen dituzte, xarmaz erakartzeko. Celebes irlaren erdialdeko toradjek uste dute mota bereko gauzek elkar erakartzen dutela, haietan bizi den arima edo eter bizigarriari esker. Sineste hau dela eta, orein eta basurdeen masailezurak esekitzen dituzte beren etxeetan, hezur horietan dautzan arimek kideak ehiztariaren bidera ekar ditzaten. Nias irlan, basurde bat hartarako prestaturiko tranpara erori denean, bederatzi hosto eroriz igurtzitzen diote bizkarra handik ateratzen dutenean; hartara, beste bederatzi basurde eroriko omen dira tranpara. Ekialdeko Indietako Saporoea, Haroekoe eta Noessa Laut irlatan, arrantzale batek itsasoan arrantza-aparailua ipini behar duenean, inguruetara begiratzen du, txoriek jandako fruituak dituen zuhaitzen baten bila eta, halakoa ikusita, abar sendo bat moztu

eta hesola nagusi gisa jartzen du bere aparailua tinkatzeko. Uste du zuhaitzak bere frutara hegazti asko erakartzen zituen bezala, zuhaitz horretatik moztutako abarrak ere arrain ugari erakarriko duela bere sarera.

Britainiar Ginea Berriko mendebaldeko tribuek honako xarma hau erabiltzen dute ehiztariari itsasuskiak edo dortokak arpoiz jotzen laguntzeko: arpoiaren kirtenaren zuloan, arpoia sartzen den lekuan, kokondoetan bizi diren labe-zomorro txikietako bat ipintzen dute. Intsektua giza azalari itsasten zaion bezala, halaxe itsatsiko omen zaio arpoia ere itsasuskiari edo dortokari. Kanboiako arrantzale batek bere sareetara ezer ez dela erori ikusten duenean, biluztu, pixka bat urrundu eta, hara eta hona ibiliz, sareak bera harrapa dezan uzten du, ikusiko ez balu bezala; bertan harrapatuta geratzen denean, garrasika hasten da: "Ai ene! Zer da hau? Harrapatu egin naute!" Ondoren, gauza segurua da zerbait sareratuko dela. Eskoziako Highlandsen gisa horretako pantomima bat jokatu izan da, eta zenbaitek gogoan dute oraindik ere. James MacDonald agurgarriak, orain Caithnessko Reayn eliz artzain dagoenak, kontatzen digu nola gaztetan, lagunekin Aline lakura arrantzara joaten zenean, eta arrainek denbora luzez amuari heltzen ez bazioten, lagunak bat arrantzatzen zutelako plantak egiten zituzten, arraina bailitza, aurrez uretara botata. Ondoren, amuarrainak edo sillochak, segun eta txalupa ur gezatan edo gazitan zegoen, amuari tiraka hasten ziren. Pitotxak ehizatzeo tranpak hedatzen hasi baino lehen, carrier indiar batek bakarrik egiten du lo hamabi gaez suaren aurrean, ziritxo batek lepoa estutzen diola. Hartara, bere tranpako hesola ere pitotxaren lepo gainera eroriko da, noski. Halmahera irla handiaren iparraldean bizi diren galelarren artean, Ginea Berriko mendebaldean alegia, fusila kargatu aurretik bala ahoratzeo ohitura dute. Hori egitea balak hil beharreko ehiza jatea bezalaxe da ia, eta gainera horrela ezingo da huts egin. Malakar batek, krokodiloentzako artea beitu eta zain dagoen bitartean, hiru eskutada arroz jango ditu segidan ahaztu gabe, horrela beitarik krokodiloaren eztarritik errazago lerratzen laguntzen diolakoan. Kontu handia du, halaber, bere currytik hezurrik ez ateratzeko, zeren eta, hala egitera, beitudun makila zorrotza ere berdina ateratzen eta krokodiloak beitarekin aldegingo luke. Horregatik, halakoetan, ehiztari zuhurra, bazkaltzen hasi baino lehen, inork currytik hezurrak ateratzea diezazkion saiatzeko da, hartara ez baita aukeratu beharrean izango: nik hezurrak irentsi ala krokodiloak ihes egin.

Azken arau hau ehiztariak bere zori ona ez hondatzeko saihestu behar dituen gauzen adibide bat da, "antzekoak antzekoa dakar" delakoan oin hartuz, esan behar baita sinpatiazko magiaren sistema ez dutela agindu positiboek soilik osatzen; agindu negatibo edo debeku askok ere osatzen dute. Egin behar dena ezezik, egin behar ez dena ere esaten dizu. Agindu positiboak xarmak dira; agindu negatiboak, berriz, tabuak. Egia esan, tabuaren doktrina osoak edo, gutxienez, parte handi batek, sinpatiazko magiaren eta beronen bi lege handien (antzekotasunaren eta ukipenaren legeen) aplikazio berezi bat dirudi. Nahiz basakumeak lege hauek halako hitzez adierazi ez (ezta abstraktuki bururatu ere), halaz guztiz, sinetsi egiten du lege horiek inplizituki naturaren nondik-norakoa giza borondateetik at erregulatzen dutela. Pentsatzen du berak era batera jokatzen badu, ondorio jakin batzuk etorriko direla, ezinbestean, lege horietako baten edo bestearen kariatz, eta iruditzen bazaio ondorio horiek gozogabeak edo arriskutsuak izan litezkeela, saihesten ahaleginduko da, noski, horrela jokatzea baztertuz. Bestela esan, kausa-efektuez dituen nozio okerren arabera, ustez (uste ustelez) kaltea ekarriko dion hori egitea gordeko da. Hitz batez esanda, tabuari atxikitzen zaio. Beraz, tabua honaino magia praktikoen aplikazio negatiboa da. Magia positiboak edo sorgingoak honela dio: "Egizu hau beste hori gerta dadin". Magia negatiboak edo tabuak, berriz, honela dio: "Ez ezazu hau egin, beste hori gerta ez dadin". Magia positibo edo sorgingoaren asmoa, nahi den zerbait gertaraztea da; magia negatibo edo tabuaren

asmoa, gertaera beldurgarria saihestea da. Baina bi ondorioak, nahi dena eta nahi ez dena, antzekotasunaren eta ukipenaren legeen arabera gertatzen direla jotzen da. Eta nahi den ondorioa, beraz, zeremonia magikoari men egiteak erakartzen ez duen bezala, tabua haustearen beldurak ere ez. Baldin tabua haustearen ondotik ustezko kaltea gertatuko balitz, hau moralezko edo zentzuzko agindua besterik ez litzateke. "Ez jarri eskua sutan" esaldiak ez du tabu bat adierazten; zentzuzko zerbait da hori, debekatutako egintzak benetako kaltea baitakar, ez irudimenezkoa. Laburtze aldera, esango dugu tabu izendatzen ditugun agindu negatiboak sorgingoa izendatzen ditugun agindu positiboak bezain hutsal eta ezdeus direla. Bi gauzak uste oker handi eta kaltegarri baten bi aldeak edo muturrak besterik ez dira, ideia-elkarketa oker burutuak. Gezur handi honetan, polo positiboa sorgingoa da eta negatiboa tabua. Okerreko sistema osoa magia teoriko eta praktikoa izendatuz gero, tabua magia praktikoa alderdi negatibo gisa defini dezakegu. Jar dezagun grafikoki segidako koadroan:

MAGIA

TEORIKOA PRAKTIKOA

(Magia sasi-zientzia gisa) (Magia sasi-arte gisa)

MAGIA POSITIBOA MAGIA NEGATIBOA

EDO SORGINGOA EDO TABUA

Tabuari eta magiarekiko erlazioei buruzko oharrok egin ditugu, zergatik eta arrantzaleek, ehiztariek eta abarrek gordetako tabuen adibide batzuk eman behar ditugulako, eta frogatu nahi dugulako adibideok sinpatiazko magiaren menpe daudela, alegia teoria orokor horren kasu partikularrak besterik ez direla. Esate baterako, mutil eskimalen artean debekatuta dago "katuaren kumatxoetara" jolastea; hala eginez gero, gizondutakoan, arpoiaren soka trabatzea gerta liteke eta. Adibide honetan tabua antzekotasun-legearen aplikazioa da argi eta garbi, homeopatiako magiaren oinarriarena: haurraren atzamarrak, "kumatxoetara" jolastean, soka trabatuko liratekeen bezalaxe, halaxe trabatuko litzazkioke arpoiaren soka ere, gizondutakoan balen arrantzara joandakoan. Karpatoetako huzultarren artean ere, ehiztariaren emazteak ez du inoiz irungo senarrak jan bitartean, bestela, ehiza jira eta bira ibiliko da, ardatza bezala, eta ehiztariak ez du iturik joko. Hemen ere garbi ageri da antzekotasun-legetik datorren tabua. Halaberean, antzinako Italiako leku gehienetan, emakumeek ez zeukaten iruterik bide nagusietan zebiltzanean. Legez debekatuta zegoen ardatzak agerian eramatea ere, uste baitzen halako egintzek uztari kalte egiten ziotela. Ideia honako hauxe litzateke: ardatzaren jirabirek bihurritu egingo zituztela laborearen zurtoinak, eta ez zirela zuzen eta zut etorriko. Era berean, Sakhalin irlako ainoen artean, emakume haurdunak ez irun ez sokarik bihurritu behar du erditu baino bi hilabetez lehenagotik zeren eta, hala egingo balu, haurraren erraiak ere sokak bezala nahastuko bailirateke. Antzerako arrazoiagatik, Bilasporen, Indiako eskualde batean, herrixka bateko handikiak kontseilura biltzen direnean, inork ez du jiraraziko ardatzik; halakorik gertatuz gero, eztabaida ere, ardatzaren gisara, gurpil ero bihurtuko litzatekeelakoan, eta ezin askatuko litzatekeelakoan. Ekialdeko Indietako irla batzuetan, ehiztari baten etxera iristen den inor ez da zalantzan geratuko atean sartzean; hala egiten badu, berdin egingo du ehizak ere, artearen aurrean geratu eta itzuli, bertan harrapatuta geratu orde. Antzeko arrazoi batengatik, Celebesko erdialdeko toradjek arau bat dute, inor ez geratzea emakume haurduna bizi den etxeko zurubian; horrek atzeratu egingo omen luke haurraren jaiotza. Sumatrako zenbait aldetan, egoera horretan dagoen emakumeari debekatu egiten zaio atean edo zurubiko azken mailan geratzea, erditze gogorra jasan nahi ez badu hain burubide jakinekoari axola ez emateagatik. Kanforraren bila dabilztan malakarrek ihartuta hartzen dituzte janariak eta kontu izaten dute gatz lodia ez hausteko. Arrazoi hauxe da, kanforra bikortxoetan egon ohi dela kanfor-enborren zartaduretan.

Beraz, malakarrari bistakoa zaio ezen, kanforraren bila dabilela, elikagaiak gatz finez jango balitu, kanforra hauts eginda aurkituko lukeela; aldiz, gatz lodia egiten badiete, kanforraren bikorrak ere lodiak izango dira. Borneoko kanfor-bilatzaleek Penang-eko palmorriaren txurteneko leka erabiltzen dute jateko plater gisa, eta txangoak irauten dueino plater hori garbitu gabe uzten dute, garbituz gero, kanforra urtu eta zuhaitzen zartaduretatik desagertu egingo litzatekeelakoan. Nonbait, uste dute platerak garbitzean kanfor-kristalak ere garbitu egingo liratekeela eta zuhaitzetatik aldegingo luketela. Siamgo probintzia den Laosko alde batzuetako produktu garrantzitsuena laka da, intsektu gorri batek, zuhaitzen abar gazteen gainean eskuz jarri ondoren jariatutako goma erretxindua. Goma hori biltzen diharduten guztiak ez dira garbitzen, batez ere burua, beldur baitira, ileetatik bizkarroiak kenduta beste intsektuak ere abarretatik askatu egingo direla. Blackfoot indiarrak, arranoentzako tranpa ipini eta zelatan dagoenean, ez du inola ere otsalar alerik jaten; izan ere, hala egingo balu, eta arrano bat tranpatik hurbil pausatuko balitz, urdailean dituen otsalar-aleek hazkura eragingo omen liokete arranoari, eta, ondorioz, beita irentsi ordez, hazka egiteari ekingo lioke. Pentsabide honen haritik, arrano-ehiztariak ez du eztenik erabiliko ehiza-tresnak konpondu behar baditu; izan ere, puntzoiaz hatzen bat ziztatzen badu, arranoek atzaparka egingo diote. Ondorio kaltegarri berbera etorriko litzaioke baldin eta, bera arranotara abiatutakoan, etxeko emakumeek eta hurrek eztenak erabiliko balituzte; beraz, hura kanpoan den bitartean, debekatuta dago tresna horiek erabiltzea, hiltzeko arriskuan jarriko duten beldurrez.

Basatiek gordetako tabuen artean, elikagai jakin batzuk jateko debekuak dira ugarien eta garrantzitsuenak, eta froga daiteke debeku hauetako asko antzekotasun-legetik datozela eta, beraz, magia negatiboaren adibide direla. Basatiak abere edo landare asko jaten dituen bezala, horiek dituzten zenbait tasun desiragarri bereganatzeko, beste zenbait ez ditu jaten, ustez haiek kutsatzen dituzten beste zenbait tasun bereganatuko ote dituen beldurrez. Lehenak janez, magia positiboan jarduten du; azkenekoak utziz, magia negatiboan. Aurrerago magia positiboaren adibide ugari aurkituko ditugu; orain, eman ditzagun negatiboaren edo tabuen adibide batzuk. Madagaskarren, esate baterako, debekatu egiten zaie soldaduei elikagai batzuk jatea, homeopatiatzko magian oinarritutako beldurragatik, alegia, jaki horiei egozten zaizkien zenbait tasun arriskutsuz edo arbuigarritz kutsatuta geratzeko beldurrez; horregatik, ezin dute trikurik jan, "abere honek, armatuta dagoenean, pilota baten gisan biltzeko duen joeraren beldurrez, hartatik jan dezanak uzkurdura herabe hori hartuko duela eta". Soldaduek ez dute jango idi-belaunik, idia bezala belaunetatik makaldu eta ibilaldietarako ahul ez geratzearren. Gainera, gerraria borrokan hildako oilarra edo ziztaturiko edozein gauza jatetik gordeko da; haren etxean ere ez da abere arrik hilko bera gerran dabilen bitartean. Izan ere, bistakoa iruditzen zaie borrokan hildako oilarra jango balu, bera gudu-zelaian hilko litzatekeela; ziztatutako aberetik hartuko balu, bera ere ziztatu egingo luketela; eta bera kanpoan den bitartean, etxean abere arrik hilko balute, bera ere gisa horretan, eta agian une berebean, hilko litzatekeela. Azkenez, soldadu malgatxea giltzurrunak jatetik gordeko da, zeren eta malgatheen hizkuntzan "giltzurrun" hitza eta "tiro" hitza berdinak baitira, eta tiroa jasoko luke, seguruena, giltzurrunak janez gero.

Irakurlea ohartuko zen tabu hauen adibideetan egiaztat ematen dela eragin magikoak distantzia handietara jarduten duela; blackfooten artean, esaterako, arrano-ehiztariaren emazteak eta hurrek debekatua dute ehizaldietan eztenak edo puntzoiak erabiltzea, arranoek kanpoan den aita edo senar hori atzaparka ez dezaten. Abere arrik ere ez da hilko soldadu malgatxearen etxean, hura gerran den bitartean, abere hori hiltzek gizonaren heriotza ekarriko ote duen beldurrez. Pertsonen eta gauzen artean urrunetik urrunera sinpatiazko eragina badelako sineste hau magiaren alorrekoa da funtsez.

Zeinahi direla zientziak urrunetik urrunera jarduteko ahalbideez dituen zalantzak, magiak ez du batere: telepatian fede izatea du lehen printzipioetako bat. Gogo batek beste batengan urrunera eragina duela sinesten duen gaur egungo pertsonak ez luke zailtasunik basatia horretaz konbentzitzeko, basatiak antzinatik sinesten baitzuen hori; are gehiago, hori sinetsita jarduten zuen beti, logika berberaz, sinesle zibilizatuak oraindik bere jokabidean, nik dakidanez, ageri ez duen logikaz. Basatia etsita dago zeremonia magikoei pertsona eta gauza urrunekoetan eragina dutela, eta haiek ezezik, eguneroko bizitzako egintzarik sinpleenak ere berdin egin dezaketela hori. Horregatik, munta handiko abaguneetan, lagun eta senideen urruneko jokabidea arautegi bihurri samar batez arautzen da, eta uste ohi da behartutako pertsonen arautegi hari men ez egiteak kanpoan direnen zoritxarra eta are heriotza erakar dezakeela. Gizon-talde bat ehizara edo borrokara irten denean batez ere, hurbilekoek, etxean, gauza batzuk egingo dituzte eta beste batzuk ez, kanpoan diren ehiztari edo gerrarien arrakasta eta segurantzak bermatzeko. Orain telepatia magikoaren bi ikuspegi adibide batzuk emango ditugu hemen; ikuspegi positiboarenak eta ikuspegi negatiboarenak alegia.

Laosko elefante-ehiztaria ehizara abiatzerakoan, aditzera ematen dio emazteari, arren ez ilerik mozteko ez gorputza gantzutzeko bera kanpoan den bitartean; ilea mozten badu, elefanteak lakioak hautsiko dituelako, eta gorputza gantzutzen badu, elefantea haietatik libratu eta ihesi joango delako. Dayaken herrixka batekoak basora basurdetara abiatzen direnean, herrian geratzen direnak ez dute urik edo koiperik ukituko besteak kanpoan diren bitartean; hala egingo balute, ehiztariak "atzamarrak koipeztuta" izango lituzkete eta hartara ehiza esku-artetik ihesi joango litzaieke.

Afrikako ekialdeko elefante-ehiztariak uste dute ezen, berak kanpoan direnean emazteak beste gizon batekin badabiltza, horrek ahala emango diela elefanteei beren jazartzaileen gainean, eta hil edo zauritu egingo dituztela; horregatik, ehiztariak emaztearen jokabide makurraren berri izaten badu, ehiza utzi eta etxeratu egiten da. Wagogotar ehiztariak zori txarra badu edo lehoi batek erasotzen badio, emaztearen jokabide gaiztoari egotziko dio, eta oso haserre etxeratuko da. Bera ehizan dabilenean, emakumeak ez dio inori uzten gibeletik pasatzen, ezta zutik egon dadin ere, bera eserita dagoen bitartean, eta ahozpeztu egin behar du lo. Boliviako moxo indiarrek uste zutenenez, ehiztari bat kanpoan zenean emaztea beste gizon batekin ibiltzen bazen, suge edo jaguarren batek hozkatuko zuen senarra. Horren arabera, halako ezbeharrik gertatuko balitz, emazteari zigorren bat, sari heriotza, etorriko zitzaion, noski, errugabea izan nahiz erruduna izan. Itsas ugabereen arrantzale aleutiarrek uste du ezin hilko duela abere bakar bat, etxetik kanpo den bitartean emazteak edo arrebak lizun jokatzen badute.

Mexikoko huitxol indiarrek erdi-jainkotzat hartzen dute kaktus-mota bat, hura jaten duenari estasia eragiten diona. Landare hau ez da hazten beren lurraldean, eta gizonak urtero abiatu behar izaten dute bila, berrogeita hiru eguneko bidaian. Bien bitartean, emakumeek abiatutako senarren segurtasunaren alde egiten dute, inoiz presaka ez ibiliz, are gutxiago antxintxika, gizonak bidean diren bitartean. Era berean, eginkizun sakratu hartatik atera nahi diren onurak, alegia euria, uzta ona eta abar segurtatzen saiatzen dira beren jokabideaz. Asmo honekin, nork bere burua estu hartzen du, senarren nekeen antzekoak jasanez. Kaktusaren jaialdia ospatu bitarteko denboraldian, ez batzuk ez besteak ez dira garbitzen, aldi jakin batzuetan salbu, eta orduan ere landarea hazten den herrialde urruneko ur hotzez bakarrik. Baraualdi handiak ere egiten dituzte, gatzik gabe jaten dute eta kontinentzia estuenera behartuta daude. Lege hau hausten duena gaixotasunek zigortzen dute eta, are okerrago, arriskuan jartzen du denak lortu nahian dabiltzan emaitza. Kaktus hura -suaren jainkoaren kalabaza- bilduz lortzen dira osasuna, zori ona eta bizia; baina su garbiak garbi ez denari onik ezin ekar diezaiokeenez, gizon eta emakumeek, denboraldi osoan zehar garbi iraun ezezik, aurreko bekatuen orbanak

ere garbitu behar izaten dituzte. Horregatik, gizonak abiatu eta lau egunetara, emakumeak bildu egiten dira. Su Aitonari aitortzera haurretatik ordura arte zein gizonekin izan duten amodio. Ezin dute bat bakarra isildu, bestela kanpoan diren biltzaileek ez lukete alerik ere jasoko. Horregatik, oroitzapenak harrotzeko, bakoitzak soka bat prestatzen du, izandako maitaleak hainbat korapilo dituen, eta harekin joaten da tenplura eta, suaren aurrean jarrita, ozenki eta banan-banan, sokak adierazten dituen gizonen izenak esaten ditu. Aitorpena amaitu eta gero, soka sutara bota eta jainkoak bere gar garbitzaileetan erretakoan, bekatuak ahaztuta geratzen dira, eta emakumea bakean joaten da. Handik hara, emakumeek ezinikusia izaten diete gizonari, eta ondotik pasatu ere ez dira egiten. Kaktus-biltzaileek berek ere antzera egiten dute beren ahulezien garbiketa. Bekatutxo bakoitzeko korapilo bat egiten dute beren sokan eta "bost haizetara" aitortu ondoren, buruzagiari ematen diote arrosarioa, eta hark sutan erretzen du.

Sarawakeko tribu askok sineste sendoa dute: senarrak oihanean kanfor bila dabiltzan bitartean, emakumeek adulterio egingo balute, lurrindu egingo litzateke bildutakoa. Senar batzuek zuhaitzen zenbait adabegiri esker jakin dezakete beren emazteak beste gizon batekin dabiltzan ala ez; garai batean, emakume asko hiltzen omen ziren beren senar jeloskorren eskuz, adabegi horiek beste frogarik izan gabe. Gainera, emakumeak ez dira ausartuko orrazia erabiltzera senarra kanfor biltzen ari bitartean; hala egingo balute, zuhaitzen zimurduren arteko zirrituak, kristal preziatuez beteta egon ordez, hutsik egongo lirateke orraziaren hortz-arteak bezala. Kei irletan, Ginea Berriko hegomendebaldean, urrunera abiatzekotan den itsasontzia uretara botatakoan, hura egondako hondartzaldea palmarrez estaltzen da ahalbait lasterren, eta leku hura sakratua da. Beraz, inor ezin da handik pasatu itsasontzia abiaburuko portura itzuli arte. Handik lehenago pasatzeak ontzia galaraziko luke. Gainera, hiruzpalau neska aukeratzen dituzte, ontziaren ibilaldiak iraun bitartean, marinelekin sinpatiazko harremanetan egon daitezen, neskek beren jokabideaz bidaiaren segurtasun eta arrakastan laguntzen dutelarik. Hau dela eta, behar-beharrezkoetara izan ezik, ezin aldegin dezakete eman zaien gelatik. Are gehiago: ontzia itsasoan dabilen denbora guztian, haiek gelditu egon behar dute, zerriatxoan gainetan kokoriko jarrita eta belauen artean eskua eskuari emanda. Zirkinik ere ez dute egingo buruaz ezkerrera edo eskuinera. Egingo balute, ontzia zabuka eta balantzaka jarriko lukete. Gauza itsaskorrik ere ez dute jango, hala nola koko-uretan egositako arroza, jakiaren itsaskorrek ontziaren ur-ibilia oztopatuko bailuke. Ustez nabigatzaileak helmugara iritsi direnean, arau estu hauek lasaitu egiten dira zerbait, baina joan-etorri osoak iraun bitartean, neskek debeku dute hezur zorrotzeko edo eztundun arrainik jatea, hala nola bastanga, lagunak atsekabe gogor eta zorrotzen batek harrapatuko ote dituen beldurrez.

Elkarrengandik urrun dauden lagunak arteko lotura sinpatiazkoari buruzko sineste horiek dirauten lekuan, ez da harritzekoa, gerran-eta, giza emozio barrukoenak eta samurrenak astintzen direnean, urrun geratu diren senide larrituengan lotura sinpatiazkoak beren maiteen onerako erabat aprobetxatzeko desira bizkortzea, une horietanxe borrokan eta hiltzeko zorian egon daitezkeelako. Horregatik, eta hain asmo berezko eta laudagarria segurtatzeko, familiak, etxean, prest izaten dira guk, zer zertarako erabiltzen den ikusita, barregarri eta erdiragarritzat joko genituzkeen eta harritu egingo gintuzketen baliabideak erabiltzeko. Borneoko barruti batzuetan, adibidez, dayak bat "giza buruen ehizan" ari denean, emazteak -eta emazterik ez badu, arrebak- gau eta egun eramane beharko du ezpata bat aldean, senarrak beti armak gogoan izan ditzan; emakumeak ez du lo egingo egunez, eta ez da oheratuko goizaldeko ordu biak baino lehen, senar edo neba etsaiak lotan harrapatuko duen beldurrez. Bantingeko dayak itsastarren artean, Sarawaken, emakumeek arautegi zaila betetzen dute gizonak

borrokan ari diren bitartean. Arau horietarik, batzuk positiboak dira eta beste batzuk negatiboak, baina homeopatiatzko magia eta telepatia dira denen oinarri. Besteak beste, honako hauek. Emakumeek goiz jaiki beharko dute eta eguna zabaldu bezain laster irekiko dituzte leihoak, bestela kanpoan diren senarrek gehiegi lo egingo lukete eta. Emakumeek ez dute ilea koipeztatuko, gizonak laprast egin ez dezaten. Emakumeek ez dute lokamusik egingo egunez, bestela gizonak logalez ibiliko baitira. Emakumeek krispetak maneatu eta atalondoan barreiatuko dituzte goizero, hartara gizonak zalu mugituko baitira. Oso garbi izango dituzte etxeko gela guztiak, eta kutxa guztiak hormen kontra ipinita; izan ere, inork haiekin estropezu egingo balu, kanpoan diren senarrak erori eta etsaiaren menpe gera litezke. Otorduetan arroz-pixka bat utziko dute potean, aparte; hartara, gizonak beti izango dute jatekoa eta inoiz ez dira goseak egongo. Emakumeak ez dira inola ere eserita egongo ehundegiaren aurrean karranpak sentitu arte, zeren eta, hala eginez gero, senarrak zurrundu egingo bailirateke, eta ezingo lirateke bizkor jaiki edo etsaiagandik urrundu. Hori dela eta, senarren giltzadurak zalu mantentzeko, emazteak aldika ehundegiko lanari utzi eta galerian hara eta hona ibiltzen dira pixka batean. Ez dute aurpegia estali behar, bestela gizonak galdu egingo bailirateke belar handietan edo oihanean. Gainera, ez dute jostorratzez josiko, gizonak etsaiak bidean jarritako iltze zutak zapalduko lituzkete eta. Emakume bat, senarra urrun denean, beste gizon batekin ibiliko balitz, hark bizia galduko luke etsaien lurrian. Orain dela urte batzuk, arau hauek guztiak eta beste zenbait betetzen zituzten Bantingeko emakumeek, senarrak ingelesten alde eta matxinatuen kontra gerran ari zirenean. Baina, ai ene!, neurri xume guztiok ezer gutxitarako baliatu zitzaizkien: senar asko, emazte leiala etxean zain eta beilan egon arren, hil egin ziren.

Timor irlan, apaiz nagusia ez da inoiz tenplutik irteten gerra dagoen bitartean; eraman egiten dizkiote jakiak edota han barruan atontzen ditu; sua piztuta mantendu behar du gau eta egun; itzaliko balitzaio, hondamendia letorke gerrarentzat, eta iraun egingo luke sutegia hotz egon bitartean. Gainera, armada kanpoan den bitartean, ur beroa besterik ez du edango; ur hotzaren trago bakoitzak gerrarien bihotzak hoztuko lituzke, eta hartara ezin menperatuko lukete etsaia. Kei irlatan, gerrariak alde egin eta gero, emakumeak etxera sartu eta frutaz eta harriz betetako saski berezi batzuk atera, koipeztatu eta ohol baten gainean jartzen dituzte; hori egin bitartean, honela esaten dute ahopeka: "Jaun Eguzki, Ilargi, arren egizue balek gure senar, anaia, senargai eta beste senideen gorputzetan errebotatzen dezaten, euri-tantek koipeztaturiko gauza hauetan errebotatzen duten bezalaxe". Lehen tiroa entzun orduko, utzi alde batera saskiak eta, haizemaileak hartuz, emakumeak ziztuan irteten dira etxeetatik eta, haizemaileak etsaien aldera mugituz, lasterka ibiltzen dira herrixkan zehar, honakoa abestuz: "Oi haizemaile urrekoloreok, egizue gure balek helburua jo eta etsaiarenek huts egin dezaten". Ohitura honetan, harriak koipeztatzeko zeremonia, balak gizonengan euri-tantek harrietan bezala errebotatzen dezaten, homeopatiatzko edo antzezko magia hutsaren aplikazioa da; baina eguzkiari egindako otoitza, xarmari eraginkortasuna eman diezaion, ekintza erlijiosoa da, gerora erantsitakoa beharbada. Haizemaileen kulunkak xarmadura bat dirudi, balak desbideratzeko edo helbururantz zuzentzeko xarmadura, etsaien ala lagunaren tiroak diren.

Madagaskarko historialari zahar batek jakinarazten digunez, "gizonak borrokan ari diren bitartean eta handik itzuli arte, emakumeek etengabe jarduten dute dantzan, eta ez etzan ez jakirik hartu egiten dute beren etxeetan. Eta lizunera emanak diren arren, inola ere ez lukete harremanik izango beste gizon batekin senarra gerran dabilen bitartean, erabat etsita baitaude hala eginez gero senarra hil edo zauritu egingo dutela. Sinesten dute, halaber, dantzan jardunez ausardia, kementa eta zori ona igortzen dizkietela

senarrei. Honen arabera, eta aldi horietan, ez dute inolako atsedetik hartzen eta ohitura hau estu-estu gordetzen dute".

Tsi hizkuntzako herrien artean, Urre-kostan, senarrak armadarekin joanda urrun dituzten emazteak zuriz margotzen dira, eta bitxiz eta fetitxez apaintzen dituzte beren buruak. Gudua ustez izango den eguna aldera, batetik bestera ibiltzen dira lasterka, fusilez edo suzko armen erara landutako makilez armatuta; eta papaia gordinak (melo baten itxurako frutak) bildu eta labanaz ebakitzen dituzte, etsaiei burua moztuko lieketen gisan. Pantomima, ezbaierik gabe, antzezko xarma hutsa da, gizonak erraz egin diezaieten etsaiei berek papaiari egiten dietena. Framinen, Afrikako mendebaldeko herri batean, alegia, ashantien gerratean, orain dela urte asko, Fitzgerald Morriottek dantza bat ikusi zuen, senarrak gerrara garraiolari joanak zituzten emazteek eginak. Zuriz margotuta zeuden eta mantaltxo bat beste arroparik ez zeramaten aldean. Sorgin zimurtu bat zuten gidari, mantaltxoarekin hura ere; bilo beltza aurpegiaren aurrealdera zuzendutako adar handi baten gisa zeukan apainduta, eta bularrak, besoak eta zangoak ilargi erdi eta zirkulu zuri ugariz apainduta. Denek zeramatzaten erratz zuri handiak, bufalo edo zaldi-buztanez eginak, eta dantzaren konpasean honakoa kantatzen zuten: "Gure senarrak ashantien lurraldera joan dira; garbi ditzatela etsaiak lurrazalek".

Britainiar Columbiako thompson indiarren artean, gizonak gerrara abiatzen zirenean, emazteek dantzan egiten zuten sarri tarteka; dantza haiek espedizioa ondo amaituko zela segurtatzen omen zuten. Dantzariek labanak zituzten eskuetan, makila luze punta-zorrotzak jaurtitzen zituzten aurreraka edo makila kakodunak jaso eta aurrera eta atzera mugitzen zituzten. Makilak aurreraka botatzeak etsaia zauritzea edo atzeraraztea esan nahi zuen, eta atzeraka eragiteak beren gerrariak arriskutik ateratzea. Makila-muturreko gakoa aparteko egokitasunez baliatzen zuten bizia salbatzeko gailu gisa. Emakumeek etsaien herrialdera zuzentzen zituzten beti beren armen puntak. Aurpegiak gorritz margotuta, kanta eta dantza jarduten zuten, eta arnei egiten zieten otoitz, arren senarrei etsai asko hiltzen lagun ziezaietela. Arrano-luma bat eramaten zuten makilen muturretan itsatsita. Dantza amaitutakoan ezkutatu egiten zituzten armak. Senarra gerran zuen emakumeak ilea edo buruazalaren zati bat ikusi uste bazuen gero arma ateratzean, bazekien senarrak etsai bat hil zuela. Baina odol-mantxa ikusi uste bazuen, senarra zaurituta edo hilda zegoela jakiten zuen. Kaliforniako Yuki tribuko gizonak gerrara joanak zirenean, emakumeek ez zuten lorik egiten; dantzan egiten zuten etengabe, biribilean, kantatuz eta hostodun abartxoak astinduz. Ziotenez, dantzan egin ahal zuten artean senarrak ez ziren nekatuko. Karlota Erreginari irletako haida indiarrek gerrara abiatzen zirenean, etxeko emakumeak oso goiz jaikitzen ziren goizean eta gerran ari zirelako egiten zuten, seme-alabatxoei erasoz eta esklabotzat hartzen zituztelakoa eginez. Hartara, uste zuten gauza bera egiten laguntzen zieten gizonak. Senarra gerran zen bitartean emaztea beste gizon batekin nahasten bazen, ia gauza segurua zen gizona hil egingo zela. Hamar gauez, emakume guztiak burua gerrako kanoak urruntzean hartutako alderantz zutela etzaten ziren etxeetan. Gero kontrako aldera aldatzen ziren, gerrariak etxera bidean zetozelakoan. Masseten, haida emakumeek dantzatu eta gerrakantak abesten zituzten senarrak gerran ari ziren denbora guztian, eta ordena jakin batean izaten zituzten inguruko gauza guztiak. Ustea zen emakume batek senarraren heriotza ekar zezakeela ohitura horiek gordetzen ez bazituen. Orinokoko karibe indiarren saldo bat gerrarako bidean jarria bazen, herrixkan geratutako lagunak ahalik eta zehatzen saiatzeko ziren kalkulatzeko joandako gerrariak noiz erasoko zioten etsaiari; orduan, hartu bi mutiko, banku baten gainean biluzik etzanarazi, eta goitik behera zehatzen zituzten. Mutikoek txintik atera gabe jasotzen zuten zigorra; ume-umetatik ikasiak ziren proba anker hartan erakutsitako seta eta sendotasunaren gora-beheran

zegoela herrikideek batailan izango zuten ausardia eta arrakasta; erabat etsita zeuden hala zela.

Xede on ugaritarako aplikatu da okerreko xalotasunez homeopatiatzko edo antzezko magiaren legea. Besteak beste, zuhaitzei eta landareei fruituak behar den garaian emanarazteko. Turingian, norbaitek lihoa ereiten duenean, bizkarrean eramaten du hazia, sorbaldetatik belaunetarainoko zaku luze batean, eta pauso handika ibiltzen da, zakua batetik bestera kulunka. Hartara lihoa ere halaxe kulunkaraziko omen du brisarak. Sumatrako barrualdean, emakumeek ereiten dute arroza, eta hori egitean ilea bizkar gainean solte eramaten dute, arroza ugari eta zurtoin luzeetan haz dadin. Halaberean, Mexikon antzina jaialdi bat izaten zen artoaren jainkosaren ohorez, "Ile luzedun amaren" ohorez, hala deitzen zioten eta. "Landarea erabat hazita zegoenean, eta artaburuaren puntatik alea erabat osatuta zegoela adierazten zuten izpiak ateratzen zirenean" hasten ziren. Jaialdi hartan zehar, emakumeek solte eramaten zuten ile luzea, dantzatzean astinduz eta eraginez; zeremoniaren ekintza nagusia zen dantza, eta artaburuak ere berdin haztea, ale handiz eta betez, horixe zuten helburu, herritarrek ugaritasuna izan zezaten". Europako alde askotan, dantza edo salto egitea homeopatiatzko modu egokiak dira ereinak asko haz daitezen. Esate baterako, Franche-Comté esaten dutenez, ihauterietan dantzan egin behar da kalamua asko haz dadin.

Pertsona batek landare batean, bere egitez edo izatez, homeopatiatzko eragina ezar dezakeela, malakar emakume batek esandakoaren ondorio argia da: galdetu ziotenean zergatik biluztu zen gerritik gora arroza moztean, "arrozak azal finagoa izan dezan" erantzun zuen, nekatuta zegoela-eta azal lodia xehatzen. Bistan da zer uste zuen hark: berak zenbat eta arropa gutxiago eraman, arrozaren azala hainbat eta meheagoa izango zela. Emakume izorrak duen bertute magikoa, hau da, emankortasuna komunikatzekoa, ezaguna dute Austria eta Bavariako nekazariak: uste dute emakume haurdunari zuhaitz baten lehen fruitua ematen bazaio, hurrengo urtean fruitu ugari bilduko dela zuhaitz hartatik. Bagandatarren ustez, berriz, emakume antzuak bere antzutasunaz kutsatuko omen du senarraren baratza, eta zuhaitzei fruituak izatea galaraziko omen die; horregatik zapuzten dituzte haurrik gabeko emakumeak. Grekoek eta erromatarrek opagai izorrak hiltzen zizkieten laboreen eta lurraren jainkosari, zertarako eta lurrak ugari eman zezan eta galburuko alea lodi-lodi egin zedin, ezbairik gabe. Apaiz katoliko batek errieta eman zienean Orinokoko indiarrei, beren emakumeei eguzki-galdatan eta umeak bularrean zituztela ereiten uzten zitelako, gizonak honela erantzun zioten: "Aita, gauza hauen berri ez dakizulako haserretzen zara. Zuk badakizu emakumeak ohituta daudela umeak egiten; gizonak ez, ordea. Emakumeek ereiten dutenean, arto-landareak bi edo hiru artaburu emango ditu, yukaren sustraiak bi edo hiru saski beteko ditu, eta beste gauza guztiak ere berdintsu gehituko dira. Zergatik da hori? Bada, hain zuzen, emakumeek umeak egiten dakitelako, eta berdin dakitelako ereiten duten haziak ere nola egin ditzakeen umeak. Beraz, utzi berei ereiten; gizonok ez dakigu-eta haiek adina gauza hauetaz".

Hortaz, homeopatiatzko magiaren teorian pertsona batek eragina izan dezake landaretzan, onerako nahiz txarrerako, bere egiteak onak ala txarrak diren edo bere izaera nolakoa den, horren gora-beheran: adibidez, emakume emankorrek landareak fruituz betearaziko ditu, eta emakume antzuak antzutu egingo ditu. Ezaugarri pertsonal batzuk kaltegarri eta kutsakor direla sinesteak hainbat debeku edo ezabatze-arau sorrarazi du: pertsonak utzi egingo diote zenbait gauza egiteari, bestela hauen egoera edo izate kaltegarriak lurraren igaliak kutsatuko lituzke homeopatia bidez. Norbaitengandik edo zerbaitetarik alderatzeko ohitura edo arau hauek guztiak magia negatiboaren edo tabuaren adibide dira. Esate batera, galelartarrek, pertsonen ekintzen edo egoeren kutsagarritasunaz (guk kutsagarritasun dei geniezaiokeenaz alegia)

argudioak ematean, haxe diote, ez dela gezirik jaurti behar frutarbola baten azpira, arbolak geziak lurreratzen diren bezala askatuko dituelako frutak; eta sandia jaten dutenean ere, ez dituzte nahastuko hazitarako pipitak eta ahotik botatzen dituztenak, zeren eta, hala eginez gero, nahiz eta ahotik botatako pipitak ernaldu eta loratu, kapuluak erori egingo baitira pipitak ahotik bezala eta, hartara, pipita horiek sekula ez dute fruiturik emango. Arrazoibide berorrek bultzatzen ditu bavariar nekazariak sinestera ezen, frutarbola baten txertoa lurrera erortzen uzten badute, txertotik sortuko den arbolak ere fruitua heldu gabe askatuko duela. Kotxintxinako shamdarrak beren alor lehorretan arroza ereiten ari direnean, eta euri-erauntsirik nahi ez badute, arroz iharra jaten dute euriak uzta gal ez dezan.

Aurreko kasuetan uste da pertsonak homeopatia bidez eragiten diola landaretzari. Pertsona horrek bere tasun edo ezaugarrien antzekoez (on nahiz txarrez) kutsatzen ditu zuhaitzak edo landareak. Baina homeopatiatzko magiaren printzipioaren arabera, eragina elkarrekikoa da: landareak gizakia kutsa dezake, gizakiak landarea bezainbat. Magian, fisikan bezalatsu nik uste, berdinak eta kontrajarriak dira ekintza eta kontraekintza. Cherokeeak iaioak dira homeopatiatzko botanikaren praktikan. Adibidez, katgut ("katu-heste") landarearen sustrai zurrinak hain dira gogorak non ildoan goldea traba dezaketen. Horregatik, emakume cherokeeek sustraiak egosi eta saldarekin garbitzen dituzte biloak, beren ilea indartzeko, eta pilota-jokalari cherokeeak ere horretxekin garbitzen dira muskuluak gogortzeko. Galelartarren sineste baten arabera, lurrera eroritako fruta jaten bada, estropezu egiteko eta erortzeko joera hartzen omen da; eta ahaztutako zerbait hartzen bada (lapikoan utzitako batata edo sutan utzitako platanoa), hori egin dezanak oroimena galduko omen du. Galelartarren iritziz, halaber, emakume batek txurten beretik etorritako bi platano jaten baditu, bikiez erdituko da. Hegoamerikako guaraniek uste zuten emakume bat bikien ama izango zela artatxikiaren ale bikoitza jaten bazuen. Veden garaian printzipio honen aplikazio bitxi batek xarma bat eman zuen, erbesteratutako printzea tronuan berrezartzeko. Hark hartzen zituen jakiak, zuhaitz baten motzondotik sortutako muskilen egurraz egindako sutan atondu behar ziren. Zuhaitz hark ageri zuen berpizte-indar hura sutatik janarietara pasatuko zen denboraz, eta bide hartatik printzeagana, zuhaitzak ematen zuen egurraz egindako sutan atondutako jakiak jaten bazituen. Sudandarrek uste dute zuhaitz arantzatsuen zurez egindako etxe batek bertan bizi direnen bizitza ere, beraren antzera, arantzatsu eta ezbeharrez betea bihurtuko duela.

Bada homeopatiatzko magiaren adar emankor bat, hildakoen bitartez burutzen dena: hildako batek ikusi, entzun eta hitz egin ezin duen bezala, halaberean jendea itsu, gor eta mutu utz daiteke hildakoen hezurak edo heriotzaren ustelaz kutsatutako beste edozein gauza erabiliz: adibidez, galelartarren artean, mutil bat gauez neska-laguntzen dabilenean, lur-pixka bat hartzen du hilobi batetik eta andregaiaren etxeko teilatu gainean zabaltzen du, doi gurasoek lo egiten duten lekuaren gain-gainean. Uste du hartara haiek ez direla esnatuko, berak maitearekin hitz egin bitartean, hilobiko lurrak heriotzarena bezain lo sakona emango dielako. Bide-lapurrek, garai eta herrialde guztietan, magia-mota hau sustatu dute, oso baliatzen baitzaie beren lanean. Eslavoniako hegoaldeko lapur batek bere lanei ekiterakoan, adibidez, hildako baten hezurra jaurtitzen du etxe gainera, eta haxe esaten du eztenkari: "Hezur hau esnatzen denean esna bedi hemengo jendea ere". Hori egin ondoren, etxeko inortxok ere ezingo ditu begiak irekita mantendu. Era beretsuan, Javan, lapurrak, hartu lurra hilobi batetik eta lapurreta egin nahi dueneko etxearen inguruan zabaltzen du; hala, etxeko biztanleak lo sakonean murgiltzen omen ditu. Asmo berberaz, hindu batek hileta-suko errautsak barreiatzen ditu etxearen ate aurrean; Peruko indiarrek hildakoen hezurren hautsa sakabanatzen dute, eta lapur ruteniarrek hildako baten bernezurrari muina kendu, haren

lekuan bilgorra jarri, bilgorrari su eman eta hiru bira egingo dizkiote etxeari zuzia piztuta, eta hartara heriotza bezalako lo sakona izango dute bertan bizi direnek; edo hildako baten izterrezurraz txirula egin eta berarekin joko dute, hura entzuten duten pertsona guztiak lozorroak mendean har ditzan. Mexikoko indiar batzuek, asmo gaizto honekin, lehen erditzean hildako emakume baten ezkerreko besaurrea erabiltzen zuten, baina gorputz-atal hark lapurtua behar zuen. Berarekin lurra jotzen zuten lapurreta egin asmo zuten etxean sartu aurretik eta, hartara, barruan zeuden guztiek mugimendua eta hitza galtzen omen zuten: hilda bezala egoten ziren, dena entzunez eta ikusiz, baina erabat geldi; batzuk bene-benetan egoten ziren lo, are zurrungaka. European antzerako ezaugarriak egotzi zitzaizkion Gloriako Eskuari, hots, urkatu baten esku keztatu eta gazituari. Urkamendian hildako gaizkile baten koipeaz kandela egin, piztu eta Gloriako Eskuan zuzi gisa ipiniz, perlesiak jota geratzen ziren aurrean jarritako pertsona guztiak: ezin zuten hatzik mugi, hilda bezala zeudelako. Batzuetan hildakoaren eskua erabiltzen zen kandela edo, hobeto esanda, kandela-sorta gisa, hatz haragi gabeak pizten baitziren. Gerta zitekeen familiako senideren bat esna egotea, eta orduan hatzen bat ez zen sukartuko. Halako argi gaiztoak esnez bakarrik itzal daitezke. Sarritan, lapur-kandela jaioberriaren hatzaz egina izatea gomendatzen da, edo are hobeto, hilaurrenaren; batzuetan beharrezko irizten zaio lapurrak, etxeko pertsona bakoitzeko, argizari bat izateari, zeren eta, kandela txikiegia izanez gero, norbait esnatu eta lapurra harrapa bailezake. Kandela hauek gartzen hasten direnean, esneak bestek ez ditu itzaliko. XVII. mendean lapurrek emakume izorrak hiltzen zituzten, haien umontzitik argizariak atera ahal izateko. Antzinako lapur greko batek pentsatzen zuen zakur zaintzaile beldurgarrienak ere isilarazi eta ihesean jar zitzakeela, eta hileta-su batetik jasotako ilintia eramaten zuen. Emakume serbiar eta bulgariarrek ere, etxeko bizimoduaren estuasunek nahigabetuta, hilotz baten betazalen gainean jarritako kobrezko txanponak jaso eta ardoz edo urez garbitzen dituzte, eta gero salda hori senarrei ematen diete edatera. Hau irentsi ondoren, txanponak begietatik jaso zaizkion hildakoa bezainitsu izango omen da senarra emazteen bekatutxoentzat.

Bestalde, pentsatu ohi da abereek badihurtela gizonarentzat baliagarri gerta daitezkeen tasun edo propietateak, eta homeopatiatzko edo antzezko magia hainbat bidetatik saiatzen da tasun horiek gizakiei komunikatzen. Betxuanatar batzuek, esaterako, hudo bat eramaten dute xarma gisa, zeren eta, abere hau biziari hainbesteko setaz atxikitzen zaionez, eramaleak ere nekez hilko baitira. Beste batzuek intsektu berezi bat eramaten dute, atalen bat moztuta baina bizirik, asmo berberaz. Beste gerrari betxuana batzuek idi adargabe baten ilea eramaten dute beren ileen artean, eta igel baten azala longainean, igela labaina delako eta idia, adarrik gabe, oratzen zaila delako; halako xarmaz hornituta doanak uste du bera ere igela eta idia bezain zaila izango dela atxitzen. Orobat, gerrari hegoafrikarrak, bere ile kizkurren artean arratoien ile-xerloak daramatzalarik, arratoiak jaurtitzen zaizkion gauzei izkina egiteko bezainbateko ahalbideak izango ditu berak ere etsaiaren lantza saihesteko; hau dela eta, lurralde horietan arratoi-ilea oso estimu handitan egon ohi da gerra-hotsak direnean. Indiako liburu zaharretako batek zera agintzen du, garaipen bat eskertzeko sakrifizioa eskaintzen denean, aldarea egiteko erabiliko den lurra basurdea etzan den lekutik hartu behar dela, lur horretantxe baitatza basurdearen indarra. Soka bakarreko arrabita jotzen ari eta atzamarrak dorpe badaude, aski da armiarma zankaluze bat harrapatu, erre eta atzamarrak errautsez igurtzitzea: atzamarrak armiarmen zangoak bezain malgu eta trebe bihurtuko omen ditu horrek; galelartarrek behintzat halaxe uste dute. Ihes egin dion esklaboa itzul dadin, arabiarrek zirkulu magikoa egingo du zoruan, erdian iltze bat tinkotu eta, hari batez, kakalardo bat lotuko dio iltzeari, iheslariaren sexu berekoa izan dadila kontu eginik. Kakalardoa jira eta bira hasiko denez, haria iltzean bilduz joango da, gero eta laburrago, intsektua

zirkuluaren erdirantz ekarriz. Horrela, homeopatiatzko magiaren kariatz, esklabo iheslaria ere ugazabarengana itzultzera behartuko omen da.

Britainiar Ginea Berriko mendebaldeko tribuen artean, sugea akabatzen duen gizonak, erre eta errautsez belzten ditu bernak oihanera doanean: ezein sugedorrik ez du hozkatuko egun askotan. Hegoeslavoniarrek, azokan lapurreta egiteko asmoa hartzen badu, katu itsu bat erre eta ondoren haren errautsak berarekin tratuan ari den pertsonaren gainera botatzea besterik ez dauka; hori eginez gero, nahi duena kendu ahal izango omen dio saltokitik, jabea ezertaz ohartzeke, katu hil eta errautsutakoa bezain itsu egongo baita. Eta gainera, lapurrak honela esango dio maltzur: "Ordaindu al dizut?", eta iruzurtutako saltzaileak hala erantzungo dio: "Bai noski!" Hori bezain erraza eta eraginkorra da Australiako erdialdekoek bizartsu izan nahita hartzen duten burubidea. Hezur zorrotz batez kokots osoa ziztatzen dute, eta gero ziri edo harri magiko batez jotzen dute kontuz hezur hori, bibote luze-luzedun arratoi-mota bat dela irudi eginez. Ile luzeon bertutea, jakina, ziri edo harri magikora pasatzen da, eta honetatik, iraganbide errazez, kokotsera; hau laster jantziko omen da bizar sarritz. Antzinateko grekoek uste zuten urretxindor beti ernearen haragia jaten zuena ezin izango zela lokartu; pertsona begi-lausoaren begiak arranoaren behazunaz igurtzita, arrano-ikusmena emango zitzaioela; eta belearen arrautzekin hegazti horren belztasuna itzuliko zitzaioela buruko ileei. Adinaren ondorenak horrela estali nahi zituen pertsonak gauza bakar bati egin beharko zion kontu: ahoan ahatarra handi bat olio eduki beharko zuen bere biloak arrautzaz gantzutu bitartean, zeren eta, bestela, hortzak ere, ilea bezala, belearen beltzaz tindatuko baitzitzaizkion, eta garbitu eta garbitu arren ez ziren zurituko. Ilerako gai hura tinte ahaltsuegia zen, eta erabilia nahi baino ondorio larriagoak ekar zitzakeen.

Huitxol indiarrek miretsi egiten dituzte sugeen bizkarraldeko marka ezin ederragoak eta, horregatik, emakume bat ehuntzera edo bordatzera doanean, senarrak suge handi bat harrapatu eta makila arraildu batez katigatzen dio, eta emakumeak bizkarralde osoa igurtzitzen dio eskuaz; ondoren, bere bekokia eta begiak ukitzen ditu esku hartaz; gisa horretan, sugearen bizkarreko markak bezalako lan eder-ederrak egin ahalko ditu ehunean.

Homeopatiatzko magiaren printzipioaren arabera, bizigabeek, landare eta abereek bezala, onurak edo kalteak heda ditzakete beren ingurura, beren berezko izatearen arabera eta magia-gizonak onurak edo kalteak jaregiteko edo gordetzeko -aldian aldikoa- duen maisutasunaren arabera. Samarkanden, andreek azukre errea eman ohi diete miazkatzera haurrei, eta goma jartzen diete esku-ahurrean, zertarako eta handi izatean hitz gozokoak izan daitezen, eta baliozko gauzak eskuetan itsats dakizkien, gomaztatuta bailituzten. Grekoek uste zuten otsoak ausikitako ardiaren ilez egindako jantzi batek kaltea ekarriko ziola janzten zuenari, azalean hazkura edo narritadura eraginez. Uste zuten, halaber, zakur batek hozkatutako harria ardotara botatzen bada, ardo hori edan dezatenek sesioa izango dutela. Moabeko arabiarren artean, haurrik gabeko emakumeak haur asko izan dituen beste bati eskatu ohi dio arropa sarri, jantziarekin batera jabearen emankortasuna hartuko duelakoan. Sofalako kafreek, Afrikako ekialdean, beldurra zioten hutsa zen edozertaz emandako kolpeari, hala nola kanaberaz edo lastoaz jotakoari, eta nahiago zuten haga baten edo burdin barra baten kolpea hartu, nahiz mina handiagoa izan. Pentsatzen zuten gauza hutsen batez jotako gizonari ezereztu egingo zitzaioela gorputz barrua, hil arte. Ekialdeko itsasoetan badira molusku-maskor handi batzuk, Celebesko bugiek "gizon zaharra" (kadjâwo) deitzen dituztenak. Ostiralez maskorrek ahozpezt jartzen dituzte etxeko atalaurrean, atalaurrea iragan dezan edonork bizi luzea izango duelako ustean. Iniziazio-zeremonian, mutil brahmanak harri bat zapaltzen du eskuineko oinaz, hitzok esaten ari zaizkion bitartean: "Zapal ezazu harri hau; izan zaitez bera bezain irmo". Eta zeremonia bera egiten da, hitz

berberez, andregai brahmanaren ezkontzan. Madagaskarren, zori aldaberari kontra egiteko, harri bat lurperatzen dute etxearen zutabe nagusiaren oinean. Harri baten gainean zin egiteko ohitura hedatuak ere, honako sineste honetan luke funtsa partez, hots, harriaren gotortasun eta egonkortasuna zinaren bermea dela sinestean. Horregatik, Saxo Grammatiko antzinako historialari daniarrak honela diosku: "Antzinakoak, erregea hautatzerakoan, lurrean ipinitako harrien gainean jartzen ziren botoa emateko, zertarako eta, harrien tinkotasunari esker, erabakitakoak iraun zezan".

Harri guztiei eraginkortasun magikoa egozten zaie, propietate berberak dituztelako: pisua eta sendotasuna; zenbait harriari edo harri-motari, ordea, bertute magiko bereziak egozten zaizkie, formaz eta kolorez, banaka edo motaka dituzten tasunen arabera. Adibidez, Peruko indiarrek harri batzuk erabiltzen zituzten artoa ugaritzeko, beste batzuk patatak ugaritzeko, eta beste batzuk azienda ugaritzeko. Artoa haz zedin erabiltzen zituzten harriek artaburuen itxura zuten, eta abereak ugalaraztekoek, berriz, ardiarena.

Melanesiako zenbait aldetan oraindik irauten du sineste batek, alegia zenbait harri sakratuk ahalmen miragarriak dituztela, beren izaeran harriaren formari dagozkionak. Adibidez, hondartzako hareak higatutako koral-zati batek, sarritan, ogi-arbolaren frutaren antz harriagarria izaten du. Horregatik, Banks irletan, halako koral-zatia aurkitzen duen gizonak, bere ogi-arbola baten sustraien artean ipintzen du, arbolak fruitu gehiago emango duelakoan. Ondorioak bere itxaropenari erantzuten badio, hartu beste gizon batzuei hain tasun nabarmena ez duten harriak eta berearen ondoan ipiniko ditu prezio egokiaren truke, berearen bertute magikoa haietara iragan dadin. Antzeratsu, biribiltxo gisako markak dituen harriak txanponak erakartzeko balio du; eta inork harri handi bat, azpian, aurkitzen bazuen beste txiki asko zituena, zerrama bat bere zerrikumeekin bailitzan, gauza segurua zen haren gainean dirua eskaintzeak zerriak ekarriko zizkiola. Kasu hauetan eta antzeko beste batzuetan, melanesiarrek, harriari berari ez baina hartan datzan arimari egozten diote botere harriagarria, eta batzuetan, esan berri dugun honetan adibidez, gizona arima hori bere alde jar dadin saiatzen da, harriaren gainean opariak utziz. Baina arimak erakarri egin behar direlako kontzeptua, magiaren esparruari ez baina erlijioari dagokio. Halako kontzeptua, azken kasu honetan bezala, ideia eta aribide magiko sinpleekin batera aurkitzen denean, pentsa dezakegu, oro har, azken hauek direla jatorrizko enborra, eta geroago txertatu direla bertan erlijio-kontzeptuak. Bada arrazoirik pentsamenduaren bilakaeran magia erlijioaren aurretik izan zela pentsatzeko. Geroago itzuliko gara puntu honetara.

Antzinakoek estimu handitan eduki zituzten harribitxien tasun magikoak: are gehiago, esan izan da, eta guztiz arrazoizkoa dirudi, era honetako harriak kuttun gisa erabili zirela apaingarritarako baino askoz lehenago. Grekoek zuhaitz-agata izendatu zuten zuhaitz-itxurak dituen harria, etan uste zuten ezen, goldatzerakoan idiei halako bi harri lotzen bazizkieten adarretan, uzta seguruenik oparoa izango zela. Orobat, jotzen zuten esne-harri batek esne ugari emanaraziko ziela emakumeei ur-eztitan urtuta edaten bazuten. Kreta eta Melosko emakumeei, oraindik ere, horretarakoxe erabiltzen dituzte esne-harriak. Albanian, titia ematen duten amek era honetako harriak eramaten dituzte, esnealdi ugaria segurtatzeko. Grekoek ere fedea zioten suge-ausikiak sendatzen zituen harri bati; horregatixe zeritzan suge-harri; haren eragina probatzeko, haustu eta hautsa zaurian ipini behar zen. Ardo-koloreko amatistaren izenak "mozkortuta ez dagoena" esan nahi du, zergatik eta harri hori aldean zeramana mozkortu gabe mantentzen omen zuelako; eta bi anaiak elkarrekin bizi nahi zutenean, aldean iman-harriak eramateko aholkatzen zitzairen zeren, hartara, biak erakarritz, elkarrekin haserretzetik gordeko baitzituen.

Hinduen liburu zaharrek arau hau ematen dute: ezkonberriek, ezkontza eguneko gauean, elkarrekin eta isilik eseri behar dute, izarrak ortzian ñirñirka hasi arte, eta Iparrizarra agertzean, senarrak atzamarrak erakutsiko dio emazteari, eta honela esango dio izarriari: "Hor zaude tinko, ikusten zaitut, tinko hori. Zaude tinko nirekin, eder hori!" Eta gero, emazteagana itzuliz, hala esango dio: "Brihaspatik niri emana zara: emaikidazu seme-alabak niri, zure senar honi; bizi zaitez nirekin ehun udazkenez". Zeremoniaren intentzioa, argi dago, zoriaren gora-beheren eta Lurreko zori aldaberaren kontra babestea da, izar tinkoaren eraginaren kariatz. Keatsen azken sonetoan adierazitako desira bera da:

Izar distiratsu hori, tinko nahi nuke egon, zu zauden bezala,
ez distira bakartian zintzilik gauaren goienean.

Itsasertzean bizi direnei zirrara egiten die, nola ez, itsasoaren gora eta behera behar horrek eta, guk hemen jorratutako sinpatiaren eta antzaren filosofia latzaren printzipioen arabera, gai dira erlazio sotil bat, harmonia sekretu bat ezartzeko itsasaldien eta gizaki, abere eta landareen bizitzaren artean. Itsasgoran, oparotasunaren sinboloa ezezik, oparotasunaren kausa ere ikusten dute jende haiek; joritasunaren eta biziaren kausa, alegia; aldiz, itsasbeheran, gainbeheraren, ahuleziaren eta heriotzaren benetako jardulea eta ikur goibela hautematen dituzte. Britainiar nekazariak uste dute hirusta goiztiarra ondo haziko dela itsasgoran, baina itsasbeheran ereinez gero, landarea inoiz ez dela helduko eta hartaz bazka daitezen behiak lehertu egingo direla. Haien emazteak uste dute gurinik onena itsasoa gora hastean egiten dela, aparra duen esneak apartu jarraitzen duela itsasgorenaren ordua pasatu arte, eta itsasgoran putzutik ateratako urak edo behia jetzi ondorengo esneak gora egingo duela lapikoan edo potean, gainezka egin arte. Antzinatar zenbaiten arabera, foken larruek, haiek larrutu eta gero ere, halako itsas kutsu bat gordetzen omen zuten, eta itsasoak behera egitean zimurtu egiten omen ziren. Aristoteles egotzi izan zaion antzinako beste uste baten arabera, biziduna ezin zitekeen hil itsasbeheran ezik. Sineste hau, Pliniok egia badio, esperientziak frogatua zegoen, gizakiei zegokienez, Frantziako kostaldean. Filostratok ere dioskunez, Cádizen hilzorian zeudenek ez omen zuten beren azken hatsa ematen itsasoa goian zegoeino. Gisa honetako fantasiak iraun dirau oraindik ere Europako zenbait lekutan. Bizkaiko itsasoko kostan uste dutenez, gaixotasun larri edo kronikoren batetik hildako pertsonak itsasoa behera hastean ematen omen dute azken hatsa. Portugalen, Galesko kosta osoan zehar eta britainiar itsasbazterreko alde batzuetan, oraindik ba omen dirau jaiotzak itsasgoran gertatzen direlako sinesteak, eta jendea itsasbeheran hiltzen delakoak. Dickensek ere horren testigantza ematen du, alegia sineskeria hori Ingalaterran ere bazela. "Jendea ezin da hil kostaldean -dio Peggotty- itsasbeheran ez bada. Eta ezin da jaio itsasgora arte, ezta ondo jaio ere itsasoa bere gorenean egon arte". Heriotzarik gehienak itsasbeheran gertatzen direlako sinesteak Ingalaterrako eki kostalde osoan zehar irauten omen du oraindik, Northumberlandetik Kenteraino. Shakespearek ezaguna zukeen, izan ere Falstaff "hain juxtu hamabiak eta ordubata bitartean, itsasaldia aldatzean" hiltzen da. Sineste hau aurkitzen dugu berriro Ozeano Bareko iparramerikar kostan, haida indiarren artean. Haida onen bat hilzorian dagoenean, hildako lagunek daramaten kanoa bat ikusten du, itsasaldiarekin datorrena izpirituen herrialdera joateko gonbidapena egitera. "Zatoz orain gurekin -esaten omen diote-, itsasoak laster egingo du behera eta abiatu beharra dugu". Port Stephens, Hegoaldeko Gales Berrian, bertakoek itsasgoran ematen diete lur hildakoei, inoiz ez itsasbeheran, beldur baitira urak, erretiratzean, hildakoaren arima urruneko herrialderen batera eramango ez ote duen.

Bizi luzea segurtatzeko, txinatarrek xarma korapilatsu batzuetara jotzen dute, haietan gordetzen baita, homeopatiako printzipioen arabera, garai eta urtaroei, pertsona eta gauzei darien esentzia magikoa. Eragin on hori transmititzeko erabilitako bideak hil-

atorrak besterik ez dira. Txinatar asko halakoez hornitzen dira artean bizirik daudenean, eta gehienek neska ezkongabe edo ezkondu oso gazteren batek ebaki eta jositakoa izaten dute, zuhurki pentsatuz ezen, pertsona horiek oraindik urte askotan biziko direnez, luze bizitzeko ahalaren parte bat seguruenik ehunetara pasatuko dela eta, hartara, haiek erabili beharreko unea asko atzeraraziko dutela. Gainera, jantziak, ahal bada, hilabete tartekatua duen urteren batean josiko dira, zeren eta pentsaera txinatarrari bista-bistakoa iruditzen baitzaio ohi baino luzeagoa den urtean egindako hil-atorrek bizia harrigarri luzatzeko ahalmena dutela. Jantzi guztien artetik, sekulako arreta jartzen dute batean bereziki, bertute ezin hobe hori kutsatzeko: setazko tunika handi bat da, urdin iluna, urrezko hariz "bizi luzea" hitzak bordatuta dituen. Aita zahar bati arropa eder eta garesti hauetako bat, "bizi luzerako jantzia" izenekoa, oparitan ematea, maitasun-agerbidetzat eta ardura samurraren seinaleztat hartzen dute txinatarrek. Jantzi hau dela medio, jabearen bizia luzatzea nahi denez, hark sarri jantziko du, batez ere jaietan, edertzen duten urrezko letrek bizia luzatzeko eragina izan dezaten. Urtebetetzea bereziki, nekez pasatuko dute arropa hori jantzi gabe, zeren eta Txinan zentzuak honako hau baitio urtebetetze-egunean bizi-indar asko gordetzen dela urtean zehar osasun eta indar gisa gastatzeko. Hil-ator dotore hori jantzita eta horren eragin bedeinkatua gorputzaren poro guztietatik zurgatuz, jabe zoriontsuak pozik hartzen ditu lagun eta senideen zorionak, suharki adierazten diotelarik beren miresmena, jantzi bikainagatik eta seme-alabak hain opari eder eta baliotsua aitari oparitan ematera bultzatu zituen maitasun-agerbideagatik.

"Antzekoak antzekoa dakar" esanaren beste aplikazio bat ikus daiteke txinatar sineste batean: hiri baten zorian eragin sakona omen du bere formak eta, beraz, zori hori forma horren antzik handiena duen gauzaren izaeraren arabera aldatuko omen da. Diotenez, orain dela urte asko Tsuen-txeu-fu hiriak, zamoarrainaren itxuran eratua izaki, arrainetarako sare baten itxuran eratutako Yung-txun auzo-hirikoen lapurretak jasaten omen zituen sarri, harik eta hiritar kaltetuek hiribarne erdian bi pagoda garai eraikitzea asmatu zuten arte. Pagoda hauek, oraindik ere Tsuen-txeu-fu hiriaren gainetik ageri direnek, eraginik onurakorrena izan omen dute orduz geroztik, irudimenezko sarea erortzea eta irudimenezko zamoarraina harrapatzea eragotzi dutelako. Orain dela berrogei bat urte, Xangaiko jakintsuak oso kezkatuta egon ziren bertako matxinada baten kausa aurkitu zutenean. Ikerketa arretatsu batek jakinarazi zenez, matxinada hura eraiki berri zen tenplu handi baten formari zor zitzaion, dortokaren itxura baitzuen, abere gaizto-gaizto batena alegia. Ataka larri-larria eta arrisku handikoa omen zen; tenplua eraistea sakrilegioa zatekeen; bere hartan uztea, berriz, gisa hartako eta are okerragoko kalteei gonbita egitea. Hala ere, bertako geomantzi irakasleen senak, gora-behera haiei neurria hartuta, arrakastaz gainditu zuen zailtasuna, eta baztertu egin zuen arriskua. Horretarako, dortokaren begiak irudikatzen zituzten bi putzu itsutu zituzten, eta hartara hain fama txarreko abereari gaiztorako guztiak kendu zizkioten.

Batzuetan, homeopatiatzko edo antzezko magiak aztakeria txarren bat ezerezteko balio izaten du, berau fartsa gisa burutuz. Ondorioa patuari itzuri egitea izaten da, benetako kaltearen ordeztu geurrezko bat jarritz. Madagaskarren, patuari izkina egiteko modu hau araututa dago. Han, gizaki bakoitzaren fortuna jaiotako egunean eta orduan erabakitzen da, eta baldin patua zorigaiztokoa bada, kaltea gertatu egingo da, patu gaizto hori ordeztu baten bitartez erauzten ez bada, dioten bezala. Kaltea erauzteko moduak hainbat dira. Esate baterako, baldin eta gizon bat bigarren hilabeteko lehen egunean jaio bada, etxea erreko zaio helduarora iristean. Hondamendiari aurrea hartu eta itzuri egiteko, umearen senideek estalpetxo bat eraikitzen dute kanpoan edo sarobean eta su ematen diote. Zeremoniak erabateko eragina izan dezan, haurra eta ama estalpean jarri eta, etxola erretzen ari dela, beranduegi baino lehen ateratzen dira belztuta. Era berean,

azaro euritsua malkoen hilabetea da, eta hilabete horretan jaiotakoa sufritzeko jaioa da; baina etorkizun horri gainera datozkion laino beltzak urruntzeko, aski du irakiten dagoen lapiko baten estalgarria hartu eta astintzea. Estalgarritik erortzen diren tantek gauzatzen omen dute patua eta, jukutria honen bidez, malkoak ez isurtzea lortzen da. Orobat, patuak erabaki badu neska ezkongabe batek noizbait bere haurra, oraindik sortu gabea, bera baino lehen hilobiratzen ikusteko zoritxarra izango duela, honako hau egingo du zoritxar hori gerta ez dadin: hartuko du matxinsaltoa eta akabatu egingo du, hil-atorrarena egiten duen trapu batean bildu eta lantu egingo dio Rakelek bezala, haurrengatik atsekabetuta eta kontsolamendu oro errefusatu. Gero, dozena bat matxinsalto edo gehiago hartu eta, soberan dituzten hegoak eta hankak erauzi ondoren, hil-atorraz jantzitako gorpuaren inguruan ipiniko ditu. Intsektu ezinduen burrundak eta hanka moztuen mugimendu dardaratiek hiletarietako ehorzketan egiten dituzten garrasi eta bihurketak itxuratzen dituzte. Geroago, akabatutako matxinsalto bakarra ehortziko du, eta besteei doluan segitzen utziko die, heriotzak oinazetik libra ditzan arte, eta, bilo nahasiak konpondu ondoren, hilobitiko aldegingo du, atsekabeak jotako pertsonaren pausoz eta itxuraz. Handik aurrera, konfidantza osoz begiratuko dio etorkizunari, jakinik seme-alabek bera baino luzeago biziko direla, ezinezkoa baita berriro lantu egitea eta ehorztea. Gizon bati fortuna mehatxukor ageri bazaio jaiotzatik, eta pobreziak harrapatu badu, erraz saihestuko du patu hori, pare bat perla merke erosi eta ehortziz. Izan ere, nor bota ditzake perlak gisa horretan, mundu honetako aberatsek izan ezik?

3. Kutsadurazko magia

Orain arte homeopatiako edo antzezko dei daitekeen sinpatiazko magiaren adarraz aritu gara batez ere. Honen printzipio nagusiak, ikusi dugunez, "antzekoak antzekoa dakarrela" dio, edo bestela esanda, ondorioak kausaren antza duela. Sinpatiazko magiaren beste adar nagusiak, kutsadurazko magia deitu dugunak alegia, honako nozio honen gainean jarduten du, noizbait batera egondako gauzak gerora ere batera jarraitzen dutela eta, nahiz elkarretarik bereizi, bati egiten zaionak ondorio berdinak izango dituela bestean. Beraz, kutsadurazko magiaren oinarri logikoan, homeopatiakoarenean bezala, ideien elkarketa okerra dugu. Bere oinarri fisikoa, halakoaz hitz egiterik balego, homeopatiako magiaren oinarri fisikoa bezala, bitarteko material bat da, fisika modernoko eterra bezalatsu-edo, elkarretarik urrun dauden objektuak batu eta baten inpresioak bestera eramaten dituen. Kutsadurazko magiaren adibide ezagunena pertsona baten eta beronengandik bereizitako zatien artean -moztutako ilea, azkazal-zatiak eta abar- ustez den sinpatia magikoa da; beraz, pertsona baten ilea edo azkazalak eskuratuz gero, pertsona horrengan eragin ahal izango da urrunetik. Sineste hau unibertsala da; geroago emango ditugu obra honetan ileari eta azkazalei buruzko adibideak.

Australiako tribuen artean gauza arrunta zen mutikoei aurrealdeko hortz bat edo gehiago erauztea, gizon helduen pribilegio eta eskubide guztiak lortzeko iragan behar zituzten inimizazio-zeremonietan. Ohitura honen jatorria iluna da; hemen honetxe baino ez digu axola, mutilaren eta bere hortzen artean, hauek erauzi eta gero, sinpatiazko erlazioa dagoelako sinesteak. Horregatik, Darling ibai inguruko tribu batzuek, Hegoaldeko Gales Berrian, ibaitik edo putzu edo iturbegitik gertu zegoen zuhaitzaren azal azpian ipintzen zuten hortza; azala hortzaren gainetik haztea edo hortza uretara erortzea seinale ona zen, baina agerian geratzen bazen eta inurriak gainetik bazebiltzan, mutilak ahoko gaitzen bat izango zuen bertakoen ustez. Murringtarrek eta Gales Berriko beste tribu batzuek agure bati uzten zioten erauzitako hortza, zain zezan, eta gero eskuz esku pasazten zuten buruzagiek, komunitate osoan zehar, mutilaren aitaren eskura eta azkenez mutilarenera iritsi arte; hala ere, hortza eskuz esku pasazten zutenean, kontu izan behar zuten gai magikorik zuen zakuren baten gainean ez uzteko, hala egiteak arrisku

handian jarriko baitzuen hortzaren jabea. Howitt doktorea zenak gizongaiei erauzitako hortzen begirale gisa jardun zuen behin inimizio-zeremonia batean, eta zaharrek berehala esan zioten ez zitzala ipini kuartozko kristalak zeuzkan zaku baten gainean. Hala egiten bazuen, kristalen magia hortzetara pasatuko zen eta kalte egingo zien mutilei. Howitt doktorea zeremoniatik itzuli eta urtebete ingurura, Murring tribuko buruzagi nagusietako batek bisitatu zuen, etxetik laurehun kilometro ibili ondoren hortzak jasotzeko. Doktoeari azaldu zionez, hortzak jasotzera bidali zuten, mutiletako bat gaixotu egin zelako, eta denen ustea omen zen hortzek kalteren bat jasan zutela eta kalte horren ondorioz gaixotu zela mutila. Esan zitzaion hortzak kaxa batean gordeta zeudela, kuartzotik edo bestelako edozein gai eragileetatik urrun, eta gizon hura hortzak ondo bilduta eta ezkutuan eramanez itzuli zen etxera.

Basutoak kontu handiz ibiltzen dira erauzitako hortzak izaki mitiko batzuen eskuetan eror ez daitezen; izakiok hilobien inguruetan ibiltzen omen dira eta kalte egin diezaiekete hortzen jabeei, haiekin magia eginez. Sussexen, orain dela berrogeita hamar bat urte, neskame batek kontra egin zion gogor haur baten esne-hortza botatzeari, esanez abereren batek aurkitu eta karraskatu egin zezakeela, eta hala gertatzera, hortz berria esne-hortzari hozka egingo zion aberearena bezalakoxea izango zela. Bere esana frogatzeko, Simmons izeneko agure bat aipatu zuen, goi-maxilarrean zerri-hortz handi handia zuena; akats hura amari leporatu omen zion beti Simmons hark, esne-hortz bat zerri-korta batera bota zuela eta. Halako usteak homeopatiatzko magiaren printzipioan oinarritutako zenbait ariera ekarri ditu, hortz zaharrak hobeez ordezkatu ahal izateko. Munduko leku askotan, adibidez, erauzitako hortzak sagu edo arratoi batek erraz aurkitzeko moduko lekuren batean ipintzeko ohitura dago, hortzaren eta jabearen artean dirauen sinpatiarene bitartez, beste hortzek karraskari horien hortzen sendotasuna eta bikaintasuna izango dutelako esperantzan. Adibidez, Alemanian mundu guztiak daki erauzitako hortza karraskari baten zuloan ipini behar dela. Esne-hortzekin hala eginez gero, haurrak ez du izango hortz-haginetako minik; etxeko tximiniaren atzealdera joan eta hortza atzeraka bota behar da buru gainetik, hauxe esanez: "Sagu, emaidazu burdinazko hortza; nik neure hezurrezkoa emango dizut". Hala egin ondoren, beste hortzak ere sendo izango ditu. Europatik urrun, Raratongan, Ozeano Barean, haur bati hortza ateratzen ziotenean, honako otoitz hau esaten zen:

"Arratoi handi, arratoi txiki,

hemen duzue nire hortz zaharra;

arren, emaidazue berria".

Gero hortza lasta-sabaiaren gainera jaurtitzen zen, arratoiak lasta-sabai zaharretan egiten baitituzte beren habiak. Halakoetan arratoien aipua egiteko emandako arrazoia zera da, arratoi-hortzak bertakoek ezagutzen dituzten gogorrenak direla.

Gorputzarekin banandu eta gero, ustez sinpatiazko loturan irauten duten beste parte batzuk zilborrestea eta karenak dira, haurtzorria barne. Hain estua omen da lotura hori non jotzen baita ezen, norbanakoaren patua, norbanakoak bizitzan duen zori ona edo txarra, beraren zati horietako batekin edo bestearekin lotuta daudela; beraz, zilborrestea edo karenak ondo gordetzen badira, zoria aldeko izango du, baina galdu edo gaizki erabiltzen badira, horren ondorioak jasango ditu. Australiako mendebaldeko zenbait tributan uste dute gizon batek igerian ondo ala gaizki egitea, amak hartaz erditzean uretara bota zuen ala ez, horren gora-behera dagoela. Pennefather ibaiko ibarrekoen artean, Queenslanden, uste da haurraren izpiritua parte bat (cho-i) karenean geratzen dela. Horregatik jasotzen du amak karena eta ehortzen du urrun, hondarretan, eta markatzen du tokia jiran jositako hainbat arbatzarekin, egiturak kono-itxura hartzen duelarik. Anjea delakoak, amen sabeletan buztinezko haurrak ipiniz ernaltzen dituen izakiak alegia, etorri eta markatutako lekua ikusten duenean, jaso izpiritua eta bere

agertokietako batera eramaten du: zuhaitz batera, haitzean egindako zulo batera edo laku batera. Han urteetan eta urteetan gera daiteke; noizbait haurraren izpiritua handik jaso eta beste haur batengan ezarriko du; hala jaioko omen da berriz mundu honetara. Ponapen, Karolina irlotako batean, zilborrestea maskor batean ipini eta ondoren gurasoek haurrari aukeratu dioten lanbidearen arabera erabiliko dute; adibidez, igokari ona izatea nahi badute, zuhaitz batetik zintzilikatuko dute zilborrestea. Kei irlakoek umearen anaia edo ahizpatzat hartzen dute zilborrestea, haurraren sexuaren arabera; zilborreste hori errautsak dituen ontzi batean jarri eta zuhaitz baten abar artean ipintzen dute, bere kidearen zoria erne begira dezan. Sumatrako batakaren artean, Indiar Artxipelagoko beste herri askotan bezala, haurraren anaia edo ahizpatzat jotzen da plazenta, haren sexuaren arabera, eta etxepean ehorzten dute. Batakaren arabera, lotuta omen dago haurraren ongizatearekin, eta arima iragangarriaren egonleku omen da. Geroago jardungo dugu honetaz. Karo-batakek diote gizakiak bi arima dituela, eta benetakoa plazentan bizi dena dela, etxepean alegia; haurrak sorrarazten dituen arima horixe omen da.

Bagandek uste dute pertsona guztiak jaiotzen direla "doble" batekin, eta hau karenarekin identifikatzen dute, bigarren haurtzat hartzen dutelarik. Amak platanondo baten oinean ehorzten du karena, eta arbola sakratu bihurtzen da fruta heldu arte; orduan platanook bildu eta familiarentzako jai sakratu batean zerbitzatzen dira. Cherokeeen artean, neskato baten zilborrestea artoarentzako mortairu baten azpian ehorzten da, neskatoa hazitakoan okin ona izan dadin; baina mutikoaren zilborrestea zuhaitz batetik zintzilikatzen da oihanean, ehiztari izan dadin. Peruko inkek arreta handienaz gordetzen zuten zilborrestea, eta miazkarazi egiten zieten hurrei gaixotzen zirenean. Antzinako Mexikon haurraren zilborrestea eman ohi zieten gerrariei, gudu-zelaian ehortz zezaten eta hartara haurrak gerrarako zaletasuna izan zezan. Aitzitik, neskatoaren zilborrestea etxe ondoan ehorzten zuten, gisa horretan etxe-maite izan zedin eta sukalderako eta laborako zaletasuna izan zezan.

Europar, jende askok uste du oraindik pertsonaren patua, alde edo moldez, zilborresteari edo karenari lotuta dagoela. Hala, Bavaria renaniarrean liho zahar puska batean biltzen dute aldi batez eta gero ebaki edo puxkak egiten dituzte, haurra hazitakoan, mutikoa ala neskatoa den, artisau trebea edo jostun ona izan dadin. Berlinean, emaginak aitari ematen dio zilborreste lehorra, biziki gomendatuz arreta handiz gorde dezala; izan ere, hala gordeta dueino, haurra bizirik izango baita eta gaixotasunetatik libre. Frantziako Beaucen eta Perchen, jendeak kontu handia izaten du zilborrestea uretara edo sutara ez botatzeko, zeren eta, hala eginez gero, haurra itota edo erreta hilko bailitzateke.

Munduko alde askotan, zilborrestea eta are sarriago karena, biziduntzat hartzen dira, jai berriaren anaia edo ahizpatzat, edota haurraren izpiritu zaindariaren edo arimaren parte baten bizilekutzat. Gainera, pertsonaren eta bere karenaren edo zilborrestearen artean ustez den sinpatiazko lotura argi eta garbi ageri da plazenta edo hestea modu jakin batez tratatzeko ohitura hedatua. Modu horrek bizitza osoan izango omen du eragina pertsonaren izaeran edo eginkizunetan, mutila bada igokari zalu, igerilari gogor, ehiztari trebe edo gerrari suhar bihurtuz, eta emakumea bada jostun sotil, labegin on eta abar bihurtuz. Karena edo plazentari buruzko sineste eta ariera hauek, eta gutxixeago zilborresteari buruzkoek, antz nabarmena dute arima iragankor edo kanporatuaren doktrina oso hedatuarekin, eta honetan oinarritutako ohiturekin. Beraz, ez da astakeria pentsatzea paralelotasun hori ez dela kointzidentzia hutsa, baizik eta karenan edo plazentan arima kanporatuaren teoria eta praktiken oinarri fisikoa dugula (ez bakarria nahitaez). Puntu hau geroago jorratuko da obra honetan.

Kutsadurazko magiaren aplikazio bitxi bat da gizon zaurituaren eta zaurigilearen artean ustez den erlazioa, hala non egileari egin dakion orok, hartzailearengan eragina izango duen, onerako edo kalterako. Pliniok diosku gizon bat zauritzeagatik damutuz gero, zaurigileak aski duela eskura tu egitea, eta hartzaileari bat-batean gozatuko zaiola mina. Melanesian, gizon zaurituaren lagun batek, hura zauritu duen gezia jabetzen bada, leku hezean edo hosto hotzen artean ipiniko du, hartara handitua laster desager dadin. Aldi berean, gezia jaurti duen etsaia bere esku dauden bitarteko guztiez saiaturiko da zauria larriagotzen. Horretarako, berak eta bere lagunak zuku min eta beroak edan eta hosto narritatzaileak murtxikatuko dituzte, hartara zauria ere narritatu eta handitu egingo baita. Gainera, arkuia sutatik gertu edukiko dute, beraren bidez egindako zauria bero edukitzeko; eta arrazoi berberagatik ipiniko dute sutan geziaren punta, berreskuratu ahal izan badute. Gainera, arkuaren soka tenkatuta edukiz eta noizean behin dardaraziz, ikara nerbioak eta tetano-karranpak eragingo zaizkio zaurituari. "Guztiz onartua eta aitortua dago -dio Baconek- zauria egin duen arma gantzutzeak zauria bera sendatzea ekarriko duela. Esperimentu honetan, gizon sinesgarrien kontakizunen arabera (ni sinestera erabat etsita ez banago ere), honako puntu hauek izan behar dira kontuan: lehena, ukenduak hainbat osagai izan behar ditu, zeinetarik arraroenak eta lortzen zailenak, ehortzi gabeko giza kaskezur baten gainean sortutako lizuna eta ar-emezkoetan ari ziren unean akabatutako basurde baten eta hartz baten koipeak diren". Osagai hauez eta beste batzuek egindako ukendu ezin arraroagoa, filosofoak azaltzen digunez, zaurian ez baina arman igurtzitzen zen, nahiz eta zauritua oso urrun eta ezjakinean egon. Esperimentua, hala diosku berak, zauritutako pertsonaren ezjakinean armari ukendua garbituz frogatu zen; horren ondorioz, oinazeak bat-batean handiagotu ziren eta berriro gantzutu behar izan zen arma. Halaber, "arma lortzerik ez badago, aski omen da arma zaurigile horren antza duen burdinazko edo zurezko tresna bat zauria artean odoletan dagoela bertan ipintzea; tresna horri ukendua emanda, nahi den ondorioa lortuko omen da. Mota honetako erremedioak, Baconek aintzakotzat hartzen zituenak, indarrean daude egun ere Ingalaterrako ekialdeko konderrietan. Suffolken, adibidez, gizon batek igitaiz edo segaz ebakia egiten duenean, kontu handia izaten du lanabesa beti distiratsu edukitzeko eta koipeztatzeke, zauria gaizto ez dadin. Arantza eskuan sartzen bazaio, arantza koipeztatu edo gantzutuko du atera ondoren. Gizon bat eskua handi-handi eginda iritsi zen medikuarengana, hesia moztean lahar batek zizta egin ziolako. Eskua gaiztotuta zeukala esan zitzaionean, honela erantzun omen zuen, "Ez luke horrela behar, laharra atera dudanean ondo koipeztatu dut eta". Zaldia iltze bat zapalduta oinean min hartzen badu, Suffolkeko morroiak gorde egingo du iltzea, ezbairik gabe; garbitu eta egunero koipeztatuko du, aberearen oina gaizto ez dadin. Era berean, Cambridgeshireko peoiek uste dutenez, zaldia oinean min ematen dion iltzea badu, iltzea olio edo urdaiz gantzutu eta urrun eta leku seguruan ipini behar da, bestela zaldia ez baita sendatuko. Orain dela urte batzuk, al baitari zirujaua bidali zuten etxaldeko langa baten erroaz saihetsa zauritu zuen zaldi bati kasu egitera. Etxaldera iritsi zenean, ikusi zuen zaldi zaurituari ez ziotela ezer egin, baina gizon bat jo eta ke ari zela erroa handik kentzen, koipeztatu eta gordetzeko; hartara, Cambridgeko sasi-jakitunen ustetan, animalia osatu egingo omen zen. Essexko nekazariak ere uste dute gizona labanaz zauritu badute, ezinbestekoa dela labana eskuratzea, koipeztatu eta zauritua datzan ohean zeharka ipintzeko. Bavarian ere, liho-zapi bat koipeztatu eta aizkora zaurigilearen ahoari lotu behar omen zaio, ahoa gora begira ipintzeko kontu eginez. Aizkora lehortu ahala, zauria ere osatuz joango da. Era berean, Harz mendietan, inork ebakia egiten badu, labanari edo guraizeei bilgorra eman eta ondoren leku lehorrean jarri beharko ditu Aitarene, Semearen eta Izpiritu Santuaren izenean. Labana lehortzean, pertsona hori sendatu egingo da. Alemaniako beste jende batzuek, ordea,

labana lurreko putzuren batean sartu beharko dela diote, eta, orria herdoildu ahala, zauria itxi egingo dela. Beste batzuek, ordea, Bavarian kasu, aizkora edo dena delakoa odolez kutsatu eta teiltatuko hegi barrenean lagatzea gomendatzen dute.

Ingalaterra eta Alemaniako nekazariak, Melanesia eta Amerikako basatiek bezala, gogoko duten arrazoibidea, urrats bat harantzago eraman dute Australiako erdialdeko jatorrikoek: zenbait kasutan, zauritutako gizonaren senide hurbilek gantzutu egin behar izaten dituzte beren buruak, jakiak urritu eta jokabidea neurtu, sendabidea segurtatzeko. Mutiko bat erdaindu dutenean, esaterako, zauria sendatzen ez den bitartean, amak ezin du zarigueiarik edo musker-mota bat edo pitoi diamantekararik jan, ezta inolako koipe-motarik ere, zeren eta, hala eginez gero, atzeratu egingo bailuke mutikoaren sendabidea. Egunero koipeztatuko ditu aitzurrak eta begimenean izango ditu beti; gauean buru ondoan dituela egingo du lo, eta ez dio inori utziko haiek ukitzen. Egunero igurtziko du gorputza bilgorrez, horrek nolabait semea sendatzen laguntzen duelakoan. Printzipio beraren beste finezia bat nekazari alemaniarren xalotasunari zor zaio. Diotenez, zerri edo ardi batek hanka hausten duenean, Bavaria renaniarreko edo Hesseko nekazariak aulki baten hanka biltzen du behar bezala benda eta txaplataz. Zenbait egunez ezin eseriko da inor aulki horretan, ezin aldatuko du lekuz, ezin joko du, gauza horiek egiteak min emango bailioke zerri edo ardi zaurituari, eta sendatzea atzeratuko bailuke. Azken kasu honetan, argi dago erabat gainditu dugula kutsadurazko magiaren esparrua, eta homeopatiatzko edo antzezko magiaren alorrean gaudela; aberearen hankaren orde z sendatzen den aulkiaren hanka ez da inondik ere harena, eta bigarrenean bendak jartzea, zirujautza razionalagoak benetako gaixoarengan enplegatuko lukeen tratamenduaren simulazio hutsa besterik ez da.

Gizonaren eta zauritu duen armaren artean ustez dagoen sinpatiazko loturak honako ideia honetan bide du funtsa, alegia armako odolak gorputzeko odolak bezala sentitzen segitzen duela. Antzeko arrazoi batengatik, Ginea Berriko irla batean, Tumleon, papuarrek kontu izaten dute zauriak bildu dituzten bendak itsasora botatzeko, beldur baitira zarpail horiek etsairen baten eskuetan eroriz gero, ez ote duten kalteren bat jasoko magia bidez. Behin, ahoko zauria odol-jario zeukan gizon bat misiolariak senda zezaten etorri zenean, haren emazte sinesberak, neke handiz, odol guztia bildu zuen gero itsasora jaurti ahal izateko. Ideia honek bortxatua eta artifiziala badirudi ere, beharbada ez da izango pertsonaren eta beronen arropen artean magiazko sinpatia dela sinestea bezainbat, arropen egin dakien orok pertsonarengan ondorioa izango duela alegia, une horretan urrun izanda ere. Victoriako Wotjobaluk tribuan -Australian-, magia-gizon batek gizon baten zarigueia-larruz egindako tapiza lortzen zuenean, mantso-mantso erretzen zuen sutan, eta hori egin ahala, gizona gaixotu egiten zen. Magia-gizonak amore eman eta xarma indargetzea erabakitzen bazuen, itzuli egiten zien tapiza gaixoaren lagunei, uretan jar zezatela gomendatuz "suarena garbitzeko". Hala egiten zutenean, gaixoa freskatuta sentitu eta bizkortu egiten zen. Tannan, Hebrida Berrietan, norbait inoren bekaitz izan eta hil egin nahi bazuen, etsaiaren goputzaren izerdia ukitutako arroparen bat eskuratzen saiatzen zen. Lortzen bazuen, ehunak arretaz igurtzitzen zituen zuhaitzaren hosto-arbaztez, arropak, hostoak eta arbaztak lukainka baten gisan bildu eta lotu egiten zituen, eta dena sutan erretzen zuen poliki-poliki. Pardeltxo erre ahala, biktima gaixotu egiten zen, eta dena errauts bihurtutakoan, hil. Azken enkantamendu-era honetan, ordea, pentsa daiteke sinpatia magikoa ez dela gertatzen gizonaren eta arropen artean, gizonaren eta bere gorputzak jariatutako izerdiaren artean baino. Baina mota bereko beste kasu batzuetan, uste dugu arropa berez aski dela sorginari biktimaren gaineko boterea emateko. Teokritoren emakume sorginak, bere maitale ezleiala maitasunez ur zedin, argizarizko irudi edo masa bat funditzen zuen bitartean, ez zuen ahaztu hark etxean utzi zion longainaren zati bat suari

ematea. Prusian esan ohi da lapurra atxitu ezin bada, egin daitekeen gauzarik onena ihesean erori zaion arroparen bat lortzea dela; arropa hori indarrez astintzen bada, lapurra gaixotu egingo omen da. Sineste hau irmo errotuta dago herri-gogoan. Orain dela lauogei edo lauogeita hamar urte, Berend inguruan, ezia lapurtu nahian zebilen bat ikusi zuten; ihesi abiatzean, jaka ahaztuta utzi omen zuen. Eztiaren jabe amorratua jaka egurtzen ari zela aditu zuenean, lapurra hainbeste beldurtu zen non ohera sartu eta hil egin baitzen.

Arropen edo gorputz-atal bananduen bitartez ezezik, hondarretan edo lurrean utzitako zantzu edo lorratzen bitartez ere edonori kutsa dakioke magia, sinpatiaz. Batez ere, oso superstizio hedatua da oinatzari kalte eginez gero, oinari ere kalte egiten zaiola. Horregatik, australiar hegoekialdekoek pentsatzen dute pertsona bat haserrearazi egin dezaketela haren oinatzaren gainean koartzo, hezur, beira edo ikatz pusketak jarritz. Sarritan honi egozten dizkiote erreuma-minak. Howitt jaunak, gizon tatungolung batek herren handia egiten zuela ikusita, galdetu zion ea zer zuen, eta hara zer erantzun zion hark: "Norbaitek botila jarri dio nire oinari". Erreuma zuen, baina uste zuen etsairen batek arrastoa hartu ziola eta bertan botila-pusketa bat lurperatu zuela, eta haren eragin magikoa oinean sartu zitzaioela.

Antzeko azturek irauten dute Europako hainbat tokitan ere. Mecklenburgen, esaterako, pentsatzen dute oinatzean iltzea sartzen bada, oinatz hura egin duena herren geratuko dela; batzuetan iltze horrek hilkutxatik hartua izan behar du. Frantziako zenbait lekutan ere antzera jokatzeko da etsaiari kalte egiteko. Ba omen zen atso bat, sorgina, Suffolkeko Stowera sarri agertu ohi zena. Hura ibili bitartean, inork atzetik joan eta atsoak hautsetan utzitako oinatzaren batean iltzea edo labana sartzen bazuen, emakume hura pausorik eman ezinik geratzen zen iltze edo labana ateratzen zuten arte. Hegoaldeko eslaviarren artean, neska maiteminduak zuloa egiten du maite duen gizonaren oinak utzitako oinatzean, eta lorontzian jartzen du handik ateratako lurra; ondoren basailena aldatzen du lorontzian, zimeltzen ez omen den lorea. Eta kapulu urre-koloreak zabaldu, loratu eta zimeltzen ez direnez, senargaiaren maitasuna ere hazi eta loratu egingo da eta ez da inoiz zimelduko. Horregatik, amodio-araok eragina du gizonarengan zapaldu duen lurraren bidez. Tratuak ixteko daniar ohitura zahar batek pertsonaren eta bere oinatzaren arteko sinpatiazko lotura zegoelako ideia horretantxe zuen oinarria; tratugileetako bakoitzak bere odolaz zipriztintzen zituen bestearen oinatzak, hartara leialtasun-seinale emanez. Horrelako superstizioak arruntak izan bide ziren Grezia zaharrean: zaldi batek otso baten arrastoa zapaltzen bazuen, kasu, hura ikara batean jartzen omen zen, eta Pitagorasi leporatzen zaion esan batek debekatu egiten du inork inoren oinatzetan iltzea edo labana sartzea.

Superstizio bera aprobetxatzen dute ehiztariek munduko alde askotan, ehizagaia atzemateko. Basozain alemaniarrek, adibidez, zerraldotik hartutako iltzea josiko du ehizagaiaren arrasto berrian, horrek abereari ihes egitea galaraziko diolakoan. Victoriakoek ilintiak ipintzen zituzten jazarritako animalien arrastoean. Ehiztari hotentoteek airera jaurtitzen dute hondar-eskutada bat, ehizagaiek utzitako oinatzetatik hartuta, horrek aberea erakarriko dielakoan. Thompson indiarrek xarmak uzten zituzten orein zaurituaren arrastoean; hori egin ondoren, alferrikoa zeritzoten egun horretan aberearen atzetik ibiltzeari, xarmatuta izaki, ez baitzuen oso urrun joaterik izango eta laster hilko baitzen. Halaberean, ojibwa indiarrek ere "sendagaia" jartzen zuten aurkitutako lehen hartz edo oreinaren arrastoean, hark animalia bistaratu egingo zielakoan, bizpahiru eguneko bidea eginga izan arren; izan ere, xarma hark egunetako bidea ordu batzuetara laburtzeko ahalmena zuen. Afrikako mendebaldeko ewe ehiztariek makila zorrotz bat sartzen dute ehizagaiaren oinatzetan, maingutu eta harrapatu ahal izateko.

Oinatza bistakoena bada ere, hori ez da gorputzak egindako zantzu bakarra magiaren eraginez kutsatzeko. Australiako hegoekialdekoek uste dute gizona zauritu egin daitekeela berak etzatean egindako zantzuan koartzoa, beira eta antzeko gauzak lurperatuz; gauza zorrotz hauen ahalmen magikoa gorputzera sartzen omen zaio eta oinaze handiak eragiten dizkio, europar ezjakinek erreumatismoari egozten badizkiote ere. Orain uler genezake zergatik izan zuten pitagorikoek maxima hau, alegia ohetik jaikitakoan ezabatu egin behar dela gorputzak ohean utzitako arrastoa. Arau hau magiaren kontrako neurria besterik ez zen, eta Antzinateak Pitagorasi egotzitako esaera superstiziotsuen kodean ageri zen, nahiz eta grekoen arbaso barbaroek ezagunak izan, ezbairik gabe, filosofoaren garaia baino askoz lehenagotik.

4. Magia-gizonaren aurrerapena

Amaitu dugu sinpatiazko magiaren printzipio orokorren azterketa. Argibide gisa emandako etsenplurik gehienak magia pribatu dei genezakeenetik hartu dira, hau da, pertsonen mesedetan edo kaltetan burututako errito magikoetatik. Baina horrez gain, gizarte basatian bada magia publikoa dei genezakeena ere, hau da, gizarte osoaren onerako egindakoa. Mota honetako zeremoniak denen mesedetan egiten direnean, argi dago magia-gizona ez dela mediku pribatua, baizik eta funtzionari publiko bihurtzen dela nolabait. Halako funtzionarien ariera oso garrantzitsua da gizartearen bilakabide politiko zein erlijiosorako. Tribuaren ongizatea errito magiko hauek burutzearen menpe dagoela uste denean, magia-gizonak eragin edo ospe handia izaten du, eta erraz lor ditzake buruzagiaren edo erregearen maila eta agintea. Lanbideak, beraz, tribuko gizon abil edo anbiziotsuenetako batzuk erakartzen ditu, beste edozein lanbidek nekez eskainiko dien ohorea, aberastasuna eta boterea lortzeko itxaropenez. Buru azkarrekoek sumatzen dute zein erraza den hurko ahulagoa liluratzeari, eta beren alde erabiltzen dute superstizioa. Sorgina ez da beti izaten gezurti eta iruzurtia; sarritan, etsita egoten da benetan dituela kideen sineskortasunak egozten dizkion botere zoragarriak. Baina zenbat eta azkarragoa izan, hainbat errazago ohartuko da inozoei sartzen dizkien gezurrez. Hartara, lanbide horretako kide abilenak jakinaren gaineko iruzurti bihurtu ohi dira gutxi-asko; eta gizon horiexek iristen dira gorenera, beren trebetasun handiagorearen kariaz, eta duintasun eta aginte handienaren lekuak bereganatzen dituzte. Sorgin profesionalaren bidean jarritako tranpak asko dira, eta, arau gisa, buru hotzeko eta zuhurtzia zorrotzeko gizonak bakarrik asmatuko du bere bidea seguru egiten. Horregatik, kontuan izango dugu beti magia-gizonak iragartzen duen adierazpen eta asmo bakoitza, berez, gezurrezkoa dela: horietarik bakar bat ere ezin sostenga daiteke iruzur ohartuzko nahiz oharkabekorik gabe. Beraz, bere nahikari bitxiak bene-benetan sinesten dituen sorgina askoz arrisku handiagoan dago iruzurti jakinek baino, eta litekeenago da lanbide horretan erreka jotzea. Sorgin zintzoa beti fio da bere xarmek eta enkantamenduek espero diren ondorioak izango dituztela eta, huts egiten dutenean (berez beti egiten du huts, baina hutsa nabarmena eta hondagarria denean, eta hori sarri gertatzen da), jota geratzen da; ez da gaia bere porrota aitzakia egokiz azaltzeko, kide iruzurtia baden bezala, eta aitzakia asmatzeko astia izan baino lehen baliteke bezero zapuztu eta haserretuek berari kaskarreko ederrak ematea.

Ondorio orokorra hauxe izaten da, gizarte-bilakaeraren etapa honetan botere nagusia, gehienetan, adimen zorrotzeneko eta kezka gutxienerako gizonen eskutara joan ohi dela. Beren iruzurraz egiten duten kaltea eta zuhurtzia handiagoaz dakarten onura konparatzerik bageneuzka, baliteke aurkitzea gauza onak txarrak baino askoz gehiago direla. Izan ere, zoritxar gehiago etorri bide zaizkio munduari ergel zintzo eta goikarguetara igoengandik, maltzur azkarretatik baino. Gezurti maltzurak bere askonahia bete ondoren, eta beretzat gehiago lortzerik ez badu, zerbitzu publikoaren menpe jar ditzake bere talentu, esperientzia eta baliabideak, eta egin ere sarri egiten du hala.

Boterea lortzeko batere barne-zimikorik izan ez duten gizon asko, ongileenak izan dira hura erabiltzean, zeinahi botere-motaren irrika zutela, aberastasunarena nahiz aginte politikoarena. Politikaren alorrean, azpikerian maltzurrena eta garaipenean bihozgabeena dena, agintari jakintsu eta bihotz-zabal izatera irits daiteke, bizi den bitartean bedeinkatuko dutena, hildakoan dolu handiz agurtu eta ondorengoek miretsi eta txalotuko dutena. Bi adibide ezin argiago aipatuz, halako gizonak izan ziren Julio Zesar eta Augusto. Inozoa inozo beti, baina, eta zenbat eta ahalmen handiagoa izan eskuan, hainbat eta kaltegarriago erabil dezake. Historia ingeleseko zoritxarrik handiena, Iparramerikarekiko haustura, ez zatekeen gertatuko Jorge III.a inozo zintzoa izan ez balitz.

Beraz, eta aztiaren lanbide publikoak gizarte basatiaren eraketan eragina izan zuen neurrian, eginkizun publikoen kontrola gizonik abilenaren eskuetan geratu zen gehienetan, eta askoren boterea bakar batengana aldatu zen: monarkiak gerontokrazia ordezkatu zuen, edo hobeto esanda, zaharren oligarkia, zeren eta, oro har, basakumearen gizarte ez baitu pertsona helduen multzo osoak gobernatzen, zaharrenen kontseiluak baizik. Aldaketa, zirenak zirela eragileak eta lehen gobernarien izaera, oso onurakor gertatu zen, oro har. Badirudi monarkiaren sorrera nahitaezko baldintza izan zela gizateria basakeriatik irteteko. Ez da gizakirik ohiturek eta tradizioek basatia bezain menpean harturik; ezein gizarte-egoeratan ez da haren aurrerapena hain geldoa eta zaila izan. Basatia gizakietan libreena dela dioen ideia zaharra egiaren kontrakoa da. Esklabo da, eta ez ikus daitekeen ugazabarena, iraganarena baizik, hildako arbasoen izpirituen, jaiotzatik heriotzara bitarte urrats guztiak zuzentzen baitizkiote eta estu eta gogor gobernatzen baitute. Arbaso haiek egindakoa zuzenbidearen iturria da, idatzi gabeko legea, itsu-itsuan eta ezbaierik gabe obeditu behar dena. Adimen garaikoak ohitura zaharren ordezkari hobe batzuk jartzeko lukeen jardun-eremua oso meharra da; gizonik gaituena ere herrestan eramaten dute ezjakinenek eta dorpeenek, eta hauek ezartzen dute neurria; izan ere, ez baitaukate gorago altxatzerik, hark bai ordea erortzerik. Halako gizartearen gainazalak maila uniforme geldoa ageri du, posible baita giza desberdintasunak, gaitasunaren eta izaeraren aldetik dauden berezko eta benetako diferentzia neurtezinak, berdintasun-itxura faltsu gisa azaltzea. Gizartearen egoera kaskar eta makur hartatik -geroagoko demagogoek eta ameslariak egoera idealtzat, gizateriaren urrezko arotzat, jo izan duten gizarte-egoera hartatik- jasotzen laguntzen duen orok, adimen argiari bidea irekiz eta gizonen berezko gaitasunari aginpidea emanez, merezi du guztientzako ona duten beren jardunaren ipartzat har dezaten. Goranahi hauek indartzen hasi direnean -eta jadanik ezabatu ezin direnean-, zibilizazioaren aurrerapena bizkortu egiten da eta, sarritan gertatu ohi den bezala, gehienek gainetik adimena eta indarra duen pertsona baldin bada, laster baliatuko da aukera horretaz. Are tiranoaren gutizia eta apetek ere balio dezakete basatia hain astun lotzen zuen ohituren katea hausteko. Eta tribuak, zaharren kontseilu herabeti eta zatituek gidatuta egon ordez, buru indartsu eta erabaki bakar baten gidaritzari men egiten dionean, izugarria bilakatzen da auzokoentzat eta handitasunaren bidean sartzen da; eta horrek, historiaren hasieran, aurrerapen sozial, industrial eta intelektualaren alde egiten du sarri. Ahala hedatuz, alde armen indarrez eta alde tribu ahulek berez amore emanda, komunitate horrek laster izaten ditu aberastasunak eta esklaboak, eta bi gauza hauei esker giza sail batzuek ez dute etengabe saiatu beharrik bizimodua ateratzeko, eta jakituria desinteresatuki bereganatzeari ekiteko aukera izaten dute, hots, giza patua hobetzeko tresnarik nobleena eta ahaltsuena bereganatzeko aukera.

Aurrerapen intelektual, artearen eta zientziaren hazkundean eta ikuspegi liberalagoen hedapenean ageri dena, ezin bereiz daiteke ekonomi edo industri aurrerapenetatik; hauek, berriz, bultzada izugarria jasotzen dute konkistatik eta inperiotik. Ez da

kasualitatea giza gogoaren jardunaldi indartsuenak gudu-garaipenen ondotik etorri izana, eta munduko arraza konkistatzaile handiek gehien egin izana zibilizazioa aurrerarazi eta zabaltzeko, hartara gerrak egindako zauriak bakeak sendatzen zituelarik. Iraganaren lekuko ditugu babiloniarak, grekoak, erromatarak, arabiarak: oraindik ikusteko gaudeke gisa horretako aurrerakada Japonian. Eta Historiaren iturrietaraino bagoaz, ez da kasualitatea zibilizaziorako lehen jauzi handiak batzuetan gobernu despotiko eta teokratikoen menpe eginak izatea, hala nola Egipton, Babilonian eta Perun, non buruzagi nagusiak, errege eta jainko zen aldetik, menpekoen obedientzia osoa eskatzen eta jasotzen baitzuen. Ez da gehiegi esatea hasierako garai hartan gobernu autokratikoez lagundu egin ziotela gizateriari eta, harrigarria badirudi ere, askatasunari. Izan ere, askatasun handiagoa baita, zentzurik onenean -alegia, geure buruz pentsatzeko eta geure geroa moldatzeko askatasuna-, despotismo erabatekoenaren menpean, tirania aldakaitzenaren menpean, basakumearen bizitza itxuraz askean baino; izan ere, arbasoengandik jasotako ohituraren burdinazko moldean, sehaskatik hilobiraino erabakita baitago bizitza honetan norbanakoari dagokiona.

Beraz, magiaren lanbide publikoak, gizon gaituena botere nagusira iristeko bide izan den aldetik, lagundu egin du gizakiak tradizioaren esklabotzatik jaregiten, askatasun handiagoko bizitzara jasoz eta munduaren ikuspegi zabalagoa emanez. Ez da fabore txikia gizateriari egin zaion hau. Honez gainera, gogoratzen badugu magiak, beste alde batetik, zientziarako bidea soildu duela, onartu beharra dago ezen, arte beltzak kalte asko egin badu ere, onura askoren iturri ere izan dela; eta errakuntzaren ume bada ere, askatasunaren eta egiaren ama izan dela.

IV

Magia eta erlijioa

Aurreko kapituluan bildutako adibideak aski dira sinpatiazko magiaren printzipio orokorrak, homeopatiatzkoa eta kutsaduratzkoa izendatu ditugun bi adarretan, argitzeko. Aurkeztutako magia-kasu batzuetan, ikusi dugu izpirituen jarduna aitortzen dela eta haien faborea erakarri nahi izaten dela otoitz eta sakrifizioen bidez. Baina kasu hauek, oro har, salbuespenak dira: magia erlijioaz kutsaturik eta harekin nahasturik ageri dute. Sinpatiazko magia bere forma hutsean, kutsatu gabe, ageri den orotan, honako hau jotzen da naturan egintza batek beste bati darraiola nahitaez eta ezinbestean, inolako jardule izpiritual edo pertsonalek parte hartzeke. Era honetan, sinpatiazko magiaren kontzeptu funtsezkoa zientzia modernoarena bera da: sistema osoaren azpian fedea dugu, inplizitua baina benetakoa eta sendoa, naturaren ordenan eta uniformetasunean jarritako fedea. Magia-gizonak ez du zalantzan jartzen kausa berberak beti ondorio berberak eragingo dituztela, ezta behar diren zeremoniak burutuz gero, komeni diren araoekin badoaz, nahi diren emaitzak derrigor etorriko direla ere, salbu eta beste sorgin baten xarma ahaltsuagoek enkantamenduak desegiten badituzte. Magia-gizonak ez dio inolako goi-botereren bati erregutzen; ez du eskatzen inongo izaki aldabera aldeko dakiola; ez da umiltzen inolako jainko izugarriren aurrean. Baina bere boterea handia delakoan badago ere, ez da arbitrarioa eta mugagabea. Bere artearen arauak estu lotzen zaien bitartean -eta ez bestela- erabili ahal izango du, edota naturaren lege izenda genitzakeenei lotzen zaien bitartean, halakotzat baitaizka berak. Arau horiek baztertzeara edo lege horiek den ñabardurarik nemiñonean haustea, porrot egitea da, eta jardule dorpea bera ere arrisku larriaren menpean jar dezake. Naturako errege dela aldarrikatzen badu, erregetza konstituzionala da hori, zehatz mugatua bere nondik-norakoan eta usadio zaharrarekin guztiz bat etorritik enplegatua. Beraz, estua da unibertsoaren ikusmolde magikoaren eta zientifikoaren arteko analogia. Bietan, gertaeren segida guztiz erregularra eta benetakoa da, lege aldaezinek erabakia, eta hauen jarduna zehazki aurrikusi eta kalkula daiteke; ustekabea, eta zoria bezalako elementuak

bilakaera naturaletik at uzten dira. Biek irekitzen diote ahalbide-aukera ustez mugagabea, gauzen kausak ezagutzen dituenari, eta unibertsoaren mekanismo zabal eta nahaspilatua martxan jartzen duten ezkutuko bultzailuak maneia ditzakeenari. Hortik dator magiak eta zientziak giza gogoaren gainean izan duten erakarmen indartsua; hortik, biek jakituria lortzeko emandako bultzada indartsuak. Berek bultzatzen dute ikertzaile nekatua, bilatzaile unatua, oraineko zapuztaldien basamortuan zehar, etorkizunerako promesa mugagabeak eginez; berek jartzen dute mendi oso garaiaren tontorrean eta erakusten diote, zapaltzen duten behelaino aldakorra eta hodei ilunak baino harantzago, hiri zerutiarraren bista, oso urrun apika, baina lurraz harantzagoko distiraz, ametsezko argitan blai.

Magiaren akats larria ez datza fenomenoaren hurrenkera legeek erabakia dela ematean, baizik eta hurrenkera hori gidatzen duten lege partikularren izaera guztiz oker sumatzean. Aurreko orrialdeetan aztertu diren eta lagin arrunt gisa har daitezkeen sinpatiazko magiako kasuak analizatuz gero, zera aurkituko dugu, lehenago esan bezala: denak ere pentsamenduaren funtsezko bi lege handietako baten edo bestearen aplikazio erratuak direla; ideiak antzekotasunen arabera elkartzea da lege bata, eta ideiak denboran edo espazioan duten segidaren arabera elkartzea bestea. Antzeko ideiak oker elkartzeak homeopatiatzko edo antzezko magia sorrarazten du; elkarren segidan dauden ideiak elkartzeak kutsadurazko magia sorrarazten du. Elkartze-printzipio horiek bikainak dira berez, baita guztiz ezinbestekoak ere giza gogoaren jardunerako. Zuzen erabilia, zientzia sorrarazten dute; oker erabilia, ordea, magia, zientziaren ahizpa izun hori. Beraz, Fernandoren egia da, tautologia ia, magia nahitaez faltsua eta antzua dela esatea, zeren eta, inoiz egiazkoa eta emankorra izatera iritsiko balitz, jadanik ez bailitzateke magia, zientzia baino. Garai antzinakoenetatik, gizakumea lege orokorrak bilatzen ibili da buru-belarri, fenomenoaren ordena naturalaz probetxatzeko, eta bilaketa amaigabe horretan halako maxima ugari jorratu ditu, batzuk urrezkoak, beste batzuk zabor hutsa direnak. Egiazko edo urrezko diren arauak arte deitzen diogun zientzia aplikatuaren gorputza osatzen dute; arau faltsuak magia dira.

Magia zientziatik hain hurbil badago, erlijioarekiko zein egoeratan dagoen arakatu beharra dugu oraindik. Baina erlazio honetaz dugun ikuspegia erlijioaz beraz dugun ideiak kutsatuta egongo da; horregatik, bidezkoa dirudi idazleak erlijioaz duen kontzeptua definitzea, magiarekin duen erlazioa ikertzeari ekin aurretik. Munduan ez da izango erlijioaren izaerari buruzko arazo honek adina iritzi desberdin biltzen dituen besterik eta, beraz, denak aseko dituen definizioa osatzea ezinezkoa da, bistakoa denez. Idazleak egin dezakeen guztia, erlijioa esatean zer ulertzen duen argi zehaztea da, eta ondoren hitz hori adiera horretan erabiltzea obra osoan zehar. Beraz, erlijioa esatean gizakumeaz gaindiko ahalmenen aldekotze edo adiskidetzea esan nahi dut, ustez giza bizitzaren eta naturaren nondik-norakoa gidatzen eta gobernatzen duten ahalmenena. Hala definiturik, erlijioak bi osagai ditu, bat teorikoa eta bestea praktikoa: gizakumeaz gaindiko ahalmenak badirela sinestea da bata, eta gizonak ahalmen horiek eztitzeko edota horiei atsegin emateko egiten duen ahalegina da bestea. Bietarik, argi dago lehenik sinesmena datorrela; izan ere, jainkozko izaki bati atsegin ematen ahalegindu aurretik, izaki hori badela sinetsi beharra baitago. Baina sinesmenak dagokion praktikara eramanez, ez da erlijiorik izango, teologia hutsa baizik. Santiagoren hitzetan: "Horrela fedea ere, egintza onik ez badu, hila dago bere baitan". Bestela esanda, gizakume bat ez da erlijiosoa bere jokabidea neurri batez Jainkoaren beldurraren edo maitasunaren arabera antolatzen ez badu. Bestalde, praktika hutsa ere, erlijio-sineste oroz biluzik, ez da erlijio. Bi pertsonak berdin-berdin joka dezakete, eta bat erlijiosoa izan eta bestea ez. Jainkoaren beldurra edo maitasuna eraginda diharduena erlijiosoa da; besteak gizakiaren beldurra edo maitasuna eraginda badihardu, morala edo

inmoralala izango da, beraren jokabidea denen onarekin bat datorren ala talka egiten duen. Horregatik, sinesmena eta praktika -edo teologiazko hitzez, fedea eta egintzak-, bata bestea bezain funtsezko zaizkio erlijioari, ez baita erlijiorik bi-biak izan gabe. Baina ez da beharrezko praktika erlijiosoak beti erritual baten itxura hartzea; hau da, ez dauka beti sakrifizioa eskaini, otoitzak esan eta kanpora begirako beste zeremonia batzuk burutu beharrik. Haren xedea Jainkoari atsegin ematea da, eta Jainkoak karitatea, urrikalmendua eta kastitatea maiteago baditu odol-opariak, eresi-kantaldiak ea intsentsu-keak baino, gurtzaileek hobeto emango diote atsegin beraren aurrean ahozpez jarri gabe, alabantzak kantatu gabe, eta tenpluak opari garestiz bete gabe, baizik eta garbi, eta gizakiekiko errukitsu eta karitatetsu izanez baizik; hala eginez gero, jainkozko izaeraren betegintzarreak imitatuko baitituzte gizakiaren berezko ahuleziak bide ematen duen neurrian. Erlijioaren alderdi etiko haxe bihotzetaratu nahi izan zuten etengabe igarle hebraitarrek, Jainkoaren ontasunaren eta santutasunaren goi-asmo bikainean inspiraturik. Hala dio Mikeasek: "Gizon, berak adierazi dizu zer den ona; eta zer nahi du Yavek zugandik, ezpada justu izatea eta urrikalmendua maitatzea eta Jainkoarekin ibiltzeko zeure burua apaltzea?". Eta geroagoko garaietan, kristautasunak mundua konkistatzeko erabilitako indarretik asko, Jainkoaren izaera moralaren kontzeptu goi-arnasdunetik eta gizakiek haren antzera jokatzeko duten betebeharretik etorri zen. "Jainko Aitaren aurrean" dio Santiagok, "haxe da erlijio huts eta orbainik gabea: umezurtzak eta alargunak ezbeharrean bisitatzea, eta mundu honetan orbaingabe irautea".

Baina baldin erlijioak, lehenik, gizonaz gaindiko izakiak sinestea eta, bigarrenik, haiek norberaren alde edukitzea esan nahi badu, argi eta garbi ateratzen da hortik naturaren nondik-norakoa nolabait malgua edo aldakorra dela, eta guk makurrarazi egin ditzakegula hura gobernatzen duten izaki ahaltsuak, gertaeren isuria bestela joan ordeztatu gure alde bihurtu dezaten. Baina naturaren malgutasun edo aldakortasun inplizitu hau kontrajarri egiten zaie hala magiaren nola zientziaren printzipioei, biek ematen baitute naturako prozesuak zurrnak eta aldakaitzak direla beren jardunbideetan, eta ezin desbidera daitezkeela ez limurtze edo erreguen bidez, ez mehatxuz edo larderiak. Unibertsoari buruzko bi ikuspegi kontrajarrien arteko bereizketa, funtsezko galderari emandako erantzunetik sortzen da: mundua gidatzen duten indarrak kontzienteak eta pertsonalak dira, ala inkontzienteak eta inpertsonalak? Erlijioak, gizagaineko ahalekiko adiskidetzea baita, lehen aukera egiten du bere. Adiskidetze orok berekin baitakar adiskideturako izakia agente pertsonal eta kontziente izatea, neurri batez jokabide ez-ziurra duena, eta jokabide hori norberak nahi duen alderantz aldaraz dezakeela sinestea, haren interesei, apetei edo sentipenei zuhurki dei eginez gero. Adiskidetzea inoiz ez da erabiltzen bizigabatzat jotzen diren gauzekin, ez zirkunstantzia horietan jokabidea guztiz erabakita duten pertsonekin. Beraz, erlijioa, unibertsoa agente kontzienteek gidatzen dutela ontzat ematen duen neurrian, limurtze bidez egitasmoz alda daitezkeen agenteek noski, funts-funtsetik kontrajartzen zaie hala magiari nola zientziari, beste bi hauek ematen baitute naturaren nondik-norakoa ez dutela izaki pertsonalen grina edo apetek erabakitzen, mekanikoki ari diren legeen jardunak baizik. Magiak inplizitua du uste hori, baina zientziak argi eta garbi adierazten du. Egia da magia sarritan izpirituekin aritzen dela, erlijioan ageri ohi diren agente pertsonalen motakoekin alegia; baina haiekin jarduten duen guztietan egoki jarduten du, agente bizigabeak bailiran, hau da, estutu edo behartu egiten ditu, haien atsegina edo aldekotza bilatu ordeztatu, erlijioak egiten duen bezala. Beraz, magiak uste du nor guztiak, hala gizakumeak nola jainkotiarak, den-dena zuzentzen duten indar inpertsonalei lotuta daudela azken-azkenean, baina hala eta guztiz ere, zeremonia eta arao egokiz indar haiek nola erabili dakienak baliatu egin ditzakeela. Antzinako Egipton, adibidez, magia-gizonek jainkorik

gorenenei ere beren aginduak betearazteko zuten ahala aldarrikatzen zuten, eta suntsitu egingo zituztelako mehatxua ere egiten zieten, egin, jainkoei, ez obedituz gero. Beste batzuetan, hainbestekorik gabe, magia-gizonak deklaritzen zuen sakabanatu egingo zituela Osirisen hezurak, edo haren legenda sakratua jakinaraziko zuela jainkoak ezezkoan segitzen bazuen. Era berean, Indian gaur egun, Brahma, Visnu eta Xiva indiar hirutasun handia bera ere magia-gizonen menpe dago; magia-gizonek, araoen bitartez, halako eskua dute hain jainko ahaltsuen gainean, non hauek otzan-otzan betetzera behartuta baitaude beren nagusi magia-gizonek agindutako eta gogoratutako oro, beheko lur honetan bezala goiko zeruan ere. India osoan eskuarki zabaldua da esaera bat: "Unibertso osoa dago jainkoen menpe; jainkoak araoen (mantren) menpe daude; araoak brahmanen menpe; beraz, brahmanak dira gure jainkoak".

Magiaren eta erlijioaren arteko erroto gatazka honek nahikoa ondo azaltzen du historian zehar apaizak magia-gizona etengabe jazarri izana. Magia-gizonaren uste harroak, botere gorenakiko jokabide hantustezkoak eta botere haien berdineko agintea izateko asmo lotsagabeak asalatu egingo zuten ezinbestean apaiza; izan ere, apaizak, jainkoen maiestataren beldurrez, eta jainkoen aurreko jarrera umilez, iritziko zion halako asmo eta jokabideek gaiztakeriarik gaiztoenaz usurpatzen zituztela, Jainkoarenak eta ez besterenak diren dohaiak. Eta batzuetan, pentsa genezakeenez, arrazoi beharagokoei ere larriagotuko zuten apaizaren etsaigoa; honek bere burua baitzuen deklaratu bitarteko egokitzen, Jainkoaren eta gizakien arteko benetako arartekotzat eta, ez bairik gabe, honetan aurkaria izateak min emango zion sarri, hala interesetan nola sentipenetan; aurkari horrek zoriona iristeko bide askoz malgu eta seguruagoa predikatzen baitzuen, jainkoen oniritzia lortzeko bide malkar eta labana baino.

Dena den, badirudi antagonismo hau, ezaguna bazaigu ere, berandu samar agertu zela erlijioaren historian. Lehen fasean, apaizaren eta magia-gizonaren betekizunek elkar osatzen zuten sarri, edo, zehatzago hitz eginez, baliteke artean elkarretarik desberdindu gabe izatea. Bere asmoak lortzeko, gizakumeak otoitz eta sakrifizioen bidez jartzen zuen bere alde jainkoen edo izpirituen borondate ona; aldi berean, zeremonia eta araoetara jotzen zuen lortu nahi zuen emaitza berez ekarriko ziotelakoan, inongo jainko nahiz deabruren laguntzarik gabe. Labur esanda, errito erlijiosoak eta magikoak praktikatzen zituen; ia batera ahoskatzen zituen otoitzak eta araoak, bere jokabidearen ahulezia teorikoa ezagutu edo aintzakotzat hartu gabe, nahi zuena alde edo moldez lortzen zuen heinean. Magia erlijioarekin bat egite edo nahaste honen adibideak lehenago eman ditugu, melanesiarren eta beste herri batzuen usadioak aipatzean.

Magiaren eta erlijioaren arteko nahasketa berak iraun du kultur maila altuagoetara igotako herrien artean ere. Indian eta Egipton gauza arrunta zen antzina; baina europar nekazarien artean oraindik ez da desagertu, inondik ere. Antzinako Indiari dagokionez, sanskrito-irakasle ospetsu batek dioskunez, "sakrifizioen erritualak, berri xeherik ematen digun denborarik aspaldikoenean, blaituta dago magiarik zaharrenaren kutsua bizirik duten arierez". Magiak Sortaldean eta batez ere Egipton duen garrantziaz ari dela, Maspero irakasleak honela dio: "Ez dugu magia kontzeptuarekin lotu behar gaur egungo gizaki modernoaren gogora ia ezinbestean etorri ohi den irudi endekatua. Antzinako magia erlijioaren benetako funtsa izan zen. Jainko batengandik onuraren bat jaso nahi zuen sinesdunak ez zuen lorbide handirik jainkoa atxitzen ez bazuen, eta atxitze hori zenbait errito, sakrifizio, otoitz eta kanturen bidez bakarrik egin zitekeen, jainkoak berak jakinaraziak, eta eska ziezaiotena egitera behartzen zutenak".

Europa modernoko gizatalde ezjakinen artean, ideia-nahaspila berau, erlijio eta magia nahasketa berau ageri da hainbat formatan. Esate baterako, kontatzen zaigunez, Frantzia "oraindik ere nekazari gehienek sinesten dute apaizak ahal osoa eta sekretua duela naturako elementuen gainean berak eta ez bestek dakizkien zenbait otoitz eginez,

eta horiek esateko eskubidea du nahiz gero barkamena eskatu behar; arrisku larria denean, mundu fisikoaren lege betierekoen jarduna geldiarazi edo alderantzizka dezake une batez. Menpean ditu haizea, ekaitzak, txingorra eta euria, eta obeditu egiten diote. Sua ere lotuta du, eta suteko garrak iraungi egingo dira hark hala aginduz gero". Adibidez, frantziar nekazariak sinetsita zeuden, eta oraindik ere badaudeke, apaizek, zenbait errito berezirekin, Izpiritu Santuaren Meza bat esan zezaketela. Meza honen indarra hain zen miragarria non inoiz ez baitzuten izaten Jainkoaren borondatearen kontrakarrik: Jainkoa behartua izaten zen era hartan eska zekiona ematera, are eskaria oso desegokia eta ausartegia izanda ere. Erritoak ez zuen gaiztakeria edo begirune faltaren arrastorik, bizitzako une larrienetan zeruetako erresuma bide bitxi hartatik bilatzen eta bortxaz irabazi nahi zutenen gogoan. Apaiz arruntek gehienetan ezezkoa ematen zioten Izpiritu Santuaren Meza emateari, baina monakoek, batez ere fraide kaputxinoek, egonezinez eta larri zeudenen erreguei barne-kezka gutxiagoz erantzuten zitelako ospea zuten. Nekazari katolikoek ustez apaizak Jainkoari hala egindako bortxa, badirudi antzinako egiptoarrek beren magia-gizonei aitortzen zieten boterearen pare-parekoa dugula. Halaber, beste adibide bat emateko, Proventzako herrixka askotan oraindik ere uste dute apaizak ekaitzak galarazteko ahala duela. Apaiz guztiek ez dute ospe hori, eta herrixka batzuetan, apaiz-aldaketa gertatzen denean, herritarrek irrikitan egon ohi dira izendatu berriak ahala (pouder) ote duen jakiteko, halaxe deitzen diote haiek. Ekaitz handiren baten lehen zantzuei erreparatzean, probatu egiten dute, eta ondorioa bat badator haien itxaropenarekin, apaiz berriak herritarren abegi ona eta begirunea bereganatzen ditu. Parrokia batzuetan, bikarioaren ospea alde honetatik erretorearena baino handiagoa zenean, bien arteko harremanak hain izaten ziren atezuan non apezpikuak beste parrokia batera aldatu behar izaten baitzuen erretorea. Nekazari gaskoinek ere uste dute pertsona gaiztoek, batzuetan, etsaiengandik libratzeko, apaiza San Sekariorena deritzan meza esatera bultzatzen dutela. Oso apaiz gutxi ezagutzen du meza hau, eta ezagutzen dutenetako lautik hiruk ez dute meza esango, ez maitasunagatik, ez diruagatik ere. Inor ez da ausartuko, apaiz gaiztoen bat izan ezik, zeremonia beldurgarri hori burutzer, eta gauza segurua da Judizioaren egunean kontu latzak eman beharrean izango dela. Ezein apaiz edo apezpikuk ez diezaioke barka, ezta Auch-eko artzapezpikuak ere: eskubide hori Erromako Aita Santuak bestek ez du. San Sekarioren meza eroritako edo bazter utzitako elizan baizik ezin daiteke esan, non hontzek ulu goibela egiten duten, saguzarrak ilunabarrean hegaztatzen diren, ijitoek gaez kanpatzen duten eta apoak profanaturiko aldare azpian gordetzen diren. Hara iristen da gaez apaiz gaiztoa bere ohaidearekin eta, hamaiketako lehen kanpaia jotzean, meza alderantziz esaten hasten da, amaieratik hasieraraino, eta erlojuak gauerdia jotzen ari direnean bukatzen du. Ohaideak egiten dio meza-laguntzen. Bedeinkatzen duen hostia beltza da eta hiru puntakoa; ez du ardorik sagaratzen eta haren ordeztatu gabeko jaioberri bat ito den putzuko ura edaten du. Gurutzearen seinalea egiten du, baina lurraren gainean eta ezkerreko oinaz. Eta beste hainbat gauza egiten ditu, ezein kristau onek bizitza osorako itsu, gor eta mutu geratu gabe ikus ez litzakeenak. Baina meza eskaini zaion gizona ahuldu egiten da ezari-ezarian, eta inork ez dezake esan zer gertatzen zaion; medikuek ere ezin dute ezer egin haren alde. Ez dakite San Sekarioren mezagatik ari dela poliki hiltzen.

Hala ere, magia, herrialde eta garai askotan, erlijioarekin horrela bat eginda eta nahastuta badago ere, badira arrazoiak zera pentsatzeko, alegia nahasketa hau ez dela antzina-antzinakoa, eta garai batean gizakiak bere grina aberekoi berehalakoan mugetatik at zeuden premiak asetzeko bakarrik jo zuela magiara. Lehenik eta behin, magiaren eta erlijioaren funtsezko nozioak aintzakotzat hartuta, pentsa genezake magia erlijioa baino zaharragoa dela gizadiaren historian. Ikusi dugu, batetik, magia

adimenaren prozesu sinple eta oinarritzkoenak oker aplikatzea besterik ez dela, hau da, ideiak antzekotasunez edo albokotasunez elkartzearen aplikazio okerra; eta bestetik, ikusi dugu erlijioak onartzen duela badirela gizakiaz gaindiko agente pertsonal eta kontzienteak ikusgai den naturaren atzealdean, ezkutuan. Bistan da agente pertsonalak gogoematea ideien antzekotasunaz edo albokotasunaz ohartze hutsa baino konplexuagoa dela. Naturaren nondik-norakoa agente kontzienteek erabakitzen dutela onartzen duen teoria ulergaitzagoa eta sakonagoa da, adimen eta gogoeta-gradu altuagoa eskatzen du bera ulertzeko, gauzak, albokotasuna edo antzekotasuna direla medio, bata bestearen segidan doazela, soilik onartzen duen ikuspegia baino. Abereek berek ere elkartzen dituzte antzekoak diren gauzen ideiak, edo beren esperientzietan elkarrekin aurkitu izan dituztenak, eta nekez iraungo lukete bizirik, egun bakar batez ere, hala egingo ez balute. Baina nork leporatzen die abereei halako sinesmena, alegia naturako fenomenoak abere ikustezin ugarik edota abere eskerga eta ezin indartsuago batek gidatzen dituela ezkutuan atzealdetik? Beharbada abereei ez zaie bidegabe handirik egiten honako hau onartuta, alegia giza arrazoiari dagokiola aipatua bezalako teoria paratzeko ohorea. Beraz, magia berehala ondorioztatzen da arrazoiketaren oinarritzko prozesuetatik, eta gogoia ia berez, oharkabea, erori ohi da huts horretan; aldiz, erlijioa abereen adimenak nekez iritsiko dituen kontzeptuen gainean eraikita dago. Horrenbestez, baliteke magia erlijioa baino lehenago agertu izana gure arrazaren bilakaeran; baliteke gizona bere arao eta enkantamenduen indarrez saiatu izana natura bere desiren menpe jartzen, jainko muzin, apetatsu edo haserren bat limurtzen eta baketzen ahalegindu baino lehen, otoitzaren eta sakrifizioaren iradokizun emearen bitartez.

Dedukzioz iritsi dugun ondorioa, magiaren eta erlijioaren ideia nagusiak kontsideratuz, indukzioz berretsi dute zenbait oharpenek australiar jatorritzkoen artean, informazio zehatza eskaini diguten basatirik zakarren artean alegia: magiaren praktika guztiz zabalduta da; aldiz erlijioa, goiko botereen aldekatze eta adiskidetze zentzuan, badirudi ia ezezaguna dela. Zehaztasunez hitz egin gabe, esan liteke australiar guztiak magia-gizonak direla, baina inor ez dela apaiz: denek uste dute eragina izan dezaketela beren kideengan edo naturako gertaeretan sinpatiazko magiaz baliatuz, baina inork ez du amets egiten otoitzaren eta sakrifizioaren bitartez jainkoak bere alde jarriko dituenik.

Ezagutzen ditugun gizarte-egoera atzeratuenetan magiak hainbesteko pisua badu, eta erlijioaren arrastorik ez bada, ez ote genduke aieru hau arrazoi osoz egiterik, alegia munduko arrazarik zibilizatuenek ere beren historiako aldiren batean antzeko fase intelektualetik pasatu direla, eta naturaren ahal nagusiak beren menpe jarri nahi izango zituztela, haien aldekatza eskaintzen eta otoitzen bitartez eskatzea otu aurretik? Hitz gutxitan: giza kulturaren alderdi materialean, harri-aroa nonahi izan den bezala, alderdi intelektualean, nonahi izan ote da magiaren aroa? Badira galdera honi baietz erantzuteko arrazoiak. Groenlandiatik Suaren Lurraldearaino edo Eskoziatik Singapurerraino diren giza arrazak aztertzen ditugunean, desberdintasun handiak sumatzen dizkiegu erlijio-aniztasunagatik, eta desberdintasun horiek ez dira, nolabait esatearren, arrazazko berezitasunekin guztiz bat etortzen; aldiz, estatu eta komunitateen azpibanaketa txikiagoetan barrentzen dira. Are gehiago, hirian, herrian, are familian ere sartzen dira, hala non gizartearen gainazala, mundu osoan, arraildura, zirritu, ebakiek urratuta, puskatuta eta josita baitago erlijio-gatazken eragin desintegratzailearen ondorioz. Baina desberdintasunetan sakondu dugunean, batez ere gizartearen parte adimentsu eta pentsatzaileari dagozkionetan, eustazpi sendoa aurkitzen dugu azpian, adostasun intelektuala inozoaren, ergelaren, ezjakinaren eta superstiziozalearen artean, halakoak baitira, zoritxarrez, gizaki gehienak. Hauxe izan zen XIX. mendearen lorpen handienetako bat: munduko parte askotan gogoaren maila baxu honetaraino iristea, eta gogo hori nonahi bat bera dela aurkitzea. Gure oinen azpian dugu -oso azpian ere ez,

hala ere-, European bertan eta geure garai honetantxe, eta lurrazalaren gainean ageri da Australiako basamortuaren bihotzean eta zibilizazio garaia goren batek azpiratu ez duen lekuetan. Fede unibertsal hau, sinesmen benetan katoliko hau, magiaren eraginkortasuna sinestea da. Erlijio-sistemak herrialdetik herrialdera ezezik, herrialde batean garai batetik bestera ere desberdintzen diren bitartean, sinpatiazko magiaren sistemak bere horretan dirau nonahi eta noiznahi printzipio eta arieretan. Europa modernoko klase ezjakin eta superstiziozaleen artean, magia orain dela milaka urte Egipton eta Indian izan zen gauza bera da, baita oraintxe, munduko lekuri urrunetan bizi diren basati atzeratuenean artean den gauza bera ere. Egiaren froga altxatutako eskuen edo buruen kopurua balitz, magiaren sistemak Eliza katolikoak baino arrazoi gehiagoz aldarrika lezake esaera hau: Quod semper, quod ubique, quod ab omnibus, bere hutsezintasunaren bermagarri ziur eta egiazkotzat.

Ez da gure asmoa hemen honako hau jorratzea, alegia gizateriaren etorkizunaren gainean zer pisu duen halako basatasun-geruza sendoak, gizarteak ezarritako gaingeruzaren azpian datzanak, erlijioaren eta kulturaren axaleko aldaketei iragazkaitz gertatu zaienak. Behatzaile grinagabeak, azterketek sakonaldeak ikertzera bultzatu badute, zibilizazioarentzako mehatxu etengabe gisa hartu beharko ditu, ia ezinbestean, basatasun-geruza horiek. Badirudi azal mehe baten gainean mugitzen garela, eta azpian lo dautzan indarrek azal hori edozein unetan urra dezaketela. Noizean behin, zorupeko murmuren batek edo garrak bat-batean agertzeak ohartarazten gaituzte gure oinpean gertatzen denaz. Batzuetan mundu ikasia asaldatu egiten da egunkarietako artikuluren batek dioskunean Eskozian orratz asko josita dituen zurezko irudi bat aurkitu dutela, aberats edo predikari gorrotaturen bat hiltzeko asmoz eginga; Irlandan emakume bat geldiro-geldiro erre dutela hil arte, sorgina zela eta; edo Errusian neska bat hil eta zatikatu egin zutela giza bilgorrezko kandelak egiteko, haien argitan lapurrek gaulanean ikustezin bihurtzea espero izaten baitute. Aurrerabidean laguntzen duten indarrak ala orain arte lortutakoa suntsitzeko mehatxu egiten dutenak aterako ote dira irabazle? Gizateriaren gutxiengoaren bultza-indarra ala gehiengoaren pisu hila gertatuko ote da indartsuago, goirik goienetara eramateko ala amil sakonenetan amilarazteko? Galdera hauek jakintsuari, moralistari eta estatu-gizonari egin behar zaizkio, horien begi zoliak aurrea hartzen baitio etorkizunari; ez zaizkio egin behar iraganaren eta orainaren ikertzaile apalari. Hemen haxe besterik ez zaigu ardura, alegia magiaren sineste uniforme, unibertsal eta egonkorak, sineste erlijiosoen aniztasun amaigabe eta izaera aldakorrek konparatuta, haxe pentsarazten digula, alegia hura giza gogoaren fase latzago eta zaharragoaren lekuko dela, eta fase horretatik pasatu direla edo pasatzen ari direla gizadiaren arraza guztiak erlijiorako eta zientziarako bidean.

Erlijioaren aroaren aurretik, nonahi, magiaren aroa izan bada, eta horixe diogu guk, bidezkoa da aztertea gizateriak edo, hobeto esan, gizateriaren parte batek zergatik baztertu duen magia fede eta praktika-arautzat, eta zergatik magiaren ordeztu erlijioa onartu duen. Azaltzeko dauden gertaera guztien ugaritasun, aniztasun eta konplexutasunaren gainean gogoeta egiten dugunean, berehala otutzen zaigu nekez espero dezakegula soluzio osozko eta betegarririk hain arazo sakonarentzat, eta egun egin dezakegun guztia aieru gutxi-asko egiantzekoa aurreratzea dela. Salbuespenak salbuespen, bada, haxe iradokiko dut: magiari datzekion faltsutasunaz eta antzutasunaz berandu batean ohartzeak gogoetan jarri zuela gizateria naturaren teoria hoberen bati buruz, eta haren baliabideak ustiatzeko metodo emankorragoren bati buruz. Adimen zorrotzek garaiz igerriko zioten zeremonia eta enkantamendu magikoek ez zekartela benetan haietarik espero zen emaitzarik, kide xalo gehienek hala uste izan arren. Magiaren eraginkortasunik eza aurkitze horrek iraultza eragin bide zuen poliki-poliki hartarako zuhurtzia izan zutenen gogoan. Gizakiek naturako zenbait indar, ordura arte

ustez menpean zituztenak, beren gogara erabiltzeko ezina onartu zutenean iritsi zen aurkikuntza. Giza ezjakintasuna eta ahulezia onartzea izan zen hura. Gizakia ohartu zen kausa ez zirenak hartu zituela ordura arte kausatzat, eta irudipen hutsak ziren kausa haien bitartez jarduteko ahalegin guztiak alferrikoak gertatzen zirela. Alferrik galdu zen hainbeste neke eta oinaze, jakin-nahi xalo hura ezertarako ez zen xahutu. Ezer lotzen ez zuten lokarrietatik tiraka jarduna zen gizateria; helburura zuzen-zuzen zihoalakoan, zirkulu estu batean mugitua zen. Hain gogor gauzarazi nahi izan zituen ondorioak ez ziren desagertu, gertatu ziren aurrerantzean ere: artean gertatzen ziren, baina ez bere eskuz. Euria egiten segitzen zuen lur egarberaren gainera; eguzkiak egunero eta ilargiak gauero egiten zuten beren bidaia ortzian; urtaroen segida isilak argia eta itzala, lainoak eta eguzkia ekartzen zituen; gizakiek lanerako eta nekerako jaiotzen segitzen zuten, eta gero, lurreko egonaldi laburraren ondoren, lehenago bezala biltzen ziren arbasoekin egoitza handian. Gauza guztiak lehen bezala gertatzen ziren, gertatu, eta hala ere, dena zeritzon desberdina begietako lausoak kendu zitzaizkionari. Zeren eta jadanik ezin baitzion atxikimendurik erakutsi lilura hutsal atsegin hari: berak gidatzen zituela zeru-lurrak beren bidean eta biek, zeruak eta lurrak, amaituko zituztela beren ibili handiak berak esku ahula lematik kentzean. Etsai edo lagunaren heriotzan jadanik ez zuen ikusten bere edo etsaiaren enkantamenduen ahalmen jarkiezinaren froga; bazekien lagunak et etsaiak norberak erabil zezakeena baino askoz ahalmen handiagoaren indarrez hiltzen zirela, norberak kontrolatu ezin zuen patuari men eginez.

Horregatik, lokarri zaharrak ebakiz eta zalantza eta segurtasunik ezaren itsaso haserrean abiatuz, ordura arte bere buruagan eta bere indarretan zuen zorioneko konfidantza gogor astinduta, gure antzinako filosofoa noraez tristean eta urduri geratu bide zen, harik eta praktika eta fede-sistema berrian, atsedean hartu zuen arte, nola itsasgizonek portu lasai batean bidaia ekaiztsuaren ondotik, fede berri hark zalantzei soluzioa eskaintzen zielakoan eta, halamoduzkoa izanik ere, ondo kostata utzia zuen agintearen ordezkia zelako. Unibertsoa bere eta lagunaren laguntzarik gabe bazebilen, hori beraren antzekoak baina ahaltsuagoak ziren beste izaki batzuen kariaz gertatzen zen seguruenik. Ikustezinak izanik, unibertsoaren ibilia gidatuko zuten eta era guztietako gertaerak eragiten zituzten, ordura arte bere magiaren menpe uste izan zituenak. Haiek eta ez bestek puztarazten zituzten haize ekaiztsuak, lehertarazten tximistak eta durundarazten trumoiak, hala uste zuen orain; haiek eraikiak ziren lur gotorraren zimenduak eta itsaso haserrearen muga gaindiezinak; haiek distirarazten zituzten zeruetako argizagi ezin ederragoak; haiek bazkatzen aireko hegaztiak eta piztia basatiak; haiek agintzen lur emankorrari ugari emateko, mendi garaiei oihanez janzteko, iturbegiei haranetako haitz artean borborkatzeko eta ur geldien ondoan belaze gizenak hazteko; haiek ematen zioten bizia gizakiari sudurrean hats eginez, edo makurtzen zuten hondamenera gosez, ustelkeriaz eta gerraz. Izaki ahaltsu haiei zuzentzen zitzairen orain gizakia, haien zantzuak ikusten baitzituen naturaren edertasun zoragarri eta askotarikoetan, botere ikustezin haren menpeko zirela aitortuz eta haien urrikalmenduari lehiaz eskatuz on guztiez horni zitzatela, gure bizitza hilkorrean uneoro gurekin ditugun arrisku eta kalteetatik defenda zezatela eta, azkenik, beraren izpiritu hilezina, gorputzaren zamatik libre, mundu zoriontsuagora eramane zezatela, oinazearen eta tristuraren irismenetik harantzago, han haiekin eta gizaki onen izpirituekin geratzeko betiereko zorionean.

Halaxe edo halatsu burutara daiteke egingo zutela adimen sakonenean magiatik erlijiorako iragapena, baina haiengan ere aldaketa nekez gertatuko zen bat-batean: segurenik oso poliki jazo zen, eta denbora luzea behar izan zuen osotara burutzeko. Gizakiak naturaren nondik-norakoaren gainean ezer askorik ez dezakeela onartzea, pixkanaka onartu bide zen: kolpe bakar batez ez zen bere irudipenezko ahaltsuna gabe

geratuko. Urratsez urrats apalduko zen bere harrotasunetik; ezari-ezarian, hasperenen artean, utziko zuen lehenago beretzat zeukan alorra. Behin haizea, hurrengoan euria, edota eguzkia edo trumoa, maneiatu ezinean geratuko zen: naturaren alorrek banan-banan ihes egingo zioten eskuetatik, harik eta noizbait bere ahaltasuna zeritzona presondegi izateko bidean jarri zitzaion arte. Gizakiari zirrara handi samarra egingo zion bere ezerezaren sentipenak eta ustez inguruan zituen izaki ikustezinen ahalak. Hartara, gizakiaz gaindiko botereak bazirela iritzi eta zatika onartzetik hasiz, jakintza garatu ahala, gizakia jainkoen guztizko menpean zegoelako aitorpen bilakatu zen erlijioa; aurreko jokabide librea apalkuntzarik handiena bilakatu da indar ikustezin misterioetsuen aurrean, eta bere borondatea haien menpe jartzea du bertute nagusi: In la sua volontade è nostra pace. Baina zentzu erlijioso sakon hau, gauza guztietan jainkoen borondatearen menpekoago izate hauz, goi-mailako adimenei dagokie bakarrik, unibertsoaren mugarik eza eta gizakiaren txikia ulertzeko adina zabaltasun dutenei. Gogo-urriek ezin lor dezakete ideia handirik: beren ulermen estuan eta ikusmen motzean, ezer ez zaie iruditzen handi eta garrantzitsu, beren buruak izan ezik. Halako gogoak nekez altxatuko dira erlijiora. Gainean dauzkaten gogoek eramango dituzte herrestan, arauekin kanpotik bat etorritik eta aginduei ahoz men eginez; baina bihotzean superstizio magiko zaharrei atxikita segituko dute, mespreziatuak izan eta debekatuta egon arren, erlijioak ezin baititu baztertu gizateriaren gehiengoaren gogoan bilbatuta eta izatearen sakonean sustraituta daudena.

Beharbada irakurleari hainbat galdera sortuko zaizkio: nolatan gizaki azkarrek ez zuten lehenago aurkitu magiaren gezurra? Nolatan segitu zuten behin eta berriro zaputuz-erreka jotzera kondenatuta zeuden esperantzei eusten? Zein gogoz segitzen ote zuten ezertarako ez ziren barregarrikeria zaharrak erabiltzen eta eraginik ez zuen hizketa mordoiloan? Zergatik ote atxikimendu hura esperientzia erabat kontra zuten sinesteei? Nola arriskatu behin eta berriz porrot egiten zuten esperientziak errepikatuz? Erantzuna hauxe dateke: ez bide zen erraza gezurra aurkitzea, eta porrotak ez bide ziren hain agerikoak, zeren eta kasu askotan, gehienetan agian, desiratzen zen gertaera gertatu egiten baitzen benetan, tarte handiagoz edo txikiagoz, hura ekartzeko erritua burutu ondoren, eta gogo arrunta baino zorrotzagoa beharko zen atzemateko ezen, halakoetan ere, erritua ez zela hain juxtu gertaeraren kausa. Haizeak jo dezan edo euria egin dezan, edo etsai baten heriotza ekar dezan asmatutako zeremoniaren ondotik, lehentxeago edo geroxeago, beti etorriko da erakarri nahi den gertaera huraxe, eta antzinako gizakumeari barkatu egin behar zaio gertaera zeremoniaren emaitza zuzentzat eta eraginaren froga hoberentzat hartu izana. Era berean, goizean eguzkiari goratzen laguntzeko, eta udaberrian lurra neguko lozorrotik esnatzeko erritoei, arrakasta izaten zuten nahitaez, zona epeletan behinik behin, lurralde horietan eguzkiak goizero pizten baitu bere lanpara urre-kolorea ekialdetik, eta neguko lurra urtero estalki berde ederrez apaintzen baita udaberrian. Horregatik, basakume praktikoak, bere iraupen-senarekin, lasai asko egingo die entzungor teorilari zalantzatsuen eta filosofo erradikalaren zorrozkeriei, iradokitzen dutenean eguzkia eta udaberria agertzea, berez, ez diratekeela eguneroko edo urteroko zeremonia jakin batzuk burutzearen ondorio zuzen, eta agian eguzkia berdin irtengo dela eta zuhaitzak berdin loratuko direla zeremoniak inoiz etengo edo are betiko bukatuko balira ere. Besteek, noski, baztertu egingo zituzten zalantza eszeptiko hauek, suminez beterik, fedea nahasteko fantasia hutsak bailiran, eta esperientziak nabarmen gezurtatuak. "Ba al da hori baino gauza bistakoagorik" esango zuketean "alegia nik lurrean neure kandela mehea piztean, eguzkiak ere ortzian bere su handia pizten duela? Jakin nahi nuke ea, nik udaberrian neure arropa berdeak janzten ditudanetan, zuhaitzek ere ondoren gauza bera egiten ez ote duten. Hauek agerri-agerikoak dira denentzat, eta berei nagokie. Gizaki apala naiz, praktikoa, ez teorilari

horietako bat, ileak erdibitzen eta logika sastakatzen jarduten dutenetakoa. Teoriak eta espekulazioak eta gisa horretako guztiak oso ondo daude, eta ez diet nik kontra egingo horietara emanei, baldin eta, noski, praktikan jartzen ez badituzte. Baina utz diezadatela gertaerei atxikitzen, badakit-eta zer ari naizen!" Arrazoiketa honen engainagarria bistan dago guretzat, gure gogoan aspaldi erabakitako egintzak baitira. Baina ezar bekie pisu berdineko argudio bat oraindik eztabaidagai diren arazoei, eta zalantza egitekoa litzateke ea entzulego britainiarrak ez lukeen zuzentzat jo eta txalotuko, eta halakoa erabil lezan hizlaria gizon segurutzat joko, ez agian distiratsu edo puntako, baina bai burutik oinetaraino zuhurtzat. Halako arrazoiketak geure artean onar badaitezke, ez da harritzekoa denbora luzez basatiaren zentzu kritikoari ihes egin izana.

V

Eguraldia magiaz menperatzea

1. Magia-gizon publikoa

Irakurleak gogoan izango du giza jainkoen bi mota desberdin bereiztearen ondorioz barrendu garela magiaren labirintoan. Arrasto horri jarraitu gatzazkio zeharka bada ere, nahas-mahas honetan zehar, eta lur irmora ekarri gaitu azkenean. Bertatik, bidaiaren nekea arindu ondoren, atzera begira dezakegu, ibili berri dugun bidera, baita aurrera ere, oraindik igo behar dugun bide malkar eta luzeagora.

Aurreko azterketaren emaitza gisa, egoki bereiz daitezke giza jainkoen mota biak: alegia, erlijioiko eta magiako giza jainkoak. Lehenengo kasuan, jotzen da gizakia ez bezalako eta gizakiaz gaindiko izaki bat haragiztatu dela, denbora luzerako edo laburrerako, giza gorputz batean, eta bere gizagaineko boterea eta jakituria erakutsi dituela, mirariak eginez eta profeziak adieraziz, bere egoitzatarako aukeratu duen hezur-haragizko bizilekua bitarteko. Giza jainko mota hau egoki izenda daiteke goi-argitu edo haragiztatu ere. Beronengan, giza gorputza buztinezko ontzi hauskorra besterik ez da, izpiritu hilezkor eta jainkozkoak betea. Aldiz, mota magikoko giza jainkoa gizaki hutsa da, kide gehienek beren buruei, neurri txikiagoan bada ere, aitortzen dizkieten ahalmen garaiak ohiz kanpoko neurrian dauzkana; izan ere, antzinako gizartean nekez izango da magian trebatua ez den pertsonarik. Beraz, lehen motako giza jainkoak (goi-argituak), edertasun zerutiarra buztinezko maskara ilun baten atzean gorde duen jainko batengandik hartzen du bere jainkotasuna; bigarren motako giza jainkoak, berriz, naturarekiko sinpatia berezi batetik hartzen du bere ahalmen ohiz kanpoko. Bere izate osoa, gorputz eta arimaz, hain dago harmonia unibertsalarekin bat eginda, non bere eskuaren ukitu hutsak edo burua doi jiratzeak inarrosi eta dardaran jarriko duen gauzen egitura unibertsala; eta alderantziz, haren soin jainkotiarrek bizi-bizi sentituko ditu inguruko aldaketarik ñimiñoenak, baita gizaki gehienak erabat axolagabe utziko lituzketenak ere. Baina bi giza jainkoon arteko muga, teorian oso erraz marraztu ahal badugu ere, oso gutxitan bereiz daiteke praktikan, eta ez dugu bereizketa horretaz gehiago jardungo.

Ikusi dugu magiaren artea, praktikan, hala norbanakoen nola komunitate osoaren onerako erabil daitekeela, eta segun eta bi xedeotako bati ala besteari zuzentzen zaion, magia publiko edo pribatu izendatzen dela. Gainera, seinatu dut magia-gizon publikoak eragin handiko posizioa duela, eta bertatik, gizon zuhurra eta trebea bada, urratsez urrats, buruzagi edo errege bihurtzeraino irits daitekeela. Horregatik, magia publikoa aztertzeak hasierako erregetza ulertzera garamatza; izan ere, gizarte basati eta barbaroan badirudi buruzagi eta errege askok magia-gizon gisa zuten ospeari zor ziotela beren agintea.

Magiak helburutzat har ditzakeen on publikoen artean, nahikoa jakiz hornitzea da funtsezkoena. Aurreko orrialdeetan emandako adibideek frogatzen dute janari-hornitzaileak -ehiztariak, arrantzaleak, nekazariak- denak baliatzen direla magiazko

jardueraz beren egitekoak burutzeko; baina hori norbanako gisa egiten dute, beren eta familien alde, ez jende guztiaren alde diharduten funtzionari publiko gisa. Bestela gertatzen da erritoak magia-gizon profesionalak -eta ez ehiztariek, arrantzaleek edo nekazariak- jokatzen dituztenean, denen alde alegia. Hasierako gizartean, lana denentzat berdina izan ohi baita, eta komunitatea apenas hasi delarik hainbat langile-klasetan banatzen, gizon oro da gutxi gora-behera bere buruarentzat magia-gizon; xarmak eta enkantamenduak egiten ditu, bere mesedetan eta etsaien kaltetan. Baina aurrerapauso handia egiten da magia-gizon-mota berezi bat ezartzen denean; bestela esan, hainbat gizon bereizten direnean, beren trebetasunez komunitate osoari onurak ekartzeko xede zehatzaz. Trebetasun hori gaixotasunak sendatzea, etorkizuna iragartzea, eguraldia arautzea edota guztientzat on den beste edozer izan daiteke. Jardule profesional hauek beren xedeak lortzeko erabilitako bitartekoen ezinak ez liguke ezkutatu behar instituzioak berez duen garrantzia. Hemen bizibidea eskulan gogorraren bidez atera beharrik ez duen gizatalde bat dugu; ez dute bizimodua eskulan gogorretik atera beharrik, basatasunaren etaparik garaienetan behinik behin; eta utzi egiten zaie naturaren bide sekretuak ikertzen; utzi ezezik, bultzatu eta animatu ere egiten dituzte horretara. Haien egitekoa, baita haien interesa ere, herikideek baino gehiago jakitea zen, gizakiari naturarekiko borroka latzean lagungarri izango zitzaion ororen berri izatea, nekeak arindu eta bizia luzatuko zion ororen berri izatea. Drogen eta mineralen propietateak, euriaren eta lehortearen kausak, trumoiarenak eta tximistarenak, urtaroen segida, ilargiaren faseak, eguzkiaren eguneroko eta urteroko ibilia, izarren mugimenduak, bizitzaren eta heriotzaren misterioa, horiek guztiek kitzikatuko zuten filosofo txiki haien jakinmina. Eta, ezbairik gabe, erarik praktikoenean bilatuko zuten bezeroen eskaera nekosoek aurrean jarritako arazoen soluzioa. Bezeroek espero baitzuten haiek, ulertu ezezik, arautu ere egingo zituztela naturaren prozesu handiak, gizakiaren mesedetan. Lehen kolpeetan huts egin izanak apenas harritzen ahal gaituen. Egiaira hurbiltzeko bide nekoso eta amaiezina, hipotesiak etengabe eratuz eta probatuz egiten da, egintzekin bat datozeala diruditen hipotesiak onartuz eta besteak baztertuz. Magia-gizon basatiak onartutako arrazoi naturalak erabat faltsu eta burugabe ageri zaizkigu guri ezbairik gabe, baina garai hartan hipotesi zilegizkoak ziren, esperientziaren proba gainditu ez badute ere. "Barregarri" eta "gaitzesgarri" hitzak dira egokienak, baina ez teoria gordin haiek asmatu zituztenentzat, baizik eta hobeak proposatu ondoren, halaz guztiz ere haiei setati atxiki zitzaizkienentzat. Zinez, inork ez du izan magia-gizon basati haiek baino bultzagarri indartsuagorik egia bilatzeko. Besterik ezean, jakitun-itxurak egitea guztiz beharrezko zitzaien; hutsegiterik txikienean harrapatuak izateak bizia jarriko zien jokoan. Horrek iruzurra egitera bideratuko zituen, noski, beren ezjakina estaltzeko; baina ziorik indartsuena ere ematen zien sasi-jakintza hura benetako jakintzaz ordezkatzeko; izan ere, zerbait dakizulako plantak egiteko erarik hoberena, inondik ere, zerbait hori jakitea baita. Beraz, nahiz eta eskubide osoa dugun magia-gizonen asmo burugabeak arbuiatzeko eta gizateriari egin izan dizkioten iruzurrak kondenatzeko, gizon-mota hau agertzeak, oro har, onura ikaragarriak ekarri dizkio gizateriari. Gure fisikari eta kirurgilarien benetako aitzindari ezezik, natur zientzien adar guztietako ikertzaileen eta asmatzaileen aitzindari ere izan ziren. Hasiera eman zioten orduz geroztik ondorengoek hain maila bikain eta ongarrietaraino eramanez duten lanari; eta hasiera pobrea eta ahula izan bazen, jakinbideari berez dagozkion nahitaezko zailtasunei egotzi behar zaie hori, ez gizonen berezko gaitasun ezari edo iruzur apropos eginari.

2. Euria magiaz menperatzea

Magia-gizon publikoak tribuaren onerako bere gain hartzen dituen egitekoen artean, eguraldia kontrolatzea da nagusietako bat, eta bereziki nahikoa euri lortzea. Ura

ezinbestekoa da bizitzarako, eta lurralderik gehienetan haren hornidura zaparraden gora-beheran dago. Euririk gabe, landareak zimeldu egiten dira, abereak eta gizakiak akitu eta hil egiten dira. Hau dela eta, komunitate basatietan eurigilea oso pertsonaia garrantzitsua da; eta sarritan magia-gizon-mota berezi bat izaten da, zerutiko euria erregulatzeko eginkizuna duena. Beren lanbidearen eginkizunak betetzeko erabiltzen dituzten metodoak, gehienetan, beti ez bada ere, homeopatiatzko edo antzezko magiaren printzipioan oinarritu ohi dira. Euria eragin nahi badute, ur-zipriztinez edo lainoen itxurak eginez antzezten dute; atertzea eta lehortea ekartzea badute xede, ura itzuri eta berotasuna eta sua baliatzen dituzte heze dena lehortzeko. Halako saioak ez dira mugatzen, irakurle jakitunak hala pentsa balezake ere, Australiako erdialdeko eta Afrikako eki- eta hegoaldeko zenbait aldetako biztanle biluzietara, non sarritan eguzki errukigabeak hilabeteetan eta hilabeteetan jotzen baitu, ortzi urdin eta garbitik, lur elkor eta arraildua. Arrunt samarrak dira, edo izaten ziren ustez zibilizatutako herrietan ere, Europako klima hezean. Orain horren adibideak emango ditut, magia publikoaren eta pribatuaren jardunetik ateratakoak.

Esate baterako, Dorpat aldeko herri batean, Errusian alegia, euri-premia handia zenean, hiru gizon baso sakratu bateko izaletara igotzen ziren. Hiruretako batek lapiko edo barrikatxo bat jotzen zuen mailu batez trumoiak imitatzen; bigarrenak bi zuzi elkarren kontra kolpatzen zituen, txinpartak ateraraziz, tximistak imitatzen; eta hirugarrenak, "eurigilea" zeritzonak, ontzi bateko ura zipriztintzen zuen alde guztietara abar-pila batez, lehorteari buru eman eta euria ekartzeko. Ploska herriko andre eta neskak biluzik joaten ziren gauez herri-mugetaraino, eta han ura isurtzen zuten lurrera. Halmaheran, Ginea Berriaren mendebaldeko irla zabal batean, magia-gizon batek euria eragiten du zuhaitz-mota berezi bateko abar bat uretan sartuz eta ondoren abarraren jarioaz hezetasuna lurrean zabalduz. Britainia Berrian eurigileak banana-hosto batean biltzen aihenbelar baten hosto berde eta gorriak ditu, sorta urez busti eta lur azpian sartzen du; gero euri-tantak imitatzen ditu ahoaz. Iparramerikako omaha indiarren artean, artoa euri faltagatik zimeltzen ari denean, bufaloaren elkarte sekretuko kideek urez betetzen dute ontzi zabal bat, eta lau aldiz egiten dute dantza haren inguruan. Dantzarietako batek ur-pixka bat ahoan hartu eta lanbroaren antzeko zirrizta fina jaurtitzen du. Gero ontzia irauli eta lurrera isurtzen du ura, eta berehala dantzariak ahozpeztan etzan eta ura edaten dute, aurpegiak lokaztuz. Azkenik, ura airera jaurtitzen dute zirrizta finetan. Horrek artoa salbatzen omen du. Iparramerikako natxez indiarrek udaberrian bildu ohi ziren, aztiak eguraldi ona ekar zezaten uztarentzat. Euria behar bazen, aztiak barau eta dantza egiten zuten ahoan urez betetako pipak zituztela. Pipak garastailuaren eran zeuden zulatuta, eta eurigileak laino ilunenak ageri ziren aldera jaurtitzen zuen ura zuloetatik. Baina eguraldi ona behar bazen, bere etxolaren sabai gainera igo eta, besoak zabalik, putz egiten zuen bere ahal guztiaz, lainoek aldegin zezaten. Euria behar den sasoian, angoniek euriaren tenplua deritzan lekura jotzen dute. Han belarra garbitzen dute, eta buruzagiak garagardoa isuri lapiko batera eta lurperatu egiten du, hauxe esanez: "Txauta jauna, bihotza gogortuta duzu gureganako, zer nahi duzu guk egitea? Hementxe hil behar dugu denok. Emaiezu euria zure umeei, hor duzu eman dizugun garagardoa". Gero, geratu den garagardotik edaten dute denek; haurrek ere xurrit egiten dute. Ondoren, zuhaitzetatik abarrak hartu eta dantzatu eta kantatu egiten dute euria egin dezan. Herrira itzultzen direnean, emakume zahar batek sarreran utzitako urontzi bat aurkitzen dute; abarrak bertan sartu eta goraka astintzen dituzte, tantak barreiatzeko. Honen ondotik, gauza segurua da euria laino puztuetan etorriko dela. Jarduera hauetan erlijioaren eta magiaren konbinazioa ikusten dugu: abarren bidez ur-tantak barreiatzea magiazko zeremonia peto-petoa bada ere, euri-eske egindako otoitza eta garagardoaren eskaintza errito erlijioso hutsak dira. Australiako iparraldeko Mara tribuan eurigileak

putzu batera joan eta bertan kantatzen du bere kanta magikoa. Gero ur pixka bat eskuetan hartu, edan eta tu egiten du zenbait aldetara. Ondoren, bere gainera jaurtitzen du ura, barreiatu egiten du, eta kanpamentura itzultzen da. Horren ondotik, ziur-ziur jo daiteke euria etorriko dela. Makrizi historialari arabiarrek euria geldiarazteko metodo bat deskribatzen du; Alqamar deritzan nomaden tribu batek baliatzen omen zuen Hadramaut-en. Abar bat mozten zioten basamortuko zuhaitz jakin bati, sutan jarri eta abar errea urez zipriztintzen zuten. Ondoren, euriaren indarra amaitu egiten zen, ura abar irazekian erortzean desagertzen zen bezala. Manipurgo ekialdeko angamistar batzuek antzeko zeremonia burutzen omen dute kontrako xedez, euria erakartzeko alegia. Herriko buruzagiak suak hartutako abarra jartzen du erreta hil den gizon baten hilobi gainean, eta urez itzaltzen du, euria eror dadin otoitz egiten duelarik. Kasu honetan, sua urez itzaltzea, euriaren imitazio dena, hildakoaren eraginak indartzen du: erreta hil delarik, euriaren irrikan egongo baita bere gorpu txigortua hoztu eta oinazeak ema diezazkion.

Arabiarrez gainera, beste herri batzuek ere sua erabili izan dute euria geldiarazteko. Britainia Berriko sulkatarrek, adibidez, goritu arte berotzen dituzte harriak sutan, eta gero euritan uzten dituzte, edo airera jaurtitzen dituzte errauts beroak. Haien ustea da hala eginda laster atertuko duela, euriak ez duelako gogoko harriek edo errautsek erre dezaten. Telugustarrek neskato bat jartzen dute biluzik euritan, eskuan euriari erakutsi behar dion egur-zati bat duela, horrek euri-jasa geldiaraziko duelakoan. Hegoaldeko Gales Berriko Port Stevensen, osaginek suzko geziak airera jaurtiz urruntzen zuten euria, aldi berean putz eta oihu egiten zutelarik. Australiako iparraldeko Anula tribuko gizon guztiek geldiaraz dezakete euria: sutan makila berde bat berotu besterik ez dute egin behar, eta ondoren haizearen kontra jaso.

Lehorte handietan, Australiako erdialdeko dieriek, lurraren pobrezia eta beren gosea ozenki deitoratuz, antzinako arbasoen izpirituei -mura-murei- egiten diete dei, euri-jasa handia eragiteko indarra eman diezaieten. Izan ere, sinesten baitute hodeiak gorputzak direla, eta beren zeremoniek edo auzo-tribuenek mura-muren eraginaren bitartez isurarazten dietela euria. Hodeietatik euria ateratzeko modua honako hau da. Zulo bat egiten dute lurrian, hamabi oin luze eta zortzi edo hamar zabal dena, eta zulo horren gainean enborrez eta abarrezko etxola konikoa egiten dute. Mura-murengandik hats berezia jaso bide duten bi magia-gizoni, odola ateratzen die itzal handiko agure batek sukarki zorrotz batez; eta ukalondoaren azpialdetik ateratako odola tribuko beste gizonen gainera isurarazten da, denak batera etxola barruan pilatuta daudelarik. Aldi berean, odoletan dauden bi gizonak lumatxak jaurtitzen dituzte eskutadaka, eta batzuk gorputz odolduei itsasten zaizkie eta gainerakoak airean hegaztatzen dira. Odolak euriarena egiten omen du, eta lumatxek hodeiena. Zeremonia bitartean bi harri zabal ipintzen dituzte dendaren erdian, hodeiak bildu eta euria erakartzeko. Gero bi magiagileek hamabost edo hogeik kilometrora eramaten dituzte bi harriak, eta ahalbait goren ipintzen dituzte zuhaitzik garaienean. Bitartean, beste gizonak igeltsua biltzen dute, fin-fin hautsi eta putzu batera jaurtitzen dute. Hau ikusita, mura-murek berehala hodeiak sorrarazten omen dituzte ortzian. Azkenik, gizonak, zahar eta gazte, etxola inguratu eta, burua makurtuz, talka egiten diote, ahari-pila bat bailiran. Gisa horretan zuloa egiten dute, eta beste aldera pasatu eta berriro ekiten diote; horrela etxola desegin arte. Jardun horretan, debekatua dute eskuak edo besoak erabiltzea, enbor astunak besterik geratzen ez direnean salbu; orduan bai, eskuez bultza ditzakete. "Denda buruez zulatzeak hodeiak zulatzea irudikatzen du; etxola erortzeak, euria erortzea". Bistan denez, hodeien ordezkotik bi harriak zuhaitz garaietan ipintzea ere benetako hodeiak ortzian gorarazteko modu bat da. Dieriek imajinatzen dute, halaber, mutilei erdaintzuntzan kendutako zakil-azalak ere euria eragiteko ahalmen handia duela.

Horregatik, tribuko Kontseilu Nagusiak beti gordetzen du zakil-azal pila bat erabiltzeko prest. Kontu handiz gordetzen dituzte, lumetan bilduta zakur amorratuaren eta suge-mota baten ("alfonbra" sugearen) bilgorrez. Emakumeek ez daukate inola ere halako bildumarik zabalik ikusterik. Zeremonia amaitu denean, zakil-azala erre egiten da, bere bertutea xahutu denez. Euria erori eta gero, tribuko norbaitzuei beti egiten diete ebakuntza bat, bularreko eta besoetako azala ebakitzen diete sukarki zorrotz batez. Makila xapal batez xapla-xapla jotzen da zauria, odol-jarioa handiagotzeko, eta buztingorria igurtzitzen zaio. Hartara, orbain handituak eragiten dira. Bertakoek hori horrela egiteko emandako arrazoia zera da, pozik daudela euriarekin, eta euriak eta orbainek zerikusia dutela. Dirudienez, ebakuntza hori ez da hain mingarria, pazientea, bitartean, barre eta trufa aritzen baita. Haur txikiak ere ikusi izan dira zirujauaren inguruan pilan, beren txandaren zain; ebakuntza egin zietenean, lasterka aldegin zuten, beren bulartxoak zabalduz, kantuan, euria gainera eror zekien. Baina biharamunean ez ziren hain pozik, zauriak atezu eta minbera zituztela. Javan, euria nahi dutenean, bi gizonek elkar makilatzen dute zenbait aldiz zarba zaluz, bizkarra odola dariola jartzeraino; odol-jarioa euriaren irudi da, eta ez da inolako zalantzarik hau lurrera eroraraziko duela. Egghiou-ko jendeak -Abisiniako barruti bat da hau- gatazka odoltsuak izaten zituen, batzuek besteen kontra, herrixka bat beste herrixka baten kontra, astebetez urtarileroko, euria lortzeko xedez. Orain dela urte batzuk, Menelik enperadoreak debekatu egin zuen ohitura hori. Hala ere, hurrengo urtean ur-eskasia izan zuten eta, jendearen protesta handia izan zenez, enperadoreak amore eman behar izan zuen, eta borroka hilgarri berriz ekiten utzi zien, urtean bi egunez baino ez bazen ere. Ohitura hau aipatzen duen idazleak, euri-jasak kontrolatzen dituzten izpirituak ezititzeko eskainitako opagaitzat jotzen du halakoetan isuritako odola; baina beharbada, Australia eta Javako zeremonietan bezala, euriaren imitazioa dateke. Baalen igarleek ere, euria erakarri nahita labanaz odoltzen zirenek, printzipio berberaren arabera jarduten bide zuten.

Bada uste oso hedatu bat: bikiak ahalmen magikoak dituztela naturaren gainean, batez ere euriaren eta eguraldiaren gainean. Superstizio bitxi honek oraindik ere bizirik dirau Britainiar Columbiako zenbait tribu indiarren artean. Hori dela eta, sarritan debeku edo tabu berezi batzuk ezarri izan zaizkie bikien gurasoei, nahiz eta debeku horien esanahi zehatza gehienetan iluna den. Britainiar Columbiako tsimshian indiarren ustez, bikiak eguraldia kontrolatzen omen dute; horregatik, otoitz hau egiten diete haizeari eta euriari: "Bare zaitez, bikien arnasa". Gainera, bikien nahiak beti betetzen direla uste dutenez, haien beldur izaten dira, gorrotatzen dutenari kalte egin diezaioketela eta. Bikiak izokina eta "olatxen" edo "kandela-arraina" erakar ditzakete halaber, eta horregatik "ugaritu" esan nahi duen izen batez deitzen diete. Britainiar Columbiako kwakiutl indiarren iritziz, bikiak itxura aldatutako izokinak dira; horregatik, ezin dira uretara hurbildu, bestela berriz ere arrain bihurtuko liratekeelako. Haurtzaroan edozein haizeri dei diezaioketete eskuak mugituz, eta eguraldi ona edo txarra erakar dezakete, baita gaixotasunak sendatu ere, zurezko txintzarri handi bat astinduz. Britainiar Columbiako nootka indiarrek ere sinesten dute bikiak nolabaiteko zerikusia dutela izokinarekin. Horregatik, haien artean bikiak ez daukate izokinetara joaterik, ezta arrain freskoa jan edota eskutan erabiltzerik ere. Eguraldi ona edo txarra ekar dezakete, eta euria eragin aurpegiak beltzez margotu eta gero garbituz, hori euria hodei ilunetatik erortzearen irudia baita. Shuswap indiarrek, thompson indiarrek bezala, zerikusia ikusten diete hartz nabarrarekin, eta "hartz nabar gazteak" deitzen diete. Haiek diotenez, bikiak bizitza osoan zehar gordetzen dituzte berez gaindiko ahalmenak. Bereziki, eguraldi ona edo txarra erakar dezakete. Saski batetik ura jaurtiz erakartzen dute euria; eguraldi ona, soka

batez makila bati lotutako zur-puska txiki zapal bat astinduz; ekaitzak, izeien abar-muturretatik behera tiratuz.

Eguraldian eragina izateko ahalmen berbera egozten diete bikiei barongatarrek ere, Afrikako hegoekialdeko Delagoa Bayko hondartzetan bizi den beltz bantuen tribu batek. Tilo -ortzi, alegia- deitzen diote bikiei bizia eman dien emakumeari, eta haurrei berei ortziaren ume deitzen diete. Irail-urrietan lehertu ohi diren ekaitzen zain alferrik egon ondoren, lehortearen eta honek berekin ekarri ohi duen gosetearen beldur direnean, eta natura osoa, sei hilabetez zero oskarbitik jo duen eguzkiak arrailduta eta erreta, Afrikako hegoaldeko udaberriko zaparrada onuragarrien egarri denean, emakumeek zeremoniak burutzen dituzte berandututako euria lur zaildura erakartzeko. Beren jantzi guztiak erantzi eta belarrezko gerrikoa eta txanoa jantzen dituzte, edo mantal motz batzuk, aihenbelar-mota berezi baten hostoez eginak. Gisa horretan jantzita, oihu bereziak jaurtiz eta kanta lizunak kantatuz, putzuz putzu joaten dira, eta bertan pilatu diren lokatz eta zikinez garbitzen dituzte. Putzuok, esan beharra dago, hareatan egindako zuloak besterik ez dira, urlo zikin pixka bat besterik ez. Gainera, emakumeek bikiez erditu den andrearen etxera joan behar dute, eta pitxar txikietan daramaten urez busti behar dute andrea. Hala egin ondoren, aurrera segitzen dute, beren kanta gordinak oihukatuz eta dantza likitsak dantzatuz. Gizonek ez daukate hostoz jantzitako emakume horiek beren ibilietan ikusterik. Gizonezkoren bat aurkitzen badute, makilatu eta ihesean jartzen dute. Putzuak garbitu dituztenean, arbasoen hilobien gainera ura isurtzera joan behar izaten dute, oihan sakratura. Bestalde, magiagileari men eginez, sarritan joaten dira bikien hilobien gainera ura isurtzera. Sinesten baitute bikien hilobiak beti heze egon behar duela, eta horregatik bikiei aintzira baten ondoan eman ohi zaie lur. Euria erakartzeko ahalegin guztiak alferriko gertatzen badira, gogoratuko dute halako eta halako biki leku lehorren batean lurperatu zituztela, muinoren baten ondoan. "Ez da harritzekoa zerua haserre egotea" esango du magiagileak orduan, "hartu haren gorpua eta egiozue hilobia aintzirako hondartzan". Haren aginduak berehala betetzen dira, euria erakartzeko bide bakarra horixe delakoan.

Aurrez esandako egintza batzuek erabat frogatzen dute Oldenberg irakasleak emandako interpretazio bat, Samaveda deritzan Indiako bilduma zaharraren himno jakin bat ikasi nahi lukeen brahman batek jarraitu beharreko arauak. Ustea zen himno hark, Sakvari kanta izenekoak, Indraren arimaren ahala gordetzen zuela, tximistarena alegia. Beraz, haren ahalmen beldurgarri eta arriskutsua kontuan izanik, hura menperatzen saiatzen zen ikasle bulartsuak bere lagunetarik urrundu behar zuen, herritik basora aldegin. Han, denboraldi batez (legearen doktore honen edo haren arabera, urtebete eta hamabi urteren artekoa zen denboraldi hori), bizitza-arau jakin batzuk gorde behar zituen. Besteak beste, honako hauek: egunero hirutan ukitu behar zuen ura; arropa beltzak jantzi eta janari beltza jan behar zuen; euria egiten zuenean, ez zuen estalperik bilatu behar, baizik eta euritan eseri eta esan: "Ura da Sakvari kanta"; oinazturak argitzen zuenean, hauxe esango zuen: "Hau Sakvari kanta bezalakoa da"; trumoi jotzean, berriz: "Handia dena zarata handia egiten ari da". Inoiz ez zuen gurutzatu behar ur-korronterik ura ukitu gabe; inoiz ez zuen oinik jarri behar itsasontziaren gainean, bizia arriskuan bazuen salbu, eta orduan ere ura ukitu beharra zuen ontziratzean; izan ere, esaerak dioenez, "uretan datza Sakvari kantaren bertutea". Azkenean kanta bera ikasten uzten ziotenean, era guztietako landareak zeuzkan ontzi urez bete batera sartu behar zituen eskuak. Gizon batek agindu horiek guztiak betetzen bazituen, Parjanya euriaren jainkoak gizon horrek nahi bezala bidaliko omen zuen euria. Oldenberg irakasleak ondo seinalatu duenez, "arau horiek guztiak brahmanak urarekin bat egin dezan dira; nolabait esan, hura euriaren ahalmenen aliatu egiteko, haien etsaigotik gordetzeko. Jantzi eta janari beltzek esanahi berbera dute; ezin zalantzan jarri euri-hodeiak irudiztatzen

dituztela, gogoratzen badugu euria ekartzeko biktima beltza sakrifikatzen dela; “beltza da, halakoxea baita euria”. Euriarentzako beste xarma batean argi eta garbi esaten da: “Azpildura beltzeko jantzi beltza janzten du, halakoxea baita euria”. Beraz, esan dezakegu hemen, eskola vedatarren ideien eta arauen barrutian, antzinate zaharreneko magia-jardunak gorde direla, eurgileak bere lanbiderako prestatu eta hartara eman dadin”.

Aipagarria da ezen, alderantzizkoa lortu nahi denean, lehen gizonen logikak kontrako jokabide-arauak gordetzeko agintzen diola eguraldiaren sorginari. Javako irla tropikalean, non landaretza oparoak euriaren ugaria frogatzen duen, apenas den euria eragiteko zeremoniarik, baina euririk ez egiteko zeremoniak ez dira hain bakanak. Esate baterako, gizon batek festa ospatu behar du euriteen sasoian, eta jende asko gonbidatu du; hala bada, gizon hori eguraldiaren sorgin batengana joango da eta "mehatxu egiten duten hodeiak geldiaraz ditzala" eskatuko dio. Sorgina, bere aholku profesionala emateko prest badago, bere jokabidea arautzen hasiko da bezeroak aldegin bezain laster. Barau egingo du, eta ez du edango, ez bainurik hartuko; jaten duen apurrak lehor egon behar du, eta inola ere ezin du urik ukitu. Bestetik, anfitrionak eta haren zerbitzariak, hala gizonetakoek nola emakumeetakoek, ezin garbituko dituzte arropak festak irauten duen bitartean, eta hark irauten duen denbora osoan erabateko kastitatea gorde behar dute. Sorgina zerria berrian eseriko da bere logelan eta, olio-kandela baten aurrean jarrita, festa baino zerbait lehentxeago, segidako otoitz edo sorgin-hitza murmuratuko du: "Aitona eta amona Sroekoel" (kasu batzuetan badirudi izen hau itsumustuan hartu dela; besterik ere erabiltzen da beste batzuetan) "itzul zaitezte zeuen herrialdera. Akkemat da zuen herrialdea. Utz ezazue zuen ur-barrika, itxi ezazue ondo, ez bedi ur-tanta bakar bat ere eror". Otoitz hori jaulkitzen duen bitartean, sorgileak gorantz begiratuko du, intzentsua errez. Toradjek artean ere euriaren doktoreak, zeinen egiteko berezia euria urruntzea baita, kontu handia izaten du bere eginkizun profesionalak burutu baino lehen, egin bitartean edo ondoren urik ez ukitzeko. Ez da bainatzen, eskuak garbitu gabe jaten du, palmondo-ardoa besterik ez du edaten, eta erreka baten zeharkatu behar badu, kontu izango du uretan oinik ez jartzeko. Bere burua eginkizunerako horrela prestatu ondoren, berarentzat egin duten txabolatxoak izaten du herritik kanpo arroz-sail batean, eta txabola horretan sutxo bat mantenduko du piztuta, inola ere itzaltzen utzi gabe. Su hartan euria urruntzeko gai omen diren egur-mota zenbait erretzen ditu; eta euri-itxura duen alderantz egiten du putz; eskuan hosto eta azal-eskutada bat edukitzen du, euria behartzeko bertutea dutenak hauek ere, baina ez beren konposara kimikoagatik, izenengatik baizik: zerbait lehor edo lurrinkor esan nahi baitute. Lanean ari denean ortzian hodeiak agertuko balira, hartu karea esku-ahurrean eta haiek agertutako alderantz egingo du putz. Karea, hain lehorra izaki, oso egokia da hodei euritsuak urruntzeko. Gero euria egin dezan nahi badu, ura sutara botatzea besterik ez dauka, eta berehala euri-jasa etorriko omen da.

Irakurlea ohartuko denez, Javakoen eta toradjek erritoak, euria galaraztekoak alegia, euria ekartzeko errito indiarren kontra-kontrakoak dira. Indiar jakintsuak ura egunero hiru aldiz ukitzeko agindua du, baita beste zenbait aldi berezitan ere; Javakoen eta toradjek sorgileak ezin dute inola ere ukitu. Indiarra basoan bizi da, eta euria ari duenean ezin babes daiteke; javatarra eta toradja etxean edo txabolan esertzen dira. Batak urarekiko sinpatia adierazten du ura bere gainean hartuz eta hartaz errespetuz hitz eginez; besteek lanpara edo sua pizten dute eta ura urruntzeko ahal guztiak egiten dituzte. Baina hirurek dihardute printzipio berberaren gainean; ume-jolasetan bezala, hirurek identifikatzen dituzte beren buruak eragin nahi duten fenomenoarekin. Efektuak kausaren antza duelako falazia zaharra da hori: eguraldi hezea eragin nahi baduzu, heze egon behar duzu; eguraldi lehorra nahi baduzu, lehor egon behar duzu.

Gaur egun, Europako hegoekialdean ere ikusten dira euria egiteko zeremoniak. Oro har, aurrekoen pentsabide berdinekoak izateaz gainera, xehetasunetan ere badute antza Delagoa Bayko barongatarrek asmo berberaz egindako zeremoniekin. Tesalia eta Mazedoniako grekoen artean, lehorteak oso luze jo duenean, haurrak prozesioan inguruetako putzu eta iturburuetara bidaltzeko ohitura dago. Prozesioaren buruan neska bat joaten da lorez apainduta; lagunek urez bustitzen dute geldialdi bakoitzean, dei bat kantatu bitartean. Hona kantaren zati bat

"Perperia, ihintzak blaitua,
freska ezazu auzune osoa;
basoetatik, bidetik,
zoazelarik, egiozu otoitz Jainkoari:
Ene Jainko, lautadaren gainean,
bidal iezaguzu euri-pixka bat;
landa-soroak igaliz bete daitezen,
eta mahastiak loretan ikus ditzagun;
alea gizona eta ona izan dadin,
eta jende guztia aberats dadin".

Lehorteetan serbiarrek neska bat biluzten dute eta belarrez, landarez eta lorez janzten dute burutik oinetaraino, aurpegia bera ere berde biziz estaliz. Hala moztortuta, Dodola deitzen diote, eta herrian zehar ibiltzen da neska-saldo batekin. Etxe bakoitzaren aurrean gelditzen dira. Dodolak jira eta bira jarduten du dantzan, beste neskek Dodola-kanta bat kantatuz korroa egiten diotelarik, eta etxekoandreak balde bat ur botatzen dio gainera.

Kantetako batek honela dio:

Herrian gabiltza gu;
Zeruan dabilta hodeiak;
Zenbat eta bizkorrago gu,
Hainbat bizkorrago hodeiak;
Aurrea hartu digute,
Eta artoa eta mahastiak busti dituzte".

Indiako Poonan, euria behar denean, mutikoek beren arteko bat janzten dute hosto hutsez, eta Euriaren Errege deitzen diote. Ondoren, etxerik etxe ibiltzen dira herrian zehar, eta etxeko jaunak edo honen emazteak urez ziprztintzen du Euriaren Erregea, eta hainbat motatako jakiak eskaintzen dizkiete. Etxe guztiak bisitatu dituztenean, bere hosto-jantziez biluzten dute Euriaren Erregea eta bildutako guztiarekin afaria egiten dute.

Bainua hartzea euri-xarmatzat daukate Errusiako hego eta mendebaldean. Batzuetan, elizkizunaren ondoren, eliztarrek lurrera botatzen dute apaiza bere arropa eta guzti, eta urez bustitzen dute. Beste batzuetan emakumeak, denak batera bainatzen dira San Joan Bataiatzailearen egunean, arropak erantzi gabe; uretan sartzen dute abarrez, belarrez eta landarez egindako irudi bat, ustez santuarena dena. Kursken, Errusiako hegoaldeko probintzia batean, euri-premia handia denean, emakumeek hartu handik pasatzen den kanpotarren bat eta ibaira botatzen dute, edota burutik oinetaraino blaitzen dute. Aurrerago ikusiko dugunez, sarritan jainkotzat hartu ohi da pasatzen den kanpotarra, edo naturako botere nortutzat. Agiri ofizialetan jaso dago: 1790ean, lehorte batean, Scheroutz eta Werboutzeko nekazariak emakume guztiak bildu eta bainatzera behartu omen zituzten, euria erakartzeko. Armeniar euri-xarma bat apaizaren emaztea uretara botatzea da, ondo busti dadin. Afrikako iparraldeko arabiarrek gizon santu bat botatzen dute iturri batera, nahi badu eta nahi ez badu, lehortearen erremedio gisa. Minahassan, Celebesko iparraldeko probintzia batean, apaiza bainatu egiten da euri-xarma modura. Celebesko erdialdean, denboraldi luzean euririk egin ezta arroz-zurtoinak zimeltzen

hasten direnean, herritar askok, batez ere gazteria, joan inguruetako erreka batera eta elkarri ur-jaurtika hasten dira, hots handiak ateraz, edo urez zipriztintzen dute elkar banbuzko tutuen bitartez. Batzuetan, euriaren txapa-txapa imitatzen dute eskuez uraren gainazala joz, edo kalabaza bat behera begira ipiniz eta atzamarrez tarrapata joz.

Beste uste baten arabera, emakumeek goldatuz edo goldatzen dutelakoa eginez euria erakar dezakete. Kaukasoko pshaw eta txewsurrek "euria goldatzea" deritzan zeremonia dute lehorraldietarako. Neskak uztarpetu eta, golde bati lotuta, ibairaino eramaten dute goldea herrestan, eta gerriraino sartzten dira uretan. Abagune berdinetan, armeniar neska eta andreek ere gauza bera egiten dute. Andrerik zaharrenak edo apaizaren emazteak apaizaren arropak janzten ditu, eta besteek, gizon-jantzian, goldea urari goiti eramaten dute herrestan. Kaukasoko Georgian, lehortek luze jo duenean, neska ezkongaiak binaka uztartzen dituzte, apaiz batek uhalak hartzen ditu, eta halako tresnez ibai, putzu eta zingiretan zehar ibiltzen dira, otoitz eginez, garrasika, negarrez eta barrez. Transilvaniako eskualde batean, lurra lehortek arrailduta dagoenean, neska batzuk biluztu egiten dira eta, emakume zahar bat buru dutela, hau ere biluzik, are bat lapurtu eta soroetan zehar eramaten dute erreka batera, eta han ur gainean jartzen. Ondoren, arearen gainean esertzen dira eta izkina bakoitzean gartxo bat edukitzen dute piztuta ordubetez. Gero, area uretan utzi eta etxeratu egiten dira. Antzeko euri-xarma bat baliatzen dute Indiako zenbait aldetan: emakume biluziek goldea herrestatzen dute soroan zehar gauez, eta gizonak arreta jartzen dute haien bidean ez jartzeko, gizonak agertzeak sorginkeria hautsiko bailuke.

Batzuetan euri-xarmak hildakoen bitartez jarduten du. Kaledonia Berrian, adibidez, eurigileek goitik behera belzten zituzten beren buruak, gorpu bat lurpetik atera, hezurak haitzulo batera eramanez, bildu han, eta eskeletoa taro-hosto batzuen gainean zintzilikatzen zuten. Ura isurtzen zuten eskeletoaren gainera, hostoetara eror zedin. Uste zuten hildakoaren arimak ura jasotzen zuela, euri bihurtu eta atzera zaparrada batean bidaltzen zuela. Errusian, herri-kontakizunak sinestera, lehortek jotako eskualde guztietako nekazariak mozortuta hildakoren baten gorpua ateratzen zuten lurpetik aspaldi ez dela, eta putzu edo lakurik hurbilenera sartzten zuten, hala behar zuten euria etorriko zitzaizela erabat etsita. 1868an, lehortek luze jo eta uzta txarraren susmoa zutenez, Tarashtxansk-eko eskualdeko herrixka bateko biztanleek aurreko abenduan hildako raskolnik edo disidentearen gorpua atera zuten lurpetik. Taldeko batek gorpua, edo gorputik geratzen zena, buruan jo zuen, "emaiguzu euria!" esanez, eta besteek ura isuri zioten gainera bahe batetik zehar. Kasu honetan, ura bahetik zehar isurtzeak, zaparradaren antza izango luke. Honek Strepsiades gogorazten digu, Aristofanesen pertsonaia bat: halaxe imajinatzen zuen hark Zeus euria egiten. Batzuetan, euria erakartzeko, toradjek hildakoen errukiari egiten diote dei. Kalingooa izeneko herrixka batean, esaterako, bada buruzagi ospetsu baten hilobia, oraingo gidariaren aitona. Lurralde hartan sasoiari ez dagokion lehortek jotzen duenean, jendea hilobi hartara joaten da, ura isurtzen du gainera, eta honela esaten du, "Ene aitona, erruki zakizkigu; zure nahia guk aurten jan ahal izatea bada, emaiguzu euria". Honen ondoren, urez betetako banbu-kanabera bat zintzilikatzen dute hilobiaren gainean; kanaberak txulotxo bat izaten du muturrean, bertatik ura etengabe isur dadin. Banbu-kanabera behin eta berriz betetzen da urez, harik eta euriak lurra blaitu arte. Kasu honetan ere, Kaledonia Berrian bezala, erlijioa magiarekin nahastua dugu: hildako buruzagiari egindako otoitza, erlijio hutsa, euriaren imitazio magikoaz luzarazten da. Ikusi dugu Delagoa Bayko barongatarrek ura botatzen dutela arbasoen hilobien gainera, batez ere bikien hilobien gainera, euri-xarma gisa. Orinoko aldeko tribu indiarren artean, ohikoa zen hildakoaren senideek hura ehortzi eta urtebetera hezurak lurpetik atera, erre, eta errautsak lau haizetara ematea, uste baitzuten errautsak euri bihurtzen zirela, eta hildakoak hilarien

ordainetan bidaltzen zuela euri hura. Txinatarrak sinestuta daude giza gorpuak ehortzi gabe geratzen direnean, arimek euriaren deserosotasuna sentitzen dutela, gizakume biziak sentituko luketen bezalaxe, baldin babesperik ez balute eguraldi txarraren kontra. Beraz, arima zorigaiztoko hauek, ahal duten guztia egiten dute euririk egin ez dezan, eta sarritan beren ahaleginek arrakasta handia izaten dute. Orduan lehortea etortzen da, Txinan beldur handiena dioten ezbeharra, zeren eta uzta txarrak, eskasia eta gosea baitakartza berekin. Beraz, txinatar agintariek ehortzi gabekoen hezur lehorrei lur emateko ohitura izan dute idorteetan, ezbeharrari fin emateko eta euriari deitzeko. Abereek ere eginkizun garrantzitsua izaten dute eguraldi-xarma hauetan. Australiako iparraldeko Anula tribukoek euriarekin lotzen dute "dolar txoria", eta "euri-txoria" deitzen diote. Totemtzat txori hori duen gizonak euria ekar dezake putzu jakin batera. Suge bat harrapatu behar du, ipini bizirik putzuan eta, denboraldi batez urpean eduki ondoren, atera, akabatu eta ur ondoan botata utzi. Ondoren, arku itxurako sorta egiten du landare-zurtoinez, ortzadarraren antzekoa, eta sugearen gainean ipintzen du. Segidan, sugearen eta ortzadar itxurakoaren gainean kantatu besterik ez du egiten; lehenago edo geroago, euria egingo du. Arieria honen azalpena ematean diotenez, aspaldi batean dolar txoriak suge bat omen zuen lagun leku hartan, bertan bizi zena eta, ortzadarra eta hodeiak agertu arte ortzirantz tu egingez, euria eragiten zuena. Javako alde askotan, euria erakartzeko modu arrunt bat da katu bat edo bi, arra eta emea, bainatzea; batzuetan abereak prozesioan eramaten dituzte, musika eta guzti. Batavian ere, noizean behin ikusten dira haurrak katu bat daramatelarik xede berberaz; putzura sartu ondoren askatzen dute.

Afrikako ekialdeko wanbudgeen artean, sorgileak euria egin nahi duenean, hartu ardi beltza eta txahal beltza egun eguzkitsuan, eta jendea bizi den etxolaren teilatu gainean edukitzen ditu. Gero, bi abereen urdailak ebaki eta alde guztietara zabaltzen dizkie erraiak. Ondoren, ura eta sendagaia botatzen ditu ontzi batera; xarmak arrakasta izan badu, urak irakin egiten du eta atzetik euria etorriko da. Aitzitik, sorgileak euria ez egitea nahi badu, etxola barruan gordetzen da eta han harri-kristala berotzen du kalabaza batean. Euria erakartze aldera, wagogoez hegazti beltzak, ardi beltzak eta abelgorri beltzak sakrifikatzen dituzte hildako arbasoen hilobietan, eta "eurigileak" arropa beltzak eramaten ditu aldean euri-sasoian. Matabele tribukoek artean sorginek enplegatutako euri-xarma idi beltzaren odol eta behazunez egiten zen. Sumatrako eskualde batean, euria erakartzeko, herriko emakume guztiak ibaira joaten dira ia biluzik, bertan sartu eta elkarri ura jaurtitzen diote. Katu beltz bat botatzen dute uretara eta igerian uzten dute pixka batean; gero ertzero ihes egiten uzten diote, ura botaz beti ere. Assango garoek, lehortea denean, ahuntz beltza eskaintzen dute oso mendi garai baten gailurrean. Kasu hauetan guztietan aberearen kolorea xarmaren parte da; beltza izanik, ortzia ilundu egingo du euri-hodeiz. Betxuanatarrek idiaren urdaila erretzen dute arratsean, haien esaera baita honako hau: "Ke beltzak hodeiak bildu eta euria erakarriko du". Timorkoek zerri beltza sakrifikatzen diote Lur jainkosari euritarako; Eguzki jainkoari, berriz, zuria edo gorria, eguraldi eguzkitsua izan dadin. Angonitarrek idi beltza sakrifikatzen dute euritarako eta zuria eguraldi ona egin dezan. Japoniako mendi garaietako eskualde batean, baldin denboraldi luzean euririk egin ez badu, herritarren talde bat prozesioan joaten da mendi-erreka baten ubidera, zakur beltza daraman apaiza buru dutela. Aukeratutako lekuan, lotu aberea haitz bati eta tiroka eta gezi-jaurtika hasten zaizkio. Odolak harkaitzak zipriztintzen dituenean, nekazariak bota beren armak eta ahotsak goratzen dizkiote erreko dragoi jainkoari, arren eskatuz bidal diezaiela berehala zaparrada bat kutsatutako leku hura garbitzeko. Ohiturak agintzen du opagaiaren koloreak beltza izan behar duela halakoetan, desiratutako euri-hodeien

enblema gisa. Baina eguraldi ona nahi bada, opagaiak zuria izan behar du, orbainik gabea.

Igel eta zapoek urarekin duten zerikusi estuak ospe handia bildu die izaki horiei euriaren zaindari gisa; eta horregatik, sarritan beren egitekoa izaten dute ortzitik zaparrada premiazkoak erakartzeko xarmetan. Orinokoko indiar batzuek diotenez, zapoa uren jainkoa edo jauna da, eta beldur diote horregatik izaki hori hiltzeari. Agi danean, igelak lapiko batean gorde eta jo egiten omen zituzten makilaz lehortea zenean. Diotenez, aimara indiarrek sarritan igelen eta uretako beste abere batzuen iruditxoak egiten dituzte eta muino gainetan ipintzen, euriaren erakarbide. Britainiar Columbiako thompson indiarrek, Europako zenbait jendek bezala, uste dute igela akabatzeak euria erakarriko duela. Indiako erdialdeko probintzietan, kasta apalenetako jendeak, euria erakartzeko, igel bat nim zuhaitzaren (Azadirachta Indica) hosto berdez eta abarrez estalitako makila batean lotu eta atez ate eramaten du, honako hau kantatuz:

"Bidali bizkor, ene igel, uraren bitxia!

Eta hel bitez soroetan garia eta artatxikia".

Kapu edo reddistarrak nekazari eta lurjabeen kasta handia dira Madrasen. Euriak huts egiten duenean, kasta horretako emakumeek igel bat harrapatu eta bizirik lotzen dute banbuz egindako haizemaile berri batera. Haizemaile horretan margosa landarearen hosto batzuk zabaltzen dituzte eta atez ate joaten dira kantuan: "Igel andreak bere bainua hartu behar du. Euriaren jainko hori, emaiguzu ur pixka bat gutxienez berarentzat". Emakume kaputarrek kanta hau kantatu bitartean, etxeoandreak ura isurtzen du igelaren gainera eta limosna ematen die, sinetsita ezen, hala eginez, laster euri-jasak erakarriko dituela.

Batzuetan, lehortea luze iraun duenean, jendeak utzi alde bat antzezko magiaren ohiko trikimailuak eta, arnasa otoitzetan xahutzeko haserreegi daudenez, mehatxu eta biraoen bidez, are bortxaz, nahi izaten dute ura zerutik erakarri, naturaz gaindiko izakiarengandik, honek, nolabait esan, sorburuan geldiarazi baititu. Japoniako herri batean, jainko zaindariak denbora luzez nekazarien euri-eskariei entzungor egin dienean, haren irudia jaurtitzen dute eta birao ozen eta luzez, usteldutako arroz-alor batean sartzen diote burua. "Hementxe egongo zara pixka batean" esaten diote, "eta ikusiko duzu nola sentitzen zaren egun batzuen buruan, gure alor arrailduak bezala eguzki galdatan kixkaltzen egon ondoren". Antzeko abaguneetan, Seneganbiako felupetarrek beren fetitxeak lurreratu eta landetan zehar eramaten dituzte herrestan, madarikazio artean, harik eta euria egiten duen arte.

Txinatarrak zaleak dira zeruetako erreinua eraso bidez hartzeko. Horregatik, euria nahi dutenean, paperezko edo zurezko herensuge eskerga bat egiten dute, eta prozesioan eramaten; baina euririk ez badator, sasidragoi hura madarikatu eta txiki-txiki egiten dute. Beste batzuetan, jainkoa mehatxatu eta jo egiten dute euririk ematen ez badie; batzuetan jainkotasun-mailatik eraisten dute jendaurrean. Aldiz, hainbeste itxarondako euria egiten badu, jainkoa goragoko mailara jasotzen dute dekretu inperial baten bitartez. 1888ko apirilean Kantongo mandarinek euri-jasa atergabea geraraz zezala erregutu zioten Lung-wong jainkoari; eta eskaerei entzungor egin zenez, atxilotu egin zuten bost egunez. Horrek oso ondorio osasungarria izan zuen. Atertu egin zuen eta jainkoari askatasuna itzuli zitzaion. Urte batzuk lehenago, agortean, jainko bera kateatu eta eguzkipean ipini zuten bere tenpluko patioan, berak ere euri-premia gorria senti zezan. Siamdarrek ere, euria behar dutenean, eguzki-galdatan jartzen dituzte beren idoloak; baina eguraldi lehorra nahi badute, tenpluei teilatua kendu eta euria idoloen gainera erortzen uzten dute. Agi danean, deserosotasun hark beren jarraitzaileen desirak betetzera bultzatuko ditu jainkoak.

Irakurleak irribarre egingo du, beharbada, Ekialde Urruneko meteorologia dela eta; baina Europa kristauan ere, geure garaian, euria eragiteko modu berdintsuak erabili izan dira. 1893ko apirilaren azken aldera, hondamendi handia izan zen Sizilian urik ezagatik. Agortea sei hilabetez luzatu zen. Eguzkia zeru urdin lainogabera ateratzen zen egunero. Conca d'Oroko lorategiak, Palermo inguruak berdetasun ederrez jantzten dituztenak, ihartuta zeuden. Janariak, eskas. Jendea, ezin larriago. Euria erakartzeko metodorik onenek ez zuten ondoriorik izan. Kale eta soroetan zehar ibili ziren prozesioan. Gizon, emakume eta haurrek gau osoak eman zituzten irudi santuen aurrean errosarioa erreztatzen. Elizetan gau eta egun erre ziren kandela bedeinkatuak. Erramu-egunez bedeinkatutako palmadarrak eseki ziren zuhaitzetatik. Solaparutan, oso ohitura zahar baten agindura, Erramu-egunez elizetan bildutako hautsa zabaldu zen soroetan. Urte arruntetan, eskabide santu hauek guztiek babestu egiten dituzte uztak; baina urte hartan, sinesgaitza bada ere, ez zuten inolako eraginik izan. Nikosian, biztanleek, buruak estali gabe eta oinutsik, gurutzeak garraiatu zituzten hiriko auzune guztietan zehar eta altzairuzko hariz zigortu zuten elkar. Dena alferrik. Paulako San Frantzisko handiak berak ere, urtero euriaren miraria egiten duenak eta udaberriror baratzetan zehar eramaten dutenak, ez zuen lagundu nahi edo ahal izan. Mezak, bezperak, kontzertuak, argi-egiteak, suziriak... ezerk ez zion eragin. Azkenean nekazariak pazientzia galtzen hasi ziren. Santurik gehienak erbesteratu egiten zituzten. Palermon baratza batera bota zuten San Jose, bere kabuz ikus zezan gauzak nola zeuden, eta zin egin zuten hantxe utziko zutela eguzkitan harik eta euria egin arte. Beste santu batzuk paretaren kontra jarri zituzten mutiko okerren gisan. Beste batzuk, beren arropa ederretatik biluztuta, elizetatik urrun eraman zituzten; mehatxatu, gordinki iraindu, zaldientzako asketan murgildu zituzten. Caltanisettan, San Migel goiangeruari urrezko hegoak kendu zizkioten sorbaldetatik, eta haien ordezt kartoizkoak ipini; purpurazko mantua kendu eta haren ordezt trapu zarpail bat jarri zioten. Licatan, Santangelo patroiar are okerragoa gertatu zitzaion, larru gorritan utzi baitzuten; biraokatu, ito edo urkatu egingo zutela mehatxatu zuten. "Euria ala bestela urkamendira!", garrasi egiten zion jende haserretuak, ukabilak aurpegi aurrean astintzen zizkiolarik.

Batzuetan jainkoen errukiari egiten zaio dei. Eguzkia artoa erretzen ari denean, zuluek "zeruetako txoria" bilatzen dute; akabatu eta putzu batera botatzen dute. Orduan zerua beratu egiten omen da txoriaren heriotzagatik; "negar egiten du harengatik, hileta-negar gisa euria bidaltzen duelarik". Zululandian, batzuetan, emakumeek leporaino lurperatzen dituzte haurrak, eta gero urrundu eta lantu hits luzeari ekiten diote, hura ikustean, zerua errukitu egingo delakoan. Gero, emakumeek atera egiten dituzte haurrak, laster euria etorriko dela guztiz etsita. "Goiko jaunari" deitzen omen diote euria bidaltzeko eskatuz. Etortzen bada, "Usondok euria egin du" esango dute. Agortetan, Tenerifeko guantxeek lur sakratura eramaten zituzten ardiak, eta han arkumeak bereizi egiten zituzten beren amengandik, haien marraka tristeez jainkoaren bihotza hunkituko zutelakoan. Kumaonen, euria geldiarazteko modu bat zakur baten ezkerreko belarrira olio beroa jaurtitzea da. Abereak intziri egiten du oinazez, intziriok Indrak entzuten ditu eta, animaliaaren sufrikarioagatik errukituta, jainkoak euria geldiarazten du. Batzuetan toradjak honela saiatzen dira euria erakartzen. Uretan jartzen dituzte landare jakin batzuen zurtoinak, hau esanez: "Zoazte euri eske, eta euririk egiten ez duen biartean ez zaituztet berriro aldatuko, eta horrela hil egingo zarete". Hala berean, uretako marraskiloak soka batez lotu eta soka zuhaitz batetik zintzilikatzen dute, eta hala esaten diete marraskiloei: "Zoazte euri eske, eta euririk egiten ez duen bitartean, ez zaituztet berriro uretan utziko". Orduan marraskiloak negarrez hasten omen dira, eta jainkoek, errukiturik, euria bidaltzen dute. Hala ere, aurreko zeremoniak

magikoak ez baina erlijiosoak dira, goragoko botereen errukiari dei egiteaz baliatzen baitira.

Harriek ere euria erakartzeko ahalmena dutela jotzen da sarritan, baldin eta uretan sartu edo urez zipriztindu, edo beste era egokiren batez tratatzen badira. Samoako herri batean harri bat arreta handiz gordetzen zuten jainko eurigilearen ordezkaria zelakoan; agorteetan, apaizak harria prozesioan eraman eta erreka batean sartzen zuen. Hegoaldeko Gales Berriko Ta-ta-hi tribukoaren artean, eurigileak koartozko kristal-zati bat puskatu eta tuka jaurtitzen du zerurantz; kristalaren gainerako guztia emu izeneko txoriaren lumetan biltzen du; kristala eta lumak urez busti eta kontu handiz ezkututzen ditu. Hegoaldeko Gales Berriko Keramin tribuan, aztia erreka baten ubidera erretiratzen da, harri zapal biribil baten gainera isurtzen du ura, eta ondoren estali eta gorde egiten du. Australiako iparmendebaldeko zenbait triburen artean, eurigilea euria eragiteko xedez aparte utzitako lur-zati batera joaten da. Han harri edo hondar-pila bat eraikitzen du, gainean harri magikoa ipintzen, eta pilaren inguruan biraka hasten da orduak eta orduak, bere araoak esan eta esan, harik eta, erabat unatuta, geratu beharra izan arte, bere lekua laguntzaileari uzten diolarik. Ura zipriztintzen dute harriaren gainean eta sute handiak pizten dira. Gizon arruntek ez daukate leku sakratu hartara hurbiltzerik haiek zeremonia mistikoan jardun bitartean. Britainia Berriko sulkatarrek euria izan nahi dutenean, harriak belzten dituzte fruitu jakin batzuen errautsaz eta kanpoan uzten dituzte, eguzkitan, beste landare eta lore-kapulu berezi batzuekin batera. Ondoren, abartxo-eskutada bat sartzen dute uretan eta harriak jartzen dizkiete gainean, araoa kantatu bitartean. Hau egin eta gero, euriak etorri behar du. Manipurren, hiriburuaren ekialdera dagoen muino garai-garai baten gainean, bada herriaren irudimenak aterkitzat daukan harri bat. Euria nahi dutenean, rajak behealdeko iturri batetik ura ekarri eta harri gaina zipriztintzen du. Japoniako Sagami badian bada ura gainera isurtzen diotenean euria ekartzen duen harri bat. Afrikako erdialdeko Wakondyo tribukoek, euria nahi dutenean, Wawamba tribukoengana jotzen dute, hots, mendi elurtu batzuen oinean bizi diren eta "euri-harri" baten jabe zorieneko diren tribu batekoengana. Ordainketa egokiaren truke, wawambatarrek harri preziatua garbitu, olio eman eta urez betetako lapiko batean jartzen dute. Hori egin ondoren, euriak ezin du huts egin. Arizona eta Mexiko Berriko mortu idorretan, apatxeek uste zuten euria eragiten zutela ura iturri jakin batetik ekarriz eta harkaitz baten gaineko puntu garai jakin batean botaz; hori egin ondoren, hodeiak laster bildu eta euria hasiko omen zuen.

Baina horrelako ohiturak ez dira mugatzen Afrika eta Asiako oihanetara edo Australia eta Mundu Berriko basamortu kixkalietara. Egin izan dira Europako eguraldi freskoan eta zero arreen azpian ere. Bada Barenton izeneko iturri bat, ospe erromantikoduna, "Brozeliandeko basoetan". Kondairak egia badio, bertan datza Merlin aztia lo, elorriaren itzalean. Hara jo ohi zuten nekazari bretoiek, euri premian zeudenean. Ur-pixka bat hartzen zuten pitxer batean eta iturri ondoko hartxabal baten gainera jaurtitzen zuten. Snowdonen bada Dilyn edo Laku Beltza izeneko zingira bakarti bat, "haitz garai eta arriskutsuz inguratutako haizpitarte ilun batean". Harri-ilara batek osatutako bide bat barrentzen da lakuan, eta norbaitek harri haien gainetik ibili eta "Aldare Gorria" deritzan azken harria bustitzen badu, "Gaua baino lehen datorke noski euria, are eguraldi beroena izanda ere". Halakoetan, baliteke harria jainkozkotzat-edo hartua izatea, Samoan bezala. Hala dirudi inoiz Barentongo iturrian ikusitako ohitura baten arabera: iturrian gurutze bat sartu izan da euria erakartzeko; hau harri gainera ura isurtzeko zeremonia paganoaren ordezkari zeremonia kristaua da nabarmen. Frantziako hainbat lekutan badakite, edo bazekiten ia oraintsu arte, santu baten irudia uretan sartzen, euria erakartzeko. Commagnyko priorego zaharraren ondoan, adibidez, San Gerbasioaren iturria dago, eta bertara joan ohi dira hangoak prozesioan euria edo

eguraldi ona lortzeko, uztaren premien arabera. Lehorte handiak direnean, iturbegiko hutsunean egon ohi den santuaren harrizko irudi zahar bat jaurtitzen dute putzura. Collobrières eta Carpentrasen antzekoa ikusi izan da St. Pons eta St. Gensen irudiekin. Nafarroako herri batzuetan eunitarako otoitzak eskaini ohi zitzaizkion San Pedrori eta, haiei indar handiagoa emateko, herritarrek ibaira eramaten zuten prozesioan santuaren irudia, eta han hiru bider gonbidatzen zuten erabakia berritzera eta beren eskariak betetzera. Ondoren, hura bere hartan setatzen bazen, uretan murgiltzen zuten, elizgizonen protesta eta guzti; hauek egia bezain errukitsu esaten zieten irudiarri egindako gaztigu edo oharpen hutsak ere berdin erakarriko zuela ondorio onik. Haren ondotik, ez bairik gabe, euria izango omen zuten hogeita lau orduren barruan. Herrialde katolikoak ez dira bakarrak irudi santuak uretan sartzearen bidez euria eragiten. Mingrelian, ereinak euri-eskasia direnean, santu-irudiren bat hartu eta uretan sartzen dute egunero, zaparrada etorri arte; eta Ekialde Urrunean shantarrek Budaren irudiak ureztatzen dituzte urez arroza ihartzen eta galtzen ari denean. Halako kasu guztietan, jarduera hori sinpatiazko xarma da oinarrian, nahiz eta zigor edo mehatxu itxura hartu.

Beste herri batzuk bezala, grekoak eta erromatarrak ere saiatu ziren euria magia bitartez lortzen, otoitzak eta prozesioak alferrikakoak zirenean. Adibidez, Arkadian, uzta eta zuhaitzak agorrek jota zeudenean, Zeusen apaizak haritz-abar bat urperatzen zuen Likaio mendiko iturri batean. Era hartan arretuta, urak halako hodei nahasi bat altzarazten zuen, eta bertatik laster euria erortzen zen lurrera. Euria eragiteko, antzeko moduan jarduten dute oraindik, ikusi dugunez, Ginea Berriaren ondoko Halmaheran. Tesaliako Krannon herrikoek brontzezko gurdi bat zuten, tenpluan gordetzen zutena. Euri-zaparrada bat nahi zutenean, astindu gurdia eta euria egiten zuen, gurdia hotsak trumoiarena imitatzen bide zuelako edo. Ikusi dugu lehenago gezurrezko trumoi eta tximista euri-xarma baten parte direla Errusian eta Japonian ere. Legendako Salmoneok, Elisko erregeak, halamoduzko trumoi-hotsa ateratzen zuen bere gurdia atzean brontzezko ontziak herrestan eramanez, edo brontzezko zubi baten gainetik pasatuz, tximisten orde zuzi irazekiak jaurtitzen zituelarik. Haren desira gaiztoa Zeusen gurdiak ortzian zehar ateratzen zuen trumoi-hotsa imitatzea zen. Esan ere esaten zuen bera Zeus zela eta, hainbestez, sakrifizioak eskaini ziezazkioten behartzen zituen. Martitzen tenplu baten ondoan, Erromako harresiez kanpo, harri bat gordetzen zuten, lapis manalis izenez ezaguna. Agorteetan harri hura Erromara eramaten zuten herrestan, eta ustea zen hark euria erakartzen zuela berehala.

3. Eguzkia magiaz menperatzea

Magia-gizonak euria eragin dezakeela uste duen bezala, eguzkiaren distira ere eragin dezakeela imajinatzen du, baita haren ibilia bizkortu edo geldotu egin dezakeela ere. Eklipseetan ojibwa indiarrek eguzkia itzaltzen ari zela imajinatu ohi zuten. Beraz, suzko geziak jaurtitzen zituzten airera, hartara azkenetan zegoen argia berpiztuko zutelakoan. Peruko senziek ere gezi irazekiak jaurtitzen zituzten eguzkiari eklipsea zenean, baina ez argiturria berpizteko, nonbait, harekin borrokan ari zen piztia basati bat urruntzeko baizik. Aitzitik, ilargi-eklipseetan Orinokoko zenbait tribu abar irazekiak lurperatzen zituzten; izan ere, zioten, ilargia itzaliko balitz, lurreko su oro ere harekin batera itzaliko litzateke, haren bistatik gordeta zegoena salbu. Kamtxatkatarrek sua atera ohi zuten beren txaboletatik eguzki-eklipseetan, eta otoitz egiten zioten argiturriari lehenago bezalako distira izateko. Baina eguzkiari egindako otoitzak erakusten digunez, zeremonia hau erlijiosoa zen magiazkoa baino areago. Magia hutsezkoa zen, ordea, antzeko abaguneetan txilkotin indiarrek egiten zuten zeremonia. Gizon eta emakumeek arropak biltzen zituzten, bidaiarakoan bezala, eta makuluen laguntzaz, pisu astunekin bailihoazen, zirkulu batean ibili eta ibili egiten ziren, harik eta eklipsea amaitzen zen arte. Hala eguzkiaren urrats nekatuei laguntza ematen zietela pentsatzen zuten, nonbait,

hark ortzian zehar bira nekosoia egin bitartean. Era berean, antzinako Egipton, erregea, eguzkiaren ordezkari gisa, tenpluko harresiei biraka ibiltzen zen, eguzkiak ortzian zehar eguneroko ibilia egin zezan segurtatze aldera, eklipsearen edo bestelako eragozpenaren etenik gabe. Eta udazkeneko ekinozioaren ondoren, antzinako egiptoarrek jaia ospatzen zuten, "eguzkiaren esku-makilaren natibitatea" zeritzona, zeren eta, argiturria ortzian egunero beheratzen zenez, eta haren argia eta beroa txikiagotzen zirenez gero, uste baitzuten makuluaren premian zela. Kaledonia Berrian, aztiak egun eguzkitsua nahi duenean, landare eta koral jakin batzuk eramaten ditu hilerrira eta sorta modukoa egiten du haiekin, eta bere familiako haur bizi baten ile-xerlo parean erantzen dio, baita arbaso baten eskeletotik hartutako bi hortz edota masailezur osoa ere. Gero, goizeko eguzkiaren lehen errainuak ezkututzen dituen mendi-gailur batera igotzen da. Han hiru landare-mota uzten ditu hartxabal baten gainean, koral ihartuaren abar bat ipintzen du haien ondoan, eta xarmarako landare-sorta zintzilikatzen du harriaren gainean. Biharamun goizean leku hartara itzultzen da eta, eguzkia itsasotik irteten den unean, su ematen dio sortari. Kea gora doalarik, aztiak harria koral ihartuaz igurtzitzen du, arbasoei dei egin eta honela esaten du: "Eguzki! Hauxe egiten dut zuk lurra kiskali eta bero dezazun, eta ortziko hodei guztiak jan ditzazun". Zeremonia bera errepikatzen da eguzkia sartzean. Kaledonia Berrikoek lehorteak erakartzen dute, halaber, zulatutako disko itxurako harri baten bitartez. Eguzkia irteten denean, aztiak hartu eskuan harria eta abar irazeki bat pasatzen du behin eta berriz zulotik, hau esaten duen bitartean: "Eguzkia pizten dut, hodeiak jan eta gure lurra lehorte ahal dezan, eta honek ezer eman ez dezan". Banks irlakoek eguraldi eguzkitsua eragiten dute eguzki faltsuaren bitartez. Harri biribil-biribil bat hartu, vat loa edo eguzki-harri deritzana, hari gorri batez inguratu eta hontzaren lumak itsasten dizkiote errainuak irudikatzeko, eta arao egokia kantatzen dute ahapeka. Gero zuhaitz garai batetik zintzilikatzen dute, esate batera Bengalako pikondo batetik edo kasuarina batetik, leku sakratu batean.

Brahmanak goizean egindako eskaintzak eguzkia sortzen duela uste da, eta esan ere esan zaigu: "Ezbairik gabe, ez litzateke irtengo eskaintza hori egingo ez balitz". Antzinako mexikarrek eguzkia bizi-indar ororen iturritzat zeukaten; ondorioz, Ipalmemohuani deitzen zioten, "gizakien bizi-arazlea". Baina munduari bizia emango bazion, bertatik hartu beharra zeukan. Eta bihotza biziaren kokaleku eta sinbolo denez, gizakien eta abereen bihotz odolduak aurkezten zitzaizkion eguzkiari indarrean iraun zezan, eta ortzian zehar bere ibilia egin ahal zezan. Horregatik, mexikarrek eguzkiari egindako sakrifizioak magikoak ziren, ez erlijiosoak: ez hari atsegin eman eta ez titzeko, baizik eta haren energiak -beroa, argia eta higidura- fisikoki berritzeko. Giza opagaien etengabeko eskaria, eguzki-sua elikatze, inguru eta tribuei gerra emanez betetzen zen urtero, eta gatibu-saldoak ekarri aldarean sakrifikatze. Mexikarren amaigabeko gerrak eta giza sakrifizio ankerrak, oroitza utzi duten izugarrienak, eguzki-sistemaren teoria oker batetik sortzen dira neurri handi batean. Ez dago argiago adierazterik nola, asmakeria hutsa den oker batetik, praktikan ondorio zorigaitzekoak etor daitezkeen. Antzinako greziarrek sinesten zuten eguzkia gurdi batean ibiltzen zela ortzian zehar; ondorioz, Rodas irlakoek, eguzkia gurtzen baitzuten beren jainko nagusi gisa, urtero eskaintzen zizkieten gurdi bat eta lau zaldi, eta itsasoan hondoratzen zituzten, hura haiez balia zedin. Ezbairik gabe, hauxe pentsatuko zuten, alegia, gurdi eta zaldi zaharrak hondatuta egongo zirela urtebeteko lanaren ondoren. Antzeko arrazoiagatik, beharbada, Judako errege idolatrek gurdiak eta zaldiak eskaintzen zizkieten eguzkiari, eta espartarrek, pertsiarrek eta masagetek zaldiak sakrifikatzen zizkieten. Espartarrek Taigeto mendiaren gainean burutzen zuten sakrifizioa, mendikatea ezin ederrago haren atzetik ikusten baitzuten sartzen gauero izar handia. Espartako haranekoentzat hura egitea bezain berezkoa zen Rodaskoentzat gurdia eta

zaldiak itsasora jaurtitzea, arratsean eguzkia bertan hondoratzen zelakoan baitzeuden. Horregatik, nahiz mendian nahiz itsasoan, jainko nekatuak beti prest izango zituen zaldi freskoak, eta poz handienaz hartuko zituen eguneroko ibiliaren amaian.

Zenbait herrik eguzkia piztu edo bere ibilian bizkortu egin dezaketela pentsatzen duten bezala, beste batzuek jotzen dute geldotu edo gerarazi egin dezaketela. Peruko Andeatoko mendate batean bi dorre hondatu altxatzen dira aurrez aurre dauden bi muinotan. Burdinazko gakoak dituzte sartuta hormetan, zertarako eta dorre batetik bestera sare bat hedatu ahal izateko. Sarea eguzkia harrapatzeko da. Eguzkia lakio batean harrapatu duten gizakien istorioak oso zabalduta daude. Eguzkia udazkenean hegoalderantz lerratzen denean, eta arktiar ortzian gero eta geldoago murgiltzen denean, Iglulikeko eskimalek katuaren kumatxoetxoetara jolasten dira, zertarako eta eguzkia soken artean katigatuta harrapatzeko eta gisa horretan desager ez dadin. Aitzitik, eguzkia udaberrian iparralderantz aldatuz doanean, kuboak eta pilotaren jolasean jarduten dute, haren itzulia errazteko. Australiar jatorriko batek eguzkia harik eta bera etxeratu arte gerarazi nahi duenean, lur-pusketa bat ipintzen du zuhaitz baten urkuluan, sartzen ari den eguzkiari begira. Bestalde, eguzkiaren sarrera bizkortzeko, australiarrek harea jaurtitzen dute airera eta putz egiten dute eguzkirantz, agian argizagia sartalderantz bultzatzeko eta hareatan ehorzteko, gauean hantxe murgiltzen dela ematen baitu.

Zenbait herrik eguzkia bizkorraz dezaketela imajinatzen duten bezala, beste batzuek ilargi berankorra bultza dezaketela egiten dute. Ginea Berrikoek ilargiaren bidez kalkulatu dituzte hilabeteak, eta jakin izan da haien arteko batzuek harriak eta lantzak jaurti zizkietela ilargiari, haren aurrerapena bizkortzeko asmoz eta hartara lagunak lehenago itzul zitezen, etxetik urrun baitzeuden hamabi hilabetez, tabako-landaketan. Malakarrek pentsatzen dute oskorri distiratsuak eguzkia sartzean sukarra eman diezaiokeela pertsona ahulari. Horregatik, oskorria itzaltzen saiatzen dira ura ttukatuz eta errautsak jaurtiz. Shuswap indiarrek sinesten dute eguraldi hotza ekarri ahalko dutela, tximistak jotako zuhaitz baten egurra erretzen badute. Sineste honen oinarria hauxe dateke: haien herrian ekaitz trumoietsuaren atzetik hotza etorri ohi dela ustea. Horregatik, udaberrian, indiar horiek goialdeetako elurretan zehar dabiltzanean, halako egurraren ezpalak erretzen dituzte sutan, elur-zakarra ur ez dadin.

4. Haizea magiaz menperatzea

Basatiak pentsatu ohi du haizea ere erakarri edo geldiarazi egin dezakeela. Eguna beroa denean eta jakutiarrek bide luzea egin behar duenean, hartu abere edo arrain baten barruan ustekabea aurkitutako harri bat, zaldi-zurdan bildu eta makila batean lotzen du. Gero kulunkatu egiten du makila, arao bat esanez. Laster aterako du haizeska freskoa. Bederatzi egunetarako haize freskoa lortzeko, harria lehenik txori edo piztia baten odoletan busti eta ondoren eguzkiari aurkeztu behar zaio. Bitartean, sorgileak hiru bira egiten ditu izarraren norantzaz bestera. Hotentoteak haizea ematzeko nahi badu, hartu bere larrurik lodienetako bat eta hagaren muturretik zintzilikatzen du, sinesten baitu larrutik beheraka tiratuz gero haizeak bere indar guztia galduko duela. Suaren Lurraldeko aztiak, haizea geldiarazteko, maskorrak jaurtitzen dituzte haizearen aurka bera geldiarazteko. Ginea Berriko gertu dagoen Bibili irlakoak ospetsuak dira putz eginez haizea sorrarazten dutelako. Eguraldi ekaiztsua denean, bogadjimek hala esan ohi dute: "Ari dira berriz ere Bibilikoak putz eta putz". Ginea Berrian haizea eragiteko duten beste era bat, "haize-harri" bat makila batez emeki jotzea da; gogor jotzeak hurakana sorraraziko luke. Eskozian halatsu atera ohi zuten sorginek haizea, trapu bat uretan busti eta harri bat hiru bider joz, eta hitzok esanez:

"Trapu hau jotzen dut harri honen kontra
haizea ateratzeko deabruaren izenean,
Ez da baretuko gogoak ematen ez didan artean".

Groenlandian, emakume haur-eginak, erditu ondorengoan, ekaitza ematzeko ahalmena duela uste da. Atetik kanpora irtetea besterik ez dauka, ahoa airez bete eta atzera etxe barrura sartu eta putz egitea. Antzina bazen familia bat Korinton, haize indartsua geldiarazteko gai zelako ospea zuena; baina ez dakigu nola gauzatzen zuten familiartekoek hain betekizun baliagarria; seguruenik, erakarriko zien sari hoberik, Istmoko itsas jendearen arteko ospe on hutsa baino. Are kristau-garaietan ere, Konstantinoren erregealdian, Sopater delako bat hil egin zuten Konstantinoplan, magiaz baliatuta haizeak lotzen zituelako salaketapean; izan ere, orduantxe gertatu baitzen Egipto eta Siriako alea zekarten itsasontziak barealdiak edo aurkako haizeek geldiarazita urrunean egotea, Bizantzioko jendaila gose-minduaren haserre eta etsipenerako. Finlandiar sorgileek haizea saltzen zieten ekaitzak portuan gerarazitako marinelei. Haizea hiru korapilotan gordeta egoten zen; lehen korapiloa askatzen bazuten, haize-pixka bat sortzen zen; bigarrena askatuz gero, mendebala; hirugarrena askatuz gero, haizerauntsi beltza. Hain zuzen estoniarrek, itsasadar batek bereizten baitie lurraldea Finlandiatik, oraindik ere sinesten dute iparraldeko auzoen ahalmen magikoetan. Udaberrian iparretik eta iparrekialdetik jotzen duen haize latza, sukarra eta erreuma-handituak berekin ekarri ohi dituen, finlandiar sorgile eta sorginen azpijokoei egotzen diete estoniar nekazari apalek. Bereziki udaberriko hiru eguni diete beldurra, Gurutze egunak deitzen dietenei; bat Asentzio egunaren bezperan tokatzen da. Fellin inguruetako jendea beldur izaten da egun horietan etxetik irteteko, Laponiatik jotzen duen haize anker horrek hilko ote dituen. Estoniar herri-kanta batek honela dio:

"Gurutze-haizea! Ahaltsu jotzen duzuna!

Indartsu astintzen dituzu hegoak iragaitean!

Haize basa ulukaria, zoritxarraren eta nekearena,

Finlandiako sorgileak doaz zurrunbuiloetan zaldun".

Esan ohi da, halaber, Finlandiako golkoan marinela, haizearen aurka borrokatzen direnean, belaontzi arraro bat ikusten dutela batzuetan txopatik agertzen, aise aurreratzen dituen. Lona-pila batekin iristen da, bela guztiak zabalik eta haize-alde, olatu apartsuetan bidea irekiz, ur-epaiak bitsa ebakiz, bela guztiak lehertzear puztuta, soka guztiak etetear atezuan. Orduan jakiten dute marinelek Finlandiatik datorrela.

Haizea hiru korapiloz lotzeko artea -zenbat eta korapilo gehiago askatu, haizeak hainbat eta gogorrago jotzen duelarik-, sorgin gizonezkoei egotzi zaie Laponian, eta sorgin emakumezkoei Shetlanden, Lexisen eta Man irlan. Shetlandeko itsasgizonek oraindik ere haizeak erosten dizkiete, korapilatutako zapien edo soken gisan, ekaitzak menperatzen dituztela aldarrikatzen duten emakume zaharrei. Ba omen dira Lerwicken haizea saltzetik bizi diren atso zaharrak. Ulisesez larruzko poltsa batean hartu zuen haizea Eolo haizeen erregearengandik. Motumotu tribukoek, Ginean Berrian, ekaitzak Oiabuko sorgile batek bidaltzen dituela pentsatzen dute; haize bakoitzarentzat banbu bat dauka, nahierara zabaltzen duena. Togoko Agu mendiaren gainean, Afrikako mendebaldeko eskualde batean, Bagba izeneko fetitxe bat bizi da, haizea eta euria kontrolatzen omen dituen. Haren apaizak lapiko handietan omen ditu gordeta haizeak.

Sarritan ekaitz-haizea izaki gaiztotzat jo ohi da, beldurtu, urrundu edo hil egin daitekeen gizakitzat. Ekaitza eta eguraldi txarra denbora luzez izan direnean eta janaria eskas denean, Erdialdeko eskimalak, algazko zigor luze bat eginez saiatzen dira ekaitza konjuratzen, eta bera hartuta jaitsi hondartzara eta haizearen norabidean astintzen dute, garrasi eginez: "Taba!" (aski dugu). Behin, ipar-mendebaldeko haizeek kostan izotza denbora luzean iraunarazi zutelarik eta janaria urritzen ari zelarik, eskimalek zeremonia bat burutu zuten haizea baretzearren. Sua piztu zuten hondartzan, eta gizonek haren inguruan bildu eta kantatu egin zuten. Orduan agure bat sutara hurbildu eta haizearen deabrua gonbidatu zuen ahots limurkorrez, berotzera sutara hurbil zedin. Etorri zela jo

zutenean, han zeuden guztien artean betetako ontzikada bat ur jaurti zuten sutara, eta ondo-ondotik gezi-zaparrada bat sua egondako lekura. Haiek pentsatzen zuten deabrua ez zela geratuko hain gaizki hartu zuten lekuan. Lanak behar bezala burutzeko, eskopetak disparatu zituzten alde guztietara, eta europar itsasontzi bateko kapitainari haizeari kanoikada bat jaurtitzeko gonbita luzatu zioten. 1883ko otsailaren 23an antzeko zeremonia burutu zuten Alaskako Pint Barrowko eskimalek, haizearen izpiritua hiltzeko asmoz. Emakumeek beren etxeetatik eraman zuten deabrua makilaz eta labanez, hauekin airea astinduz; eta gizonak, suaren inguruan bilduta, tina bat ur bota zuten bertara eta, txingarretatik lurrun-lainoa atera zen unean, beren riflez tirokatu eta harri astun baten azpian zanpatu zuten.

Chaco Handiko legua indiarrek haize-bolada baten eraso izpirituren bat iragaitearekin lotzen dute, eta makilak jaurtitzen dizkiote airera beldurtuta aldegin dezan. Haizeak txabolak eraisten dizkienean, Hegoamerikako payaguatar batzuk hartu abar irazekiak eta haizearen kontra hasten dira lasterka, abar gartuez mehatxuka, beste batzuek, ekaitza ikartzeko, airea ukabilez jotzen duten bitartean. Guaikurutarrak ekaitz latz batek beldurtuta daudenean, gizonak armatuta irteten dira, eta emakumeek eta hurrek ahalik eta ozenen egiten dute garrasi deabrua kokiltzeko. Ekaitz batean, Sumatrako batakene herri bateko biztanleak ikusi izan dira etxeetatik armatuta habailan irteten, ezpata eta lantza eskuan. Raja bera jartzen zen haien buru, eta etsai ikustezina sastakatzen eta ziztatzen zuten garrasika eta oihuka. Andre zahar bat ere ikusi zuten berebiziko eginahaletan bere etxea defenditzen, airea sable handi batez ezker-eskuin ebakiz. Ekaitz trumoiatsu oldartsu batean, trumoiak oso hurbil entzuten zirelarik, Borneoko kayandarrak ikusi izan dira ezpatak zorrotatik erdi ateratzen, mehatxu antzean, ekaitzaren deabruak beldurtu eta urrundu nahian edo. Australiar jatorrikoek uste dutenez, basamortuan zehar sortzen diren harea gorritzko bolada eskerga bizkorak pasatzen ari diren izpirituak dira. Behin beltz gazte indartsu bat bolada horietako baten atzetik joan zen lasterka bumerangaz hiltzeko asmoz. Bizpahiru orduz ibili zen kanpoan, eta erabat unatuta itzuli zen, esanez Kootxee (deabrua) hil zuela, baina Kootxeek marraka egin ziola eta bera ere hil beharra zela. Afrikako ekialdeko beduinoez esan ohi denez, "bidean aurkitzen duten edozein zurrunbilok dozena bat basati izango ditu atzetik, sableak aterata, hauts-boladaren erdian kolpeka, zirimola-erdian omen doan izpiritu gaiztoa urruntzeko".

Adibide hauen argitan, guztiz sinesgarria da Herodotok kontaturiko istorio bat, kritiko modernoek alegiazat hartu izan dutena. Hark dioenez -ipuina egia dela zin egin gabe, hala ere-, behin, psyllien lurretan, gaur egungo Tripolin alegia, Saharatik jotzen zuen haizeak ur-putzu guztiak lehortu omen zituen. Beraz, jendea batzarrean bildu zen, eta denak batean abiatu ziren hegoaldeko haizeari gerra ematera. Baina basamortura sartu zirenean, simunak hartu eta den-denak ehortzi omen zituen. Istorio hau gerrari haiek desagertzen ikusi zituen norbaitek kontatua dateke apika: hareazko zurrunbiloaren hodei gorrian gerrarako paratuta, danborrak eta zinbaloak joka.

VI

Magia-gizonak errege

Aurreko testigantzen arabera, onar genezake lurralde eta arraza askotan magiak naturako indar handiak gizakiaren mesedetan kontrolatu nahi izan dituela. Hala izan bada, arte horretan jardun dutenek garrantzizko eta eraginezko pertsonaiak izan behar zuten, nahitaez, haien asmo bitxiei fede eman dien edozein gizartetan, eta ez litzateke harritzekoa, inola ere, duten ospearen eta sorrarazten duten errespetuaren kariaz, haietako batzuk aginte gorenera iristea beren kide sinesberen gainetik. Izan ere, badirudi magia-gizonak sarritan bihurtu direla buruzagi eta errege.

Has gaitezen giza arraza apalenari begiratzuz, hartaz besteez baino informazio osoagoa eta zehatzagoa daukagun aldetik: australiar jatorrikoegi begiratzuz, alegia. Basati hauek ez

dute buruzagi edo erregerik. Beren tribuak izaera politikoz eratuta daudela esan daitekeen neurrian, demokrazia da haiena, edo itzal handiko agureen oligarkia: garrantziko neurri guztiak erabakitzeke, kontseiluan biltzen dira, gizon gazteagoak kanpo utzita. Haien batzar deliberatzaileak geroagoko senatuaren pareko dira. Zaharren gobernu-modu hau izendatzeko hitz bat aukeratu behar izanez gero, gerontokrazia deituko genioke. Australian honela bildu eta tribuaren arazoak gidatzen dituzten zaharrak, klan totemikoetako buruzagiak bide dira gehienetan. Australiako erdialdean, non herrialdea basamortu izateak eta kanpoko eraginetatik ia erabat isolatuta egoteak aurrerapena atzeratu eta bertakoak, oro har, beren egoera antzinakoenean gorde baititu, totem-ugalketarako zeremonia magikoak burutzeko zeregin garrantzitsua dute klan totemiko desberdinetako buruzagiek; eta totemik gehienak abere edo landare jangarriak direnez gero, espero ohi da gizon horiek jendea janariz hornituko dutela magiaren bitartez. Beste batzuek euria egin behar izaten dute, edo komunitatearentzako beste zerbitzuren batzuk. Labur esanda, Australiako erdialdeko tribuetan, buruzagiak magia-gizon publikoak dira. Gainera, haien egiteko garrantzitsuena biltegi sakratuaren ardura izatea da; hau haitzean dagoen arraildura edo lurrean egindako zuloa izaten da gehienetan, eta bertan gordetzen dira harri eta makila sakratuak (txuringa), ustez jendearen arimekin, hala hildakoen nola bizienekin, lotuta daudenak. Horregatik, buruzagiek zeregin "zibilak" ere burutu behar dituzten arren, hala nola tribuaren azturak hausteagatik zigortzea, haien betekizun nagusiak sakratuak edo magikoak dira. Australiatik Ginea Berrira jotzen badugu, aurkituko dugu ezen, nahiz bertakoak australiarrak baino askoz kultur maila altuagoan izan, haiena ere gizarte demokratikoa edo oligarkikoa dela funtsean, eta buruzagitzaren hasi-masiak besterik ez dituztela. Sir William MacGregorrek dioskunez, Britainiar Ginea Berrian inoiz ez da sortu despota bihurtu ahal izateko bezain pertsona azkar, ausart eta indartsurik, ezta eskualde bakar batean ere. "Horretara gehien hurbildu den bakarra, urrun geratu bazen ere, sorgile entzutetsua izatera iritsitako pertsonaren bat izango zen; baina hortik iruzur pixka bat besterik ez da etorri".

Melanesiako kontakizun baten arabera, bertako buruzagien boterearen sorburua sineste batean datza osorik, izpiritu ahaltsuekin harremanetan egotean, eta naturaz gaingarri botere hori erabiltzen dute izpirituen eraginetik etekina ateratzeko. Buruzagiak isuna ezarriz gero, ordaindu egiten zen, jende guztiak beldurra baitzion haren botere izpiritualari, eta tinko uste baitzuten kalteak eta gaixotasunak ekar diezazkiokeela aurre egiten zionari. Jendearen artean izpirituen eraginik sinesten ez zutenak ugaltu zirenean, isunak ezartzeko ahalmenak astindua jaso zuen. Georges Brown doktoreak ere dioskunez, Britainia Berrian "buruzagi batek gobernatzen zuenean apaiz-betekizunak burutzen zituen beti, hau da, tebaran izpirituekin harreman etengabeetan zegoela jarduten zuen eta, haien eragina medio, euria edo eguraldi eguzkitsua, haize onak edo txarrak, gaixotasuna edo osasuna, gerrako arrakasta edo hondamendia, horiek denak ekartzeko gaituta zegoen, baita, oro har, zorion edo zorigaitzen bat ere, zeinen truke eskatzailea egoki zeritzan prezioren bat ordaintzeko prest baitzegoen".

Kultur mailan are gorago igoz, gatozen Afrikara, han bai buruzagitza, bai erregetza, oso garatuta baitaude. Afrikan, bilakaera honen frogak, magia-gizonetatik eta batez ere eurigileetatik buruzagietara alegia, oso ugari dira konparazioz. Wambugween artean - Afrikako ekialdeko herri bantu bat da hau-, adibidez, jatorrizko gobernu-forma familien errepublika zen, baina sorgileen botere eskergak, oinordekoetara iragaiten baitzen, laster jaso zituen haiek jauntxo edo buruzagien mailara. 1894an herrialdean bizi ziren hiru buruzagietarik biri beldur handia zieten magia-gizon gisa, eta gaitasun hartan egindako zerbitzuengatik emandako oparietatik etorri zitzairen, ia osorik, ganadu eta artaldetan zeukaten aberastasuna. Trebetasun nagusia euria egitea zuten. Wataturuen buruzagiak -

hau ere Afrikako ekialdeko beste herri bat da- sorgile besterik ez omen ziren, eragin politiko zuzenik gabeak. Orobat, Afrikako ekialdeko wagogoen artean, buruzagiei euria eragiteko trebeziatik omen datorkie boterea. Buruzagi batek euririk eragin ezin badu, ahal duen beste norbaitengandik lortu beharko du.

Nilo Garaiko tribuen artean ere osaginak dira gehienetan buruzagiak. Haien agintea batez ere euria eragiteko egozten zaien boterean datza; izan ere, eskualde horietan "euria baita jendeari interesatzen zaion gauza bakarra, zeren eta, garaiz egiten ez badu, horrek esan ezin diren nekeak ekarriko baitizkio komunitateari. Ez da harritzekoa, beraz, besteak baino maltzurragoak diren gizonak berentzat gordetzea hura eragiteko ahalmena, edota halako ospea irabazi ondoren, auzo xaloagoen sinesberatasunari probetxu ateratzea". Horregatik, "tribu horietako buruzagi gehienak eurigileak dira, eta herritarrei sasoia denean euria emateko boterearen arabera ospea izaten dute... Buruzagi eurigileek beti eraikitzen dituzte beren herriak muino garai samarren baten hegaletan, bai baitakite, noski, muinoek hodeiak erakartzen dituztela eta, ondorioz, ziur samar ibiliko direla eguraldiari buruzko auresanak egiterakoan". Eurigile horietako bakoitzak hainbat euri-harri izaten ditu lapiko batean gordeta, hala nola haitz-kristala, mika-harria eta amatista. Euria egin dezan nahi duenean, uretan sartzen ditu harriok eta, mutur batean ebakia duen kaina zuritu bat eskuan hartuz, etortzeko esaten die harekin keinuak eginez hodeiei, edo halako aldetarantz urruntzeko, bitartean araoa marmarkatzen duelarik. Edota ura eta ardi edo ahuntz baten erraiak isurtzen ditu harrian egindako zulora, eta gero ura ortzirantz ziprztintzen du. Nahiz buruzagia aberastu bere ustezko ahalmen magikoei esker, sarritan, beharbada gehienetan, akabera gaiztoa izaten du; izan ere, lehorte-garaian jendea haserre bada, bildu eta hil egiten du, euria hark eragozten duelakoan. Baina lanbide hori oinordekotza bidezkoa izan ohi da gehienetan, aitagandik semeagana pasatu ohi da. Sineste hauei oniritzen diete eta aztura hauek gordetzen dituzte, besteak beste, Latuka, Bari, Laluba eta Lokoiya tribuek.

Afrikako erdialdean ere, Lendu tribukoek, Alberto lakuaren mendebaldean, erabat sinesten dute pertsona batzuek euria eragiteko ahalmena dutela. Haien artean eurigilea buruzagi izaten da, edo ia gehienetan buruzagi bihurtzen da. Banyorotarrek ere begirune handia diete euria erakartzen dutenei, eta opari ugari betetzen dituzte. Erregea da emaile handia, euriaren gainean ahalmen erabatekoa eta kontrolaezina duena; baina bere ahalmena beste pertsona batzuegana pasa dezake, hala non onurak banatu egin daitezkeen, zeruetako ura erresumaren alde desberdinetara zabalduz.

Afrikako mendebaldean, ekialdean eta erdialdean, bat eginda aurkitzen ditugu buruzagitza eta magia-betekizunak. Fan tribuan, esaterako, ez da buruzagiaren eta magia-gizonaren arteko bereizketa zehatzik. Buruzagia magia-gizon eta gainera errementari ere izaten da; izan ere, fantarrek sakratutzat daukate errementari lanbidea, eta buruzagiek bakarrik jardun dezakete horretan.

Hegoafrikan buruzagi eta eurigile karguen arteko erlazioari dagokionez, ondo informaturiko idazle batek honela idatzi du: "Antzina-antzina, buruzagia tribuko eurigile handia zen. Zenbait buruzagik ez zioten inori uzten berekin lehiatzen, eurigile arrakastatsua buruzagitza aukeratua izan baitzitekeen. Bazen beste arrazoi bat ere: eurigileak bazekien ospe handia irabazten bazuen aberastu egingo zela eta, bistakoa zenez, ez zen batere ona berarentzat norbaiti aberatsegi izaten uztea. Eurigileak kontrol izugarria du jendearen gainean eta, beraz, garrantzi handikoa zen betekizun hau erregetzari lotuta egotea. Tradizioak beti jartzen du euria eragiteko ahalmena antzinako buruzagi eta heroien loria handien artean, eta litekeena da bera izatea buruzagitza jatorria. Euria egiten zuen gizona berez bihurtuko zen buruzagi. Hari horretatik, Txakak, despota zulu ezagunak, bere burua aldarrikatzen zuen herrialdeko azti bakartzat; izan ere, arerioei uzten bazien, ez baitzuen bizia seguru izango". Halaberean, Hegoafrikako

tribuez oro har mintzatzean, honela dio Moffat doktoreak: "Eurigilea, herritarren estimazioan, ez da edonor, erregeak baino eragin handiagoa du jendearen gogoan; erregea bera ere artxiofizial honen esanei men egitera behartuta dago".

Aurreko testigantzen arabera, litekeena da Afrikan, sarritan, erregeak jatorria magia-gizon publikoa izatea, eta batez ere eurigileagan. Magia-gizonak eragiten duen beldur mugagabeak eta bere lanbidean jardunez biltzen duen aberastasunak, biek lagunduko zioten gora egiten. Baina magia-gizonaren eta bereziki eurigilearen ofizioak sari handiak eskaintzen badizkio ere antze horretan arrakastaz jarduten duenari, tranpaz beteta dago, eta trebea ez den edo zortetik ez duen artista tranpa horietan eror daiteke. Magia-gizon publikoaren egoera ere oso-oso badaezpadakoa da; izan ere, jendeak erabat sinesten baitu hark berea duela euria eragiteko ahalmena, eguzkia distiraraztekoa, eta lurrari igaliak emanaraztekoa, eta, besterik gabe, haren zabartasun edo borondate txar setatsuari egozten dizkiote lehortea eta gosea, eta ondorioz zigortu egiten dute. Horregatik, Afrikan, euria eragiten huts egiten duen buruzagia, sarritan, erbesteratu edo hil egiten dute. Afrikako mendebaldeko zenbait aldetan, adibidez, erregeari aurkeztutako otoitzek eta eskaintzek euririk ekarri ez dutenean, menpekoek hura sokaz lotu eta arbasoen hilobira eramaten dute bortxaz, premiazko euria haiengandik lor dezan. Afrikako mendebaldeko banjartarrek euria edo eguraldi ona eragiteko ahalmena egozten diote beren erregeari. Eguraldia ona den bitartean, opariz betetzen dute ale eta ganadutan. Baina lehorte edo eurite luzeak uztak alferrik galtzeko zorian jartzen baditu, iraindu eta jo egiten dute, harik eta eguraldia aldatzen den arte. Uztak huts egiten duenean edo itsaskia arrantzarako gogorregia denean, Loangokoek "bihotz-gaizto" izatea leporatzen diote erregeari eta kargutik kentzen dute. Ale-kostan, bodio titulua daraman apaiz nagusi edo errege fetitxeak komunitatearen osasunaren ardura du, lurraren emankortasunaren eta itsaso eta ibaietako arrain ugaritasunaren ardura; eta herrialdea alderdi horietarik batean eskas bada, bodioa kendu egiten dute bere postutik. Ussukuman, Victoria Nyanza lakuaren hegoaldeko eskualde handi batean, "euriaren eta otiaren arazoa sultanaren gobernuaren kontua dira. Hark ere euria eragiten jakin behar du, eta otiak urruntzen. Baldin bera eta bere belargizonak ez badira gai hori betetzeko, bizia arriskuan izango du hark hondamendi-garaietan. Behin batean, herriak hainbeste desiratzen zuen euria ez zetorrela eta, sultana bota egin zuten besterik gabe (Utuwan, Nassa ondoan). Egia esan, jendeak etsi-etsian sinesten du boterea izan behar dutela naturaren eta beronen fenomenoen gainean". Orobat, Nyanza aldeko biztanleek esan zaigunez, "sinetsita daude magiaren ondorioz baizik ez duela euria egiten, eta hura erakartzeko eginkizun garrantzitsua tribuko buruzagiari dagokio. Komeni den garaian euririk egiten ez badu, denak izaten dira kexu. Errexka bat baino gehiago erbesteratu izan dute lehortearen kariatz". Nilo Garaiko latukatarren artean, uztak ihartzen ari eta buruzagiak euria erakartzeko egiten dituen ahalegin guztiak antzu gertatu direnean, jendeak gehienetan eraso egiten dio gauez, bere ondasun guztiak lapurtzen dizkio eta bota egiten du handik. Sarritan hil ere egiten dute.

Munduko beste leku askotan ere erregeek, herriaren onerako, naturaren ibilera arautuko zutela espero zen, eta zigortu egin izan dituzte huts egiten bazuten. Badirudi eszitek, janaria eskas zenean, erregea kateaz lotzen zutela. Egipto zaharrean, uzta txarra zenean, madarikatu egiten zituzten errege sakratuak, baina abere sakratuei ere egozten zitzairen naturaren ibileraren erantzukizuna. Izurriteak eta beste kalte batzuek, lehorte luze eta latzaren ondorioz, lurraldea hartzen zutenean, apaizek hartu abere sakratuok gauez eta mehatxu egiten zieten, eta gaitza desagertzen ez bazen, akabatu egiten zituzten. Niue koralezko irlan, Ozeano Barearen hegoaldean, errege-leinu bat zegoen lehen. Baina erregeak apaiz nagusi ere bazirenez, eta janariak ugaltzen zituztela uste zenez, jendea haserretu egiten zitzairen eskasaldietan eta hil egiten zituen; harik eta azkenean, bat

bestearen atzetik hil zituztelarik, erregerik ezta monarkia amaitu zen arte. Antzinako idazle txinatarrek jakinarazi digutenez, Korean erregeari botatzen zioten errua euri gehiegi edo gutxiegi egiten bazuen, eta ereinak heltzen ez baziren. Batzuen iritziz, hura bere kargutik kendu behar omen zen; beste batzuen iritziz, hil egin behar omen omen zen.

Amerikako indiarren artean zibilizaziorako aurrerapen handiena Mexiko eta Peruko gobernu monarkiko eta teokratikoen menpe egin zen; baina oso gutxi dakigu herrialde horien lehen historiaz, errege jainkotuen aurrekoak magia-gizonak ziren ala ez esan ahal izateko. Jatorri horren zantzua suma daiteke, beharbada, Mexikoko erregeek tronura igotzean egiten zuten zin-hitzean: Eguzkiari distira, hodeiei euria, ibaiei ur-etorria, eta lurrari igali ugari emanaraziko zizkietela. Kolonien aurreko Amerikan sorgina edo magia-gizona, misterioan eta beldur-giroan bildurik, eragin eta garrantzi handiko pertsonaia zen, eta tribu askotan buruzagi edo errege bilakatu bide zen, nahiz halako bilakaeraren frogaz zehatzak falta. Hala, Catlinek dioskunez, Iparramerikan magia-gizonak "agintaritzat dauzkate tribuan, eta begirunerik handiena erakusten die tribu osoak; osasun-gaietan duten trebetasunagatik ezezik, batez ere magia eta misteriozkoetan duten tentuagatik; halakoetan jarduten baitute haiek denek neurri handi batean... Tribu guztietan sendagileak araolari dira, magia-gizon dira, azti dira, eta esango nuke apaiz nagusi ere badirela, zeremonia erlijioso guztiak begiratzen eta gidatzen dituztenez gero; denek ikusten dituzte nazioaren orakulu gisa. Gerra eta bake-kontseilu guztietan, buruzagien artean esertzen dira, kontsultatu egiten zaie herri-erabakiren bat hartu aurretik, eta begirunerik handienaz hartzen da haien iritzia". Era beretsuan, Kalifornian "xamana beharbada norbanako garrantzitsuena zen, eta oraindik ere bada, maidutarren artean. Inolako gobernu-sistema zehatzik ezean, xamanaren hitzak pisu handia du; beldur handia diete gizatalde horri, eta gehienetan buruzagiari baino askoz gehiago obeditzen diete".

Hegoamerikan ere, badirudi magia-gizon edo osaginek libre izan dutela buruzagitzarako edo erregetzarako bidea. Brasilgo kostaldean jarri zen lehen europarretako batek - Thevet frantziarrak- jakinarazten digunez, indiarrek "hain ohore eta begirune handitan dauzkate page (edo magia-gizon) horiek, non gurtu edo idolo bihurtzen dituzten. Jende arrunta haiengana joaten ikusiko duzu, aurrean belaunikatu eta otoitz egiten honelakoak esanez: "Segurta iezadazu ez naizela gaixotuko, ez naizela hilko, ez ni eta ez nire haurrak", edo antzeko beste eskariren bat. Eta hark erantzungo die: "Ez zara hilko, ez zara gaixotuko", eta gisa horretako arrapostuak. Baina batzuetan, page horiek esandakoa betetzen ez bada, eta gauzak agindutakoaz bestera ateratzen badira, jendeak ez du izaten haiek hiltzeko batere errukirik, page titulua eta kargua merezi ez dutela eta". Chaco Handiko legua indiarren artean, klan guztiek dute beren kazike edo buruzagia, baina hark ez du aginte handirik. Bere kargua dela eta, opari asko egin beharra dauka eta, beraz, gutxitan aberasten da eta gehienetan bere menpekoak baino zarpailago jantzita egon ohi da. "Egia esan, magia-gizona da bere eskuetan botererik handiena duen gizona, eta opariak hartzeko ohitura izan ohi du, ez ematekoa". Honen eginkizuna zorigaitzak eta izurriteak tribuaren etsaiei igortzea, eta bere herritarrak etsaien magiatik gordetzea da. Zerbitzu hauengatik ondo ordaintzen zaio, eta eragin eta aginte handiko posizioa lortzen du.

Malakako lurraldean zehar, raja edo erregeari begirune izuz betea erakusten diote, naturaz gaindiko ahalen jabe izaki, eta badira arrazoiak pentsatzeko beronek ere, Afrikako hainbat buruzagik bezala nonbait, magia-gizon hutsean duela jatorria. Gaur egun, malakarrak uste osoz sinesten dute erregeak eragin pertsonala duela naturaren lanen gainean, hala nola uztak heltzearen edo frutarbolen emariaren gainean. Ustea denez, bertute emankor berbera dute, nahiz eta gradu txikiagoan, haren ordezkariak, baita

eskualde haiek gobernatzea tokatu zaien europarrek ere. Selangorren, Malakako penintsulako estatu batean, esaterako, arroz-uzta ona edo txarra izatea eskualdeko agintarien alaketari egotzi ohi zaio sarritan. Celebesko hegoaldeko turateyek diotenez, arrozaren ugaritasuna beren printzeen jokabidearen araberakoa omen da, eta gobernu txarrak, lege zaharrarekin bat ez datorren gobernuak alegia, uzta txarra ekarriko omen du.

Sarawakeko dayakak sinetsita zeuden beren gobernari ingeles famatua, Brooke raja, ahalmen magiko baten jabe zela, eta, ahalmen hori behar bezala erabiliz gero, arroz-uzta ugaltu egin zezakeela. Beraz, tribu bat bisitatzen zuenean, hurrengo urtean erein asmo zuten hazia eraman ohi zioten, eta hark emankortu egiten zuen gainean emakumeen lepokoak astinduz, aurrez nahaste berezi batean busti ondoren. Eta herri batean sartzen zenean, emakumeek oinak garbitzen eta bainatzen zizkieten, lehenik urez, gero koko gazte baten esneaz eta azkenez berriro ere urez, eta haren pertsona ukitutako ur guztia gorde egiten zuten etxaldeetan banatzeko, hartara uzta ugaria izango zelakoan. Bisita egiteko urrunegi zeuden tribuek arropa zuri baten puskatxo bat eta urre edo zilar-pixka bat bidali ohi zioten, eta haren bertute ernarazleak gauza hauek hartzi ondoren, ehortzi egiten zituzten beren landetan, eta konfidantza osoz geratzen ziren uzta joriaren zain. Behin, Samban, europar batek tribuko arroz-uzta urria zela aipatuta, buruzagiak berehala erantzun zion ezin zitekeela bestela, Brooke rajak inoiz ez ziela-eta bisitarik egin, eta arren erregutu zion Brooke jauna bisitan ekartzen saiatzeko, beren lurraren antzutasuna alda zedin.

Erregeek ahalmen magiko edo naturaz gaindikoak dauzkatela sinestea -lurra emankortu eta menpekoei beste onura batzuk erakar diezazkieten ahalmenak, alegia- badirudi ariar arraza guztietako arbasoen kontua dela, Indiatik Irlandaraino, eta horrek arrasto argiak utzi ditu Britainia Handian bertan, gaur egun arte ere. Manuren legeak deritzan hinduen antzinako lege-liburuak honela deskribatzen ditu errege onaren agintaldiaren ondorioak: "Erregea bekatari hilkorren ondasunez jabetzen ez den herrialdean, gizakiak behar den garaian jaiotzen dira eta bizi luzea izaten dute. Eta nekazarien uztak bakoitza erein bezala etortzen dira, eta haurrak ez dira hiltzen, eta ez da ume itxuragabekorik jaiotzen". Homeroren Grezian sakratu edo jainkozko bailiran hitz egiten zen errege eta buruzagiez; haien etxeak ere jainkozko ziren, eta gurdiak sakratu; eta pentsatzen zen errege onaren agintaldiak gari eta garagar ugari emanarazten ziola lur beltzari, arbolak frutaz abailtzen zituela, aziendak ugaltzen, eta itsasoa arrainez gainezka jartzen. Erdi Aroan, Waldemar I.a Danimarkako erregeak Alemaniara bidaia egin zuenean, amek haurrak erakusten zizkieten eta nekazariak hazia, hark eskuak gainean jar ziezazkien, pentsatuz haurrak aurrera irtengo zirela errege-ukituari esker, eta arrazoi berberetatik eskatzen zioten laborariak hazia beren ordezkarietako. Antzinako irlandarrek bazuten sineste bat: beren erregeek arbasoen usadioak gordetzen zituztenean, urtaroak eztiak izaten zirela, uztak ugariak, azienda emankorra, urak arrainez gainezka izaten zirela, eta frutarbolak zurkaiztu beharrean izaten zirela emarien pisua zela eta. San Patriziok jarria omen den arau batek errege zuzen baten agintaldiari dagozkion onuren zerrenda egiten du: "eguraldi ona, itsaso barea, uzta ugaria eta arbolak frutaz makur". Baina gosetean, behiak antzu, frutak herdoilduta eta laboreak eskas baziren, seinale erregearen agintaldia txarra zela.

Beharbada halako superstizioen azken arrastoa, gure errege ingelesenganaino iraun duena, beren ukituz gangailena senda zezaketelako ustea zen. Horregatik, erregeren gaitza izenez zen ezaguna gaixotasun hura. Elizabeth erreginak sarri egin zuen sendatzeko opari mirarizko hau. 1633ko San Joan egunean, Karlos I.ak ehun gaixo sendatu zituen kolpe bakar batez Holyroodeko errege-kaperan. Baina badirudi haren seme Karlos II.aren erregealdian egon zela bolada-boladan usadio hau. Karlos II.ak

ehun mila pertsona inguru ukitu omen zituen bere erregealdian gangailenagatik. Harengana hurbiltzeko lanak batzuetan izugarriak izaten ziren. Behin batean, sendatzera etorritako sei edo zazpi lagun jendetzak zanpatuta hil ziren. William III.a Buruhotza destainaz ukatu zen bere burua jolas haietara behartzera; eta jauregia ohiko jendaila kirastunak inguratu zuenean, urrunera aldegiteko agindu zien limosna batez. Eskua gaixo baten gainean ezartzera behartu zuten aldi bakarrean, halaxe esan omen zion: "Jainkoak osasun eta zentzu hobea emango ahal dizkizu". Hala ere -ezin bestela izan-, James II.a goibel kazkagorrorak eta honen alaba goibel Ana erreginak segitu egin zuten aribide hartan.

Frantziako erregeek ere ukituz sendatzeko dohai berbera zutela aldarrikatzen zuten; Klodoveo edo San Luisengandik hartua omen zuten. Errege ingelesek, berriz, Eduardo Aitorlearen oinordekotzan zuten jasoa. Era beretsuan, Tongako buruzagi basatiek gangailena eta gibel gogortuak sendatzen omen zituzten, haien oinak ukituz gero; eta sendaketa homeopatiatzkoa zen erabat, zeren eta gaitza nahiz sendaketa, biak erregea bera edo beraren zerbait ukitzeak eragiten baitzituen.

Oro har, beraz, zuzen gaudeke ondorio hau aterata, alegia munduko alde askotan erregea antzinako magia-gizonaren edo osaginaren oinordekoa dela. Sorgile mota berezi bat komunitatetik bereizi denean eta honek osasun eta ongizate publikoaren berme diren eginkizunak betetzeko zeregina aitortzen dionean, gizon horiek aberastu eta boterea bereganatzen dute pixkanaka, harik eta beren arteko buruak errege sakratu bihurtu arte. Baina demokraziatik hasi eta despotismoan amaitzen den gizarte-iraultza handiarekin batera, iraultza intelektuala doa, hala erregetza kontzeptuan nola erregetzaren betekizunetan ondorioa duena. Izan ere, denborak aurrera egin ahala, magiaren gezurra gero eta nabariago bihurtzen zaie gogo argienei, eta ezari-ezarian erlijioak hartzen du haren lekua; bestela esanda, magia-gizonak apaizari ematen dio bide, eta hau, naturako prozesuak gizakumearen mesedetan zuzenean kontrolatzeko asmoei uko eginez, helburu bera zeharka lortzen saiatzen da, jainkoei dei eginez, hauek beraren ordeztu egin dezaten jadanik bere kabuz egin ezin duena. Beraz, erregea, magia-gizon hasita, magiazkoen ordeztu apaiz-betekizunak hartuz joaten da pixkanaka: otoitza eta sakrifizioak. Eta gizazkoaren eta jainkozkoaren arteko bereizketa erabat zehaztu gabe dagoen bitartean, sarritan pentsatu ohi da gizakiak berak jainkotu egin daitezkeela, heriotzaren ondoren ezezik bizi-denboran, izpiritu handi eta ahaltsu bat haien izate osoaz jabetzen bada. Gizarteko ezein sailek ez dio erregeek hainbat etekin atera jainkoa haragizko gizon egin daitekeelako sinesteari. Horra hurrengo kapituluan jorratuko ditugun gaiak: haragiztatze honen doktrina, eta berarekin batera erregeen jainkotasunaren teoria, jainkotasun hitzaren adiera zehatzean.

VII

Jainkoak hezur-haragizko gizaki

Aurreko kapituluetan mundu osoko herri hezigabeen sineste eta arierezt eman ditudan adibideak aski dirateke frogatzeko basatiak ez dituela ezagutzen naturaren gainean duen ahalaren mugak, guri hain bistakoak iruditzen bazaizkigu ere. Gizaki oro naturaz gaitzeko dei litezkeen ahalmenen jabetzat jo ohi den gizarte batean, bista-bistakoa da jainkoen eta gizakien arteko bereizketa lauso samarra dela; are gehiago, apenas nabari dela. Jainkoak gizagainezko izakiak bailiran burutaratzea, gizakiak inola ere ez dauzkan botereen jabe, mantso garatu da historiaren joanean. Antzinako herriek ez zituzte jainkoak gizonaren oso gainetik ikusten, gainetik izatekotan; izan ere, gizakiak ikaratu eta behartu egin baitzitake haiek bere borondatea egin dezaten. Pentsamenduraren etapa honetan, mundua demokrazia handia bailitzan ageri da; bertako izaki guztiak, naturakoak zein naturaz gaitzekoak, maila gutxi-asko berdinean samarrean daudela jotzen da. Baina bere ezagumena haztearekin batera, gizakiak naturaren handitasunaz argiago

ohartzen ikasten du, baita bere txikitasun-ahuleziez ere haren aurrean. Baina bere ahuleziaz ohartzeak ez du berekin naturaz gaindiko izaki horien ezinaz ere ohartzea, gizakiaren irudimenez unibertsoa betetzen duten izaki horienaz alegia. Alderantziz, areagotu egiten du horien ahalaz duen ikusmoldea, zeren eta oraindik ez baitu erabat argitu ideia honek, alegia mundua lege finko eta aldaezinen arabera diharduten indar norgabekoen sistema bat dela. Ideia horren ernamuina badu, noski, eta berorren arabera jarduten du; magiaren antzean ezezik, eguneroko bizitzaren arazo askotan ere bai. Baina garatu gabe dago oraindik, eta bizi den mundua azaltzen saiatzen den neurrian, borondate kontzientearen eta nor batzuen jardunaren agerpen gisa irudikatzen du. Bere burua hain ahul eta txiki sentiturik, zein handi eta ahaltsu kontsideratu beharko dituen naturaren makineria eskerga kontrolatzen duten izakiak! Horregatik, jainkoekiko berdintasun-zentzu zaharra poliki-poliki ezabatu ahala, baztertu egiten du naturaren nondik-norakoa bere baliabide soilez, hau da, magiaren bidez, zuzentzeko itxaropena; gero eta gehiago hartzen ditu jainkoak naturaz gaindiko ahalmen haien jabe bakar gisa, behinola ahalmenak berak ere bazituela aldarrikatu bazuen ere. Ezagutzaren aurrerapenarekin batera, beraz, otoitzak eta sakrifizioak hartzen dute aurrea erlijio-erritualean; eta magia, behiala haien parean, legezko berdintasunean egona, atzeratu egiten da pixkanaka, eta antze ilunen mailaraino hondoratzen da. Orain jainkoen barrutian esku sartzea alferrikakotzat eta gaiztotzat jotzen da eta, horrenbestez, apaizen kontrakarrarekin egingo du topo etengabe, haien ospea eta eragina jainkoenekin batera igotzen edo erortzen baita. Ondorioz, geroago, erlijioaren eta superstizioaren arteko bereizketa nabarmendu denean, hauxe aurkitzen dugu, alegia sakrifizioa eta otoitza direla komunitateko erlijiozaleen eta jakintsuenen baliabideak, eta magia dela superstiziotsu eta ezjakinen babesa. Baina are beranduago, indar elementalak nor gisa sumatzetik naturako legeak ezagutzera pasatutakoan, magia berriro azaleratzen da iluntasun eta omen txar hartatik, berez kausa-efektuen segida nahitaezko eta aldaezinaren ideian oinarrituta baitago, nor batzuen borondaketik kanpo; eta naturako segida kausalak ikertuz, zuzenean prestatzen du zientziaren bidea. Alkimiak kimikari irekitzen dio bidea.

Giza jainkoaren nozioa, edo ahalmen jainkozko zein naturaz gaindikoaren jabe den gizakiarena, erlijioaren historiaren lehen aldi hartakoa da funtsean: artean jainkoak eta gizakiak maila bereko izakitzat hartzen ziren, eta geroagoko pentsamenduak bereizi zituen batzuen eta besteen artean zabalduko zen amildegi iraganezina. Beraz, giza itxuran haragiztaturiko jainkoaren ideia bitxia iruditzen bazaigu ere, ez du ezer harrigarririk antzinako gizakiarentzat; hauxe besterik ez baitu ikusten giza jainko edo jainko-gizonarengan: bere buruari guztiz fede onez egozten dizkion naturaz gaindiko ahalmen berberen maila garaiagoa. Eta ez du egiten inolako bereizketa zorrotzik jainkoaren eta sorgile ahaltsuaren artean. Haren jainkoak, sarritan, magia-gizon ikustezinak besterik ez dira, naturaren estalkiaren atzean xarma eta sorgindura-mota berdinak burutzen dituztenak, magia-gizonak era agerikoz eta gorpuztuz bere kideen artean burutzen dituenak bezalakoak. Eta jainkoak beren gurtzaileei giza itxuraz agertzen zaizkiela sinesten denez, erraza zaio magia-gizonari, bere ahalmen ustez miragarriekin, haragiztaturiko jainkoaren ospea bereganatzea. Ondorioz, hasieran araolari hutsa baino ezer askorik gehiago izan gabe, osagin edo magia-gizonak jainko eta errege gisa agertzerak jo du, biak batean. Dena den, hura jainkotzat jotzeko, erne ibili behar dugu basatiak jainkoaz duen ikusmoldean guk jainko hitzari lotzen dizkiogun ideia guztiz abstraktu eta konplexuak ez sartzeko. Gai sakon honetaz ditugun ideiak bilakaera intelektual eta moral luzearen emaitza dira, eta basatiak, ideiak azaltzen zaizkionean, ez ditzake inondik ere uler, hain daude beragandik urrun. Arraza atzeratuagoen erlijioaz indartu den eztabaidaren parte handi bat elkarrekiko gaizki-

ulertze batetik baino ez da sortu. Basatiak ez ditu ulertzen gizaki zibilizatuaren pentsamenduak, eta gizaki zibilizatu gutxi ulertzen dituzte basatiaren pentsamenduak. Basatiak jainko hitza darabilenean, mota bateko izakia du gogoan; gizaki zibilizatuak jainko hitza darabilenean, oso mota desberdineko izakia du gogoan; eta sarri gertatu ohi denez, bi gizakiak bata bestearen ikuspuntuan jartzeko gauza ez badira, nahasmendua eta okerrak besterik ezin dira sortu beren eztabaidetatik. Guk, gizaki zibilizatuok, jainko hitza geuk jainkoaren izateaz eratu dugun ikusmolde partikular horretara mugatzen segitzen badugu, aitortu beharko dugu basatiak ez duela jainkorik inola ere. Baina bertaragotik atxikiko gatzazkie historiaren egintzei, baldin onesten badugu basati aurreratuenetako gehienek nolabaiteko nozioren bat, hasi-masietan bederen, badutela naturaz gaindiko izaki batzuez. Izaki horiek jainko izenda litezke, guk hitz hau erabiltzen dugun zentzu osoan ez bada ere. Hasi-masizko nozio hori dateke seguruenik herri zibilizatuak pixkanaka bilakatutako jainkoaz dituzten ikusmolde altuen ernamuina; eta baldin erlijioaren garabide osoa marrazterik bageneuka, haxe aurkituko genuke, alegia katea bakar hautsigabeak lotzen dituela jainkotasunaz dugun ideia eta basatiak duena.

Azalpen eta oharpen hauen ondoren, zenbait adibide emango ditut orain gurtzaileen sinesmenaren arabera gizaki bizidunengan, gizon nahiz emakumeengan, haragiztatu diren jainkoez. Jainkoa berengan ageri omen duten pertsonak ez dira beti erregeak edo errege-jatorrikoak izaten, ezta gutxiagorik ere; delako haragiztatze hori maila apaleneko gizakiengan ere gerta daiteke. Indian, esate baterako, giza jainko bat kotoi-zuritzaile gisa hasi zen bizitzen, eta beste bat arotz baten seme gisa. Beraz, erregetzako pertsonaieetatik bakarrik ez ditut aterako nire adibideak, gizon biziak jainkotzearen edo, bestela esanda, jainko bat giza itxuran haragiztatzearen printzipio orokorraren berri eman nahi dudalarik. Halako jainko haragiztatuak erruz ageri dira antzinako gizartean. Haragiztatzea aldi baterakoa nahiz iraunkorra izan daiteke. Lehen kasuan, haragiztatzea -inspirazio edo posesio ere deitu ohi zaio- naturaz gaindiko jakintza gisa agertu ohi da, naturaz gaindiko ahalmen gisa baino. Bestela esanda, haren agerpen ohikoenak aztitza eta igarletza izaten dira, mirariak baino areago. Baina haragiztatzea aldi soil baterako ez denean, alegia jainkozko izpirituak giza gorputz batean egoitza iraunkorki hartu duenean, jainko gizakiak mirariak eginez erakutsiko duela espero ohi da bere izaera. Gogoratu beharra dugu pentsaera-maila honetako gizakientzat mirariak ez direla natura-legearen hausturak. Natura-legerik denik ere sumatzen ez duenez, lehen gizakiak ezin suma dezake hura hauts daitekeenik. Miraria, ahalmen arrunt baten ohiz kanpoko agerpen harrigarria besterik ez da harentzat.

Mundu osoan aurki daiteke aldi baterako haragiztatzean edo inspirazioan sinestea. Onartzen da zenbait pertsona, aldika-aldika, izpiritu edo jainko batek hartzen dituela; egoera horrek irauten dueino, pertsona horien nortasuna etenda geratzen da, izpirituaren presentzia nabari izaten da gizakiaren gorputz osoaren ikara eta astinduen bidez, keinu ero eta begirada asaldatuen bidez; horiek denak gizakiari berari ez baina berarengan sartu den izpirituari egozten zaizkio; eta egoera anormal horretan, adierazpen guztiak onartzen zaizkio berarengan bizi den eta beraren bitartez hitz egiten duen jainko edo izpirituaren ahots gisa. Sandwich irletan, adibidez, erregeak, jainkoa beregan nortuta, zumezko ezkutaleku batetik jaulkitzen zituen orakuluaren erantzunak. Baina Ozeano Barearen hegoaldeko irletan, jainkoa "sarri sartzen zen apaizarengan, eta honek, jainkoak hanpatuta bezala, ararteko borondatedun gisa aritzeari edo hitz egiteari uzten zion, eta naturaz gaindiko eragin baten menpe bailegoen mugitzen edo mintzatzen zen. Alde honetatik, antz harrigarria zegoen polinesiarren orakulu zakarren eta antzinako Greziako nazio ospetsuenen artean. Jainkoa apaizarengan sartu zela etsi bezain laster, hau dardarizo batean hasi eta eromen nabarmen baten azken graduraino iristen zen,

soinadarretako giharrak dardara batean, gorputza hanpatuta, aurpegikera beldurgarri itxuragabetuta eta begiak ero. Egoera hartan, sarritan lurrean bueltaka hasten zen, lerd-jario, hartuta zeukan jainkoaren eraginpean-edo indarka, eta, garrasi sarkorrez eta hots bortiz eta nahasiz, jainkoaren borondatea jakinarazten zuen. Zain zeuden apaizak, misterioen ezagule, hala jasotako adierazpenak hartu eta jendeari jakinarazten zizkioten. Apaizak orakuluaren erantzuna jaulki ondoren, inarrosaldi bortitz hura ematu egiten zen pixkanaka, eta ondotik hala-holako barealdiak segitzen zion. Baina jainkoak ez zion aldegiten adierazpena egin eta berehala. Batzuetan taura edo apaiz berak, bizpahiru egunez segitzen zuen jainkoaren izpirituak hartuta. Mota berezi bateko arropa-puska bat beso batean bilduta izaten zuen, huraxe baitzen inspirazio-seinalea, jainkoa hura jantzita zeukanarengan zegoelako seinale, alegia. Gizaki hark aldi hartan egiten zituenak jainkoarenak bailiran hartzen ziren eta, beraz, arretarik handiena ematen zitzaien haren adierazpenei eta jokaera oso-osoari... Uhuria (jainkozko inspirazioaren menpe) zegoenean, apaiza jainkoa bezain sakratutzat hartzen zen, eta aldi hartan zehar atua deitzen zioten, jainko alegia, nahiz eta beste batzuetan taura edo apaiz besterik izan ez". Baina halako aldi bateko inspirazioaren adibideak hain dira arruntak munduko edozein aldetan, eta hain dira ezagunak etnologi liburuei esker, non ez dugun printzipio orokorraren argibideak ugaltzeko batere premiarik. Ondo legoke, dena den, aldi bateko inspirazioa sortzeko bi modu partikular aipatzea, beste batzuk baino ezezagunago direlako, eta aurrerago horiez mintzatzeko parada izango dugulako. Inspirazioa sortzeko modu hauetako bat opagai baten odol-isuri berria xurgatzea da. Argosko Apolo Diradiotesen tenpluan, bildots bat sakrifikatzen zen gauez hilean behin; emakume batek, kastitate-araua gorde behar zuenak, bildotsaren odola probatzen zuen eta, jainkoak hala inspiraturik, iragarketari edo aztiketari ekiten zion. Akaiako Egiran, Lurraren beretersak, emakume apaizak, zezen baten odol freskoa edaten zuen haitzulora iragarkizuna esatera jaitsi aurretik. Halaberean kuruvikkaranez -Indiako hegoaldeko txori-ehiztari eta eskale-mota bat dira hauek- Kali jainkosa apaizarengana jaisten dela sinesten dute, eta honek erantzun orakularrak ematen ditu ahuntz baten lepo moztutik darion odola xurgatu ondoren. Minahassako alfuren jaialdi batean, Celebesko iparraldean, zerri bat hil ondoren, apaiza habailan oldartzen zaio, sartu burua gorpuan eta odoletik edaten du. Gero indarrez erretiratzen dute eta aulkian eserazten, eta handik iragartzen hasten da urte horretan arroz-uztanola etorriko den. Bigarren aldiz ere oldartzen zaio gorpuari eta odola edaten du; bigarren aldiz behartzen dute aulkira eta berriro ekiten die iragarpenei. Iragarmenaren izpiritua omen du beregan. Aldi baterako inspirazioa eragiteko beste modua -aipatu dugu lehenago- zuhaitz edo landare sakratu bat erabiltzea da. Hindu Kushen, esaterako, sua egiten dute zedro sakratuaren abarrez; eta Dainyal edo sibilak, burua zapi batez estalita, ke lodi garratza arnasten du, harik eta dardarizoka hasi eta kordea galduta lurrera erori arte. Laster jaiki eta kantu sarkor bati ekiten dio, entzuleek berehala jaso eta errepikatzen diotena. Halaxe jaten zuen Apoloren igarlesak ereintz sakratua, eta hartaz kezkatzen zuten iragarketei ekin aurretik. Bakanteek huntza jaten zuten eta, zenbaiten ustez, haien sumin jainkozkoa landare horren indar ernagarri eta intoxikatzailak eragina zen. Ugandan apaizak, jainkoak har dezan, tabako-pipa bat arnasten du neurrigabe, eromenera iristen den arte; orduan, ozenki eta asaldatuta mintzatzen hasten denean, beraren bitartez hitz egiten duen jainkoaren ahotsa ezagutzen dute. Maduran, Javako ipar kostaldeko irla batean, izpiritu bakoitzak bere mediuma izan ohi du, emakumea sarriago gizonezkoa baino. Bere burua izpiritua hartzera prestatzeko, intzentsu-keak arnasten ditu, eseri eta burua intzentsontziaren gainera makurtuta. Pixkanaka, trantze moduko batean erortzen da, garrasi, keinu eta ikara bortitzekin. Izpiritua harengan sartu dela jotzen da, eta zerbait

lasaitzen denean, haren hitzak orakulu gisa hartzen dituzte, harengan bizi den izpirituaren adierazpen gisa, bere berezko arima aldi baterako kanporatu egin baitzaio. Aldi batez inspiratutako pertsonak, jainkozko jakituria ezezik, jainkozko ahalmena ere hartzen omen du, noizbehinka bederen. Kanboian, izurritea zabaltzen denean, zenbait herrixkatak biztanleak bat egin eta, musika-banda buru dutela, bertako jainkoak ustez aldi baterako haragiztatzeko aukeratu duen gizonaren bila abiatzen dira. Aurkitutakoan, jainkoaren aldarera eramaten dute, eta bertan haragiztatze-misterioa gertatzen da. Gero gizona gurgarri bihurtzen zaie herritarrei, eta hauek erregutzen diote arren babes dezala herrixka izurriaren kontra. Apoloren irudi batek, Magnesiatik gertu zen Hylaeko haitzulo sakratu batean eraikitakoak, gizagaineko indarra ematen omen zuen. Gizon sakratuek, hark inspiratuta, amildegietan behera botatzen zituzten beren buruak, sustrai eta guzti erauzten zituzten zuhaitz eskergak, eta bizkarrean eramaten zituzten haizpitarte estuenetan barrena. Derbitxe inspiratuek burututako balentriak ere gisa horretakoak dira. Orain artean ikusi dugunez, basatiek, natura kontrolatzeko duten trebetasunaren mugak bereizi ezinez, naturaz gaindiko deituko geniekeen ahalmenak egozten dizkiete beren buruei eta gizon guztiei. Gainera, ikusi dugu ezen, supernaturalismo orokor honen gainetik, zenbait pertsona izpiritu jainkozko batek hartzen dituela aldi laburretan, eta aldi labur horietan berengan bizi den jainkoaren jakintza eta ahalmena izaten dutela. Pauso laburra dago era honetako sinesteetatik beste konbentzimendu batera, alegia zenbait gizon jainko batek iraunkorki hartzen dituela, edo beste modu zehazgaberenean batean jainkoen mailan jartzeko bezainbateko ahalmen handien jabe direla, baita otoitzen eta sakrifizioen omena jasotzeko ere. Batzuetan giza jainko horiek betekizun naturaz gaindiko edo izpiritual hutsetara mugatzen dira. Beste batzuetan, horrez gainera botere politikoa ere izaten dute. Halakoetan, errege eta jainko izaten dira, eta gobernu, berriz, teokrazia. Adibidez, Markesa irletan baziren gizon batzuk, bizi ziren artean jainkotzen zituztenak. Izadiko elementuen gainean naturaz gaindiko ahala zutela jotzen zen; uza ugariak erakar zitzaizkion edo lurra antzutasun gorrienaz astindu; eta gaixotasuna edo heriotza ere erakar zezaketen. Giza sakrifizioak eskaintzen zizkieten beren suminetik gordetzeko. Ez ziren asko izaten, gehienez ere bat edo bi irla bakoitzean. Bahitura jainkotiarrean bizi izaten ziren. Haien ahalmenak batzuetan, ez beti, oinordekotzaz jasotzen ziren. Misiolari batek bere begiz ikusi bezala deskribatu digu horietako gizon bat. Jainko hau oso gizon zaharra zen, eta hesitutako etxe handi batean bizi zen. Etxean aldare moduko bat zegoen, eta etxearen habeetatik eta inguruko zuhaitzetatik giza eskeletoak zeuden zintzilik, buruz behera. Inor ez zen sartzen esparru hartara, jainkoaren zerbitzurako pertsonak salbu; giza opagaiak sakrifikatzen zituzten egunetan bakarrik sar zitekeen jende arrunta barruti hartara. Giza jainko hark beste jainko guztiek baino sakrifizio gehiago jasotzen zituen; sarritan, bere etxe aurreko oholtza moduko baten gainean eseri eta bi edo hiru giza opagai eskatzen zituen batera. Beti eramaten zizkieten, hainbestekoa baitzen eragiten zuen izua. Irla osoan hel egiten zioten, eta alde guztietatik bidaltzen zizkieten eskaintzak. Halaber, Hegoaldeko Itsasoko irlez, oro har esan zaigunetik, irla bakoitzak jainkoa ordezkatzeko edo beregan nortzen zuen gizon bat omen zuen. Halako gizona jainko zeritzen, eta haien izaera jainkoenarekin nahastuta zegoen. Giza jainkoa batzuetan erregea bera izaten zen; sarriagotan, apaiza edo menpeko buruzagiren bat.

Antzinako egiptoarrak, katuak eta zakurrak eta gisa horretako aberetxoak gurtzera mugatu ordez, gizonak gurtzera ere iritsi ziren eskuzabaltasunez. Giza jainko horietako bat Anabis herrixkan bizi zen, eta erre-opariak eskaintzen zizkieten aldareetan; haien ondotik, dio Porfiriok, bere afaria jaten zuen hilkor arrunten bat bailitzan. Antzinate klasikoan, Enpedokles filosofo siziliarrak azitia ezezik jainkoa ere bazela zioen bere buruaz. Bere herritarrei zuzendutako bertso batzuetan, hala dio:

"Ene lagunok, Agrigentoko hiribildurako hegi urre-kolorean zehar zabaltzen den hiri handi honetan, obra onak burutzen dituzuenok, Arrotzari pausaleku lasai eta gozoa eskaintzen diozuenok, Agur denoi! Zuen artean ohorez nabil eguraldi emez. lore-sortaz apaintzen didazue bekoki izendun hau.

Jadanik ez naiz hil-beharra, orain jainkozko hilezina naiz.

Nondik-nahi nabilela, jendeak bildu eta gurtu egiten nau,

Eta milaka datozkit atzetik biderik onena ikasi nahiz.

Batzuek igarle-ikuspenak desiratzen dituzte, beste batzuek, minez larri, hitz gozoak entzun nahi lituzkete, eta oinazerik jasan ez aurrerantzean".

Berak zioenez, hainbat gauza irakats ziezaiekeen bere jarraitzaileei: haizea aterarazten edo baretzen, euria eragiten eta eguzkia distiratzten, gaixotasuna eta zahardadea ezabatzen eta hildakoak berpizten. Demetrio Poliorzetesek Atenasko demokrazia berrezarri zuenean, K.o. 307an, atenastarrek jainkozko ohoreak agindu zizkioten berari eta bere aita Antigonorri, biak ere bizirik zirelarik, Jainko Salbatzaile titulupean. Aldareak eraiki zitzaizkien salbatzaileei, eta apaiz bat izendatu zen haien gurtzaz arduratzeko. Jendea askatzaileei ongi etorri egitera atera zen himno eta dantzekin, lore-sorta eta intzentsu eta edariekin; kaleetan zehar jarri ziren ilaran eta kantuan hasi ziren: hura zela egiazko jainko bakarra, beste jainkoak lo edo urrunera aldatuak zirelako, edota beste jainkorik ez zelako. Orduko poeta baten hitzetan, jendaurrean nahiz etxe barruan kantatutako hitzetan:

"Jainko guztietan handiena eta maiteena

Etorri da hirira.

Zeren Demeter eta Demetrio

Denborak elkartu egin baititu.

Lehena Ama Birjinaren errito izugarrietarako dator,

Eta bigarrena alai eta eder eta irribera,

Jainkoari dagokionez.

Ikuskizun loriosa, lagun guztiak inguruan dituela,

Bera denen erdian,

Besteak izarrak bezalakoak dira, eta bera da eguzkia.

Poseidon ahaltsuaren seme, Afroditen seme.

Agur zuei!

Beste jainkoek urrunera aldegin dute,

Edo ez dute belarririk,

Edo ez dira, edo ez digute arretarik eskaintzen.

Baina zu hemen ikusten zaitugu,

Ez zur edo harrizko jainko, benetako jainko baizik.

Horregatik, zuri egiten dizugu otoitz".

Antzinako germaniarrek uste zuten emakumeengan bazela santutik zerbait, eta, horren arabera, orakulu gisa kontsultatzen zituzten. Haien emakume sakratuek, esan zaigunez, ibai zurrunbilotsuei begiratzen zieten eta uraren murmurra edo burrunba entzuten zuten, eta ikusten eta entzuten zutenetik auresaten zuten gertatu behar zuena. Baina sarritan gizonen jaurespena aurrerago iristen zen, eta emakumeak egiazko jainkosa bizi bailiran gurtzen zituzten. Adibidez, Vespasianoren erregealdian Veleda izeneko bat, brukterien tribukoa, jainkosatzat hartzen zuten denek, eta beretarren erregina zen, haren itzala alde guztietara iristen zelarik. Urak Rhin ibaira husten dituen Lippe ibaiaren ondoko dorre batean bizi zen. Koloniako jendeak ituna egiteko ordezkariak bidali zizkionean, ez zituzten haren aurrera eraman; negoziazioak ministro baten bitartez burutu ziren, honek haren jainkotasunaren eledun jardun zuelarik, haren adierazpen orakularren berri

emanez. Adibide honek erakusten du gure arbaso zakar haiek zein erraz batzen zituzten jainkotasun eta erregetza-ideiak. Esan izan denez, getatarren artean, gure aroaren hasierara arte, beti omen zen norbait jainko bat pertsonifikatzen zuena, eta jendeak jainko deitzen omen zion. Mendi sakratu batean bizi zen eta erregearen aholkulari gisa aritzen zen.

Dos Santos historialari portugaldar goiztarraren arabera, zinba edo muzinbatarrek - Afrikako hegomendebaldeko herri batekoek- "ez dute idolorik gurtzen edo inolako jainkorik ezagutzen; aldiz, beren erregea gurtzen eta ohoratzen dute, jainkotzat hartuta, eta munduko handiena eta hoberena dela diote. Eta aipatu jainko horrek dio bera dela lurreko jainko bakarra, eta horregatixe, baldin berak halakorik nahi ez duenean euria edo bero handiegia egiten badu, geziak jaurtitzen dizkio ortziari, obeditzen ez diolako". Afrikako hegoaldeko mashonatarrek jakinarazi zioten beren apezpikuari behin jainko bat izan zutela, baina matabeleek urrunarazi zutela. "Azken hitzok ohitura bitxi bat aipatzen dute zeharka: jainko zeritzoten gizon bat edukitzen zuten. Jendeak kontsulta egiten omen zion, eta opariak ere ematen zizkion. Bazen bat magondien buruzagi baten herrixkan, aspaldi batean. Herrixka inguruetan armarik ez disparatzeko eskatu zigute, beldurtu egingo genuela eta". Mashonatarren jainko hau lehenago behartuta zegoen urtero matabeleen erregeari saria ordaintzera, lau idi beltz eta dantza bat alegia. Misiolari batek ikusi zuen jainko hura bere egitekoaren azken parte bat betetzen, erregearen txabolaren aurrean. Hiru ordu luzez, etenik gabe, danbor- eta krisketa-hotsean eta kantu beti berdin baten durundioz, jainko beltxaran hura eromenezko dantzari aritzen zen, sastrea bailitzan kokoriko jarritz, zerria bezala izerditan, eta salto eta jauzika, bere zango jainkotiarren indarra eta zalutasuna agerian jartzen zituen arintasunaz.

Afrikako erdialdeko bagandatarrek Victoria Nyanza lakuko jainko bat sinesten zuten, batzuetan gizon edo emakume baten baitan sortzen zena. Jainko hala haragiztatuari beldur handia zion jende guztiak, baita erregeak eta buruzagiek ere. Gizakitze-misterioa gertatzen zenean, gizona, edo hobeto esan jainkoa, pare bat kilometroz edo urruntzen zen ur-bazterretik, eta han ilberria noiz agertuko zain geratzen zen bere eginkizun sakratuei ekin aurretik. Ilgora ortzian agertzen zen unetik, erregea eta beronen menpeko guztiak gizon jainkozko edo lubarearen (jainkoaren) -halaxe zeritzoten- esanetara geratzen ziren, aginte nagusia zuelarik fede eta errito kontuetan ezezik, gerra eta estatu-politikako gaietan ere. Orakulu gisa egiten zitzaion kontsulta; bere hitzez gaixotasuna uxatu edo senda zezakeen, euria galarazi eta gosetea ekarri. Opari handiak egiten zizkieten aholku eske joaten zitzaizkionean. Uruako buruzagiak -Tanganika lakuko mendebaldeko eskualde zabal bat da hau-, "bere egiten ditu jainkozko ohore eta ahalmenak, eta egunetan jakirik probatu gabe, batere premiarik sentitzeke iraun dezakeelako itxurak egiten ditu; eta hain zuzen, halaxe esan ohi du, jainko denez janari-beharren gainetik dagoela eta jan, edan eta erre egiten badu, horiek ematen dioten plazer hutsagatik egiten duela". Gallatarren artean, emakume bat etxeko lanez neka-neka eginda geratzen denean, zentzurik gabeko hizketari ekiten dio eta jokabide nabarmena azaltzen du. Hori Callo izpiritua etorri zaiolako seinale da. Berehala, senarra aurrean ahozpeztan jartzen zaio eta gurtu egiten du; handik hara, emakumeak ez du etxekoandre titulu apala bere gain hartuko, eta "jauna" deitzen diote; etxeko eginkizunak ez zaizkio bizkarreratzen, eta haren borondatea jainkoaren legea da.

Loangoko herritarrek erregea ohoratzen dute "jainkoa bailitzan; eta sambee eta pango deitzen diote, jainko alegia. Sinesten dute hark nahierara erakar dezakeela euria; eta urtean behin, abenduan, euria behar izaten duten garaian alegia, jendea harengana etorri eta euria ekar dezala erregutzen dio". Abagune horretan, erregeak, bere tronutik, euria erakarriko omen duen gezia jaurtitzen du airera. Beste hainbeste esaten dute

Mombasako erregeaz. Orain dela urte batzuk arte, marine eta soldadu ingelesek haren erregealdi izpiritualari amaiera gogorra eman zioten arte alegia, Beningo erregea gurtzen zuten batik bat bere menpeko lurraldeetan. "Hura hemen Aita Santua Europa katolikoan baino gorago dago; ez baita jainkoaren lurreko ordezkaria, jainkoa bera baizik, menpekoek obeditu eta gurtzen dutena, nahiz eta, nik uste, haien gurtzak beldurrari zor zaizkion maitasunari baino gehiago". Iddahko erregeak honela esan zien Nigerrera egindako espedizioako agintari ingelesei, "Jainkoak bere irudira egin ninduen; Jainkoaren berdina naiz; eta erregetarako aukeratu ninduen".

Birmaniako errege bereziki odolzale batek, Badonsachen izenekoak, aurpegian zuen ezagun berezko ankerkeria, eta haren erregealdian jende gehiago hil zen borreroaren eskuz etsaien eskuz baino. Hari bururatu omen zitzaion gizaki hilkorra baino zerbait gehiago zela, eta bereizkuntza garai hori sari gisa emana zitzaiola bere on egin ugariengatik. Horren arabera, utzi errege titulua alde batera eta bere burua jainkotzen saiatu zen. Asmo horrekin, eta Budaren antzera (hau ere, jainko-mailara iritsi aurretik, bere jauregitik eta emakumeengandik aldegin eta mundutik erretiratu baitzen), Badonsachen hori pagoda eskerga batera erretiratu zen bere jauregitik, inperioko pagodarik handienera, urte askotan zehar hura eraikitzen jardun eta gero. Han monako ikasienekin hizketatu zen, eta onartarazi nahi izan zien Budaren legea gordetzeko emandako bost mila urteak iraganak zirela, eta bera zela aldi haren ondotik agertu behar zuen jainkoa, lege zaharraren ordezkaria berea ezarriko zuena. Baina bere samin handirako, monako askok alderantzizkoa frogatzeari ekin zioten; eta etsipen hark, botere-gosearekin eta bizitza aszetikoaren eskasiek eragindako egonezinarekin batera, laster desengainatu zuten bere ustezko jainkotasunetik, eta atzera bere jauregira eta haremeko emakumeetara itzuli behar izan zuen. Siamgo erregea "jainko baten gisan gurtzen dute. Menpekoek ez diote aurpegira begiratu behar; ahozpezt jartzen zaizkio bera pasatzean, eta belauniko etortzen zaizkio aurrera, ukalondoak lurrean dituztela". Hizkera berezi bat zor zaie haren pertsona eta tasun sakratuei, eta hizkera hori erabili behar dute hartaz edo hari hitz egiten dioten guztiek. Are bertakoek ere zailtasunak dituzte hiztegi berezi hura menperatzen. Erregearen buruko ileek, oinazpiek, gorputzaren arnasak, haren pertsonaren edozein xehetasunek, barrukoa nahiz kanpokoa izan, izen bereziak dituzte. Jaten edo edaten duenean, lo dagoenean nahiz oinez dabilenean, hitz berezi batek adierazten du egintza horiek erregeak egiten dituela, eta hitzok ezin erabil daitezke beste edonoren egintzetarako. Ez da hitzik siamdar hizkuntzan erregea baino maila edo duintasun handiagoko izakiren bat deskribatzeko; eta misiolariak, Jainkoaz ari direlarik, bertakoek errege adierazteko duten hitza erabiltzera behartuta daude.

Baina beharbada, munduan ez da India bezain herrialde emankorrik giza jainkotan; beste inon ez da isuri jainkozko grazia hain neurrigabe gizarte-mota guztietara, hasi erregeengandik eta esnezaleenganaino. Todatarren artean, esaterako -Indiako hegoaldeko Neilgherry Hills aldeko artzain-jendea da hau-, ukuilua da jainkotegia, eta hartaz arduratzen den esnezalea jainkotzat hartzen dute. Esnezale jainkozko hauetako bati galdetu ziotenean ea todatarrek eguzkiari agur egiten dioten, halaxe erantzun zuen: "Gizajo hauek guztiek horixe egiten dute, baina nik?", paparrean tapa-tapa eginez, "nik, jainko batek? Zergatik agurtu behar dut nik eguzkia?" Denak, baita haren aita bera ere, ahozpezt jartzen zaizkio esnezaleari, eta inor ez da ausartzen hari ezer ukatzen. Inork ez dezake uki, beste esnezale batek salbu; eta orakuluak ematen dizkie kontsulta egiten dioten guztiei, jainkoaren ahotsez hitz eginez.

Orobat, Indian "errege guztiak jainkoen pare ikusita daude ia". Manuren lege-liburu hindua harantzago doa, eta hala dio: "Are errege haur bat ere ez da gutxietsi behar, hilkorra dela eta; giza itxura hartu duen jainko handia baita". Diotenez, ba omen zen sekta bat Orissan orain dela urte batzuk, Viktoria erregina bizi zenean, beren jainko

goren gisa gurtzen zuena. Eta gaur egun ere, Indian, beren indar handiagatik edo balioagatik edo ustez ahalmen miragarriak dituelako aipagarri den pertsona bizi orok du jainko gisa gur dezaten arriskua. Punjabeko sekta batek, adibidez, Nikkal Sen izeneko jainko bat gurtzen zuen. Nikkal Sen hau nor izango eta Nicholson jeneral izugarria bera, eta beronek egin edo esan zezan orok ezin zuen hoztu jarraitzaileen suharra. Zenbat eta gehiago zigortzen zituen, hainbat eta beldur handiagoz gurtzen zuten haiek. Benaresen, orain urte asko ez dela, jainko ospetsu bat gizakitu zen, oso izen eufonikoaren jabe zen jaun hindu batengan: Swami Bhaskaranandaji Saraswatiren pertsonan. Manning kardinalaren antz aparta zuen, xaloagoa izatea. Haren begiek gizatasun abegikorrez egiten zuten diz-diz, eta atsegin xaloz hartzen zituen gurtzaile fidakorrek egiten zizkioten jainkozko ohoreak.

Indiako mendebaldeko Chinchvaden, Poonatik hamasei bat klilometrora dagoen hiri batean, familia berezi bat bizi da. Mahrattatar askok eta askok sinesten dute familia horretako kide bat belaunaldi bakoitzeko Gunputty elefante-burudun jainkoa dela giza itxura harturik. Jainko ospetsu hau 1640. urte inguruan bihurtu zen haragi lehen aldiz Poonako brahman baten pertsonan; Mooraba Gosseyn zuen izena brahman honek, eta barau eginez, grinak itoz eta otoitzaren bidez lortu nahi zuen salbazioa. Haren jaiarak bere saria jaso zuen. Jainkoa bera agertu zitzaion gauez ikustaldi batean, eta agindu zion bere zati batek, hots, Gunputtyren izpiritu santuaren parte batek, harengan eta haren askaziarengan hartuko zuela egoitza, hasi beragandik eta zazpi belaunalditan. Jainkoaren agindua bete egin zen. Hurrengo zazpi belaunaldietan, zazpi gizakundek Gunputtyren argia agertu zioten mundu ilunari. Zazpitan azkena, jainko gizen eta begi lausodun bat, 1810. urtean hil zen. Baina egiaren kausa sakratuegia zen, eta elizaren jabegoaren balioa handiegia, eta brahmanek ezin lasai eraman Gunputty ezagutuko ez zuen munduak jasango zuen esan ezinezko galera. Ondorioz, bilatu eta aurkitu ere egin zuten giza ontzi santu bat, zeinetan maisuaren jainkozko izpirituak bere burua agertarazi baitzuen berriro, eta agertarazte haren ondotik ontzi-segida etengabea etorri zen harrez gero. Baina ekonomia izpiritualaren lege misteriotso batek, zeinen ariera erlijioaren historian deitoratu egin dezakegun baina aldatu ez, honakoa erabaki du: giza jainkoak egun zorigabeko hauetan gauzatutako mirariak ezin konpara daitezkeela joandako garaietan gauzatu zituenekin; eta esan ere esan izan da hark sugegorritz osatutako oraingo belaunaldi honi egiten dion mirari bakarra, urtero Chinchvaden afaritan biltzen den jendetzari jaten ematea dela.

Bonbain eta Indiako erdialdean ordezkari asko dituen sekta hindu batek dio beren buruzagi izpiritual edo maharajak -halaxe deitzen diete- Krishna jainkoaren lurreko ordezkariak edo, are gehiago, jainko gizon eginak direla. Eta Krishnak, zerutik, bere ondorengo eta ordezkarien desirak betetzen dituztenei oniritzirik handienaz begiratzen dienez, "norberaren buruaren eskaintza" deritzan errito bitxi bat ezarri da; beronen arabera, gurtzaile fededunek beren gorputz, arima eta, agian are garrantzizkoago dena, ondasunak ere haren haragiztatze gurgarriei ematen dizkiete; eta emakumeei irakasten zaie zorionik handiena lor dezaketela, bai berentzat eta bai beren familientzat, beren buruak izaki horien besoetan jarritz, halakoen jainko-izaera, harrigarria bada ere, benetako giza itxurarekin ezezik, giza grinekin bat eginda baitago.

Kristautasunak berak ere ez die ihes egin gisa honetako amets zoroiei; hain zuzen, sarritan zikindu izan dute Fundatzaile handiaren pareko edo are handiago izan nahi zuten jainko-nahi hutsalen erokeriek. Bigarren mendean Montano frigiarrak bera Hirutasun hezur-haragizko bihurtua zela aldarrikatu zuen, bere pertsona bakarrean Aita, Semea eta Izpiritu Santua biltzen zituen. Eta ez da kasu bakana, gogo desorekatu baten gurari neurritz landakoa. Lehen garaietatik gaur arte, sekta askok sinetsi izan dute Kristo, are gehiago, Jainkoa bera, erabat inizatutako kristau bakoitzarengan haragiztatua dela,

eta sineste hori bere ondoren logikora eramán dute, elkar gurtzera alegia. Tertulianok dioenez, hala egiten zuten Kartagoko bere kristau kideek bigarren mendean; Kolunba santuaren jarraitzaileek Kristoren gorpuzte gisa gurtzen zuten bera; eta zortzigarren mendean Toledoko Elipandok "jainkoen arteko jainko" bailitzan hitz egiten zuen Kristoz, adierazi nahiz sinesle guztiak zirela Jesus bera bezain jainko. Elkar gurtzea ohitura zen albitarren artean, eta halaxe ageri da ehundaka bider Frantziako Tolosako Inkisizioaren agirietan, hamalaugarren mendearen lehen aldean.

Hamahirugarren mendean Izpiritu Santuaren Anai-arrebak izeneko sekta bat sortu zen. Hauek ziotenez, kontenplazio luze eta jarraituaren bidez, gizaki orok egin omen zezakeen bat Jainkoarekin esan ezin den eran, bat bihurtu gauza ororen iturri eta gurasoarekin, eta Jainkoaganaino hala igotakoa eta haren izate zorientsuak zurgatua jainkotasunaren parte omen zen, Jainkoaren Seme, Kristo bera zen zentzu eta era berean, eta, beraz, libertate loriosa omen zuen gizakien eta Jainkoaren legeen oztopoen aurrean. Barrutik sineste zorientsu honek zeramatzala, baina kanpotik zoro eta ergel-itxura harrigarria zutela beren jite eta moduetan, sektariak noraezean ibiltzen ziren batetik bestera, jantzi bitxienak aldean zeramatzatela ogi eske, eroen gisa garrasika eta oihuka, lan eta zeregin zintzo oro suminez errefusatuz, oztopo zirela-eta Jainkoa ikusteko eta arima izpirituen Aitarenganaino igo zedin. Beren ibilaldi guztietan emakumeak izaten zituzten atzetik, eta batasunik estuenean bizi izaten ziren haiekin. Izpirituzko bizitza goren hartan aurrerapen handiena egin zutela jotzen zutenek, ez zuten arropak erabili beharrik izaten beren bilkuretan; txukuntasuna eta apaltasuna barruko ustelkeriaren seinaleztat hartzen zituzten, artean haragiaren menpe herrestan zebilen eta jainkozko izpirituarekiko, muin eta iturriarekiko, komuniora iritsia ez zen arimaren ezaugarritzat. Batzuetan Inkisizioak bizkortzen zien Jainkoarekiko bategite hartarako ibili hori, eta garretan hiltzen ziren, lasaitasun lausogabeaz ez ezik, alaitasun eta atsegin-sentipen garaileenez ere bai.

1830. urtea aldera, Kentuckyrekin mugakide zen Amerikar Batasuneko estatu batean, iruzurti bat agertu zen Jainkoaren Semea zela esaka, gizateriaren salbatzailea alegia, eta berriro etorria zela jainkogabe, sinesgabe eta bekatariei beren egitekoak gogoraztera. Halaxe zioen, haiek laster beren jokabidea aldatzen ez bazuten, seinalea emango zuela, eta lipar batean mundua jo eta birrinduta geratuko zela. Halako ero-haizeen alde agertu ziren are jende aberatsak eta gizartean goi-karguak zituztenak ere. Azkenean alemaniar etorkin xume batek erregutu zion Mesias berriari iragar ziezailela hondamendi lazgarri hura bere herritarrei ere alemanieraz, ez zutela-ta ingelesa ulertzen, eta lastima zela horregatik kondenatzea. Delako salbatzaileak, xalotasun handiz erantzunez, aitortu zion ez zekiela alemanieraz. "Zer?", arrapostu alemaniarrek, "Jainkoaren Seme izan eta hizkuntza guztiak ez dakizkiala, ezta alemaniera ere? Tira, tira, gizatxar hipokrita ero bat haiz hi. Bedlamgo eroetxea duk hiretzako lekuri aukerakoena". Orduan ikusentzuleek barrez hasi eta alde egin omen zuten beren sineskeriaz lotsatuta.

Batzuetan, giza haragiztapena hiltzean, jainkozko izpiritua beste gizaki batengana aldatzen da. Budista tartaroek bizirik diren milaka Buda sinesten dituzte, Lama Handi gisa ari direnak monasterio garrantzitsuenetako buru. Lama Handi horietako bat hiltzen denean, haren jarraitzaileak ez dira tristatzen, bai baitakite laster agertuko dela berriro, haur baten gisan jaiota. Aldi hartan ortzadarra ikusiz gero, aldegindako Lamak bere sehaskara gidatzeko bidali dien seinaleztat hartzen dute. Batzuetan haur jainkotiarrek berak jakinarazten du bere izaera. "Lama Handia naiz", esaten du, "halako edo halako tenplutako Buda biziduna. Eraman nazazue nire lehengo monastegira. Neu naiz hango buru hilezina". Budaren jaiolekua nolanahi jakinarazten delarik ere, dela Budak berak hala aitortuta, dela ortzian agertutako seinalearen bidez, kanpadendak eraitsi eta erromes pozez beteak, maiz erregea edo errege-familiako kide ospetsuren bat buru dutela, haur

jainkoaren bila abiatzen dira, etxera ekartzeko. Gehienetan Tibeten jaioa izaten da, lur santuan, eta harengana iristeko karabanak sarri basamorturik beldurgarrienak zeharkatu behar izaten ditu. Azkenez, haurra aurkitzen dutenean, ahozpeztarri eta gurtu egiten dute. Baina hura bilatzen duten lama handia dela onartu aurretik, ziurtatu egin behar die bere izaera. Galderak egiten zaizkio, zein monastegitako buru den, monastegi hori non dagoen, eta zenbat monako bizi diren bertan; era berean, hildako lama handiaren ohiturak deskribatu behar ditu, eta nola hil zen. Gero hainbat gauza jartzen zaizkio aurrean, hala nola otoitz-liburuak, te-ontziak eta kopak, eta berak aurreko bizialdian erabili zituenak seinatu behar ditu. Hauek guztiak hutsik gabe betetzen baditu, onartu egiten zaio aldarrikapena, eta garaipen-hotsean eramaten dute monastegira. Lasako Dalai Lama dago lama handi guztien buru, Tibeteko Erromakoa alegia. Jainko bizi gisa hartzen dute, eta hiltzean haren izpiritu jainkozko eta hilezina berriro jaiotzen da haur batengan. Zenbait kontaearen arabera, Dalai Lama aurkitzeko modua lama handi arrunt bat aurkitzeko moduaren antzekoa da; deskribatu dugu. Beste kontraera batzuek hautaketa izaten dela diote, urrezko pitxer batetik zotzak ateraz. Jaiotzen denean, zuhaitzak eta landareak hosto berdez jantzten dira: kapuluak loratzen eta ur-iturriak sortzen dira haren aginduz; eta haren presentziak zerutiko onurak zabaltzen ditu.

Baina hau ez da, inola ere, lurralde horietan jainko gisa ageri den gizaki bakarra. Txinako Inperioko jainko haragiztatu guztien erregistroa eramaten dute Pekingo Li fan yuan edo bulego kolonialean, eta lizentzia atera duten jainkoen kopurua ehun eta hirurogeikoa da. Horietarik hogeita hamar Tibetekoak dira, Mongoliako iparraldeak hemeretzi ditu, eta Mongoliako hegoaldea ez datza berrogeita hamazazpi jainko baino gutxiagoren distirapean. Txinako gobernuak, bere menpekoen ongizateaz guraso on gisa arduratuta, debekatu egiten die erregistraturiko jainkoei beste inon berriz jaiotzea, Tibetean izan ezik. Beldur dira jainko bat jaiotzeak ez ote dituen ondorio politiko larriak izango, mongoliarren abertzaletasun lokartua eta izpiritu gerrazalea ernarazi eta, bertako errege-leinuko jainko askonahiren baten inguruan bat eginda, ez ote duten ezpataz irabazi nahiko erresuma aldi berean sekularra eta izpirituala. Baina jainko publiko edo lizentziadun hauez gainera, jainkotxo pribatu asko eta asko daude, edo jainko gisa diharduten lizentziagabeak, mirariak egiten eta jendea bedeinkatzen zulo eta bazterretan; eta azken urteotan Txinako gobernuak onartu egin du jainkoxka txatxar horiek Tibetean kanpo ere berriz jaiotzea. Hala ere, jaio eta gero, gobernuak ez die begia kentzen, beste jardule arautuei bezala, eta haietarik inork jokabide gaiztoa badu, laster kentzen diote gradua, urruneko monasterioren batera erbesteratu eta erabat debekatzen diote berriro ere haragizkotzea.

Erregeak antzinako gizarteetan zuen erlijio-karguari begirada eman eta gero, hauxe atera dezakegu: Egipto, Mexiko eta Peru bezalako inperio historiko handietako erregeen ahalmen jainkozko eta naturaz gaundikoen aldarrikapena ez zela izan hantuste hanpatuaren ondorio hutsa, edo zurikeria kaxkarraren adierazpen soila; are lehenagoko erregeen jainkotze basatiaren iraupena eta hedapena besterik ez zen. Adibidez, eguzkiaren haur ziren aldetik, Peruko Inkak jainko gisa hartzen zituzten; ezin zuten hutsik egin, eta inori ez zitzaion burutik pasatu ere egiten erregearen edo errege-arrazako edonoren pertsona, ohore edo ondasunei kalte egitea. Horregatik, halaber, Inkek (inken buruzagiak Inkak baitziren) ez zuten gaixotasuna gaiztzat hartzen, jende gehienak bezala. Eguzki aitak bidalitako mezutzat hartzen zuten, zeruetan berarekin batera atsedean hartzera joateko deitatzat. Beraz, Inka batek hitz hauetxe erabiltzen zituen hurbil zuen heriotza iragartzeko: "Aitak deitzen dit berarekin atsedean hartzera joateko". Ez zioten kontra egiten aitaren borondateari, ez zituzten sakrifizioak eskaintzen sendatzeko, baizik eta argi eta garbi adierazten zuten dei egin ziela berarekin atsedean hartzera joateko. Haran sargoritsuetatik Kolonbiako Andeatako goi-lautada garaietara

iristean, konkistatzaile espainiarrak harri eta zur geratu ziren, behealdeko oihan itogarrietan utzi zituzten samalda basatien aldean zibilizazio-maila eder hura zuen jendea aurkituta; eta Humboldték Tibet eta Japoniako teokraziekin konparatu zuen haien gobernu-era. Txibtxa eta muiska edo mozkatarrak ziren, bi erresumatan banatuak; Bogota eta Tunja zituzten hiriburuak, baina Sogamozo edo Iracako pontifize nagusiari zioten eraspenak batzen zituen. Nobiziatu luze eta aszetikoaren bitartez, gidari izpiritual honek halako santutasuna iritsia omen zuen non urek eta euriak obeditu egiten baitzioten, eta eguraldia bere borondatearen menpe baitzeukan. Ikusi dugunez, Mexikoko erregeek ere, tronura igotzean, zin egiten zuten eguzkia distiraraziko zutela, hodeiei euria emanaraziko, ibaiei ura garraiaraziko, eta lurrari fruitu eta igaliak ugari emanaraziko zizkietela. Kontatu zaigunez, Moctezuma, Mexikoko azken erregea, jainko gisa gurtzen omen zuen herriak.

Babiloniako lehen erregeek, Sargon I.aren garaitik Ur-ko laugarren dinastiara edo geroago arte, bizi ziren artean jainko zirela aldarrikatzen zuten. Ur-ko laugarren dinastiako erregeek bereziki, beren ohorez eraikitako tenpluak zituzten; beren estatuak ezarri zituzten hainbat jainkotegitan eta sakrifizioak eskaintzeko agindu zioten herriari; zortzigarren hilabetea erregeentzat izaten zen bereziki, eta sakrifizioak eskaintzen zitzaizkien ilberrian eta hilabete bakoitzeko hamabosgarren egunean. Orobat, Arsaziden etxeko errege partiarrek eguzkiaren eta ilargiaren anaiatzat zeuzkaten beren buruak, eta jainko gisa gurtzen zituzten. Sakrilegiotzat jotzen zen are Arsaziden senide arrunt bat sesio batean jotzea ere.

Egiptoko erregeak jainkotu egiten zituzten beren bizialdian, sakrifizioak eskaintzen zizkieten, eta haien jaurespena tenplu berezietan eta apaiz berezien eskutik ospatzen zen. Izan ere, erregeen jaurespenak batzuetan gerizapean uzten zituen jainkoenak. Merenraren erregealdian, adibidez, agintari garai batek adierazi zuen leku santu asko eraiki zituela, zertarako eta erregearen izpirituari, Merenra hilezinari, "jainko guztiei baino gehiagotan" dei egin ziezaioten. "Inoiz ez da zalantzan jarri erregek benetako jainkotasuna aldarrikatzen zuenik; "jainko handia" zen; "Horus urrezkoa", eta Raren semea. Bere agintea aldarrikatzen zuen, Egiptoren gainean ezezik, "lurralde eta nazio guztien" gainean. "Mundu osoak, bere luze-zabalean, sortaldetik sartalderaino", "Eguzkiaren ibilaldi handiaren bira osoak", "ortziak eta bertan denak", "bi nahiz lau oinetan dabilen izaki orok, hegan nahiz igeri egiten duen orok, mundu osoak eskaintzen dio beretik". Eguzki Jainkoaz esaterik zegoen guztia, dogma gisa esan zitekeen Egiptoko erregeaz. Haren tituluak Eguzki Jainkoarenetik zetozen zuzen-zuzenean". "Bere bizitzan zehar", esaten zaigu, "Egiptoko erregeak egiptoarrek asmatutako jainkotasunaren burutapen posible guztiak agortzen zituen. Jaiotzaz eta erregetza bidez gizagaineke jainkoa izanik, jainkotutako gizon bilakatzen zen hil eta gero. Horrela, jainkotasunaz zekiten guztia biltzen zuen berak".

Osatu dugu erregetza sakratuaren bilakaeraren zirriborria, zeren hau ez baita zirriborria besterik; Peru eta Egiptoko monarkietan lortu zuen bere formarik garaiena, bere adierazpiderik osozkoena. Historikoki, badirudi instituzioa magia-gizon publikoen edo osaginen artetik sortua dela; logikaren aldetik, ideien elkartzetiko dedukzio oker baten gainean du oinarri. Gizakiek beren ideien ordena jarri zuten naturaren ordenaren ordeztu, eta horregatik bururatu zitzairen beren pentsamenduen gainean zuten, edo ustez zuten, kontrolari esker, gauzen gainean ere antzeko kontrola izan zezaketela. Arrazoi hau edo hura zela, beren gorputzen indarraren edo ahuleziarengatik, ahalmen hauek ustez goren graduaz zituzten gizakumeak, nabarmenarazi egin zituzten beren kideek, eta klase berezi bihurtu ziren, gizateriaren bilakaera politiko, erlijioso eta intelektualean eraginik handiena izango zuen klasea. Gizarte-aurrerapena, dakigunez, betekizunen gero eta bereizketa handiagoan datza; sinpleago esanda, lanaren banaketan. Lehen gizarteetan denek batera eta denek gaizki, edo gaizki samar, egiten dute lana; pixkanaka, lana

banatuz joango da langile-mota desberdinen artean, eta gero eta hobeto burutuko da; eta lan berezitu honen emaitzak, materialak nahiz material ez direnak, denen artean banatzen diren neurrian, komunitate osoa ateratzen da irabazian espezializatzeko gero eta handiagoaren ondorioz. Badirudi gizartearen bilakaeran magia-gizonak eta osaginak direla klase artifizial edo profesionalik zaharrena. Zeren sorgileak ezagunak ditugun tribu basati orotan aurkitzen baitira; eta basatirik apalenen artean, hala nola australiar jatorrikoen artean, klase profesional bakarra dira. Denboraren joanean, eta bereizketaprozesuak jarraitu ahala, sorgileen saila beste hainbat klasetan banatzen da: gaixotasunak sendatzen dituztenak, eurigileak eta abar; sail horretako kide indartsuenak buruzagitza bereganatu eta errege sakratu bihurtu ahala, bere betekizun magiko zaharrak desagertu egiten dira, eta apaizgoak edo are eginkizun jainkozkoek ordezkatzeko dituzte, magia erlijioak pixkanaka ordezkatzeko duen neurrian. Geroago, partiketa gertatzen da erregetzaren alderdi zibilen eta erlijiosoen artean: botere sekularra gizon bati leporatzen zaio, eta izpirituala beste bati. Bien bitartean azziek, erlijioaren nagusigoak baztertu bai baina desagertarazi ez dituelarik, beren ezkutuko antze zaharrei atxikita segitzen dute, berauek hobetsiz sakrifizioaren eta otoitzaren erritual berriagoaren aldean; eta denboraren harian haietarik azkarrenak magiaren okerraz ohartzen dira eta naturaren indarrak gizakiaren onerako manipulatzeko modu eraginkorragoa asmatzen dute; labur esanda, sorgiletza utzi eta zientziari helden diote. Ez dut esan nahi, inola ere, bilakaeraren bidea nonahi eta estu-estu lerro hauei atxiki zaienik. Ezbairik gabe, alde handiak izan ditu gizarte batzuen eta besteen artean. Baina nik haxe besterik ez dut seinalatu nahi: orokor-orokorrean, joera nagusia zein izan den nire aburuz. Industriaren ikuspuntutik begiratuta, bilakaera betekizunen uniformetasunetik aniztasunerakoa izan da; politikaren ikuspuntutik begiratuta, berriz, demokraziatik despotismora. Azterketa honetan ez gara ari monarkiaren geroagoko historiaz, batez ere despotismoaren gainbeheraz eta beraren ordezkiz giza-eraren premia garaienei hobeto egokitzen zaizkien gobernu-formak ezartzeaz; gure gaia instituzio handi eta, bere garaian, onuragarri baten goraldia da, ez gainbehera.

VIII

Naturaren sailkako erregeak

Aurreko azterketak frogatu du antzinate klasikoaren mugez kanpo ere ageri dela, askotan eta askotan, betekizun sakratuen eta errege-tituluaren arteko batasun bera, Nemiko Basoko Erregeagan, Erromako Errege Sakrifizialagan eta Errege deitutako Atenasko Magistratuagan topatu duguna, eta maila guztietako gizartearen ezaugarri amankomuna dela, barbarotasunetik zibilizazioraino. Gainera, badirudi errege apaiza, izenez ezezik, izatez ere errege dela maiz, eta berdin darabiltzala erregearen eta pontifizearen aginte-makilak. Honek guztiak berretsi egiten du antzinako Grezia eta Italiako errege sekularren eta apaiztarren jatorriari buruzko ikuspegi tradizionala. Besteak beste, tradizio greko-latindarrak botere izpirituala eta sekularra konbinatuta zeudeneko oroitzapena gorde duelako, eta konbinazio hori berez leku askotan izan dela erakutsiz, baztertu egin ditugu tradizioari erants zekizkiokeen gezur-susmo guztiak. Beraz, orain arrazoi osoz galde dezakegu honako hau: ez ote du izan Basoko Erregeak, tradizio egiantzeko batek Erromako Errege Sakrifizialari eta Atenasko Errege sekularrari egozten dien jatorriaren antzekoa? Bestela esanda, haren karguko aitzindariak ez ote ziren izan errege-leinu bat, eta iraultza errepublikarrak ez ote ziren beren botere politikoa erauzi, betekizun erlijiosoak eta koroaren itzala besterik ez utziz? Badira gutxienez bi arrazoi galdera honi ezezko erantzuna emateko. Arrazoi bat Nemiko apaizaren egoitza da; bestea, haren titulua, Basoko Erregea. Aitzindariak errege izan balira, hitz honen ohiko adieran, seguruenik errege-makila galdu zuen hirian bizitzen aurkituko genukeen errege hau, Erroma eta Atenasko errege eroriak bezala. Hiri hori

Aricia izan behar zukeen, ez baitzen besterik gertuago. Baina Aricia basoko jainkote gitik bost kilometrora zegoen, laku-bazterrean. Errege izan bazen, ez behintzat hirian, basoan baino. Orobat, haren tituluak ere, Basoko Erregea, nekez pentsaraz diezaguke inoiz errege izan zenik, hitz honen adiera arruntean bederen. Seguruago, naturako erregea izango zen, naturako alderdi berezi batekoa: basokoa, tituluak adierazten duen bezala. Naturaren sail batzuetako errege dei daitezkeen adibideak aurkitzerik bageneuka, hots, naturaren elementu edo alderdi partikular batzuen gaineko agintea bide zuten pertsonena, seguruenik antz handiagoa izango lukete Basoko Erregearekin, orain arte kontsideratu ditugun jainkozko erregeekin baino; hauek kontrol orokorra baitute naturaren gainean, ez berezitu eta mugatua. Halako sailkako erregeen adibideak ez zaizkigu falta.

Bommako muino baten gainean, Kongo ibaiaren bokaletik gertu, Namvulu Yumu bizi da, euriaren eta ekaitzaren erregea. Nilo Garaiko zenbait tribuz esan zaigunez, ez omen dute erregerik, errege hitzaren adiera arruntekorrak bederen; halakotzat dauzkaten pertsona bakarrak euriaren erregeak dira, Mata Kodou; behar den garaian, hau da, euriteen sasoian, euria eragiteko ahalmena onartzen zaie. Euria egiten hasi aurretik, martxoaren hondarrean, herrialdea basamortu idor eta elkorra da; eta aziendak, jendearen ondasun nagusia, akabatu egiten dira larrerik ezean. Beraz, martxoaren azkena iristean, familiburu bakoitzak euriaren erregeagana joan eta behia eskaintzen dio, zeruko ur bedeinkatua larre gorri zimelduetara isur dezan. Euririk egiten ez badu, jendea bildu eta eskatu egiten dio erregeari euria eman diezaiela; eta ortziak lainorik gabe segitzen badu, sabela irekitzen diote, ekaitzak bertan gordetzen dituelakoan. Bari tribukoaren artean, euriaren errege batek euria eragiten zuen lurra isipu batez zipriztinduz. Abisiniako mugaldeetako tribuen artean antzeko kargua dago, eta halaxe deskribatu du behatzaile batek: "Alfaiaren apaizgoa -halaxe deitzen diote bareatarrek eta kunamatarrek- oso nabarmengarria da; euria eragiteko gai dela uste dute. Kargu hau lehenago algedatarren artean ere bazen, eta badirudi oraindik ere arrunta dela nubatar beltzen artean. Bareatarren alfaia, iparraldeko kunamatarrek ere kontsultatzen dutena, Tembaderetik gertu bizi da, mendi batean, bere familiarekin bakarrik. Jendeak arropa eta fruituak eramaten dizkio oparitan, eta berarena den landa zabala lantzen dio. Errege moduko bat da, eta haren kargua anaiaren edo arrebaren semeagana pasatzen da oinordekotzan. Euriari deitu eta otia urruntzen omen du arao bidez. Baina jendearen itxaropenak zapuzten baditu eta lurralde hartan lehorte handiren bat sortzen bada, alfaia harrika hiltzen dute. Lurralde hartatik pasatu ginenean, alfai kargua agure batek zeraman; baina euri egitea oso arriskutsua suertatu zaiola eta karguari uko egin diola entzun dut".

Kanboiako oihanen bihotzean bi errege misterioitsu bizi dira, Suaren Erregea eta Uraren Erregea deritzenak. Hauen ospea Indotxinako penintsula handiaren hegoalde osoan zehar zabalduta dago; baina oihartzun ahul bat besterik ez da iritsi Mendebaldera. Orain dela urte batzuk arte, guk dakigunez, europar bakar batek ere ez zituen inoiz ikusiak, ez bata ez bestea; eta haiek bazirela ere ipuin hutsa zela egingo zuen bat baino gehiagok, baldin eta ia oraintsu arte haien eta Kanboiako erregearen arteko harremanak ohikoak izan ez balira; Kanboiako erregeak opariak trukatzeko zituen urtero haiekin. Haien errege-betekizunak mistiko edo izpiritual hutsak dira; ez dute aginte politikorik; nekazari soilak dira, beren izerditik eta sinesdunen eskaintzetatik bizi direnak. Kontakizun baten arabera, erabateko bakardadean bizi dira, inoiz elkarrekin topo egin gabe eta giza aurpegiarik ikusi gabe. Zazpi mendi gainetan dauden zazpi dorretan bizi izaten dira hurrenez hurren, eta urtero dorre batetik bestera iragaiten dira. Jendea isilpean etorri eta eskura jartzen die bizitzeko behar dutena. Erregetzak zazpi urtez iraute du, dorre guztietan hurrenez hurren bizitzeko behar den denbora; baina asko hil

egiten dira denbora hori agortu baino lehen. Karguok oinordekotzazkoak dira oso estimu handitan daukaten errege-familia bat edo (beste batzuek diotenez) bitan; ezarritako errentak ematen zaizkie, eta ez daude lurra lantzerantz behartuta. Baina kargu hori ez da irrikatzeko modukoa, noski, eta hutsunea gertatzen denean, gizon aukeragai guztiek (indartsuak eta haurrak dituztenak behar dute izan) hanka egiten dute ezkutatzera. Beste kontakizun batek, oinordekogaiek koroa bereganatzeari dioten higuina onartu arren, ez dio zazpi dorretan ermitari gisa itxita egon ohi direla. Aldiz, jendea ahozpeztan jartzen omen da errege mistikoen aurrean jendaurrera agertu ohi direnetan, eta ustea da haizete beldurgarriren batek herrialdea astinduko lukeela omenaldi-seinale hori egingo ez balitz. Beste hainbat errege sakratu gisa -aurrerago izango dugu horien berri ere-, Suaren eta Uraren erregeei ez diete uzten berez hiltzen, horrek haien ospea apaldu egingo lukeelako. Horren arabera, bietako bat gaixorik larri dagoenean, zaharrak kontsultan biltzen dira eta, hark ez duela onera egingo uste badute, labanaz hiltzen dute. Gorpua erre egiten dute eta errautsak gupidaz bildu eta jendaurrean ohoratzen dituzte bost urtez. Haietako parte bat alargunari ematen zaio, kutxa batean gorde dezan, eta senarraren hilobi aurrera negar egitera doanean bizkarrean eraman dezan.

Kontatu zaigunez, Suaren erregeak, bietan garrantzitsuenak -honen naturaz gaindiko ahalmenak inoiz ez dira auzitan jarri- ezkontza, jaialdi eta Yan edo izpirituaren omenezko sakrifizioetan jarduten omen du. Halakoetan, leku berezia gordetzen zaio; eta etorri behar duen bidean zehar kotoi txurizko jantziak barreiatzen dituzte. Erregetza familia bakar batera mugatzeko arrazoiak haxe da: familia horrek zenbait talisman ospetsu dituela, eta halakoek beren bertutea galduko luketela edo desagertu egingo lirakeela familiatik irtengo balira. Talisman horiek hiru dira: kui izeneko landare igokari baten fruitua, aspaldi batean bildua, azken uholdearen garaian, baina oraindik ere fresko eta berde dirauena; rattan bat, indiar palmondoaren abarrez egindako esku-makila bat alegia, oso zaharra hau ere, baina inoiz zimeltzen ez diren loreak dituen; eta azkenez, Yan edo izpiritua daukan ezpata bat, izpiritu honek babestua eta mirariak egiten dituen. Izpiritua esklabo batena omen da; behin honen odola ezpata-orriaren gainera erori omen zen sutan mailuz lantzen ari ziren unean, eta bere burua hil omen zuen nahigabeko irainaren ordain. Lehen bi talismanen bitartez, Uraren erregeak lur osoa itoko lukeen uholdea sor dezake. Suaren erregeak ezpata zorrotik apur bat ateratzen badu, eguzkia ezkutatu egiten da eta gizaki eta abereak lozorro sakonean hasten dira; zorrotik erabat aterako balu, munduaren amaia litzateke. Burdina harrigarri horri bufalo, zerri, hegazti eta ahateak eskaintzen dizkiote opagaitan euri eske. Kotoi eta zetatan bilduta gordetzen da; eta Kanboiako erregeak urtero bidaltzen zituen oparien artean, ezpata sakratua biltzeko ehun ederrak izaten ziren.

Herrialdean ohi denaz guztiz bestera, hildakoei lur emateaz bestera alegia, bi monarka mistiko hauen gorpuak erre egiten dira, baina azkazalak eta hortz eta hezur batzuk arreata handiz gordetzen dituzte kuttun gisa. Gorpua sutan erretzen den bitartean egiten dute hanka basora hildako magia-gizonaren ordeko hautagaiak, honek hutsik utzitako kargu gorrotagarri horretara jasoko ote dituzten beldurrez. Jendea bila hasten da, eta bere ezkutalekuan aurkitzen duten lehena egiten dute Suaren edo Uraren Errege.

Beraz, hauek dira nik naturako sailetako errege izendatu ditudanen adibideak. Baina lekutan dago Italia Kanboiako basoetatik edo Niloko iturbegietatik! Eta nahiz Euriaren, Uraren eta Suaren erregeak topatu ditugun, oraindik ere Basoko Errege bat aurkitu beharrean gara, Arician titulu hori zeramanaren parekoa. Beharbada etxetik gertuago aurkituko dugu.

IX

Zuhaitzak gurtzea

1. Zuhaitz-izpirituak

Arraza ariarrak European izan duen erlijioaren historian, zuhaitzen gurtzak alde garrantzitsua izan du. Ezin bestela izan. Izan ere, historiaren egunsentian, Europa baso urratugabe eskergaz estalita zegoen, eta soilune bakanak irlatxoan gisan agertuko ziren ozeano berde hartan. Gure aroaz aurreko lehen mendera arte, baso hertziniarra Rhinetik ekialdera hedatzen zen luzera neurgaitz eta ezezagunez; Zesarrek germaniar batzuei galdetu omen zien: bi hilabetez ibiliak omen ziren han barrena, muturrera iritsi gabe. Lau mende geroago Juliano enperadoreak bisitatu zuen, eta basoaren bakardadeak, goibeltasunak eta isiltasunak zirrara handia egin bide zioten haren izaera sentiberari. Esan omen zuen Erromako inperioan ez zuela halakorik ezagutzen. Geure herrian ere Kent, Surrey eta Sussexko basoak Anderidako baso handiaren aztarrenak dira, irlaren hego-ekialdeko partea osorik jantzi zuen basoarenak. Mendebaldera badirudi Hampshiretik Devonera zabaltzen zen beste baso batekin bat egin arte hedatzen zela. Enrike II.aren erregealdian Londresko hiritarrek artean zezen hezigabea eta basurdea ehizatzen zuten Hampsteadeko basoetan. Are plantagenetarren azken erregeen aldian ere, errege-etxearen basoak hirurogeita sei ziren. Ardengo basoan, esaten zenez, garai modernoetaraino katagorri batek zuhaitzetik zuhaitzera saltoka egin zezakeen Warwickshireko bide osoa. Po ibaiaren arroko antzinako aintzirerrietan egindako indusketek erakutsi dutenez, Erroma sortu eta fundatu baino askoz lehenago, Italiako iparraldea zumardi, gaztainadi eta harizti trinkoz estalita zegoen. Kasu honetan historiak arkeologia berresten du; izan ere, idazle klasikoek aipamen asko dakartzate Italiako baso desagertuez. Gure aroko laugarren mendera arte, Ciminiako oiha beldurgarriak (Germaniako basoekin konparatzen du Liviok) bereizten zituen Erroma eta Etruriako erdialdea. Erromatar historialariari sinesten badiogu, ezein merkataria ez zen inoiz barrendua bidezidorrik ere gabeko bakardade haietan; eta sekulako balentriatzat jo zuten erromatar jeneral batek, bi esploradore barrualde nahastu haiek arakatzera bidali ondoren, armada basoan barrena eraman eta, mendi basotsuetako muino batera bidea eginez, Etruriako landa emankorrek han behean zabal-zabal ikusi zituenean. Grezian oraindik badira pinu, haritz eta beste zuhaitzen baso ederrak Arkadiako mendi garaietako hegietan, oraindik ere beren berdetasunaz apaintzen dute haitzarte sakona, eta bertatik doa bizkor Ladon ibaia Alfeo sakratuarekin bat egitera; eta urte gutxi batzuk arte, Feneos laku bakartiko ur urdin ilunetan ispilatzen ziren; baina antzinatean zabaldi handiak janzen zituzten basoen zatiak besterik ez dira, garai urrunagoetan Greziako penintsula itsasotik itsasora zeharkatzen bide zutenenak.

"Tenplu" adierazteko hitz teutoniarrek aztertzean, Grimmek dio beharbada germaniarren artean jainkotegirik zaharrenak basoak izango zirela. Nolanahi ere den, zuhaitz-gurtza ondo frogatuta dago ariar enborreko europar familia handi guztietan. Zelden artean, ezaguna da druidek haritza gurtzen zutela, eta badirudi jainkotegi izendatzeko hitz zaharra jatorriz eta esanahiz latineko nemus hitzaren berbera dela, zuhaiztiko soilunea alegia, oraindik ere Nemi izenean bizirik dirauena. Zuhaizti sakratuak arruntak ziren antzinako germaniarren artean, eta zuhaitz-gurtza apenas desagertu den haien ondorengoen artean gaur egun arte. Gurtza hori garai joanetan zein benetakoa zen, argi ageri da germaniar lege zaharrean. Zigor ikaragarria ezartzen zioten zutik zegoen zuhaitzaren azala zuritzera ausartzen zenari: errudunaren zilborra moztu eta zuritutako zuhaitz aldeari josi behar zitzaion, eta bera zuhaitzaren jira-biran ibiltzera behartzen zuten, harik eta heste guztiak enborraren biran geratzen ziren arte. Argi dago zigorraren asmoa azal hilaren ordeztu errudunari hartutako zerbeit bizi jartzea zela; bizi bizi truke zen hura, gizakiaren bizi zuhaitzaren biziaren truke. Upsalan, Suediako erlijio-hiriburu zaharrean, jainkozkotzat zeuzkaten zuhaizti sakratu bateko zuhaitz guztiak. Eslaviar paganoek zuhaitzak eta zuhaiztiak gurtzen zituzten. Lituaniarrak ez

ziren kristautu ia hamalagarren mendearen azkenera arte, eta konbertitu ziren garaian, zuhaitz-gurtza indarrean zegoen haien artean. Batzuek haritz nabarmenei eta beste zuhaitz itzaltsu handi batzuei egiten zieten adei, haietatik erantzun orakularrak jasotzen baitzituzten. Beste batzuek zuhaizti santuak zeuzkaten herrixka edo etxe inguruetan, eta haien arbazta bat haustea ere bekatu zen. Pentsatzen zuten halako zuhaizti batean abar bat mozten zuena, edo laster hilko zela edo soinadar bat zurrunduko zitzaiola. Antzinako Grezian eta Italian zuhaitzak gurtzen zituztelako frogak ugari dira. Eskulapioren jainkotegian, Kosen, debekatuta zegoen altzifreak botatzea, mila drakmakoa isunpean. Baina beharbada erlijio-era zahar hau metropoli handiaren bihotzean bertan gorde zen hoberen. Foroan, Erromako bizitzaren erdigune zalapartatsuan, Romuloren pikondo sakratua inperioko egunetara arte gurtu zuten, eta haren enborra ihartzeak larria eta izua zabaldu zituen hirian zehar. Orobat, Palatino muinoaren hegaletan bazen Erromako gauzarik sakratuenetakotzat zeukaten zuhandorra. Pasatzen zen edonori zuhaitza ihartzen edo hasita zegoela iruditzen bazitzaion, garrasi egin eta haren oihartzuna kaleraino eramaten zuen jendeak, eta laster ikusiko zen jendetza arrapaladan korrika alde guztietatik, urontziekin, suteran bat itzaltzera presatuko bailiran (hala dio Plutarkok).

Enbor finougriarreko tribuen artean, European, gurtza paganoa hesi batez itxitako zuhaizti sakratuetan burutzen zen gehienetan. Halako zuhaizti bat, sarri, soilune batez eta zuhaitz bakan batzuez besterik ez zen osatzen. Behinola harakaiei larruak zintzilikatzen ziren haietatik. Zuhaiztiaren erdi-erdian, Volgako tribuen artean behinik behin, zuhaitz sakratua egoten zen, eta haren ondoan beste oro ez zen ezer. Haren aurrean biltzen ziren gurtzaileak, eta apaizak otoitzak eskaintzen zituen. Opagaia sakrifikatzen zen oinean, eta abarrak batzuetan pulpitu gisa erabiltzen ziren. Zuhaiztian ez zegoen egurrik biltzerik edo abarrik moztzerik, eta emakumeei gehienetan debekatu egiten zitzaaien bertan sartzea.

Baina xeheki aztertu beharra dago zuhaitz eta landareen gurtzaren oinarrian dauden ideiak. Basatiarentzat, mundua oro har arimaduna da, eta zuhaitzak eta landareak ez dira salbuespena. Haiek ere berea bezalako arimak dituztela jotzen du haiek ere, eta horren arabera tratatzen ditu. "Esan ohi da" dio Porfirio antzinako landarezaleak, "antzinako gizakiek zorigabeko bizitza zutela, haien superstizioa, abereetara ezezik, landareetara ere hedatzen zelako. Izan ere, zergatik izan behar luke idia edo ardia hiltzea izaia edo haritza mozteko baino oker handiagoa, baldin zuhaitz horiek ere arima badute?" Era berean, Iparramerikako hidatsa indiarrek ere sinesten dute naturako gauza orok baduela bere izpiritua, edo zehatzago hitz eginez, bere itzala. Itzal horiei begirunea zor zaie, baina ez denei berdin. Adibidez, zurzuriaren itzalak, Missouri Garaiko haranean den zuhaitzik handienarenak, halako adimena omen du non, beragana behar bezala hurbilduz gero, lagundu egiten baitie indiarrei zenbait egitekotan; baina zuhaixken eta belarren itzalak ez dira oso kontuan hartzekoak. Missouri ibaiak, udaberriko uholdeek hazita, gainezka egiten duenean eta korronteak tantai batzuk inarosten dituenean, esan ohi da zuhaitz izpirituak negar egiten duela zainak lurrari itsatsita iraun bitartean eta enborra, palasta handia eginez, korrontera erortzen den arte. Lehenago, indiarrek uste zuten erraldoi horietako bat mozteagaizki zegoela, eta egur handiak behar zituztenean, berez eroritako zuhaitzak besterik ez zituzten erabiltzen. Orainago ere, zahar sinesberenetako batzuek adierazten zuten beren herriaren zorigaitz asko zurzuri biziaren eskubideak garaiotan aintzakotzat ez hartzetik etorri direla. Irokesez sinesten zuten zuhaitz, zuhaixka, landare eta belar-mota bakoitzak bere izpiritua zuela, eta eskerrak eman ohi zizkieten izpiritu horiei. Afrikako ekialdeko wanikatarren irudimenaren arabera, zuhaitz guztiek, eta bereziki kokondo guztiek, beren izpiritua dute; "kokondo bat suntsitzea ama hiltzearen pareko hartzen dute, zuhaitz horrek bizia eta janaria

ematen dielako, amak bere haurrari bezala". Siamgo monakoek, arimak nonahi direla eta edozer suntsitzeak derrigor arimagabetzen dela sinesten baitute, ez dute zuhaitz baten abarrik hautsiko, "pertsonek errugabearen besoa ere hautsiko ez duten bezala". Monako hauek, jakina, budista dira. Baina animismo budista ez da teoria filosofikoa. Basakumearen dogma arrunta besterik ez da, erlijio historiko baten sistemari erantsi zaiona. Animismoaren eta transmigrazioaren teoriak -Asiako herri hezigabe askotan arrunt zabaldua daudenak- Budismotik datozela uste izatea, Benfeyk eta bestek uste duten bezala, egintzak atzekoz aurrera jartzea da.

Batzuetan zuhaitz-mota jakin batzuk bakarrik hartzen dira izpirituen bizilekutzat. Dalmaziako Grbaljen esaten dutenez, pago, haritz eta beste zuhaitz handi batzuek itzalak edo arimak omen dituzte, eta horietako bat mozten duen edonork bertan hil behar omen du, edo gutxienez handik aurrera elbarrituta bizi. Baldin basomutil bat beldur bada moztu duen zuhaitzen bat mota horretakoa ote den, lepoa moztu behar dio oilo bizi bati motzondoaren gainean, zuhaitza mozteko erabilitako aizkora berberaz. Horrek gaitz orotatik babestuko du, baita zuhaitza arimadunen motakoa izanda ere. Afrikako mendebaldean, Senegaldik Nigerrerraino, begirune handiz tratatzen dituzte landare-zetaren zuhaitzak, altuera ikusgarriaraino hazten baitzaizkie enbor eskergak, beste zuhaitz guztiak izugarri gainditzeraino, eta jainko edo izpiritu baten egoitzatzat jotzen dira. Ewe hizkuntzako herrien artean, Esklaboen kostan, basoko erraldoi honetan bizi den jainkoari Huntin deritza. Beronen egoitza diren zuhaitzak -ez baitio landare-zetaren zuhaitz orori egiten halako ohorea- palmondo-hostozko hesi batez inguratuta egoten dira; eta hegazti eta inoiz gizaki opagai eskainiak lotzen dizkiete enborrari, edo zuhaitzaren oinean uzten dituzte. Palmondo-hostozko hesiz inguratutako zuhaitza ez dago inolaz ere moztetik edo zauritzerik; eta ustez Huntinen arimarik ez duten landare-zetaren zuhaitzak ere ezin dira moztu, baldin aurrez basomutilak hegazti eta palma-oliozko sakrifizioa eskaintzen ez badu egin asmo duen sakrilegio horretatik bere burua garbitzeko. Sakrifizioa ez egitea heriotzaz zigor daitekeen lege-haustea da. Punjabeko Kangra mendietan neska bat sakrifikatzen zioten urtero zedro zahar bati, herrixkako familiak txandakatu egiten zirelarik opagaia emateko. Ez dira urte asko zuhaitza moztu zutela.

Zuhaitzak arimadun badira, sentikorrak izan behar derrigor, eta haiek moztea ebakuntza zaila bilakatzen da, jasaten duenaren sentipenekiko ahalik eta jarrera samurrenaz burutu beharrekoa, bestela jo eta txikitu egingo bailuke ebakuntzaren egile axolakabe edo baldarra. Haritz bat mozten ari direnean "aiene eta garrasi modukoak jaurtitzen ditu, bi kilometrora ere entzun daitezkeenak, haritzaren jeinuaren lantua bailitza. E. Wyld jaunak zenbait aldiz entzun du". Ojibwa indiarrek "oso gutxitan botatzen dituzte zuhaitz berde edo biziak, min ematen dietela imajinatzen dutelako, eta haien osagin batzuek aitortzen dute zuhaitzek aizkorari egindako aieneak entzun dituztela". Txinatar liburuetan, are istorio arruntetan ere, askotan agertzen dira ebakitzen edo erretzen dituztenean odola jariatzen duten edo oinazezko garrasiak jaurtitzen dituzten zuhaitzak. Austriako alde batzuetako nekazari zaharrek oraindik sinesten dute zuhaiztiak arimadunak direla, eta ez dute onartuko azalean inolako ebakirik egitea arrazoi bereziren bat tarteko ez bada; gurasoei entzuna diete zuhaitzak ebakia sentitzen duela, zauritutako gizakiak bere zauria bezala. Zuhaitz bat moztetakoan barkamena eskatzen diote. Palatinatu Garaian ere basomutil zaharrek, oraindik ere, barkatzeko eskatzen omen diote ezkutuan zuhaitz lerden ederrari, eraitsi aurretik. Orobat Jarkinon ere, basomutilak arren barkatzeko eskatzen dio botatzen duen zuhaitzari. Luzongo ilokanetarrek, oihan urratu gabeen edo mendietan zuhaitzak eraitsi aurretik, bertso batzuk jaulkitzen dituzte, gisa honetakoak: "Ez zaitez urduritu, ene lagun, mozteko agindu zaiguna mozten dugu". Zuhaitzetan bizi diren izpirituen gorrotoa beren gainera

ez erakartzeko egiten dute hala, arbolek mendeku har baitezakete, inolako gupidarik gabe mintzen dituztenei gaixotasun oinazetsuak ekarriz. Erdialdeko Afrikako basogatarrek uste dute zuhaitza eraisten denean, bertan bizi den izpiritu haserretuak heriotza ekar diezaiekeela buruzagiari eta buruzagiaren sendiari. Kalte hau gerta ez dadin, zuhaitza bota aurretik aholku eskatzen diote sorgile bati. Adituak baimena ematen badie, basomutilak lehenik hegatzia eta ahuntza eskaintzen dizkio zuhaitzari; gero, lehen aizkorakada jo bezain laster, ahoa jartzen du ebakian eta izerdi pixka bat zurgatzen dio. Horrela, zuhaitzaren ahaide bihurtzen da, bi gizon elkarren odola zurgatuz odolezko anaia bihurtzen diren bezala. Horren ondoren, zigorren beldurrik gabe eraits dezake bere ahaide zuhaitza.

Baina landaretzako izpirituak ez dira beti begirunez tratatzen. Hitz gozoek eta kortesiazko trataerak eragiten ez badie, neurri bortitza goetara jo ohi da batzuetan. Ekialdeko Indietako durioak, enborra hogeita hamar edo hogeita hamabost metroko altueraraino abarrik gabe duen zuhaitzak, zapore gozoneneko eta hats higuingarrieneko fruitua ematen du. Malakarrek fruituagatik landatzen dute zuhaitza, eta gauza jakina da zeremonia bitxi bat egin izan dutela haren emankortasuna bultzatzeko. Selangorko Jugratik gertu bada durio zuhaitzen basotxo bat, eta egun aukeratu batean herritarrek bertan biltzeko ohitura zuten. Orduan, bertako sorgile batek aizkora hartu eta kolpe batzuk ematen zizkion tentuz fruitu gutxien ematen zuen zuhaitzaren enborrari, honela esanez: "Emango duzu fruiturik ala ez? Ematen ez baduzu, bota egingo zaitut". Zuhaitzak erantzun egiten zion gertuko mangostin zuhaitz batera igotako beste gizon baten ahotik, (durio zuhaitzera ez baitago igotzerik): "Bai, emango dut fruitua; arren ez nazazu bota". Japonian ere, zuhaitzek fruitu eman dezaten, bi gizon arboladira joaten dira. Bat zuhaitz batera igotzen da eta bestea oinean geratzen da aizkora batez. Aizkoradunak galdetzen dio zuhaitzari ea hurrengo urtean fruitu ugari emango dituen, eta ezezkotan mehatxu egiten dio, moztu egingo duela. Abar artean dagoen gizonak, zuhaitza bailtzan, erantzuten dio ugari emango duela. Baratzaintza hau oso arraroa iruditzen bazaigu ere, pare-parekoak ditu European. Gabon egunean Eslavoniako hegoaldeko eta Bulgariako nekazari askok, aizkora eskuan hartuta, mehatxukor astintzen dute frutarbola urri baten kontra, han dauden beste gizon batzuek zuhaitz mehatxatuaren alde egiten dutelarik, hitz hauek esanez: "Ez ezazu eraits; laster emango du fruta". Aizkora hirutan jasotzen dute, eta hirutan gerarazten dute aizkorakada arartekoaren erreguz. Honen ondoren, gauza segurua da hurrengo urtean arbola ikaratuak fruta emango duela.

Zuhaitzak eta landareak izaki arimadun gisa hartzen direnez geroztik, berez dator ar eta eme gisa tratatzea; ezkondu ere egin daitezke elkarrekin, eta ez hitz horren adiera irudizko edo poetiko hutsean, benetan baizik. Pentsabide hau ez da irudimen hutsezkoa, zeren eta landareek, abereek bezala, sexua baitute, eta ar eta emeen elementuak batuz ugaltzen baitira. Baina animalia garatuenean artean bi sexuen organoak norbanako desberdinen artean bereizita dauden bezala, landare gehienetan batera daude, espeziearen banako bakoitzean. Arau hau, ordea, ez da inola ere unibertsala, eta espezie askotan landare arrak eta landare emeak daude. Bereizketa honi erreparatu zioten zenbait basatik, nonbait, zeren eta, kontatu zaigunez, maoriek "ezagutzen dituzte zuhaitzen sexuak eta abar, eta izen desberdinak dituzte zenbait zuhaitz arrarentzat eta zuhaitz emearentzat". Antzinakoek ezaguna zuten palmondo arren eta emeen arteko aldea, eta artifizialki ernaltzen zituzten, arraren lorautsa emeen loreen gainean astinduz. Ernalketa udaberrian gertatzen zen. Harrango paganoek "datilaren hilabetea" deitzen zioten palmondoak ernaltzen ziren hilabeteari, eta sasoi horretan ospatzen zuten jainko eta jainkosa guztien ezkontza-jaiak. Palmondoaren ezkontza benetako eta emankor hau ez bezalakoak dira hinduen sineskerietan beren lekua duten landareen ezkonta faltsu

eta antzuak. Adibidez, hindu batek mango-arboladi bat landatu badu, ez berak ez emazteak proba dezakete fruta zuhaitza behar bezala ezkondu ez duten arte, gizon ezkongai bailitzan, beste mota bateko zuhaitz batekin, gehienetan zuhaiztian gertu dagoen tamarindo batekin. Ezkontidetarako tamarindorik ez bada, jasmin-arbola batek hartzen du haren tokia. Halako ezkontza baten gastuak handiak izaten dira sarritan; izan ere, jaira zenbat eta brahman gehiago gonbidatu, hainbat eta aintza handiagoa zuhaiztiaren jabearentzat. Familia batek urre eta zilarrezko bitxi guztiak saldu eta dirua mailegutzan eskatu omen zuen, mangondo bat jasmin-arbola batekin behar bezalako ospez eta arrandiz ezkontzeko. Gabonetan germaniar nekazariak elkarrekin lotzen omen zituzten frutarbolak lastozko lokarritz, fruta eman zezaten, hala zuhaitzak ezkontuta zeudela esaten zutelarik.

Moluketan, iltze-belarrak loretan daudenean, emakume haurdunak bezala tratatzen dituzte. Ezin da zaratarik atera haien inguruan; gauez ezin eraman daiteke argirik edo surik haien artetik pasatzean; inork ez dauka haiengana hurbiltzerik kapela buruan duela, denek kendu behar omen dute burukoa haren aurrean. Ardura hauek zuhaitza asalda ez dadin eta fruiturik eman gabe gera ez dadin hartzen dira, edo fruitua goizegi aska ez dezan (emakumea haurdunaldian ikaratu eta garaia etorri baino lehen erditzen den bezala). Orobat, ekialdean, hazten ari den arrozari haurdun dagoen emakumeari bezalako arreta eskaintzen zaio. Ambonen, esaterako, arroza loretan dagoenean, jendeak haurdun dagoela esaten du, eta ez du tirorik egiten edo bestelako zaratarik ateratzen alor haren inguruetan, beldurrez halako enbarazua eginez gero arroza galduko ote den eta uzta, osoa alerik batere ezta, lasto hutsa izango ote den.

Batzuetan uste izaten da zuhaitzak hildakoen arimek animatzen dituztela. Australiako erdialdeko dieriek oso sakratutzat dauzkate zuhaitz batzuk, beren gurasoak direlakoan, eraldatuta; beraz, begirunez hitz egiten dute zuhaitz horietaz, eta kontu handia izaten dute inork moztu edo erre ez ditzan. Baldin kolonoek zuhaitzak botatzeko deitzen badiete, protesta larria egiten dute horren kontra, esanez hala eginez gero ez luketela zorte onik izango, eta zigortuak izango liratekeela arbasoak ez babesteagatik. Filipinarrek sinesten dute arbasoen arimak zenbait zuhaitzetan daudela, eta ondorioz errespetatu egiten dituzte. Zuhaitz horietako bat moztera behartzen badiutze, beren buruak zuritzen dituzte, esanez hori apaizak eginarazi diela. Izpirituek, aukeran, abar handi eta zabalekiko zuhaitz tantai eta itzaltsuetan hartzen dute egoitza. Haizeak hostoak murmur jartzen dituenean, bertakoek izpirituaren ahotsa dela jotzen dute; eta inoiz ez dira pasatzen zuhaitz hauetako baten ondotik burua adeiki apaldu eta haren atsedena urratzeagatik barkamena eskatu gabe. Ignorroteen artean, herrixka bakoitzak bere zuhaitz sakratua du, eta bertan bizi dira arbaso hilen arimak. Eskaintzak egiten zaizkio zuhaitzari, eta berari egindako edozein kalte zoritxarren bat ekarriko omen lioke herrixkari. Zuhaitza eraitsiko balute, herrixka ere desagertu egingo omen litzateke bere biztanle guztiekin.

Korean, izurriteagatik edo bideetan hiltzen den jendeak, eta haurgintzan hiltzen diren emakumeek, zuhaitzetan hartzen dute denek egoitza. Halako izpirituei pastela, ardoa eta zerrikia eskaintzen zaizkie zuhaitz azpian egindako harri-piletan. Txinan antzina-antzinatik datorren ohitura da hilobietan zuhaitzak landatzea, hartara hildakoaren arima indartu egingo delakoan eta, beraz, gorpua usteltzetik salbatuko delakoan; eta altzifre eta pinu bizikorrak beste zuhaitzak baino bizi-indarrez beteagotzat dauzkatenez, berauek aukeratzen dituzte xede honetarako. Horregatik, batzuetan, hilobien gainetan hazten diren zuhaitzak zendutakoen arimak direla jotzen dute. Miao-kiatarren artean -jatorria Txinako hego eta mendebaldean duen arraza bat da hau-, zuhaitz sakratu bat egon ohi da herrixka bakoitzeko sarreran, eta herriarrek sinesten dute lehen arbasoaren arimaren egoitza dela, eta berak arautzen diela patua. Batzuetan zuhaizti sakratua izaten da

herrixka baten ondoan: zuhaitzak galdu eta usteldu egiten dira han, eta bertan hil; erortzen zaizkien abarrek lurra trabaz betetzen dute, eta inork ezin ditzake handik ken, baldin aurrez zuhaitzeko izpirituari baimena eskatu ez badio, eta sakrifizioa eskaintzen ez badio. Afrikako hegoaldeko maraveen artean, hilerria leku santua izaten dute beti: han ez dago zuhaitzik botatzerik edo abererik akabatzerik, han den guztia hildakoen arimek bizilekutzat hartuta daukatelakoan.

Kasu hauetako gehienetan, denetan ez bada, izpirituak zuhaitzarekin bat egin duela uste dute; berak animatzen du zuhaitza eta berarekin galdu eta hil behar omen du. Baina, beste iritzi agian beranduagoko baten arabera, zuhaitza ez da izpirituaren gorputza, egoitza baino, eta nahierara aldegin eta itzul daiteke bertara. Siaooko biztanleek (Ekialdeko Indietako irla batekoek) oihasen izpiritu batzuk sinesten dituzte, basoetan edo tantai bakartietan bizi direnak. Ilbetean izpirituak bere ezkutalekutik irteten da, eta hara eta hona ibiltzen. Buru handia du, oso beso eta zango luzeak, eta gorputz astuna. Basoko izpirituak aldeko izateko, jendeak jakiak, hegaztiak, ahuntzak eta abar ekartzen dizkie oparitan haiek ageri ohi diren lekuetara. Niasko jendeak pentsatzen du ezen, zuhaitz bat hiltzen denean, askatutako izpirituak deabru bihurtzen dela, begiratu hutsez koko-palmondo bat hil dezakeena, eta etxe bateko haur guztien heriotza ekar dezakeena, beroni eusten dioten zutabeetako batetik zintzilikatzen bada. Gainera, uste dute, zenbait zuhaitz noraezean dabilten deabruen bizileku direla eta, baldin zuhaitzei kalte egingo balitzaie, haiek libre geratuko liratekeela beren ibilera gaiztoei ekiteko. Horregatik, jendeak errespetatu egiten ditu zuhaitz horiek, eta kontu handia izaten du ez mozteko.

Zuhaitzok eraisterakoan ikusitako zeremonia ez gutxi honako sineste hau dute oinarri, alegia izpirituak alde egin dezaketela gogoak hala eman edo behar izanez gero. Palaos irlakoak zuhaitza mozten ari direnean, esaterako, araoa egiten diote zuhaitzaren izpirituari handik aldegin dezan eta beste batean koka dadin. Esklaboen kostako beltz maltzurak, ashorin arbola bota nahi duelarik, baina jakinik izpirituak zuhaitzean dagoen bitartean ezin duela halakorik egin, palma-olio pixka bat ipintzen du lurrean beita gisa, eta gero, izpiritu susmogabeak, hura goxoki dastatzeko, zuhaitzetik aldegin duenean, azken egoitza izan duen zuhaitza eraisteari ekiten dio laster batean. Celebesko toboongkoek baso-zati bat soildu eta garbitu nahi dutenean arroza ereiteko, etxetxo txiki bat eraikitzen dute, eta arropatxo eta janari eta urre-pixka batez hornitzen dute. Gero basoko izpiritu guztiei egiten diete dei, etxetxoa eta bertako gauza guztiak eskaintzen dizkiete, eta leku hartatik aldegiteko erregutzen. Horren ondoren, batere arazorik gabe eraits dezakete basoa, beren buruak zauritzeko beldurrik gabe. Celebesko beste tribu batekoek, tomoriek, betel-ahatara bat uzten dute tantai baten oinean hura moztu aurretik, eta egoitzaz aldatzeko gonbita egiten diote zuhaitzean bizi den izpirituari; gainera, eskaileratxoa uzten dute zuhaitzaren kontra, seguruago eta erosoago jaits dadin. Sumatrako mandelingak halako gaiztakerien erru guztia holandar agintarien bizkar uzten saiatzen dira. Horregatik, gizon bat basoan bidea irekitzen ari denean eta bidea oztopatzen duen tantai bat moztu behar duenean, ez dio ekingo aizkorari honako hau esan aurretik: "Zuhaitz honetan bizi zaren izpiritu hori, ez zaitez nahigabetu zure egoitza eraisten badut, ez baitut neuk nahita egiten, ugazabaren aginduz baizik". Eta baso-sail bat nekazaritzarako garbitu nahi duenean, beharrezkoa du baso hartan bizi diren izpirituarekin ulerpidean jartzea, haien egoitza hostotsuak eraitsi aurretik. Horretarako, aukeratutako lur zatia erdira joan, makurtu eta gutun bat jasotzen duelakoa egiten du. Gero, paper-zati bat destolestuz, ozenki irakurtzen du holandar gobernuaren gutun asmatutako bat, agindu zehatza ematen diona: lurralde hori garbitzeari lehenbailehen ekin diezaiola. Hori egin ondoren, honela esaten du: "Aditu duzue, izpirituok. Berehala hasi behar dut garbiketan, bestela urkatu egingo naute".

Are zuhaitz bat moztu, oholak egin eta etxegintzan erabili ondoren ere, basoko izpirituek zur artean gordeta iraun lezakete; hau dela eta, zenbaitek eztitu egin nahi izaten ditu izpirituak, etxe berrian bizitzen jarri aurretik edo ondoren. Horregatik, egoitza berriren bat prest dagoenean, Celebesko toradjek ahuntza, zerria edo bufaloa hiltzen dute, eta haren odolaz igurtzitzen dute zuraje guztia. Baldin eraikina lobo bada, izpirituen etxea alegia, hegaztia edo zakurra hiltzen dute teilatuaren erpin gainean, eta odola bi aldeetara isurtzen da. Tonapootarrak, ankerragoak izaki, gizakia sakrifikatzen dute halakoetan teilatu gainean. Lobo edo tenplu horren teilatu gaineko sakrifizioak etxe arrunteko zurajea odolez igurtzitzeak bezalako xedea du: zur artean geratu bide diren basoko izpirituak eztitzea; hartara, umore oneko jarriko dira eta ez diete kalterik egingo etxekoei. Antzeko arrazoi batengatik, Celebesko eta Moluketako jendeak beldur handia dio etxea eraikitzean zutabe bat azpikoz gora ipintzeari; izan ere, zur artean legokeen basoko izpiritua mindu egingo litzateke irainagatik, bidezkoa denez, eta gaixotasunak bidaliko litzieke etxekoei. Borneoko kayandarren iritziz, zuhaitz-izpirituak oso sentiberak dira ohore-kontuetan, eta bisita egiten diete gizonei beren nahigabeekin, egin zaizkien irainengatik. Horregatik, etxea eraiki ondoren, horretarako zuhaitz asko gaizki erabiltzera behartuak izan direnez, jende horrek urtebeteko penitentzialdia izaten du, bitarte horretan gauza askori uko egin behar diotelarik; besteak beste, hartzak, tigreak eta sugeak akabatzeari.

2. Zuhaitz-izpirituen ahalmen onurakorrak

Zuhaitz bat, izpirituaren gorputz ez baina izpirituak bere gogara laga dezakeen egoitza huts kontsideratzera iristen direnean, aurrerapen handia egin da pentsaera erlijiosoan. Animismoa politeismo bihurtzen ari da. Bestela esan, zuhaitz bakoitza izaki bizi eta kontzientetzat hartu ordez, orain gizakumeak mukulu bizigabe gisa ikusten du soilik, denboraldi luzeagoan edo laburragoan naturaz gaindiko izaki batek egoitatzat hartzen duena; izaki honek, zuhaitzetik zuhaitzera libre ibiltzea daukanez, nolabaiteko jabego edo jaurgio-eskubidea du zuhaitzen gainean eta, zuhaitz-arima izateari utzirik, basoko jainko bihurtzen da. Zuhaitz-izpiritua neurri batez zuhaitz bakar batekiko loturatik aske geratzen den bezain laster, itxuraz aldatzen hasten da eta gizonaren gorputza hartzen du, lehenagoko pentsaeraren joera bat dela medio: izaki izpiritual abstraktu guztiak giza itxura konkretuz janztekoa. Horregatik, arte klasikoan oihaneke jainkoak giza itxuran irudiztatu dira, abar batek edo beste sinbolo nabariren batek adierazten duelarik haiek basokoak direla. Baina itxura-aldaketa honek ez du eraginik zuhaitzeko izpirituaren baitan. Zuhaitz batekin bat egindako izpiritu gisa zituen ahalmenak gordetzen ditu orain, zuhaitzen jainko gisa ere. Hau xeheki frogatzen saiatuko naiz orain xeheki. Erakutsiko dut, lehenik, izaki arimaduntzat jotako zuhaitzei euria eragiteko ahalmena egozten zaiela, eguzkia irtenaraztekoa, artaldeak eta beste aziendak ugalaztekoa eta emakumeei hargitea erraztekoa; eta bigarren, zuhaitz-jainkoei ahalmen berberok leporatzen zaizkiela, giza itxurako izaki edo are gizon bizi eginik gogoematen dituztenean ere.

Lehenik, beraz, zuhaitzek edo zuhaitz-izpirituek euria eta eguzkiaren argia ematen dutela sinesten da. Pragako Jeronimo misiolaria fedegabe lituaniarrak beren zuhaizti sakratuak motz zitzaten limurtzen ari zenean, emakume-saldo batek misiolaria geraraz zezala erregutu zion Lituaniako printzeari, esanez ezen, basoekin batera, euria eta eguzkia ematen zizkien jainkoaren etxea desegiten ari zela. Assamgo mundaritarrek pentsatzen dute ezen, baldin zuhaizti sakratuko zuhaitz bat mozten bada, jainko oihandarrek euria gordez adierazten dutela beren nahigabea. Euria egin zezan, Monyoko biztanleek -Birmanian Garaiko Sagaining eskualdeko herrixka da hau- bertatik gertu zegoen tamarindo handiena aukeratu eta euria kontrolatzen duen nat izpirituaren gordeleku izendatu zuten. Gero ogia, kokoak, platanoak eta hegaztiak eskaini zizkioten herrixkaren zaindari zen eta euria ematen zuen izpirituari, eta

hala egin zuten otoitz: "Nat jauna, erruki zakizkigu gu errukarri hilkorroi, eta ez geldiarazi euria. Gure eskaintza borondate onez egina denez, bidaliezaguzu euria gau eta egun". Ondoren, edan egin zuten tamarindo arbolaren izpirituaren ohoretan, eta gero hiru emakume adinekok, arropa finez jantzirik eta lepokoak eta belarritakoak aldean zeramatzatela, euriaren kanta kantatu zuten.

Orobat, zuhaitz-izpirituek uzta ugaria eragiten dute. Mundaritarren artean, herrixka guztiek dute beren zuhaizti sakratua, eta "zuhaiztiko jainkoengan jartzen da uztaren ardura, eta ohore bereziak egiten zaizkie nekazal ospakizun handi guztietan". Urre-kostako beltzek sakrifizioak eskaintzen dituzte zenbait tantairen oinetan, eta pentsatzen dute horietakoren bat moztuko balitz, munduko fruitu guztiak galdu egingo liratekeela. Gallatarrek bikoteka egiten dute dantza zuhaitz sakratuen biran, uzta ona izan dadin otoitz eginez. Bikote bakoitza gizonezkoak eta emakumezkoak osatzen dute, ziritxo batez lotuta biak, bakoitzak mutur bati heltzen diolarik. Besapean ale heldugabeak edo belarra eramaten dute. Suediako nekazariak abar hostotsu bat ezartzen dute soroetako ildo bakoitzean, hartara uzta ugaria izango dutela sinetsiz. Ideia bera ageri da "uzta-maiatza" delako alemaniar eta frantziar ohituran. Hau abar handi bat edo zuhaitz oso bat da, artaburuz apaindua, uzta-alorretik azken gurdikadan etxeratua eta etxaldeko edo bihitegiko sabaitik esekia, bertan urtebetez egoteko. Mannhardtek frogatu du abar edo zuhaitz honek landaretzaren izpiritutzat hartzen den zuhaitz-izpiritua gorpuzten duela, eta honela laborearen gainera aldatzen dela eragin bizigarri eta emankorra. Horregatik, Suabian, "uzta-maiatza" soroan utzitako azken kanaberen artean zintzilikatzen da; beste leku batzuetan soroan landatzen dute eta moztutako azken azaoa enberrari lotzen diote.

Orobat, zuhaitz-izpirituek artaldeak ugalarazten dituzte eta emakumeei umeak ematen dizkiete. Indiako iparraldean *Emblica officinalis* izeneko zuhaitza sakratua da. Phalgun hilabetearen (otsailaren) hamaikagarren egunean, edariak isurtzen dira zuhaitzaren oinean, soka gorria edo horia lotzen zaio enberraren jiran, eta otoitzak eskaintzen zaizkio emakumeak, abereak eta uztak emankor gerta daitezen. Indiako iparraldean, halaber, fruitu sakratuenetakotzat daukate kokoa, eta sriphala deitzen diote, ongizatearen jainkosa den Sriren fruitua alegia. Emankortasunaren sinbolo da, eta India Garai osoan zehar kaperetan gordetzen dute, eta apaizek ama izan nahi duten emakumeei aurkezten diete. Qua hirian, Calabar zaharretik gertu, palmondo bat landatu ohi zuten; haren fruituetarik jaten zuen emakume antzu oro haurdun geratzen omen zen. European, "maiatz-arbolak" ere emakume eta azienden gainean antzeko ahalmenak dituela uste da. Alemaniako zenbait aldetan, adibidez, maiatzaren lehenean, nekazariak maiatz-arbolak edo arbolatxoak jartzen dituzte ukuilu eta kortetan, bat zaldi edo behi bakoitzeko; hartara behiek esne asko ematen omen dute. Irlandarrez kontatu zaigunez, "irudi egiten dute zuhaitz-abar berde batek, maiatzaren lehenean etxearen kontra lotuta, esne asko emanaraziko duela uda horretan".

Uztailaren bigarrenegun wenda batzuek haritz bat ezartzen zuten herri erdian, gainean burdinazko oilarra zuela; gero haren inguruan dantza egiten zuten, eta hari biraka erabiltzen zuten azienta ere, ongi izan zedin. Zirkasietrek madariondoa hartzen dute azientaren babesletzat. Beraz, eraitsi basoan madariondo gazte bat, abargabetu eta etxera ekartzen dute, eta han jainko gisa gurtzen dute. Ia etxe guztietan dago halako madariondo bat. Udazkenean, jaia ospatzen den egunean, zuhaitza etxera sartzen dute zeremonia handiz, musikaz eta etxeko guztien oihu alaien artean, hala ongi etorri zorionsua egiten diotelarik. Kandelaz estaltzen dute, eta gazta lotzen diote gainean. Beraren inguruan jan, edan eta kantatu egiten dute. Gero, agur esan zuhaitzari, eta atzera etxe osteria eramaten dute, eta han geratzen da urtea amaitu arte, hormaren kontra jarrita, inolako begirune-seinalerik jaso gabe.

Maorien Tuhoe tribuan, "emakumeak emankortzeko ahalmena zuhaitzei egozten zaie. Zuhaitz hauek arbaso mitiko jakin batzuen zilborresteeekin erlazonatuta daude; izan ere, haur guztien zilborresteak haietatik esekitzen baitziren ia oraintsu arte. Emakume antzuak halako zuhaitz bat besarkatu behar zuen eta, ekialdeko ala mendebaldeko partea besarkatzea kontu, mutikoa ala neskatoa izango zuen". Maiatzaren lehenean maite den neskaren etxe aurrean zuhaixka berdea ipintzeko ohitura europar hedatua, seguruenik, zuhaitz-izpirituaren ahalmen ernarazlearen sinesmenetik sortu zen. Bavariako zenbait aldetan halako zuhaixkak ipintzen dituzte ezkonberrien etxeetan, eta aztura hau beti betetzen da, emazte berria haurdun dagoenean izan ezik; halakoetan esaten dutenez, "senarrak berak ezarri du maiatz-arbolatxoa". Eslavoniako hegoaldekoen artean, emakume antzuak, haurra izan nahi badu, alkandora berria ipintzen du arbola frutadun baten gainean San Jurgiren bezperan. Biharamun goizean, eguzkia atera baino lehen, jantziari begiratzeko dio, eta bertatik izaki biziren bat igo dela ikusten badu, itxaropentsu geratzen da, urte horren barruan bere nahia beteko zaiolakoan. Gero alkandora jantzen du, gaua arropa hori jantzita eman duen zuhaitza bezain emankor izango dela etsita. Kara-kirghiztarren artean, emakume antzuak lurrean bueltaka ibiltzen dira sagarrondo bakarti baten azpian, haurdun geratzeko. Azkenez, emakumeei erditzeerraza bermatzeko ahalmena aitortzen zaie, bai Suedian eta bai Afrikan. Suediako zenbait eskualdetan, garai batean bazen bardtrad edo zuhaitz zaindari bat (limoiondoa, lizarra edo zumarra) etxalde bakoitzaren inguruetan. Inork ezin zion zuhaitz sakratuari hosto bakar bat ere erauzi, eta hari egindako kalte oro zorte txarrez edo gaixotasunez zigortzen zen. Emakume izarrek zuhaitza besarkatzen zuten erraz erditzeko. Kongoko zenbait tribu beltzetan, emakume izarrek beren jantziak egiten dituzte zuhaitz sakratu jakin baten azalaz, zuhaitz horrek haurgintzaren arriskuetatik libratzen dituela sinesten dutelako. Letoren istorioak dioenez, palmondo bat eta olibondo bat edo bi erramu-zuhaitz besarkatu zituen Apolo eta Artemis bikiez erditu behar zenean. Istorio horrek Greziako antzeko sineste bat adierazten du beharbada, zenbait zuhaitzek haurgintza errazteko duten gaitasunaz.

X

Zuhaitzak gurtzearen aztarnak Europa modernoan

Zuhaitz-izpirituei eskuarki egotzitako tasun onuragarriei bota diegun begiradaren ondotik, erraz uler daiteke zergatik iraun duten hain zabal maiatz-arbola bezalako ohiturek, eta zergatik agertu diren hain nabarmen europar nekazarien herri-jaietan. Udaberrian edo are San Joan egunean ere, Europako alde askotan, bazen eta oraindik ere bada basoetara irteteko ohitura; zuhaitz bat moztu, herrira ekarri eta bozkario eta festa-giroan bertan ezartzekoa. Edota jendeak abarrak mozten ditu basoetan, eta etxe guztietatik esekitzen dituzte. Ohitura hauen intentzioa zuhaitzeko izpirituak eman ditzakeen onurak herrira eta etxe bakoitzera erakartzea da. Horregatik dago zenbait lekutan etxe bakoitzaren aurrean maiatz-arbola landatzeko ohitura, edo herriko maiatz-arbola atez ate eramateko ohitura, etxe guztietakoek onuretan beren partea izan dezaten. Gai honi buruzko datu ugarien artean, zenbait adibide hauta daitezke.

Sir Henry Piersek, 1682an idatzitako *Description of Westmeath-en*, hauxe dio: "Maiatzaren lehenaren bezperan, sendi bakoitzak zuhaixka berde bat ezartzen du zutik bere etxe aurrean, landan ugari diren lore horiz beteta. Zura ugari duten herrialdeetan, zuhaitz garai meheak eraikitzen dituzte, eta zutik irauten dute urte osoan; horregatik, arrotz bati irudi lekiok haiek denak garagardo-saltzaileen adierazle direla, eta etxe guztiak garagardotegiak direla". Northamptonshiren, hamar edo hamabi oinako zuhaitz gaztea landatzen zen etxe bakoitzaren aurrean maiatzaren lehenean, han hazi balitz bezala; loreak jaurtitzen zitzaizkion gainera eta ate aurrean zabaltzen ziren. "Kornuallestarrek oraindik gordetzen dituzten antzinako ohituretan, maiatzaren

lehenean atea eta atalurreak basapiko eta elorrien abar berdez apaintzekoa aipa daiteke, baita zuhaitzak edota zuhaitz motzondoak etxe aurreetan landatzekoa ere". Ingalaterrako iparraldean, lehenago, gazte-jendeak maiatzaren lehenean goizaldera jaikitzeo ohitura zuen, gauerdia pasatxo, eta adarrez musika joz basoetara joatekoa; han abarrak hautsi eta lore-sortaz eta koroaz apaintzen zituzten. Hori egin ondoren, egunsentian itzultzen ziren eta lorez apaindutako abarrak etxeetako ate eta leiho gainetan esekitzen zituzten. Berkshireko Abingdonen, gazteria lehenago koadriletan joaten zen maiatzaren leheneko goizean, herri-kanta bat abestuz; hona hemen kantaren pare bat bertso:

"Batera eta bestera ibili gara gau osoan,
Eta egunaren zati batean;
Eta orain atzera berriz itzultzean,
Alai daramatzagu lore-sortak.
Lore-sorta alaia dakargu hona;
Eta atean gaituzu;
Ondo loratutako sorta da,
gure Jaunaren eskuaren lana".

Essexko Saffron Walden eta Debden herrietan, maiatzaren lehenean, neskatoak koadriletan joaten dira atez ate, goiko horren ia berdin-berdina den kanta kantatuz eta lore-sortak eramanez; zuriz jantzitako panpin bat jarri ohi da sorta bakoitzaren erdian. Antzeko ohiturak gorde izan dira, eta oraindik ere gordetzen dira, Ingalaterrako zenbait aldetan. Lore-sortak, gehienetan, elkar angelu zuzenean moztzen duten uztaien formakoak izaten dira. Badirudi otsalizar eta aingeru-liliz bildutako uztaia, erdian bi pilota zintzilik dituela, eraman ohi dutela oraindik ere zenbait herritarrek Irlandako zenbait aldetan. Pilotek, batzuetan urrezko eta zilarrezko paperez estalita, eguzkia eta ilargia irudikatzen omen zituzten behiala.

Vosge mendietako zenbait herrixkatan, maiatzeko lehen igandean, neska gazteak saldoetan joan ohi dira etxez etxe, maiatza goستن duen kanta bat kantatuz; kantak "maiatzean etortzen diren ogia eta janaria" aipatzen ditu. Dirua ematen bazaie, abar berde bat esekitzen dute atean; ematen ez bazaie, haur asko eta horientzako janaririk ez, horixe opa izaten diote familiari. Frantziako Mayenneko eskualdean, maillotins zeritzen mutilak ibili ohi ziren etxaldez etxalde maiatzaren lehenean, kantuan, eta horren truke dirua edo edaria jasotzen zuten; zuhaitz txiki bat edo zuhaitz baten abarra landatzen zuten. Alsazian, Savernetik gertu, jende-saldoak ibiltzen dira maiatz-arbolekin. Haien artean fraka zuriz jantzitako eta aurpegia belztutako gizon bat izaten da; beronen aurrean maiatz-arbola luze bat garraiatzen dute, baina taldekide bakoitzak beste txikiago bat ere izaten du. Taldeko batek saski handi bat eramaten du, eta bertan arrautzak, hirugiharrea eta abar biltzen dituzte.

Mendekoste aurreko ostegunean, errusiar herritarrek "basoetara irteten dira, kantu-kantari, lore-sortak eramanez, eta urki gazte bat eraitsi eta emakume-arropaz janzten dute, edo zintaz eta koloreetako zapi-puskaz apaintzen. Honen ondoren jaia dator, eta jaia amaitzean, jantzitako urkia hartu eta herrira eramaten dute dantza eta kantu artean, eta etxe batean ipintzen dute zutik; han geratzen da, ohorezko gonbidatu, Mendekoste egunera arte. Ordura bitarteko bi egunetan, bisitak egiten dizkiote etxe hartara; baina hirugarren egunean, Mendekoste egunean hain zuzen, erreka batera eraman eta uretan sartzen dute", eta atzetik beren lore-sortak jaurtitzen dituzte. Errusiako ohitura honetan, urkia emakume-arropaz janzteak argi asko erakusten du zuhaitza nortu egiten dela; eta erreka botatzea euri-xarma bat da seguruenik.

Suediako zenbait partetan, maiatzaren lehenaren bezperan, mutil bakoitzak urki berdearen abartxo-pila bat eramaten du, denak edo parte bat hostoekin. Herriko

bibolinjolea buru dutela, etxez etxeko erronda egiten dute maiatz-kantak kantatuz; kanten mamia otoitz bat da, eguraldi onaren, uzta ugariaren eta mundu osoarentzako onura izpiritualen alde. Taldeko batek saski bat eramaten du, arrautzak eta gisa horretako opariak biltzeko. Ondo hartzen badituzte, abar hostotsua ezartzen dute etxeko ate gainean. Baina Suedian udan burutu ohi dituzte batez ere zeremonia hauek. San Joan bezperan (ekainaren 23an) etxeak goitik behera garbitu eta abar berdez eta lorez apaintzen dira. Izai gazteak jartzen dira atarian eta etxaldearen beste leku batzuetan; eta maiz oso zuhaitz itzaltsuak eraikitzen dituzte baratzen. Stockholmen, egun horretan, hosto-merkatua egiten da: milaka maiatz-haga (Maj Stanger), sei eta hamabi hazbete bitarteko garaierakoak, jartzen dira salgai hostoz, lorez, koloreetako paperez, ziritxoetan txirikordatutako arrautzazal urre-kolorez eta abarrez apainduta. Suak pizten dira muinoetan, eta jendeak dantzan eta salto egiten du haien inguruan. Baina eguneko egitekorik handiena maiatz-arbola ezartzea izaten da. Hau abargabetutako izai zuzen garaia da. "Batzuetan, uztaiak eta egur-zatiak gurutzatuta eransten dizkiote tarteka; beste batzuetan, arkuz hornituta egoten da, gizon bat eskuak gerrian jarrita irudikatzen duela, nolabait esan. Goitik beheraino, 'Maj Stang' (maiatz-haga) bera ezezik, uztaiak, arkuak eta abar egoten dira apainduta hostoz, lorez, zapi desberdinezko puskaz, arrautzazal urre-kolorez eta abarrez; eta gain-gainean haizeorratz bat izaten da, edota bandera bat". Maiatz-haga eraikitzea eta apaintzea, herriko neskaxen lana azken hau, zeremonia handiko arazoa da; jendea alde guztietatik etortzen da, eta haren inguruan egiten du dantza biribil handi batean. Udaburuko ohitura berdintsuek zirauten Alemaniako zenbait aldetan. Adibidez, Harz mendietan izai garaiak, behealdean azala zurituta zutenak, ezartzen zituzten plazetan eta lorez eta arrautza horiz eta gorritz margotuz apaintzen zituzten. Zuhaitz haien inguruan gazteriak egunez egiten zuen dantzan, eta zaharragoek arratsean. Bohemiako alde batzuetan ere maiatz-arbola edo udaburuko zuhaitza eraikitzen dute San Joan bezperan. Mutilek izai edo pinu tantai bat ekartzen dute basotik eta goiune batean ipintzen dute zutik, eta neskek lore-sortaz eta zinta gorritz apaintzen dute. Gero erre egiten dute.

Ez dago adibide gehiegi eman beharrik maiatzaren lehenean maiatz-arbola zutik ipintzeko ohitura azaltzeko; Europako zenbait aldetan iraun du, hala nola Ingalaterran, Frantzia eta Alemanian. Aski izango dira adibide banaka batzuk. Phillip Stubbes idazle puritanoak, Londresen 1583an argitaratutako *Anatomie of Abuses* liburuan, nahigabe nabarmenez deskribatzen du nola eramane ohi zuten maiatz-arbola Bess erreginarenean egunetan. Haren deskribapenak antzinako Ingalaterra alaiaren ikuspegi bizia ematen digu. "Maiatza aldera, Mendekoste egunez edo beste noizbait, neska-mutil guztiek, agure eta alargunek, baso, zuhaizti, muino eta mendietara jotzen dute korrika, eta han gau osoa ematen dute denbora-pasa atseginetan; eta goizean itzuli egiten dira, urkiak eta zuhaitz-abarrak ekarriz beren bilerak apaintzeko. Eta ez da harritzekoa, zeren eta jaun handi bat ere bai baita haien artean, beren denbora-pasa eta jolasen begirale: Satan, ifernuko printzea. Baina bitxirik baliotsuena maiatz-arbola da, begirune handiz etxeratzen dutena; hara nola: hogeit hamar berrogei idi-pare hartzen dituzte, idi orok adar-puntan lore-sorta bana duelarik, eta idi horiek eramaten dute etxera maiatz-arbola (hobeto esan, idolo nazkagarri hori), dena lorez eta belarrez estalita, goitik beheraino sokaz lotuta, eta batzuetan hainbat kolorez margotuta, atzetik berrehun edo hirurehun gizon, emakume eta haur begiramen handiz jarraitzen zaizkiolarik. Eta hala zutitzen dutenean, goiko zapiak eta banderak haizetara, lastoa zabaltzen dute oinean eta, abar berdeak luzatuz, hostailpeak eta parrelak hedatzen dituzte inguruan. Eta gero dantzan hasten dira jiran, jende paganoak idoloen omenez egiten zuen bezala, horretxan irudi peto-petoa baita hau, edota gauza berbera. Sinesteko moduan entzuna diet (eta viva voce

gainera) itzal handiko gizonei, ezen gauez basora joandako berrogei, hirurogei edo ehun neskatxatatik, heren bat eskas etxeratzen dela orbangabe".

Suabian, maiatzaren lehenean, izai garai bat eramaten omen zen herrira, eta han zintaz apaindu eta zutik jartzen zen; gero jendeak alai dantzatzaren inguruan, musikarekin. Zuhaitza urte osoan egoten zen herrian, harik eta, hurrengo maiatzaren lehenean, zuhaitz berri bat ekartzen zuten arte. Saxonian, "jendeak ez zuen etsitzen uda sinbolikoki (errege edo erregina gisa) herrira ekartzearekin; zuhaitz berdea bera ekartzen zuten basoetatik etxeetara; hau da, maiatzeko edo Mendekosteko zuhaitzak, hamahirugarren mendetik aurrerako agirietan aipatzen direnak. Maiatz-arbola bilatzea ere jaia izaten zen. Jendea basoetara irteten zen maiatzaren (majum quaerere izenekoaren) bila, zuhaitz gazteak ekartzen zituen, batez ere izaiak eta urkiak, eta zutik jartzen zituen etxeetako ate aurrean edo ukuiluetan edota are gelen barruan ere. Mutil gazteek, esan bezala, beren maiteen gela aurrean eraikitzen zituzten halako maiatz-arbolak. Etxerako maiatz-arbola hauez gainera, maiatz-arbola handi bat, hura ere prozesio arranditsuz herriratu, eraikitzen zuten herri erdian edo herriko merkatu-plazan. Komunitate osoak aukeratua zen, eta denek zaintzen zuten kontu handiz. Gehienetan, zuhaitza abarrez eta hostoz gabetzen zuten, kukula besterik uzten ez ziotelarik, eta han, zinta eta zapi koloreanitzez gainera, hainbat jaki, hala nola txerrikiak, opilak eta arrautzak, jartzen zituzten. Gazteria sari haiek bereganatzen lehiatzen zen. Gure jaietan oraindik ere ikus daitezkeen haga koipeztatuak, maiatz-arbola haien aztarnak ditugu. Askotan lasterketa izaten zen, oinez edo zaldi gainean, maiatz-arbolarraino -Mendekosteko denbora-pasa bat, denboraren harian bere xedea galdu eta gaur egun Alemaniako alde askotan herri-ohitura gisa iraute duena". Bordelen, maiatzaren lehenean, kale bakoitzeko mutilek maiatz-arbola bat eraikitzen zuten, lore-sortaz eta koroa handi batez apainduta; eta hilabete hartako arratsalde guztietan neska-mutilek dantza eta kanta jarduten zuten hagaren inguruan. Gaur egun ere, lorez eta zintaz apaindutako maiatz-arbolak zutitzen dituzte Proventza alaiko herri eta herrixka guztietan. Haien azpian, gazte-jendeak festa egiten du, eta zaharrek atsedean hartzen dute.

Kasu horietan guztietan, agi danean, urtero maiatz-arbola berri bat ekartzea zen ohitura. Hala ere, badirudi Ingalaterran, azkenaldian bederen, maiatz-arbola iraunkorra izan dela, ez urtero berritua. Bavaria Garaiko herriek hiru, lau edo bost urtez behin berritzen dute beren maiatz-arbola. Basotik ekarritako izaia da, eta apaintzen dituzten lore-uztai, bandera eta inskripzioen artean, ezinbesteko osagaia da gainean utzitako hostotza berde iluna, "gogorazteko han ez dugula haga hila baizik eta basoko zuhaitz bizia". Zalantzarik gabe, maiatz-arbola jatorriz urtero jarriko zen alde guztietan. Ohituraren xedea landaretzaren izpiritu emankorra, udaberrian berriro iratzarria, erakartzea zenez, asmo horrek porrot egingo zukeen baldin eta, zuhaitz bizi, berde eta izerditsu baten orde, zuhaitz zahar ihartua eraiki balitz edo urtez urte iraute utzi balitzaio. Baina ohituraren esanahia ahaztu zenean, eta maiatz-arbola opor-garaiko jolasetarako gunetzat hartu zenean, jendeak ez zuen ikusi urtero beste zuhaitz bat ebakitzeko arrazoirik, eta nahiago izan zuen zuhaitz berbera iraunkor utzi, maiatzaren lehenean lorez apainduz. Baina are maiatz-arbola ohitura bihurtu zenean ere, zuhaitz berdea eta ez hila zelako itxura emateko premia sentitzen zen batzuetan. Hala, Cheshireko Weverhamen, "bi maiatz-arbola ospatzen dira, egun horretan (maiatzaren lehenean) aspaldiko ospakizunari zor zaion arreta osoaz; bati lore-sortak esekitzen zaizkio alboetatik, eta gainean urkia edo beste zuhaitz garai mehea ipintzen dute, bere hostoekin, azala zurituta eta zurtoina hagari lotuta, goitik behera zuhaitz bakarraren itxura emateko". Horregatik, maiatz-arbolaren berritzea uzta-maiatza bezalakoa da; biek ere landaretzaren izpiritu ernarazlearen zati berri bat segurtatzeko xedea dute, eta urtean zehar gordetzekoa. Baina uzta-maiatzaren eraginkortasuna ereinen hazkundera bultzatzera mugatzen den bezala,

maiatz-arbola edo abarrarena, emakumeengana eta aziendengana ere hedatzen da, ikusi dugunez. Azkenez, aipatzekoa da maiatz-arbola zaharra, batzuetan, urtearen azkenean erre egiten dela. Pragako eskualdean, esaterako, gazte-jendeak herriko maiatz-arbolari pusketak kendu eta santuen irudien atzean ipintzen ditu beren geletan, eta han geratzen dira hurrengo maiatzaren lehenera arte, eta orduan etxeko sutegian erretzen dituzte. Wurtenbergen, Erramu-egunez etxeen gainetan eraikitzen dituzten abarrak urtebetez uzten dira han, batzuetan, eta gero erre egiten dituzte.

Beste hainbeste esan daiteke zuhaitzari atxikita edo barnean datzan zuhaitz-izpirituari dagokionez ere. Orain zuhaitz-izpiritua sarritan zuhaitzetik askatu eta giza itxuran gogoratzen eta irudikatzen dela erakutsiko dugu, are gizon edo emakume biziengan gorpuzturik. Zuhaitz-izpirituaren irudikapen antropomorfiko honen frogara, Europako nekazarien herri-ohituretan aurki daiteke gehienbat.

Badira kasu argigarri batzuk, zuhaitz-izpiritua aldi berean landare eta giza itxuretan irudiztatu ohi dutenak, biak ere elkarren aldamenean, batak bestearen azalpena emateko xedez jarrita baileuden. Kasu hauetan, zuhaitz-izpirituaren giza itxura hori panpina izaten da batzuetan, pertsona bizia beste batzuetan, baina panpina nahiz pertsona izan, zuhaitz edo abar baten ondoan ipintzen dute; hala non pertsona edo panpinak eta zuhaitz edo abarrak, elkarren itzulpena bailiran nolabait esateko, biek batera inskripzio elebiduna eratzen duten. Hemen, beraz, ez dago inola ere duda egiterik: zuhaitzaren izpiritua benetan giza itxuran irudikatzen da. Bohemian, adibidez, Garizumako laugarren igandean, gazte-jendeak Herio izeneko panpina jaurtitzen du uretara; gero, neskak basora joaten dira, zuhaitz gazte bat moztu eta arropa txuriz, emakume baten antzera jantzitako panpina bati lotzen diote; zuhaitz eta panpina hauekin etxez etxe ibiltzen dira, opariak bilduz eta kantak kantatuz, lelo honekin:

"Herriatik kanpo daramagu Herio,

Herrira dakargu Uda".

Hemen, aurrerago ikusiko dugunez, "Uda" udaberrian itzultzen edo berpizten den landaretzaren izpiritua da. Geure herrialdeko zenbait aldetan, haurrak maiatz-arbolaren antzekoekin ibiltzen dira txanpon-eskean, maiatz-andere deritzoten panpina dotore jantzitako batekin. Kasu hauetan, zuhaitza eta panpina, jakina, baliokide jotzen dira.

Thannen, Alsazian, "maiatz-arrosatxoa" deritzan neska batek, zuriz jantzita, maiatz-arbola txiki bat eramaten du, lore-sortaz eta zintaz apaindua. Lagunek opariak biltzen dituzte atez ate, kanta hau kantatuz:

"Maiatz-arrosatxo, bira hirutan,

Ea bueltara ikusten zaitugun!

Maiatz-arrosa, zatoz baso berdera,

Denok alaituko gara.

Eta halaxe joango gara maiatzetik arrosetara".

Kantatu bitartean, desira bat adierazten da: ezer ematen ez dutenei azeriak hegaztiak eramanez diezazkiela, mahastiak mahatsik eman ez dezala, intxaurren intxaurrek ez, soroeak alerik ez; urteko emaria, nonbait, maiatzeko kantari hauei eskainitako oparien gora-behera dago. Hemen eta gorago aipatu kasuetan -haurrak abar berdeekin edo lore-sortekin maiatzaren lehenean kantuan eta diru-biltzen-, esanahia honako hau da: landaretzaren izpirituarekin batera ugaritasuna eta zorte ona dakartela etxera, eta zerbitzu horren truke ordainduak izatea espero dutela. Errusiako Lituanian, maiatzaren lehenean, zuhaitz berde bat zutitu ohi zuten herri aurrean. Gero, nekazari maiteminduek neskari politena aukeratzen zuten, koroatu, urki-abartxotan bildu eta maiatz-arbolaren ondoan jartzen zuten, eta han dantza egiten zuten, kantuan eta "Oi maiatz! Oi maiatz!" garrasika. Brien, (Ile de Francen), maiatz-arbola bat eraikitzen da herri erdian; gaina lorez koroatuta izaten du; beheago hosto eta abartxoak txirikordatzon dizkiote, eta are

beherago abar berde handiak ipintzen. Neskek haren inguruan egiten dute dantzan, eta aldi berean hostoz bildutako mutil bat, maiatz-aita deritzana, batetik bestera erabiltzen dute. Franken Waldeko mendietako herritxoetan, Bavariako iparraldean, maiatzaren bigarrenean, Walber zuhaitza eraikitzen dute taberna baten aurrean, eta gizon batek dantza egiten du haren inguruan, burutik oinetara lastotan bilduta, buru gainean bildutako artaburuek koroa osatzen diotelarik. Walber deritza, eta lehenago prozesioan eraman ohi zuten urki-abartxoaz apaindutako kaleetan zehar.

Karintiako eslaviarren artean, San Jurgiren egunez (apirilaren hogeita hiruan), gazte-jendeak lorez eta uztaiz apaintzen du jai-egunaren bezperan ebakitako zuhaitz bat. Gero, prozesioan eramaten dute, musika eta aldarri alaien artean, prozesioko irudi nagusia Jurgi Berde delarik, burutik oinetara urki-abarrez jantzitako mutil bat. Zeremonien buruan Jurgi Berde, hots, haren ordezkari irudi bat, uretara botatzen dute. Jurgi Berderena egiten duen mutilaren xedea, bere jantzi hostotsuetatik irten eta irudia inork aldaketarik ez antzemateko moduan ordezkatzea da. Leku askotan, ordea, Jurgi Berderena egiten duen mutila bera murgiltzen dute ibai edo putzuan, hartara udan soro eta zelaiak berdetuko dituen euria segurtatzeko asmo argi eta garbiaz. Leku batzuetan ganadua koroatu eta ukuiluetatik ateratzen dute kanta honetaz lagundurik:

"Jurgi Berde dakargu,
Jurgi Berderi laguntzen diogu,
Ongi elikatuko ahal du gure ganadua.
Bestela, hor doa uretara".

Hemen ikusten dugunez, euria eragiteko eta ganadua ugalazteko ahalmen berberak, ustez zuhaitzari atxikitako izpirituari dagozkionak, gizon bizi batek irudikaturiko zuhaitz-izpirituari ere egozten zaizkio.

Trantsilvania eta Rumaniako ijitoen artean, Jorje Berderen jaia da udaberriko ospakizun nagusia. Haietako batzuek Bazko-biharamunez ospatzen dute, beste batzuek San Jurgiren egunez (apirilaren hogeita hiruan). Jaiegunaren bezperan, sahas gazte bat moztu, lore-sortaz eta hostoz apaindu eta lurrian zutik ezartzen dute. Emakume haurdunek arropa bat ipintzen dute zuhaitz azpian, eta han uzten dute gau osoan; biharamun goizean zuhaitzaren hosto bat arroparen gainera erorita ikusten badute, erraz erdituko diren seinale. Gaixoak eta zaharrak joaten zaizkio zuhaitzari arratsean, hiru aldiz tu egin eta honela esaten diote: "Laster hilko zara, baina utzi guri bizitzen". Biharamun goizean ijitoak sahasaren inguruan biltzen dira. Ospakizunaren irudi nagusia Jurgi Berde da, goitik behera hosto berdez eta lorez estalitako mutil bat. Belar-eskutada batzuk jaurtitzen dizkie tribuko abereei, urtean zehar bazkarik falta ez dezaten. Gero, hartu burdinazko hiru iltze, hiru egunez eta hiru gauetz uretan egon direnak, eta sahasen josten ditu; horren ondoren, atera eta ur-korrante batean murgiltzen ditu uretako izpirituak eztiarazteko. Azkenez, Jurgi Berde uretara botatzekoa egiten dute, baina abarrez eta hostoz egindako panpin bat besterik ez dute murgiltzen errekan. Ohituraren aldaera honetan, emakumeei erraz erditzea bermatzeko eta gaixo eta zaharrei bizi-indarra emateko ahalak argi eta garbi aitortzen zaio sahasari; aldiz, Jurgi Berdek, zuhaitzaren doblea den gizakiak alegia, ganaduarentzako bazka ekartzen du, eta gainera uretako izpirituen aldekotza segurtatzen du izpirituok zuhaitzarekin zehar-komunikazioan jarritz.

Hari bereko adibide gehiago eman gabe, Mannhardten hitzetan laburbil ditzakegu aurreko orrialdeetan esandakoak: "Aipatutako ohiturak aski dira honako ondorio hau ziurtasun osoz ezartzeko: alegia, udaberriko prozesio hauetan, sarri, bai maiatz-arbolak eta bai hosto berdez edo lorez jantzitako gizon batek edo antzera apaindutako neska batek irudikatzen dutela landaretzaren izpiritua. Zuhaitza animatzen duen izpiritu berbera da, landareen barruan jarduten duena eta maiatz-arbolan eta uzta-maiatzean

ezagutu duguna. Horren haritik, izpiritua udaberriko lehen lorean agertzen da, agi denez, baita maiatz-arrosa irudikatzen duen neska batengan ere; eta uztaren emaila gisa, Walber delakoaren pertsona erakusten du bere burua. Jainkoaren ordezkari honekiko prozesioak jainkoak berak eragindako ondorio on berdina eragiten bide zituen hegazti, frutarbola eta erein-igalietan. Bestela esan, mozarrotutako pertsona landaretzaren izpirituaren iruditza ez baina benetako ordezkari hartzen zen. Horrek argitzen du maiatz-arrosaren eta maiatz-arbolaren lagunek adierazitako desira, alegia arrautzak, hirugiharrea eta gisa horretako opariak ukatzen zizkietenek ez zezatela ezer jaso izpiritu ibiltariaren esku dauden onuretatik. Ondorio hauxe atera dezakegu, maiatz-arbolekin edo maiatz-abarrekin atez ate egindako eske-ibiliak ('maiatza edo uda ekarriz') jatorriz esanahi serio eta, nolabait esateko, sakramental zuela nonahi: jendeak benetan sinesten zuen hazkundearen jainkoa ikustezin baina presente zegoela abarrean; prozesioaren bidez, etxe bakoitzera eramaten zituzten haren onespenak. Izen hauek erakusten digutenez -maiatz, maiatz-aita, maiatz-andrea, maiatz-erregina-, batetik landaretzaren izpiritu antropomorfikoa ematen da aditzera sarritan; eta bestetik, landareen izpirituaren ideia nahastuta dago haren ahalmenak bortitzen ageri ohi direneko urte-sasoia nortzearekin".

Honaino ikusi dugunez, zuhaitzetako izpiritua edo, oro har, landaretzaren izpiritua, batzuetan landare-itxuran bakarrik irudikatzen da: zuhaitz, abar edo lore gisa; beste batzuetan, berriz, landare eta giza itxuran irudikatzen da: zuhaitz, abar edo lore gisa, eta horrekin batera panpin edo pertsona bizi gisa. Orain, ordea, beste hau erakutsiko da nola batzuetan erabat baztertuta geratu den zuhaitz, abar edo lore gisa irudiztatzea eta, horren ordez, pertsona bizi baten bidez irudikatuta iraun duela. Halakoetan, pertsonak adierazten duen izaera, gehienetan hosto edo lore-jantziek markatzen dute; beste batzuetan bere pertsona-izenez ere deitu ohi zaio.

Errusiako zenbait aldetan, esaterako, San Jorjeren egunez (apirilaren hogeita hiruan), gazte bat ingeles Jack-in-the-Green delakoa bezala mozarrotzen dute, hostoz eta lorez. Esloveniarrak Jurgi Berde deitzen diote. Esku batean zuzi irazekia eta bestean pastel bat daramatzala, soroetara joaten da, atzetik abesti egokiak kantatzen dituzten neskak dituelarik. Gero sasi-pila bati ematen diote su, eta honen erdian pastela ipintzen dute. Ondoren, zeremonian parte hartzen duten guztiek, suaren biran eseri eta pastela partitzen dute denen artean. Ohitura honetan hostoz eta lorez jantzitako Jurgi Berde, egun berean burutzen diren karintiar, trantsilvaniar eta errumaniar ohituretan zuhaitz batekin zerikusia duen Jorje Berde antzera mozarrotuaren berdina da. Orobat, ikusi dugu Errusian, Mendekoste egunez, urki bat emakume arropaz jantzi eta etxean ezartzen dutela. Honen pare-parekoa da Pinks eskualdeko errusiar neskek Mendekoste ondoko astelehenean burututako ohitura. Beren arteko politena aukeratzen dute, urki eta astigar arbolan landare eta hostoz biltzen dute, eta herrian zehar erabiltzen.

Rhulan, udaberrian, zuhaitzak berdetzen hasi bezain laster, haurrak igande batez bildu eta basoetara abiatzen dira, eta han beren arteko bat aukeratzen dute "hosto-gizonttoa" izateko. Abarrak zuhaitzetatik erauzi eta haurraren inguruan txirikordatzen dituzte harik eta hosto-estalki hartatik oinetakoak besterik ageri ez diren arte. Zuloak egiten zaizkio, ikusi ahal dezan, eta bi haurrek laguntzen diote eskutik helduta, "hosto-gizonttoa" estropezu eginda eror ez dadin. Kanta eta dantza, etxerik etxe eramaten dute, arrautzak, gurina, txerriak, opilak eta antzeko jakien eskean. Azkenez, urez zipriztintzen dute "hosto-gizonttoa" eta jaia egiten dute bildutako janariekin. Suitzako Fricktalén, Mendekoste egunez, mutilak basora abiatzen dira eta beretako bat mozarrotzen dute abar hostotsuz. "Mendekosteko astakirtena" deitzen diote eta, zaldi gainean jarrita, eskuan abar berdea duela, atzera herrira ekartzen dute. Herriko iturrian tenk egin eta hostoz jantzitako astakirtena eraitsi eta askara botatzen dute. Hortik aurrera, berak

izaten du denei ura botatzeko eskubidea, eta eskubide hori neskekin eta kaleko mutikoekin erabiltzen du batez ere. Mutikoak aurretik joaten zaizkio, Mendekosteko bainua eman diezaiela eskatuz.

Ingalaterran, hostoz mozorrotutako hauen adibiderik ezagunena Jack-in-the-Green da, tximini garbitzaile bat zumezko piramide moduko batean ibiltzen dena, gorostiz eta huntzez estalita eta lorez eta zintazko koroa batez. Hala jantzita, maiatzaren lehenean dantza egiten du tximini garbitzaile mordo baten buru, diru-bilketa eginez. Fricktalen, antzerako saski bati "Mendekosteko saskia" deitzen diote. Zuhaitzak kimu-berritzen hasi bezain laster, toki bat aukeratzen dute basoan, eta bertan herriko mutilek saskia egiten dute sekreturik handienez, inork aurrea har ez diezaien. Abar hostotsuak txirikordatzeko dira bi uztairen inguruan, bat eramailearen sorbalda gainean eta bestea bernaren inguruan jarrita; zuloak egiten zaizkie aho-begientzat; eta lore-sorta handi bat jartzen da guztiaren gainean. Honela agertzen da herrian, bat-batean, bezperen orduan, aurrean hiru mutil dituela sahats-azalez egindako adarrei puzka. Beraren aldekoen helburu nagusia Mendekosteko saskia herriko iturrian jartzea da, eta bera eta mutila han edukitzea, auzo-herrietako mutilen ahaleginen kontra; hauek ere Mendekosteko saskia hartu eta beren herriko iturrian ezarri nahi izaten baitute.

Aurreko adibideetan, bistan da hostotuta eramaten duten pertsona eta hurrek eskean etxerik etxe eramaten dituzten maiatz-arbola, maiatz-abarra edo maiatz-panpina baliokide direla. Bata zein besteak dira landaretzaren izpiritu ongilearen ordezkari, batoren zein besteen bisita saritzen da diruz edo janariz.

Sarritan, landaretzaren izpirituaren ordezkari den pertsona hostotsuari errege edo erregina deritza; adibidez, maiatz-errege, Mendekosteko errege, maiatz-erregina eta abar deitzen zaie. Mannhardtek dioenez, titulu hauek landaretzan datzan izpiritua gidari edo gobernari bat dela, eta beraren sormen-indarra zabal hedatzen dela adierazten dute.

Salzwedel inguruko herrixka batean maiatz-arbola bat jartzen dute zutik Mendekoste egunez eta mutilek lasterketa egiten dute bertaraino. Lehenengo iristen dena, errege: lore-uztai bat jartzen zaio lepoan eta eskuan maiatz-abar bat eramaten du, eta beronekin, prozesioa aurreratu ahala, ihintza garbitzen du. Etxe bakoitzean kanta bat kantatzen dute, bertakoei zorte ona opaz, "esne zuria ematen duen ukuiluko behi beltza, arrautza zuriak erruten dituen oilategiko oilo beltza" aipatuz, eta oparitan arrautza, hirugiharrea eta abar eskatuz. Silesiako Ellgoth herrixkan, erregearen lasterketa deritzan zeremonia burutzen dute Mendekoste egunez. Haga bat jartzen dute zelai batean, zapi bat lotuta duela, eta mutil gazteak haren ondotik pasatzen dira zaldi gainean, lauoina, eta zapia erauzten saiatzen dira. Hura handik kentzen eta ondoko Oder ibaian murgiltzen asmatzen duena errege izendatzen dute. Kasu honetan haga maiatz-arbolaren ordezkaria da argi eta garbi. Brunswickeko zenbait herrixkatan, Mendekoste egunean, maiatz-errege bat guztiz biltzen dute maiatz-abar batean. Turingiako zenbait aldetan ere maiatz-erregea izaten dute Mendekoste egunez, baina desberdin samar jantzen dute. Gizon bat sartzeko adina den egurrezko kaxa bat egiten dute; urki-abarrez erabat estali eta gainean urki eta lorezko koroa bat jartzen diote, eta txintzarri bat bertatik zintzilik. Kaxa hau basoan jartzen dute eta maiatz-erregea bertan sartzen da. Beste denak haren bila abiatzen dira, eta aurkitzen dutenean, atzera herrira eramaten dute epailearen, apaizaren eta beste jauntxoaren aurrera, eta hauek asmatu egin behar dute nor den kaxa hostotsu hartan dagoena. Asmatzen ez badute, maiatz-erregeak hotsa ateratzen dio txintzarriari buruari eraginez, eta asmatu ez duenak garagardoa edo antzeko zerbaitekin ordaindu behar du. Wahrstedten, mutilek Mendekoste egunean erregea eta arduradun nagusia aukeratzen dituzte zotzetara. Bigarrena erabat estalita geratzen da maiatz-arbolatxo batean, zurezko koroa daramalarik lorez josita, baita zurezko ezpata bat ere. Erregeak, ordea, kapelan daraman lore-sorta du bereizgarri bakarra, eta zinta gorria lotuta duen

kanabera eskuan. Arrautza-eske ibiltzen dira etxez etxe, ematen ez zaien lekuan mehatxu eginez, oiloek ez dutela batere errungo urtean zehar. Ohitura honetan ageri denez, arduradun nagusiak bereganatu du, nonbait, erregearen bereizgarria. Hildesheimen, bost edo sei mutil ibiltzen dira Bazko maiatzekoaren biharamuneko eguerdi ondoan, zartailuak aldi neurtuka zartaraziz eta etxeetatik arrautzak bilduz. Taldeko buru egiten duena hosto-erregea da, mutil urki-abarretan hain bildua non oinak besterik ageri ez zaizkion. Urki-abartxozko burutxeta eskerga bat gehitzen zaio bere berezko altuerari. Eskuan gako bat eramaten du, zakur deslaiak eta haurrak harrapatzen saiatzeko. Bohemiako zenbait aldetan, Mendekoste-astelehenean, mutil gazteak urki-azalezko txano luze, lorez aipaindutakoekin mozorrotzen dira. Haietako bat, errege jantzita, lera batean eramaten dute herriko belardira, eta bidean putzuren baten ondotik pasatzen badira, lera bertan itzulipurdikatzen dute beti. Belardira iritsi ondoren, erregearen inguruan biltzen dira; pregonaria harri baten gainera edo zuhaitz batera igotzen da, eta handik etxe bakoitzeko istorioak kontatzen ditu. Gero, urki-azalez mozorrotuek kendu egiten dituzte txanoak eta herrian zehar ibiltzen dira jai-egunetako jantzian, maiatz-arbola bat eramanez eta eskean. Opilak, arrautzak eta artoa ematen zaizkie batzuetan. Grossvargulan, Langensalzatik gertu, hemezortzigarren mendean belar-errege bat eraman ohi zuten prozesioan Mendekoste egunean. Makal-abarrezko meta batean sartuta joaten zen, honen gaina abar eta lorezko errege-korua batek apaintzen zuela. Zaldi gainean joaten zen, meta hostotsuak, barrenak lurra ukitzeraino, soina estaltzen ziola, eta zirritu bat besterik ez zitzaion uzten aurpegiarentzat. Zaldi gainea gazte-talde batez inguraturik, prozesioan joaten zen udaletxeraino, apaizetxeraino eta abar, eta leku horretan garagardo-tragoa jotzen zuten denek. Gero, auzoko Sommerbergeko zazpi ezkien azpian, belar-erregeari erantzi egiten zioten kaxa berdea. Korua alkateari ematen zitzaion, eta abarrak liho-soroetan sartzen ziren, lihoa asko haz zedin. Azken ezaugarri honetan, argi ageri da zuhaitz-izpirituaren ordezkariari egotzitako eragin ernarazlea. Pilsengo inguruetan (Bohemian) abar berdezko etxola koniko aterik gabea eraikitzen dute Mendekoste egunez herriaren erdialdean. Etxola hartara joaten da herriko mutil-taldea, errege bat buru dutela. Honek ezpata bat izaten du aldean, eta azukre-opil baten itxurako zumezko kapela bat buruan. Segizioan, epaile bat, pregonaria eta "igel-zigortzailea" edo borrhoea deritzan pertsonaia bat. Azken hau arlote zarpail bat da, ezpata uhertu zaharrarekin, zaldi zahar baten gainean trabes jarrita. Etxolara iristean pregonaria zalditik jaitsi eta bueltaka hasten da aterean baten bila. Bat ere aurkitzen ez duenez, hala esaten du: "Hara, gaztelu sorgindu bat ote dugu hau? Sorginak hosto artetik irristatzen dira eta ez dute aterik behar". Azkenez, ezpata atera eta etxolarako sarbidea egiten du, eta bertan dagoen aulkian eserita, bertsoan ekiten dio inguruko neskak, etxeko jaunak eta morroiak larrutzeari. Hau amaitutakoan, igel-zigortzailea aurreratu eta, igelak dauzkan kaxa bat erakutsi ondoren, urkamendi bat jarri eta igelak urkatu egiten ditu ilaran. Auzoko Plas herrian zeremonia desberdina da zenbait puntutan. Erregea eta beronen soldaduak arbola-azaletan erabat bilduta egoten dira, eta lorez eta zintaz apainduta; denek eramaten dituzte ezpatak eta zaldi gainean joaten dira, abar berdez eta lorez edertuta. Herriko andre eta neskak kritikatzten dituzten bitartean, pregonariak atximur eta zizta egiten dio igel bati ezkutuan, harik eta honek karrak-karrak egin arte. Igelarentzat herio-zigorra agintzen du erregeak; borrhoeak lepoa moztan dio eta ikusleen artera jaurtitzen du gorpu odoldua. Azkenez, soldaduek erregea etxolatik bota eta atzetik hasten zaizkio. Igelari atximur egitea eta lepoa mozte, ezbairik gabe, Mannhardtek seinalatzen duen bezala, euri-xarma dira. Lehenago ere ikusi dugu Orinocoko zenbait indiarrek igelak jotzen dituztela euria eragiteko, eta igela akabatzea Europako euri-xarma dela.

Sarritan, udaberriko landaretzaren izpiritua erregina batek irudikatzen du, ez errege batek. Libchowic inguruan (Bohemian), Garizumako laugarren igandean, zuriz jantzitako eta ilea udaberriko lehen loreez -hala nola liliubel eta txibiritez- apaindutako neskek erregina deitzen dioten neska eramaten dute herrixkan zehar, lorez koroatuta. Itzal handiz gidatutako prozesioan zehar, neskak ezin izaten dira geldirik egon, etengabe jardun behar izaten dute jira-biraka eta kantuan. Erreginak udaberriaren etorrera iragartzen du etxe guztietan, eta zorte ona opa izaten die bertakoei, horren truke opariak jasotzen dituelarik. Hungaria alemaniarrean neskek beren arteko politena aukeratzen dute Mendekosteko erregina izateko, koroa garai bat ezartzen diote bekokian eta kantuan eramaten dute kaleetan zehar. Etxe guztien aurrean geratzen dira, balada zaharrak kantatuz, eta opariak jasotzen dituzte. Irlandako hegoekialdean, maiatzaren lehenean, neskari politena aukeratu ohi zuten hamabi hilabetez eskualdeko erregina izateko. Larre-lorez koroatzen zuten, eta ondotik askaria, dantza eta herri-kirolak etorri ohi ziren; eta ospakizunari amaia emateko, prozesio handia izaten zen arratsean. Urtebeteko erreginaldian, gazte-jendearen bileretako buru izaten zen dantzaldi eta dibertsioetan. Hurrengo maiatzaren lehena baino lehen ezkontzen bazen, galdu egiten zuen bere agintea, baina ez zitzaion ondorengorik aukeratzen harik eta egun hura iritsi arte. Maiatz-erregina gauza arrunta da Frantzian, eta ezaguna Ingalaterran.

Orobat, landaretzaren izpiritua batzuetan errege-erreginek irudikatzen dute, jaun batek eta andere batek alegia, edo senargai batek eta andregai batek. Hemen berriz ere, paralelismoa dugu zuhaitzetako izpirituaren irudiztapen antropomorfikoaren eta landare gisakoaren artean, (lehenago ikusi dugunez, leku batzuetan bi zuhaitz elkarrekin ezkontzen dituzte). Halforden, Warwickshireko hegoaldean, haurrak etxez etxe ibiltzen dira maiatzaren lehenean: errege-erreginak buru, eta atzetik segizioa bikoteka. Bi mutilek sei-zortzi oin garai den maiatz-arbola bat eramaten dute, lorez eta hostoz estalita. Ia puntatik zintzilik, bi makila ditu angelu zuzenean gurutzatuta. Hauek ere loreztatuta, eta makilen muturretatik ere antzera apaindutako uztaiak zintzilik. Etxe aurreetan haurrek maiatz-kantak abesten dituzte eta dirua jasotzen, bazkalondoan eskolan tea hartu ahal izateko. Koniggratzetik hurbileko bohemiar herrixka batean, Mendekoste-biharamunean, haurrak erregearen jolasean ibiltzen dira: errege-erregina batzuk paliopean joaten dira, erregina lore-sorta batekin, eta neska gazteenak bi koroa eramaten ditu erratilu batean bien atzetik. Senargai eta andregai deritzen neska-mutilak dituzte laguntzaile, eta etxez etxe ibiltzen dira opariak biltzen. Silesian, Bazko maiatzekoa ospatzen zenean, gauza arrunta izaten zen erregetarako lehiaketa, eta oraindik ere hala da neurri batean. Lehiaketa hau hainbat erataria egiten zen, baina helmuga edo helburua maiatz-arbola izaten zen gehienetan. Batzuetan haga labaina igo eta saria jaistea lortzen zuen mutila aldarrikatzen zuten Mendekosteko errege, eta haren bihotzekoa Mendekosteko andregai. Gero erregea, maiatz-arbolatxoan eramanez, beste guztiekin joaten zen garagardotegira, eta han dantzaldi eta askari batez amaitzen zen festa. Sarritan baserritar eta laborari gazteek zaldi-lasterketa egiten zuten lorez, zintaz eta koroa batez apainduta zegoen maiatz-arbolarraino. Arbolara lehena iristen zena izendatzen zuten Mendekosteko errege, eta besteek hark agindutakoa bete behar izaten zuten egun hartan. Azkena pailazo bihurtzen zen. Maiatz-arbolaren ondoan zaldietatik jaitsi eta bizkarrean hartzen zuten erregea. Hau arin igotzen zen hagaren puntaraino, eta han lotuta zeuden maiatz-erramua eta koroa jaisten zituen. Bitartean, pailazoa sartu laster batean garagardotegian eta hogeita hamar opiltxo eta lau botila pattar ahalbait bizkorren irensteari ekiten zion. Erregea atzetik etortzen zen, laguntzaileen buru, erramu eta koroarekin. Hau iristean pailazoak jadanik opil-pattarrekoak eginak bazituen, eta erregeari ongi etorria egiten bazion hitzaldi batez eta baso bat garagardo, erregeak ordaintzen zion dena; bestela, berak ordaindu behar izaten zuen berea. Elizakoaren

ondoren, prozesio harrigarria egiten zen herrian zehar. Erregea joaten zen buru, loreztatuta eta maiatz-erramua zeramala. Gero pailazoa, arropak barrukoz kanpora zituela, lihozko bizar handia kokotsean eta Mendekosteko koroa buruan. Goardia mozorrotutako bi mutil joaten ziren ondotik. Prozesioa etxalde guztietara abiatzen zen; bi goardiak zalditik jaitsi, sartu pailazoa etxe barruan, eta saria eskatzen zioten etxekoandreari, pailazoaren bizarra garbitzeko xaboia erosteko. Ohiturak esku ematen zien giltzaz gordeta ez zeuden jaki guztiak hartzeko. Azkenez, erregearen bihotzekoa bizi zen etxera jotzen zuten. Mendekosteko erregina gisa agurtzen zuten, eta opariak ematen zizkieten -alegia, gerriko koloreanitz bat, zapi bat eta mantala. Erregeak elastikoa, mukizapia eta horrelakoak jasotzen zituen saritzat, eta eskubidea zuen maiatz-erramua edo Mendekosteko zuhaitza ugazabaren alorrean ezartzeko; bertan geratzen zen, ohorezko oroigarri, hurrengo urteko egun hartara arte. Azkenez, prozesioak tabernako bidea hartzen zuen, eta errege-erreginek hasiera ematen zioten dantzaldiari. Batzuetan Mendekosteko errege-erreginek beste era batez bereganatzen zuten aginpidea. Lastozko gizon bat eramaten zuten gurdi batean, gizabetekoa eta kapela gorri bat jantzita, goardia gisa mozorrotu eta armatutako bi gizonen artean, epaiketa egiteko zain zegoen txantxetako epaimahaia zegoen tokiraino. Jendetza handiak segitzen zion gurdia. Epaiketa formal baten ondoren, lastozko gizonari herio-zigorra ezartzen zioten, eta zutoin batera lotzen zuten. Mutil gazteak, begiak estalita, hura lantza batez sastakatzen saiatzen ziren. Lortzen zuena errege izendatzen zuten, eta haren bihotzekoa erregina. Lastozko gizona Goliath izenez zen ezaguna.

Danimarkako elizbarruti batean, ohitura zen Bazko maiatzekoan neskato bat Mendekosteko andregai janzte, eta mutiko bat haren senargai. Neskatoa andregai hazi baten finezia guztiez edertzen zuten, eta udaberriko lorerik freskoenez egindako koroa eramaten zuen buru gainean. Senargaia ere ahalbait gehien edertzen zuten lorez, zintaz eta xingolaz. Beste haurrak ere ahalik ondoen apaintzen ziren caltha eta trolius-en lore horiez. Gero etxaldez etxalde joaten ziren handikiro, bi neskato prozesioaren buru andregai gisa, eta sei edo zortzi zaldizko aurrerago, jostailuzko zaldietan, bazetozela iragartzeko. Arrautzak, gurina, ogiak, esnegaina, kafea, azukrea eta bilgorrezko kandelak jasotzen ziren saskietan. Etxalde guztien buelta egin ondoren, baserritarren emazte batzuek ezkontzako ospakizuna eratzen laguntzen zuten, eta haurrak alai dantzatzen ziren, eskalpoiak jantzita, buztinezko zoru zanpatuaren gainean, harik eta eguzkia atera eta txoriak txioka hasi arte. Hau guztia iraganeko kontuak dira orain. Jende zaharrak bakarrik ditu gogoan Mendekosteko andregaitxo eta haren alegiazko ospea.

Ikusi dugu Suedian uda-hasieran izaten direla, gehienetan, beste nonahi maiatzaren lehenarekin edo Bazko maiatzekoarekin lotutako zeremoniak. Honen arabera, Suediako Blekinge probintziako zenbait aldetan, oraindik ere San Joan eguneko andregai aukeratzen dute, eta "elizako koroa" uzten zaio aldi horretarako. Neskak senargaia aukeratzen du, eta bilketa egiten da bikotearentzat, denboraldi horretan senar-emazte gisa hartzen dituztelarik. Beste gazteek ere nork bere andregai aukeratzen dute. Norwegian oraindik gordetzen omen da antzeko zeremonia bat.

Briançonon inguruan (Dofinerrian), maiatzaren lehenean, mutilek hosto berdez estaltzen dute neskak utzi duen gazte bat. Lurrean etzaten da eta lo dagoelakoa egiten du. Gero hura gogoko duen eta berarekin ezkondu nahi lukeen neska bat etorri eta iratzarri egiten du, eta jaikiarazi eta besoa eta bandera bat eskaintzen dizkio. Halaxe joaten dira garagardotegira, eta han bikoteak hasiera ematen dio dantzaldiari. Baina urte horren barruan ezkondu behar dute, bestela mutilzahar eta neskazahartzat hartuko dituzte, eta gazte-jendearen konpainiatik aparte utziko. Mutilari maiatz-senargaia deitzen diote. Garagardotegian hosto-jantziak erantzten ditu, eta horiek eta loreak

nahasiz, neska lagunak lore-sorta bat egiten du, eta paparrean erabiltzen biharamunean, mutilak berriro garagardotegira eramaten duenean. Hau bezalakoa da Nerechtako eskualdean ikusitako ohitura bat, Mendekoste egunaren aurreko ostegunean burutzen dena. Neskak urkidi batera irteten dira, gerrontze edo zerrenda batez inguratzen dute urki tantai baten gerria, beheko abarrak makurrarazten dituzte uztaia eratuz eta musuka hasten dira, binaka, uztaiaren artetik. Musuka aritzen diren neskek komai deitzen diote elkarri. Gero nesketarik bat aurreratu eta, gizon hordiarena eginez, lurrean etzaten da, belar gainean iraulika hasi eta laster loak hartzen duelakoa egiten du. Beste neska batek delako loti hori iratzartzen du eta musu ematen dio; gero saldo osoa abiatzen da basoan zehar lore-sortak egitera, eta uretara botatzen dituzte. Ur gainean geratzen diren lore-sortek beren patua adierazten omen dute. Garai batean mutil batek egingo zuen seguruenik loti horrena. Frantzia eta Errusiako ohitura horietan senargai zapuztua aurkitu dugun bezala, segidan datorren honetan andregai zapuztua dugu. Astearte-ihautean, Oberkraingo esloveniarrek lastozko panpin bat herrestatzen dute oihi alaien artean herrian zehar; gero uretara bota edo erre egiten dute, eta garrek hartzen duten altueratik ateratzen dute hurrengo uzta zenbateraino izango den ugari. Talde zaratatsuaren atzetik emakume maskaratu bat joaten da, egur handi bati soka batetik tiraka, eta andregai zapuztua dela aldarrikatuz.

Aurrekoaren argitan, zeremonia horietan loti zapuztua esnatzeak landaretza udaberrian berpiztea adierazten bide du. Baina ez da erraza senargai zapuztuari dagokion partea eta berau iratzartzen duen neskari dagokiona banatzea. Lotia baso hostogabea edo neguko lur biluzia ote da? Hura esnatzen duen neska udaberriko mardultasun berria edo eguzki-errainu sortzailea ote da? Nekez erantzun daitezke galderok, aurrean ditugun frogen argitan.

Eskoziako Highlandsen udaberriko landaretzaren berpiztea Santa Brigidaren egunean antzezten zen, otsailaren lehenean. Hebridetan, adibidez, "familia bakoitzeko etxekoandreak eta zerbitzariak olo-azao bat hartu eta emakume baten gisa janzten dute, saski handi batean jarri eta ondoan makila bat uzten diote, eta horri Brigidaren ohea deitzen diote; eta gero etxekoandreak eta zerbitzariak hiru bider egiten dute oihi "Etorri da Brigida, ongi etorria Brigida". Hau doi oheratu aurretik egiten dute, eta goizean jaikitzean errautsetan begiratzen dute, han Brigidaren makilaren arrastoa ikusteko itxaropenez; hala ikusiz gero, uzta onaren eta urte oparoaren seinale egiazkotzat hartzen dute, eta bestela aztarna gaiztotzat". Beste lekuko batek honela deskribatzen digu ohitura bera: "Kandelerio aurreko gauean ohe bat egiteko ohitura dago, artalez eta belar onduz, etxeko atetik gertu. Estalki batzuk botatzen zaizkio gainera. Prest dagoenean, pertsona bat irten eta hirutan errepikatzen du, "Brigida, Brigida, sartu barrura; ohea prest duzu". Kandela bat edo gehiago uzten dira piztuta gau osoan". Era beretsuan, Man irlan "otsailaren lehenaren bezperan, jai bat ospatzen zen lehenago, bertako hizkuntzan Laa'l Breeshey zeritzana, Man Irlara, San Maugholden eskutik profesa egitera etorritako emakume irlandarraren omenez. Zume berdeen sorta bat biltzea zen ohitura, eta haiek eskuetan atalaurrean jarrita, Santa Brigida gaua etxean pasatzera gonbidatzea. Man irlako hizkuntzan, honela egiten da gonbita: "Brede, Brede, tar gys thie tar dyn thie aym's noght. Foshil jee yn dorrys da Brede, as lhig da Brede e heet staigh". Euskaraz: "Brigida, Brigida, zatoz gurera, zatoz gurera gau honetan. Ireki atea Brigidari, eta utzi barrura sartzen". Hitz hauek errepikatu ondoren, lurrean barreiatzen ziren zumeak, Santa Brigidarentzako alfonbra edo ohe gisa. Oso ohitura antzekoa ikusi izan zen Mango erresuma zaharreko Out Irletan". Man eta Eskoziako Highlandseko zeremonia hauetan bistan da Santa Brigida emankortasunaren jainkosa pagano zaharra dela, kristau jantzi zarpailetan mozorrotuta. Beharbada Brigit bera da, suaren eta, agi danean, uzten jainkosa zelta.

Sarritan, udaberriko landaretzaren izpirituaren ezkontza, nahiz zuzenean irudikatu ez, izpirituaren giza ordezkari "andregai" izendatuz adierazten da, eta berau ezkontzarako arropaz jantziz. Hala, Altmarkeko zenbait herritan, Mendekoste jaian, mutilak maiatz-arbolaren garraioan edo hostoz eta lorez bildutako mutil baten garraioan dabiltzan bitartean, neskek maiatz-andregai eramaten dute, andregai gisa jantzitako neska bat alegia, ilean lore-sorta handi bat duena. Etxez etxe ibiltzen dira, maiatz-andregaiak oparia kantuz eskatzen duelarik, eta etxe bakoitzeko biztanleei esanez ezen, ezer ematen badiote, berek ere izango dutela zerbait urte osoan zehar; baina ezer ematen ez badiote, berek ere ez dutela ezer izango. Westfaliako zenbait aldetan, bi neskak Mendekosteko andregai deritzan neska bat eramaten dute arrautza-eskean, lorez koroatuta, atez ate kantari.

XI

Sexuen eragina landaretzan

Honaino egin dugun Europako udaberri-udetako jaialdien azterketatik honako hau atera dezakegu, gure arbaso hezigabeek ar eta emetzat hartzen zituztela landarediaren indarrak, eta zuhaitz eta landareen hazkundera bizkortzeko, homeopatiatzko edo antzezko magiaren printzipioan oin hartuz, oihaneko jainkoen ezkontza antzezten zutela maiatzeko errege-erreginen, Mendekosteko senargai-andregaien eta abarren ezkontza antzeztean. Antzezpen hauek, beraz, ez ziren drama sinboliko edo alegoriko hutsak, ikusentzulego menditarrari atsegin emateko edo irakasteko artzain-antzerkiak. Xarmak ziren, basoak berdetzeko, belar gizona hazteko, alea ernetzeko eta loreak ere sortzeko xarmak. Eta bidezkoa zen pentsatzea ezen, zenbat eta antz handiagoa izan hosto-mutilaren edo lorez edertutako mozorroen txantxetako ezkontzak basoko izpirituen ezkontzarekin, hainbat eta eraginkorrago izango zela xarma. Honen arabera, segurtasun handi samarrez eman dezakegu ontzat ezen, zeremonia hauen gordinkeria nabarmena, garai batean, erritoen osagai funtsezkoa zela, ez ustegabeko edo badaezpadako gehiegikeria, eta erritoak burutzen zituztenen iritzian, zuhaitz eta landareen arteko ezkontza ezin zitekeela emankorra izan gizon eta emakumeek benetan bat egiten ez bazuten. Gaur egun alferrikakoa litzateke Europa zibilizatuan era honetako ohituren bila hastea, landareen hazkundera bultzatzeko xede jakinez gauzatutakoen bila. Baina arraza hezigabeagoek, munduko beste alde batzuetan, kontzienteki erabili dituzte sexu-harremanak lurraren emankortasuna segurtatzeko bitarteko gisa; eta oraindik ere Europan irauten duten edo ia oraintsu arte iraun duten zenbait errito, egoki azal daitezke gisa horretako ariera baten aztarna ahuldu gisa. Ondoko egintzek emango digute azalpen hau.

Hazia lurrari eman aurreko lau egunetan, Ertamerikako pipileak emazteengandik aparte jartzen dira, "zertarako eta landatu aurreko gauean beren grinak ahalik eta indartsuen aska ditzaten; zenbait pertsona izendatzen omen dituzte sexuzkoak lehen haziak lurrean ezartzen diren une berberean burutzeko". Apaizek agindu egiten zioten jendeari emazteak garai horretan horrela erabiltzea, betebeharrak erlijiosoa bailitzan, eta hori gabe ez zen legezkoa hazia ereitea. Ohitura honen azalpen posible bakarra, nonbait, hauxe dateke, indiarrek nahastu egiten zituztela gizakiek ugaltzeko zuten modua eta landareek betekizun berori burutzeko dutena, eta imajinatzen zutela lehenaz baliatuta bigarrena aurrerazten ari zirela. Javako zenbait aldetan, arrozaren lorealdia gertatzear dagoenean, nekazariak eta honen emazteak beren alorrak bisitatzen dituzte gauez eta bertan sexu-harremanetan sartzen dira ereinen hazkundera bultzatzeko xedez. Leti eta Sarmata irletan, eta Ginea Berriko mendebaldearen eta Australiaren iparraldearen artean dauden beste irla-talde batzuetan, bertako paganoek printzipio artzat daukate eguzkia, lurra edo printzipio emea ernaltzen duena. Upu-lera edo Eguzki jauna deitzen diote, eta koko-hostoz egindako lanpara baten forman irudikatzen dute, eta beren etxeetan nonahi

ikus daitezke halakoak zintzilik, baita pikondo sakratuan ere. Zuhaitz honen azpian hartxabal handi bat dago, sakrifizioetarako mahai gisa baliatzen dutena. Honen gainean, hildako etsaien buruak ipintzen ziren eta dira, irla hauetako batzuetan. Urtean behin, euritea iristean, Eguzki jauna pikondo sakratura jaisten da lurra ernaltzera, eta hura errazago jaits dadin, zazpi mailako eskailera ipintzen zaio. Zuhaitzaren azpian jartzen da, ekialdetik eguzkia hurbiltzen dela iragartzen duten txio ozen sarkorrezko txorien irudi landuz apainduta. Abagune horretan zerri eta zakur ugari sakrifikatzen dira; gizon eta emakumeak ospakizunetara ematen dira atseginez; eta eguzkiaren eta lurraren bategite magikoa antzezten da jendaurrean, kanta eta dantza artean, zuhaitz azpian benetako sexu-harremanak burutzen direlarik. Ospakuntzaren xedea zera omen da, Eguzki aitonagandik euria, janari eta edari asko, ganadu, haur eta aberastasun ugari lortzea. Erregutzen diote ahuntz bakoitzak bizpahiru antxume izan ditzala, jendea ugala dadila, hil dizkioten zerriak zerri biziak ordezkatu ditzatela, arroz-saski hutsak bete daitezela, eta abar. Eta beren eskakizunen berme, txerriak eta arroza eta paltarra eskaintzen dizkiete, eta halakoen gainera erortzeko gonbita egiten diote. Babar irletan, bandera berezi bat hedatzen dute ospakuntza honetan Eguzkiaren sormen-indarraren sinbolo gisa; kotoi zurizkoa da, bederatzi bat oin garai, eta jarrera egokian dagoen gizonaren irudia ageri du. Ez litzateke bidezkoa orgia hauek eutsi ezinezko grinaren leherketa huts gisa hartzea; ezbairik gabe, deliberatuki eta handikiro antolatzen dira, lurraren emankortasunerako eta gizakaren ongizaterako ezinbesteko direlakoan.

Ereinen hazkundera bizkortzeko erabilitako bitarteko berberak enplegatzen dira, noski, zuhaitzen emankortasuna segurtatzeko ere. Ambon irlako zenbait aldetan, iltze-belarren zuhaitziek uzta eskas samar datorrela nabari dutenean, gizonak biluzik joaten dira gauez landa-soroetara, eta han zuhaitzak ernaltzen saiatzen dira, hain zuzen emakumeak ernalduko lituzketen moduan, aldi berean "Iltze-belar gehiago!" deihadar egiten dutelarik. Hartara, zuhaitzek askoz ugariago emango omen dute fruitua.

Afrikako erdialdeko bagandatarrek hain era itsuan sinesten dute sexu-harremanen eta lurraren emankortasunaren arteko erlazioa non, gehienetan, zapuztu egiten baitute emakume antzua, senarraren baratzari fruitu ematea galarazten diolakoan. Aitzitik, bikiak izan eta ohi baino emankortasun handiagoaren frogak emandako bikotea, eguneroko jana ematen dieten platanondoak emankorragotzeko gai dela sinesten dute bagandatarrek. Bikiak jaio baino pixka bat lehentxeago, zeremonia bat burutzen da gurasoen ugalmena platanondoei pasatzeko xedenabarmenaz. Ama ahoz gora etzaten da belar gizenaren gainean, etxe ondoan, eta platanondoaren lore bat ipintzen du zango artean; gero senarra etorri eta lorea bere zakilaz botatzen du. Gainera, gurasoak herrialdean zehar ibiltzen dira, lagunaren baratzetan dantza eginez, platanondoei fruta ugariago emanarazteko xedez, nonbait.

Europako zenbait aldetan ere gorde izan dira zenbait ohitura udaberrian eta uzta-garaian, ideia gordin berberean oinarrituak argi eta garbi, alegia giza sexuen arteko harremanak landareen hazkundera bizkortzeko erabil daitezkeela. Adibidez, Ukrainan, San Jurgiren egunean (apirilaren hogeita hiruan) apaiza, bere jantzietan, herriko soroetara abiatzen da elizmutilek lagunduta, ereinak lurlean agertzen hasiak direnean, eta bedeinkatu egiten ditu. Honen ondoren, ezkonduko gazte-bikoteak ereindako soroetan etzan eta zilipurdika ibiltzen dira aldi batez, hartara uztaren hazkundera bultzatuko dutelakoan. Errusiako zenbait aldetan, emakumeek apaiza bera zilipurdikatzen dute ernetako landareen gainean, eta ez diete kasurik egiten hark bere ibilera ongile horretan aurki ditzakeen lokatza eta zuloei. Baldin elizgizona ukatu edo protestaka hasten bada, eliztarrek haxe esaten diote: "Aitatxo, ez gaituzu maite, ez duzu nahi guk alea jasotzea, baina gure aletik bizi nahi duzu". Alemaniako zenbait aldetan, uzta-garaian, sega-lanak egindako gizon eta emakumeak lurlean bueltaka

ibiltzen dira elkarrekin soroan zehar. Hau ere, agian, soroak emankor bihurtzeko ohitura zaharrago eta zakarragoaren aztarna da, Ertamerikako pipileek aspaldi batean eta Javan arrozgintzan aritzen direnek gaur egun baliatutako ohituren antzekoa.

Giza gogoak egiaren bila ibilitako bide ilunen arrastoari segitu nahi dion aztertzaileari interesgarria zaio honako hau: sexuek landaretzan duten sinpatiazko eraginaren sineste teoriko berberak beren grinak jaregitera eramanez dituela zenbait herri, lurra emankortzeko; beste herri batzuk, berriz, helburu bera kontrako bitartekoez bilatzera eramanez ditu. Artoa ereiten zuten unetik segitzen zuten unera arte, Nikaraguako indiarrek kastitatez bizi ohi ziren, emazteengandik aparte eta beste nonbait lo eginez. Ez zuten gatzik jaten, eta ez zuten koko-urik edo chicharik, artotik sortzen den pattarrik alegia, edaten; labur esanda, aldi hura, espainiar historialariak dioenez, baraualdia izaten zen. Gaur egun Ertamerikako zenbait tribuk kontinentzia praktikatzeko, gisa honetan uztaren hazkundera bultzatzeko. Kontatu zaigunez, kekchi indiarrek, artoa erein aurretik, emazteengandik aparte egiten omen dute lo, eta bost egunez ez omen dute haragirik jaten; aldiz, lanquinero eta cajibonero indiarren artean, haragiaren atsegin hauez barau egiteko aldia hamahiru egunetara luzatzen da. Halatsu, Transilvaniako zenbait germaniarren artean araua da gizonak emaztearekin lo egin ezina, soroak ereiten ari den denbora guztian zehar. Arau berbera gordetzen da Hungariako Kalotaszegen; jendeak uste du ohitura hau gordeko ez balitz, artoa herdoildu egingo litzatekeela. Halaberean, Australiako erdialdeko Kaitish tribuko buruzagi batek barau osoa egiten du, emaztearekikoei dagokienez, belarra hazteko zeremonia magikoetan ari den denbora guztian; sinesten baitu arau hau hausteak galarazi egiten diola belar-haziari behar bezala sortzea. Melanesiako zenbait irlatan, ñame-aihenak saretzen ari diren aldian, gizonak baratzetatik hurbil egiten dute lo eta ez zaizkie inoiz hurbiltzen emazteei; kontinentzi arau hau hautsi eta baratzan sartuko balira, bertako fruituak galdu egingo lirarteke.

Galdetuko bagenu zergatik elkarren antzekoak diren sinesteok hain jokabide kontrajarriak eragiten dituzten herri batzuetan eta bestetan -batetik kastitate estua, eta bestetik lasakeria gutxi-asko librea-, arrazoia, antzinako giza gogoari ageri zaion bezala, ez dateke aurkitzen oso zaila. Gizon hezigabeak, modu batean, naturarekin bat egiten badu, ez baditu bere bulko eta prozesuak bereizten naturak landare eta abereen ugaltzea segurtatzeko dituen bideetatik, bi ondorioetatik batera iritsiko da: edo joko du bere grinei amore emanez lagundu egiten diola landare eta abereen ugalketari; edo imajinatuko du bere askazia ugaltzeko erabiltzen ez duen indarrak energi biltegi bat eratuko duela, eta beste izaki batzuk, landare nahiz abere, hartaz baliatuko direla beren espezieak ugaltzeko. Filosofia gordin berberetik, naturaz eta bizitzaz lehen nozio berberak izanda, basakumeak grinak askatzearen edo aszetismoaren arauak atera ditzake bide desberdinei jarraituz.

Ekialdeko idealismo aszetikoaz betetako erlijioan hezitako irakurleei zentzugabea edo ezinezkoa irudituko zaie nik eman dudana azalpena, herri hezigabe edo basatiek egoera jakinetan gordetako kontinentzi arauaz. Irakurle horiek pentsa dezakete garbitasun moralak, beren pentsaeran halako arau bat gordetzearekin hain estu lotuta dagoenak, nahikoa argitzen duela berez arazo hau; pentsa dezakete, Miltonekin batera, kastitatea bertute bikaina dela berez, eta gure animalia izaeraren bulko indartsuenetako bati ezartzen dion uhalak markatu egiten dituela berari men egiten dioten pertsonak, saldotik gorago iritsitako gizaki gisa eta, beraz, jainkoaren onespeneren bereizgarria hartzeko merezi gisa. Pentsabide hau guri oso normala iruditzen bazaigu ere, erabat arrotza eta ulertezina zaio basatiari. Sexu-grinari noizbehinka eusten badio, ez da bere idealismo handiagatik, ezta garbitasun moralak lortzeko nolabaiteko nahiagatik ere, baizik eta helburu geroagoko baina guztiz zehatz eta konkretuagatik, eta helburu hori irabaztekotan, prest dago zentzuen berehalako atsegina sakrifikatzeke. Eman ditudan

adibideok aski zabal frogatzen dute hala dela edo izan daitekeela. Honako hau erakusten digute: norberaren biziraupenaren aldeko sena, batez ere janari-bilaketan ageri dena, espeziea ugaltzearen aldeko senarekin gatazkan sartzen bada, lehen sena, lehena eta funtsezkoena izaki, gai dela bigarrena menperatzeko. Labur esanda, basatia prest dago janariagatik sexurakoei uhalak jartzeko. Beste helburu bat, lotura berberari men egiteko, gerran irabaztea da. Gerrariak berak ezezik, haren etxekoek ere sarritan sexu-grinei eutsiko diete, hala eginda etsaiak errazago garaituko dituztelakoan. Halako sinestearen ustela, ereilearen kastitateak haziaren hazkundera dakarrelako sinestearena bezala, bistakoa zaigu guri; baina beharbada hauek eta antzerako sinesteek, hutsak eta ustelak izanda ere, gizateriari ezarri dioten lotura ez da alferrikakoa izan askazia indartzeko eta sendotzeko. Izan ere, arrazaren indarra, norbanakoarena bezala, oraina geroaren alde sakrifikatzeko ahalmenean baitatza, berehalako tentazioak edo plazer hutsala atseginaren iturri urrunagoko eta iraunkorragoen alde baztertzeko ahalmenean. Ahalmen hori zenbat eta gehiago landu, hainbat eta garaiago eta indartsuago bihurtzen da izaera; heroitaren maila iristen dute bizitzaren atseginei, are bizitzari berari, uko egiten dioten gizonek, zertarako eta besteentzat, beharbada etorkizun urrunekoentzat, askatasunaren eta egiaren onurak gordetzeko edo irabazteko.

XII

Ezkontza sakratua

1. Diana, emankortasunaren jainkosa

Ikusi dugunez, berez oinarririk gabea ez den sineste hedatu baten arabera, landareak arrek eta emeek sexuz bat egitearen bitartez ugaltzen dira; eta homeopatiako edo antzezko magiaren printzipioaren arabera, gizon eta emakumeak, abagune horretarako landaretzaren izpiritu gisa moztortuta, egiaz edo alegiaz ezkontzeak bultzatu egiten du ugaltze hori. Halako antzezpen magikoak osagai garrantzitsua izan dira Europako herri-ospakizunetan eta, naturako legearen oso ikuspegi gordinen oinarrituta daudenez, argi dago antzina-antzinatik etorriak behar dutela. Ez gaudeke oker, beraz, onartzen badugu Europako nazio zibilizatuen arbasoak artean barbaroak ziren garaietatik datozela, artzantzan aritzen eta baso zabaletako soiluneetan labore-alorrak lantzen zituztenetik, orduan kontinentearen parterik handiena basoek estaltzen baitzuten, Mediterraneotik Arktiar Ozeanoraino. Baina hostoak eta loreak, belarra eta fruituak hazteko otoitz eta enkantamendu zahar hauek guztiak gure garaira arte iritsi badira antzerki eta herri dibertsio gisa, ez ote da arrazoizkoa pentsatzea orain dela bi mila bat urte ere irauten zutela ez hain era ematuan antzinateko herri zibilizatuen artean? Edo, bestela esan, ez ote genituzke gure maiatz-eguna, Mendekoste eguna eta San Joan gaua bezalako ospakizunak antzinakoen zenbait jaitan hautemango? Desberdintasun honekin, hala ere: garai haietan zeremoniak artean ez ziratekeen emanaldi eta antzezpen huts bihurtuak, errito erlijioso edo magikoak izango ziren, eta aktoreek jakinaren gainean egingo zuten jainko eta jainkosena. Liburu honen lehen kapituluan aurkitu dugu arrazoirik sinesteko, alegia Nemiko Basoko Errege titulua zeraman apaizak Basoko Jainkosa, Diana bera zuela kideztat. Ez ote ziren izan biak, Basoko Errege eta Erregina gisa, Europa modernoan maiatzeko errege-erregina, Mendekoste eguneko senargai-andregaiena jokatzaren duten moztortu alaiaren jatorrizko figura serioak? Eta ez ote zen ospatu haien bategitea urtero teogamia edo jainkosen ezkontza gisa? Jainko eta jainkosen arteko ezkontza antzeztu hauek, egun ikusi ohi ditugun bezalakoak, errito erlijioso larri gisa burutzen ziren antzinako munduko alde askotan; ondorioz, berez ez da ezinezkoa Nemiko baso sakratuan ere urtero halako zeremonia bat antzeztu izana. Hala zelako frogaz zuzenik ez da batere, baina analogiak ikuspegi honen alde egiten du, orain erakusten saiatuko naizenez.

Diana basoen jainkosa zen batez ere, Zeres laborearen jainkosa eta Bako ardoaren jainkoa ziren bezala. Haren jainkotegiak basoetan izaten ziren gehienetan; izan ere, baso guztiak berari eskainiak ziren, eta sarritan basoen jainko Silvanorekin lotzen dute eskaintzetan. Baina haren jatorria edozein izanik ere, Diana ez zen beti izan zuhaitzen jainkosa soilik. Bere Greziako ahizpa Artemisa bezala, badirudi naturako bizi ugariaren pertsonifikazio gisa garatu zela, bai abereena eta bai landareena. Basarteko andere zen aldetik, pentsatzen zen bertan zebiltzan abereen jabe zela, piztiena nahiz etxabereena. Batzuk harrapagaien zelatan egongo ziren sakon goibeletan, hosto freskoak edo muskilak alatuko zituzten abar artean, eta besteek soilune eta ibarxketako belarrak jango zituzten. Horrela, ehiztarien eta artzainen jainkosa zaindari izatera iritsi bide zen, Silvano ere, basoen jainko ezezik, ganaduarena zen bezala. Era beretsuan, Finlandian, basoko piztiak Tapio oihaneko jainkoaren eta beronen emazte ospetsu eta ederraren ganadutzat hartzen ziren. Inork ez zezakeen haietako abereren bat akabatu jabe jainkozkoen graziazko baimenik gabe. Beraz, ehiztariak otoitz egiten zien oihaneko jainko-jainkosei, eta eskaintza aberatsak agintzen zizkien ehiza bere bidean jartzen bazioten. Eta aziendek ere oihaneko izpiritu hauen babesa izan dutela dirudi, bai ukuiluetan zeudenean eta bai basoan zehar zebiltzanean. Sumatrako gaiotarrek, oreina, basahuntzak edo basurdeak zakurrekin ehizatu aurretik, beharrezkoa izaten dute basoko jaun ikustezinaren baiezkua. Egurra lantzen trebetasun berezia duen gizon batek egiten du hori, araututako era batez: betel pixka bat ipintzen du era berezian moztutako zutoin baten aurrean, Basoko jauna irudikatzeko, eta hori egin ondoren otoitz egiten dio izpirituari, honek baiezkua edo ezezkoa adieraz dezan. Ehizari buruzko tratatuan, Arrianez kontatzen digu zeltek sakrifizio bat eskaintzen ziotela urtero Artemisari bere urtebetetzean, opagaia haren altxorrari urtean zehar hildako azeri, erbi eta orkatz bakoitzagatik ordaindutako isunez erosiz. Ohiturak argi asko azaltzen zuen piztiak ere jainkosarenak zirela, eta haiek akabatzeagatik ordaindu egin behar zitzaiola.

Baina Diana ez zen piztien zaindaria, baso eta mendietako anderea, soilune bakartietako eta ibai murmurkarietakoa soilik; horrez gainera, ilargi gisa gogoemanda, eta bereziki, uztaroko ilargi hori gisa, nonbait, jainkozko fruituz betetzen zuen nekazariaren etxaldea, eta erdiminetan zeuden emakumeen otoitzak aditzen zituen. Nemiko baso sakratuan, ikusi dugunez, jaiotzaren jainkosa gisa gurtzen zuten bereziki, gizon eta emakumeei ondorena ematen zien jainkosa gisa. Beraz, esan daiteke Diana, Greziako Artemisa bezala -etengabe identifikatzen baitzuten honekin-, orokorki naturaren eta bereziki emankortasunaren jainkosa dela. Ez da harritzekoa, beraz, Efesoko Artemisaren idolo ugatzanitzetik kopiatutako estatua batek Diana irudikatzea Aventinon zuen jainkotegian, emankortasun oparoaren adierazle ugariekin. Hortik uler dezakegu zergatik Erromako lege zahar batek, Tulio Hostiliok emana omen denak, agintzen zuen ezen, intzestua egiten zenean, pontifizeek Dianaren basoan eskaini behar zutela hobena ordaintzeko sakrifizioa. Izan ere, dakigunez, intzestuaren krimenak gosetea ekartzen omen du; horregatik, emankortasunaren jainkosari egin behar zitzaion ordain hau hoben harengatik.

Bestalde, emankortasunaren jainkosak berak emankor izan behar duelako printzipioan oin hartuz, Dianari lagun ar bat zegokion. Haren laguna, Servioren testigantza sinestekotan, Virbio zen; hasieran agertu zaigun Virbio bera, Nemin Basoko Erregea ordezkari edo agian haragiztapen zuena. Haien bategitearen xedea lurraren, abereen eta gizaken emankortasuna bultzatzea zen; eta pentsatzekoa da helburu hau seguruago lor zitekeela eztei sakratuak urtero ospatzen baziren, jainkozko senargaiarena eta emaztegaiarena haien irudiek edo pertsona biziak jokatzen zituztelarik. Idazle zaharrek ez dute aipatzen hori Nemiko basoan egiten zenik, baina Ariciako erritualaz ezer gutxi dakigu, eta puntu honi buruzko informazio falta nekez har daiteke teoriaren oztopotzat.

Teoria hau, zuzeneko frogarik ezean, beste leku batzuetan gordetako ohitura berdintsuekiko analogian oinarritu behar nahitaez. Aurreko kapituluan deskribatu ditugu ohitura horien zenbait adibide moderno, gutxi-asko endekatuak. Orain antzinateko beste batzuez arituko gara.

2. Jainko-jainkosen ezkontza

Babilonian, Baalen jainkotegi izugarria altxazen zen, piramide baten antzo, hiriaren gainetik, bata bestearen gainean jarritako zortzi dorre edo solairutan. Dorrerik goikoenean -beste guztien biran luzatzen zen aldatz batetik iristen zen bertara-, tenplu zabal bat zegoen, eta tenpluan ohe handi bat, ederki jantzia eta kuxinez ondo osatua, ondoan urrezko mahai bat zuelarik. Tenpluan ez zen irudirik, eta inork ez zuen han gaua iragaiten, emakume bakar batek izan ezik; hau, apaiz kaldearren arabera, jainkoak aukeratzen zuen Babiloniako emakume guztien artetik. Jainkoa bera sartzen omen zen tenpluan gauetz eta ohe handian egiten omen zuen lo; eta emakumeak, jainkoaren ezkontidea izaki, ez zeukan beste inorekin sexu-harremanik izaterik.

Egiptoko Tebasen, emakume batek egiten zuen lo Ammonen tenpluan, jainkoaren ezkontide gisa, eta, Babiloniako Baalen emazteak bezala, ezin omen zuen harremanik izan gizonezkoekin. Egiptoko testuetan "jainkozko ezkontidea" izenaz aipatzen da, eta gehienetan Egiptoko erregina bera bezalako pertsonaia izaten zen. Izan ere, egiptoarren arabera, Ammon jainkoak sortzen omen zituen erregeak, abagune hartarako erregearen itxura hartzen zuelarik, eta itxura hartan izaten zituen sexu-harremanak erreginarekin. Jainkozko sorkuntza-lan hori xehetasun handiz grabatua eta pintatua dago Egiptoko bi tenplu zaharrenetakoen hormetan, Deir el Bahari eta Luxorkoetan; eta pintarekin dauden inskripzioek ez diote lekuri uzten zalantzari irudien esanahia dela eta.

Atenasen, mahastien jainkoa, Dionisos, urtero ezkontzen zen erreginarekin, eta badirudi zeremonian antzeztu egiten zela, ezteiak ezezik, jainko-jainkosen bategitea ere; baina ez dakigu jainkoarena gizon batek ala irudi batek egiten zuen. Aristotelek dioskunez, zeremonia erregearen egoitza ofizial zaharrean gertatzen zen, Ukuilua izenez ezagutzen zen hartan. Pritaneo edo herriko etxetik gertu zegoen, Akropoliko iparrekialdeko hegalean. Ezkontzaren helburua ezin besterik izan, mahastien eta beste frutarbolen emankortasuna segurtatzea baino, Dionisos baitzen haien jainko. Beraz, bai itxuraz eta bai esanahiz, zeremonia hori maiatzeko errege-erreginen ezteien parekoa litzateke.

Irailean Eleusisen handikiro ospatutako misterioetan, badirudi zeruko jainko Zeusen eta laboreen jainkosa Demeterren arteko bategitea hierofantearen eta Demeterren apaiz emakumearen arteko bategitearen bidez antzezten zela. Baina haien arteko sexu-harremanak antzeztuak edo sinbolikoak ziren soilik; izan ere, hierofanteak bere artasuna galtzen baitzuen aldi baterako, astaperrexil-ukendua emanda. Zuziak itzaltzen zirenean, bikotea leku ilun batera jaisten zen, eta gurtzaileen saldoa egonezinez geratzen zen bilkura mistikoaren emaitzaren zain, bertan ikusten baitzuten beren salbazioa. Denbora baten ondoren, berriro agertzen zen hierofantea eta, argi-pirrinta batean, isilik, moztutako galburu bat erakusten zien bildutakoei, jainkozko ezkontzaren fruitua. Gero, ozenki esaten zuen, "Brimo erregina Brimo mutiko sakratuaz erditu da", alegia "Ahalguztiduna Ahalguztidunaz erditu da". Laborearen amak bere haurra, laborea, sortzen zuen, eta erditze-lanak antzezten ziren drama sakratuan. Moztutako alea erakuste hori izaten bide zen misterioen ekitaldi nagusia. Horregatik, geroagoko poesiak eta filosofiak errito hauen inguruan hedatutako lilurak lilura, nekazarien jai sinple bat ageri zaigu dizdik, urruneko paisaje bat argizko gandutan bezala, Eleusisko lautada zabala uzta ezin ugariagoz estaltzeko asmatutako jaia, nola eta laboreen jainkosa lurra zaparrada onurakorrez ernalarazten zuen zeruko jainkoarekin ezkonduz. Zenbait urtero, Plateako jendeak, Beozian, Dedala Txikia zeritzan jaia ospatzen zuen. Haritz bat moztzen zuen harizti zahar batean. Zuhaitz hartatik irudi bat egin eta, andregai baten antzera

jantzirik, idiz tiratutako gurdi batean jartzen zuten, ondoan neska bat laguntzaile zuela. Badirudi irudia Asopos ibaiaren ertzero eramaten zutela, eta berriro ere herrira, jendetzak dantza eta kantu artean jarraitzen ziolarik. Hirurogei urtero, Dedala Handiaren jaia ospatzen zuten beoziar guztiek; eta bertan dedala txikietan bildutako irudiak, hamalau guztira, oholen gainean eramaten zituzten prozesioan Asopos ibaira, eta gero Ziteron mendiaren gainera. Han erre egiten zituzten su handi batean. Jaialdion azalpena emateko kontatutako istorioak iradokitzen digunez, Zeusen eta Heraren ezkontza ospatzen bide zuten, hau ezteietarako jantzitako haritz-egurrezko irudiak ordezkatzeko zuelarik. Suedian urtero, abereen eta landareen emankortasunaren jainkoa zen Freyren gizabeteko irudi bat eramaten zuten orga batean herrialdean zehar, jainkoaren emaztea deitzen zioten neska eder bat lagun zuela. Honek apaiz emakume gisa ere jarduten zuen Upsalako tenplu handian. Orga jainkoaren irudiarekin eta andregai gazte loretsuarekin iristen zen tokietan, jendeak gainezka egiten zuen harekin topo egiteko, eta sakrifizioak eskaintzen zizkion urte joria izan zedin.

Beraz, jainkoak irudiekin edo gizakiekin ezkontzeko ohitura oso zabalduta zegoen antzinako naziotan. Ohitura honen oinarri diren ideiak oso nabarmenak dira, eta ez dago zalantzan jartzerik Babilonia, Egipto eta Greziako zibilizatuak beren arbaso barbaro edo basatiengandik jaso zituztela. Uste hau sendotu egiten da arraza atzeratuagoetan antzeko erritoak indarrean aurkitzen ditugunean. Adibidez, behin batean Errusiako Malmiz eskualdeko wotjaktarrek hondamendi handia izan omen zuten uzta txarrak zirela eta. Ez zekiten zer egin, baina azkenean ondorio hau atera omen zuten, Keremet beren jainko indartsu baina borondate txarrekoak haserre egon behar zuela ezkongabe izateagatik. Beraz, zaharren ordezkaritza batek bisita egin zien Kurako wotjakei, eta arazoa konponbidean jarri zuten. Gero etxera itzuli ziren, pattarrez ondo hornitu eta, zaldizko gurdi alai apaindutakoa laster prestatu ondoren, prozesioan atera ziren, txintxarriak joz, neska ezkonberria etxera eramaten dutenean egin ohi duten bezala, Kurako baso sakratura. Han gau osoa eman zuten alaiki jan-edanean, eta biharamun goizean zotalkoadro bat ebaki basoan eta etxera itzuli ziren berarekin. Ondoren, Malmizko herritarrei gauzak ondo etorri zitzaizkien, baina Kurakoei gaizki; zeren eta Malmizen ogia ona baitzen, baina Kuran txarra. Beraz, herritar haserretuek gaizki eta estu hartu zituzten ezkontzari baiezkua eman zioten kuratarrak. Pasadizo honen berri ematen duen idazleak dioenez, "ez da erraza asmatzen ezkontza-zeremonia hark zer esanahi zuen haientzat. Beharbada, Bechterewek pentsatzen duenez, Keremet Mukilzinekin -Lur emazte emankorarekin- ezkontzen zela esan nahi zuen, honek hura onera alda zezan". Bengalan putzuak zulatzen dituztenean, jainko baten zurezko irudi bat egin eta uraren jainkosarekin ezkontzen dute.

Maiz jainkoarentzako andregai ez da egur-zatia edo lur-pusketa izaten, baizik eta hezur-haragizko emakume bizia. Behin Peruko herri bateko indiarrek gizaki baten itxurako harri batekin ezkondu omen zuten hamalau bat urteko neskato eder bat, hura jainkotzat (huaca) hartzen zutelako. Herritar guztiek hartu zuten parte ezkontzaren zeremonian, hiru egunetan zehar, parranda handia eginez. Handik aurrera neskak birjina iraun zuen eta sakrifizioak eskaintzen zizkion idoloari jendearen alde. Herritarrek begirunerik handiena erakusten zioten, eta jainkozkotzat jotzen zuten. Urtero, martxoaren erdialdera, sareko arrantza egiteko sasoia hastean, algonkinek eta huroiek sei edo zazpi urteko bi neskatoekin ezkontzen zituzten beren sareak. Eztei-jaietan sarea bi nesken artean ipintzen zuten, eta arren eskatzen zitzaion ausart izateko eta arrain asko harrapatzeko. Birjinak zirela segurtatzeko aukeratzen zituzten hain neska gazteak. Ohituraren jatorria honako hau omen da. Urte batez, arrantzaren sasoia iristean, algonkinek beti bezala zabaldu zituzten sareak, baina ez zuten ezer harrapatu. Eskasia harengatik harrituta, ez zekiten zer egin, harik eta sarearen arima edo jeinua (oki)

gizaseme ondo eginaren itxuran agertu zitzairen arte. Honelaxe esan omen ziren grinatsu: "Emaztea galdu dut eta ez dut aurkitzen ni beste gizonik ezagutzen ez duenik; horregatixe ez duzue onik, eta ez duzue inoiz izango atsegin ematen ez didazuen bitartean". Beraz, algonkinek kontseiluan bildu eta sarearen izpirituak baketzea erabaki zuten: bi neska oso gazterekin ezkontuko zuten, aurrerantzean kexurik izan ez zezan. Halaxe egin zuten, eta arrantza nahi bezain oparo bihurtu zen. Berria bizkor zabaldu zen auzoko huroien artera, eta hauek ere ohitura hura hartu zuten. Hartutakoaren parte bat urtean zehar andregaiarena egiten zuten bi neskatoen familiei ematen zitzairen beti.

Bengalako oraonek Lur jainkosa gurtzen dute, eta urtero ospatzen dute Dharme Eguzki jainkoarekiko ezkontza, sal zuhaitza loretan dagoen garaian. Zeremonia honelakoa izaten da. Bainatu egiten dira denak, eta gero gizonezkoak baso sakratura (sarna) abiatzen dira, emakumeak herriko apaizaren etxean biltzen diren bitartean. Eguzki jainkoari eta basoko izpirituari hegazti batzuk oparitan eskaini ondoren, gizonezkoek jan eta edan egiten dute. "Orduan apaiza herrira eramaten dute gizon indartsu baten bizkar gainean. Herritik gertu, emakumeak gizonekin batzen dira eta oinak garbitzen dizkiete. Danborrak joz eta kantatuz, dantzatuz eta saltoka, denek segitzen dute hostoz eta lorez apaindutako apaizaren etxera. Ondoren ohiko ezkontza-era burutzen dute apaizak eta beronen emazteak, Eguzkiaren eta Lurraren ustezko bategitea sinbolizatuz. Zeremoniaren ondoren, jan, edan eta festa egiten dute denek; dantzatu eta kanta lizunak kantatzen dituzte eta, azkenean, orgiarik lotsagarrienetan murgiltzen dira. Xedea ama Lurra emankor izan dadin bultzatzea da". Hartaz, lurraren emankortasuna segurtatzeko enkantamendu gisa ospatzen da Eguzkiaren eta Lurraren ezkontza sakratua, apaizak eta beronen emazteak antzeztua; eta xede berberaz ibiltzen da jendea orgia lizun-nabarmenetan, homeopatiatzko magiaren printzipioa oinarri.

Merezi du azpimarratzea emakumeekin ezkontzen den naturaz gaindiko izakia uretako jainko edo izpirituak izaten dela sarri. Halakoa zen Mukasa, Victoria Nyanza lakuko jainkoa, bagandatarrek bidaia luzeren bati ekiten zioten bakoitzean eztiarazten zutena. Birjinak izaten zituen emaztetzat. Vestaleak bezala, kastitatera behartuta zeuden, baina vestaleak ez bezala, badirudi sarritan hausten zutela arau hori. Ohiturak Mwanga kristautasunera konbertitu zen arte iraun zuen. Ekialdeko Afrika Britainiarreko akikuyuek ibai bateko sugea gurtzen dute, eta zenbait urtez behin suge jainkoa emakumeekin ezkontzen dute, baina bereziki neska gazteekin. Horretarako, sorgileek etxolak egiteko agindua ematen dute, eta bertan burutzen dute ezkontza sakratua andrezko jarraitzaile sinesberekin. Ez badira nahikoa neska joaten beren borondatez, bahitu eta jainkoaren besoetara eramaten dituzte indarrean. Bategite mistiko hauetatik sortutako umeek, nonbait, Jainkoa (Ngai) dute aita; eta izan, badira akikuyuen artean Jainkoaren seme-alabatzat hartzen diren haurrak. Behin, Cayeliko biztanleek, Indiaren ekialdeko Buru irlan, krokodilo-samalda batek hondamendia ekarriko zielako mehatxupear, krokodiloen printzeak neska jakin batekiko hartutako zaletasunari egotzi zioten zoritxar hura. Hainbestez, neska ezteietarako jantzi eta krokodilo maitalearen atzaparretan uztera behartu zuten haren aita.

Era beretsuko ohitura batek iraun omen du Maldivetan, bertakoak Islamera konbertitu aurretik. Ibn Batutah arabiar bidaiari famatuak deskribatu du ohitura hori, baita nola amaitu zen ere. Bertako zenbaitek (konfidantzazkoak zituen, eta izen eta guzti aipatzen ditu), segurtatu omen ziotenez, irltako jendea idoloazale zenean, hilabetero agertzen omen zitzairen jinn-en arteko izpiritu gaizto bat itsasotik, lanparaz betetako itsasontzi baten itxuran. Biztanleek hauxe egin ohi zuten: birjina gazte bat hartu eta, apaindu ondoren, hondartzan zegoen eta leiho bat itsasora begira zuen tenplu pagano batera eramanez. Han uzten zuten neska gau osoan, eta hurrengo goizean itzultzen zirenean, birjintasuna galduta eta hilda aurkitzen zuten. Hilero zotzetara egiten zuten, eta tokatzen

zitzaionak bere alaba ematen zion itsasoko jinn-ari. Izpirituari hala eskainitako azken birjina bereber gupidatsu batek erreskatatu omen zuen, Korana errezitatuz jinn-a atzera itsasora eramatea lortu baitzuen.

Ibn Batutahk izpiritu maitale horretaz eta berorren andregai hilkorrez egiten duen narrazioak herri-ipuinen mota ezagun baten antz handia du; hasi Japonia eta Annamdik, ekialdean, eta Senegambia, Eskandinavia eta Eskoziaraino, mendebaldean, ipuin beraren aldaerak aurkitu dira. Istorioa aldatu egiten da xehetasunetan herri batetik bestera, baina kontakizun arruntenean honelakoxea da. Buru askotako suge, herensuge edo beste mustro batek menpean hartuta dauka herrialde bat, eta bertako biztanle guztiak hilko ditu baldin giza biktima bat, gehienetan birjina bat, aldiro ematen ez bazaio. Biktima asko dira haren atzaparretan hilak, eta azkenean nori eta erregearen alabari suertatu zaio opagai izatea. Mustroari ematen diote, baina ipuineko heroia, jatorri pobreko gizon gazte bat gehienetan, haren alde ateratzen da, mustroa akabatu egiten du eta printzesaren eskua ematen diote saritzat. Ipuin askotan mustroa, batzuetan suge gisa deskribatua, itsasoko, laku bateko edo iturri bateko uretan bizi da. Beste aldaera batzuetan suge edo herensuge bat da, iturriez jabetzen dena; eta jendeari bertatik edaten utziko badio, giza biktima bat eman behar diote.

Beharbada ez litzateke zuzena ipuin hauek guztiak kontalariaren asmakizun hutsak direla-eta baztertzea. Aldiz, pentsa genezake egiazko ohitura adierazten dutela, neskak edo andreak uretako izpirituen emaztetzat eskaintzekoa, eta sarritan suge edo herensuge handi gisa sumatzen direla.

XIII

Erroma eta Albako erregeak

1. Numa eta Egeria

Orain arteko ohitura eta legendeaz egindako azterketatik atera dezakegunez, herri askok ospatu izan dute landaretzaren eta uraren botereen ezkontza sakratua lurraren emankortasuna bultzatzeko, azken batean abere eta gizakien bizia horren menpean baitago; eta errito horietan, sarri, gizon edo emakume batek egin izan du jainkozko senargai edo emaztegaiarena. Beraz, datu horrek pisu pixka bat emango dio honako aieru honi: alegia Nemiko baso sakratuan, non landaretzaren eta uraren ahalmenak baso itzaltsuen, urjauzi apartsuen eta laku kristalezkoaren itxura egokian ageri baitira, urtero ospatzen zela gure maiatzeko errege-erreginen bezalako ezkontza bat Basoko Errege hilkorraren eta Diana, Basoko Erregina hilezinaren artean. Erlazio honetan, zuhaiztiko irudi garrantzitsu bat Egeria zen, uretako ninfa, emakume haurdunek gurtzen zutena, Dianak bezala erditzea errazteko ahala zuelako. Horrenbestez, bidezkoa dirudi ondorio hau ateratzea: alegia beste iturri askori bezala, Egeriaren urari ere ernalketa eta erditzea errazteko ahala onartzen zitzaioela. Leku hartan aurkitutako zinpeko eskaintzak, ernaltzeari dagozkionak argi eta garbi, beharbada Egeriari eginak dira, ez Dianari; edo agian beste hau esan behar genuke: alegia, Egeria, uretako ninfa, Diana naturako jainkosa handiaren beraren beste forma bat besterik ez dela, ibai murmurkari eta baso itzaltsuetako andrea, etxea lakuaren ondoan eta ispilua haren ur bareetan zituena; haren pareko irudi grekoak, Artemisak, aintzira eta iturrietara jo ohi zuen. Plutarkoren adierazpen batek ematen du Egeria Dianarekin identifikatzeko bidea: Egeria haritz-ninfetako bat zela alegia, erromatarrek harizti guztien nagusitzat zeukatena; izan ere, Diana orokorrean basoetako jainkosa zen bezala, badirudi beste hau batez ere haritzekin elkartzen zutela, bereziki Nemiko zuhaizti sakratuan. Hala bada, baliteke Egeria haritz sakratu baten sustraietatik sortzen zen iturri bateko maitagarria izatea. Halako iturri bat sortzen omen zen Dodonako haritz handiaren oinetik, eta apaiz emakumeak orakuluak jaulkitzen zituen jario polpolkari hartatik. Grekoen ustez, iturri edo putzu batzuetatik edateak azti-ahalmenak ematen omen zituen. Honexek azalduko luke Egeriak,

tradizioaren arabera, bere senargai edo maitale Numa erregeari ematen zion jakituria gizagaineakoaren zergatia. Gogoan badugu lehen gizarteetan, oso maiz, erregeak zuela euriaren eta lurraren emankortasunaren ardura, ez dirudi erokeria, inola ere, pentsatzea Numa eta Egeriaren ezteien legendan ezkontza sakratu baten aztarnak ditugula, Erromako erregearen eta landaretza eta uretako jainkosa baten artekoa, erregeak bere eginkizun jainkozko edo magikoak bete ahal zitzan. Halako errito batean jainkosarena irudi batek edo emakume batek egingo zuen, eta emakume batek egitekotan, erreginak seguru aski. Aieru honetan egi arrastorik baldin bada, pentsa genezake Erromako errege-erreginak jainko eta jainkosa gisa moztortzen zirela ezkontzerakoan, hain justu Egiptoko errege-erreginek egin bide zuten bezala. Numa eta Egeriaren legendak zuhaitzi sakratu bat seinalatzen du ezkontzazko bategitearen gertalekutzat, ez etxe bat. Ezkontza hau, maiatzeko errege-erreginen bezala, edo mahastien jainkoaren eta Atenasko erreginaren artekoa bezala, urtero ospatuko zen, lurraren emankortasuna ezezik, gizon eta abereena ere segurtatzeko xarma gisa. Alabaina, zenbait kontakizunen arabera, ezkontzaren lekua Nemiko zuhaitzi sakratua baino ez zen, eta oso abiapuntu desberdinetatik iritsi gara pentsatzera zuhaitzi hartantxe ezkontzen zela Basoko Erregea Dianarekin. Oso ikerbide desberdin biek bat egiteak iradokitzen digu erromatar erregea Egeriarekin batzea, Basoko Erregea Egeriarekin edo beronen doblea zen Dianarekin batzearen ispilu zatekeela. Honek ez du esan nahi erromatar erregeek beti jokatu zutela Basoko Erregeena Ariciako zuhaitzian, baizik eta jatorriz era orokor horretako izaera sakratua aitortu zitzaizela eta antzera jardungo zutela. Argiago adierazteko, baliteke haiek jaiotzazko eskubidez ez baina egozten zitzairen jainkotasunaren kariaz izatea errege, jainko baten ordezkari edo gorpuzte ziren aldetik. Horregatik uztartuko ziren jainkosa batekin, eta aldiro-aldiro probatu beharko zuten beren eginkizunak betetzeko gai zirela, borrokaren bidez. Sarritan galbidea etorriko zitzairen hortik, eta arerioari utzi beharko zioten koroa. Erromako erregetzaz dakiguna oso gutxi da oraindik proposamen hauek seguru berretsi ahal izateko; baina gutxienez, han-hemenka barreiatutik, alderdi hauetaz badira antz-aztarnak edo seinaleak, Nemiko apaizen eta Erromako erregeen artean, edota -legenda sortu baino lehenagoko aro ilunetan- haien eta agian hauen aurrekoen artean.

2. Erregea, Jupiter bailitzan

Lehenik eta behin, irudi luke Erromako erregeak, jainko bat ezezik, Jupiter bera pertsonifikatuko lukeela. Izan ere, Inperioaren garaira arte, garaipena ospatzen zuten jeneral irabazleek eta zirkuko jokoetan buru egiten zuten magistratuek, Jupiterren arropak izaten omen zituzten soinean, abagune hartarako Kapitolioko tenplu handitik maileguz hartuta; eta bai antzinakoek eta bai modernoagoek esan izan dute, eta egiaren itxura guztiak ditu, hala eginda erromatar erregeen jantzi eta ikur tradizionalak kopiatzen zituztela. Ereinotzez koroaturiko lau zaldik tiratutako zalgurdian joaten ziren hirian zehar, beste normahi oinez ibiltzen zelarik; arropa gorriminak janzten zituzten, bordatuak edo urreztatuak; esku eskuinean erramua eramaten zuten, eta ezkerrekoan bolizko makila, muturrean arranoa zuela; ereinotzez koroatuta izaten zuten bekokia; aurpegia gorritatua; eta buru gainean esklabo batek urre hutsezko koroa astun bat eusten zien, haritz hostoen itxuran egina. Jantzi hauekin, jainkoarekiko antza nabarmen ageri da arranodun makilan, haritz-hostoen itxurako koroan eta aurpegi gorritatutan. Izan ere, arranoa Jupiterren txoria zen, haritza haren zuhaitz sakratua, eta Kapitolioan lau zaldiko gurdiaren gainean zegoen haren irudiaren aurpegia ere gorritz margotu ohi zen ospakizunetan; hain zuzen, hain garrantzizko jotzen zuten jainkoaren aurpegia behar bezala gorrituta edukitzea, non zentsoreen lehen egitekoetarik bat hartarako kontratua egitea baitzen. Garaipenaren prozesioa beti Kapitolioko Jupiterren tenpluan amaitzen zenez, ezin egokiagoa zen garailearen burua haritz-hostoz koroatuta apaintzea, zeren

eta, haritz guztiak Jupiterri sagaratuak izateaz gainera, Kapitolioko tenplua Romulok eraiki baitzuen artzainek gurtzen zuten haritz sakratu baten ondoan, eta haritz hari lotu ohi zizkion erregeak etsaien jeneralari gerran irabazitakoak. Argi eta garbi esaten zaigu haritzezko koroa Kapitolioko Jupiterri sagaratu zegoela. Ovidioren pasarte batek frogatzen du jainkoaren ikur berezitzat hartzen zela.

Zertan arbuiatu ez daukagun tradizio baten arabera, Alba Longatik etorritako kolonoek sortu zuten Erroma; hots, Albano muinoen hegaletan, lakuaren eta Campaniaren gainean zegoen hiri batetik etorritakoek. Beraz, baldin erromatar erregeek Jupiterren ordezkari eta haragiztapen zirela aldarrikatzen bazuten, hots, zeruko jainkoarenak, trumoiarenak, eta haritzarenak, bidezkoa da pentsatzea Albako erregeek ere, berengandik baitzeturten Erromaren sortzailea, aldarrikapen berbera egin zutela Erromakoen aurretik. Bestalde, albatarren dinastiak Silvii edo Baso izena zeraman, eta aintzakotzat hartzekoa da, ezbairik gabe, Virgiliok, poeta adina arkeologoa izaki, silviitarren leinu guztia Eneasi azpimunduan erakutsitako Erromaren gloria historikoen ikuspenean haritzek koroatuta irudikatzea. Badirudi, beraz, haritz-hostozko sorta bat izan zela Alba Longako errege zaharren ikurraren osagai, haien ondorengo Erromako erregeena bezala; bi kasuetan, ikur honek haritz-jainkoaren giza ordezkari seinalatzen zuen monarka. Erromako urtekariak jasotzen dute Albako errege batek, Romulo, Remo edo Amulio Silvio izenekoak jainko ezarri zuela bere burua, Jupiterren pare edo are gainera. Bere asmoa laguntzeko eta menpekoak ikaratzeko, trumoi-hotsa eta tximista imitatzen zituzten makinak eraiki zituen. Diodorok kontatzen duenez, fruta-sasoian, trumoi ozen eta sarri izaten denean, erregeak agintzen omen zien soldaduei zeruetako artilleriaren zaratzak estal zezatela ezpatak ezkutuen kontra joz. Baina bere fede ezagatik isuna ordaindu zuen, fin gaizto egin baitzuten, berak eta bere etxeak tximista batek jota, ekaitz beldurgarri batean. Euriak puztuta, Albano lakuak gainezka egin eta haren jauregia hartu zuen. Baina oraindik ere, dio antzinako historialari batek, ura behean denean eta uraren gainazala haizexkak harrotzen ez duenean, jauregiaren hondarrak laku garbiaren hondoan ikus daitezke. Salmoneo, Elisko erregearen antzeko istorioarekin batera hartuta, legenda honek benetako ohitura seinalatzen du, Grezia eta Italiako lehen erregeek gordea; izan ere, beren Afrikako kideek garai modernoetaraino bezala, haiek ere euria eta trumoi eragiten omen zuten haiengan uztaren onerako. Numa apaiz erregeak zerutik tximistak eragiteko antzearen zale zelako ospea zuen. Dakigunez, zenbait herrik trumoi antzekoa egin izan dute garai modernoetan euri-xarma gisa; zergatik ez zuten bada egingo antzinako erregeek?

Alba eta Erromako erregeek Jupiter, haritzaren jainkoa, haritz-hostozko koroa bat eramanez imitatzen zuten bezala, badirudi uretako jainko zen aldetik ere kopia zutela, trumoi eta oinaztarria eragin nahiz. Eta hala egiten bazuten, baliteke haiek ere, Jupiter zeruan eta errege asko lurrian bezala, eurgile publiko gisa aritzea, beren enkantamenduen bitartez zaparradak erakarriz zeru ilunetik, lur arrakalatuak hezetasun gozagarria eskatzen zuten guztietan. Erroman, zeruko albateak harri sakratu baten bitartez irekitzen ziren, eta badirudi zeremonia hori Jupiter Elizio, hodeiei oinaztarriak eta euria eskatzen dien jainkoaren erritualaren parte izan zela. Eta nor hobe zeremonia burutzeko, ortziko jainkoaren ordezkari bizidun den erregea baino?

Erromako erregeek Jupiter Kapitoliokoaren itxurak egiten zituzten bezala, beharbada haien aurrekoak, Albako erregeak, Lazioko Jupiter handia imitatzen saiatzen ziren, eserlekua Albano mendian, hiriaren gainean zuen Jupiter alegia, imitatzen. Latino, dinastiaren aitzindari alegiazkoa, Lazioko Jupiter bihurtu omen zen errege latindar zaharren era misteriotsuan munduti desagertu ondoren. Jainkoak mendi gainean zuen egoitza zen Liga Latindarraren erlijio-gunea, eta Alba zen hiriburu politikoa, harik eta Erroma, aspaldiko arerioa, nagusitu zitzaion arte. Antza denez, mendi sakratu hartan

inoiz ez zen eraiki tenplurik, hitz honek guretzat duen adieran. Ortziko eta trumoiaren jainko izaki, aire zabalean jasotzen zuen gurtzaileen omena, halaxe zegokion eta. Horma lodi baten aztarna batzuek hesitzen dute oraindik egungo pasionisten monastegiko baratza; Tarkino Harroak, Erromako azken erregeak, Liga Latindarraren urteroko biltzarre itzaltsurako markatu zuen esparru sakratua inguratzen omen zuen horma hark. Mendigain zabal hartako jainkotegi zaharrena baso bat zen; eta haritza Jupiterri bereziki sagaratua izateaz gainera, Albako erregeen haritzezko koroa tradizionala eta Erromako Jupiter Kapitoliokoaren analogia gogoan izanik, egingo genuke basoko zuhaitzi hura haritzia zela. Badakigu antzinatean Algidus mendia, Albano muino-taldetik aparte geratzen zena, harizti sarriz estalita zegoela; eta antzina-antzinako egunetan Liga Latindarreko tribuen artean, eta Albano mendiaren gainean opal dutako zezen zuriaren okela partitzeko gaituta zeudenen artean, ba omen zen tribu bat, Haritzaren Gizonena; halaxe zeritzoten beren buruei, hariztietan bizi zirelako, ezbairik gabe.

Baina oker geundeke herrialdea garai historikoetan harizti orbangabe gisa irudikatuko bagenu. Teofrastok Lazioko basoen deskribapena utzi digu, Kristo aurreko laugarren mendekoa. Honela dio: "Latindarren herrialdea hezea da. Lautadek ereinotza, mitrea eta pago zoragarriak ematen dituzte; izan ere, ebakitzen dituzten zuhaitzak hainbestekoak dira, non ohol bat aski baita tirreniar itsasontziaren gilarako. Mendiaren pinuak eta izaiaak hazten dira. Circeren lurraldea deritzotena goialde garai bat da, haritz, mitre eta ereinotz ugazko basoz trinkotua. Bertakoek Circe bertan bizi dela diote, eta Elpenorren hilobia erakusten dute, non koroak egiteko adinako mitreak hazten diren, beste mitre-arbolak garaiak direlarik". Beraz, Erromako lehen egunetan, Albano mendiaren ikuspegia oso desberdina izango zen alderdi batzuetan gaur egun denaren aldean. Hain zuzen, Apenino gorriminak, beren betiko baretasunean alde batetik, eta Mediterraneo dizdizkaria geldiezin etengabeen bestetik, gaur egun ageri diren bezala ageriko ziren orduan ere, ezbairik gabe, eguzki-argitan blai nahiz hodeien itzal mugikorrek pintarkatuta; baina gaur egun izurriteak jota dirudien Campaniako eremu mortu nabarraren ordeztasunak -hondatutako akueduktuen lerro luzeek zeharkatutako eremua-, Mirzaren ametsean ageri zen zubiko arku hautsiak bezala, kilometro eta kilometrotan alde guztietara hedatzen ziren basoak atzemango zituen begiak, berdeak desberdinak edo udazkeneko eskarlata eta urre-kolorea urruneko mendien eta itsasoaren urdinean ezari-ezarian nahasten ziren arte.

Baina Jupiter ez zegoen bakarrik bere mendi santuaren gainean. Ezkontidea zuen berekin, Juno jainkosa, Moneta tituluaren pean gurtzen zutena, Erromako Kapitolioan zuen titulu beraren pean alegia. Kapitolioko haritzezko koroa Jupiter eta Junori sagaratua zenez, pentsa genezake gurtza hura Albano menditik etorria zela. Beraz, haritz-jainkoak haritz-jainkosa zukeen hariztian. Halaxe Dodonan ere, Zeus haritz-jainkoa Dionerekin bat egina zen. Izen hau Juno izenaren aldaera dialektala besterik ez da. Eta gauza bera Ziterion mendiaren gainean ere, ikusi dugunez: badirudi aldika Heraren haritzezko irudi batekin ezkondu ohi zutela. Baliteke, frogatzerik ez badago ere, latindar jatorriko tribu guztiek Jupiter eta Junoren ezkontza sakratua urtero ospatzea jainkoaren izena ematen zioten hilean (Junius, Junorena alegia), uda hasten den hilean, ekainean.

Urteko edozein sasotan erromatarrek Jupiter eta Junoren ezkontza ospatzen bazuten, grekoek ere Zeus eta Heraren ezkontza ospatu ohi zuten bezala, pentsa genezake Errepublikaren garaian zeremonia hau edo jainko-jainkosen irudiez baliatuz burutzen zela, edo Flamen Dialisak eta honen emazte Flaminicak jokatuko zutela. Izan ere, Flamen Dialisa Jupiterren apaiza zen; hain zuzen, idazle zahar eta modernoek Jupiterren irudi bizitzat hartu izan dute, ortziko jainko gorpuztu gisa, eta zuzen dabilatzake seguruenik. Lehenago Erromako erregeak, Jupiterren ordezkaria izaki, zeruetako

senargaiarena egingo zuen, ezkontza sakratuan, bidezkoa zenez, eta erregina zeruetako andregai agertuko zen, Egipton errege-erreginak jainkoen itxuran moztortzen ziren bezalaxe, eta Atenasen urtero erregina mahastien jainko Dionisosekin esposatzen zen bezala. Erromako errege-erreginek Jupiter eta Junorena egitea guztiz naturala litzateke, zeren eta jainko-jainkosa hauek ere errege eta erregina titulua baitzeramaten.

Hau hala bazen ala ez, badirudi Numa eta Egeriaren legenda aztarna dela, errege apaizak berak jainkoen senargaiarena egiten zuen garaiko aztarna; eta Erromako erregeek haritzen jainkoa pertsonifikatzen zutela pentsatzeko arrazoiak aurkitu ditugunez, eta Egeria ere zuhaitzetako ninfa izan zela espreski esan denez, baso sakratuan bat egiten zutelako istorioak honako susmo hau eragiten digu: alegia Erroman erregeen garaian zeremonia bat burutzen zela aldioro, Atenasen Aristotelesen garaira arte urtero ospatzen zenaren antzeko-antzekoa. Erromako erregea haritz-jainkosarekin ezkontzea, mahastien jainkoa Atenasko erreginarekin esposatzea bezala, landareen hazkundera homeopatiatzeko magia bidez bizkortzeko asmoz burutuko zen. Erritoaren bi formen artean, apenas jar genezakeen zalantzan Erromakoa zela zaharrena, eta iparraldeko inbaditzaileek Mediterraneoko hondartzetan mahastia aurkitu baino askoz lehenago ere, haien arbasoek zuhaitz-jainkoa zuhaitz-jainkosarekin ezkontzen zutela Europako erdiko edo iparraldeko harizti zabaletan. Gaur egungo Ingalaterran desagertu egin dira basarterik gehienak, baina oraindik ere herrietako zelai eta mendibide askotan ezkontza sakratuaren irudi higituak irauten du maiatz-eguneko landa-antzezpenetan.

XIV

Erregetza oinordetzea antzinako Lazion

Erromako erregearen apaiz-betekizunak haren oinordeko zen Errito Sakratuen Erregeak bereganatu zituen. Goiko azterketak honako ondorio hauetara ekarri gaitu. Erromako erregeak Jupiter ordezkatzeko eta pertsonifikatzen zuen, ortziko jainko handia, trumoiarena eta haritzarena; eta hainbestean euria, trumoi eta oinaztarria eragiten zituen beren menpekoen onerako. Gainera, haritz-jainkoa haritzeko koroa eta jainkotasunaren beste ikur batzuk eramanez imitatzeaz gainera, Egeria izeneko haritz-ninfa batekin ezkontuta zegoen, Dianaren aldaera lokala besterik ez bide dena, baso, ur eta jaiotzen jainkosa izanik. Ondorio hauek guztiak, batez ere Erromako frogei begi emanez lortu ditugunak, aplika dakizkieke beste komunitate latindarrei ere, seguruenik. Hauek ere aspalditik zeuzkaten beren errege jainko edo apaizak, beren betekizun erlijiosoak oinordetzeko, Errito Sakratuen Erregeei pasatu zizkietenak, ez ordea botere zibilak.

Baina oraindik galdera hau egin beharra dugu: zein zen erregetzaren oinordetze-araua latindar tribu zaharren artean? Tradizioaren arabera, zortzi izan ziren guztira Erromako erregeak, eta azken bostei dagokienez, nolanahi ere den, ez dago zalantzan jartzerik benetan eseri zirela tronuan, eta haien erregealdien historia tradizionala zuzena dela, oro har. Alabaina, oso aipagarria da Erromako erregeetako bakar bati ere semeak tronuan jarraitu ez izana, nahiz Erromako lehen erregea, Romulo, Albako errege-leinuko jatorrikoa izan, alegia erregetza gizonezkoen bidetik oinordetzen zen leinukoa. Hala ere, batzuek izan zituzten semeak edo bilobak. Bestalde, erregeetako bat amaren bitartez zen errege-jatorrikoa, ez aitaren bitartez, eta hiru erregeri, hots Tatiari, Tarkino zaharrari eta Servio Tulari, atzerritarrak edo jatorri atzerritarrekoak ziren suhiak segitu zieten. Honek iradokitzen digu erregetzarako eskubidea emakumeen bidez oinordetzen zela, eta atzerritarrek, errege-etxeko printzesekin ezkontzen zirenean, eskubide hori erabiltzen zutela. Hizkuntza teknikoz adierazteko, badirudi Erromako eta seguruenik Lazio osoko erregetzaren oinordetza, munduko alde askotan hasierako gizartea moldatu zuten zenbait arauk erabaki zutela, alegia exogamiak, beena deritzan ezkontzak eta emakumezko ahaidegoak edo ama-ahaidegoak. Exogamia gizonezkoa beste klan bateko

emakume batekin ezkontzera behartzen duen araua da; beena ezkontza, berriz, gizonezkoak jaiotetxetik aldegin eta emaztearen herritarrekin bizi behar duela dioen araua da; eta emakumezko ahaidegoa edo ama-ahaidegoa, senidetasuna eta familiaren izena emakumeen bidetik, ez gizonezkoenetik, transmititzeko sistema da. Antzinako latindarren artean, erregetzaren jatorria printzipio hauek arautzen bazuten, gauzak ondoren azaltzen diren bezala izango ziren gutxi gora-behera. Komunitate bakoitzeko gune politiko eta erlijiosoa erregearen etxeko su itzalezina izango zen, erregearen klaneko birjina vestaleek zaindua. Erregea beste klan bateko gizona izango zen, agian beste hiri batekoa edota are beste arraza batekoa, aurreko erregearen alaba batekin ezkondu eta, emaztea ezezik, erresuma ere bereganatu zuena. Emazteagandik izandako haurrek amaren izena hartuko zuten, ez berarena; alabak etxean geratuko ziren; semeak, hazitakoan, munduan barrena urrunduko ziren, ezkondu eta emazteen lurraldean jarriko ziren bizitzen, errege nahiz hiritar arrunt gisa. Etxean geratzen ziren alabetarik, batzuk edo denak birjina vestaleen lanetan arituko ziren denboraldi luze edo labur batez etxeko sua zaintzen, eta haietarik bat aitaren ondorengoaren ezkontide bihurtuko zen noizbait.

Hipotesi honek abantaila bat du, era sinple eta naturalean azaltzen dituela latindar erregetzaren historia tradizionala zenbait ezaugarri ilun. Horrela, latindar erregeak ama birjinengandik eta aita jainkozkoengandik jaiotzen zirela dioen legenda ulergarriago bihurtzen da behintzat. Izan ere, era honetako ipuinek, elezaharretako osagaietarik askatuta, emakume batek haurra gizon ezezagun batengandik izan duela esan nahi dute, besterik gabe; eta aita nor ote zen ziur ez jakitea hobeto dator aitatasunari jaramonik egiten ez dion senidetasun-sistema batekin, hura guztiz garrantzizko egiten duenarekin baino. Latindar erregeak jaiotzean, aita benetan ezezagunak baziren, gertaera honek errege-sendiaren bizimodu laxoa seinalatzen du, edo arau moralen laxatze bereziren bat zenbait abagunetan, gizon eta emakumeak sasoi baterako lehenagoko gordinkeriara ematen zirenean. Halako saturnaliak ez dira bakanak gizarte-bilakaeraren zenbait etapatan. Geure herrialdean bertan ere, halakoen aztarnak luze iraun zuten maiatz-eguneko eta Mendekoste eguneko ohituretan, baina ez Eguberrietan. Gisa honetako jaien ezaugarri diren sexu-harreman gutxi-asko nahastuetatik jaiotako haurrek jai huraxe eskaini zitzaion jainkoa hartuko zuten naturalki aitatatzat.

Honekin lotuta, esanguratsua dateke Erromako herritar xeheek eta esklaboek zarats eta hordikeriazko jaialdi bat ospatzen zutela udako solstizioko egunean, eta jaialdia sutatik jaiotako Servio Tulio erregearekin bereziki lotuta zegoela. Fortunaren ohoretan egiten zen, jainkosa honek Servio maite baitzuen, Egeriak Numa maite zuen bezalaxe. Lasterketak eta estropadak ziren, besteak beste, sasoi hartako herri-jokoak. Tiber ibaia dotore egon ohi zen lorez apaindutako ontziekin, gazte-jendeak haietan ardoa edan eta edan jarduten zuelarik. Badirudi jaialdi hura udako Saturnalia gisako bat izan zela, neguan tokatzen den benetako Saturnaliari erantzute aldera. Europa modernoan, laster ikusi ahalko dugunez, udako jaialdi handia maitaleen eta suaren jaialdia izan da beste ororen gainetik; haren ezaugarri nagusietako bat maiteminduek bikotea osatzea da, eskutik elkarri helduta sutzarraren gainetik jauzi eginez edo garren artetik elkarri loreak jaurtiz. Eta maite eta ezkontza-aztarren asko ateratzen zaizkie sasoi misteriotsu honetan sortzen diren loreei. Larrosen eta maitasunaren sasoia da. Baina halako jaialdiek garai modernoetan duten inozentziak eta edertasunak ez gintuzke itsutu behar aspaldiko egunetan ezaugarri gordinagoak zituzten eta seguruenik erritoen funtsean zeudenekiko antzak ez ikusteko. Hain zuzen, Estoniako nekazari trauksilen artean, badirudi ezaugarriok gure belaunaldira arte iritsi direla, gaurko egunera arte ez bada. Erroman uda-hasieran ospatzen zenaren beste ezaugarri batek merezi du bereziki nabarmentzea. Egun horretan ibaian lorez edertutako ontzietan arraun egiteko ohiturak frogatzen du

neurri batean uraren jaialdia zela; eta urak, garai modernoetaraino, parte nabarmena izan du udako solstizioko erritoetan. Honek azaltzen digu zergatik eskaini zion Elizak egun hori San Joan Bataiatzaileari, jaialdi pagano zahararen gainera bere estalkia botaz.

Latindar erregeak urteroko maitasun-jai batean sortuak direlako hipotesia uste hutsa baino ez da, halabeharrez, nahiz eta pentsa daitekeen Numa tradizioaren arabera Pariliaren jaian jaiotzeak halako egiantzekotasun xume bat ematen diola, -artzainek udaberriko sutzarren artetik jauzi egiten zutenean, maitaleek udaburuko sutzarren artetik bezala-. Baina oso litekeena da aita ezezagun izate hori erregeak hil eta askoz geroago arte ez sortzea, haien irudiak elezahararen lainotan urruntzen hasi zirenean, lurretik zerurako pasieran itxura fantastikoak eta kolore zoragarriak hartu zituztelarik. Kanpotik etorritakoak erbesteko bidaztiak izan balira, bidezko samarra litzateke jendeak haien jatorria ahaztea, eta hura ahaztutakoan beste bat hartzea, askoz distiratsuagoa zenbat eta egiatik gutxiago izan. Azken apoteosia, erregeak jainkoengandik sortuak ezezik gizon egindako jainko ere irudikatzen zituena, asko erraztuko zen, baldin haiek bizi izan ziren garaian, beren jainkotasuna aldarrikatu bazuten, eta, ikusi dugunez, bada hau pentsatzeko arrazoirik.

Latindarren artean errege-odoleko emakumeak beti etxean geratzen baziren eta ezkontidetzat beste leinu bateko eta sarritan beste herrialde bateko gizonak hartzen bazituzten -hartarako hauek errege bihurtzen zirelarik ezkontza horri esker-, uler dezakegu zergatik eramaten zuten atzerriarrek koroa Erroman, eta horrez gainera, zergatik azaltzen diren kanpotarren izenak Albako erregeen zerrendan. Nobletasuna emakume bidez bakarrik onesten den gizartean -bestela esan, amagandiko jatorria guztia denean, eta aitagandiko jatorria ezer ez-, ez zatekeen batere eragozpenik maila altueneko neskak jaiotza apaleko gizonekin batzeko, nahiz eta kanpotarrak edo esklaboak izan, baldin eta gizonak berez ezkontide egoki ageri baziren. Honetxe du garrantzia: errege-etxearen leinuak, berau baita herriaren ongizatearen eta are izatearen beraren oinarri, bide indartsu eta eraginkorretik izan behar zuela ondorena, eta horretarako nahitaezkoa zen errege-sendiko emakumeek, ugalketaren eginkizun garrantzitsua betetzeko, gogoz eta gorputzez egokiak ziren gizonengandik haurrak izatea, antzinako gizartean ohikoa zenaren arabera. Horregatik, erregeen tasunak, gizarte-bilakaeraren etapa hartan, berebizikotzat jotzen ziren. Berak ere, ezkontideak bezala, errege eta jainkozko jatorrikoak baziren, askoz hobeto; baina hori ez zen nahitaezkoa.

Atenasen ere, Erroman bezala, aurkitu ditugu errege-etxeko printzesa batekiko ezkontza bidez tronua oinordetzearen arrastoak. Atenasko bi errege zaharrenetariakoak, Kekrops eta Anfiktion alegia, beren aurrekoen alabekin ezkondu omen ziren. Kondaira hori neurri batean ondo frogatuta dago, eta ondorio hau atera daiteke: alegia Atenasen gizonezkoen bidezko senidetasunaren aurretik emakume bidezko senidetasuna izan zela. Gainera, nire pentsabidea zuzena balitz, hots, antzinako Lazion errege-sendiek alabak etxean gordetzen zituztela eta semeak kanpora bidaltzen zituztela printzesekin ezkontzera eta emazteen herrietan errege izatera, honako segida hau luke horrek, leinu bateko gizonezkoak, erresuma desberdinetako errege izango zirela hurrenez hurreneko belaunaldietan. Hain zuzen, badirudi hauxe gertatu zela bai antzinako Grezian eta bai antzinako Suedian ere; beraz, zilegi zaigu hortik ondorio hau ateratzea: Europako ariar jatorriko adar bat baino gehiagok zuen ohitura zela. Greziako tradizio askok kontatzen dute nola printze batek jaioteritik aldegin zuen eta, urruneko herrialde batera joanik, nola hango erregearen alabarekin ezkondu eta haren oinordeko izan zen. Greziako idazle zaharrek hainbat arrazoi ematen dituzte printzeen migrazio horietarako. Bat, arruntenetakoa, hauxe da, erregearen semea norbait hiltzeagatik erbesteratzen zela. Arrazoi horrek oso ondo azalduko luke zergatik egin zuen hanka bere lurretik, baina ez

zergatik iristen zen beste nonbaiteko errege izatera. Susma genezake arrazoioak idazleek gerora osatutako oldozpenak zirela; izan ere, idazleok oso ohituta baitzeuden semea aitaren ondasunen eta erresumaren oinordeko izan behar zuela zioen arauera eta, horrexegatik, gogorra gertatuko zitzaizkien halako hainbeste istorio, alegia erregeen semeek jaioterritik aldegin eta atzerriko erresuma bateko errege izaten zirela ziotenak. Eskandinaviako tradizioan antzeko ohituren arrastoak aurkituko ditugu. Izan ere, irakurria dugu erregearen alaben senarrek erresumaren zati bat hartzen zutela aitagarrebengandik, are aitagarreba horiek beren semeak izanda ere. Hain zuzen, Haroldo Ilehoriaren aurretiko bost belaunaldietan, Ynglingar familiako gizonezkoek, Suediatik etorriak omen zirenek, gutxienez sei probintzia hartu omen zituzten Norwegian bertako erregeen alabekin ezkontuta, Heimskringla edo errege norvegiarren sagetan kontatzen denez.

Irudi luke zenbait herri ariarretan, beren gizarte-bilakaeraren etapa batera iristean, ohiturazkoa izan dela emakumeak eta ez gizonezkoak hartzea errege-odolaren jarraibidetzat, eta beste sendi bateko eta, sarritan, beste herrialde bateko gizon bati ematea erresuma hurrengo belaunaldi bakoitzean, gizon hori printzesetako batekin ezkondu eta emaztearen herritarren errege bihurtzen zelarik. Herri-ipuinetan oso arrunta den ipuin bat -nola menturazale batek, atzeritik etorrita, erregearen alabaren eskua eta eskuarekin erresuma osoaren erdia irabazten duen kontatzen duena- benetako ohitura baten aztarna izan daiteke.

Era honetako aztura eta ideiak irauteen duten tokian, bistakoa da errege-odoleko emakume batekiko ezkontzaren herentzia besterik ez dela erregetza. Saxo Grammatiko aspaldiko daniar historialariak oso argi jartzen du erregetzaren ikuspegi hau Hermutruderen (Eskoziako erregina legendazko baten) ahotan. "Izan, erregina bat zen", dio Hermutrudek, "eta sexuak besterik bazioen ere, erregetzat jo zitekeen; are gehiago (eta are egiago), bere oherako adina askiesten zuen edonor, errege zen bertatik, eta bere buruarekin batera erresuma ere ematen zion. Hala, haren aginte-makila eta eskua batera zihoazen". Adierazpena esanahiz betea da, eta badirudi errege piktoen benetako ohitura ispilatzen duela. Bedaren testigantzari esker dakigunez, oinordetzaz zalantzaren bat sortzen bazen, piktoek emakumezkoen bidetik aukeratzen omen zituzten erregeak, ez gizonezkoen bidetik.

Gizon bat erregezko aliantza baterako eta oinordetzarako gomendatzen zuten tasun pertsonalak aldatu egingo ziren, noski, orduko ideien eta erregearen edo honen ordezkorekin izaeraren arabera, baina arrazoizkoa da pentsatzea lehen gizarteetan indar fisikoak eta edertasunak leku nabarmena izango zutela.

Batzuetan, nonbait, lasterketa batek erabaki izan du printzesaren eskua bereganatzeko eta tronurako eskubidea. Alitemniako libiarrek korrikalari bizkorrenari ematen zioten erresuma saritan. Antzinako prusiarren artean, noblegaiek zaldi-lasterketa egiten zuten erregea zegoen lekuraino, eta harengana lehenengo iristen zena noble bihurtzen zen. Tradizioaren arabera, Olinpiako lehen jokoak Endimionek eratu zituen, semeak erresuma truke lasterketa egitera behartu zituenean. Haren hilobia lasterketako korrikalarien abiaburuan omen zegoen. Pelope eta Hippodamiaren istorio ezaguna, agian, legenda baten aldaera bat besterik ez da; legenda horren arabera, Olinpiako lehen lasterketen saria ez omen zen izaten erresuma bera baino ezer txikiagorik.

Tradizio hauek ondo ispilatuko lukete andregai batengatik lasterkatzeko benetako ohitura bat, zeren eta halako ohiturak, dirudienek, hainbat herritan iraun baitu, nahiz eta praktikan itxurak egiteko modu bat besterik ez bihurtu. "Bada lasterketa bat, "maite-lasterketa" deritzana, kirghiztarren arteko ezkontza-moduaren osagaitzat har daitekeena: emaztegaia, zartailu izugarri batez harmaturik, zaldi bizkor baten gainean abiatzen da, eta atzetik joaten zaizkio haren eskua lortzeko asmotan diren mutil gazte guztiak.

Harrapatzen duenari emango zaio saritzat, baina bere zartailua erabiltzeko eskubidea du, zaldia bizkortzeko ezezik, gogoko ez dituen maitale guztiak urruntzeko, indar berdinez batzuetan, eta seguruenik bihotzean aukeratu duen haren alde egingo du". Emaztegaiaren aldeko lasterketa Asiako iparrekialdeko koriaktarren artean ere badugu. Denda handi batean gertatzen da; honen inguruan gela bereizi asko, pologs deritzenak, eratu dira biribilean. Neska korrika abiatzen da eta, senargaiak harrapatu gabe, gelatxo guztiak korrika zeharkatzen baditu, libratu egiten da ezkontzetik. Kanpamentuko emakumeek oztopoak jartzen dizkiote gizonari bidean, trabatuz, zigortxo kolpatuz eta abar, hala non aukera gutxi duen ondo burutzeko, salbu eta neskak hala nahi badu eta itxaroten badio. Antzeko ohiturak izan bide dira herri teutoniar guztien artean; germanieraz, anglo-saxonieraz eta norvegieraz, bada hitz bat eskaintza adierazteko, hain zuzen emaztegaiaren lasterketa esan nahi duena. Gainera, ohituraren arrastoek garai modernoetan ere iraun dute.

Badirudi kirol-proba bateko saritzat eman izan dela sarri neska batekin, eta bereziki printzesa batekin, ezkontzeko eskubidea. Beraz, ez legoke zertan harriturik baldin Erromako erregeek, alabak ezkontzan eman aurretik, suhigaien eta oinordekoen tasun pertsonalak probatzeko modu zahar horretara jo zutela eta. Nire teoria zuzena bada, Erromako errege-erreginek Jupiter eta beronen ezkontide jainkotiarra pertsonifikatzen zituzten, eta jainko-jainkosa ziren aldetik egiten zen urtero ezkontza sakratuaren zeremonia, ereinak hazi eta gizon eta aziendak emankor izan eta ugal zitezen. Beraz, iparraldeagoko lurraldeetan maiatzeko errege-erreginek aspaldi egiten bide zutena egiten zuten haiek. Ikusia dugu maiatz-erregearena egiteko eskubidea eta maiatz-erreginarekin ezkontzekoa kirol-proba batek, bereziki lasterketa batek, erabaki duela batzuetan. Aztertu dugun erako ezkontza-ohitura zahar baten aztarna bide da hau, ezkongai egokia den probatzeko pentsatutako ohitura bat. Halako proba berebiziko gogortasunez ezarriko bide zitzaion erregeari, pentsatzekoa denez, zertarako eta segurtatzeko ezein akatsek ez zuela errito sakratu eta zeremonietarako ezintzen. Hauen gora-beheran baitzeuden, hala uste zen behintzat, komunitatearen ongizatea eta joritasuna, eginkizun zibil eta militarrek gauzatzean baino gehiago. Eta bidezkoa izango zen aldian-aldian hari proba gogor berbera pasatzeko eskatzea, zertarako eta denen aurrean frogatzea artean gai zela bere eginkizun garaia betetzeko. Proba honen aztarren batek iraun zuen agian Erregeren Ihesa (regifugium) izenez ezaguna zen zeremonian; urtero konplitu ohi zen Erroman, Inperioaren garairaino. Otsailaren hogeita lauan sakrifizio bat eskaini ohi zen Komizioan, eta hura amaitutakoan errito sakratuetako erregeak hanka egiten zuen Forotik. Egin genezake Erregearen Ihesa jatorriz urtebeteko erregealdirako lasterketa zela, lasterkari bizkorrenari saritzat emango zitzaiona. Urtearen hondarrean erregeak berriro korritu beharko zuen bigarren erregealdirako; eta horrela jarraian, harik eta beste norbaitek irabazi eta bere kargua kentzen zion arte; edo agian hil egiten zuen arte. Horrela, behinola lasterketa zena ihes edo jazarpen baten itxurak hartuz joango zen. Abiatuko zen erregea, eta gero kontrarioak atzetik, eta harrapatzen bazuten koroa eman beharko zion, edo agian bizia, jarraitzaileetan hanka-arinenari. Denboraz, izaera indartsuko gizonen batek tronuan irautea lortuko zuen, eta urteroko lasterketa edo ihesa, garai historikoetan izan duen forma huts bihurtuko zuen. Erritua Erromako erregeak botatzearen oroitzapena gisa interpretatu izan da batzuetan; baina badirudi hau gerora osatutako pentsabidea dela, esanahi zaharra ahaztu eta gero, zeremoniaren azalpena eman ahal izateko. Askoz sinesgarriagoa dirudi ezen, hala jokaturik, errito sakratuetako erregea ohitura zahar bati lotzen zitzaioela, erregeen garaian haiek urtero gauzatzen zuten ohitura bati, alegia. Erritoaren jatorrizko asmoa zein izan ote den, burutazio eta asmazioetarako gai geratuko

da betiko. Gaia inguratzen duen zailtasun eta iluntasunaz ondo jabeturik iradokitzen dugu honako azalpen hau.

Beraz, nire teoria zuzena bada, Erromako erregearen urteroko ihesa aztarna bat zen, erregetza urteroko kargua zenekoa; hau da, atleta edo gladiadore irabazle bati, printzesaren eskuarekin batera, kargu horisaritzat ematen zitzaion garaiko aztarna zen. Handik hara, senar-emazteak jainko eta jainkosa gisa agertzen ziren lurraren emankortasuna homeopatiako magiaren bitartez segurtatzeko pentsatutako ezkontza sakratuan. Nire pentsabidea zuzena bada, hots, antzina-antzina errege latindar zaharrek jainko bat pertsonifikatzen zutela eta, hainbestez, aldioro heriotza-zigorra ematen zitzaiera, hobeto ulertuko dugu haietako askok izan omen zuten fin misterioitsu edo gaiztoa. Lehenago ikusi bezala, tradizioak dioenez, Albako erregeetarik bat tximistak hil zuen, Jupiterren trumoi gaiztoki imitatzeagatik. Romulo Eneas bezala desagertu omen zen misterioitsuki, edo txiki-txiki egin omen zuten irain egin zien patrizioek, eta uztailaren zazpian, hura hildako egunean, Saturnaliaren antza zuen jai bat ospatzen zen. Izan ere, egun hartan, emakume esklaboei halako libertate nabarmen batzuk hartzen uzten zieten. Emakume libre bezala janzten ziren, matrona eta dontzeilen soinekoz, eta gisa hartan irteten ziren hiritik, topatzen zuten normahiz trufa eta txantxa eginez, eta borrokan lotzen ziren beren artean, elkarri kolpeka eta harrika. Bortxaz hildako beste errege erromatar bat Tatio izan zen, Romuloren kide sabinoa. Laviniumen ari omen zen arbasoen jainkoei sakrifizio publikoa egiten, gizon batzuek, kalte egin baitzien, aldaretik hartutako laban eta sastakaiez garbitu zutenean. Heriotzaren abaguneak eta erak hilketa hura sakrifizio bat izan zela susmarazten digu, ez asasinatzea. Tulo Hostilio ere, Numaren ondorengoa, tximista batek hil omen zuen, baina askok diote erregetzan jarraitu zion Anko Martzioren eraginez hil zutela. Erdi mitoa den Numaz ari dela, errege apaizaren ereduaz alegia, honela dio Plutarkok: "Haren ospea ondorengo erregeen zoriak handiagotu zuen. Izan ere, haren ondorengo bostetarik azkena kendu egin zuten bere kargutik eta atzerrian amaitu zuen bizia, eta beste laueterik bakar bat ere ez zen berez hil: hiru inoren eskuz, eta Tulo Hostilio tximistak jota".

Erromako erregeen fin gaiztoen kondaira hauek iradokitzen digute tronua irabazteko proba hil arteko borroka izango zela sarri, ez lasterketa. Hala balitz, Erroma eta Nemiren artean ezarri dugun antza are handiagoa litzateke. Bi lekuotan errege sakratuak, jainkoaren ordezkari biziak, beren kargutik kendu eta hiltzeko zorian izango ziren edozein gizon ausarten eskuetara, baldin halakoak beso indartsuz eta ezpata zorrotzez frogatzen bazuen kargu santu hartarako eskubide jainkozkoa zuela. Ez litzateke harritzekoa antzinako latindarren artean errege izateko eskubidea sarri borroka bidez ebatzi izana; garai historikoetara arte, unbriarrek borrokaren probaz ebazten zituzten beren arteko gatazkak, eta inolako ezbairik gabe onartzen zen aurkakoari lepoa mozten zionak bere kausaren bidez kotasuna frogatu zuela.

XV

Haritza gurtzea

Haritza edo haritz-jainkoa gurtzea, nonbait, Europako enbor ariarreko adar guztiena da. Hala grekoek nola italiarrek, beren jainko gorenenarekin, Zeus edo Jupiterrekin, lotzen zuten zuhaitza, alegia ortziaren, euriaren eta trumoiaren jainkoarekin. Beharbada, Greziako jainkotegirik zaharrena eta, zalantzarik gabe, ospetsuenetariko bat Dodonakoa zen, non Zeus haritz orakularrean gurtzen baitzuten. Dodonan European beste inon baino sarriago lehertzen ziren trumoi-ekaitzek, egoitza aproposa bihurtuko zuten leku hura, ahotsa haritz-hostoen ziri-zaran zein trumoiaren eztandan entzuten zitzaion jainkoarentzat. Agian brontzezko dilin-dalanek, jainkotegiaren inguruetan durundioa airean uzten zutenek, trumoi imitatzen bide zuten, haran goibela ixten duten mendi latz eta antzuetako malkarretan zirimoletan eta burrunbari entzun zitekeen trumoi. Boezian,

ikusi dugunez, hiri-estatuen federazio erlijioso batek handikero ospatzen bide zuen Zeus eta Heraren ezkontza sakratua, haritzaren jainko-jainkosena alegia. Eta Likaio mendian, Arkadian, Zeusen izaera, haritzaren eta euriaren jainko gisa, argi azaltzen da Zeusen apaizak euria ekartzeko egindako xarmaduran, haritz-abar bat iturri sakratuan sartzen baitzuen. Grekoek Zeusi eskatu ohi zioten euria. Ezin naturalagoa izan: sarritan, beti ez bada ere, hodeiak biltzen eta haritzak hazten diren mendietan baitzuen bere egoitza. Atenasko Akropolian irudi bat zegoen: Lurra Zeusi euria erregutzen. Eta lehorteeetan atenastarrek berek honelaxe egiten zuten otoitz: "Euria, euria, oi Zeus maitea, euria atenastarren galsoroetan eta lautadetan".

Orobat, Zeusek, euriaren gainean bezala, bazuen ahalmena trumoiaren eta oinaztarriaren gainean ere. Olinpian eta beste nonahi, "Trumoitsua" deituraz gurtzen zuten; eta Atenasen bazen Zeus Oinaztarritsuaren aldare bat sakrifizioetarako; bertan, zenbait apaiz oinaztarriaren zelatan egon ohi ziren urteko zenbait sasoitan. Gainera, grekoek hesitu egiten zituzten oinaztarriak jotako lekuak, eta Zeus Jaisten denari eskaintzen zizkioten, hau da, zerutik sugarretan jaisten zen jainkoari. Aldareak eraikitzen zituzten esparru haietan, bertan sakrifizioak eskaintzeko. Atenasen ere izan ziren halako zenbait leku, inskripzio batzuetatik dakigunez.

Beraz, Greziako errege zaharrek Zeusengandik zetozeala aldarrikatzen zutenez, haren izena hartzen zutenez, badugu nahikoa arrazoi pentsatzeko jainkozko betekizunak egiten saiatzen zirela, trumoi eta euria eraginez herriaren onerako edo etsaien izuikara eta nahasmendurako. Alde honetatik, Salmoneoren legendak beharbada erregexka-mota baten nahiak adierazten ditu; halakoak aspaldidanik ziren errege, zein bere eskualdean, haritzez jantzitako goialde grekoetan. Beren pareko irlandar erregeengandik bezala, lurrarentzat emankortasun eta aziendarentzat ugalkortasun-iturri izatea espero zen haiengandik; eta nola bete itxaropen horiek Zeus senidearena, hots, haritzaren, trumoiaren eta euriaren jainko handiarena eginez baino hobeto? Dirudienez, pertsonifikatu egiten zuten hura, italiar erregeek Jupiter pertsonifikatzen zuten bezalaxe. Antzinako Italian haritz bakoitza sagaratzen zitzaion Jupiterri, Italian Zeusen pareko zenari; eta Erromako Kapitolioan, haritzaren jainko soil gisa ezezik, euriaren eta trumoiaren jainko gisa ere gurtzen zuten jainkoa. Joandako garai on haietako jaiara zerua zeru zela inork sinesten ez zuen garaiko eszeptizismoarekin konparatuz, erromatar idazle batek diosku garai batean matrona nobleak oinutsik joan ohi zirela, biloak aske eta gogo garbiz, Kapitolioko muinoan gora, Jupiterri euria egin zezan otoitz eginez. Eta berehala, diosku berak, sekulako jasak botatzen zituen, inoiz baino gehiago, eta denak itzultzen ziren mela-mela eginda, itotako arratoiak bezala. "Baina gaur egun" dio berak, "jadanik ez gara erlijiozale, eta hor daude soroak kiskaltzen".

Europako hegoaldetik erdialdera pasatzean ere haritzaren eta trumoiaren jainko handia topatuko dugu antzinate zaharreneko oihan zabaletan bizi diren barbaro ariarren artean. Galiako zelten artean, adibidez, druidek ez zeukaten ezer sakratuagotzat mihura eta beronen gainean etortzen zen haritza baino; hariztiak aukeratzen zituzten beren errito nagusirako, eta ez zuten erritorik egiten haritz-hostorik gabe. "Zeltek", dio idazle greko batek, "Zeus gurtzen dute, eta Zeusen irudi zelta haritz tantai bat da". Gure aroaz aurreko hirugarren mendean Asian jarrita zeuden konkistatzaile zeltek, haritza gurtzeko ohitura ekarri bide zuten berekin etxe berrira; izan ere, Asia Txikiko bihotzean, galaziar senatua Drynemetum izen zelta peto-petoa zuen leku batean biltzen zen. Izen horrek "harizti sakratua" edo "haritzaren tenplua" esan nahi zuen. Hain zuzen, druida izenak berak "haritz-gizon" esan nahi duela uste dute hainbat jakintsuk.

Antzinako germaniarren erlijioan zuhaizti sakratuak gurtzeak bide zuen lehentasuna, eta Grimmen arabera haritza omen zen arbola sakratuetan nagusi. Badirudi trumoiaren jainkoari eskaini zitzaiola bereziki, Donar edo Thunarri, eskandinaviarren Thorren

parekoari; hain zuzen, Hesseko Geismar ondoko haritz sakratu batek, San Bonifaziok zortzigarren mendean moztu zuenak, Jupiterren haritza (robur Jovis) zuen izena, germaniera zaharrean Donares eih litzatekeena, hots, "Donarren haritza". Ingelesezkotik Thursday (osteguna) hitzean ageri da Donar, Thunar edo Thor, trumoiaren jainko teutoniarra, Jupiter trumoiaren jainko italiarrarekin identifikatzen zutena, Thunar's day-tik baitator, latineko dies Jovis-en itzulpen hutsetik. Horregatik, antzinako teutoniarren artean, grekoen eta italiarren artean bezala, haritzaren jainkoa bazen trumoiaren jainkoa ere. Gainera, indar ernaltzaile handitzat zeukaten, euria bidali eta lurra igaliz betetzen zuena; izan ere, Bremengo Adamek dioskunez, "Thor da aireko jauna; berak arautzen ditu trumoiak eta oinaztarria, haizea eta euriak, eguraldi ona eta uztak". Beraz, alde honetatik ere, trumoiaren jainko teutoniarrak bere hegotar parekide zen Zeus eta Jupiterren antza du.

Eslaviarren artean ere badirudi haritza izan dela Zeus eta Jupiterren parekide den Perun, trumoiaren jainkoaren zuhaitza. Novgoroden ba omen zen Perunen irudi bat, eskuan trumoi-harria zuen gizon baten itxuran. Haritz-egurrezko sua gau eta egun egon ohi zen irazekita haren ohoretan; eta inoiz itzaltzen bazen, begiraleek biziarekin ordaintzen zuten hobena. Nonbait, Perun -Zeus eta Jupiter bezala- bere herriko jainko nagusia izan zen. Prokopiok dioskunez, eslaviarrek "jainko bat, oinaztarriaren egilea, gauza guztien jaun bakarra dela sinesten dute, eta idiak eta opagai guztiak berari eskaintzen dizkiote". Lituaniarren jainko nagusia Perkunas edo Perkuns zen, trumoiaren eta oinaztarriaren jainkoa, eta askotan aipatu izan da Zeus eta Jupiterrekin zuen antza. Haritzak sagaratzen zitzaizkion, eta misiolari kristauak moztu zituztenean, jendeak protesta egin zuen ozenki, bere oihaneko jainkoak desegiten zituztelako. Haritz jakin batzuen egurrez irazekitako suak itzali gabe gordetzen ziren Perkunasen ohoretan; halako sua itzaltzen bazen, berriro pizten zuten egur sakratua igurtziz. Gizonek sakrifizioak eskaintzen zizkieten haritzei uzta onaren eske, eta emakumeek gauza bera egiten zieten ezkiei; hortik atera genezake haritzak ar eta ezkiak eme jotzen zituztela. Eta lehortearen zenean, euria nahi zutenean, txahal beltza, aker beltza eta oilar beltza eskaintzen zizkieten opagaitan trumoiaren jainkoari baso-barrenetan. Halakoetan, jendetza handia biltzen zen herrialde osoan, jan eta edan egiten zuten, eta aldarri egiten zioten Perkunasi. Garagardoak betetako katilu batez hiru bira egiten zioten suari, gero edaria garretara isurtzen zuten, jainkoari zaparradak bidaltzeko otoitz egiten ziotenarekin batera. Hortaz, lituaniar jainko nagusiak ere, haritzaren, trumoiaren eta euriaren jainkoa zenez gero, antz handia du Zeus eta Jupiterrekin.

Orain arteko azterketatik ageri denez, Europako ariar enborreko adar nagusiek aspaldidanik gurtzen zuten haritzaren, trumoiaren eta euriaren jainko bat, eta haien panteoiko jainko nagusia zen ezbaierik gabe.

XVI

Dianus eta Diana

Kapitulu honetan ikerketak eman dizkigun ondorioak laburbiltzeko asmoa dut, eta hantzen barreiatutako argi-errainuak batuta, Nemiko apaizaren irudi ilunera zuzentzekoa. Ikusi dugunez, gizartearen lehen etapan gizakiek, naturaren ezkutuko prozesuen eta berauek kontrolatu eta zuzentzeko ahalmenen muga estuen ezjakinean, beretzat hartu zituzten gaur egun gizagaineko edo jainkozkotzat joko genituzkeen betekizunak. Lilura hau, sorrarazi zuten arrazoi berberak sustatu eta sostengatu dute gerora, hots, naturak bere jardunaren zuzentzaile dituen ordena eta uniformetasun zoragarriek alegia; naturaren makina handiaren gurrupilak hain emeki eta zehaztasunez dabilta biraka, non behatzaile pazientziatsuak auresan dezakeen itxaroten duena edota beldur diona zein urtarotan beteko den, zein ordutan ez. Ziklo handi honen, edo zikloen segida honen gertaera erregularri berrituak laster josten dira basatiaren gogo ilunean. Aurrikusi egiten

ditu, eta aurrikusita tronpatu egiten da, berritze desiratua bere borondatearen ondorioa, eta berritze beldurgarria etsaien borondatearen ondorioa bailiran hartuz. Horrela, makina eskerga martxan jartzen duten indarrak eskueran ageri zaizkio gizon ezjakinari, geure eskumenetik at egon arren, inoiz iristerik espero ez dezakegun misterioan ezkutaturik. Iruditzen zaio ukitu egin ditzakeela, eta hartara magiaren antzeaz on guztiak beretzat eta gaitz guztiak etsaientzat para ditzakeela. Denboraz, uste horren ustela nabarmen azaltzen zaio: aurkitzen du badirela egin ezin ditzakeen gauzak, bereganatu ezin dituen atseginak, magia-gizonik ahaltsuenak ere ezin saihest ditzakeen nahigabeak. On eskuraezina, gaitz saihestezina, botere ikustezinen jardunari egozten dizkio orain, eta halakoen abegi ona dira alaitasuna eta bizitza, eta haserrea dira miseria eta heriotza. Beraz, magiaren lekua erlijioak hartzen du ezari-ezarian, eta sorgilearena apaizak. Pentsaeraren etapa honetan, gauzen azken kausak izaki pertsonal gisa sumatzen dira; izaki horiek ugari dira kopuruz, eta maiz ez datoz bat izaeraz; badute gizakiaren izatetik eta are ahuleziatik ere, nahiz eta ahala gizakiarena baino askoz handiagoa izan, eta haien bizitza honen aldi laburra baino askoz iraunkorragoa. Haien indibidualtasun zorrotz markatuak, haien azpegi zehatz ebakiak ez dira oraindik nahasten eta batzen hasi, filosofiaren disolbatzaile indartsuaren kariatz, fenomenoek euskarri ezezagun bakarrean. Euskarri hau, gure irudimenak egozten dizkion tasunen arabera, hots handiko izen batetik bestera aldatuz doa, gizakiaren asmamenak bere ezjakintasuna ezkutatzeko bururatu dituen izen batetik bestera. Ondorioz, gizakiek jainkoak beren antzeko izaki gisa ikusten dituzten bitartean (eta ez beren gainetik altuera hurbilezina igoak), sinesten dute gizaki garaienak badaukatela jainkotasunaren mailara iristea, heriotzaren ondoren edota are bizitzan. Esan daiteke azken mota honetako jainko gizon eginak magiaren aroaren eta erlijioaren aroaren erdibidean daudela. Jainko izena eta itzala ageri badute ere, ustez dituzten ahalmenak aurreko magia-gizonarenak ohi dira gehienetan. Honengandik bezala, haiengandik ere gauza bera espero da: beren jendea etsaien enkantamenduetatik gordeko dutela, gaixotasunak sendatuko dizkietela, haurrak emango dizkietela, eta jaki ugari hornituko dituztela, eguraldia arautuz eta lurraren emankortasuna eta abereen ugaltza segurtatzeko beharrezko jotzen diren beste zeremoniak burutuz. Hain ahalmen bikain eta hainbesterainokoak egozten zaizkien gizonen lehen tokia izango dute herrialdean, bidezkoa denez, eta alor izpiritualaren eta sekularren arteko arrakala gehiegi handitzen ez den bitartean, nagusi izango dira hala gai zibiletan nola erlijiosoetan: hitz batez esanda, errege eta jainko izango dira. Beraz, erregearen jainkotasunak oso erro sakonak ditu gizakien historian, eta denbora asko pasatuko da gizakumearen izatearen ikuspegi sakonagoak azpiak jan diezazkion baino lehen.

Antzinate grekoaren eta latindarraren aldi klasikoan, erregeen nagusigoa iraganeko gauza zen gehien bat; baina erregeen leinuez, tituluez eta asmoez zituzten istorioek nahikoa frogatzen dute nola errege haiek ere aldarrikatzen zuten jainkozko eskubidez agintzen zutela eta gizagaineko ahalmenak erabiltzen zituztela. Beraz, inolako ausarkeriarik gabe esan genezake Nemiko Basoko Erregea ere, nahiz gerora ospeaz gabetuta eta garai txarretan gainbehera etorrira, errege sakratuen jatorrikoa zela; alegia noizbait, ustez eskaintzen zituzten onura anitzen truke, menpekoen omena ezezik, gurtza ere jasotzen zutenen jatorrikoa. Dianak Ariciako zuhaiztian zituzkeen betekizunez dakigun apurak frogatuko luke emankortasunaren jainkosatzat zeukatela, eta batez ere hurgintzaren jainkosatzat. Beraz, arrazoizkoa da pentsatzea eginkizun garrantzitsu horiek gauzatzerakoan bere apaiza izango zuela laguntzaile, biak ere Basoko Erregea eta Erregina ageri zirelarik ezkontza itzaltsuan, zertarako eta lurra udaberriko loreez eta udazkeneko igaliez, eta gizon eta emakumeen bihotzak haur osasuntsuz alaitzeko.

Nemiko apaizak errege gisa ezezik zuhaitziko jainko gisa ere jarduten bazuen, oraindik ere galdetu beharrean gara: zein jainko pertsonifikatzen zuen zehazki? Antzinako erantzuna haxe da, Virbio irudikatzen zuela, Dianaren ezkontide edo maitalea. Baina honek ez digu asko laguntzen, Virbioz ezer gutxi baitakigu, izenaz beste. Misteriorako giltza bat agian zuhaitzian gartzen zen su vestalak emango liguke. Izan ere, Europako ariarren su sakratu itzalgabeak haritz-egurrez piztu eta bazkatu ziren nonbait, eta Erroman bertan, Nemitik ez hain urrun, su vestalaren erregaia haritz-makilak edo subilak ziren, su vestaleko ilinti ikaztuen analisi mikroskopiozkoak frogatu duenez; G. Boni komendadoreak aurkitu zituen Erromako Foroan, berak gidatutako indusketa gogoangarrietan, hemeretzigarren mendearen hondarrean. Baina badirudi hiri latindarren erritualak uniformetasun handi samarra izan zuela; beraz, arrazoiz atera daiteke hortik, Lazion su vestala piztuta mantentzen zen leku guztietan, haritz sakratuaren egurrez bazkatzen zela, Erroman bezala. Nemin hala bazen, litekeena da hango zuhaitzi jainkotua haritzia izatea eta, beraz, Basoko Erregeak bizia arriskatuz babestu beharreko zuhaitza ere haritza izatea; hain zuzen, Virgiliok dioenez, arte batetik erauzi zuen Eneasek Urrezko Abarra. Bestalde, haritza zen Jupiterren, latindarren jainko gorenaren zuhaitz sakratua. Beraz, hortik haxe ondorioztatzen da, Basoko Erregeak, bizia haritz bati estu lotuta zuenak, Jupiter bera nortzen zuela. Orain arte agertutakoak bederen, bere xumean, ondorio horixe adierazten bide du. Albako dinastia zaharrak, Silvii edo basotarrena, haritz hostozko koroarekin, Albano mendiaren gainean bizi zen laziotar Jupiterren estiloari segitzen zion eta beraren ahalak imitatzen zituen agi danean. Ez da ezinezkoa Basoko Erregea, mendian beheaxeago babesten baitzuen haritz sakratua, Silvii edo basotarren leinu zahar honen legezko oinordeko eta ordezkaria izatea. Nolanahi ere den, zuzen banabil hura Jupiter gizon egintzat zeukatela ematean, esan liteke Virbio, beronekin identifikatzen baitzuen legendak, Jupiterren aldaera lokala baino ez zela, beraren jatorriko itxuran, hots, basoko jainko gisa hartua.

Gerora, Basoko Erregeak Jupiter haritz-jainkoaren papera edozertarako egiten zuelako hipotesia, bere kide Dianaren inguruko azterketak berresten du. Izan ere, bi argudiabide desberdinek egiten dute bat erakusteko ezen, Diana orokorrean basoetako erregina bazen, Nemin bereziki haritzaren jainkosa zela. Lehenik eta behin, Vesta titulua zuen eta, hainbestez, su itzalgabea zuen bere omenez, haritz-egurrez bazkatzen bide zena, horretarako arrazoa ere aurkitu dugunez. Baina suaren jainkosa ez dago su horrentzako erregaitik oso urrun. Lehen gizakien pentsaerak ez bide zuen bereizketa garbirik egiten garren eta gartzen diren egurren artean. Bigarrenik, badirudi Nemiko Egeria ninfa, Dianaren forma bat besterik ez zela; eta Egeria driade bat izan omen zen, haritzaren ninfa bat. Italiako beste lekuetan jainkosak haritzez estalitako mendietan zeukan bere bizilekua. Algidus mendia, esaterako, Albano muinoen mendi-bular bat, haritzi ilunez estalita zegoen antzinatean, bai hosto iraunkorren (artea) eta bai erorkorren motako zuhaitzez. Neguan elurrak denbora luzez irauten du muino hotz haietan, eta hango haritzi goibelak Dianaren agerleku gogokoena zirela uste zen, garai modernoetan lapurrena izan diren bezala. Era berean, Tifata mendia, Apeninoetako bizkar luze malkarra, Campaniako lautadari begira Capuaren atzean, aspaldidanik zegoen artez beteta, eta artadi haietan Dianak tenplu bat zuen. Han eskertu zion Silak jainkosari beheko lautadan Marioren aldekoen lepotik garaipena lortzeagatik, bere esker ona askoz geroago ere ikusiko ziren inskripzioez adieraziz. Osotara, beraz, ondoriozta genezake Nemin Basoko Erregeak Jupiter haritz-jainkoa pertsonifikatzen zuela, eta Diana haritz-jainkosarekin parekatzen zela zuhaitzi sakratuan. Haien bategite mistikoaren oihartzun bat iritsi zaigu Numa eta Egeriaren maitasunen legendan, zenbaiten arabera baso santu haietan biltzen baitziren.

Teoria honi, noski, kontrajar dakioke Jupiterren ezkontide jainkozkoa ez zela Diana, Juno baizik, eta baldin Dianak lagunik bazuen, Jupiter ez baina Dianus edo Janus beharko zuela izena, bi forma hauetan azkena aurrekoaren aldaera bat besterik ez zelarik. Hau guztia egia da, baina oztopoa deuseztu egiten da honako honetaz ohartuta: bi jainko-bikoteak, batetik Jupiter eta Juno, bestetik Dianus eta Diana, edo Janus eta Jana, elkarren bikoizketa besterik ez direla, izenak eta betekizunak berez eta jatorriz berberak izanik. Izenei dagokienez, lau-laurak datoz ariar sustrai berberetik: DI, ("distira") ageri da Zeus eta beronen antzinako ezkontide Dione jainko grekoen izenetan ere. Betekizunei dagokienez, Juno eta Diana emankortasunaren eta haurgintzaren jainkosak ziren biak, eta biak identifikatu zituzten lehenago edo geroago Ilargiarekin. Janusen izate eta betekizun benetakoei buruz, antzinatarrek berak nahastuta zeuden; eta haiek zalantzak bazituzten, ez dugu guk ziurtasun osoz ezer erabakiko. Baina Varronek aipatutako ikuspegia, alegia Janus ortziko jainkoa zela, Jupiter ortziko jainkoaren izenarekin duen etimologi kidetasunak bakarrik ez du babesten; Jupiterren bi lagunekin, Juno eta Juturnarekin, izan bide zuen erlazioak ere babesten du. Izan ere, Janusi emandako "Junotar" deiturak bi jainkoen arteko ezkontzazko batasuna seinalatzen du; eta kontakizun baten arabera, Janus Juturna uretako ninfaren senarra zen; eta beste batzuen arabera, azken hau Jupiterrek maitatu zuen. Gainera, Janus askotan aldarrikatzen zuten, Jupiter bezala, eta Aita deitu ohi zioten. Hain zuzen, Jupiterrekin identifikatu zuten, San Agustin ikasiaren logikak ezezik, baita Jupiter Dianusi eskaintza bat egin zion gurtzaile pagano baten jaiarak ere. Haritzarekiko erlazio honen arrasto bat aurki daiteke Janiculumgo hariztietan, Tiberreko eskuin-ertzeko muinoan. Janus errege izan omen zen han, Italiako historiaren garai urrunenetan.

Beraz, zuzen banago, jainkoen antzinako bikote berbera era desberdinez ezagutzen zuten Greziako eta Italiako herriek: Zeus eta Dione, Jupiter eta Juno, edo Dianus (Janus) eta Diana (Jana) izenez. Jainkoen izenak berdin-berdinak ziren funtsean, nahiz eta formaz desberdinak izan, haiek gurtzen zituen tribuaren dialektoaren arabera. Lehenik, herriak elkarren hurbilean bizi zirenean, jainkoen arteko aldea izenarena besterik ez zen izango; bestela esan, dialektozkoa izango zen. Baina tribuak barreiatu ahala eta, ondorioz, elkarretarik isolatzean, etxe zaharretik berekin eramandako jainkoak gogoratzeko eta gurtzeko era desberdinak sortuko ziren, hala non denboraren harian mito eta eritual-desberdintasunak sortuko ziren eta, beraz, jainko-jainkosen izenezko bereizketa benetako bereizketa bihurtuko zen. Honen arabera, kulturaren aurrerapen geldoarekin batera, barbaria eta isolamendu-aldia iragan zenean, eta komunitate indartsu bakar baten botere politikoa auzo ahulagoak nazio bakar batera erakartzen edo jipoitzen hasi zenean, elkarrenganatutako jendeek enbor bakar batean batuko zituzten beren jainkoak, dialektoak bezala; eta hala, hauxe gertatuko zen, alegia antzinako jainko berberak, arbasoek tribu askotan barreiatu aurretik batera gurtu zituztenak, orain hain itxuragabetuta egotea dialekto eta erlijiozko desberdintasunengatik non jatorriz bat izate hura ez zen atzemango, eta elkarren ondoan hartuko zuten beren lekua, jainko desberdin gisa, panteoi nazionalen.

Jainkoen bikoizte honek, senide bai baina denbora luzez aparte bizi izan ziren tribuak azkenean bat egitearen emaitza zenak, ekarriko zuen Erromako erlijioan Janus Jupiterren ondoan eta Diana edo Jana Junoren ondoan agertzea. Teoria honek, behinik behin, zenbait irakasle modernok onartzen duten beste iritzi batek baino egiantzekoagoa dirudi: Janus jatorriz ateen jainkoa baino ez zela. Hain duintasun eta garrantzi handiko jainkoa, erromatarrek jainkoen jainko gisa eta herriaren aita gisa omentzen zuten jainkoa, atezain soil (nahiz, ezbairik gabe, errespetagarri) gisa bizitzen hasteak, ez dirudi oso bidezkoa. Hain amaiera bikaina nekez ezkontzen da hain hasiera apalarekin. Litekeenagoa da ateak (janua) Janusetik hartzea izena, eta ez alderantziz. Ikuspegi hau

sendotu egiten da janua hitzari begiratzuz gero. "Ate" adierazten duen hitz arrunta, berbera da ariar familiako hizkuntza guztietan, hasi Indiatik eta Irlandaraino. Sanskritoan dur da, grekoan thura, germanieraz tûr, ingelesez door, irlandera zaharrez dorus, eta latinez foris. Baina latindarrek ate esateko, beste ariar senide guztiekin zeukaten izen arrunt honen ondoan, bazeukaten janua izena ere, beste indoeuropar hizkuntzetan parekorik ez duena. Hitzak Janus izenetik eratorritako adjektibo baten itxura du. Nik susmo hau dut, etxeko ate nagusian Janusen irudi edo sinbolo bat ipintzeko ohitura egongo zela, sarrera jainko handiaren babesean jartzeko. Hala zaindutako ateari janua foris esango zioten, hau da, Janotar atea, eta esaldi hau denboraren harian janua laburtuko zen, foris izena esan gabe ulertzen zelarik. Hortik oso erraz eta berez pasatuko ziren janua erabiltzera, orokorrean atea izendatzeko, Janusen irudi batek babestua egon nahiz ez.

Nire susmo honetan egi arrastorik baldin bada, oso era sinplean azal liteke Janusen buru bikoitzaren jatorria, mitologoaren xalotasuna hainbeste denboraz probatu duena. Etxe eta herrietako sarrera Janusen irudi batez babestea ohitura bihurtu zenean, beharrezko iritziko zioten jainko goardakoak bi aldeetara begiratzeari, aurrera eta atzera aldi berean, begi begiraletik kanpo ezer gera ez zekion. Izan ere, begirale jainkotiarrek beti alde bakar batera begiratu izan balu, pentsa liteke erraz gerta zitekeela zorigaitzen bat haren atzealdean inongo oztoporik gabe. Erromako Janus burubikoaren azalpen hau berretsi egiten du bush beltzek, Surinamgo barrualdean, herri baten sarreran zaintzaile gisa eraiki ohi duten idolo burubikoak. Idoloa enbor-zati batez egina da, alde banatara zakar landutako giza aurpegi bat duelarik; bi zutoinek eta langeta batek osatutako atari baten azpian egoten da. Idoloaren atzean, gehienetan, trapu zuri bat izaten da, gaitza urruntzeko edo; eta batzuetan izaten da makila bat ere, mazo baten edo giza horretako armaren baten irudira. Gainera, langetetik enbortxo bat egon ohi da zintzilik, ataritik pasatu nahi lukeen edozein izpiritu gaizto buruan jotzeko xede baliotsuaz. Argi eta garbi, Surinamgo herri beltzetako sarrerako fetitxe burubiko honek antz handia du Janusen irudi burubikoarekin; hau, esku batean makila eta bestean giltza, beilari egoten zen Erromako atari eta ateetan; eta ezbairik gabe, bi kasuotan bi aldetara begira zeuden buruak berdintsu azaldu behar dira, jainko goardakoaren zaintzaren adierazle: aurreko eta atzeko etsai izpiritualei begia emanez, eta mazoaz jotzeko prest. Beraz, ez daukagu zertan onartu Janus zuhurak berak, Ovidiori sinetsi behar badiogu, jakinminak jotako erromatar bati bota omen zizkion azalpen aspergarri eta desatseginak.

Azalpen hauek Nemiko apaizari aplikatzeko, demagun Dianaren lagun zen aldetik jatorriz Dianus edo Janus ordezkatzan zuela, ez Jupiter, baina aspaldi batean bi jainkoen arteko desberdintasuna axal-axalekoa zela, izenez aparte apenas ezer besterik, eta jainkoaren funtsezko betekizunak, ortzi-trumoi-haritzen ahalak, ukitu gabe utziz. Bidezkoa zen, beraz, Nemiko giza ordezkari hura harizti batean bizitzea, eta ikusi dugu horrelakorik sinesteko arrazoirik. Basoko jainkoa tituluak argi adierazten du zerbitzatzen zuen jainkoaren oihandar izaera; eta zuhaiztiko arbola jakin baten abarra erauz zezan haretzek eta ez bestek eraso ziezaiokeenez, esan genezake jainko haren bizia bera ere arbola sakratuarenari lotuta zegoela. Horregatik, zerbitzatu ezezik, gorpuztu egiten zuen haritzaren jainko ariar handia; eta haritz-jainkoa zen aldetik haritz-jainkosarekin kidetuko zen, honen izena Egeria izan nahiz Diana izan. Bien batzea, nolanahi gauzatzen zela ere, nahitaezko joko zen hala lurraren nola gizon eta abereen emankortasunerako. Gainera, haritz-jainkoa ortziaren, trumoiaren eta euriaren jainkoa ere bazenez, haren giza ordezkariari, beste errege jainkotiar askori bezala, hodeiak bil zitzala, trumoiak joaraz zezala eta euria behar zen sasoiaren ekar zezala eskatuko zitzaion, soro eta baratzeak fruitua eman zezatela eta larreak belar gizen ugariz estal zitezela. Hain ahalmen garaien jabea oso pertsonaia garrantzitsua izango zen; eta jainkotegia egondako

lekuan aurkitutako eraikin-hondarrak eta zinezko eskaintzak bat datoz idazle klasikoen testigantzarekin: geroago Italiako leku santu handienetako eta ezagunenetako bat izan zela frogatzen dute. Are antzina-antzina, inguruetako landaldea artean Latindar Liga osatzen zuten tribuen artean zatikatuta zegoenean, zuhaizti sakratuari denek erakusten zioten lotsa eta arreta. Eta Kanboiako erregeek Suaren eta Uraren errege ezkutuei oihan tropikalen bihotz-bihotzera opariak bidali ohi zizkieten bezala, halatsu zuzenduko ziren Lazioko lautada zabaleko alde guztietatik zetozen italiar erromesen begiak eta urratsak eskualde hartara. Apeninoen lerro urdinkara gandutuaren kontra ebakiz, edo urruneko itsasoaren urdin sakonagoaren kontra, Albano mendia altxatzen zen haien aurrean, Nemiko apaiz misterioitsuaren etxea, Basoko Erregearena. Han, baso berdeen artean eta muino bakartietako ur geldien ondoan, bere hasierako eran iraungo zuen haritzaren, trumoiaren eta ortzi isurlearen jainkoaren ariar gurtza zaharrak, ia druiden eran, latindarren erlijioaren hiriburua basotik hirira, Nemitik Erromara, aldarazi zuen iraultza politiko eta intelektual handia gertatu eta askoz gerorago ere.

XVII

Erregetasunaren zama

1. Errege eta apaizen tabuak

Lehenagoko gizartearen etapa batean, erregea edo apaiza gizagaineko ahalmenen jabe zela uste zen, edo jainko gizon egina zela, eta, sineste honen arabera, uste zen naturaren nondik-norakoa ere gutxi-asko haren kontrolpean zegoela, eta eguraldi txarraren, ereindakoa galtzearen eta gisa honetako kalteen ardura leporatzen zioten. Neurri batez, erregeak naturaren gainean zuen ahala, borondatezko egintza jakinen bitartez gauzatzen zela uste zen, herritarren eta esklaboek gainean zuen ahala bezala alegia; beraz, lehorteak, goseteak, izurriteak edo ekaitzak etortzen baziren, herriak erregearen zabarkeriari edo erruari egozten zion zorigaitza eta, beraz, zigortu edo kateatu egiten zuen, edota, hura bere hartan tematzen bazen, bere kargutik kendu edo hil ere bai. Batzuetan, ordea, naturaren nondik-norakoa, erregearen menpekotzat hartzen bada ere, alde haren borondatetik aske dagoela jotzen da. Haren pertsona unibertsoaren gune dinamikotzat hartzen da, hala esaterik badago; gune horretatik indar-lerroak hedatzen dira zeruetako alde guztietara; horrenbestez, haren edozein higidurak -burua jiratzek, eskua lerratzeak- berehala eragin eta nahas dezake naturaren alderen bat. Bera da munduaren oreka sostengatzen duen euskarria, eta bere irregulartasunik xumeenak desegin egin dezake oreka hori. Kontu handiena egin behar zaio, beraz, erregeari; eta haren bizitza osoak, xehetasun ñimiñoetaraino, erabat araututa egon behar du, hala non inongo egintzak, borondatezko nahiz borondatez kanpoko, lardaska edo urra ez dezakeen naturan ezarritako ordena. Errege-mota hauetan, Mikado edo Dairi-a, Japoniako aita izpirituala da -edo, hobeto esan, zen- adibide tipikoa. Eguzki jainkosaren haragiztapena da, unibertsoa -jainkoak eta gizonak barne- darabilen jainkosarena; urtean behin jainko guztiak biltzen dira berarekin eta hilabete ematen dute gortean. Hilabete horretan (zeinen izenak "jainkorik gabe" esan nahi baitu) inor ez da agertzen tenpluetara, jainkoek alde egin dutelakoan. Mikadoak herriagandik jaso eta bere egiten du aldarrikapen ofizialetan eta dekretuetan "jainko agertu edo gizon egina" titulua, eta Japoniako jainkoek gainean aginte orokorra duela aldarrikatzen du. Adibidez, 646. urteko dekretu ofizial batean, enperadorea "unibertsoa gobernatzen duen jainko gizon egina" dela esaten da.

Mikadoaren bizimoduaren ondorengo deskribapena orain dela berrehun bat urte idatzia da:

"Gaur egun ere, familia honen jatorriko printzeak, batez ere tronuan esertzen direnak, berez pertsonarik santuenak eta jaiotzaz aita santuak bailiran ikusten dituzte. Eta nozio komenigarri hauek herritarren gogoan iraun dezaten, beren buruaz neurriz gaineko

arreta jartzera eta hainbat gauza egitera behartuta daude; beste nazio batzuen ohituren arabera aztertuta, barregarri eta desagokitzat hartuko liratekeen gauzak egitera, hain zuzen. Ez datorke gaizki adibide batzuk ematea. Mikadoak pentsatzen du bere duintasunari eta santutasunari kalte handia egingo liokeela oinez lurra ukitzeak; hau dela eta, inora joan nahi duenean, gizonen sorbalda gainetan garraiatu behar izaten dute. Are okerragoa litzateke bere pertsona sakratua aire zabalean agertzea, eta eguzkia bera ere ez da duin bere izpiak haren buru gainera zuzentzeko. Hainbestekoa da haren gorputz-atal guztien santutasuna non ez den arriskatzeko ez ileak, ez bizarra, ezta azkazalak ere mozteten. Baina zikinegi ezin egon, eta gauean garbitzen dute, bera lo dagoenean; zeren eta, diotenez, orduan gorputzetik hartzen zaiona, lapurtu egiten baitzaio, eta lapurreta horrek ez omen die kalterik egiten haren duintasunari eta santutasunari. Antzina, behartuta zegoen goizero zenbait orduz tronuan eserita egotera, koroa inperiala buru gainean zuela, estatua baten gisa, eskuak edo oinak, burua edo begiak, edo gorputzeko ezein parte mugitu gabe, zeren eta, hartara, inperioan bakea eta lasaitasuna izango zirela uste baitzen. Baldin eta, zoritxarrez, alde batera edo bestera jiratzen bazen, edo aldi batez bere lurraldeetako edozein aldetara begira egoten bazen, jakitun geratzen ziren laster gerra, gosetea, sua edo beste zorigaitz handiren bat zetorkiela. Baina gerora aurkitu zuten, koroa inperiala zen paladioia, ezkutua; hark babes zezakeen inperioa bakean, bere irmotasunaz; beraz, haren pertsona inperiala, aisiara eta atseginetara bakarrik emanez, eginkizun astun hartatik askatzea otu zitzaien; horregatik, gaur egun koroa jartzen dute tronu gainean goizero zenbait orduz. Jakiak ontzi berrietan atundu behar dira aldioro, eta plater berrietan zerbitzatu behar dira mahaian. Batzuk eta besteak garbi-garbiak dira, baina loza arruntez eginak, gastu handiegirik gabe baztertu edo hauts daitezkeenak, behin bakarrik erabili eta gero. Gehienetan hautsi egiten dituzte, gizon arrunten eskuetara joango ote diren beldurrez, itsu-itsuan sinesten baitute ezen, edozein gizon arrunt plater sakratu horietan jatera ausar baledi, ahoa eta eztarria hanpatu eta gartu egingo litzaizkiokeela. Ondorio txar berberaren beldur dira daiariaren jantzi sakratuen kasuan ere; uste dute gizon arrunten batek haiek jantziko balitu, Enperadoreak hartarako baimena edo agindua eman gabe, hanpadurak eta oinazeak eragingo lizkioketela gorputz osoan". Hizpide berberetik, mikadoaren lehenagoko kontakizun batek honela dio: "Zatarkeria lotsagarritzat jotzen zen hark oinez lurra ukitzea bera ere. Eguzkiari eta ilargiari ez zieten uzten beren izpiak haren buru gainera zuzentzen. Gorputzaren gainezkoak ez zitzaizkion inoiz kentzen, ez ilea, ez bizarra, ezta azkazalak ere. Jaten zuen guztia ontzi berrietan atontzen zen".

Antzeko errege apaizak edo areago, jainkozkoak, aurkitzen dira, barbarokeria maila baxuagoan, Afrikako mendebaldeko kostan. Shark Point-en, Padron lurmuturretik gertu, Ginea Beherean, Kukulu errege apaiza bizi da basoan bakarrik. Ez dauka emakumea ukitzerik, ez etxetik aldegiterik. Egia esan, ez dauka bere aulkitik mugitzerik ere, eta behartuta dago bertan lo egitera. Etzango balitz, ez litzateke haizerik ibiliko, eta nabigazioa gelditu egingo litzateke. Ekaitzak araupean jartzen ditu eta, oro har, atmosfera osasungarri eta egonkor mantentzen du. Togoko Agu mendian Bagba deritzan fetitxe edo izpiritua bizi da, oso garrantzizkoa inguruko herrialde osorako. Berari leporatzen zaio euria emateko edo gordetzeko ahalmena, eta haizeen jauna da, baita Harmattan delakoarena ere, barrualdetik jotzen duen haize lehor beroarena. Haren apaiza mendiaren tontor garaieneko etxe batean bizi da. Haizeak pitxer esekietan gordeta dauzka bertan. Euri-eskeak ere egiten zaizkio, eta etekin ederrak ateratzen ditu kuttunen bidez, leopardo hartz eta masailezurak salduz alegia. Baina haren boterea handia izan arren, eta lurralde hartako benetako buruzagia bera izan arren, fetitxearen arauak debekatu egiten dio menditik aldegitea, eta bizitza osoa eman behar du tontorrean. Urtean behin bakarrik jaits daiteke azokan eroatera; baina orduan ere ezin

izaten du oinik ezarri ezein gizon hilkorren etxolan, eta egun berean itzuli behar izaten du bere bazterrera. Herrietako gobernu-lanak menpeko buruzagien bitartez burutzen dira, eta berak aukeratzen ditu. Afrikako mendebaldean, Kongoko erresuman, bazen pontifize nagusi bat, txitomea edo txitonbea, beltzek lurreko jainkotzat eta zeruko ahalguztiduntzat zeukatena. Horregatik, uzta berriak probatu aurretik, lehen igaliak eskaintzen zizkioten, arau hori hautsiz gero askotariko zorigaitzak gainera eroriko ote zitzaizkien beldurrez. Bere bizilekutik bere aginte-eremukoko beste leku batzuk bisitatzea aldegiten zuenean, ezkondu guztiek sexu-harremanak izateari utzi behar izaten zioten hura kanpoan zen bitartean, sexu-harremanek kalte egingo ziotelakoan. Eta heriotza naturalez hiltzen bazen, mundua akabatu egingo zela uste zuten, eta lurra, gizon hark bere indar hutsez eta merezimenduz sostengatzen zuena, berehala ezereztatuko zela. Mundu Berriko nazio erdi-barbaroen artean, espainiar konkistaren garaian, Japoniakoa bezalako hierarkiak edo teokraziak aurkitu zituzten; zapoteken pontifize gorenari, bereziki, mikadoaren antz handikoa omen zen. Erregearen beraren aurkari indartsua zen, eta jaun izpiritual honek erabateko manuz gobernatzen zuen Yopaa, erresumako hiriburuetako bat. Kontatu zaigunez, ezin suma daiteke hari zioten begirunea. Jainko gisa ikusten zuten, lurra bera ere ez zen duin hura gainean sostengatzeko, ezta eguzkia ere hari argi egiteko. Lurra oinez doi ukitzen bazuen, bere santutasuna orbantzen omen zuen. Haren anda bizkar gainean eramaten zuten ofizialak familia ospetsuenetakoak ziren; apenas ematen zion begia inguruko ezeri; eta berarekin topo egiten zuten guztiak ahozpezt erortzen ziren, haren itzal hutsa ikusten bazuten heriotzak bereganatuko ote zituen beldurrez. Sexu-harremanez gabetzeko araua ezarri ohi zitzaien apaiz zapotekei, batez ere pontifize gorenari; baina "urtero, gehienetan festa eta dantzekin ospatzen ziren egun jakin batzuetan, apaiz gorenari mozortu egin ohi zen. Egoera hartan zegoen bitartean, ez zeruko ez lurreko zirudiela, beraren manupeko birjina ederrenetarik bat eramaten zioten". Honek izaten zuen haurra mutikoa bazen, odoleko printze gisa hazten zuten, eta semerik zaharrenak segitzen zion aitari pontifizearen tronuan. Pontifize honi egotzen zitzaizkion botere naturaz gairik ez zirela zehazten, baina beharbada mikadoaren eta txitomearen antzekoak izango ziren.

Japonian eta Afrikako mendebaldean bezala, naturaren ordena erregearen edo apaizaren biziari lotuta dagoela ematen den lekuetan, nonahi, bistan da menpekoek onbide eta arrisku mugagabearen iturri gisa hartu behar dutela hura. Alde batetik, jendeak eskertu egin behar dio luraren igaliak gizentzen dituzten euri-eguzkiengatik, beren kostaldera itsasontziak eramaten dituen haizeagatik, baita oinpean duten zoru sendoagatik ere. Baina ematen duena ukatu ere egin dezake; eta hain handia da naturak haren pertsonarekiko duen menpekotza, hain xumea bera erdigune duten indarren sistemaren oreka, non bere aldetiko irregulartasun txikiak lurrikara sor dezakeen, lurra oinarrietaraino astinduko duen lurrikara. Eta erregearen oharkabeko egintza ezdeusenak natura nahastu egin badezake, erraz suma daiteke nola astinduko duen haren heriotzak. Txitomearen berezko heriotzak, ikusi dugunez, gauza guztien suntsipena zekarrela pentsatzen zen. Beraz, bistan denez, beren segurtasunaren arduraz, erregearen edozein arinkeriak eta are gehiago haren heriotzak arriskuan jar baitezakete, herriak arau horiei erabat atxikitze eskatuko dio errege edo apaizari, horiek gordetzea beharrezkotzat jotzen baita beraren babeserako eta, ondorioz, bere herriaren eta munduaren babeserako. Ikusten ari garen monarkiei dagokienez, guztiz desagokoa da lehenagoko erresumak despotismoak jota zeudelako ideia, alegia herria erregearentzat zela. Alderantziz, erregea menpekoen zerbitzurako bestetarako ez dago; haren bizia karguko eginkizunak burutzen dituen heinean da baliozko, naturaren nondik-norakoa herriaren onerako ordenatuz. Horretan huts egin bezain laster, ordura arte jarri dioten arreta, izan dioten atxikimendua, erlijio-omena, atertu eta gorroto eta destaina bihurtzen dira; lotsagarriki

kentzen dute bere kargutik, eta pozik egon daiteke bizirik irteten bada. Egun batez jainko gisa gurtua, kriminala bailitzan hiltzen dute biharamunean. Baina herriaren jokabide-aldaketa horretan ez da ezer apeta hutsezko edo burugaberik. Aitzitik, jokamolde hori ildo beretik doa guztiz. Erregea jainko badute, babesle ere izan beharko lukete; eta babesten ez baditu, besteren bati utzi beharko dio lekua. Haien itxaropenei erantzuten dien neurrian, ordean, ezartzen dioten arretak ez du mugarik, ezta bere buruaz harrarazten diotenak ere. Horrelako erregea zeremonien etiketak harrapatuta bizi da, debeku eta betebeharren sareak harrapatuta, eta halakoen xedea ez da erregearen duintasuna, are gutxiago erosotasuna, baizik eta bera, bere herria eta unibertso osoa, naturaren harmonia nahaspilatuz, hondamendira bidaliko lituzkeen jokamoldetik aldentzea. Betebehar hauek ez diote inolako erosotasunik ekartzen; aitzitik, haren egintza oro oztopatuz, ezereztu egiten diote askatasuna eta sarritan bizitza osoa, zama nekoso eta tristea bihurtzen diote, babesteko xedea izan arren.

Naturaz gaindiko dohaiz hornituriko Loangoko erregeez esan izan da ezen, zenbat eta ahaltsuago izan erregea, hainbat eta tabu gehiago gordetzera behartuta dagoela; egintza guztiak arautzen dizkiote, ibiliak eta egonaldiak, jan-edanak, lo eta esna egotea. Tronurako oinordekoa haurtzarotik dago lotura horien menpe; baina bizitzan aurrera egin ahala, zaindu beharreko barau eta zeremonien kopurua hazi egiten da, "harik eta tronura igotzen den unean errito eta tabuen itsaso hondargabea galduta egon arte". Sumendi itzali baten kraterrean, alde guztietatik malda belartsuak hesitzen dutela, Fernando Poko (gaur Bioko) erregearen hiriburu den Riabbako etxola sakabanatuta eta ñame-soroak dautza. Izaki misteriosu hori kraterrearen sakon-sakonean bizi da, berrogei emakumek osatutako haren batez inguraturik, eta, diotenez, zilarrezko txanpon zaharrez estalirik. Basakume biluzia izanik ere, askoz eragin handiagoa du irlan Santa Isabelgo (gaurko Malaboko) espainiar gobernadoreak baino. Harengan omen dago boobitarren - jatorriz bertako biztanleen- izpiritu babeslea, nolabait esan. Inoiz ez du ikusi gizon zuririk, eta boobiak erabat etsita daude ezen, aurpegi zurbil bat ikusiko balu, bertan hilko litzatekeela. Ez dauka itsasoari begiratzerik; are gehiago, urrunera ere ezin ikusi omen dezake inoiz eta, beraz, zangoetan girgiluak dituela bizi da bere etxolako argitzalean. Egia da inoiz ez duela hondartzan oinik ezarri. Mosketea eta labana salbu, ez du zuriegandik datorren ezer erabiltzen; europar arropek inoiz ez dute ukitzen, eta muzin egiten die tabakoari, ronari eta are gatzari ere.

Esklaboek kostako ewe mintzairadun herrien artean, "erregea apaiz nagusi da aldi berean. Horrenbestez, batez ere iraganean, menpekoak ezin zitzaizkion hurbildu. Gaez bakarrik irten zitekeen bizilekutik bainatzera eta beste egitekoetara. Inork ez zeukan harekin hitz egiterik, salbu eta haren ordezkari batek, 'ikus daitekeen erregea' deitua, eta hiru agure aukeratutako. Baina hauek ere hari bizkarra emanda eseri behar izaten zuten idi-larru baten gainean. Ezin ikusi zezakeen europarrik edo zaldirik, ezin egon zitekeen itsasoari begira, eta horregatik ez zioten uzten hiriburutik aldegitzen, ezta une batzuetarako ere. Arau hauek baztertu egin dira azken aldian". Dahomeyko (gaurko Beningo) erregeak berak ere debekatua du itsasoari begira egotea, baita Loango eta Ardra Handiko erregeak ere, Ginean. Itsasoa eyeoen fetitxea da, Dahomeyko ipar-mendebaldean, eta herio-mehatxuak egiten dizkiete apaizek, haiei eta haien erregeari, inoiz begia ematera ausartzen badira. Sineste bat da, Senegalgo Cayorko erregea urtearen barruan hilko litzatekeela ezinbestean, baldin ibai bat edo itsasadar bat zeharkatuko balu. Mashonatarren lurraldean, ia oraintsu arte, buruzagiek ez zeukaten ibai jakin batzuk iragaiterik, batez ere Rurikwi eta Nyadiri ibaiak; eta buruzagi batek gutxienez erabat gordetzen zuen ohitura hau orain dela urte batzuk ere. "Buruzagiak ez du inola ere ibaia zeharkatuko. Guztiz beharrezkoa balitzaio, begiak estaltzen dizkiote eta beste aldera eramaten dute oihu eta kantuen artean. Bere oinez gurutzatuko balu,

itsutu edo hil egingo litzateke eta, ez bairik gabe, buruzagitza galduko luke". Hala berean, mahafalyen eta sakalaven herrietan, Madagaskarko hegoaldean, errege batzuei debekatu egiten zaie itsasoratzea edo ibai jakin batzuk zeharkatzea. Sakalaven artean, buruzagia izaki sakratutzat daukate, baina mugaketa-pila batek "katea motzez lotuta dauka; jokamoldea arautzen diote, Txinako enperadoreari bezala. Ezin ekin diezaioke ezeri, sorgileek aldeko zantzuak badirela adierazi ezean; ez dauka janari berorik hartzerik; egun jakin batzuetan ez dauka etxolatik aldegitik; eta abar". Assamgo menditar tribu batzuen artean, bai buruzagiak eta bai honen emazteak tabu asko gorde behar dituzte janariari dagokionez; adibidez, ez daukate bufaloa, txerriak, zakurra, hegaztiak edo tomateak jaterik. Buruzagiak garbia izan behar du sexu-kontuetan, emazte bakarraren senarra, eta urrundu egin behar izaten du harengandik tabua denek publikoki gorde behar izaten duten egunaren bezperan. Tribu-multzo batean, buruzagiak debekatua du herrixka arrotzean jatea, eta zeinahi erronka eta eupada egiten zaiolarik, ezin jaulki dezake protesta-hitik. Agi danean, herriak uste du buruzagiak tabu hauetakoren bat urratzeak zorigaitza ekarriko lukeela herrixka osora.

Irlandako antzinako erregeak, baita Leinster, Munster, Connaught eta Ulster lau probintzietakoak ere, zenbait debeku edo tabu bitxiren menpeko ziren, eta halakoak behar bezala gordetzearen gora-beheran zegoen, ustez, jendearen eta herrialdearen ongizatea, baita berarena ere. Adibidez, eguzkia ezin atera zitekeen Irlandako erregea Taran, Eringo hiriburu zaharrean, ohean zegoelarik; erregeak debekatua zeukan asteazkenez Magh Breaghen oina jartzea, Magh Cuillinn eguzkia sartu ondoren zeharkatzea, zaldia Fan-Chomairen aztakatzea, Bealltaine (maiatzaren lehena) ondorengo astelehenez itsasontziz ibiltzea, eta Ath Maighnen Domuru Santu ondorengo asteartean armadaren arrastoa uztea. Leinstergo erregeak ezin ingura zezakeen Tuath Laighean ezkerrentz asteazkenean, ezin zuen lo egin Dothair (Dodder) eta Duibhlinn bitartean burua alde batera erorita zuela, ezin zuen kanpatu bederatzi egunez Cualanngo lautadetan, astelehenez ezin zuen Duibhlinngo bidean ibili, ezin zuen zaldi lohiztatu hankabeltzaren gainean ibili Magh Maistean zehar. Munsterko erregeak debekatuta zeukan Loch Lei jaian festa egitea astelehen batetik bestera; gauez oturuntzarik egitea uztaroaren hasieran Geimen aurrean, Leitreachan; bederatzi egunez Siuiren kanpatzea; eta muga-bilera bat izatea Gabhranen. Connaughteko erregeak ezin itxi zezakeen traturik Cruachango jauregi zaharrari buruz Domuru Santu egunez bakea egin ondoren; ezin zen joan, jantzi pintarkatuak soinean zituela, zaldi arre pintarkatuan Dal Chaisko txilardira; ezin zen agertu emakumeen bilerara Seaghaisén, ezin zen eseri udazkenean Maineren emaztearen hilobiko lur-piletan, ezin zuen zaldi-lasterketarik egin zaldi arre begibakarra zuenaren kontra Ath Galltan, bi hagaren artean. Ulsterko erregeak debekatuta zeukan Rath Line-n zaldi-azokara agertzea Dal Araidheko gazteen artean, Linn Saileacheko txori-saldoen txorrotxioak entzutea eguzkia sartu eta gero, Daire-mic-Daireko zezenaren jaia ospatzea, Magh Cobhan barrena joatea martxoan, eta Mc Neimhidheko ura edatea bi iluntzeren artean. Baldin Irlandako erregeek ohitura hauek eta beste batzuk, antzina-antzinatik zetozenak, estu gordetzen bazituzten uste zen inoiz ez zutela izango zoritxarrik edo patu gaiztorik, eta laurogeita hamar urte hartuko zituztela zahartzaroaren gainbeherarik jasan gabe; haien erregealdian zehar ez zela izurriterik eta heriotza askorik izango; eta urtaroak onak izango zirela eta lurrak ugari emango zuela; aldiz, usadio zaharrei uzten bazieten, izurritea, gosetea eta eguraldi txarra iritsiko omen ziren herrialdera.

Egiptoko erregeak jainko gisa gurtzen zituzten, eta arau zehatz eta aldaezinek xehetasun guztietan erregulatzen zuten haien eguneroko errutina. "Egiptoko erregeen bizitza", dio Didodorok, "ez zen beste errege batzuen bezalakoa; beste erregeek ez dute erantzukizunik izaten eta nahi dutena egin dezakete; aitzitik, Egiptokoentzat dena

zegoen legez zedarrituta, ez beren eginkizun ofizialak bakarrik, baita eguneroko bizitzako xehetasunak ere... Eguneko eta gaueko orduak erregearen eginbeharretara egokituta zeuden, ez berak nahi zuenera, berarentzat aginduta zegoenera baizik... Zeren eta ezarrita baitzeukan arazo publikoetan noiz jardun edo epaimahaia noiz eseri ezezik, baita noiz ibili, noiz bainatu eta emaztearekin noiz lo egin ere; labur esanda, bizitzako egintza guztiak zituen zedarrituta. Ohiturak otordu sinple bat agintzen zuen; jan zezakeen okela bakarra txahalkia eta antzara ziren, eta ardo-kantitate jakin bat besterik ezin zezakeen edan". Hala ere, bada arrazoirik pentsatzeko antzinako faraoiek ez zituztela gordetzen arau hauek, baizik eta Tebasko eta Etiopiako errege apaizentzat zirela, hogeigarren dinastiaren amaiera aldera.

Apaizei ezarritako tabuen oso adibide deigarria ikus genezake Erroman Flamen Dialisari ezarritako bizi-arauetan. Apaiz hau Jupiterren irudi bizitzat hartzen zuten, edo zeruko izpiritu gizon egintzat. Hona hemen tabuen adibide batzuk: Flamen Dialisa ezin ibil zitekeen zaldi gainean, ezin zuen zaldirik ukitu, ezta armada armatan ikusi, ez hautsi gabeko eraztunik eraman, ez bere jantzietan korapiloren bat izan; haren etxetik ezin zen surik atera, su sakratua izan ezik; ezin uki zezakeen gari-irinik edo legamiadun ogirik; ezin uki edo are izenda zezakeen ahuntzik, zakurrik, haragi gordinik, barbarik eta huntzik; ezin ibil zitekeen mahatsare baten azpian; haren ohearen oinek lokaztuta egon behar zuten; ilea gizon askeak baino ezin zion moztu, eta brontzezko labanaz, eta moztutako ilea eta azkazalak arbola zorioneko baten azpian ehortzi behar ziren; ezin uki zezakeen gorpurik, eta ezin zen sartu gorpuren bat erretako lekuren batean; ezin ikus zezakeen inor jaiegunetan lanik egiten; gizon lokarritua etxera eramaten bazioten, askatu eta sokak sabaiko zulo batetik bota behar ziren kalera. Haren emazteak, Flaminicak, ia arau berberak gorde behar zituen, eta gainera beretzako beste batzuk ere bai. Ezin igo zezakeen hiru maila baino gehiago eskailera grekoa deritzan erakoan; jai jakin batean ezin orraz zezakeen ilea; haren oinetakoen larrua ezin zitekeen izan berez hildako aberearena, akabatu edo sakrifikatutakoarena baizik; trumoiak entzuten bazuen, tabututa geratzen zen, harik eta ordaineko sakrifizioa eskaini arte.

Sierra Leonako grebotarren artean bada Bodia titulua daraman pontifizea eta, arrazoi xume batzuk medio, juduen apaiz nagusiarekin konparatu izan da. Orakulu baten aginduaren arabera izendatzen dute. Ezarkundezko zeremonia oso apailatuan, gantzutu egiten dute, girgilua ezartzen diote orkatilan bere betekizunaren seinalkaritzat, eta opagai eskainitako ahuntzaren odolaz zipriztintzen dizkiote etxeko ate-zangoak. Talisman eta idolo publikoen kargua du, eta arrosez eta olioaz bazkatzen ditu ilberriero; eta herriaren onerako eskaintzen dizkie sakrifizioak hildakoei eta deabruei. Itxuraz haren boterea oso handia da, baina praktikan oso mugatuta dago; ezin kontra egin diezaioke herri-iritziari, eta herrialdearen gainera erortzen den kalte ororen erantzule da, are bere biziaz ere. Lurrak ugari eman dezan, jendea osasuntsu izan dadin, gerra urrun dezan, eta sorginkeriak ondo lotuta egon daitezen espero da harengandik. Zenbait debeku edo tabu gorde beharrak trabatzen dio bizitza. Adibidez, ezin lo egin dezake ezein etxetan, bere egoitza ofizialean ez bada, "gantzututako etxea" deritzanean alegia, (ezarkunde-zeremonian gantzutu dutelako izendatzen dute hala). Bideetan ez dauka urik edaterik. Ez dauka jaterik hirian gorpuren bat den bitartean, eta ez dauka hildakoengatik dolua ekartzerik. Bere karguan dagoelarik hiltzen bada, gauerdian ehortzi behar da; banaka batzuek izan behar dute haren heriotzaren berri, eta inork ezin dezake berarengatik dolurik ekarri heriotza jakinarazten denean. Baldin eta pozoi-probaren ondorioz hilko balitz, sassy deritzan landare egosiaren salda edatean, ur-korronte baten azpian ehortzi behar da.

Indiako hegoaldeko todatarren artean, esnezale santua, behitegi sakratuko apaiz gisa jarduten duena, debeku nekoso eta astun ugariren lokarritz lotuta egoten da bere

betekizunari dagokion denbora osoan; honek urte asko iraun dezake. Esaterako, behitegi sakratuan bizi behar du, ez dauka ez bere etxera ez ezein herritara joaterik. Ezkongabea izan behar du; ezkondua bada, emaztea laga behar du. Pertsona arruntak inola ere ezin uki ditzake, ez esnezale santua ez behitegi santua; ukituz gero, santutasuna endekatu egingo litzaioke eta bere kargua utzi beharko luke. Astean bi egunetan bakarrik, hots, astelehen eta ostegunetan, hurbil dakioke gizon arrunta esnezaleari; beste egunetan, harekin arazoren bat badu, aparte egon beharra dauka (milia laurdenera, batzuek diotenez) eta mezua aldarrika eman behar dio. Gainera, esnezale santuak inoiz ez ditu ilea eta azkazalak mozten bere karguan den bitartean; inoiz ez du ibaia zubitik zeharkatzen, baizik eta ibileku jakin batzuetatik bakarrik; haren klanean inor hiltzen bada, ezin joan daiteke hiletetara, lehenik bere kargutik dimititzen ez badu eta esnezale-maila goitarretik hilkor arrunten mailara jaisten ez bada. Badirudi aspaldi batean laga egin behar izaten zituela beren karguaren bereizgarriak, esneontziak alegia, bere klaneko edozein kidek bizia galtzen bazuen. Hala ere, lotura astun hauek klase goren-gorenko esnezaleei ezartzen zaizkie bere osoan.

2. Botere izpiritualaren eta sekularraren banantzea

Errege edo apaiz-karguari zegozkion betebeharrak astunok beren berezko ondorioa ekarri zuten. Batzuetan gizonek uko egin zioten kargua hartzeari eta, beraz, karguak bere indarra galdu zuen; beste batzuetan, kargua onartuta, izaki ahul bihurtu ziren pisu haren azpian, atxilotutako preso; eta gobernuaren uhalak haien esku indargeetatik ukabil sendoagoko beste gizon batzuetara pasatzen ziren, sarritan subirano izena ez baina izana edukitzea nahiago zutenengana. Herrialde batzuetan botere nagusia izandako pitzadura hau sakondu egin zen, eta erabateko eta betiko bihurtzen zen botere izpiritualaren eta sekularraren arteko bereizketa: errege-etxe zaharrak bere betekizun erlijioso hutsak gorde zituen, eta gobernu zibila arraza gazteago eta indartsuagora pasatu zen.

Eman ditzagun adibide batzuk. Lehenago ikusi dugunez, Kanboian sarri bortxa egin behar izaten diete ukatzen diren oinordekoei suaren eta uraren erregetzak onar ditzaten, eta Irla Basatian azkenean amaitu egin zen monarkia, zergatik eta inor ezin izan zutelako inor ohore arriskutsua onartzera behartu. Afrikako mendebaldeko zenbait aldetan, erregea hiltzen denean, famili kontseilua ezkutuan biltzen da oinordekoa zein den erabakitzeko. Aukeratua harrapatu, lotu eta fetitxearen etxera botatzen dute bat-batean, eta han edukitzen dute harik eta koroa onartzen duen arte. Batzuetan oinordekoak aurkitzen du egin nahi izan zaion ohoreari ihes egiteko bidea; izan omen zen buruzagi beldurgarri bat, beti armatuta zebilena, bera tronuan ezartzeko saioen kontra indarra erabiltzera erabakita. Sierra Leonako timmes basatiek beren erregea hautatzen dute eta koroatze-bezperan hura jotzeko eskubidea izaten dute; eta hain borondatetsu eta benaz baliatzen dira halako pribilegio konstituzionalaz non, batzuetan, zorigaitzeko monarkak ez duen luze irauten bizirik tronura iritsi eta gero. Beraz, buruzagiek gizon bati gorroto diotenean eta hartaz libratu nahi dutenean, errege hautatzen dute. Lehenago, gizon bat Sierra Leonako errege izendatu baino lehen, ohitura omen zen kateaz lotu eta astintzea. Gero girgiluak askatu eta errege-arropak janzten zizkioten, eta errege-ohorearen sinboloa jasotzen zuen: borreroaren aizkora. Beraz, ez da harritzekoa irakurtzea ezen, Sierra Leonan, halako azturek iraun egin baitute han, "mandingoen eta suzien artean ezik, errege gutxi direla jatorriz gobernatzen dituzten herrialdeetakoak. Hain desberdinak dira haien eta gure ideiak, non ohore hori oso gutxi eskatzen duten, eta oso gutxitan aditzen da hori dela-eta lehiarik denik".

Agi danean, Japoniako mikadoak aspalditik baliatu ziren botere nagusiaren ohoreak eta zamak hurrei pasatzeaz; eta mikado jakin batek bere kargua hiru urteko semeari utzi zionetik dator aldi luze batez herrialdeko nagusi sekularrak izan ziren taikonen gorakada. Usurpatzaile batek haur printzeari subiranotasuna erauzi zionez, Yoritomo

izeneko batek, gizon ausart eta erabaki batek, hartu zuen bere gain Mikadoaren kausa, eta usurpatzailea bota eta Mikadoari botere-itxura itzuli zion, benetako boterea beretzat gordez. Bere oinordekoei pasarazi zien irabazitako ohorea, eta hala sortu zuen taikonon leinua. Hamaseigarren mendearen azkenera arte, taikonak gidari aktibo eta eraginkorrak izan ziren; baina mikadoek izandako patu berbera izan zuten haiek ere. Ohitura eta legeen amaraun nahaspilatsuan murgildurik, txorimalo huts izateraino erori ziren: apenas irteten ziren beren jauregietatik, zeremonia hutsaletan jarduteari emanak etengabe, gobernuaren arazo benetakoak estatu-kontseiluak zeramatzan bitartean. Tonkinen, monarkiak antzerako gora-beherak izan zituen: erregea aurrekoak bezala bizi baitzen, biguinkerian eta alferkerian, Mack izeneko menturazale askonahi batek kendu zuen tronutik: arrantzale izatetik Mandarin Handi izatera iritsi zen. Baina erregearen anaia Tringek usurpatzailea bota eta atzera erregea jarri zuen tronuan; baina beretzat eta bere ondorengoentzat gorde zuen armadako buruzagitzaren ohorea. Handik aurrera erregeek ez zuten gobernatu, nahiz subiranotasunaren tituluaz eta itzalaz jantzi. Beren jauregietan atxilotuta bizi izan ziren, eta benetako botere politikoa jeneral oinordekoek eduki zuten.

Mangaian, Polinesiako irla batean, aginte erlijiosoa eta zibila esku desberdinetan zeuden: betekizun izpiritualak errege-leinu baten esku, eta gobernu sekularra gerrako buruzagi garaile bati ematen zitzaion aldian-aldian; hala ere, haren izendapena erregeak osatu behar izaten zuen. Hala berean Tongan, errege zibilaren ondoan (honen tronurako eskubidea alde zuzen oinordetazkoa zen, eta alde gerrari gisa zuen ospetik eta bere gerrarien kopurutik zetorkiona) bazen jainkozko buruzagi handi bat, erregearen eta beste buruzagien gainetik zegoena, zergatik eta jainko nagusiengandik zetorrelako edo. Urtean behin, lurraren lehen igaliak eskaintzen zitzaizkion zeremonia ospetsu batean, eta sinestearen arabera, eskaintza horiek egiten ez baziren, jainkoen mendekua eroriko zen herriaren gainera. Hizketa-forma bereziak, beste inorekin erabiltzen ez zirenak, erabiltzen ziren harekin hitz egiteko, eta hark ukitutako edozer sakratu edo tabu bihurtzen zen. Erregeak eta berak topo egiten zutenean, erregeak lurrean eseri behar izaten zuen, begirunea erakutsiz, santua pasatu arte. Baina nahiz eta bere jainkozko jatorriaren kariaz begirune handiena aitortzen zioten, pertsonaia sakratu hark ez zuen aginte politikorik, eta baldin estatu-arazoetan nahastea bururatzen bazitzaion, erregearen arbuioa jasotzeko arriskua izaten zuen, beronena baitzen benetako boterea, hartara burkide izpiritualarengandik libratzea lortzen zuelarik.

Afrikako mendebaldeko zenbait aldetan bi errege izaten dira elkarren ondoan, errege fetitxe edo erlijiosoa batetik, eta errege zibila bestetik, baina errege fetitxea da benetan nagusi. Berak kontrolatzen ditu eguraldia eta abar, eta edozer geldiaraz dezake. Bere aginte-makila gorria lurrean lagatzen duenean, inork ez dauka handik pasatzerik. Agintari sakratuaren eta sekularraren arteko botere-banaketa hori beti aurkituko da beltzen benetako kulturak kutsatu gabe iraun duen lekuetan, baina beltzen gizarte-era nahastu denean, hala Dahomeyn eta ashantien artean, bi botereak errege bakar batengan biltzeko joera izaten da.

Timorren, Indiaren ekialdean dagoen irlan, halako botere-banaketa bat aurkitu dugu, Afrikako mendebaldeko errege zibilaren eta errege fetitxearen antzekoa. Timorko zenbait tribuk bi raja onartzen dituzte, raja arrunta edo zibila, jendea gobernatzen duena, eta raja fetitxea edo raja tabua, lurrari eta beronen igaliei dagokien ororen kontrolaz arduratzen dena. Azken gidari honek edozer tabu deklaratzeko eskubidea du; beraren baimena behar da lur berria lantzeko hartu aurretik, eta berak zeremonia batzuk egin behar izaten ditu derrigor lanean ari direnean. Baldin lehorteak edo herdoilak uztak mehatxatzen baditu, laguntza eskatzen diote. Raja zibilaren azpitik dagoen arren, etengabeko eragina du gertakizunetan eta, beraz, kide sekularrak aholku eskatu behar

izaten dio arazo garrantzitsu guztietan. Auzo-irla guztietan, hala nola Rottin eta ekialdeko Floresen, antzerako gidari izpiritualak onartzen dituzte, izen desberdinekoak baina, denek ere "lurraren jauna" esan nahi dutenak. Hala berean, Britainiar Ginea Berriko Mekeo eskualdean buruzagitza bikoitza dute. Jendea bitan banatuta dago familien arabera, eta talde bakoitzak bere buruzagia du. Bat gerrarako buruzagia da; bestea, tabuen buruzagia. Bigarren honen kargua oinordetzazkoa da; igali bakoitzari tabu bat ezartzea du bere eginkizuna, hala nola kokoei eta areka intxaurrei, halakoak erabiltzea debekatzea komeni dela derizkion guztietan. Kargu honetan suma genezake agian apaizen dinastiaren hasiera, baina oraindik beraren betekizunek magiazko dirudite erlijiozko baino gehiago, eta uztaren kontrolarekin dute zerikusia, ez goiko botereak gozatzearekin.

XVIII

Arimaren arriskuak

1. Arima maniki gisa

Aurreko adibideok erakutsi digutenez, hainbat debeku edo tabu astunek mugatzen dute, sarri, errege edo apaiz sakratuaren egitekoa. Debeku edo tabu horien xede nagusia gizon jainkotiarren bizia gordetzea izaten da, herriak harengandik on izan dezan. Baina tabuen helburua haren bizia salbatzea bada, honako galdera hau agertzen zaigu: nolatan lortzen ote da hori tabuei men eginda? Hau ulertzeko, erregearen bizia mehatxatzen duen arriskuaren zer-nolakoak ezagutu beharra daukagu, eta zeren kontra babestuko luketen tabu edo debeku bitxi horiek. Beraz, hauxe galdetu behar: nola ulertzen zuen lehengo gizon hark heriotza? Zer kausaren ondorioztat hartzen zuen? Eta nola uste zuen babes daitekeela heriotzatik?

Basatiak, eskuarki, natura bizigabeko prozesuen arrazoiak azaltzerakoan, ematen du prozesuok izaki bizidun batzuek gauzatzen dituztela, fenomenoek gainean edo fenomenoek atzetik jardunez. Eta halaxe aurkitzen ditu bere biziarentzako azalpenak ere. Animalia bizi eta mugitzen bada, pentsatzen du basakumeak bere artean, haren barruan mugiarazten duen animaliatxoren bat dagoelako mugitzen da, horrela izan behar du horrek: gizon bat bizi eta mugitzen bada, gizontxo edo animaliatxo batek mugiarazten duelako bizi eta mugitzen da, ezin bestela izan. Animalia baren barruko animalia, gizakiaren barruko gizakia, arima da. Eta animalia edo gizakiaren jarduna arimaren presentziaren bidez azaltzen denez, loa edo heriotza arimarik ez izatearen bidez azaltzen da: loa edo trantzea aldi batez arimarik ez izatea lirateke; heriotza, berriz, gabezia iraunkorra. Beraz, heriotza arimaren gabezia iraunkorra izanik, hartatik gordetzeko modua zera da, arimak gorputzetik aldegin ez dezan zaintzea edo, alde egiten badu, itzuliko dela segurtatzea. Basatiek helburu hauetako bata edo bestea segurtatzeko hartzen dituzten neurriek debeku edo tabuen forma izaten dute. Hauek arauak besterik ez dira, arimak aldegin ez dezan edo itzul dadin segurtatzeko arauak. Labur esanda, biziaren gordetzaileak edo biziaren babesleak dira. Adierazpen orokor hauek adibideekin argituko ditugu orain.

Australiako beltz batzuekin ari zela, europar misiolari batek honela esan zien: "Ni ez naiz bat, zuek uste duzuen bezala, bi baizik". Hura entzunda, haiek barrez hasi ziren. "Egizue barre nahi duzuen adinaa", segitu zuen misiolariak, "nik diotsuet bi batean naizela ni; ikusten duzuen gorputz handi hau da bat; honen barruan beste txiki bat dago, ikustezina. Gorputz handia hil egiten da, eta lur ematen zaio, baina gorputz txikiak hegan aldegitzen du handia hiltzean". Honela erantzun zioten beltz batzuek: "Bai, bai. Gu ere bi gara, guk ere gorputz txiki bat dugu bular barruan". Galdetu zienean nora joaten zen gorputz txikia heriotzaren ondoren, batzuek erantzun zioten zuhaixkaren osterara, beste batzuek itsasora, eta beste batzuek ez zekitela. Huroi indiarrek pentsatzen zuten arimak burua eta gorputza, besoak eta zangoak zituela; hots, gizakiaren beraren

eredu txiki osoa zela. Eskimalek sinesten dutenez, "arimak gorputzaren itxura bera ageri du, baina gai sotil eta meheagokoa da". Nootkatarren arabera, arimak gizon mehe baten itxura du; bere egonlekua burugaina da. Hura tente dagoen bitartean, jabea osasuntsu eta bizkor izaten da; baina zer edo zerengatik hark jarrera tente hori galtzen badu, jabeak ere galdu egiten ditu bere zentzuak. Fraser ibaiaren behe-ibilguko indiar tribuetan, gizakiak lau arima omen ditu; nagusiak manikiaren forma du, eta beste hirurak haren itzalak dira. Malakarrek gizontxo baten gisa sumatzen dute arima, ikustezina eta hatz baten tamainakoa; itxuraz, proportzioz eta are gorpuzkeraz ere egoitzatarako hartuta duen gizakiaren gorputzaren berdin-berdina. Maniki hau izaera mehe eta gairik gabekoa da, baina ez objektu fisiko batean sartzean desplazamendurik ez eragiteko adina sentiezin; gainera, bizkor aldegin dezake leku batetik bestera; gorputzetik aldi baterako urruntzen da pertsona lotan, trantzean edo gaixotasunean, eta betiko urruntzen da hil ondoren.

Hain da handia eta osoa manikiak gizakiarekin duen antza (bestela esan, arimak gorputzarekin duena), non, gorputz gizenak eta gorputz argalak diren bezala, arima gizenak eta arima argalak ere badiren. Gorputz astunak eta arinak, luzeak eta laburrak diren bezala, halaxe dira arimak ere, astunak eta arinak, luzeak eta laburrak. Niasko jendeak pentsatzen du gizaki orori galdetzen zaiola, jaiotzerakoan, zenbateko luze edo astuneko arima nahi duen, eta nahi duen pisuko edo luzerako arima neurtzen zaiola. Gizakiari inoiz eman zaion arimarik astunenak hamar bat gramo pisatzen omen ditu. Gizakiaren bizitzaren luzera arimaren luzearen proportziokoa da; gazterik hiltzen diren haurrek arima laburrak izaten dituzte. Fijitarren ikusmoldea, arima gizaki txikia delakoa alegia, argi eta garbi agertzen da Nakelo tribuko buruzagiaren heriotzan egiten diren zeremonietan. Buruzagia hiltzen denean, oinordetzaz ehorzle diren gizon batzuek dei egiten diote, olioak eta apaindurak eginda zumitz finen gainean etzanda dagoelarik, esanez: "Jaiki, jaun buruzagi, eta goazen. Etorri da eguna lurralde honetara". Gero ibai aldera eramaten dute, hara etortzen baita txalupari izpirituala nakeloen arimak ibaiaz haraindira eramatera. Buruzagiari azken bidaian hala laguntzen diotelarik, haizemaile handiak izaten dituzte lurretik gertu hura estaltzeko; izan ere, haietako batek misiolari bati azaldu zionez, "arima haurtxoa besterik ez baita". Punjabeko jendeek tatuatu egiten dituzte beren gorputzak, sinesten dutelako hiltzean arima, hildakoaren barruko "gizon edo emakume txiki osoa", gorputza bizirik zegoenean apaintzen zuten tatuaje berberekin zeruratuko dela Ikusiko dugunez, ordea, batzuetan giza arima giza itxuran ez baina animali itxuran sumatu ohi da.

2. Arima urruntzea eta itzultzea

Asko zabaldutako sinestea da arimak gorputzaren berezko irtenbideetatik ihes egiten duela batez ere ahotik eta sudur-zuloetatik. Horregatik Celebesen, batzuetan, amuak ezartzen dizkiete gizon gaixoaren sudurrari, zilborrari eta oinei; hartara, haren arima ihes egiten saiatuko balitz, katigatu eta lotuta geratuko omen litzateke. Baram ibaiko turik batek, Borneon, ez zuen aldegin nahi izan amu-itxurako zenbait harritatik zeren eta haiek, nolabait, arima gorputzari lotzen baitzioten eta, hartara, bere alde izpirituala alde materialetik bereiztea galarazten baitzioten. Itsasaldeko dayaken sorgile edo osagin bat inizatzen denean, ematen da hatzak arrantzarako amuz hornituta dituela, eta haiekin giza arima atxi dezakeela ihes egitean, eta atzera gaixoaren gorputzean berrezar dezakeela. Baina bistan denez, etsaien arimak atxitzeko ere erabil daitezke amuak, lagunena atxitzeko bezala. Arau honen arabera jardunez, giza buruen ehiztari borneotarrek zurezko amuak zintzilikatzen dituzte hildako etsaien kaskezurren ondoan, sinetsita horrek lagundu egiten diela beren ibilaldietan bizidunen buruak harrapatzen. Osagin haidatarrek hezur ahur bat izaten dute aldegiten duten arimak gordetzeko, eta beren jabeai itzultzeko. Hinduek, inork beren aurrean aharrausi egiten duenean, beti

kliskatu ohi dituzte hatzak, horrek arimari ahotik irteteko asmoa kenduko diolakoan. Markesarrek hiltzorian zegoenaren aho-sudurrei heltzeko ohitura zuten, arimari ihes egiten utzi ez eta hura bizirik iraunarazteko; kaledoniarrek ere ohitura bera omen dute; eta asmo berberaz, Filipinetako bagoboek alanbrezko eraztunak ipintzen dituzte beren gaixoen eskutur eta orkatiletan. Aitzitik, Hegoamerikako itonamatarrek zigilatu egiten dituzte hiltzorian dagoenaren begiak, sudurra eta ahoa, haren izpiritua irten ez dadin, eta berarekin batera beste batzuk eraman ez ditzan; eta antzeko arrazoi batengatik, Niasko jendea, hil berrien izpirituen beldur izaten baita eta arnasarekin identifikatzen baititu, noraezean dabilen arima bere gordelekuan hesitzen saiatzen da gorpuaren sudur-zuloak itxiz edo masailezurak lotuz. Gorpua utzi aurretik, Australiako walkeburatarrek ikatz beroak ipini ohi zizkioten belarrietan, izpiritua gorputzean mantentzeko, harik eta beraiek bide zati on bat egin izan arte, hark harrapa ez zitzaion. Celebesko hegoaldean, emakumearen arimak erditzean ihes egin ez dezan, emaginak ahalik eta estuen lotzen dio xingola bat gorputzaren bueltan. Sumatrako minangkabauerrek ere antzeko ohitura dute: hari-mataza edo soka bat lotzen zaio batzuetan haurra egiteko dagoen emakumeari eskuturraren edo gerriaren biran; hartara, haren arima haurra egiterakoan aldegiten saia dadinean, traba aurkituko du irteeran. Eta haur baten arima, jaiotzean, ihes egin eta gal ez dadin, Celebesko alfurek, haur batek jaio behar duenean, kontu handiz ixten dituzte etxeko irtene bide guztiak; sarraila bera ere estaltzen dute, baita hormetako zulo eta arraildura guztiak ere. Gainera, etxe barruko eta kanpoko animalia guztien ahoak ixten dituzte, beldurrez baten batek haurraren arima irentsiko ote duen. Antzeko arrazoiagatik, etxean diren pertsona guztiak, are ama bera ere, behartuta daude ahoak itxita edukitzera haurgintzak irauten duen denbora osoan. Galdera egin izan zaienean - zergatik ez dituzte ixten sudurrak ere, haurraren arima beretako batengan sar ez dadin?-, haxe erantzun izan dute: arnasa sudurzuloetatik zehar botatzen eta hartzen zenez, arimak barruan leku hartzeko denbora izan baino lehen, kanpora bota zitekeela. Herri zibilizatuen hizkuntzetako hainbat herri-esaerak (hala nola "bihotza ahoan edukitzea" edota "arima ezpainetan edo sudurrean edukitzea") erakusten digute zein arrunta den biziak edo arimak ahotik edo sudurzuloetatik ihes egin dezakeelako ustea.

Sarritan arima hegaldatzeko gertu dagoen txoriaren gisa sumatzen da. Ikusmolde honek hizkuntza gehienetan utzi bide ditu arrastoak, eta poesiako metafora gisa iraun du. Malakarrekin arima/txoriaren ideia hori modu bitxiz adierazten dute. Arima hegana dabilen txoria bada, arrozaren bidez erakar daiteke eta, hartara, urruntzetik gorde edo hegaldi arriskutsutik itzul dadin lor daiteke. Javan, adibidez, haurra lurrean lehen aldiz ipintzen dutenean (jende hezigabeak arrisku berezia ikusten dio, nonbait, une horri) oilategian ipintzen dute eta ama purra-purra hasten da, oiloei deika bezala. Eta Sintangen, Borneoko eskualde batean, norbait -gizona, emakumea nahiz haurra- etxe gainetik edo arbola batetik erori eta etxera eraman dutenean, emaztea edo senide den beste emakume bat ahalik lasterren joaten da ezbeharrak gertaturiko lekura eta han horiz margotutako arroza botatzen du, honako hitzok jaulkiz: "Purra-purra! Arima! Urria etxean da berriz. Purra-purra! Arima!". Gero, arroz-aleak saski batean biltzen ditu, min hartutakoari eraman eta eskuaz buru gainera botatzen dizkio aleak, berriro ere "purra-purra! Arima!" esanez Kasu honetan argi dago asmoa noraezean dabilen arima txoria berriro harrapatzea eta jabearen buruan berriro ezartzea dela.

Lotan dagoenaren arima haren gorputzetik kanpo dabilela jotzen da, lekuak bisitatzen dituela, jendea ikusten duela eta amestutako egintzak burutzen dituela. Adibidez, Brasilgo edo Guyanako indiar bat lo sakonetik esnatzen denean, erabat sinetsita egoten da arima ehizan, arrantzan, arbolak eraisten edo amets egindako beste edozertan aritu dela, gorputza denbora horretan guztian mugitu gabe hamakan etzanda egon den bitartean. Bororoen herrixka oso bat izuikarak hartu zuen eta ia-ia hanka egin zuen

bertatik, norbaitek etsaia isil-isilik inguratzen ari zela amets egin zuelako. Makusi indiar batek, gaixorik zegoela, amets egin zuen ugazabak urjauzi zail batzuetatik gora igoarazi ziola kanoa, eta biharamun goizean saminki aurpegiratu zion nagusiari hain gupidagabe jokatzegatik, gaixo zegoen gizajo bat gauez atera eta nekepean eduki zuelako. Chaco Handiko indiarrek istoriorik sinestezinenak kontatzen omen dituzte sarri, eurek ikusi eta entzun izan bailituzten; hori dela eta, haiek ondo ezagutzen ez dituzten arrotzek esan ohi dute, arinkeriaz esan ere, indiar horiek gezurtiak direla. Egia esan, indiarrek erabat sinetsita daude kontatzen dutena egia dela, mentura harrigarri horiek beren ametsak besterik ez baitira, esna daudeneko errealitatetik bereizten ez dituztenak.

Lotan egon bitartean arima hor zehar ibiltzeak baditu bere arriskuak; zernahi dela ere, arima gorputzetik bereizita geraraziko balute, bizi-iturriaz gabetutako pertsona hura hil egingo omen litzateke. Sineste alemaniar baten arabera, arimak sagu txuri baten edo txoritxo baten itxuran egiten omen du ihes lo dagoen baten ahotik, eta txoriaren edo saguaren itzulera galarazteak heriotza ekarriko omen lioke lotan dagoenari. Horregatik, Transilvanian esaten dute haurrari ez zaiola aho-zabalik lo egiten utzi behar, arima aterako zaiola sagu-itxuran, eta haurra ez dela inoiz esnatuko. Oztopo asko aurki ditzake lo dagoenaren arimak. Adibidez, arimak beste loegile baten arimarekin egin dezake topo, eta bi arimek borroka egin dezakete; Gineako beltz bat hezurak minbera jaikitzen bada, pentsatzen du bere arima beste arima batek jipoitu duela lotan zegoen bitartean. Edo hil berri den pertsonaren arimarekin egin dezake topo, eta hark berekin eraman dezake; horregatik Aru irletan, etxean norbait hil denean, etxekoek ez dute gaua bertan igaroko, hildakoaren arima oraindik ere etxean dagoelakoan, eta beldur direlako ametsetan aurkituko ote duten. Berriz ere, loegilearen arimari ezbehar batek edo bortxa fisikoak galaraz diezaioke bere gorputzera itzultzea. Dayak bat ametsetan uretara erortzen denean, uste izaten du ezbehar hori benetan gertatu zaiola bere izpirituari, eta sorgile bati deitzen dio, eta honek esku-sare batez izpirituaren arrantzan jarduten du urontzi batean, harik eta harrapatu eta jabeari itzultzen dion arte. Santalek kontatzen dute nola gizon bat loak hartu zuen, eta oso egarri handia sentitu zuelako, haren arima, musker baten itxura hartuta, gorputza utzi eta ura zeukan pitxer batera sartu omen zen edatera. Orduantxe, pitxerraren jabeak estali egin zuen hura; hala, arima ezin izan zen gorputzera itzuli, eta gizona hil egin zen. Lagunak gorputza erretzera zihoazenean, norbaitek kendu egin zion tapa pitxerrari ura hartzeko. Orduan muskerrak ihes egin zuen eta gorputzera itzuli zen, eta hau berehala berpiztu zen; hala, gizona jaiki eta galdegin zien lagunei zergatik ari ziren negarrez. Erantzun zioten hilda erizten ziotela eta, beraz, gorputza erretzekotan zirela. Orduan berak kontatu zien putzu batera jaitsia zela ur bila, baina zail gertatu zitzaiola handik irtetea eta orduantxe itzulia zela. Halaxe ohartu ziren gertatutako guztiaz.

Jende primitiboengan arau zabaldua da lo dagoena ez esnatzea, arima kanpoan duelako eta agian itzultzeko denborarik izango ez lukeelako; eta gizona arimarik gabe esnatuko balitz, gaixotu egingo omen litzateke. Lotan dagoena iratzartzea behar-beharrezkoa bada, oso poliki egin behar da hori, arimak itzultzeko denbora izan dezan. Matukuko fijitar bat, norbaitek oina zapaldu eta lo-kuluxkatik esnatu zuela eta, arimari garrasika eta itzul zedila erreguka hasi omen zen. Hain zuzen, Tongan zegoela ari omen zen ametsetan, urrun, eta izugarri asalatu zen bat-batean esnatu eta bere gorputza Matukun aurkituta. Laster hil behar zuen, baldin arima itsasoa berehala zeharkatzera behartu eta utzitako gorputza bizkortzen ez bazuen. Gizona beldurrez hilko zen seguruenik, izuikara arintzeko misiolari bat bertan izan ez balu.

Are arriskutsuagoa da, lehen gizonaren iritziz, lotan dagoena mugitzea edo itxura aldatzea. Halakorik egingo balitz, arimak, itzultzean, ezin ezagutuko luke bere gorputza eta, beraz, pertsona hil egingo omen litzateke. Minangkabauerrek guztiz desegokitzen

jotzen dute lo dagoenaren aurpegia belztea edo zikintzea, aldegina den arimak hala desitxuratutako gorputzera itzultzeari uko egin liezaiokeelako. Malakako penintsulako patandarrek uste dutenez, lo dagoen pertsonari aurpegia margotuko baliote, beragandik irtendako arimak ez luke ezagutuko, eta lo segituko luke aurpegia garbitu bitartean. Bonbain norbait hiltzearen parekoa da lo dagoenaren itxura aldatzea, dela aurpegia kolore harrigarritz pintatuz dela lo dagoen emakumeari biboteak ipiniz. Izan ere, arima itzultzen denean ez baitu bere gorputza ezagutuko, eta pertsona hil egingo da.

Baina gizonaren arimak gorputzetik aldegin dezan ez da beharrezko gizakia lo egotea. Aldegin dezake gizakia esna dagoenean ere, eta orduan gaixotasuna, ondoeza edo heriotza izango ditu ondorio. Adibidez, Australiako Wurunjeri tribuko gizon bat etzanda zegoen, bere azkenetan, izpirituak alde egin ziolako. Osagin bat izpirituaren atzetik hasi eta doi arratseko ilunabarrean murgiltzera zihoanean harrapatu zuen, hauxe baita hildakoek azpimundutik mundura edo mundutik azpimundura iragaiten direnean sorrarazten duten argia, Eguzkia azpimundura joaten baita atsedean hartzera. Osaginak noraezean zebilen izpiritua harrapatu ondoren, bere zarigueiazko zumitzean ekarri zuen, hiltzorian zegoen gizonaren gainean etzan eta arima itzuli zion, eta hartara, handik laster, gizona berpiztu egin zen. Birmaniako karendarrak kezkatuta egon ohi dira beti, arima gorputzetik urrunduko ez ote zaien, berak hiltzen utzita. Gizakia bere arimak azken urrats hori eman dezan beldur denean, zeremonia egiten da hura atxikitze edo erakartzeko, eta familia osoak hartzen du parte. Bazkaria prestatzen dute: oilarra eta oiloa, arroz-mota berezi bat eta banana-sorta bat. Gero familiburuak, hartu arroza zuritzeko katilua eta, etxearen sabaia hiru aldiz jo ondoren, honela esaten du: "Prrrroo! Zatoz, arima! Ez geratu kanpoan! Euria egiten badu, busti egingo zara. Eguzkiak jotzen badu, bero izango zara. Eltxoek zizta egingo dizute, arkakusoek hozka, tigreek jan egingo zaituzte, trumoiak zanpatu egingo zaitu. Prrrroo! Hemen ondo egongo zara. Ez zaizu ezer faltako. Zatoz eta jan haizetik eta ekaitzetik babestuta". Honen ondoren, familiak bazkaldu egiten du, eta zeremonia bukatzeko, bakoitzak sorgile batek sorgindutako sokaz lotzen du eskuineko eskumuturra. Era berean, Txinako hegomendebaldeko loloak sinetsita daude arimak gorputzetik aldegiten duela gaixotasun kronikoetan. Halakoetan, letania moduko bat irakurtzen dute, arimari bere izenez deituz eta mendi, haran, ibai, baso, zelaietan... nonahi dabilela, etortzeko erregutuz. Aldi berean, ura, ardoa edo arroza uzten zaizkio atean, noraezean dabilen izpiritua freska dadin. Zeremonia amaitutakoan, soka gorri bat lotzen diote gizon gaixoari besoaren inguruan, arima estekatzeko, eta soka horrela geratzen da, berez askatu eta erori arte.

Kongoko zenbait tribuk sinesten dute gizakia gaixorik dagoenean, arimak gorputzetik aldegin duela eta noraezean ibiltzen dela. Orduan laguntza eskatzen zaio sorgileari, izpiritu ibiltaria harrapatu eta gaixoari itzul diezaion. Gehienetan, osagin horrek arima arbola baten abarrean atxitu duela adierazi ohi du. Orduan herri osoa irteten da eta arbola dagoen tokira laguntzen dio gizonari, eta han gizonik indartsuenek ustez gizon gaixoaren arima egoitzatarako hartu duen abarra erauzteari ekiten diote. Hala eginik, herrira ekartzen dute abarra, keinuka eta imintzioka, oso astuna eta nekosoa dela adierazi nahian. Abarra gizon gaixoaren etxolara eramandakoan, biak zutik ipintzen dituzte elkarren ondoan, eta magia-gizonak xarmadurak egiten ditu, arima bere jabeari itzultzeko.

Hildura, gaixotasuna, izuikara eta heriotza egozten diote Sumatrako batakak arima gorputzetik aldegina izateari. Lehenik alderrai dabilena keinuka erakartzen saiatzen dira, eta arroza botatzen diote hegaztia bailitzan. Gero honako hitz-andana hau errepikatu ohi dute: "Zatoz, arima, basoan bazaude, edo mendietan, edo ibarxkan. Hara, toemba bras batez deitzen dizut, raja moelija hegaztiaren arrautza batez, hamaika hosto osasuntsuz. Ez gelditu, zatoz zuzenean hona, ez gelditu basoan, ez mendian, ez

ibarxkan. Ezinezkoa duzu hori. Oi, zatoz zuzenean etxera!". Behin, bidaiari ezagun bat kayanen herri batetik abiatzean, amek, beren haurren arimak atzetik joango ote zitzaizkion beldurrez, haurrak garraiatzeko dituzten kutxak eraman zizkioten, eta erregutu zioten otoitz egin zezala txikien arimak etxeko kutxara itzul zitezen eta berarekin urruneko lurraldeetara aldegin ez zezaten. Kutxa bakoitzean lakio bat zegoen lotuta, alderrai zebiltzan izpirituak atxitzeko, eta haur bakoitzari lakioan zehar pasarazi zioten hatz potoloa, haren arimatxoak aldegingo ez zuela segurtatzeko.

Indiar istorio batean, errege baten arima brahman baten gorpuan sartzen da, eta konkordun batena erregearen gorpuan. Konkorduna errege da orain, eta erregea brahman. Alabaina konkorduna bere trebetasuna erakustera behartzen dute bere arima loro baten gorpura aldatuz, eta erregeak atzera bere gorputzaz jabetzeko aukera aprobetxatzen du. Antzeko ipuin bat ageri zaigu malakarren artean, xehetasun batzuk gora-behera. Errege batek, oharkabean, tximino bati pasatu dio bere arima, eta bisirrak bere arima txertatzen du trebeki erregearen gorputzean, eta hartara erregina eta erresuma bereganatzen ditu. Benetako erregea ahulduz doa gortean, tximino baten itxura hartuta. Baina egun batez errege izuna, oso jokozalea baitzen, ahari-jokoa ikusten ari zen, eta bere gogoko aberea hilda geratu zen. Berpizteko ahalegin guztiak alferrikakoak gertatu ziren, harik eta errege izunak, benetako kirolariaren senaz, bere arima hildako ahariaren gorpuari aldatu zion arte, eta hala jokoari ekin zion berriz. Tximinoaren gorputzean zegoen benetako erregeak orduantxe ikusi bere aukera, eta bisirrak ausardia handiegiz hustutako gorputzera itzuli zen odol hotz-hotzez. Hala, bere onera etorri zen berriro, eta ahariaren gorputzean zegoen lapurrak merezi zuen patua aurkitu zuen. Orobat, grekoek kontatzen zutenez, Klazomeneko Hermotimosen arimak bere gorputzetik aldegiten omen zuen batera eta bestera noraezean ibiltzeko, eta bere ibilietan lagunenean etxeetan gertatzen zenaren berri izaten zuen; harik eta egun batez, izpiritua kanpoan zenean, etsaiek gorputz hustua hartu eta su eman zioten arte.

Arimaren aldegitia ez da beti borondatezkoa izaten. Izpirituek, deabruak edo sorgileek atera dezakete gorputzetik bere borondatearen kontra. Horregatik, etxe ondotik hildakoa daramatenean, kalendarrek soka-mota berezi batez lotzen dituzte beren haurrak etxeko leku jakin batean, haurren arimak beren gorputzetatik aldegin eta pasatzen ari den gorpura sar ez daitezen. Haurrak horrela lotuta edukitzen dituzte gorpua bistatik desagertu arte. Eta gorpua hilobian sartu eta gero, baina lur eman baino lehen, ehortzaileak eta hildakoaren lagunak hilobiaren inguruan jartzen dira, esku batean luzetara ebakitako banbu bat eta bestean makilatxo bat dutela; gizon bakoitzak hilobian sartzen du bere banbua eta, makilatxoa banbuaren ahurretik herrestaraziz, adierazten dio bere arimari era hartan erraz atera daitekeela hilobitik. Lur ematerakoan, atera egiten dira banbuak, gerta bailiteke arimak bertan egotea, eta lurra hilobira botata oharkabean ehorztea; eta jendeak handik aldegiten duenean, berekin eramaten ditu banbuak, arimek berekin etortzeko erregutuz. Gainera, hilobitik itzulitakoan kalendar bakoitzak zuhaitz-abarrez egindako hiru gakotxo hartzen ditu, eta bere izpirituari atzetik segitzeko esanez, tarteka jiratu egiten da, gakoaz katigatzeko moduko zirkin bat egiten du, eta ondoren gakoa lurrera botatzen du. Hau bizirik dagoenaren arima hildakoaren arimarekin atzean gera ez dadin egiten da. Karo-bataktarrek norbait ehortzi eta hilobia betetzen ari direnean, sorgin bat lasterka ibiltzen da batera eta bestera, airea makilatuz. Bizirik geratutakoen arimak urruntzeko egiten du hori; izan ere, arima bat hilobira sartuko balitz eta lurra estaliko balu, jabea hil egingo bailitzateke.

Uean, Leialtasun irltako batean, hildakoen arimek bizidunen arimak lapurtzeko ahalmena aitortzen zaie. Izan ere, gizon bat gaixorik zegoenean, arimen zaintzailea gizon eta emakume ugarirekin joan ohi zen hilerrira. Han gizonek txirulak eta emakumeek txistua jotzen zuten emeki, arima etxera erakartzeko. Denboraldi batez

horrela jardun ondoren, prozesioan etxeratzen ziren, gizonak txirulak joz eta emakumeak txistuka bide osoan, noraezean zebilen gaixoaren arima bueltan ekartzen zutelarik, esku-ahurrez emeki bultza eginez. Gaixoaren etxera sartzean, gorputzera sar edila agintzen zioten arimari ozenki.

Sarritan, deabruei egotzi izan zaie gizonaren arima bahitzea. Txinatarrek, esaterako, zenbait izpiritu gaiztoaren jardunari leporatzen dizkiote zurruntze eta dardarak, gizakien izpirituak beren gorputzetatik atera nahi izaten dituztela eta. Amoin oso titulu ozen eta arranditsuak ematen dizkiete haurrak eta emakumeak horrela tratatzen dituzten izpirituei: "Zaldi lauhazkarietan doazen ordezkari zerutiarak" eta "zerubidean bizi diren literatur lizentziatuak". Haurra dardarka eta konbultsiotan dagoenean, ama, ikaratuta, etxeko teilatura igotzen da eta, haurraren arropa bat banbuzko makila bati lotu eta astinduz, garrasi egiten du zenbait aldiz "Urlia, nire haur hori, zatoz, itzuli etxera!". Bitartean, etxeko beste norbaitek gong bat jotzen du, apartatutako arimaren arreta erakartzeko asmoz, hartara arropa ezagutu eta bertan sartuko delakoan. Arima sartutako arropa soinean edo ondoan ipintzen zaio gero haurrari eta, hiltzen ez bada, gauza segurua da lehenago edo geroxeago sendatu egingo dela. Era berean, zenbait indiarrek gizonak galdutako arima gizon horren botetan harrapatzen dute eta, oinak bertan sarrarazten dizkiotelarik, dagokion gorputzera itzultzen dute.

Moluketan, norbait ondoezik dagoenean, deabruen batek haren arima bera bizi den zuhaitz, mendi edo muinora eramanez duela pentsatzen da. Magia-gizon batek deabruaren bizilekua seinalatu ondoren, gaixoaren lagunek arroz egosia, fruta, arraina, arrautza gordinak, oilo bat, oilasko bat, zetazko soinekoa, urrea, pultserak eta abar eramaten dituzte bertara. Gauza hauek behar bezala ipini ondoren, otoitz egiten dute: "Eskaintza hau egitera gatozkizu, deabru: janaria, arropak, urrea eta abar; hartu eta aska ezazu gure erregetako gaixoaren arima. Utz iezaiozu bere gorputzera itzultzen, eta orain gaixo dagoena osatu egingo da". Gero pixka bat jan eta oiloa lagatzen dute gaixoaren arimaren truke; arrautza gordinak ere lagatzen dituzte; baina zetazko soinekoa, urrea eta pultserak etxera eramaten dituzte. Etxera iritsi bezain laster, katilu zapal bat jartzen diote gizonari buru gainean etxera ekarritako eskaintzekin, eta haxe esaten diote: "Orain zure arima libre da, eta ondo biziko zara lurrean, ileak urdindu arte".

Etxe berrira sartu direnek diete batez ere beldurra deabruei. Horregatik, Minahassako alfuren artean, Celebes irlan, etxe bat lehen aldiz zabaltzen denean, apaizak zeremonia egiten du bertan biziko direnei beren arimak itzultzeko. Poltsa bat zintzilikatzen du sakrifizioarako lekuan eta jainko-zerrenda bat errezitatzen du. Hainbeste dira non gau osoa behar izaten duen horretarako, gelditu gabe jardunez. Goizean arrautza bat eta arroz-pixka bat eskaintzen die jainkoei. Ordurako, ematen da etxeko arimak poltsan bilduta egongo direla. Horregatik, apaizak hartu poltsa eta, etxeko jaunaren buru gainean eutsiz, honela esaten du: "Hemen duzu zeure arima; zoaz (arima) urrun bihar". Gero gauza bera egiten die, etxekoandeari eta beste senide guztiei hitz berberak esanez. Alfur horien artean, haxe da gizon gaixo baten arima berreskuratzeko era bat: katilu bat uzten dute leihotik zintzilik, uhal batetik lotuta, eta arima arrantzan bezala harrapatutakoan, jaso egiten dute katilua. Eta herri horretan, apaiz batek zapian harrapatutako gizon gaixo baten arima daramanean, neska bat izaten du aurrean, buru gainean aterki gisa palmondo jakin baten hosto zabala daramana, euria eginez gero bera eta arima busti ez daitezen; eta atzetik gizon bat izaten du ezpata eskuan hartuta, beste arimak geldiarazteko atxututako izpiritua askatzen saiatuko balira.

Batzuetan, errebelatutako arima ikusteko moduko itxuran itzultzen zaio jabeari. Oregongo salish indiarrek sinetsita daude gizakiaren arima denboraldi batez bereizi egin daitekeela gorputzetik, gizona ez hil eta ez galera horretaz ohartu ere egin gabe. Alabaina, errebelatutako arima bizkor aurkitu eta bizkor itzuli behar zaio jabeari, bestela

hau hil egingo baita. Arima galdu duen gizakiaren izena amets batean jakinarazten zaio osaginari, eta hau bizkor joaten zaio galeraren berri ematera. Gehienetan, hainbat gizonek batera izaten dute halako galera bat; haien izen guztiak jakinarazten zaizkio osaginari, eta denak joaten zaizkio beraien arimak berreskura ditzan. Arimarik gabeko gizon horiek herrian ibiltzen dira gau osoan, dendaz denda, kanta eta dantza. Eguna urratzera doanean, erabat itxita eta ilun dagoen etxe apartatu batera sartzen dira. Txulotxoa egiten da sabaian eta osaginak, luma-sorta batez, zumitz-zati batean jasotzen ditu arimak, hezur-pusken eta gisa horretako gauzen itxuran. Ondoren sua egiten da eta, beronen argitan, sendagileak sailkatu egiten ditu arimak. Lehenik hildakoen arimak jartzen ditu elkarrekin, halakoak izaten baitira batzuk; izan ere, gizon bizi bati hildako baten arima emango balio, berehala hilko litzateke. Ondoren, bertan dauden guztien arimak hartzen ditu eta, bere aurrean eseraraziz, hartu bakoitzaren arima hezur, ezpal edo maskor-pusketatxo baten itxuran eta, jabearen buru gainean ipiniz, eskuez igurtzitzen ditu otoitz eta bihurteta ugariz, harik eta arima bihotzeratu eta dagokion lekua hartzen duen arte.

Orobat, izpiritu eta deabruak ezezik, beste gizon batzuek ere, sorgileek bereziki, atera ditzakete arimak gorputzetatik, edo geraraz ditzakete beren ibilietan. Fijin, gaizkileren batek hobena aitortu nahi ez bazuen, buruzagiak bufanda baten bila bidaltzen zuen norbait, "harekin gaizkilearen arima harrapa zezan". Bufanda ikusi edo are aipatu orduko, errudunak gehienetan barruko guztiak jaulkitzen zituen, zeren eta, hala ez egitera, arima harrapatu arte astinduko baitzioten bufanda buru gainean, eta arretaz tolestu eta buruzagi baten kanoaren hondoa josiko zioten; eta arimaren faltan, gaizkilea ahuldu eta hil egingo zen. Danger irlako magia-gizonek arimentzako zepoak hedatzen zituzten. Zepoak koko-azalezko soka sendoz eginak izaten ziren, hamabost eta hogeita hamar oin bitarteko luzerakoak, neurri desberdinetako lazoak zituztela, arimen tamaina desberdinetara egokitzeke; arima gizenentzat lazo zabalak zeuden, arima meheentzat txikiak. Magia-gizonak erresuminduta zeukan gizon bat gaixorik zegoenean, haiek halako arima-zepoak ipintzen zizkieten etxe ondoan, eta adi egoten ziren arimak noiz hegan egingo. Baldin txori edo intsektu baten itxuran zepoan harrapatzen bazuten, gizona hil egingo zen nahitaez. Afrikako mendebaldeko zenbait aldetan, hain zuzen, aztiak etengabe aritzen dira tranpak ipintzen, lotan dauden gorputzetatik aldegindako arimak harrapatzeke; eta bat harrapatzen dutenean, suaren gainean lotu eta, beroak kizkurtu ahala, jabea gaixotu egiten da. Hori ez da egiten gaixoaren kontra inolako gaizki-nahirik dutelako, negozio hutsagatik baizik. Sorgileari ez zaio axola noren arima harrapatu duen, eta laster itzuliko dio jabeari, honek trukean zerbait ordaintzen badio. Magia-gizon batzuek egoitzak ere badituzte galdutako arimentzat, eta bere arima galdu duen edonork beste bat har dezake egoitza horietatik, ohiko prezioa ordaindu ondoren; ez dago gaizki-esaka jarduterik egoitza pribatu horiek dituzten edo arimentzako zepoak ipintzen dituzten gizonez; beren lanbidea dute hori, ez dute bihotz gogorrez edo bekaizkeriaz jarduten. Baina badira gaiztoaren gaiztoz edo diru-gosez zepoak jartzen eta eratzen dituztenak ere, pertsona jakin baten arima harrapatzeke asmo zehatzez; eta tranparen barrenean, ezkutuan, labanak eta kako zorrotzak jartzen dituzte, arima gajoa hautsi eta zehatzeko. Bertan hilko da edota, ihes egitea eta jabearengana itzultzea lortzen badu, haren osasuna hondatuko du. Kingsley andereñoak ezagutu zuen kruman bat, bere arima zela-eta oso larri zegoena, zenbait gauetan karramarro keztatu eta piperminez atonduen usain gozoa sumatu zuelako ametsetan. Seguruenik, borondate gaiztokoren batek zepo bat bide zion jarria bere ametsetako arimari, beita gisa halako jakia ipinita, zertarako eta gorputzean (edo agian izpirituan) kalte egin asmoz; eta hurrengo gauetan lan handiak hartu zituen arima lotan zegoela kanpora ez zekion. Gau tropikalaren bero itogarrian, manta baten azpian etzaten zen izerditan eta hatsa

sudurretik botaz, sudurra eta ahoa musuzapi batez estalita, arima preziatuak ihes egin ez ziezaion. Hawaiiin ere baziren pertsona bizien arimak harrapatzen zituzten magia-gizonak: kalabazetan sartzen zituzten eta jendeari jateko ematen zizkieten. Harrapatutako arima bat eskuetan estutuz, sekretuan ehortzitako pertsonen hilobiak aurkitzen zituzten.

Beharbada inon ez da Malakako penintsulan adina landuko edo hain perfekzio handiz burutuko giza arimak bahitzeko antzea. Han sorgileak hainbat era ditu bere lanetan jarduteko, hartarako arrazoiak hainbat. Batzuetan etsai bat suntsitu nahiko du, beste batzuetan emakume eder hotz edo izuti baten maitasuna lortu. Azken kasu honetarako xarmaduraren adibide gisa, hona hemen lortu nahi den emakume baten arimaz jabetzeko ematen diren argibideak. Ilargia irten berritan, ekialdeko horizontearen gainean gorri azaltzen denean, ilargiaren argitara irten, eskuin hankako behatz lodia ezkerreko behatz lodia gainean jarri eta, eskuineko eskua ahoan bozgorailu gisa ipiniz, ondoko hitzok esaten dira:

OM! Nire gezia jaurti dut, jaurti dut eta ilargia lainotu da,

Jaurti dut, eta eguzkia itzali da.

Jaurti dut, eta izarrak ilundu dira.

Baina ez diet eguzkiari, ilargiari eta izarrei jaurti,

Klaneko alaba horren bihotzari jaurti diot,

Halakori.

Klo! Klo! Halakoren arima hori, zatoz nirekin paseatzera,

Zatoz nirekin esertzera,

Zatoz nire burukoan lo egitera.

Klo! Klo! Arima".

Errepikatu hau hiru aldiz eta, errepikapen bakoitzaren ondoren, putz egiten da eskuko ahur-zulotik. Edo turbantean harrapa daiteke arima, honela: ilbeteko gauean eta hurrengo bi gauetan irten behar da; inurritegi baten gainean ilargiari begira eseri, intsentsua erre eta ondoko enkantamendu hau esaten da:

"Betel-hosto bat dakarkizut mastekatzeko,

Emaiozu karea, Printze Ikaragarri horrek,

Norbaitek, Oharkabearen Printzearen alabak, masteka dezan.

Norbait, eguzkia irteteen, nire maitasunagatik gal dadin,

Norbait, eguzkia sartzean, nire maitasunagatik gal dadin,

Zure gurasoez oroitzean, oroit nitaz;

Zure etxeaz eta etxeko eskaileraz oroitzean, oroit nitaz;

Trumoiak durunda egitean, oroit nitaz;

Haizeak ziztu egitean, oroit nitaz;

Zeruek euria dagitenean, oroit nitaz;

Oilarrek kukurruku jotzean, oroit nitaz;

Dial txoriak bere ipuina kontatzean, oroit nitaz;

Eguzkiari begiratzean, oroit nitaz;

Ilargiari begiratzean, oroit nitaz;

Zeren eta Ilargi horretantxe bainago ni.

Klo! Klo! Norbaiten arima hori, zatoz hona niregana.

Ez dut nire arima zuri uzteko asmorik,

Datorrela zure arima hona nireagana".

Gero, turbantearen muturra gauero zazpi aldiz astintzen da ilargirantz. Ondoren, etxeratu eta burukoaren azpian ipintzen da, eta egunez jantzi nahi bada, intsentsua erre eta hala esaten da: "Ez daramat turbanterik, Norbaiten arima da".

Britainiar Columbian, Nass ibaiko indiarrek sinesten dute osagin batek nahi ezta gaixoaren arima irents dezakeela. Osaginen batek halakorik egin duela uste bada, lankideek gaixoaren gainean jartzen omen dute, eta batek hatzak eztarriraino sartzen dizkion bitartean, beste batek urdailean jotzen du hatz-koskoez, eta hirugarrenak bizkarrean zapla-zapla. Horien guztien ondoren arima beragan ez badago, eta prozesu bera osagin guztiekin burutu eta ezer lortu ez bada, mediku nagusiaren kutxan dagoen seinale. Beraz, osagin-talde bat haren etxean egoten da zain, eta kutxa ateratzeko eskatzen diote. Hark hala egiten duenean, eta barrukoak zumitz berri baten gainean ipintzen dituenean, hartzen dute Eskulapioren ezpaleko gizon hori eta orkatiletatik zintzilik jartzen dute, burua zoruko zulo batean duela. Jarrera horretan, burua garbitzen diote, eta "garbiketari erabilitako ur guztia hartu eta gizon gaixoaren gainera isurtzen dute". Ezbairik gabe, galdutako arimak ur horretan egon behar du.

3. Arima itzal eta isla gisa

Baina aipatu ditudan arrisku izpiritualak ez dira basatiak dituen bakarrak. Sarritan, bere itzala edo uretako nahiz ispiluko isla hartzen du bere arimatzat, edota bere buruaren funtsezko osagaitzat nolanahi ere, eta horrenbestez arrisku-iturri zaio nahitaez. Zeren eta itzal edo isla hori zehatu, kolpatu edo zaurituko balute, hori bere buruari egingo baliote bezala sentituko bailuke basatiak; hura beragandik erabat bereiziko balitz (hala gerta daitekeela uste baitu), bera hil egingo litzateke. Wetar irlan bada edonor gaixoaraz dezakeen magia-gizonik, itzala lantza batez zaurituz edo ezpata batez sastakatuz. Sankarak Indiako budistak suntsitu zituenean, Nepalera joan omen zen, han auzi bat baitzuen Lama Handiarekin. Bere ahalmen naturaz gaindikoak frogatzeko, hegaldatu egin zen. Baina hura lurretik goratzean, Lama Handiak, haren itzala zoru gainean itxuragabetzen eta kulunkatzen ikusita, labana sartu zion, eta Sankarak erori eta lepoa hautsi omen zuen.

Banks irlan badira itxura nabarmen luzeko zenbait harri: "izpiritu jale" deritze, izpiritu indartsu eta arriskutsu batzuek egoitza bertan omen dutelako. Gizon baten itzala harri horietako baten gainean ezartzen bada, harri-izpirituak arima aterako dio eta gizona hil egingo da. Beraz, harri horiek etxezain jartzen dira etxe batzuetan; eta kanpoan den etxe-jabeak etxe horretara bidalitako mezulariak jabe horren izena esan beharko du ozenki, harriko izpiritu beilariak asmo txarrez datorrela pentsa ez dezan eta gaitz egin ez diezaion. Txinan, hiletan zerraldoari tapa jarri behar diotenean, bertan diren gehienak, senide hurbilena salbu, urrats batzuk atzeratzen dira, edota beste gela batera joaten, ustea baita pertsona baten osasunak kaltea jaso dezakeela bere itzala zerraldoan gordetzen badute. Eta zerraldoa hilobira jaitsi behar dutenean, ikusle gehienak tarte bat aldentzen dira, beren itzalak hilobira eror ez daitezen eta, hartara, beren pertsonak kalterik izan ez dezaten. Azitia eta bere laguntzaileak eguzkitik urrunen dagoen hilobi-aldean egoten dira; eta ehorzleek eta zerraldo-eramaleek irmo eusten dizkiete beren itzalei, gerriaren bueltan oihal-puska bat gogor lotuz. Eta gizakiak ez dira beren itzalen bidez kalte har dezaketen bakarrak. Animaliak ere egoera berean daude hein batean. Perakeko mugaldeko muinoetan ibili ohi den marraskilo txiki batek itzaletik zurgatzen omen die odola aziendei; abereak argaldu egiten omen dira, batzuetan hil ere bai, odol faltaz. Arabian, antzinakoek uste zuten ezen, hiena batek gizon baten itzala zapaltzen bazuen, hau hitzik gabe eta mugitu ezinik geratzen zela; eta zakur batek, teilatu gainean Ilargiaren argitan egonik, lurrean itzala egiten bazuen eta hiena batek itzal hura zapaltzea gertatzen bazen, zakurra erori egingo zela sokatik tira eginda bezala. Bistan da kasu hauetan itzala, arimaren pareko ez bada ere, gutxienez gizon edo animalia baten osagai biziduntzat hartzen dela, eta pertsonen edo animalien itzalari egindako kaltea pertsona edo animalia horren gorputzari egin baliote bezala sentitzen duela.

Alderantziz: itzala gizon edo animalia baten osagai garrantzitsua bada, zenbait abagunetan itzal batek ukitzea, pertsonak edo animaliak berak ukitzea bezain arriskutsu gerta daiteke. Horregatik, basatiak arautzat hartzen du pertsona jakin batzuen itzalari ihes egitea, zenbait arrazoi direla medio eragin arriskutsuaren iturritzat hartzen baititu. Arriskutsuen artean ezartzen ditu ehortzaileak eta emakumeak oro har, baina batez ere amaginarreba. Shuswap indiarrek pentsatzen dute ehortzailearen itzala pertsona baten gainean jarritz gero, pertsona hori gaixotu egingo dela. Victoriako kurnaien artean, gizongaiei abisua ematen zitzaien inimiziazioan, ez zezatela emakumearen itzala beren gainetik pasatzen utzi, bestela mehe, beldurti eta inozo bihurtuko zirela eta. Behin australiar bat ia hil egin omen zen beldurrez, amaginarrebaren itzala zangoen gainean jarri zitzaiolako bera zuhaitz baten azpian lo zetzanean. Basati ezjakinak amaginarrebari hainbesteko beldurra eta ikara izatea oso gauza ezaguna da antropologian. Hegoaldeko Gales Berriko Yuin tribuetan, gizon batek ezin zezakeen inolako komunikaziorik izan bere emaztearen amarekin; oso arau estua zen hori. Ez zeukan ez hari ez hura zegoen aldera begiratzerik. Dibortziazeko adinakoa zen bere itzala amaginarrebaren gainean jartzea: halakorik gertatuz gero, apartatu beharra zeukan emazteagandik, eta emakumea gurasoen etxera itzultzen zen. Britainia Berrian, gizonak oharkabean emaztearen amarekin hitz egiteak sor litzakeen kalteen tamaina eta nolakoa sumaezina da bertakoentzat, irudimenaz at dago; halakorik gertatuz gero, irtenbide bakarra lukete: bietariko batek edota bi-biek beren buruak hiltzea. Britainia Berriko baten zinegite modurik larriena haxe da, "Jauna, egia ez badiot, bostekoa eman diezaiodala nire amaginarrebari".

Itzala gizonaren biziarekin hain estu lotuta dagoela jotzen den lekuetan -hain estu non hura galtzeak ahulezia edo heriotza dakarren- pentsa liteke hura txikiagotzea ere larriuraz eta kezka hartuko dutela, jabearen bizi-indarra ere urritu egiten delakoan. Ambonen eta Uliasen, ekuatore aldeko bi irlatan, eguerdian, bidezkoa denez, itzal txikia edo batere itzalik egiten ez denez, jendeak arautzat dauka eguerdian etxetik ez irtetea, uste baitute hala eginez gero nor bere arimaren itzala gal dezakeela. Mangaiarrek Tukaitawa zeritzan gerrari indartsu baten istorioa kontatzen dute: Indarra bere itzalaren luzeraren arabera handiagotzen eta txikiagotzen omen zitzaion gerrari hari. Goizean, itzal luzeena zuenean, indartsuen egon ohi zen; baina itzala egunez laburtu ahala, indarra ere urritu egiten zitzaion, harik eta eguerdian bere gutxiena iristen zuen arte; gero, arratsaldean, itzala luzatzearekin batera, indarra berriro etortzen zitzaion. Heroi batek Tukaitawaren indarraren sekretua jakin omen zuen, eta eguerdi batez hil zuen. Malakako penintsulako besisi basatiek beldur diote hildakoak eguerdian ehorzteari, uste baitute itzalen laburrak, sinpatiaz, biziak laburtuko dizkiela.

Itzalaren eta biziaren edo arimaren arteko baliokidetasuna ez da inon argiago ageri, gaur egun ere Europako hegoekialdean burutu ohi diren zenbait ohituratan baino. Grezia modernoan, eraikin berriaren zimentarriak ezartzen direnean, oilarra, aharia edo bildotsa hil eta odola zimentarriaren gainera isurtzeko uzteko ohitura dago, eta ondoren animalia berorren azpian ehorztekoa. Sakrifizioaren helburua eraikinari indarra eta egonkortasuna ematea da. Baina batzuetan, aberea hil orde, eraikileak pertsona bat erakartzen du zimentarrira, gorputza edo gorputz-atal bat neurtzen dio ezkutuan, edota itzala, eta neurri hori ehorzten du zimentarriaren azpian; edo zimentarria gizonaren itzalaren gainean ezartzen du. Ustea da gizon hori urte horren barruan hilko dela. Trantsilvaniako errumaniarrek pentsatzen dute ezen, inoren itzala hormarteratzen bada, jabea berrogei egunen barruan hilko dela. Horregatik, eraikitzen ari diren etxe baten ondotik pasatzen diren pertsonak, beharbada, gisa honetako garrasia entzungo dute, kontuz ibiltzeko eskatuz: "Erne, itzala harrapa ez diezazuten!". Aspaldi ez dela baziren itzal-saltzaileak; arkitektoei hormak segurtatzeko behar zituzten itzalak saltzea zuten

lanbide. Halakoetan, itzalaren neurria itzalaren beraren baliokidetzat hartzen da, eta hura ehorztea gizakiaren bizia edo arima ehorztea da. Gizakia, arima gabe, hil egingo da. Ohitura hau beste baten ordezkia da, pertsona bizi bat horma artean edo eraikin berri baten zimentarriaren azpian sartzekoarena. Egiturari indarra eta iraupena emateko egiten da hori, edo zehazkiago, izpiritu haserretua leku hartan gera dadin eta etsaiengandik babes dezan.

Zenbait herri gizakiaren arima bere itzalean dela sinesten dute; beste herri batzuek (edo berberek), berriz, uretako edo ispiluko islan dela. Horregatik, "andamanek beren itzalak ez, beren islak hartzen dituzte arimatzat (edozein ispilutakoak)". Ginea Berriko motumotuek beren irudiak ispiluan lehen aldiz ikusi zituztenean, isla haiek beren arimak zirela pentsatu zuten. Kaledonia Berrian, zaharren iritziz, pertsona batek bere arima du uretan edo ispilu batean egiten duen isla; baina gizon gazteek, apaiz katolikoekin ikasiak baitira, isla besterik ez dela diote, palmondoek uretan duten isla bezalakoa. Isla-arima, gizakiaren kanpoan izanik, itzal-arimaren arrisku berberen pean dago. Zuluek ez dute putzu ilunera begiratuko, pentsatzen baitute han den piztiak beren islak hartuko dituela eta berak hil egingo direla. Basutoek diote krokodiloek gizona hiltzeko ahalmena dutela, haren isla urperatuta. Haietako norbait, arrazoi jakinik gabe, bat-batean hiltzen denean, senideek esango dute krokodiloren batek itzala hartu ziola ibaia zeharkatu zuen batean. Melanesiako Saddle irlan dagoen putzu batera "inork so eginez gero, hil egiten da; izpiritu gaiztoa soegilearen biziak jabetzen da uretan egiten duen islaren bitartez".

Orain uler dezakegu bai antzinako Indian eta bai antzinako Grezian zuten esaera bat, alegia ez begiratzeko norberak uretan egindako islari. Orobat, uler dezakegu grekoek heriotza-seinaletzat hartzea gizon batek horrela islatzen zela amesten bazuen. Beldur ziren uretako izpirituek ez ote zuten pertsonaren isla edo arima urpera eramango, eta arimarik gabe hiltzen utziko. Hauxe izan bide zen uretan egiten zuen islari begira ahuldu eta hil zen Narkis ederraren istorio klasikoaren jatorria.

Era berean, horrela uler daiteke zergatik, etxe batean norbait hil denean, ispiluak estali edo hormari begira ipini ohi diren. Bada beldur bat hildakoaren izpirituak ez ote duen arima eramango, ispiluan egiten duen islaren itxuran pertsonatik irtenda, uste baita arima hori etxean zehar ibiltzen dela lur ematen dioten arte. Ohitura hau Aru irletakoen ohituraren pare-parekoa da: norbait hil ondoren ez dute etxean lo egiten, arima, amets batean gorputzetik kanpo irtenik, hildakoaren izpirituarekin topo egin eta honek eramango ez ote duen beldurrez. Argi ageri da, halaber, gaixoei beren buruak ispilu batean ez ikusteko arrazoiak, eta gaixo baten gelan ispilua estaltzekoa: gaixoardian, arima erraz hegaldar daitekeenean, aparteko arriskua dago ispilu batean islatuta gorputzetik ateratzeko. Beraz, arau hau zenbaitek gordetzen duten beste arau baten parekoa da: gaixoei ez diete lo egiten uzten; izan ere, lotan arima irten egiten baita gorputzetik, eta beti dago itzuliko ez ote den arriskua.

Nola itzal eta islekin, halaxe erretratuekin ere; sarritan uste da erretratuak bertan ageri den pertsonaren arima daukala. Hau sinesten duen jendeak, noski, ez dizu utziko bere itxura har diezaiozun; izan ere, erretratua arima bada, edo gutxienez erretraturiko pertsonaren osagai bizi bat, erretratuaz jabe dadin edonork kaltea eragin ahal izango dio benetako pertsonari. Bering itsasarteko eskimalek, adibidez, sinesten dute sorginkerietan jarduten dutenek pertsona baten itzala lapurtzeko ahalmena dutela, eta hala eginez gero pertsona hori ahuldu eta hil egingo dela. Behin batean, Yukon ibaiaren behealdeko herrixka batean, esploratzaile batek bere kamera ezarri zuen, etxeen inguruetan hara-hona zebilen bitartean jendearen argazkia ateratzeko. Tresna fokatzeko ari zenean, herriko buruzagia etorri eta zapi azpian zelatatu nahi zuela azaldu zion temati. Hala egiten utzi zitzaionean, kristaleko irudi mugikorrei begira egon zen arretaz alditxo batez, eta gero, bat-batean, burua atera eta oihu egin zien beretarrei, ahal zuen

ahotsik altuenean: "Zuen itzal guztiak dauzka kaxa honetan". Hura izuikara jendartean sortu zuena! Amen batean ezkutatu ziren denak arrapaladan beren etxeetan. Mexikoko tepehuanek izugarrizko beldurra zioten kamerari, eta bost egunez erregutu behar izan zitzairen kamera aurrean jar zitezen. Azkenean baiezkoa eman zutenean, urkamendira bideko kriminalak ziruditen. Uste zuten argazkiarekin batera argazkilariak arima aterako ziela bere aisialdian jateko. Hark argazkiak bere herrialdera eramatean, berak hil egingo omen ziren, edo beste gaitzen bat etorriko omen zitzairen. Hala esaten zuten. Catat doktorea eta lankide batzuk baratarren lurraldea esploratzen ari zirelarik, Madagaskarko mendebaldeko kostan, jendea aurka jarri zitzairen bat-batean. Aurreko egunean bidaiariak, ondo kostata, erregearen familiaren argazkia zuten egina, eta orain salaketa hau zuten kontra: alegia, bertakoen arimez jabetzen ari zirela, Frantziara itzultzen zirenean saltzeko asmoz. Ukazio guztiak alferrikakoak gertatu ziren; lurralde hartako ohiturari jarraituz, arimak hartu eta saski batean ipini behar izan zituzten, eta Catat doktoreak zein bere jabearengana itzultzeko agindu behar izan zien.

Sikkingo herritar batzuek, izugarrizko beldurra erakutsiz, ihesari ematen zioten kamera baten lentea edota, berek esaten ziotenez, "kaxaren begi gaiztoa" beren aldera mugitzean. Argazkiekin batera beren arimak hartzen zizkiela pentsatzen zuten, eta argazkilariaren esku jartzen zituela xarmadurak burutzeko; halaber, paisajearen argazkiak zimeldu egingo omen zituen bazter haiek. Siamgo azken erregea iritsi arte, Siamgo txanpon guztiak erregearen irudirik gabe egiten ziren, "zeren eta garai hartan aurriritzi indartsua baitzegoen edozein moldez erretratuak egitearen kontra. Oihanera joaten diren europarrek, gaur egun ere, aski dute kamera jendetzarantz zuzentzea: berehala barreiatuko zaizkie denak. Pertsonaren baten aurpegiaren kopia egiten denean, argazkiarekin batera haren biziaren zati bat doa. Erregeak, gutxienez Matusalenen urteak ez hartzekotan, ez zuen berehala ametituko bere bizia puskatxoetan banatzea erresumako txanponetan".

Horrelako sinesteek oraindik irauten dute Europako zenbait aldetan ere. Orain urte asko ez dela, Greziako Karpatos irlako andre zahar batzuk asko haserretu ziren irudiak hartu zizkietenean, horren ondorioz ahuldu eta hil egingo zirelakoan. Eskoziako mendebaldean badira "inori beren irudia hartzen uzten ez dioten pertsonak, hortik zoritxarren bat etorriko ote zaien beldurrez; eta adibide gisa beren lagun batzuen kasuak aipatzen dituzte: argazkia egin zitetenez geroztik, ez onik, ez osasunik izan omen zuten egun bakar batean ere".

XIX

Egintza tabutuak

1. Atzeritarrekiko harremanei buruzko tabuak

Horra bada arimari eta beronen arriskuei buruzko lehen ikusmoldez esandakoa. Ikusmolde horiek ez dira mugatzen jende edo herrialde bakar batera; xehetasun batzuk gora-behera, mundu osoan zehar aurkitu ditugu, eta gaur egungo Europan ere irauten dute, ikusi dugunez. Hain sakon eta hain zabal hedatutako sinesteek derrigor izango zuten beren eragina lehen erregetzaren moldea eratzerakoan. Izan ere, pertsona guztiek beren arimak alde guztietatik zetozkien arriskuetatik salbatzeko hainbeste neke hartzen bazuten, hainbat eta kontu handiagoz babestu beharko zuten herri osoaren ongizatea eta bizitza bera bere eskuetan zituen haren bizia; denen interesa izango zen hura ondo gordetzea. Horregatik, pentsa genezake erregearen bizia, gizakiak bere arima babesteko hartzen dituen burubide eta babesgarriak baino burubide eta babesgarri gehiago eta xeheagoen sistemak babesten zuela. Hain zuzen, lehen erregeen bizitza zorrotz araututa dago. Lehenago ere agertu zaigu hori, eta orain xehekiago ikusiko dugu. Atera ote genezake hortik, arau horiexek direla erregearen bizia babesteko hartutako neurri eta burubideak? Arauen beren azterketak berresten digu pentsabide hau. Izan ere, azterketa

horretan ageri denez, erregeek segitzen dituzten arau batzuk pertsona arruntek beren arimaren mesedetan gordetzen dituztenen berdin-berdinak dira; eta erregeari eta ez besteri dagozkion arauen artean ere, asko, denak ezean, laster argitzen ditu erregearen babesgarri edo bizi-zaintzaile besterik ez direlako hipotesiak. Orain erregearen arau edo tabu horietako batzuk emango ditut, bakoitzari buruzko iruzkin eta azalpenekin, arauaren jatorrizko zertarakoa argitzeko asmoz.

Tabu horien helburua erregea arrisku-iturri orotatik begiratzea denez, gehienetan hura ia erabat preso bizitzera behartzen dute ondorioz, gordetzen dituen arauen kopurua eta zorroztasuna gora-behera. Alabaina, arrisku-iturri guztien artean, basatiak magiari eta sorginkeriei die beldurrik handiena, eta atzerritar guztiak susmagarri zaizkio, antze beltz horiek praktikatzan dituztelakoan. Atzerritarrek nahita edo nahi ezta duten eragin kaltegarritik gordetzea da, beraz, basatien zuhurtziaren lehen-lehen aginduetako bat. Horregatik, atzerritarrei barrutiren batera sartzen utzi aurretik, edo gutxienez bertakoekin tratu librean hasten utzi aurretik, herrialde hartakoek sarri zenbait zeremonia egingo dituzte atzerritarrek beren botere magikoez gabetzeko, haiengandik datorren eragin kaltegarriari kontra egiteko edo, nolabait esan, ustez inguratzen dituen atmosfera kutsatua garbitzeko. Esaterako, Justino II.a Ekialdeko enperadoreak turkiarrek bakeak egitera bidalitako enbaxadoreak jomugara heldu zirenean, xamanek hartu zituzten, baita garbiketa-zeremonia batean lotu ere, eragin kaltegarri orotatik garbitzeko asmoz. Enbaxadoreek ekarritako opari guztiak leku ireki batean laga ondoren, sorgile haiek intsentsu-erramu irazekiak jarri zituzten haien inguruan, kanpai bat eta danborra jotzen zuten bitartean, puzka eta herio batean gaitzaren ahalmenak ezabatzeko ahaleginetan. Ondoren, enbaxadoreak berak garbitu zituzten, garren artetik pasaraziz. Nanumea irlan Ozeano Barearen hegoaldean alegia, itsasontzietan etorritako atzerritarrei ez zieten uzten jendearekin harremanetan hasten, harik eta denak, edota banaka batzuk beste guztien ordezkari gisa, irlako lau tenpluetara eramanez eta otoitzak egin arte, jainkoak atzerritar haiek berekin ekarri bide zituzten gaixotasun edo jukutria guztiak urrun zitzan. Jakiak ere uzten zituzten aldare gainean, jainkoaren ohoretan egindako kantu eta dantzekin batera. Zeremonia hauek egin bitartean, jende guztia, apaizak eta laguntzaileak salbu, ezkutuan egoten zen. Borneoko ot danomen artean, ohitura da lurraldean sartzen diren atzerritarrek bertakoei diru-kopuru bat ordaintzea. Diru hori lurreko eta uretako izpirituei eskainitako bufalo edo zerrien sakrifizioetan xahutzen da, atzerritarren presentziara ohi daitezen eta herritarrenganako onginahia baztertu ez eta arroz-uzta eta abar bedeinka ditzaten. Borneoko eskualde bateko gizonak, europar bidaiari bati begiratzeko beldurrez (hala eginez gero gaixotu egingo zirelakoan), emazte eta haurrak gorde zituzten harengana ez hurbiltzeko. Beren jakinminari eutsi ezin ziotenek hegaztiak hil eta beren buruak odolaz busti zituzten izpiritu gaiztoak gozatzeko. "Inguruetako izpiritu gaiztoei baino beldur handiagoa diete bidaiarekin datozen urruneko izpirituei" dio Borneoko erdialdean bidaiari ibilitako batek. Lagun-talde bat "Mahakam ibaitik Blu-u kayandarren artera bisita egitera etorri zitzaidanean, 1897. urtean, emakume bakar bat ere ez zen irten etxetik plehiding-aren azal-eskutada irazeki bat gabe, beronen ke kirastunak urrundu egiten baititu izpiritu gaiztoak".

Crevaux Hegoamerikan bidaiari zebilenean, apalai indiarren herri batera iritsi zen. Iritsi eta laster, indiar batzuek hozkada oso minbera duten klase bateko inurri beltz handi batzuk ekarri zituzten palma-hostoetan. Orduan herritar guztiak, adin edo sexu bereizketarik gabe, etorri zitzaizkion aurrera, eta inurriak ezarri behar izan zituzten aurpegian, izterretan eta gorputzeko beste alde batzuetan. Batzuetan, inurriak emekiegi ipintzen zituztenean, "Gehiago! Gehiago!" oihukatzen zioten, eta ez zuten etsitzen harik eta larrua bezala pinportatxoak josita eduki arte, asunez ziztatu balituzte. Zeremonia

honen zertarakoa Ambonen eta Uliasen gordetako ohitura batek argitzen du: gaixoei jengibre eta iltze-belarra bezalako espezie minak zipriztintzen zaizkio ondo birrinduta, zertarako eta hazkurak gaixotasunaren deabrua urrun dezan, beren soinari atxikita egon daitekeela eta. Javan hezueria eta erreuma sendatzeko modu ezagun bat gaixoaren hatz eta behatzetako azkazalak mexikar piperminaz igurtzitzea da; pimerminaren zizta gaitz horientzat gehiegizkoa dela jotzen dute eta, beraz, habailan aldegiten dutela. Era berean, Esklaboen kostan, haur gaixo baten amak, izpiritu gaizto bat haurraren gorputzaz jabetu dela uste duenean, ebakitxoak egiten dizkio txikiari gorputzean hura ateratze aldera, eta piperrak edo espezieak ezartzen dizkio zaurietan, ustez hartara izpiritu gaiztoari min emango diola eta aldegitara behartuko duela. Haur gajoa, jakina, garrasi batean egoten da minez, baina amak entzungor egiten dio, deabrua ere berdin sufritzen ari delakoan. Beharbada, atzerritarrek ohoratzeke asmoz baino gehiago, haienganako beldurragatik egiten dira haien etorreran zenbait zeremonia, asmo hori zuzen adierazten ez bada ere. Javako Ongtong irlan -polinesiarrak bizi dira bertan-, apaizek edo sorginek eragin handia dute. Haien egiteko nagusia izpirituak deitzea edo iraitzea da, gaixotasunak uxatzeko edo aienatzeko, eta haize onak, arrantza ona eta abar ekartzea. Atzerritarrek irla haietara iristen direnean, lehenik sorginek hartzen dituzte, eta urez zipriztindu, olioaz igurtzi eta pandanus zuhaitzaren hosto ihartuetan biltzen dituzte. Aldi berean, harea eta ura jaurtitzen dira alde guztietara, eta hosto berdez igurtzitzen dituzte etorri berria eta bere itsasontzia. Zeremonia honen ondoren, sorginek buruzagiaren aurrera eramaten dituzte atzerritarrek. Afganistanen eta Persiako zenbait aldetan, bidaiaria herrixka batera sartu aurretik, abere bizi bat edo janariak sakrifikatuz hartzen dute, edo su eta intsentsuarekin. Mugaldeko afganiar misioa, Afganistango zenbait herritatik pasatzean, suz eta intsentsuz hartzen zuten sarri. Batzuetan ilinti irazekiak jaurtitzen dira bidaiariaren zaldiaren oinpera, "ongi etorri" hitzekin. Afrikako erdialdeko herrixka batera sartutakoan, bi ahuntz sakrifikatuz hartu zuten Emin Pasha; odola bide gainera isuri eta buruzagia odolaren gainetik hurbiltzen zitzaion Emini ongi etorria egitera. Batzuetan atzerritarrekiko eta haien magiarekiko beldurra handiegia izaten da haiek inola ere hartzeko. Speke herri batera iritsi zenean, esate baterako, bertakoek itxi egin zizkieten ateak, "aurrez sekula gizon zuririk ikusi gabeak zirelako (ezta gizonek zeramatzaten kutxa handiak ere). "Nork daki" zioten, "kutxa horiek ez ote diren Watuta gaizkileak, itxuraldatu eta gu hiltzera etorriak? Ezin zaituztegu onartu". Dena alferrikakoa izan zen, eta bidaztiekin hurrengo herriraino segitu behar izan zuten". Kanpotar bisitarienganako beldurra elkarrekikoa izaten da sarritan. Lurralde arrotzera sartzean, basatiak lur sorginduan dabilela pentsatzen du, eta neurriak hartzen ditu hango deabruetatik eta bertakoen antze magikoetatik babesteko. Lurralde arrotz batera joaterakoan, adibidez, maoriek zeremonia jakin batzuk egiten zituzten hura "arunt" bilakartzeko, aurrez "sakratua" izan zitekeelakoan. Miklucho-Maclay baroia Ginea Berriko Maclay kostaldeko herri batera hurbildu zen batean, berarekin zihoan bertakoetako batek arbola bateko adaxka hautsi zuen eta, pixka bat aldenduz, hitz batzuk esan zizkion ahapeka; gero, taldekide bakoitzagana joan eta tu egin zien bizkarrean, eta kolpe batzuk eman zizkien adaxkaz. Azkenez, basora sartu eta orbelen azpian ehortzi zuen, oihaaren alderik trinkoenean. Zeremonia honek hurbileko herrian egin ziezaieketen traizio eta arrisku orotarik babesten omen zituen bidaztiak. Nonbait, eragin gaiztoak pertsonetatik adaxkara pasatzen ziren, eta harekin batera geratzen ziren ehortzita basoaren sakonean. Australian, barruti batera kanpoko tribu bat gonbidatzen dutenean eta lur-zati horren jabe den tribuaren kanpamentura hurbiltzean, "arrotzek arbola-azal irazekia edo makila gartuak ekartzen dituzte eskuetan, airea garbitzeko eta arazteko, diotenez". Toradjak giza buruen ehizan dabiltzanean eta etsaiaren lurraldera sartzen direnean, ez daukate hark landatutako fruiturik jaterik, ezta hark hazitako

abererik ere, lehenik etsai-egintza bat burutu arte, hala nola etxe bat erretzea edo gizon bat hiltzea. Arau hau hausten badute, pentsatzen dute etsaiaren arimaren edo izpirituzko izatearen zerbait bereganatuko dutela, eta hartara beren talismanen bertute mistikoa desegingo dela.

Beste batzuetan uste izaten da bidaian ibilitako gizona magiazko gaitzen batez kutsatuta etor daitekeela arrotzekin elkartzeagatik. Horregatik, etxeratzean, tribuko gizartean eta lagunartean berriz onartua izan baino lehen, zenbait garbiketa-zeremonia jasan behar izaten ditu. Horregatik, betxuanak "garbitu eta araztu egiten dira bidaia egin ondoren, buruko ilea erabat moztuz e.a., agian aztikeriaz edo sorginkeriaz arrotzengandik gaitzen bat jaso duketelakoan". Afrikako mendebaldeko zenbait aldetan, gizon bat denbora luzez kanpoan ibili ondoren etxeratzenean, likido berezi batez garbitu behar izaten du burua emazteari bisita egin ahal izan aurretik, eta sorgileagandik arbasoen seinale jakin bat jaso, zertarako eta emakume arrotzen batek, bera kanpoan ibili denean, ezarri bide dizkion magiazko sorginkeriei kontra egiteko, beraren bidez herriko emakumeetara iragan daiteke eta. Printze batek Ingalaterrara bidalitako bi enbaxadore hindu itzuli zirenean, hain kutsatuta ikusi zituzten herritarrek arrotzekiko harremanengatik non ezerk ezin izan zien garbitasuna itzuli, berriro jaiotzeak salbu. "Berriro sortu ahal izateko, naturaren botere emearen urre hutsezko irudi bat egitea agintzen da, emakume baten edo behi baten itxuran. Estatua horretara sartzen dute berriz sortu behar duen pertsona, eta ohiko bidetik ateratzen. Urre hutsezko eta benetakoaren neurriko estatua garestiegia litzatekeenez, aski da Yoni sakratuaren irudia egitea, berriz sortu behar duen pertsona haren barrenetik zehar pasa dadin". Halako urre hutsezko irudi bat egin zuten printzearen aginduz, eta enbaxadoreak berriro jaio ziren hartatik atera zituztenean.

Atzeritarrek omen duten eragin kaltegarriaren kontra gisa honetako neurriak hartzen badira herri osoaren defentsan, ez da harritzekoa neurri bereziak hartzea erregea arrisku maltzur berberetatik babesteko. Erdi Aroan, tartariarren Khana bisitatu zuten mandatariak bi suren artean pasatzera behartu zituzten haren aurrera onartu baino lehen, eta ekarri zituzten opariak ere bi suen artean pasatu beharra izan zuten. Hartarako, arrazoi hau eman zen, suak arrotzek Khanari igorri nahi zioten edozein eragin kaltegarri garbitzen zuela. Menpeko buruzagiak, bere segizio eta guzti, Kalamba (Kongo Basingo bashilangeen buruzagi nagusia) bisitatzera etortzen direnean lehen aldiz edo matxinatuta ibili ondoren, bi erreketan bainatu behar izaten dute, gizon eta emakume, denak batera, bi egunez segidan, gauak aire zabalean azoka-lekuan pasatuz. Bigarren bainuaren ondoren, Kalambaren etxera joaten dira, erabat biluzik, eta honek marka luze zuria egiten dio bakoitzari bularrean eta bekokian. Gero azoka-lekura itzuli eta jantzi egiten dira, eta ondoren piperminaren proba gogorra jasan behar izaten dute. Pipermina botatzen diete begietan, eta hori egin ondoren bakoitzak bekatu guztiak aitortu behar ditu, egiten zaizkion galdera guztiei erantzun, eta zenbait gauzari zin egin. Horrela bukatzen da zeremonia, eta arrotzak libre geratzen dira herrian hartutako ostatueta joateko eta nahi duten denbora guztian bertan geratzeko.

2. Jan-edanei buruzko tabuak

Basatien iritziz, jan-edanek arrisku bereziak dituzte; izan ere, aldi horietan arimak ahotik egin dezake ihes, edo jatunarekin den etsairen batek kanpora dezake magia erabiliz. Esklaboen kostako ewe hizkuntzadun herrien artean, "uste arrunta da barruko izpirituak ahotik aldegiten duela eta gorputzera ahotik sartzen dela; horregatik, hura kanpoan bada, gizakiak kontu handia izan behar du ahoa irekitzean, bizilekurik gabeko izpirituren bat aukera horretaz balia daitekeelako gorputzean sartzeko. Hau, dirudienez, gizakia jaten ari den bitartean gerta daiteke batez ere". Beraz, neurriak hartzen dira arrisku hauetatik gordetzeko. Hala, batakez esan ohi denez, "arimak gorputzetik aldegin dezakeenez, beti izaten dute kontu handia haren beharrik handiena dutenean aldegin ez

dezan. Baina etxean egonda bakarrik lor daiteke arimak ez aldegitea. Oturuntzetan etxe osoa edukiko dute itxita, zertarako eta arima aurrean jartzen zaizkion gauza eder guztiez atsegin hartzera gera dadin". Madagaskarko zafimaneloek, jaten dutenean, giltzaz ixten dituzte ateak, eta nekez ikusiko ditu inork jaten eta edaten. Waruatarrek ez diote inori utziko jaten eta edaten ikus ditzan, batez ere beste sexuko inori. "Ordaindu egin behar izan nion gizon bati edaten ikusiko banuen; ez nuen lortu gizon batek emakume bati berak nola edaten zuen ikusten uzterik". Edana eskaintzen zaienean, edan bitartean estaliko dituen zapi bati eusteko eskatzen dute.

Hauek jende arruntak hartu ohi dituen neurriak izaki, erregeek hartzen dituztenak ohiz kanpokoak dira. Loangoko erregea inork ezin dezake ikus jaten edo edaten, ez gizonek ez abereek; ikus dezanak heriotza-zigorra izango du. Erregeak oso gogoko zuen zakur bat bera afaltzen ari zen gelan sartu zenez, hark bertan akaba zezaten agindu zuen. Behin erregearen semeak berak, hamabi urteko mutiko batek, erregea edaten ikusi zuen oharkabea. Berehala, erregeak apain-apain jantz zezatela eta oturuntza ederra eman ziezaiotela agindu zuen, eta ondoren lautan zatikatu eta hirian zehar eraman zezatela, erregea edaten ikusi zuela aldarrikatuz. "Erregek edateko asmoa duenean, kopa bat ardo ekartzeko eskatzen du; hura dakarrenak txintzarria izaten du eskuan, eta kopara ardoa atera bezain laster, aurpegia beste alde batera biratu eta txintzarriari eragiten dio, eta bertan diren guztiak aurpegiak lurrari emanda etzaten dira, eta hala geratzen erregek edan arte... Jan ere gisa horretan egiten du, etxea baitu horretarako; jakiak bensa edo mahai baten gainean jartzen zaizkio; etxera sartu eta atea ixten du; egin beharrekoa egin duenean, atea jo eta irten egiten da. Hartara, inork ezin dezake errege jaten edo edaten ikus. Izan ere, ustea da inork hala egin baleza, erregea berehala hilko litzatekeela". Janarien hondarrak erre egiten dira, sorginen eskuetara joan ez daitezten ezbairik gabe; izan ere, sorginek, puska hauen bitartez, zorigaitzeko xarmadura egin baitiezaiokie erregeri. Loangoren auzoan den Kakongoko erregeak ere antzeko arauak zituen: menpekoren batek edaten ikusten bazuen, erregea hil egingo zela pentsatzen zen. Lege-hauste handia da Dahomeyko erregea otorduetan ikustea. Jendaurrean edaten duenean, oso abagune berezietan egiten baitu hori, gortina baten atzean ezkutatzen du bere burua, edo musuzapiak ezartzen dira haren buru inguruan, eta jende guztia aurpegia lurrari emanda etzaten da. Afrikako erdialdean den Bunyoroko erregea ukuilura esnea edatera joaten zenean, gizon guztiek irten behar izaten zuten barruti hartatik, eta emakume guztiek buruak estali behar izaten zituzten erregea itzuli arte. Inork ezin zuen hura edaten ikusi. Emazte batek laguntzen zion ukuilura esne-ontzia emateko, baina aurpegia jiratzen zuen hark edan bitartean.

3. Aurpegia erakusteari buruzko tabuak

Aurreko zenbait kasutan, erabat ezkutuan jatearen eta edatearen intentzioa, beharbada, eragin gaiztoak gorputzean ez sartzea dateke, arimari ihes egiten galaraztea baino gehiago. Hau da, ezbairik gabe, Kongo eskualdeko biztanleek gordetzen duten zenbait edan-ohituraren arrazoia. Jende horretaz esan zaigunez, "apenas izango den bertako inor, aurrez izpirituak konjuratu gabe likidorik edatera ausartuko denik. Batek txintzarri bat joko dizu edaten ari den bitartean; beste batek kokoriko jarri eta ezkerreko zangoa lurrean jarriko dizu; beste batek burua estaliko du; beste batek belar-izpi bat edo hostoa ipiniko du buru gainean, edo bekokia buztin-lerro batez markatuko du. Ohitura fetitxe hau hainbat eratan agertzen da. Era horiek azaltzeko, beltzari aski iruditzen zaio izpirituak konjuratzeko erabateko moduak direla esatea". Munduko alde hartan, buruzagi batek txintzarri bat astinduko du irensten duen garagardo-trago bakoitzarekin batera, eta aldi berean beraren aurrean jarritako mutil batek ezpata altxako du "buruzagi zaharraren gorputzean garagardoaren bide beretik sar litezkeen izpirituak atzerarazteko". Arrazoi berbera, izpiritu gaiztoak kanpo edukitzea alegia, du Afrikako

zenbait sultanek aurpegia estaltzeko duten ohiturak. Darfurko sultanak muselina zurizko zapi batez estaltzen du aurpegia: buruari zenbait bira ematen dizkio, lehenik ahoa eta sudurra, eta gero bekokia estaliz, agerian begiak besterik utzi gabe. Aurpegia estaltzeko ohitura bera, erregetasunaren seinale gisa, gordetzen omen da Afrikako erdialdeko beste zenbait partetan ere. Wadaiko sultanak gortina baten atzetik hitz egiten du beti; inork ez dio aurpegia ikusten, ezpada hurbil-hurbilekoek eta bere gogoko pertsona bakan batzuek.

4. Etxetik irteteari buruzko tabuak

Antzeko neurrien hedapenez, batzuetan erregeek debekatua izaten dute are beren jauregitik irtetea ere; edo hori egitea uzten bazaie, menpekoei debekatu egiten zaie haiek kanpoan ikustea. Beningo errege fetitxea, menpekoek jainko gisa gurtzen zutena, ez zitekeen jauregitik irten. Koroatu ondoren, Loangoko erregea jauregian gordetzen da, eta ez dauka handik irteterik. Onitshako erregea "ez da etxetik herrira irteten jainkoak eztiarazteko giza opagairik eskaintzen ez bada: halaz guztiz ere, inoiz ez ditu iragaiten bere jabetzako alorren mugak". Esan ere esan zaigu jauregitik aldegiten badu herio-zigorra ezarriko zaiola, edota esklabo bat edo batzuk eman beharko dituela bere aurrean hil ditzaten. Herrialdearen aberastasuna esklabo-kopuruaren arabera neurtzen denez, erregeak kontu handia izaten du legea ez hausteko. Hala ere, urtean behin, ñamearen festan, erregeari utzi egiten zaio, are gehiago, eskatu egin ohi zaio, jauregiko buztinezko horma garaiaz kanpo jendearen aurrean dantza egin dezan. Dantza egiten duenean pisu astun bat eramaten du bizkarrean, lurrez betetako zaku bat gehienetan, oraindik karguaren zama eta eginbeharrei eusteko gai dela frogatzeko. Eginkizun hori burutzeko gai ez balitz, berehala kenduko lukete kargutik, eta agian harrika ere hasiko litzazkioke. Etiopiako erregeak jainko gisa gurtzen zituzten, baina jauregietan gordeta egoten ziren. Pontoko kostalde menditsuan, antzina herri zakar eta gerrazale bat bizi omen zen, Mosyni edo Mosynoeci izenekoa: haien lurralde malkartsuan zehar ibili ziren Jenofonteren Anabasiko Hamar Mila haiek Asiatik Europarako erretiratze ospetsuan. Barbaro haiek dorre garai baten gorenean ondo gordeta edukitzen zuten beren erregea; aukeratu ondoren, ez zioten uzten handik inoiz jaisten. Handik banatzen zuen justizia herritarren artean; baina irain egiten bazien, zigortu egiten zuten egun oso batez jakirik gabe, edota goseak hil arte. Sabea edo Sheba, Arabiako espezieen lurraldeko erregeei, ez zieten uzten jauregietatik irteten; hala eginez gero, jendetzak harrika hilko zituen. Baina jauregiaren gorenean leiho bat zegoen, eta bertatik zintzilik katea bat. Inork, kalte egin ziotela eta, kateatik tira egiten bazuen, erregeak nor zen ikusi, deitu eta epaia ematen zuen.

5. Janari-hondarrei buruzko tabuak

Berebat, janari-hondarren bitartez edo jateko erabili dituen plateren bitartez ere harrapa dezake magia bidezko gaitzak gizakia. Sinpatiazko magiaren printzipioen arabera, benetako loturak irauten du gizakiak urdaileratu duen eta platerean utzitako janariaren artean, eta horregatik, hark platerean utzitakoari kalte eginez gero, jandakoari ere egin dakioke kalte. Australiako hegoaldeko narrinyerien artean, pertsona hazi guztiak inork jandako abereen, txorien edo arrainen hezurren bila ibiltzen dira etengabe, haietaz baliatuta hiltzeko xarmadura egiteko. Beraz, denek izaten dute kontu handia jandako abereen hezurak erretzeko, sorgileren baten eskuetara eror ez daitezen. Oso sarritan, ordea, sorgileak halako hezurren bat eskuratzea lortzen du, eta hori egiten duenean aberearen haragia jan duen gizon, emakume edo haurraren gainean bizitzaren eta heriotzaren ahalmena duela sinesten du. Xarmadura martxan jartzeko, oreka egiten du buztin gorria eta arrain-olioa nahastuta; bakailao baten begia eta gorpu baten haragi-pusketatxo bat sartzen ditu bertan eta, harekin guztiarekin bola bat eginez, hezuraren gainean ezartzen du. Denboraldi batez hildako baten bular barruan utzi ondoren,

zertarako eta ustelarekin batera egonda hiltzeko ahalmena har dezan, magiazko zer hura lurrean uzten da suaren ondoan, eta bola urtu ahala, xarmadura egin zaion pertsona ere gaixotuz joaten da; bola erabat urtuz gero, pertsona hil egingo da. Sorgindutako gizonak zer egin zaion jakiten duenean, sorginari hezurra erosten saiatzen da eta, lortzen badu, hezurra ibai edo laku batera jaurtiz hausten du xarmadura. Tanan, Hebrida Berrietako batean, jendeak erre edo itsasora jaurtitzen ditu janari-hondarrak, ez daitezen gaixotasun-egileen eskuetan eror. Izan ere, gaixotasun-egile batek jatordu bateko hondarrak aurkitzen baditu, banana baten azala esate baterako, hartu eta astiro erretzen du sutan. Erre ahala, banana jandako pertsona gaixotu egiten da eta, horregatik, gaixotasun-egilearen bila bidali behar izaten du norbait, opariak eskainiz banana-azala erretzeari uztearen truke. Ginea Berrikoek arretarik handiena jartzen dute beren janarien azalak eta beste hondarrak desegin edo ezkutatzeko, etsaiek aurki ez ditzaten eta jaleen kalterako edo hondamendirako erabil ez ditzaten. Horregatik, utzitakoa erre egiten dute, itsasora jaurti, edo beste nolabait kentzen dute kalte egiteko bidetik.

Sorginkerien horrelako beldur batengatik, zalantzarik gabe, inork ezin dezake uki Loangoko erregeak platerean utzitako janaria; lurrean egindako zulo batean erretzen dute. Eta inork ezin dezake edan erregearen edalontzitik. Antzinatean erromatarrek berehala hautsi ohi zituzten jandako arrautza-azalak eta marraskiloen oskolak, etsaiek haietaz baliatuz magia egin ez zezaten. Oraindik ere gure artean indarrean den ohitura arrunt hori, arrautzak jan ondoren arrautza-azalak haustekoa, sineskeria berorretatik sortua dateke inondik ere.

Gizakiak utzitako jan-hondarrez baliatuz berari egin dakiokeen magiaren beldur superstiziotsuak ondorio ona izan du basatien artean: hondarrak desegitekoa; izan ere, usteltzen utziz gero, benetako eta ez irudipenezko gaixotasun eta heriotza-bide gertatuko baitziren. Eta superstizio honek ez dio on egin tribuaren osasun-egoerari bakarrik. Beldur funtsgabe berorrek, kausaren nozio faltsu berak alegia (hara zer bitxikeria!), estutu egin ditu zeharbidez gizon horien arteko lotura moralak, hala nola abegikortasuna eta harkortasuna, ohorea eta fede ona. Izan ere, bistakoa da gizon batek utzitako jan-hondarrekin magia egin eta gizon horri min eman nahi dion beste inork ez duela hartuko janari beretik, zeren eta, sinpatiazko magiaren printzipioen arabera, hala egingo balu, berak ere ondorio berberak jasango bailituzke hondarrei egindako edozein kalterengatik. Hauxe da lehen gizartean elkarrekin jateak eragindako loturari santutasuna ematen dion ideia: janari berberetik hartuz, bi gizon, nolabait esan, jokabide zuzenaren morroi geratzen dira; bata besteari ez diola gaitzik egingo bermatzen diote elkarri, zeren eta, urdailean duten janari berdinez bat eginda egonik, lagunari egindako edozein kalte nork bere buruari egiten baitio, indar berdin-berdinez egin ere. Logika estuaren arabera, ordea, janariak bi lagun urdailetan irauten duen denboran irauten du sinpatiazko loturak. Horregatik, elkarrekin jatean eratutako ituna ez da odola baten zainetatik bestearenetara aldatuz sortzen den ituna bezain larria eta iraunkorra; izan ere, badirudi odol-transfusioak bizitza osorako lotzen dituela bi lagunak.

XX

Pertsona tabutuak

1. Buruzagi eta erregeak tabututa

Ikusi dugu Mikadoaren janaria egunero ontzi berrietan atontzen eta plater berrietan zerbitzatzen zela; ontziak eta platerak buztin arruntezkoak ziren, erabili ondoren batere damurik gabe hautsi edo baztertu ahal izateko. Gehienetan hautsi egiten zituzten, ustea baitzen beste inork plater sakratu haietatik jaten bazuen, ahoa eta eztarria handitu eta hanpatu egingo zitzaizkiola. Ondorio txar bera izaten omen zuen Mikadoaren arropak beraren baimenik gabe janzten zituenak; handituak eta minak izango omen zituen gorputz osoan. Fijin izen berezia (kana lama) du ustez buruzagiaren plateretatik edo

haren arropak janztetik datorren gaixotasunak. "Eztarria eta gorputza puztu egiten dira, eta pertsona gaiztoa hil egiten da. Izan nuen zumitz fin bat, inoiz ere erabili ez zuen gizon batek emana, zergatik eta Thakombauren seme zaharrena haren gainean eseri zelako. Beti izaten zen herritar arrunten familia edo klanen bat arrisku hauetatik libre zegoena. Honetaz hizketan ari nintzen behin Thakombaurekin. "A bai" esan zidan, "Aizu, urlia, zatoz eta egidazu hazka bizkarrean". Gizonak hazka egin zion; batere beldurrik gabe egin zezakeen horietako bat zen eta". Halako pribilegio handia zuten gizonen izena Na nduka ni zen, buruzagiaren zaborra.

Mikadoaren eta Fijiko buruzagiaren ontziak edo arropak erabiltzeari jarraikitzen zaizkion ondorio txarretan, jainko gizakiaren izaeraren beste aldea ikusten dugu; lehendik ere seinlatu dugu hori. Jainkozko pertsona onura-iturri den bezala, arrisku-iturri ere bada; bera babestu ezezik, beragandik babestu beharra ere badago. Haren organismo sakratua -hain milika, non ukitu batek asalda baitezake-, indar magiko edo izpiritual ahaltsu baten elektrizitatez kargatuta dago, nolabait esan, eta ondorio txarrez deskarga daiteke bera uki dezan edonoren gainean. Horren arabera, gizaki jainkoa isolatzea behar-beharrezkoa da besteen eta beraren onerako. Haren bertute magikoa kutsakorra da, hitz honen adiera estuan; haren jainkotasuna sua da, komeni diren mugen barruan onura amaiezinak ematen dituen baina, zentzugabeki ukitu edo lokarriak hautsiz gero, ukitzen duen oro erre eta suntsitu egiten duena. Horregatik uste da tabu bat hausteari oso ondorio kaltegarriak jarraikitzen zaizkiola; arau-hausleak su jainkotiarrean ezarri du eskua, eta honek berehala kiskaltzen dio.

Esate baterako, nubatarrek (Afrikako ekialdeko Jebel Nubako eskualde basotsu eta emankorrean bizi den tribua da hau) sinesten dute errege apaizaren etxean sartuko balira hil egingo liratekeela; hala ere, badaukate zigor horretatik libratzerik. Nola? Ezkerreko sorbalda biluztu eta erregeak eskua han ezar dezan utziz. Eta gizonen bat erregeak beretzat sagaratu duen harri baten gainean eseriko balitz, arau-hauslea hil egingo litzateke urtebeteren barruan. Angolako kazenbeek inork ez ukitzeko adinako santutzat daukate beren erregea: hala eginez gero, haren pertsona sakratua betetzen duen magiazko ahalak hil egingo luke ukitzaillea. Baina ukitzea batzuetan ezinbestekoa denez, bide bat asmatu dute bekataria bizirik atera dadin. Erregearen aurrean belaunikatuz, eskuaren gainaldea ukitzen dio bere eskuaren gainaldez, gero hatzak klaskatzen ditu; ondoren bere esku-ahurra erregearen esku-ahurrean ipintzen du, eta berriro klaskatzen ditu hatzak. Zeremonia hau lau edo bost aldiz errepikatu ondoren, libratu egiten da hiltzeko arrisku handi hartatik. Tongan uste zenez, inork, buruzagi goren baten pertsona sakratua edo buruzagi harena zen zerbait ukitu ondoren, bere eskuez jaten bazuen, puztu eta hil egingo zen; buruzagiaren santutasunak, pozoiz biziak bezala, menpekoaren eskuak kutsatuko zituen eta, haiek medio janarira pasatuz, hilgarri gertatuko zitzaion jaleari. Arrisku horretan sartutako herritar arruntak zeremonia jakin bat burutuz garbi zezakeen bere burua: esku bakoitzaren ahurraz eta gainaldez buruzagiaren oinazpia ukituz, eta gero eskuak uretan garbituz. Inguruetan urik ez bazen, platano edo banana baten txorten muztiotsuaz igurtzitzen zituen eskuak. Horren ondoren, libre zegoen bere eskuez jateko, gaixotasunak erasoko ote zion arriskurik gabe; bestela, esku tabutu edo santuturikoez janez gero, horixe gertatuko baitzitzaion. Baina barkamen edo garbitze-zeremonia burutu arte, jan nahi bazuen, beste norbaitek eman beharko zion, edo bestela lau hankan jarri eta lurretik ahoaz hartu beharko zuen janaria, abereek bezala. Ez zeukan txotx bat ere erabiltzerik, inork hartu behar zion txotxa, eta berak haren eskua gidatu besterik ezin zezakeen egin. Tongatarrek gibel-gogortzea eta beste gangailen-mota batzuk izaten zituzten; sarritan egozten zioten gaitza buruzagiren bat edo berarena zen zerbait oharkabean ukitu ondoren burutu beharreko barkamen-zeremonia ez egiteari. Horregatik, badaezpada maiz egiten zuten zeremonia hori, ea horretarako ezer egina

zuten ala ez jakin gabe. Tongako erregeak ezin zion uko egin erritoan zegokiona betetzeari, ukitu nahi zuen edonori oina eskaintzea alegia, ezta desgaraian eskatuta ere. Inoiz ikusi izan da errege gizen eta astun bat, menpekoak, bera paseoan zebilela asmo horrekin zetozkiola ohartuta, bere zangoen ahal osoan lasterka haiengandik urruntzen, zertarako eta omenaren adierazpen desgaraiko eta ez guztiz desinteresatuari ihes egiteko. Inori iruditzen bazitzaion oharkabean tabututako eskuez jan zuela, buruzagiaren aurrean esertzen zen eta, buruzagiaren oina hartuz, bere urdailaren kontra sakatzen zuen, sabeleko janariak min egin ez ziezaion, eta bera handitu eta hil ez zedin. Tongatarrek gangailena tabututako eskuez jatearen ondorioztat daukatenez, pentsatzekoa da gaitz hau zeukaten pertsonak, beren artean, sarritan ukitu edo sakatu nahi izango zutela erregearen oina, beren gaixotasunaren sendabide gisa. Ohitura honek aztura ingeles zahar batekin duen antza (alegia gaixo gangailendunak erregearen aurrera eramatekoa, hark bere ukituz senda zitzan), aski nabaria da eta, beste nonbait seinalatu dudanez, hauxe iradokitzen digu: alegia, geure aspaldiko arbasoen artean gangailenak tongatarrena bezalako sineste batetik atera bide zuela bere beste izena, errege-mina alegia: erregeen maiestate jainkotiarrenen ukituak eragiten eta sendatzen zuelako sinestetik.

Zeelanda Berrian Tongan bezain handia zen buruzagien santutasunari zioten beldurra. Haien botere izpirituala, arbasoen izpiritu batetik zetorrena, ukitzen zuten orotara hedatzen zen kutsaduraz, eta bertan hil zitzakeen burugabeki edo oharkabean berarekin nahas zitezen guztiak. Adibidez, behin batean, Zeelanda Berriko buruzagi goren eta santutasun handiko batek afariaren hondarrak utzi omen zituen han zehar. Esklabo batek, morroi indartsu eta gosetu batek, buruzagiaren ondotik etorri eta afari amaitu gabea ikusita, jan egin zuen inori ezer galdetu gabe. Ia amaitu orduko, ikusle izuikaratu batek jakinarazi zion berak jandakoa buruzagiaren hondarrak zirela. "Ondo ezagutzen nuen zorigaiztoko arau-hauslea. Nabarmena zen bere ausardiagatik, eta puntan ibilia zen tribuaren gerretan", baina "berri zorigaiztoko entzun bezain laster, dardarizo batek hartu zion gorputz osoa, eta karranpak urdaila, eta ez zitzaizkion joan harik eta egun hartako arratsaldean hil zen arte. Gizon indartsua zen, sasoiaren bete-betean, eta edozein pakeha [europar] libre-pentsalarik esan balie haiei gizon hura ez zuela hil buruzagiaren tapuak, uhinen bidez janarira pasatuta, errukiz entzungo zioten bere ezjakintasunagatik eta hain argi zegoena ez ulertzeko gai ez izateagatik". Ez da kasu bakarra. Emakume maori batek, fruitu bat jan ondoren, esan omen zuen buruzagiaren izpirituak hil egingo zuela, santutasuna orbandu ziolako. Eguerdian gertatu zen hau, eta biharamunean hamabiak alderako hilda zegoen. Behin batean buruzagi maori baten ardagai-kutxatxo zenbait pertsona hiltzeko bide izan zen; hain zuzen, hark galdu egin baitzuen, eta gizon batzuek aurkitu eta beren pipak pizteko erabili zuten, eta gero beldurrez hil ziren norena zen jakin zutenean. Era berean, Zeelanda Berriko buruzagi baten jantziak beste inork janzten baditu, inor hori hil egingo da. Misiolari batek buruzagi bat ikusi zuen tapakia amildegi batera botatzen, eramateko astunegia zitzaiola eta. Galdetu zionean zergatik ez zuen zuhaitzen batean utzi hurrengo beste bidaiari batek erabil zezan, buruzagiak erantzun omen zion "beste norbaitek hartuko ote zuen beldurrak botarazi ziola bota zuen lekura, zeren eta, erabili izan balute, bere tapuak" (hau da, bere botere izpiritualak, ukitu bidez tapakira eta tapakitik gizonagana pasatuta) "hil egingo baitzuen pertsona hura". Antzeko arrazoigatik, buruzagi maoriak ez lioke putz egingo suari; izan ere, haren arnasa sakratuak suari kutsatuko lioke bere santutasuna, eta suak gainean jarritako ontziari, eta ontziak barruko janariari, eta janariak jaleari, hots, buruzagiak putz egindako suaren gainean zegoen ontziko janaria jan zuenari; hartara, bada, jalea, bitartekari horiek bideratutako buruzagiaren arnasak kutsaturik, hil egingo litzateke seguruenik.

Beraz, Polinesiako arrazakoentzat, arraza horretakoak baitira maoriak, superstizioak benetako oztopoa eraikitzen zuen buruzagi sakratuen inguruan, aldi berean irudimen hutsezko oztopoa zena ordea, eta hura hausteak hauslearen heriotza ekartzen zuen egin zuenaz ohartzen zen guztietan. Izuikara superstiziotsuen bidez lan egiten duen irudimenaren ahalmen zorigaitzeko hau ez dago arraza bakar batera mugatuta, inondik ere; badirudi oso gauza arrunta dela basatien artean. Adibidez, Australiakoen artean, bertako bat hil egingo da zauririk hutsalena egiten badiote, zauria egin dion armari kantatu egin zaiola eta hartara bertute magikoa erantsi zaiola sinesten badu. Etzan, janaria arbuia eta penaz hilko da, besterik gabe. Era beretsuan, Brasilgo indiarren zenbait tributan, inork osagina iraindu eta honek iraingilea hil egingo zela auresaten bazuen, "gizajoa hamakan etzaten zen berehala, hiltzera zihoala etsi-etsita, ez jan eta ez edan egin gabe, eta auresandakoa epai bihurtzen zen, fedeak betearazten zuen epaia".

2. Ehorzleak tabututa

Beraz, basatiak, bere buruzagi eta errege sakratuak ukitzean, nolabait esan, "lehertu" egiten den indar izpiritual misteriotso batez beteta daudela jotzen duenez, gizartekide arriskutsuen sailean sartzen ditu: giza hiltzaileei, hilekoarekin dauden emakumeei eta beldurra eta ikara eragiten dioten beste pertsona batzuei bezalako loturak ezartzen dizkie. Adibidez, Polinesiako errege sakratuei eta apaizei ez zieten uzten janaria eskuez ukitzen eta, beraz, inork eman behar izaten zien jaten; eta ikusi berri dugunez, besteek ezin erabil zitzaizkion haien ontzi, jantzi eta bestelakoak, gaixotasun eta herio-zigorra jaso nahi ez bazuten. Bestalde, betebeharrak ezartzen dizkiete zenbait basatik neskei lehen hilekoa dutenean, emakumeei haurgitearen ondoren, hiltzaileei, ehorzleei eta hildakoekin harremanak izan dituzten pertsona guztiei. Adibidez, azkenengoetatik hasita, maorien artean gorpu bat hilundu, hilobian sartzen lagundu edo hildakoaren hezurrak ukitutako guztiei, eten egiten zitzaizkien beste gizakiekiko harremanak eta ia komunikazio oro. Ez zeukaten ezkein etxetan sartzerik, edo ezkein pertsona edo gauzarekin harremanetan jartzerik, haiek erabat deabruzko bihurtu gabe. Ez zeukaten eskuez janaria ukitzerik ere: hain beldurgarri tabututa edo zikinduta geratzen zitzaizkienez, esku haiek ez zuten ezertarako balio. Janaria lurrean jartzen zitzaion, eta bera eseri edo belaunikatu eta, eskuak kontu handiz bizkarrean zituela, ahal bezala irensten zuen. Batzuetan inork ematen zion jaten, besoa luzatuz, tabututako gizona ukitu gabe; baina jaten ematen ziona bera ere lotura astun askoren menpe zegoen, besteari ezartzen zitzaizkionak bezain larrien menpe ia-ia. Herri handi gehienetan beti izaten zen gizajo zarpail bat, behekoetan behekoena, bere jatekoa zaborretatik ateratzen zuena. Zarpailaz jantzia, burutik oinetara buztin gorriz eta marrazo-olio kirastunez lohiztatua, beti bakarrik eta isilik, agure zurbil zimela gehienetan, erdi eroa sarri, egun osoan eserita ikusiko zuten, mugitu gabe, herriko bide edo kale nagusitik aparte, bera inoiz partaide izango ez zuten zereginei begi ilunez so. Egunean bitan botako zioten jatena, eskuez baliatu gabe ahal bezala ahazten zezan; eta gauean, piltzar zikinetan bilduta, hostoz eta zaborrez egindako ohantzeren batean etzango zen; han, zikin, hotzak eta goseak, izpirituekiko ameskaiztotan, zorigaiztoko gaua igaroko zuen, zorigaiztoko gau bat gehiago, eta horrela beti, gaua joan eguna etorri. Halakoa zen hildakoekin begiramenezko eta adiskidantzazko azken egitekoak bete zituenarekin harremanetan jartzeko duintzat jotzen zen gizaki bakarra. Eta ehorzlea bere itxialdi tristea amaitu ondoren, berriz ere besteekin nahastera joaten zenean, kontu handiz apurtuko zituzten berak erabilitako plater guztiak, eta jantzi zituen arropa guztiak botako zituzten, errege eta buruzagi sakratuen ontziak eta jantziak antzeko arrazoiengatik suntsitzen eta botatzen ziren bezalaxe. Alde hauetatik, hainbestekoak dira basatiak jainkoengandik eta hildakoengandik datozen eragin izpiritualen artean, santutasunaren urrinaren eta ustelaren kiratsaren artean sumatzen dituen antzak.

Itxura denez, hildakoak ukitu dituzten pertsonen janaria eskuez ukitzea debekatzen dien araua erabatekoa izan da Polinesiar. Samoan, esaterako, "hildakoez arduratzen zirenek kontu handia izaten zuten janaria eskuetan ez erabiltzeko, eta egunetan eta egunetan beste batzuek ematen zieten jaten, gai ez diren haurrei bezala. Burusoiltasuna eta hortz-haginak galtzea ziren, hala jotzen zen, araua hausten zuenari bertako jainkoak igortzen zion zigorra. Tongan ere, "inork ezin dezake hildako buruzagia uki hamar hilabetez tabututa geratu gabe, buruzagiek ezik. Hauek hiru edo bost hilabetez bakarrik geratzen dira tabututa, hildako buruzagiaren graduaren arabera. Tooitongaren (jainkozko buruzagi nagusiaren) gorpua zen salbuespen bakarra: orduan buruzagi gorenena ere hamar hilabeterako tabutuko zen... Gizon batek, tabututa dagoen aldian, ez dauka bere eskuez jaterik, inork behar dio jaten; ez dauka haginatarako txotx bat erabiltzerik ere, inoren eskua gidatu besterik ezin dezake egin. Bera goseak badago eta inguruan jaten emateko inor ez badu, lauhankan jarri eta ahoaz hartuko ditu jakiak: eta arau hauetakoren bat hausten badu, puztu eta hil egingo da ezbairik gabe".

Britainiar Columbiako shuswap indiarren artean, dolua dakarten alargunek itxialdia egiten dute, eta debekatu egiten zaie beren burua edo gorputza ukitzea; inork ez ditzake erabil haiek erabiltzen dituzten ontziak. Izerdia ateratzeko etxe bat eraiki behar izaten dute erreka baten ondoan, gau osoan izerdia atera eta maiz bainatu, eta ondoren gorputza urki-erramuz igurtzi. Erramuak behin bakarrik erabil daitezke, eta beren egitekoa bete dutenean lurrean tinkaten dituzte etxolaren jiran. Ehiztariak ez zaizkie hurbiltzen dolugileei, zoritxarra dakartela eta. Hauen itzala inoren gainean ezarriko balute, inor hori gaixotu egingo litzateke berehala. Elorri-erramuak erabiltzen dituzte ohe eta buruko gisa, hildakoen izpirituak hurbil ez daitezen; eta elorri-erramuak botatzen dira ohearen inguruan ere. Azken neurri honek argi erakusten du zein arrisku izpiritualek uzten dituen pertsona hauek gizarte arruntetik kanpo: haien inguruan omen dabilen izpirituaren beldurrak, beste ezerk ez. Britainiar Ginea Berriko Mekeo eskualdean, gizon batek, alarguntzean, herritar gisa dituen eskubide guztiak galtzen ditu, gizartetik at dagoen paria bihurtzen da, beldurgarri eta izugarri den zerbait, eta denek saihesten dute. Ez dauka baratza zaintzerik, ez jendaurrean agertzerik, ez herrian zehar batetik bestera joaterik, ez bide eta zidorretan barrena ibiltzerik. Piztia baten gisa, belar garaien eta zuhaixken artean gorde behar du; eta inor datorrela ikusi edo entzunez gero, batez ere inor hori emakumea bada, zuhaitz baten edo sasiarte baten atzean ezkutatu behar du. Arrantzan edo ehizan egin nahi badu, bakarrik eta gauez ibili beharko du. Inorekin kontsulta egin nahi badu, are misiolariarekin, ezkutuan eta gauez egin beharko du; ahotsa galdu duela dirudi, ahapeka hitz egiten du. Arrantzale edo ehiztari-talderen batekin bat egingo balu, zoritxarra ekarriko lieke; emazte hilaren izpirituak ikaratu eta urrundu egingo luke arrantza edo ehiza. Noraezean ibiltzen da, tomahawk batez armatuta beti, bere burua oihaneko basurdeetatik ezezik, emazte hilaren izpiritu beldurgarriagandik ere defendatzeko, hark ahal badu azpijokoa egingo baitio. Izan ere, hildakoen arima guztiak gaiztoak dira, eta bizidunei kalte egitea dute atsegin bakarra.

3. Hilekoa izatean edo erditzean tabututako emakumeak

Oro har, esan genezake zenbait pertsonaren ontziak, jantziak eta abar erabiltzeko debekuak, eta arau bat hausteari ustez darraizkion ondorioak berberak direla, haien jabeak sakratuak izan zein, nolabait esan, zikinduta edo orbanduta egon. Buruzagi sakratuak ukitu dituen jantziek jantziok erabiltzen dituztenak hiltzen dituzten bezala, hilekoarekin dagoen emakumeak ukitzen dituen gauzek ere berdin egiten dute. Australiako beltz batek, emazteak hilekoarekin zegoelarik bere estalkiaren gainean lo egin zuela jakinda, hil egin zuen eta bera ere hil egin zen beldurrez, hamabost egunen buruan. Horregatik, Australiako emakumeei garai horretan debekatu egiten zaie, heriotza-zigorpean, gizonek erabiltzen dituzten guztiak ukitzea, edota gizonak ibili ohi

diren bidetik ibiltzea. Erditzean ere giltzapean jartzen dituzte, eta itxialdi horretan erabiltzen dituzten ontzi guztiak erre egiten dira. Ugandan, emakume batek haurgintzaz edo hilekoaz kutsatuta dagoenean, ukitzen dituen ontziak apurtu egin behar izaten dira; haren ukituz kutsatutako ezpatak eta ezkutuak ez dira desegiten, garbitzen baizik. "Dene guztiek eta beste amerikar tribu gehienek apenas beste ezeri izango zioten beldur handiagoa, hilekoarekin zegoen emakumeari baino. Neska gazteari horren arrastoak agertzen zitzaizkionean, emakumeenetik ezik beste konpainia orotatik aparte uzten zuten, eta bere kabuz bizi behar izaten zuen etxola txiki batean, herritarren edo gizonezko ibiltarien saldoaren bistatik kanpo. Egoera izugarri horretan zegoen bitartean, gizonei zegokien oro ukitzetik gorde behar zuen, edo orein-hondarrak nahiz beste animaliairen batenak ukitzetik, hartara hura kutsa ez zezan eta hala mesprezatutako ehizaren haserreagatik ehiztariei huts eginaraz ez ziezaien. Arrain lehorra izaten zuen jateko, eta tutu batetik zurgatutako ur hotza izaten zuen edari bakarra. Gainera, hura ikuste hutsa gizartearentzat arriskutsua zenez, larruzko kapelu berezi batek, burutik bularrerraino firfilak erortzen zitzaizkiola, ezkutatzen zuen jendearen bistatik, baita bere onera etorri ondoren ere aldi batez". Costa Ricako bribri indiarrek zikintzat daukate hilekoa duen emakumea. Jateko erabil ditzakeen plater bakarrak banana-hostoak dira; horiek erabili eta gero, leku apartaturen batean botatzen ditu; behi batek aurkitu eta jango balitu, aberea ahuldu eta hil egingo litzateke. Eta ontzi berezi batetik edaten du antzeko arrazoi batengatik; inork edalontzi hartatik edango balu, seguruenik hil egingo omen litzateke.

Herri askotan, antzeko loturak eta, itxura denez, antzeko arrazoiengatik ezartzen zaizkie emakumeei haurgintzaren ondoren; aldi horietan emakumeak arriskutsuak direla jotzen da, uki lezaten pertsona edo gauza oro kutsatuko luketela; horregatik, koarentenan jartzen dituzte, harik eta, osasunez eta indarrez bizkortuta, ustezko arriskua iragan arte. Tahitin, adibidez, emakumeak, haurra egin ondoren, hamabost egunez edo hiru astez ixten zituzten lur sakratuan eraikitako etxola batean; itxialdi horretan ez zeukaten hornizioak ukitzerik, eta inork eman behar izaten zien jaten. Gainera, beste norbaitek haurra aldi horretan ukitzen bazuen, amaren lotura berdinekin geratzen zen garbiketaren zeremonia burutu arte. Era berean, Alaskatik gertu dagoen Kodiak irlan, erditzeko dagoen emakumea zumezko etxola kaskar batera erretiratzen da, eta han egon behar izaten du hogeit egunez haurra jaio ondoren, dena dela urte-sasoia; inork ez du ukitzen, hain daukate zikintzat, eta janaria ziri batez inguratzen diote. Bribri indiarrek askoz arriskutsuagotzat daukate haurgintzaren ondorengo kutsadura hilekoarena baino. Emakumeak garaia heldu zaiola sentitzen duenean, senarrari jakinarazten dio, eta honek etxola bat egiten dio bizkor leku bakarti batean. Han bizi behar izaten du emakumeak, inorekin hitz egin gabe, amarekin edo beste emakumeren batekin ezik. Erditu ondoren, osaginak araztu egiten du hatsa botaz eta abereren bat, edozein, haren gainean etzanaraziz. Zeremonia honek, hala ere, loitasuna gutxitu besterik ez dio egiten, hilekoarekin dagoen emakume baten pareko egoeraraino gutxitu; eta hilabete oso batez kideengandik aparte bizi behar izaten du, hilekoarekin dagoenetako arau berberak gordez jan-edanei buruz. Haurra galtzen badu, are okerragoa da kutsadura, are hilkorragoa. Halakoetan, ez dauka inolako bizidunengana hurbiltzerik: hark erabilitako gauzen ukitu hutsa ezin arriskutsuagoa izaten da; janaria ziri luze baten muturrean eskuratzen zaio. Hiru bat astez irauten du horrela, eta ondoren etxera daiteke, ohiko itxialdi arruntari dagozkion loturak besterik ez dituela.

Zenbait tribu bantuk are ideia exajeratuagoak dituzte haurra galdu duen eta ezkutatutako emakumeak hedatutako kutsadura larriaz. Tribu horien ikertzaile eskarmentu handiko batek dioskunez, haurgintzako odolak "hilekoaren odol-jarioa baino askoz kutsadura arriskutsuagoa du hegoafrikarren begietara. Senarrak etxolatik kanpo egon

behar izaten du zortzi egunez, batez ere jarioak kutsatuko duen beldurrez. Lehen hiru hilabeteetan ez da ausartzen haurra besoetan hartzen. Baina izugarriena ilaurtzearen ondoko jarioa da, batez ere ezkutaturiko ilaurtzearena denean. Halakoetan, gizona mehatxatu edo hiltzeaz gainera, lurralde osoak sufritzen du, baita zeruak berak ere. Ideia-elkarketa bitxi baten ondorioz, egintza fisiologiko batek arazo kosmikoak eragiten ditu!". Ilaurtzeak lurralde osoan izan dezakeen ondorio hondagarriaren adibide gisa, Bapedi tribuko sendagin eta eurigile baten hitzak aldatuko ditut hona: "Emakumeak haurra galdu duenean, odola isurtzen utzi eta haurra ezkutatu duenean, aski da hori haize kiskalgarriak jo eta herrialdea erre eta zarta dezan. Ez du euririk egiten, herrialdea behar bezala ez dagoelako. Euria odola dagoen lekura hurbiltzean, ez da ausartuko hurbilagotzera. Beldurrez, aldenduta geratuko da. Emakume horrek huts handia egin du. Buruzagiaren herrialdea hondatu du, artean gizakia eratzeko nahikoa gatzatu gabe zegoen odola ezkutatu duelako. Odol hori tabu da. Hobe bide gainera inoiz isuri ez balu! Buruzagiak gizonak bilduko ditu eta hau esango die: "gauzak ondo al daude zuen herrixketan?". Norbaitek erantzungo du: "Halako edo halako emakume haurdun zegoen eta oraindik ez diogu egin behar zuen haurra ikusi". Ondoren emakumea atxilotu egiten dute. 'Erakutsi non ezkutatu duzun' esaten diote. Joan eta leku hartan zuloa egiten dute, eta ontzi berezi batean bi sustrai-motaz egindako salda prestatu ondoren, zipriztindu egiten dute zuloa. Hilobi horretako lur-pixka bat hartu eta ibaira botatzen dute, eta gero ibaitik ura hartu eta odola isuritako lekua zipriztintzen dute. Emakumeak egunero garbitu behar izaten du bere burua sendagai horrekin. Ondoren, herrialdea berriro hezetuko da (euriari esker). Gainera, guk (sendaginok) herrialdeko emakumeak biltzen ditugu; esaten diegu egiteko bola bat odola daukan lurraz. Goiz batez ekartzen digute. Herrialde osoa zipriztintzeko sendagaia prestatu nahi badugu, lur hori hauts bihurtzen dugu; bost egunen buruan mutikoak eta neskatoak bidaltzen ditugu, oraindik emakumeen zerak ezagutzen ez dituzten eta gizonezkoekin harremanik izan ez duten neskatoak. Sendagaia idi-adarretara isuri eta haur horiei ematen dizkiegu, herrialdeko ibi eta sarbide guztietara joan daitezen. Neskato batek lurra atxurtzen du, besteek busti abar bat adarrean eta zuloa zipriztintzen dute, esanez: "Euria! Euria!". Hala kentzen dugu emakumeek gure bideetara ekarritako zorigaitza; euria berriro etorriko da. Araztu da herrialdea!"

4. Gerrariak tabututa

Gerrariak, nolabait esan, arrisku izpiritualeko giroan mugitzen direla egiten du basatiak, eta horrek hainbat sineskeria praktikatzera behartzen ditu; sineskeriok, bidezkoa denez, desberdin samarrak dira, izan, hezur-haragizko etsaien kontra hartzen dituen babesbide razionalen aldean. Sineskeria horien ondorio orokorra, garaipenaren aurretik eta ondotik, itxialdi edo koarentena izpiritualean jartzea da, lehen gizakiak bere giza jainkoak eta beste izaki arriskutsuak bere mesedetan ipintzen dituen egoera berdinean. Maoriak gerrara abiatzen zirenean, adibidez, sakratu edo tabu bihurtzen ziren gradurik gorenean, eta beraiek eta etxeko lagunek ohitura bitxi asko bete behar izaten zituzten, bizitza arrunteko tabu ugariez gainera. Aspaldiko borroka-garaietan ezagutu zituzten europarrek begirune gutxiz esan bezala, "lepahezurreraino tabututa" geratzen ziren; eta espedizioko buruari dagokionez, harengana hurbildu ere ezin zitekeen egin. Era beretsuan, israeldarrak gerrarako bidea hartzen zutenean, zeremoniazko garbitasun-arau batzuek lotzen zituzten, maoriek eta australiar jatorrikoek gerrara abiatzean gordetzen zituzten arauen berdin-berdinak. Erabiltzen zituzten ontziak sakratuak ziren, eta kontinentzia gorde eta beren buruak garbitu behar izaten zituzten. Garbitasun honen arrazoi jatorra, ohitura berdinak dituzten basatiek aitortzen dutenaren arabera, etsaiek beren hondarrak eskuratuko ote zituzten beldurra omen zen, hartara haiek desegiteko gai izango baitziren magia bidez. Iparramerikako zenbait tribu indiarretan, lehen gerraldia

egiten zuen gerrari gazteak zenbait ohitura gorde behar izaten zituen. Ohitura horietarik bi, indiar haiek neskei lehen hilekoan ezartzen zizkieten betebeharren berdin-berdinak ziren: jateko eta edateko erabiltzen zituzten ontziak ez zitzakeen beste inork uki, eta debekatuta zuten buruan edo beste gorputz-atalen batean hazka egitea; hazka egin gabe agoantatu ezin zuenak ziritxo batez baliatu beharra zeukan. Azken arau honek, pertsona tabutu bati bere eskuz jatea debekatzen dionak bezala, esku tabutuen ustezko santutasun edo lohitasunean, nolanahi deitu nahi diogula, du oinarri. Gainera, tribu indiar horien artean, gerrara abiatutako gizonek aurpegiak beren herrialderantz zituztela egin behar izaten zuten beti lo; jarrera deserosoena izanda ere, ez zeukaten aldatzerik. Ez zeukaten lurlean esertzerik, ez oinak bustitzerik, ez ohiko bidezidorretik ibiltzerik, ahal bazuten. Bidezidorretik ibiltzea beste erremediorik ez zutenean, zangoak hartarako zeuzkaten sendagai edo xarma jakin batzuez sendatuz egin behar zioten kontra horren ondorio txarrari. Ez zitzaion taldeko inori uzten lurlean eseritako edo etzandako kide baten zangoak, eskuak edo gorputza zapaltzen; eta haren burusia, fusila, tomahawka edo beste edozer zapaltzea ere debekatuta zegoen. Arau hau oharkabea hausten bazen, zapaldutako gauzaren jabeak beste kidea jo beharra zeukan, eta zapaltzailearen eginbeharra hori era baketsuz eta jazarri gabe onartzea zen. Gerrariek zurezko edo urki-azalezko katilutxoak erabiltzen zituzten jateko. Katiluok bi aldeak bereizteko markak zituzten: etxetik abiatzean, indiarrek katiluaren alde batetik edaten zuten beti, eta itzultzean bestetik. Etxerakoan, herrira iristeko egunbeteko bidea geratzen zitzaientean, zuhaitzetatik esekitzen zituzten katiluak, edo larrean jaurtitzen zituzten, haien santutasuna edo lohitasuna, ondorio ezin kaltegarriagoz, lagunei kutsa ez zekien, ezbairik gabe. Hain zuzen, Mikado sakratuaren, haurra egin berri edo hilekoarekin zeuden emakumeen eta hildakoak ukitu eta zikindutako pertsonen ontziak eta jantziak antzeko arrazoiaztatik suntsitu edo baztertzeko ziren bezalaxe. Indiar apatxe batek, gerrara abiatzen den lehen lau aldietan, ez dauka buruari hazka egiterik eta ezpainez ura ukitzerik. Horregatik, ziri batez baliatzen da buruan hazka egiteko, eta kanabera zulatu batez edaten du. Zirria eta kanabera gerrariaren gerrikotik eta bata besteari uhal batez lotuta egoten dira. Ojibwa indiarrek ere gorde ohi zuten gerratean buruari hazka ez egiteko eta horretarako ziritxo bat erabiltzeko araua.

Creek indiarrez eta inguruko tribuez kontatu zaigunez, haiek "ez dira emakumeekin oheratuko gerran direnean; inolako harremanik ez dute izaten, ezta beren emazteekin ere, gerrara abiatu aurreko hiru egun eta gauean, eta berdin etxeratutakoan ere, beren buruak santutu behar dituztelako". Hegoafrikako Ba-pedi eta Ba-thonga tribuen artean, gerrariak emakumeengandik aparte egoteaz gainera, herrietan geratzen den jendea ere sexuzkoez gabetua geratzen da; pentsatzen dute beraiek irritsetara emango balira arantzak sortuko liratekeela gerrariak zeharkatutako lurlean, eta espedizioak ez lukeela egitekoa onik burutuko.

Basatiek emakumeekikoez gabetzea zergatik bihurtu ote duten gerra-garaiko arau, ez daukagu zehatz esaterik, baina suma genezake superstizio-beldurren batengatik zela: emakumeekiko harremanek, sinpatiazko magiaren printzipioen arabera, emeen ahuleziaz eta koldarkeriaz kutsatuko ote zituzten edo. Antzeratsu, zenbait basatik imajinatzen dute haurra egindako emakume batekiko harremanek makaldu egiten dituztela gerrariak, armak indargetzen dizkietela. Hain zuzen, Borneoko erdialdeko kayanak haxe esatera iristen dira, alegia ehundegia edo emakume-arropak ukitze hutsak hainbeste ahulduko lukeela gizona, non ez lukeen onik izango ehizan, arrantzan eta gerran. Horregatik, gerrari basatiak ez dio emakumeekin sexuzko harremanak izateari bakarrik ihes egiten; emakumeekiko harreman oro saihesten ahalegintzen da. Hala, Assamgo menditar tribuetan, gerrariak guduan edo ondoren emazteekin egotea debekatua izateaz gainera, ez daukate emakumeek atondutako janariak jaterik; ezta hitz

bakar bat beren emazteei egiterik ere. Behin, emakume bat, senarrari ez hitz egiteko araua oharkabea hautsi zuelako hura gerrako tabuaren menpe zegoelarik, gaixotu eta hil egin zen, nolako krimen izugarria egin zuen jakin zuenean.

5. Hiltzaileak tabututa

Baldin irakurlea oraindik zalantzan badago, aztertu berri ditugun jokabide-arauak superstizio-beldurretan oinarritzen diren ala arrazoizko zuhurtziak agintzen dituen, berehala uxatuko ditu zalantzok haxe jakiten duenean, alegia arau berdinak ezartzen zaizkiela, baina era zorrotzagoz, garaipena lortu ondoren ere etsai biziaren beldur guztiak amaitu direnean. Halakoetan, garaileen gainean ezarritako eginbehar nekosoetarako arrazoia indarrez eraildakoen izpiritu haserretuen beldurra dateke; sarri argi eta garbi adierazten da izpiritu mendekuzaleen beldurak eragina duela hiltzaileen jokabidean. Buruzagi sakratuen, ehorzleen, haurra egindako emakumeen, gerrara abiatutako gizonen eta abarren gainean ezarritako tabuen ondorio orokorra, pertsona tabutuok ohiko gizarte arruntetik at uztea da. Ondorio hori hainbat arauen bidez lortzen da: gizon eta emakume etxola bananduetan edo aire zabalean bizitzera, sexuzko harremanak baztertzera, bestek erabilitako ontziak ez erabiltzera eta abarretara behartzen dituzten arauen bidez. Eta gerrariak garaile datozenean ere, bereziki etsaien odola isurarazi badute, ondorio berdina eragiten da antzeko bideetatik. Timor irlan, gerrari-talde bat etsaiaren buruekin irabazle itzuli denean, erlijioak eta ohiturak debekatu egiten diote taldeburuari berehala etxeratzea. Etxola berezia prestatzen diote, eta han bizi behar izaten du bi hilabetez, bere gorputz-izpirituen garbikundea jasanez. Denboraldi horretan zehar ez dauka emazteagana joaterik, ez bere eskuz jaterik; beste norbaitek ahorratu behar izaten dio janaria. Betebehar hauek hildakoen izpirituen beldurak eraginak dira ezbairik gabe; izan ere, irla hartako buru-ehiztari ospetsu bat etxeratzean egin ziren zeremonien kontakizun batetik dakigunez, abagune hartan sakrifizioak eskaintzen dira lepoa moztu zaion gizonaren arima ematzeko; jendeak pentsatzen du garaileari zorigaitzen bat etorriko zaiola halako eskaintzak egiten ez badira. Gainera, zeremoniaren parte bat kantuz lagundutako dantza bat da, hildako gizonaren heriotza deitoratu eta haren barkamena eskatzeko. "Ez egon haserre", esaten dute, "zure burua hemen gurekin dagoelako; hain zorte onik izan ez bagenu, geure buruak egongo ziren orain zure herrian. Sakrifizioak eskaini dizkizugu zu ematzeko. Orain zure izpirituak atsedean hartu behar du, eta bakean utzi behar gaitu. Zergatik zinen gure etsai? Ez al zen hobe lagun izatea? Hala izatera ez zen zure odolik isuriko eta ez zizuten lepoa moztuko". Paluko jendeak, Celebes irlako erdialdean, lehenik etsaiei lepoa moztu eta buruak hartzen ditu gerran, eta gero hildakoen arimak ezitzen ditu tenpluan.

Ginea Berrian, Waginela ibaiaren bokaleko tribuetan, "inori bizia kendu dion gizona orbanduta dagoela jotzen da zeremonia jakin batzuk jasaten ez dituen artean: norbait erail ondoren, bere burua eta arma garbitu egiten ditu ahal bezain laster. Hori behar bezala egin eta gero, bere herrixkara abiatzen da eta sakrifizioen oholtzako enborren gainean esertzen da. Inor ez zaio hurbiltzen inolako berriren eske. Etxe bat prestatzen zaio, eta bi edo hiru mutikori ematen zaie haren zerbitzari izateko ardura. Banana erreak besterik ez ditzake jan, eta erdiko aldea bakarrik; bi muturrak bota egiten dira. Itxialdiko hirugarren egunean, lagunek festatxo bat prestatzen diote, eta zenbait gerripeko berri ere egiten dizkiete. Honi ivi poro deitzen zaio. Biharamunean gizonak bere apaingarri eta hiltzaile-bereizgarri onenak janzen ditu, eta erabat armatuta irteten da herrian zehar desfilatzen. Biharamunean ehiza antolatzen dute, eta ehizatuetatik kanguro bat aukeratzen da. Animalia zabaldu eta barea eta gibela bizkarrean igurtzitzen dizkiote gizonari. Gero hurbilen dagoen errekarra joaten da geldiro, eta hankak zabal-zabal jarrita, garbitu egiten da. Trebatu gabeko gerrari gazte guztiak haren hanka artetik pasatzen dira igerian, horrek ausardia eta indarra ematen dielakoan. Biharamunean,

goizean goiz, arrapaladan irteten da etxetik, erabat armatuta, eta ozenki oihukatzen du berak hildakoaren izena. Hildako gizonaren izpiritua erabat beldurtu duela eta erabat lasaitzen denean, atzera etxeratu egiten da. Zoruko oholak jotzea eta sua piztea ere izpiritua izutzeko moduak dira. Hurrengo egunean amaitzen da haren garbiketa. Orduan sar daiteke emaztearen etxera".

Windessin, nederlandar Ginea Berrian, buru-ehiztari talde batek arrakasta izan duenean, eta etxera gerturatzean, kurkuilu-maskorretan putz eginez iragartzen dute badatozela, eta irabazle datozela. Kanoak erramuz apaintzen dituzte. Bururen bat hartu duten gizonen aurpegiak ikatzez belzten dituzte. Etsai bat hainbat lagunuen artean hil badute, beren artean banatzen dute haren burua. Beti, goizean goiz etxeratzeko moduan neurtzen eta erutzen dute etorrera. Arraunean iristen dira herrixkara, zarata eta arrabotsa ateraz, eta emakumeak dantzan hasteko prest izaten dira etxeetako atalaurreetan. Kanoak room sram edo gizon gazteak bizi diren etxea pasatu arte egiten dute arraun; eta ondotik pasatzean, hiltzaileek hildako etsaiak hainbat gezi zorrotz edo banbu-makila jaurtitzen dituzte hormara edo teilatura. Oso lasai pasatzen dute eguna. Noizean behin danborra jo edo maskorrean putz egiten dute; beste batzuetan etxeetako hormak jotzen dituzte garrasika, hildakoen izpirituak urruntzeko. Ginea Berriko yabimek ere sinesten dute eraildako gizonaren izpiritua hiltzailearen atzetik ibiliko dela, kalte egiteko asmoz. Horregatik, garrasika eta danborra joz uxatzen dute. Fijitarrek gizonen bat bizirik lurperatzen zutenean, sarri egiten baitzuten hori, arratsean zaratots handia ateratzen zuten banbu-makilaz, turuta-maskorrez eta abarrez, haren izpiritua beldurtu eta urruntzeko, bere etxera itzultzen ahalegin ez zedin. Eta etxea batere erakargarri izan ez zekion, soildu eta hustu, eta beren ustez higuingarrienak ziren gauzez janzten zuten. Preso hartutakoren bat torturapean hiltzen zuten eguneko arratsaldean, amerikar indiarrek herrixkan zehar lasterka ibiltzeari ekiten zioten, garrasi latzak eginez, makilaz altzariak, etxoletako hormak eta teilatuak kolpatuz, biktimaren izpiritu haserretua han egoitza hartu eta bere gorputzak jasandako tormentuengatik mendeka ez zedin. "Behin", dio bidaiari batek, "gauzez ottawatarren herrixka batera hurbiltzean, nahasmendu handian aurkitu nituen bertako guztiak. Oso lanpetuta zeuden zaratots eta burrunba handiena ateratzen. Zergatik zen galdetutakoan, jakin nuen ottawatarrek eta kickapoutarrek borrokaldia izan zutela berriki, eta zaratots haren guztiaren xedea borrokalaria zenduen izpirituei herrixkan sartzen ez uztea zela".

Basutoen artean "garbiketa berezia egiten da gudutik itzultitakoan. Behar-beharrezkoa da gerrariak isuri duten odola lehenbailehen garbitzea, biktimen itzalek etengabe jazarriko diete bestela, eta ameskaiztoetan azalduko zaizkie. Erabat armatuta, prozesioan joaten dira erreka hurbilenera. Uretara sartzen diren unean, azti batek, gorago jarrita, gai garbitzaile batzuk botatzen ditu korrontera. Baina hori ez da nahitaezkoa. Txabalina eta gerra-aizkorek ere garbiketa-prozesu bera jasaten dute". Afrikako ekialdeko bageshuen artean, inor hil duen gizonak ez dauka egun horretan etxeratzetik, baina gaua herriko lagun baten etxean eman dezake. Ardia hiltzen du eta aberearen urdailekoiez igurtzitzen ditu paparra, eskuineko besoa eta burua. Bere haurrak eramaten dizkiote eta berdin igurtzitzen ditu. Gero sarrerako atearen zangoak igurtzitzen ditu erraiez, eta azkenez etxeko teilatu gainera botatzen du geratzen zaion urdail-hondarra. Egun oso batez ez dauka jana eskuez ukitzerik, bi ziriz hartuta ahoratzen du. Emaztea ez da inolako loturaren menpe izaten; senarrak hildako gizona ehortzi ere egin dezake, hala nahi izanez gero. Angonien artean, Zanbezi ibaiaren iparraldean, etsaiak hil dituzten gerrariak errautsez igurtzitzen dituzte gorputzak eta aurpegiak, aldean zintzilik eramaten dituzte biktimen jantziak, eta zuhaitz-azalez egindako sokak lotzen dituzte lepoan, soka-muturrak sorbalda edo papar gainera erortzen zaizkiela. Itzuli ondoko hiru egunetan ibiltzen dira horrela, eta ondorengo eguna urratzean, jaiki eta herrixkan zehar

ibiltzen dira korrika, oihu lazgarriak jaurtiz hildakoen izpirituak uxatzeko; izan ere, etxeetatik urrunduko ez balituzte, gaixotasuna eta zorigaitza ekarriko liekete bertan bizi direnei.

Kontakizun hauetako batzuetan ez da aipatzen derrigorrezko itxialdirik, zeremoniazko garbiketaren ondoren bederen, baina Hegoafrikako zenbait tribuk emazteagandik eta sendiagandik hamar egunez aparte egoteko eskatzen diote gerran etsai bulartsuren bat hil duenari, errekan gorputza garbitu ondoren. Gainera, tribuko sendagileak sendagaia ematen dio janariarekin batera murtxika dezan. Afrikako ekialdeko nandi batek beste tribu bateko norbait hil duenean, gorritz margotzen ditu gorputzaren, lantzaren eta ezpataren alde bat, eta beste aldeaz zuriz. Hilketaren ondorengo lau egunetan kutsatuta dagoela egiten dute denek, eta ez dauka etxeratzetik. Estalpetxoak eraiki behar izaten du ibaiaren ondoan, eta bertan bizi; ez dauka emaztearekin edo maitearekin elkartzetik, eta ezin du morokila, idikia eta ahunkia besterik jan. Laugarren egunaren hondarrean segelet zuhaitzaren azalez egindako purga gogor batez eta odolarekin nahastutako ahuntz-esnea edanez araztu behar du bere burua. Kavirondoko tribu bantuen artean, gizonen batek gerran etsaia hil duenean, buruko ilea erabat mozten du etxerako bidean, eta lagunek gehienetan ahuntz gorotzez egindako sendagai bat igurtzitzen diote gorputzean, hildako gizonaren izpirituak asalda ez dezan. Ohitura berbera dute arrazoi berberetatik Afrikako ekialdeko wageiatarrek. Kavirondoko ja-luoen artean, berriz, zerbait desberdinxea da ohitura: borrokatik itzuli ondoko hirugarren egunean gerrariak burua soiltsen du; baina herrixkara sartu aurretik hegazti bizi bat burua gora duela jarri behar du lepotik zintzilik; ondoren, hegaztiari lepoa mozten zaio eta burua lagatzen da gizonaren lepotik zintzilik. Itzuli eta berehala, jaia ospatzen da hildako gizonaren omenez, haren izpirituak hiltzailea asalda ez dezan. Palaos irlan, gizonak gerra-espediziotik norbaiti bizia kenduta itzultzen direnean, herriko etxe zabalean itxita uzten dituzte lehen aldiz borrokatu diren gerrari gazteak eta hildakoa ukitu duten guztiak, tabututa geratzen direlarik. Ez daukate eraikinetik irteterik, ez bainatzerik, ez emakumerik ukitzerik, ez arraina jaterik; haien janari guztia kokoak eta siropea izaten dira. Xarmatutako hostoz igurtzitzen dituzte beren gorputzak eta xarmatutako betela mastekatzen dute. Hiru egunen ondoren, bainatzera joaten dira denak batera, gizona hil zuten lekutik ahalik gertuen.

Iparramerikako natxez indiarretan, etsaiei adatsa lehen aldiz mozten zieten gerrari gazteak zenbait barau-arau gordetzera behartuta zeuden sei hilabetez. Ezin zuten emazteekin lo egin ez okelarik jan; arraina eta morokila izaten zituzten janari bakarra. Arau hauek hautsiz gero, sinetsita egoten ziren hil zuten gizonaren arimak heriotza ekarriko ziela magia bidez, ez zutela etsaiaren gainean beste arrakastarik izango, eta zauririk txikiena hilgarri gertatuko zitzaizela. Choktaw batek etsaia hil eta adatsa kentzen zionean, hilabeteko dolua ekartzen zuen, eta denboraldi horretan ez zeukan ilea orrazterik; buruan hazkura izanez gero ez zeukan hazka egiterik, gerrikoari lotuta zeraman ziritxo batez baliatu behar zuen. Hildako etsaiengatikoa dolu hau gauza arrunta zen Iparramerikako indiarren artean.

Ikusten dugunez, etsai bati borrokan bizia kendu dioten gerrariei eten egiten dizkiete besteekiko harreman libreak, eta bereziki emazteekikoak, eta arazte-errito jakin batzuk jasan behar izaten dituzte gizartean onartuak izan aurretik. Alabaina, bete beharreko itxialdiaren eta arazte-erritoen helburua hildako gizonaren izpiritu haserretua urruntzea, beldurtzea edo gozatzea besterik ez bada -eta ondorio horretara etorri gara-, uste izatekoa da eskuak tribukide baten odoletan busti dituzten hiltzaileen garbiketak ere esanahi horixe zuela hasieran. Garbiketak, barau egiteak eta abarrek birsortze moral edo izpiritala sinbolizatzen zutelako ideia geroagoko interpretazioa da, ohitura sortu zen garaiko pentsaera gainditu zuten gizakiek ohitura zaharrari erantsitako interpretazioa,

hain zuzen. Aieru hau egiaztatu egingo genuke, baldin eta erakutsiko bagenu basatiek betebeharrak batzuk ezarri dizkietela tribukide baten hiltzaileari, biktimaren izpiritua azalduko ote zaion beldurrez. Iparramerikako omaha indiarrek ematen digute horretarako bidea. Indiar hauen artean, hildako gizon baten senideek hiltzailea hiltzeko eskubidea zuten, baina batzuetan uko egiten zioten eskubideari opariaren truke. Hiltzaileari bizia barkatzen zitzaionean, zenbait arau larri gorde behar izaten zituen bi eta lau urte bitarteko denboraldian. Oinutsik ibili beharra zuen, eta ez zeukan janari berorik jaterik, ez ahotsa altxatzerik, ez ingurura begiratzerik. Jantzi-jantzi eginda ibiltzera behartuta zegoen, arropak lepoan ondo lotuta eguraldi beroa zenean ere; ez zeukan arropa lasai eta zintzilik uzterik. Ez zeukan eskuak mugitzerik, gorputzari itsatsita eduki behar zituen. Ez zeukan orrazterik, eta haizeak ezin zizkion ileak banatu. Tribua ehizara abiatzen zenean, etxola beste guztietatik kilometro-erdira eraikitzen behartzen zuten, "biktimaren izpirituak haize handia atera eta kaltea egin ez zezan". Senideetako bati bakarrik uzten zioten harekin etxolan egoten. Inork ez zuen harekin jan nahi izaten, izan ere, "baldin Wakandak gorrotatzen duen batekin jaten badugu, Wakandak geu gorrotatuko gaitu". Batzuetan noraezean ibiltzen zen gauez, negarrez eta egindako akatsaren damua azalduz. Isolamendu luze haren buruan, hildako gizonaren senideek haren negarrak entzun eta hauxe esango zioten: "Aski da. Zoaz eta ibil zaitez jendartean. Jantz itzazu mokasinak eta arropa ona". Kasu honetan hiltzailea ehiztariengandik aparte edukitzeko eman den arrazoiak ematen digu hari ezartzen zitzaizkion beste betebeharrak guztien giltza: xarmatuta zegoen eta, beraz, arriskutsua zen. Antzinako grekoek uste zuten hil berri zen gizonaren arima haserre egoten zela hiltzailearekin, eta hau asaldatuta ibiltzen zela; horregatik, guztiz beharrezkoa zitzaion, are norbait nahi gabe hil zuenari ere, urtebeterako bere lurraldetik aldegitzea, hildako gizonaren sumina baretu arte; eta hiltzaileak ez zeukan sakrifizioa eskaini arte eta garbitze-zeremoniak egin arte itzultzerik. Biktima atzerritarra izatea suertatzen bazen, hiltzaileak hildakoaren herritik eta bere herritik aldegin behar zuen. Orestes ama-hiltzailearen kontu zaharrak oso ondo agertzen du grekoek izpiritu haserreturen batek jazarritakoei zieten beldurra: batetik bestera ibili behar izan zuen, hildako amaren Furiak atzetik zituela; eta, garbitu bitartean, inork ez zuen harekin eseri eta jan edo etxean hartu nahi izan.

6. Ehiztari eta arrantzaleak tabututa

Gizarte basatian ehiztariak eta arrantzaleak barau-arauak gorde behar izaten dituzte sarri, baita gerrariarentzat eta hiltzailearentzat derrigorrezko diren arazte-zeremonien antzekoak jasan ere; eta nahiz kasu guztietan ezin dugun igarri arau eta zeremonia horiek zehazki zein helburu duten, seguru samar onar dezakegu ezen, etsaiei bizia kendu nahi dien edo jadanik kendu dien gerrariaren itxialdi eta arazketarako arrazoi nagusia izpirituei dien beldurra den bezala, halaxe antzeko ohiturak betetzen dituen ehiztariari edo arrantzaleari ere, akabatu dituen edo akabatu nahi dituen piztia, hegazti edo arrainen izpirituen beldurrak eragiten diola. Izan ere, basatiak uste du abereek berea bezalako arimak eta adimenak dituztela eta, beraz, antzeko begiramenez tratatzen ditu. Eraildako gizonen izpirituak ematen saiatzen den bezala saiatzen da eztatzen hil dituen abereen izpirituak ere. Geroago deskribatuko ditugu eztatze zeremonia hauek; hemen, lehenengo, ehiztariak eta arrantzaleak ehiza eta arrantza-sasoiak baino lehen edo sasoiaren bertan gordetzen dituzten tabuez aritu behar dugu; eta bigarren, gizon horiek ehizaldi on batean bildutakoekin itzultzean egin behar izaten dituzten arazte-zeremoniez.

Basatiak, gutxi edo gehiago, abere guztien arimak errespetatzen baditu ere, begiramen bereziz tratatzen ditu bereziki baliagarri zaizkionak edo tamainaz, indarrez edo basatasunez izugarri direnak. Beraz, piztia baliagarri edo arriskutsu horiek ehizatzea eta hiltzea, hain baliagarri edo izugarri ez diren izakiak akabatzea baino arau eta zeremonia

landuagoetara lotuta dago. Hala, Nootka Soundeko indiarrek astebeteko baraua eginez prestatzen ziren balearen arrantzarako, eta denboraldi horretan oso gutxi jaten zuten, egunean zenbait aldiz bainatzen ziren, kantatu egiten zuten, eta gorputzak, ezpainak eta aurpegiak maskorrez eta abartxo igurtzitzen zituzten, sasiartean ibilitako itxura hartu arte. Era berean, denboraldi horretan emazteekin harremanik ez izatera behartuta zeuden, azken baldintza hau nahitaezko jotzen zutelarik arrakasta izateko. Balea harrapatu ezin izan zuen buruzagi batek bere gizonen kastitate-hausteari egotzi omen zion hutsegitea. Azpimarratu beharrekoa da balearen arrantzarako prestatzeko agindutako jokabidea, hain juxtu, tribu hartantxe gerrara joan behar zuten gizonei eskatzen zitzairen berbera zela. Horrelako arauak gordetzen dituzte edo zituzten Madagaskarko baleazaleek ere. Itsasoratu aurreko zortzi egunetan, balenontzikoko eskifaiak barau egiten zuen, emakumerik eta edaririk probatu gabe, eta beren hutsegite gordeenak aitortzen zizkieten elkarri; eta gizon batek bekatu larria egin zuela jakinez gero, debekatu egiten zitzaion espedizioan parte hartzea. Mabuian irlan, kontinentzia ezartzen zitzaion jendeari, bai dugong-en ehizara joan aurretik eta bai dortokak ar-emeka biltzen zirenean. Dortokaren sasoia urri-azaroetan izaten da; eta denboraldi horretan pertsona ezkongabeek sexuzko harremanak izaten bazituzten, ustea zen kanoa ur gainean zegoen dortokarengana hurbiltzean, arra bereizi egingo zela emeagandik eta biak norabide desberdinetan murgilduko zirela. Ginea Berriko Mowaten ere, gizonek ez dute emakumeekin harremanik dortokak ernaltzen direnean, nahiz eta beste garai batean ohiturak oso laxoak izan. Uap irlan, Karolina irlako batean, arrantzale bakoitzak taburik estuenaren menpe jarduten du lanean arrantzaldi osoan zehar, sei edo zortzi astez alegia. Lehorrean den guztietan, gizonezkoen etxean eman behar izaten du denbora osoa, eta inolaz ere ez dauka bere etxean sartzerik, ezta emazteari eta beste emakumeei aurpegira begiratzerik ere. Begiradaxoa egingo balie, ustea da arrain hegalariek gauez begiak aterako lizkioketela. Baldin eta emazteak, amak edo alabak opariren bat ekartzen badio edo harekin hitz egin nahi badu, ur-ertzean jarri beharko du, gizonezkoen etxeari bizkarra emanda. Orduan arrantzalea irten ahal izango da hitz egitera, edo emakumeari bizkarra emanda hartu ahal izango du hark ekarri diona. Horren ondoren berehala itzuli behar du bere erabateko itxialdira. Arrantzaleek ez daukate arratsaldean gizonezkoen etxeko beste kideekin dantzan edo kantuan aritzerik ere; gelditu eta isilik egon behar dute. Mirzapuren, zetarraren hazia etxeratzen dutenean, kol edo bhuiliar-ak behiaren gorotz santuz ondo igurtzitako leku batean ipintzen du, zorte ona ekartzeko. Une horretatik aurrera jabeak kontu handia izan behar du zeremoniazko lohikeria oro saihesteko. Emaztearekin bizitzeari utzi behar dio; ezin du ohean lo egin, ez bizarra kendu, ez azkazalak moztu, ez bere burua olio igurtzi, ez gurinez atondutako janariak jan, ez gezurrik esan, ez okertzat daukan beste ezer egin. Zin egiten dio Singarmati Deviri, harrak behar bezala sortzen badira eskaintza egingo diola. Kapuluak ireki eta harrak agertzen direnean, etxeko emakumeak biltzen ditu eta haiek haur bat jaiotzen deneko kanta bat abesten dute, eta pintura gorria igurtzitzen zaie auzoko emakume ezkondu guztiei ileen artesian. Harrak ar-emeka jartzen direnean, festa egiten da ezkontzan bezala. Horrela, zetarrak gizakiak bezala tratatzen dira ahal den gehienetan. Horregatik, harrak inkubatzen ari direnean sexu-harremanak debekatzen dituen ohitura arraza askok duten arau baten hedapena besterik ez dateke, analogiazkoa: senarra ezin dela emaztearekin bizi hau haurdun dagoenean eta titialdian.

Nias irlan ehiztariek zuloak egiten dituzte batzuetan lurrean; abartxo, belarrez eta hostoz estaltzen dituzte, eta gero hara bideratzen dute ehiza. Zuloak egiten ari diren bitartean, hainbat tabu gorde behar izaten dituzte. Ez daukate tu egiterik, bestela ehizak zuloetatik atzera egingo luke nazkaz. Ez daukate barre egiterik, bestela zuloaren alboak erori egingo lirake. Ez daukate gatza jaterik ez zerrientzako janaria prestatzerik, eta

zuloan daudenean ez daukate hazka egiterik; hala egingo balute, lurra askatu eta dena erori egingo omen litzateke. Eta zuloa egin ondorengo gauean ez daukate emakumearekin harremanik izaterik, bestela lan guztia alferrikakoa izango da eta.

Ehizan eta arrantzan emaitza ona izateko baldintza gisa kastitate zorrotza gordetzeko ohitura hau oso arrunta da arraza hezigabeen artean; eta eman berri ditudan adibideen arabera, baliteke araua beti superstizio batean oinarritua izatea, eta ez ohitura haustek ehiztari edo arrantzaleari aldi baterako ekar diezaiokeen ahulaldia kontuan izatean. Oro har, ustea zera litzateke: sexu-harremanak izatearen eragin txarra ez dela hainbeste ahulgarri izatea, baizik eta, arrazoiaren batengatik, abereak iraintzea eta, ondorioz, ezin harrapatu izatea. Britainiar Columbiako carrier indiarra emazteagandik aldendu ohi zen hilabetez hartzentzako tranpak jarri aurretik, eta denboraldi horretan ez zezakeen emaztearen edalontzitik edan, urki-azalez egindako kopa berezi bat erabili behar zuen. Neurri horiek hautsiz gero, ehizak ihesari emango zion tranpa ondora erakarri eta gero. Baina lepahoriak harrapatu behar zituenen, baraualdia hamar egunera jaisten zen.

Oso irakasbide ona litzateke basatiak, superstizioa dela eta, bere grinei eutsi eta sexuzkorik gabe irauten duen kasu guztiak aztertzea, baina orain ez diot horri ekingo. Ohituraren adibide batzuk gehitu besterik ez dut egingo, ehiztariak eta arrantzaleak ehiza-arrantzak amaitu ondoren gordetzen dituzten arazte-zeremoniak deskribatzera pasatu aurretik. Laosko Sifoun ondoko gatzagetako langileek ez dute sexu-harremanik izan behar han lanean ari direnean; eta ez daukate buruak estaltzerik, ez eguzkiaren izpi kiskalgarrietatik eguzkitako baten azpian gordetzerik. Birmaniako katxinen artean, zotzetara aukeratutako bi emakume prestatzen dute garagardoa egiteko erabilitako hartzigarria. Prozesuak irauten duen hiru egunetan ez daukate ezer garrantzik jaterik eta ez daukate senarrekin ezkontzazko harremanik izaterik; bestela, garagardoa garraztu egingo omen litzateke. Masaïen artean, gizon batek eta emakume batek prestatzen dute ezti-ardoa; aparte dagoen etxola batean bizi izaten dira ardoa edateko prest dagoen arte. Baina denboraldi horretan zehar erabat debekatuta daukate elkarrekin sexuzko harremanik izatea; nahitaezkoztat jotzen da bi egunetan lanari ekin aurretik eta lanak irauten duen sei egunetan zehar kastu izatea. Masaïen ustez, bikoteak kastitatea hautsiko balu, ardoa edanezina izateaz gainera, ezti egiten duten erleak urrundu egingo lirateke. Era berean, pozoia egiten ari den gizonari ere bakarrik lo egiteko eskatzen diote, baita ia-ia paria bihurtzen duten beste tabu batzuk gordetzeko ere. Wandorobboen iritziz - masaïen eskualdean bizi den beste tribu bat da hau-, emakumea pozoia egiten ari den gizonaren ondoan egote hutsak indargetu egiten du pozoia, eta gauza bera gertatuko litzateke pozoigilea lan horretan ari bitartean emazteak adulterio egingo balu. Azken kasu honetan, bistan denez, ez dago tabuaren arrazoizko azalpena ematerik. Pozoiak bere bertutea galtzea nola izan liteke pozoigilearen emazteak bertutea galtzearen ondorio? Argi dago emaztearen adulterioak pozoian ustez duen eragina sinpatiazko magiaren kasua dela; haren jokabide gaiztoak sinpatiaz, urrunetik du eragina senarrarengan eta senarraren lanean. Horren arabera, ondorio hau atera genezake, pozoigileari ezarritako kontinentzi araua ere sinpatiazko magiaren kasua besterik ez dela, eta ez, irakurle zibilizatuak pentsa lezakeenez, neurri zuhurra hark emaztea oharkabean pozoï ez dezan.

Hegoafrikako Ba-pedi eta Ba-thonga tribuen artean, herri berriaren kokalekua aukeratu eta etxeak eraikitzen ari direnean, ezkondu guztiei debekatu egiten zaie ezkontzako harremanak izatea. Bikoteren batek arau hau hautsi duela jakingo balitz, bertan behera utziko litzateke eraikitze-lana, eta beste kokaleku bat aukeratuko litzateke herriarentzat. Pentsatzen dute kastitatea haustek hondatu egingo lukeela eraikitzen ari diren herria, buruzagia argaldu eta agian hil egingo litzatekeela, eta emakume errudunak ez lukeela beste haurrik izango. Kotxintxinako shamen artean, ibairen batean erregadiorako presa

egiten edo konpontzen dutenean, ohiko sakrifizioak eskaintzen dituen eta jainkoek lanean babes ditzatela erregutzen duen buruzagiak lastozko estalpe kaskar batean egon behar izaten du denbora osoan, lanean parte hartu gabe, eta kontinentziarik estuena gordez; jendeak uste baitu hark kastitatea hausteak presaren haustea ekarriko lukeela. Hemen, bistan da, ez dago buruzagiak lan hori burutu ahal dezan gorputz-indarrak mantentzeko xederik, berak eskurik mugitu ere ez baitu egiten.

Ehiztariak eta arrantzaleak ehiza-arrantzetara abiatu baino lehen eta hartan jardun bitartean gordetako tabu edo barauak sineskeriek eta batez ere hil asmo diren izakien arimek kalte egiteko edo izutzeko beldurak agindu badituzte -eta ikusi dugunez badira hori sinesteko arrazoiak-, pentsa genezake hilketa baten ondoren ezartzen diren betebeharrak gutxienez aurrekoak bezain estuak izango direla, orain harrapatzaileari eta bere lagunei biktimen arima haserretuen beldurra gaineratzen zaielarik. Aldiz, kasuan kasuko baraua -jan-edanena eta loarena barne- gizonak lanerako gai, osasuntsu eta indarrean edukitzeko balitz, bistan da barau edo tabu horiek lana egin ondoren ere (ehiza akabatu eta arrainak harrapatu ondoren ere gordetzeak), guztiz alferrikakoa, zentzugabea eta arrazoirik gabea izan behar duela. Baina orain erakutsiko dudanez, tabu horiek sarritan bere horretan edo are hestuago segitzen dute animalien heriotzaren ondoren ere, hots, ehiztariak edo arrantzaleak bere egitekoa bete duenean: poltsa ehizaz bete edo arraina lehorreratu duenean. Horregatik, horri buruzko teoria razionalak porrot egiten du erabat; superstizioaren hipotesia besterik ez zaigu geratzen.

Bering itsasarteko inuit edo eskimalen artean, "ehiztariak kontu handiz tratatu behar izaten ditu hainbat abereren gorpuak, itzalak haserre ez daitezen eta ehiztariari edo haren herriari zoritxarra edo are heriotza bera ekar ez diezaioten". Horregatik, balea zuria hiltzen parte hartutako edo saretik jasotzen lagundu besterik egin ez duen unalitar ehiztariari ez zaio uzten hurrengo lau egunetan inolako lanik egiten, hori baita balearen itzala edo izpiritua ustez gorputzarekin egoten den denboraldia. Aldi berean, herriko inork ez dezake erabil tresna zorrotz edo puntadunik, balearen itzala zaurituko ote duen beldurrez, inguruetan hegan ikustezin dabilela uste baita; eta ezin da zaratarik atera, izpiritua beldur edo min ez dadin. Balearen gorputza burdinazko aizkoraz ebaki dezana hil egingo da. Hain zuzen, debekatuta egoten da lau egun horietan herrian burdinazko tresna guztiak erabiltzea.

Eskimal horietxek jai handi bat ospatu ohi dute urtero abenduan, urte horretan zehar hil dituzten foka, balea, mortsa eta hartz zurien maskuriak herriko batzar-etxera ekartzen direnean. Hantxe geratzen dira zenbait egunez, eta bitartean ehiztariak ez dute inolako harremanik izaten emakumeekin; alde horretatik huts egingo balute, hildako abereen itzalak haserretu egingo omen lirake. Era beretsuan, Alaskako aleuten artean, balea xarmatutako arpoiaz zauritu zuen ehiztariak ez zuen berriro jaurtitzen; aldiz, berehala etxeratu eta besteengandik aldentzen zen hartarakoxe eraikitako etxola batean, eta han egoten zen hiru egunez, jan-edanik gabe, eta emakumerik ukitu edo ikusi gabe. Itxialdi horretan bafa egiten zuen noizean behin, zaurituta eta hilzorian zegoen balearen antzera, kolpatutako balea kostatik urrun ez zedin. Laugarren egunean itxialditik irten eta itsasoan bainatzen zen, ahots lakarrez garrasika eta eskuez ura joz. Gero, lagun bat hartuz, balea hondartuta ikustea espero zuen lekura joaten zen. Aberea hilda bazegoen, berehala ebakitzen zion zauritutako gorputz-atala. Hilda ez bazegoen, atzera etxeratu eta garbitzen segitzen zuen balea hil arte. Ehiztariak zauritutako balea imitatuz gero, aberea, homeopatiatzko magiari esker, lehenago hilko zela uste zen. Orobat, hartz polar eskergaren arimari irain egiten zaio berari dagozkion tabuak gordetzen ez badira. Arima hiru egunez geratzen da gorputzetik bereizitako lekutik hurbil, eta egun horietan eskimalek arreata handia izan behar dute tabuaren legeei estu-estu men egiteko. Izan ere,

sinesten dute hartz baten arimaren kontra bekatu egiten duenari bizkor etorriko zaiola zigorra, itsasoko abereen arimen kontra bekatu egiten duenari baino askoz bizkorrago.

Kayanek Borneoko pantera beldurgarri bati tiro egin diotenean, oso kezkatuta ibiltzen dira beren arimagatik, pentsatzen dutelako panteraren arima ia berena baino indartsuagoa dela. Beraz, zortzi aldiz jartzen dute oina piztia hilaren gorpu gainean, otoitz hau esanez: "Pantera, zure arima nire arimaren azpian". Etxera bidean, hegaztien odolez igurtzitzen dituzte beren buruak, zakurrak eta armak, batzuen eta besteen arimak lasaitzeko eta aldegin ez dezaten; izan ere, hegaztien okelaren oso zaleak izaki, beren arimek ere zaletasun bera dutela pentsatzen dute. Hurrengo zortzi egunetan gau eta egun bainatu behar izaten dute berriz ere ehizara abiatu aurretik. Hotentoteen artean, gizon batek lehoia, leopardo, elefantea edo errinozeroa hil duenean, heroi handitzat hartzen dute, baina etxean geratu behar izaten du hiru egunez ezertxo ere egin gabe. Denboraldi horretan emaztea ezin zaio hurbildu; hau ere janari urria hartzera behartuta geratzen da, eta osasuntsu irauteko doi behar duena besterik ez jatera. Era beretsuan, laponiarrek loria handitzat dute hartza hiltzea, piztien erregetzat baitaukate. Haatik, hilketan parte hartzen duten gizon guztiak kutsatuta daudela jotzen da, eta beren kabuz bizi behar izaten dute hiru egunez hartarakoxe egindako etxola edo egileor batean. Han, hartzaren gorputza zatikatu eta egosi egiten dute. Emakumeek ezin izaten dituzte urtebetean gidatu lerari tiraka gorpua ekarri duten oreinak; egia esan, kontakizun baten arabera, inork ezin ditu denboraldi horretan erabili. Gizonak itxialdirako etxolara sartu aurretik, hartza hiltzean jantzita zituzten arropak erantzten dituzte, eta emazteek hartz-azalaren zuku gorria tu egiten diete aurpegira. Gero etxolara sartzen dira, ohiko atetik ez baina atzealdeko sarbide batetik. Hartzaren okela egositakoan, zati bat bidaltzen zaie emakumeei bi gizonen bitartez; emakumeek ez baitaukate gizonengana hurbiltzerik okela egosten ari den bitartean. Okela emakumeei ematen dieten gizonak atzeritiki opariak ekarri dituzten arrotzena egiten dute; emakumeek jokoari segitzen diote eta zangoen jiran hari gorriak lotuko dizkietela agintzen diete. Hartzaren okela ezin zaie etxolako atetik pasatu emakumeei; aldiz, etxolaren gainestalkiaren barrena jasoz egindako zirritu batetik eman behar da. Hiru eguneko itxialdia amaitutakoan, gizonak aske geratzen dira emazteengana itzultzeko: bata bestearen atzetik korritzen dute suaren biran, ontziak esekitzeko kateari helduz. Hau arazketa-modu bat dela jotzen da. Etxolatik ohiko atetik irten eta emakumeekin biltzen dira. Baina taldeko buruak artean beste bi egunez egon behar izaten du emaztearekin oheratu gabe.

Orobat, kafreek beldur izugarria omen diote boa hertsatzaileari edo antzeko beste sugetzar eskerga bati; "eta zenbait sineskeriaren eraginez, beldur diote hura akabatzeari ere. Hura akabatzea tokatu zaion gizonak, dela bere buruaren defentsan, dela bestela, erreka batean etzan behar izaten zuen lehenago egunez, zenbait astez jarraian; eta haren herrixkan ez zegoen inolako piztiarik hiltzerik, harik eta eginkizun hura ondo bete arte. Sugearen gorputza hartu eta kontu handiz ehorzten zuten azienden esparruaren ondoan egindako zanga batean; hondakinak bake-bakean uzten zituzten han, buruzagiarenak bailiran. Penitentzialdia, hilengatiko dolua bezala, egun batzuetara laburtu da zorionez gaur egun". Madrasen bekatu handitzat daukate kobra hiltzea. Hori gertatzen denean, jendeak gehienetan erre egiten du sugearen gorpua, gizakien gorpuk erretzen diren bezalaxe. Hiltzaileak hiru egunez kutsatutzat jotzen du bere burua. Bigarren egunean esnea isurtzen da kobraren hondakinen gainera. Hirugarren egunean gizajo erruduna kutsaduratik libre geratzen da.

Azken kasuotan, hiltzeagatik damua erakusten zaion animalia sakratua da, hau da, errespetatu egin ohi zaio bizia, superstizioa dela eta. Baina hiltzaile sakrilegoaren tratamenduak hain antz handia du janaria izateagatik, beren ohiko eginkizunetan, animaliak hil dituzten ehiztari eta arrantzaleen tratamenduarekin, non esan daitekeen bi

ohitura-sorten oinarri diren ideiak funtsean berberak direla. Ideia horiek, zuzen banago, honako hauek dira: basatiak piztien arime, batez ere piztia balioso edo handien arime, dien begirunea, eta bestea haien izpiritu mendekuzaleei dien beldurra. Ikuspegi hau zuzena delako frogarik atera daiteke, bai, Annamgo arrantzaleek egiten dituzten zeremonietatik, balea baten gorpua itsasertzean hondartuta geratzen denean. Arrantzale-jende horrek, esan zaigunez, gurtu egiten du balea, berarengandik etekin handia jasotzen baitu. Alde hartan apenas dagoen herrixkarik balea baten hezur gutxi-asko benetakoak dituen pagodatxorik gabe. Balea hila itsasertzean hondartuta geratzen denean, jendeak handikiro ehorzten du. Lehenengo ikusi duen gizonak ehorzleen buru jotzen du, senide batengatik ehorzle-buru eta oinordeko gisa burutuko lituzkeen erritoak burutuz. Hileta-erritoetako buru izaten da hildakoaren senide hurbilena bailitzan. Urrinak erretzen dira, intsentsu-ziriak pizten, urre eta zilarrezko hostoak barreiatzen, suziriak jaurtitzen. Okela zatikatu eta olio atera ondoren, gorpua hondakinak hondartzan ehorzten dira. Gero, estalpe bat eraiki eta eskaintzak egiten dira bertan. Gehienetan, ehorzketaren ondorengo denboraldi batez, hildako balearen izpiritua herriko norbaitez jabetzen da eta haren ahotik adierazten du arra ala emea den.

XXI

Gauza tabutuak

1. Tabuaren esanahia

Lehen gizarteetan, erregeek, buruzagiek eta apaizek bete beharreko zeremoniazko garbitasun-arauak bat datoz alderdi askotan giza hiltzaileek, ehorzleek, emakume erdituek, lehen hilekoa izan duten neskek, ehiztariek, arrantzaleek eta abarrek gordetako arauekin. Guri pertsona-mota anitz horiek, izatez eta egoeraz, guztiz desberdinak direla iruditzen zaigu; batzuei santu deituko genieke, beste batzuei bekatari eta kutsatu. Baina basatiak ez du halako bereizketa moralik egiten haien artean; santutasunaren eta kutsaduraren ikusmoldeak oraindik ez dira banandu haren gogoan. Harentzat, pertsona guztiok dugu ezaugarri bikoitz hau: arriskutsuak gara eta arriskuan gaude, eta arrisku horri, guk besteei edo besteek geuri gaineratutakoari, izpiritual edo mamuzko eta, beraz, irudimenezko deituko genioke guk. Arriskua, ordea, bene-benetakoa da irudimenezkoa izan arren; irudimenak grabitateak bezain benetan eragiten dio gizakiari, eta azido prusikozko dosi batek bezain seguru hil dezake. Pertsona hauek beste guztiengandik apartatzea (arrisku izpiritual beldurgarri horrek atzeman ez ditzan eta haiengandik barreia ez dadin), horixe da bete behar dituzten tabuen helburua. Tabu horiek, nolabait esan, elektrizitate-isolatzaileen gisan jarduten dute, pertsona horiek duten indar izpiritualak minik hartu edo egin ez dezan kanpoko munduarekiko harremanetan.

Emandako printzipio orokor horien adibideei beste batzuk gehituko dizkiet orain. Lehenik, tabututako gauzen adibideak emango ditut, eta bigarren tabututako hitzak; izan ere, basatiaren iritzian, bai gauzak eta bai hitzak, pertsonak bezala, tabuaren bertute misterioitsuaz karga edo elektrifika daitezke, dela aldi baterako dela iraunkorki, eta beraz, denboraldi luzeago edo laburrago batez apartatu egin behar izaten dira bizitza arrunteko erabilera ezagunetik. Eta bereziki buruzagi, errege eta apaiz sakratuei dagozkien adibideak aukeratuko ditut, tabuak horma batek bezala hesitzen zituela bizi baitziren haiek. Tabututako gauzen adibideak kapitulu honetan emango dira, eta tabututako hitzenak hurrengoan.

2. Burdina tabututa

Lehenik, ikus dezagun nola, erregeen santutasun izugarria dela medio, haien pertsona sakratuak ukitzea debekatuta dagoen. Adibidez, legez kontrakoa zen espartar erregeari eskua eranstea: inork ez zeukan Tahitiko errege edo erreginareen gorputza ukitzerik; debekatuta dago Siamgo erregea ukitzea, herio-zigorpean; eta inork ez dezake inolako arrazoiengatik uki Kanboiako erregea, berak hartarako baimenik adierazi gabe. 1874ko

uztailean erregea erori egin zen bere gurditik eta konorterik gabe geratu zen lurrean etzanda, baina segizioa inor ez zen hura ukitzera ausartu; bertan zegoen europar batek eraman zuen errege zauritua jauregira. Lehenago, inork ez zezakeen uki Koreako erregea; eta bera menpekoren bat ukitzera makurtzen bazen, ukitutako lekua sakratu bihurtzen zen, eta halako ohorea jasotako pertsonak seinale bat eraman behar izaten zuen agerian (zeta gorrizko sokatxo izaten zen gehienetan) bere bizitza osoan. Batez ere, ezein burdinak ez zezakeen uki erregearen gorputza. 1800ean Tieng-tsong-tai-oang erregea bizkarreko tumore batez hil zen, inor ez baitzen lantzeta erabiltzera ausartu, seguruenera bizia salbatuko bazion ere. Errege batek izugarri sufritzen omen zuen ezpaineko zorne-zorro bat zela eta, harik eta haren sendagileak barregarri bati deitu zion arte: honen imintzioek barre-algaraka jarri zuten erregea, eta hala zorne-zorroa lehertu egin zitzaion. Erroma eta Sabinako apaizen bizarra ez zegoen burdinaz kentzerik, brontzeko labanez edo guraizez baino ezin zen kendu; eta burdinazko tresna bat ekartzen bazen Erromako anaia Arvalen zuhaizti sakratura, inskripzio bat harrian grabatzeko asmoz, arkume edo zerri baten ordain-sakrifizioa eskaini behar zen; sakrifizioa berriro egiten zen grabatzeko tresna zuhaiztitik ateratzen zenean. Hau ere arau orokorra zen, Greziako jainkotegetan ez zegoen burdinarik sartzerik. Kretan Menedemosi burdinarik erabili gabe eskaintzen zitzaizkion sakrifizioak, zeren eta, legendak zioenez, Menedemos hori burdinazko arma batek hil baitzuen Troiako gerran. Plateako arkonteak ez zeukan burdina ukitzerik; baina urtean behin, Plateako guduan eroritako gizonei egiten zitzaien omenaldian, espada bat eraman zezakeen zeren bat sakrifikatzen. Gaur egun ere, apaiz hotentoteak ez du erabiltzen burdinazko labanarik, kuartzoko puska zorrotz bat baizik, abereren bat sakrifikatzean edo mutil bat erdaintzean. Afrikako hegomendebaldeko owamboen artean, mutilak suharri zorrotz batez erdaintzea agintzen du azturak; eskura bat ere ez badute, burdinaz egin daiteke ebakuntza, baina ondoren burdina hori ehortzi egin behar da. Arizonako mokiak aspaldi utzi zioten harrizko labanak, aizkorak eta abar erabiltzeari, baina zeremonia erlijiosoetarako gorde egin dituzte. Pawni indiarrek ere, xede arruntetarako harrizko burudun geziak jaurtitzeari utzi ondoren, artean erabili egiten zituzten opagaiak hiltzeko, hala giza gatibuak nola bufalo eta oreinak. Judutarrek ez zuten burdinazko tresnarik erabili Jerusalemgo tenplua eraikitzeke edo aldareren bat egiteke. Erromako zurezko zubi zaharra (Pons Sublicius), sakratutzat baitzeukaten, burdinarik edo brontzerik erabili gabe egina zen, eta halaxe konpondu behar izaten zen. Legeak argi eta garbi esaten zuen Furfoko Jupiter Liberren tenplua burdinazko tresnaz konpon zitekeela. Zizikoko kontseiluko ganbara zurez egina zen, burdinazko iltzerik gabe, eta habeak erraz kendu eta ordezkatzeko moduan zeuden paratuta.

Burdinaren kontrako jarrera superstiziotsu hau gizartearen historiaren lehen garaitik datorke, burdina artean gauza berria zen garaitik. Berria izaki, susmoz eta nahigabez ikusten bide zuten askok. Izan ere, berritasun guztiak dira gai basatiaren beldurra eta izua sortzeko. "Superstizio bitxia da dusundarren hau" dio Borneon esploratzaile ibilitako batek, "gertatzen zaien guztia -ona nahiz txarra, zorte onekoa nahiz txarrekoa-, bere herrialdera iritsi den berritasunen bati egotzen diote. Adibidez, ni Kindramen bizitzeak ekarri omen du azkenaldian izan dugun eguraldi bero-bero hau". 1886-1887ko neguan, ingelesek Nikobar irletan egindako araketaren ondoren etorri ziren eurijasa handiak izpirituen haserreari egotzi zizkieten bertakoek, teodolitoek, nibekek eta beste tresna arrotz batzuek eragindako haserreari alegia, gogokoen zituzten agerleku askotan ipinita zeudela eta; eta askok eta askok proposatu zuten izpirituen haserre zerri bat sakrifikatuz ematzeari. Hamazazpigarren mendean hainbat uzta txar bata bestearen atzetik izateak matxinada lehertarazi zuen Estoniako nekazarien artean, eta gaitzaren sorrera ur-errota bati egotzi zioten, uraren etorria geldiarazi eta errekarri traba egiten ziola eta.

Polonian golde-nabarra lehen aldiz sartu ondoren uzta txarrak jarraian etorri zirenez, nekazariak burdinazko golde-hortzei egotzi zieten hori, eta haien orde zurezko zaharrak erabili zituzten. Gaur egun, Javako baduwi atzeratuek, batez ere lurra lantzetik bizi badira ere, ez dizute burdinazko tresnarik erabiliko beren soroetan.

Berrikuntzen aurrean gehienetan izan ohi den ezinikusia, erlijioaren alorrean beti sentitu ohi dena, aski da berez erregeek eta apaizek burdinari zioten eta berek jainkoei egozten zieten narda superstiziotsua esplikatzeke. Beharbada narda hori areagotu egingo zen leku batzuetan beste zenbait arrazoiengatik; hala nola Polonian, burdinazko golde-nabarrekiko konfidantzarik eza eragin zuten urtaro txarrengatik. Baina jainkoek eta beren ministroek burdina hala gutxieetsi arren, bada beste alderdi on bat ere. Metalari dioten bekaizgoak arma batez hornitzen ditu gizonak, izpirituen kontra erabil daitekeen arma batez, hartarako abagunea suertatuz gero: jainkoek burdinari dioten higuina hain da handia, non ez diren hurbiltzen metal nardagarri horrek babesten dituen pertsona eta gauzetara; beraz, burdina xarma gisa erabil daiteke izpirituak eta beste izpiritu arriskutsuak urruntzeko. Eta erabili ere sarri erabiltzen da horretarako. Adibidez, Eskoziako Highlandsen irela- arrazakoen kontrako babesgarri handia da burdina, eta are hobe altzairua. Metala edozein formatan: ezpata, labana, eskopeta-kanoi... zer ez, guztiz ahaltsua da horretarako. Sorgindutako etxeren batera sartzean, beti gogoratu behar da atean altzairuzko zati bat jostea, hala nola labana, orratza edo amua; hartara, ireluek ezin itxiko dute atea norbera irten arte. Era berean, orein bat akabatu eta gauean etxera eramaten ari bazara, sartu labana bat ehizari badaezpada, horrek ez baitie uzten iratxoei haren gainean jartzen. Labana bat edo iltze bat poltsikoan edukitzea aski da iratxoek gauez altxa ez zaitzaten. Oheburuan jarritako iltzeek iratxoetatik babesten dituzte haurgintzan ari diren emakumeak eta haurrak; baina segurtasun osoa izateko, hobe da plantxa ohe azpian eta igitaia leihoan ipintzea. Zezenen bat haitz baten gainera erori eta akabatu bada, iltze bat sartu behar zaio haragia iratxoetatik gordeta gera dadin. Musukitarraz jotako musikak ehiztariagandik urruntzen ditu emakumezko iratxoak, tresnaren mihia altzairuzkoa delako. Marokon, deabruen kontrako babesgarri handitzat daukate burdina; horregatik, ohitura da gizon gaixoaren burukoaren azpian labana edo sastakai bat ipintzea. Sri Lankakoek sinesten dute izpiritu txarrez inguratuta daudela beti, zelatan noiz gaitz egingo. Nekazari bat ez da ausartuko janari ona, hala nola opilak edo okela errea, leku batetik bestera eramatera, burdinazko iltze bat bertan ipini gabe (deabrua jakiez jabe ez dadin eta jalea gaixoaraz ez dezan). Ezein pertsona gaixo, gizonezko nahiz emakume, ez da ausartuko giltza-sorta bat edo labana eskuan eraman gabe etxetik irtetera, halako talismanik gabe beldur bailitzateke deabruen bat bere ahuleziaz baliatuta, ez ote litzaiokeen gorputzean sartuko. Eta gizonen batek gorputzean zorne-zorroren bat baleuka, bertan burdin puska bat ipintzen saiatuko da deabruen kontrako babes gisa. Esklaboen kostan, amak bere haurra ahulduz doala ikusten duenean, egiten du kontu deabru bat sartu zaiola haurrari, eta horren arabera bere neurriak hartzen ditu. Deabrua gorputzetik kanpora ateratzeko, janari-sakrifizioa eskaintzen dio; eta deabrua hura irensten ari den bitartean, burdinazko uztaiak eta txintzarritxoak lotzen dizkio haurrari orkatiletan eta burdinazko kateak zintzilikatzen dizkio lepotik. Burdinaren eta txintzarrien hotsak ez omen diote uzten deabruari bere otordua amaitu eta gero atzera txikiaren gorputzean sartzen. Horregatik ikusten dira hainbeste haur, Afrikako alde hartan, burdinazko apaingarri ondo zamatuta.

3. Arma zorrotzak tabututa

Zengwihko iparraldean, Birmanian, bada errege apaiz bat, sotihek agintari izpiritual eta sekular nagusitzat daukatena; haren etxera ez dago arma edo tresna zorrotzik eramaterik. Arau hau zenbait herrik heriotza baten ondoren gordetzen duten ohitura baten bidez azal liteke agian: ez dute tresna zorrotzik erabiltzen hildakoaren izpiritua

hurbilean den bitartean, zauritu egin lezaketela eta. Bering itsasarteko eskimalen artean, adibidez, "herrian pertsona bat hiltzen den egunean, ez zaio inori uzten lan egiten, eta senideek debekatua dute hurrengo hiru egunetan lanik egitea. Bereziki debekatuta dago aldi horretan ahodun tresnaren batez ebakitzea, hala nola labana edo aizkora batez; baita puntadun tresnak erabiltzea ere, hala nola orratzak edo eztenak. Hau, itzalari ebakirik edo zauririk ez egiteko omen da, aldi horretan zehar noiznahi bertara baitaiteke eta, baldin gauza horietakoren batek zaurituko balu, oso haserretuko litzateke eta gaixotasuna edo heriotza ekarriko lioke jendeari. Senideek kontu handia izan behar dute, halaber, denbora horretan arrabots eta karraxkarik ez ateratzeko, itzala asaldatu edo haserrarazi baitezakete". Lehenago ikusi dugunez, balea hil ondoren ere (antzeko gisan), eskimal horiek ez dute tresna ahodunik edo puntadunik erabiltzen lau egunez, oharkabean balearen izpiritua zauritu edo zizta dezaketelakoan. Tabu berbera gordetzen dute batzuetan herrian pertsona gaixoren bat denean, beharbada gaixoaren itzala zauritu beldurrez, gorputzetik kanpo noraezean ibil daitekeela eta. Trantsilvaniako errumaniarrek, heriotza baten ondoren, kontu handia izaten dute labana bat "edota arima ertz zorrotzaren gainean ibiltzera behartuko lukeen edozer" ahoz gora ez uzteko, gorpua etxean den bitartean. Heriotza baten ondorengo zazpi egunetan, artean gorpua etxean denean, txinatarrek ez dute labanarik edo orratzik erabiltzen, ezta okelatarako eztenik ere, eta hatzez jaten dute. Hiletaren ondorengo hirugarren, seigarren, bederatzigarren eta hamalagarren egunetan, antzinako prusiarrek eta lituanierrek bazkaria maneatu eta, atean jarrita, gonbita egiten zioten hildakoaren arimari. Otordu haietan isilik esertzen ziren mahainguruan eta ez zuten labanarik erabiltzen, eta emakume zerbitzariak ere ez. Mahai gainetik eroritako pusketak lurrian uzten zituzten, senide edo lagunak ez zuten arima bakartiek ere zer jan izan zezaten. Bazkaria amaitutakoan, apaizak erratza hartu eta etxetik ateratzen zituen arimak, honako hau esanez: "Arima maiteok, jan duzue eta edan duzue. Zoazte orain, zoazte". Orain uler dezakegu zergatik Birmaniako pontifizearen etxera ez zegoen ebakitzeko tresnarik eramaterik. Hainbat errege apaiz bezala, hura ere jainkozkotzat daukate eta, beraz, haren izpiritu sakratua babestu beharra dago gorputzetik aldegiten duen bakoitzean, airean ikustezin ibiltzeko edo urruneko eginkizunen batera hegan joateko, ebakirik edo zauririk izan ez dezan.

4. Odola tabututa

Ikusi dugu Flamen Dialisak debekatua zuela haragi gordina ukitzea edota are aipatzea ere. Aldi batzuetan irakasle brahmanak ezin izaten die begiratu haragi gordinari, odolari edo eskuak moztu zaizkien pertsonen. Ugandan bikien aita tabu-egoeran geratzen da denboraldi batez haiek jaio ondoren; besteak beste, ezin du ezer hil edo odola ikusi. Palaos irletan, herri batean eraso izan dutenean eta erasotzaileek norbaiti lepoa moztu badiote, hildako gizonaren senideak tabututa geratzen dira, eta men egin behar izaten diete zenbait betebehari, izpirituaren haserreari ihes egin ahal izateko. Etxean atxilotzen dituzte, ezin dute haragi gordinik ukitu, eta exorzistak sorkeria egin dion betela mastekatzeko dute. Honen ondotik, hildako gizonaren izpirituak etsaiaren herrialdera aldegiten du, hiltzailearen atzetik. Tabuaren oinarria sineste arrunt bat dateke: aberearen arima edo izpiritua odolean dagoela. Tabututako pertsonak arriskuan daudela jotzen denez -adibidez, hildako gizonaren senideek izpiritu suminduaren erasana jasan dezakete-, behar-beharrezkoa da haiek izpirituetatik isolatzea; hortik dator haragi gordina ukitzeko debekua. Baina gehienetan betebehari orokor baten indartze berezia izaten da tabua; bestela esan, berebiziko arretaz betetzen da lehenbailehen betetzea eskatzen duten abaguneetan, baina abagune horietatik kanpo ere debekua bete egiten da eskuarki, nahiz eta ez hain estu, bizitzako arau arrunta delako. Hala bada, estoniar batzuek ez dute odolik probatzen, sinesten baitute aberearen arima bertan

dagoela eta odola probatuko lukeen pertsonaren gorputzera sartuko litzatekeela. Iparramerikako zenbait tribu indiarrek, "erlijioaren printzipio sendo baten bitartez, erabat egiten diote uko edozein abereren odola irensteari, aberearen bizitza eta arima odolean daudelako". Judutar ehiztariek odolustu egiten zuten eraitsitako ehiza, eta odola lurrez estaltzen zuten. Ez zuten probatzen, aberearen arima edo bizia odolean zegoelakoan, edota odola bera zelakoan.

Arau zabaldua da errege-odolik ezin isur daitekeela lurrera. Horregatik, errege bat edo errege-odoleko bat hil behar dutenean, odola lurrera isuri gabe hiltzeko modua izaten da. 1688. urte aldera, armadako buruzagi nagusia matxinatu egin zen Siamgo erregearen kontra eta hil egin zuen "errege-hiltzaileei dagokien eran, edota odoleko printzesak krimen larriak egozten zaizkienean tratatzen diren bezala, alegia burdinazko galdara handi batean ipini eta zurezko motrailuez zehatuz, errege-odoletik lurrera tantarik ere isuri behar ez delako. Haien erlijioaren arabera, gaiztakeria handia da errege-odola lurrarekin nahasiz kutsatzea". Kublai Khanek, bere osaba Nayan matxinatu zitzaionean, garaitu eta preso hartu zuen, eta gero alfonbra batean bildu eta batera eta bestera jaurtiz hilarazi zuen, "jatorri inperialeko odol hura ezin isur zezakeelako lurrera, ezta Zeruairen bistan eta eguzkitan jarri ere". "Ricold fraideak esaera tartariar bat aipatzen du: "Khan batek beste bat hilko du honen tronuaz jabetzeko, baina kontu handia izango du odola isur ez dadin. Guztiz desegokia omen da Khan Handiaren odola lurrera isurtzea; beraz, nola edo hala, biktima ito egiten dute". Antzeko pentsabidea dute Birmaniako gortean ere, non odoleko printzeentzat odola isuri gabeko terreatze-modu bat gordetzen den".

Badirudi errege-odola isurtzeko higuina odola ez isurtzeko edo gutxienez lurrera erortzen ez uzteko nahi orokor baten kasu partikularra dela. Marko Polok dioskunez, bere denboran Cambaluceko (Pekingo) kaleetan desgaraian harrapatzen zituzten pertsonak atxilotu egiten omen zituzten, eta jokabide gaiztoaz errudun aurkitzen bazituzten, makilatu. "Zigor haren pean, jendea batzuetan hil egiten zen, baina odol-isurketa galarazteko modua zen hura, zeren eta giza odola isurtzea gauza txarra dela baitio haien Bacsisak". Sussexko mendebaldean jendeak uste du giza odola isuritako lurra madarikatuta eta betiko antzu geratzen dela. Herri atzeratu batzuen artean, tribuko norbaiten odola isuri behar denean, tribukideek beren gorputzen gainean hartzen dute odol hori, lurrera eror dadin utzi gabe. Australiako zenbait tributan, esaterako, erdaintzen dituzten mutilak tribukideen gorputz biziak eratutako ohe baten gainean etzaten dira; eta inimizazio-zeremonia batean mutilari hortza ateratzen diotenean, gizon baten sorbalda gainean esertzen da, eta honen bular gainera erortzen da odol-jarioa, eta ez da garbitu behar. "Galiarrek ere edan egin ohi zuten etsaien odola, eta odol harekin margotzen zituzten beren buruak. Idatzita dago antzinako irlandarrek ere halaxe egiten zutela; eta halaxe ikusi izan diet egiten irlandar batzuei (ez etsaien baizik beretarren odolarekin), traidore famatu bat Limericken terreatu zutenean. Murrough O'Brien zeritzan. Atso bat ikusi nuen, haren amaordekoa: zehatzen ari zirenean haren burua jaso eta odol-jario hartatik edan zuen, esanez lurra ez zela hura edateko duin, eta harekin igurtzi zituen bere aurpegia eta bularra eta harekin banatzen zuen ilea, txilioka eta garrasika erarik izugarrienean". Afrikako erdialdeko latukatarrek, haur bat jaiotzean odol-tantaren bat lurrera erori bada, kontu handiz karraskatzen dute palatxo batez, jarri bildutako hondarra ama garbitzeko erabilitako ura daukan ontzian eta sakon samar ehorzten dute etxe ondoan, ezkerraldera. Afrikako mendebaldean, odol-tanta bat lurrera eroriz gero, kontu handiz estali behar izaten da, zorua igurtziz eta zanpatuz; baldin eta kanoa edo zuhaitz baten saihets batera erori bada, guno hori ebaki eta puska desegin egin behar da. Afrikar ohitura hauen arrazoi bat odola magia-gizonen eskuetan ez erori nahi izatea liteke, gaizki erabil baitezakete. Afrikako ekialdean, jendeak horrexegatik zanpatzen du lurrera erori zaion odola edo ebakitzen du odolak busti duen egurren bat.

Sorginkeriei dieten beldur berdintsuagatik, Ginea Berrikoek kontu handia izaten dute odolez busti dituzten makila, hosto edo zarpailak erretzeko; eta odola lurrera erori bada, lurra irauli eta ahal bada sua egiten dute bertan. Beldur berorrek ematen digu Madagaskarko betsileoen arteko ramanga edo "odol-urdin" deritzen gizon-motak betetzen dituen eginkizun bitxien azalpena. Nobleek moztutako azkazal guztiak jatea eta isuritako odol guztia edatea da haien egitekoa. Nobleek azkazalak mozten dituztenean, ramanga horiek puskak bildu eta irentsi egiten dituzte, azken hondartxoan utzi gabe. Puskak handiegiak badira, txikituta irensten dituzte. Orobat, noble batek zauria egiten badu, azkazalak moztetakoan edo zerbait zapaltzean kasu, ramangek ahalbait lehen edaten dute odola. Maila garaiko nobleak ez dira inora joaten laguntzaile apal horiek gabe; baina ezbeharren bat izan eta bertan inor ez izatea gertatuko balitz, moztutako azkazalak eta isuritako odola kontu handiz bilduko dira, eta ramangek geroago irentsiko dituzte. Bere burua aintzakotzat daukan nobleak nekez utziko du ohitura hori bete gabe. Ohitura horren xedea gorputzaren parte horiek sorginen eskuetan ez erortzea da, agi danean, kutsadurazko magiaren printzipioen arabera kalte egin baitiezaiokete bertatik. Seguruenik, arima odolean dela sinestetik datorke odola lurrera isurtzeko higuin hori; eta odola lurrera eroriz gero, lur hori derrigor tabu edo sakratu bihurtzen dela sinestetik. Zeelanda Berrian buruzagi garai baten odol-tanta bakar bat edozeren gainera eroriz gero, zer hori tabu edo sakratu bihurtzen zaio. Behin batean, bertakoen talde bat buruzagi bati bisita egitera joan zen kanoa eder berri batean; buruzagia kanora sartu zen, baina sartzean printza batek oina ziztatu zion, eta odolak kanoa busti zuen: une hartatixe kanoa buruzagiari sagaratuta geratu zen. Jabeak kanpora egin zuen salto, arrastaka lehorreratu zuen kanoa, buruzagiaren etxeaz bestaldera, eta bertan utzi zuen. Era berean, buruzagi batek, misiolarien etxe batera sartzean habe bat jo zuen buruaz, eta odola atera zuen. Bertakoek esan zutenenez, garai batean etxea buruzagiarena bihurtuko zatekeen. Tabuekin sarri gertatzen denez, buruzagi eta erregeei aparteko zorrotzasunez ezartzen zaie tribukidearen odola lurrera isurtzeko debekua, eta besteek tabua gordetzeari utzita askoz geroago ere gorde egin behar izaten dute.

5. Burua tabututa

Herri askok daukate burua bereziki sakratutzat; batzuetan sineste batek azaltzen du santutasun berezi horren arrazoiak: izpiritu bat daukala, kalteen edo begiramenik ezaren aurrean oso sentikorra dena. Horregatik diote yorubatarrek gizon orok hiru izpiritu lagun dituela, eta hiruretan lehena, Olori deritzana, buruan bizi dela eta gizakiaren babesle, zaindaria eta gidaria dela. Eskaintzak egiten zaizkio izpiritu horri, batez ere hegaztienak, eta isuritako odol-pixka bat igurtzitzen da bekokian pala-olioaz nahastuta. Kalendarrek uste dute tso deritzan izaki bat bizi dela buruaren goialdean, eta hura bere lekuan dagoen bitartean pertsonari ez zaiola inolako kalterik etorriko zazpi kelah edo nortutako grinengandik. "Baina baldin eta tsoa axolagabe edo ahul bihurtzen bada, ondorioz gaitzen bat etorriko zaio pertsonari. Beraz, buruari arreta handia jartzen zaio, eta har litezkeen neke guztiak hartzen dira tsoari gogoko izango zaizkion jantzi eta apaindurak eskaintzeko". Siamdarrek uste dute khuan edo kwun deritzan izpiritu bat bizi dela gizakiaren buruan, eta beronen izpiritu zaindaria dela. Izpiritua kontu handiz babestu behar da edozein kaltetatik; beraz, bizargitea edo ilea moztea kontu handiz burutzen dira. Kwun-a oso sentikorra da ohore-kontuetan, eta izugarri iraindua sentituko litzateke baldin eta arrotzen baten eskuak bizileku duen burua ukituko balu. Kanboiarrek irain larritzat daukate gizonaren burua ukitzea; haietako batzuk ez dira sartuko beren buruen gainean zerbait zintzilikatuta dagoen lekura; eta kanboiar apalenak ere inoiz ez du onartuko inor bizi den etxebizitzaren azpian bizitzea. Horregatik eraikitzen dira pisu bakarreko etxeak; eta Gobernuak ere errespetatu egiten du aurriritzi hori: presoak inoiz ez dira atxilotzen etxe baten zorupean, nahiz etxeak lurretik oso gora

egon. Superstizio berbera dute malakarrek ere. Aspaldiko bidaiari batek jakinarazten digunez, Javan, jendeak "ez du kapelurik janzen, ez omen da ezer jarri behar buru gainean (...) eta inork eskua buruan ezarriko balie, hil egingo lukete; eta ez dute egiten pisu bat baino gehiagoko etxerik, batzuk besteen gainean ez ibiltzeko".

Burua dela eta, superstizio berbera aurki daiteke indarrean Polinesia osoan. Hala, Markesa irltako Gattanewa izeneko buruzagi baten "burugaina edo buruan izandako edozer ukitzea, sakrilegioa omen zen. Haren buruaren gainetik pasatzea doilorkeria ahanzezina zen". Markesetako apaizburu baten semea ikusi omen zuten lurrean zehar jiraka, amorruz eta etsipenez hilzorian, hil zezatela eskatzen, norbaitek ur-tanta batzuk ilera botata burua orbandu ziolako. Baina ez ziren Markesetako buruzagiak buru sakratua zuten bakarrak. Markesetako edonoren burua zen tabu, eta ezin uki zezaketen elkarren bururik, ezin pasa zitezkeen bata bestearen buru gainetik; aita ere ez zitekeen pasa lo zegoen hauraren buruaren gainetik; emakumeek debekatuta zeukaten senarraren edo aitaren burua ukitu zuen edota besterik gabe gainean zintzilik egondako ezer garraiatzea edo ukitzea. Inork ez zeukan Tongako erregearen burua baino gorago egoterik. Tahitin, erregea edo erregina baino gorago zegoen edonork, edo eskua haien buru gainetik pasatzen zuen edonork, heriotza-zigorra jaso zezakeen. Zenbait errito egiten ez zitzaizkion bitartean, haur tahitiar bat bereziki tabututa egoten zen; haurra egoera hartan zegoen bitartean burua ukitzen zion edozer sakratu bihurtzen zen, eta hauraren etxeko leku sagaratu batean lagatzen zen hartarako egindako hesi baten barruan. Zuhaitz-abar batek hauraren burua ukitzen bazuen, zuhaitza botatzen zuten; eta erortzean beste zuhaitzen baten azala urratzen bazuen, beste zuhaitz hori ere bota egiten zen, orbanduta eta baliogabe geratu zela eta. Erritoak burutu eta gero, tabu berezi hauek amaitu egiten ziren, baina tahitiar baten burua sakratua zen beti: ez zeukan gainean ezer eramaterik, eta ukitze hutsa iraintzat hartzen zen. Buruzagi maori baten burua ere hain zen sakratua non "bere hatz batez doi ukitzen bazuen, berehala hatza sudurrean jartzera behartuta baitzegoen, ukitu haren bidez bereganatutako santutasuna hatsartzeko, eta hartara lehengo lekura itzultzeko". Bere buruaren sakratutasunagatik, buruzagi maori batek "ezin zion suari putz egin; izan ere, arnasa sakratua izaki, santutasuna komunikatzen zion, eta esklaboren batek edo beste tribukoren batek ilinti bat hartuz gero, edo sua beste xede batzuetarako erabiliz gero, hala nola jana maneatzeko, horrek heriotza ekarriko zion".

6. Ilea tabututa

Burua sakratutzat zeukatenean -ukitze hutsa irain larritzat hartzeraino-, ilea moztea eginkizun zaila eta arreta handia eskatzen zuena izango zen noski. Eginkizun horrek antzinakoen ikuspegitik dauzkan zailtasun eta arriskuak bi motatakoak dira. Lehenik buruko izpiritua gogaitarazteko arriskua dago, prozesuan zehar zauritu egin baitaiteke eta mendeku har baitezake gogaitarazten duen pertsonaren gainean. Bigarren, moztutako biloez zer egin, horra beste arazo bat. Izan ere, basatiak uste du beraren eta bere gorputzeko parte bakoitzaren artean dagoen sinpatiazko loturak segitu egiten duela are lotura fisikoa hautsi eta gero ere eta, beraz, gorputzetik banandutako parteek, hala nola moztutako ileak edo azkazalek, jasan lezaketen kaltea etorriko zaiola berari ere. Horren arabera, kontu izaten du beragandik banandutako parte horiek ezbeharren bat izateko moduko lekuetan ez uzteko, edota magiaren bidez kaltea edo heriotza ekar diezaiaketen pertsona gaiztoen eskuetan erortzeko moduko lekuetan ez uzteko. Denak daude halako arriskupean, baina pertsona sakratuek jende arruntak baino hobeto gorde behar dute haietarik eta, beraz, hartzen dituzten neurriak estuagoak dira. Arriskuari ihes egiteko modurik sinpleena ilea batere ez moztea da; eta bide horixe hartzen da arriskua ohi baino handiagoa dela jotzen denean. Errege frankoei ez zieten uzten ilea moztzen; haurtzarotik aurrera moztu gabe eduki behar izaten zuten. Sorbalden gainera erortzen

zitzaizkien bilo luzeak moztea tronurako eskubideari uko egitea zen. Klotario eta Txildeberto anaia gaiztoek Klodomiros anaia hilaren erreinua tiriatzen zutelarik, beren menpe hartu zituzten bi ilobatxoak, Klodomirosen semeak; eta hori egin ondoren, mezularia bidali zioten Parisera haurren amonari, Klotilde erreginari, guraizeak eta ezpata biluzi batekin. Mandatariak guraizeak eta ezpata erakutsi zizkion Klotilderi, eta arren aukeratzeko erregutu zion: aukeratzeko hurrei ilea moztu eta bizirik utzi, ala ez moztu eta hil. Erregina harro hark honela erantzun zuen: bilobek tronura iritsi behar ez bazuten, nahiago zituela hilda ikusi ilea moztuta baino. Eta beren osaba Klotariok gupida gabe hil zituen eskuz. Ponapeko erregeak, Karolina irletako batekoak alegia, ile luzea eraman behar du, baita haren segizioak ere. Afrikako mendebaldeko Hos tribuan, "apaiz batzuei ezin zaie labanarik ezarri buruan bizitza osoan zehar. Gizonarengan bizi den jainkoak heriotza-zigorpean du debekatua ilea moztea. Baldin ilea gehiegi luzatzen bada, jabeak otoitz egin behar dio jainkoari, arren utz diezaiola gutxienez puntak moztu. Izan ere, ilea jainkoaren egoitza eta bizilekutzat hartzen da, hala non, moztuz gero, jainkoak galdu egingo bailuke apaizarengan duen bizilekua". Masaieen artean, euria ekartzeko ahalmena aitortzen zaien klan bateko kideek ez daukate bizarra egiterik, bizarraz gabetzeak, agi danean, euria erakartzeko ahalmena galaraziko liekeelako. Masaieen buruzagi nagusiak eta sorginek ere arau bera dute arrazoi berberetatik: uste dute ezen, bizarrak moztuko balituzte, beren dohain naturaz gaingorik gabe geratuko liratekeela.

Orobat, mendekua hartzea zin egin duten gizonek, batzuetan, ilea moztu gabe edukitzen dute zin egindakoa bete arte. Markesa irletakoez esan zaigunez, "batzuetan burua erabat soilduta izaten dute, bilo bat kalparrean salbu, solte utzi edo korapilo batez lotzen dutena. Baina ilea eramateko azken era hau eginkizun larriren bat zin egin dutenean bakarrik hartzen dute, hala nola senide hurbil baten heriotza mendekatzea, e.a. Halakoetan, agindutakoa bete arte ez dute biloa moztu". Antzeko ohitura gordetzen zuten batzuetan antzinako germaniarrek; chattien artean, gerrari gazteek ez zuten ilea edo bizarra moztu etsai bat hil arte. Toradjien artean, haur bati zorriak kentzeko ilea moztu zaionean, bilo batzuk uzten zaizkio kalparrean, haurraren arimetako baten gordelekutarako. Bestela, arimak ez luke non ezarri izango, eta haurra gaixotu egingo litzateke. Karo-bataktarrek beldur handia diote haur baten arima ikararazita aldeginarazteari; horregatik, ilea moztu diotenean, beti uzten dute parte bat moztu gabe, arima han gorde ahal dadin guraizeetatik. Gehienetan bilo hori bizitza osorako geratzen da moztu gabe, edota gutxienez gizon egin arte.

7. Ilea mozteko zeremoniak

Baina ilea moztea beharrezko gertatzen denean, eginkizun horri ustez dagozkion arriskuak murrizteko neurriak hartzen dira. Fiji irletako namosien buruzagiak beti jaten zuen gizon bat, badaezpada, ilea moztu zuenean. "Klan jakin batek jarri behar izaten zuen biktima, eta kontseilu larrian bildu ohi ziren denen artean aukeratzeko. Buruzagia gaitzetik libratzeko penitentzi oturuntza zen hura". Maorien artean arao asko esaten ziren ilea moztekoan; bat, adibidez, ilea mozteko obsidianazko labana sagaratzean esaten zen; beste bat, ilea mozteak ustez ekartzen zituen trumoi eta tximistak urruntzeko esaten zen. "Ilea moztu duenak atuaren (izpirituaren) ardura hartzen du berehala; bere familia eta tribuarekiko harreman guztiak eten egiten zaizkio; ez da ausartzen janaria ukitzera ere; inork ahorratu behar izaten dio; eta egun batzuk iragan arte ez dauka bere ohiko eginkizunetan jarduterik edo kideekin harremanik izaterik". Ilea inori moztu dion pertsona ere tabututa geratzen da; buru sakratua ukitu duenez, ezin izaten du eskuez janaririk ukitu edo beste zereginen batean jardun; beste norbaitek elikatzen du, su sakratuaren gainean atondutako janariz. Biharamuna arte ez dauka tabutik libratzerik, biharamunean eskuak su sakratuan egositako patataz edo garo-sustraiz igurtzitzen

baititu; eta janari hau emakumezkoen jatorriz familiburu denari eraman eta hark jan ondoren, eskuak tabutik libre geratzen zaizkio. Zeelanda Berriko alde batzuetan, ilea mozteko seinalatutakoa izaten zen urteko egunik sakratuena; inguru guztietako jendepila handia biltzen zen egun hartan.

8. Ilea eta azkazalak mozteari buruzko xedapenak

Baina ilea eta azkazalak behar bezala moztu eta gero beste arazo bat izaten da, haiekin zer egin, jabea sinetsita egoten baita haiei egindako edozein kalte bere gain hartu beharko duela. Ia mundu osoan hedatuta dago gizon bati moztutako ile, azkazal edo gorputzetik banandutako beste edozeren bidez xarma egin dakiokelako burutapena; eta datuak ugariegiak, ezagunegiak eta beren berdinean aspergarriegiak dira hemen luze eta zabal aztertzeari ekin diezaiogun. Superstizioaren oinarri den ideia orokorra hau da, sinpatiazko loturak irauten duela pertsona baten eta noizbait bere zati izandako edo berarekin estu lotutako zerbaiten artean. Aski izango dira adibide bakan batzuk, kutsadurazkoa dei dakiokkeen magia-mota horretakoak. Sorginkeriaren beldurra Markesa irletakoen ezaugarri nabarmenenetakoa bat omen zen antzina. Sorginak inori kalte egin nahi bazion, norbait horren ilea, listua edo gorputzeko beste hondarren bat hartu, hosto batean bildu eta hariz edo zuntzez ehundutako eta oso estu lotutako zakuto batean ipintzen zuen bilgoa. Gero errito jakin batzuekin ehorzten zuen hura, eta handik aurrera biktima ahultzen hasten zen, hogeia egun irauten zuen gaixorik. Haatik, ehortzitako ilea, listua edo zena zelakoa aurkitu eta ateraz gero, bizia salba zezakeen; hori egin bezain laster, xarmadura amaitu egiten zen. Norbait sorgintzeko seta hartutako sorgile maoria, biktimaren ile-xerlo bat eskuratzen saiatzen zen, azkazal-hondarrak, listua, edo jantzien puska bat. Zer hura eskuratu ondoren, zernahi zela, xarma eta arao batzuk kantatzen zituen falsetto ahotsez eta lurpean ehorzten zuen. Gauza hura usteldu ahala, haren jabe izandako pertsonak ere ahulduz joan beharra zeukan. Australiar batek emazteagandik libratu nahi duenean, ile-xerlo bat moztzen dio lotan dagoenean, dardo-jaurtigailuari lotu eta ondoko tribura joaten da harekin, eta han lagun bati ematen dio. Lagunak kanpamentuko suaren aurrean ezartzen du gauero dardo-jaurtigailua, eta erortzen denean, emaztea hil delako seinale. Xarmak nola jardun duen honela azaldu zion wirajuri batek Howitt doktoreari: "Ikusten duzu, gutako doktore batek gizon batena den zerbait eskuratu, beste gauza batzuekin txigortu eta kantatzen dionean, suak gizonaren usaina hartzen du, eta horrek akabatu egiten du gizajoa".

Karpato mendietako huzulek imajinatzen dutenez, saguak norbaiten ile moztua hartu eta harekin habia egiten badu, pertsona horrek burukomina izango du edota tenteldu egingo da. Era berean, Alemanian uste zabaldua da txori batek pertsonaren ile moztua aurkitu eta harekin bere habia egiten badu, pertsona horrek burukomina izango duela; batzuek uste dute buruan zuldarren bat aterako zaiola. Sussexko mendebaldean sineskeria berbera dute, edo zuten.

Orobat, moztutako edo orrazterakoan erauzitako ileak nahastu egin omen dezake eguraldia, euria eta txingorra, trumoiak eta tximistak ekarriz. Ikusi dugu gorago Zeelanda Berrian arao bat botatzen zela ilea mozterakoan, trumoi eta tximistei itzuri egiteko. Tirolen, sorginek moztutako edo orraztean erauzitako ilea erabiltzen omen dute txingorra edo trumoiak erakartzeko. Thlinket indiarrek ilea etxetik kanpo orraztu duen neskaren erokeriari egozten diote eguraldi ekaiztsua. Erromatarrek ere antzeko ideiak izan zituzten, dirudienek, esaera hau baitzuten: itsasontzi batean inork ezin zezakeela ilea edo azkazalak moztu, ekaitz batean salbu, alegia, kaltea jadanik egina zegoenean. Eskoziako Highlandsen neba itsasoan zuen neskak ez omen zuen ilea gauean orrazten. Afrikako mendebalden, Jumbako txitonbea edo mania hiltzen zenean, jendea saldoka joaten zen gorpua zegoen tokira, eta ilea, hortz-haginak eta azkazalak erauzten zizkieten, eta euri-xarma gisa gordetzen zituzten, bestela euririk egingo ez zuelakoan.

Anzikotarren makokoak bizarren erdia euri-xarmatarako emateko erregutzen zien misiolariei.

Ileak eta azkazalek moztu zaizkion pertsonaren gorputzarekin sinpatiazko loturan irauten badute, argi dago haietaz jabetu den edonork bahituran gorde ditzakeela pertsona horren jokabide zuzenaren berme hartuta; izan ere, kutsadurazko magiaren printzipioen arabera, aski du ileari edo azkazalei kalte egitea jabeari ere min emateko. Horregatik, nandiek norbait atxilo hartzen dutenean, burua erabat soiltzen diote eta moztutako ilea ihes egingo ez duelako bermagarri gisa gordetzen dute; baina gatibua beretarrek erreskatatzen dutenean, itzuli egiten diote moztutako ilea.

Moztutako ile-azkazalak kaltetik eta sorginen erabilera arrisksuetatik gordetzeko, beharrezkoa da leku segururen batean jartzea. Buruzagi maorien bilo moztuak kontu handiz bildu eta ondoko hilerri batean ipintzen ziren. Tahitiarrek tenpluetan ehorzten zituzten ile moztuak. Bidaiari moderno batek harri handien pilak ikusi zituen Sokuko kaleetan hormaren kontra, arrailduretan giza ileen eskutadak zituztela. Haren esanahiaz galdetu zuenean, esan zioten ezen, bertako norbaitek ilea mozten zuenean, kontu handiz bildu eta pila haietako batera eramaten zuela, haiek denak sakratuak baitziren fetitxeentzat; bortxaezinak beraz. Harri sakratuen pila haiek sorginkeriararen kontrako neurri bat besterik ez omen ziren, zeren eta gizon batek ileari konturik egiten ez bazion, etsaien eskuetan eror zitekeen eta haiek, ilearen bitartez, araoak egin eta hartara hondamena ekarri ahalko baitzioten gizonari. Haur siamdar baten buruko korapiloa zeremonia handiz mozten dutenean, ile motzenak platano-hostoz egindako ontzitxo batean ipintzen dituzte, eta ibai edo kanal hurbilenean askatzen. Ur gainean urrundu ahala, haurraren oker edo mingarri zegoen oro ere harekin batera joaten omen da. Ile luzeenak gorde egiten dira, haurrak Budaren oinatz santua dagoen tokiraino, Prabateko muino santura, erromesaldia egiten duen arte,. Han apaizei aurkezten zaizkie, eta haiek behartuta omen daude Oinatz garbitzeko erratzak egitera, baina hainbeste ile eskaintzen zaie urtero, non apaizek ezin baitute dena erabili, eta lasai asko erretzen dute soberakoa erromesek bizkarra erakutsi orduko. Flamen Dialisaren ile eta azkazal moztuak zorte onaren zuhaitz baten azpian ehorzten ziren. Birjina vestaleen kiribilak loto-arbola zahar batetik zintzilikatzen zituzten.

Sarritan, moztutako ilea eta azkazalak ezkutuko lekuren batean gordetzen dira, ez nahitaez tenplu, hilerri edo zuhaitzen batean, lehenago aipatu kasuetan bezala. Suabian, adibidez, gomendatzen dute moztutako ilea ez eguzkitan ez ilargi argitan uzteko, baizik eta lurrian edo harri baten azpian, adibidez. Danzigen hirusta baten azpian ehorzten dute, poltsa batean sartuta. Ugin, Salomon irletako batean, gizonek ehortzi egiten dute ilea etsairen baten eskuetan eror ez dadin, hala izatera hark magia egingo bailuke eta gaixotasuna edo hondamena erakarriko. Beldur hori Melanesia osoan dago hedatua, dirudienez, eta moztutako ile eta azkazalak ezkutatzeko ohitura nonahikoa da. Ohitura berak irauten du Hegoafrikako tribu askotan ere, aztiak banandutako parte horiez jabetu eta haiekin gaitz egingo ote duten beldurrez. Kafreek ere urrunago daramate beren atalen bat etsaiaren eskuetan uzteko beldur hori; izan ere, ilea eta azkazalak leku ezkutu batean ehorzteaz gainera, batak bestearen burua garbitzen dutenean, harrapatutako zorriak ere gorde egiten dituzte, "kontu handiz ematen dizkiote jabeari, uste izanik, beren teoriaren arabera, beste inork akabatuko balitu, lagunaren odolaz jabetuko litzatekeela, zomorroak gizonaren odoletik bizi baitira, eta hartara gizagaindiko eraginen baten ahalmena izango lukeela bere eskuetan.

Batzuetan banandutako ilea eta azkazalak gordetzen dira, ez magia-gizonen baten eskuetan eror ez daitezen, baizik eta jabeak gorputza berpiztean eskura izan ahal ditzan, zenbait arraza horren zain baitaude. Hala, Peruko inkek, esaterako, "kontu handia izaten zuten azkazal moztuak eta ile moztu edo orraziaz erauziak gordetzeko;

hormetako zulo edo hutsuneetan ipintzen zituzten; eta erortzen baziren, beste indiarren batek ikusiz gero jaso eta atzera beren lekuan ipintzen zituen. Sarritan galdetu nien indiarrei, aldi desberdinetan, zergatik egiten ote zuten hura, eta denek erantzuten zidaten gauza bera, hau esanez: “Jakizu pertsona jaio orok itzuli behar duela bizitzara” (ez dute hitzik berpiztea adierazteko), “eta arimek gorputz oso-osoarekin jaiki behar dutela hilobietatik. Beraz, guk orduan gure ilearen eta azkazalen bila ez ibiltzeko, leku batean ipintzen ditugu, dena batera egoki jaso ahal izateko; tu ere, ahal den guztietan, leku batean egiteko kontua izaten dugu””. Era berean, turkiarrek inoiz ez dituzte jaurtitzen moztutako azkazalak, baizik eta kontu handiz sartzen dituzte hormen edo armairuen zirrituetan, berpizte egunean beharko dituztelakoan. Armeniarrek ez dituzte moztutako ile-azkazalak eta erauzitako hortzak jaurtitzen; aldiz, santutzat dauzkaten lekuetan ezkutatzeko dituzte, hala nola eliza baten hormako arraildura batean, etxe baten zutarrian edo zuhaitz baten hutsunean. Uste dute berengandik banandutako zati horiek guztiak beharko dituztela berpiztean, eta leku seguruan sartu ez dituenak bila ibili beharko duela egun handian. Irlandako Drumconrath herrian baziren zenbait emakume zahar, Eskritura Santuetatik Jainko Ahalguztidunak beren buruetako ileak zenbatuta zeuzkala ikasiak, eta Judizio-egunerako hori espero zutenak. Hala izan zedin, moztutako ilea beren etxeetako sabaian gordetzen zuten.

Batzuek erre egiten dute eroritako ilea, sorginen eskuetan eror ez dadin. Hala egiten dute patagoniarrek eta Victoria aldeko tribuek. Vosge Garaietan diotenez, ile eta azkazal moztuak ez dira inoiz lurrean utzi behar, erre egin behar dira, sorginei norberaren kontra erabiltzea galarazteko. Sorginkeriaren beldur ia unibertsalak bultzatzen ditu Afrikako mendebaldeko beltzak, Hegoafrikako makololoak eta tahitiarrak, moztutako ilea erretzera edo ehorztera. Tirolen, jende askok erretzen du bere ilea, sorginek ekaitzak ekartzeko erabil ez dezaten; beste batzuek, berriz, txoriek habiak egiteko erabil ez ditzaten erretzen edo ehorzten dute. Bestela, buruko mina izango bailukete.

Ilea eta azkazalak desegiteak nabarmen uzten du pentsaera horren zentzugabekeria. Zertarako desegin gorputzetik banandutako parteak? Sorginek erabil ez ditzaten, hala aitortzen da. Baina hala erabili, ile-azkazalen eta jabe zen gizakiaren artean ustez den sinpatiazko loturagatik erabil daitezke. Eta sinpatiazko lotura horrek oraindik ere irauten badu, banandutako parte horiek ezin desegin daitezke gizakiarentzako kalterik gabe.

9. Listua tabututa

Hainbeste jende moztutako ile-azkazalak ezkutatzera edo desegitera eramán duen sorginkeriaren beldur berberak behartu ditu beste batzuk edo berberak listua ere antzeko moduan tratatzera. Izan ere, sinpatiazko magiaren printzipioen arabera, listua gizakiaren zerbait da, eta hari egiten zaion edozerk bere ondorioa izango du gizakiarengan. Chilote indiar batek, etsai baten listua bildu ondoren, patata batean ipiniko du eta patata ketan jarriko, arao batzuk esanez, erabat etsita patata ketan lehortu ahala etsaia ahuldu egingo dela. Edo igel batengan ipiniko du listua, eta ibai zail nabigaezinen batean askatuko du, biktima sukarretan dardara eta ikara batean ezarriz. Urewerakoak (Zeelanda Berriko eskualde bat da hau) ospetsuak ziren magia egiteko zuten trebetasunagatik. Jendearen listua erabiltzen omen zuten sorgintzeko. Horregatik, bisitariak kontu handia izaten zuten listua gordetzeko, sorgin haiek kalte egiteko biderik izan ez zezaten. Era berean, Hegoafrikako tribuen artean, inork ez du tu egingo etsairen bat gertuan denean: etsaiak listua aurkitu eta sorgin bati eman diezaioke, eta sorginak osagai magikoekin nahastu eta tu egindako gizonari kalte egin. Are norberaren etxean ere, listua kontu handiz garbitzen eta desegiten da arrazoi berberagatik.

Jende arruntak hainbesteko arreta jartzen badu, ezin gutxiago izan errege eta buruzagiak. Sandwich irletan, buruzagiek zerbitzari konfidantzazko bat zuten, tuontzia eramaten zuena, eta han bildutakoa kontu handiz ehorzten zen goizero, sorgileen

eskumenetik at uzteko. Esklaboen kostan, arrazoi berberagatik, errege edo buruzagi batek tu egiten duenean, listua kontu handiz jaso eta ezkutatu edo ehortzi egiten dute. Gauza bera egiten da Nigeriako hegoaldean den Tabaliko buruzagiaren listuarekin ere. Listuari eman dakiokeen magiazko erabilerak hitzarmena egiteko gai egoki bihurtzen du, odola edo azkazal moztuak bezala, listua trukatzeari hitzartzaileek fede onaren bermea ematen baitiote elkarri. Gerora bietakoren batek hitza jaten badu, besteak gaiztakeria zigor dezake zin-hausleak bere esku utzitako listuari magia ezarriz. Afrikako ekialdeko wajaggatarrek, adibidez, hitzarmena egin nahi dutenean, bi aldeak erdian katilu bat esne edo garagardo elkarren artean dutela eseriko dira batzuetan, eta, edabearen gainean sorkeria egin ondoren, bakoitzak esne edo garagardo-ahatara bat hartu eta bestearen ahora jaurtiko dute. Kasu larrietan, zeremonian denbora galtzerik ez dagoenean, tu egingo dute bata bestearen ahora, eta besterik gabe hitzarmena eginda geratuko da.

10. Janariak tabututa

Espero zitekeenez, basatiak superstizio ugari ditu janaria dela eta; eta ez ditu jaten berez oso osasuntsuak diren abere eta landare asko, arrazoiaren batengatik jalearentzat arriskutsu edo hilgarri gerta daitezkeelakoan. Barau horren adibideak ezagunegiak eta ugariegiak dira aipatzeko. Baina superstiziozko beldurrak gizon arrunta hainbat janari hartzetik hala atzeratzen badu, errege, apaiz eta, oro har, pertsona sakratu edo tabutuei ezartzen zaizkien debekuak askoz ugariagoak eta estuagoak dira. Ikusi dugu Flamen Dialisak debekatuta zeukala zenbait landare eta abere jatea edota are aipatzea ere, eta Egiptoko erregeek txahalkia eta antzara besterik ez zezaketela jan. Antzinatean herri barbaroetako apaiz eta errege askok erabateko ukoa egiten zioten okela jateari. Gangek, Loangoko kostaldeko apaiz fetitxeek, debekatua dute hainbat abere eta arrain jatea edota are ikustea; beraz, oso mugatua dute okela jatea; sarritan belar eta sustraiak besterik ez janez bizi dira; odol berria, ordea, edan dezakete. Loangoko tronurako oinordekoak haurtzarotik debekatua izaten du zerrikoa jatea; ume-umetatik debekatzen zaio kola fruta besteekin batera jatea; pubertaroan apaiz batek irakasten dio hegaztirik besteekin batera ez jaten, berak hil eta maneatutakoa izan ezik; eta hala, tabuen kopurua hazi egiten zaio urteetan aurrera ahala. Fernando Poko erregeari, koroatu ondoren, debekatu egiten zaio cocco (arum acaule), antilopea, oreina eta arantzurdea jatea, jendearentzat jaki arruntak diren arren. Masaieen buruzagi nagusiak ez dauka esnea, eztia eta antxumeen gibel erreka besterik hartzerik; beste jakirik hartuko balu, galdu egingo luke iragarmena eta sorkeriak egiteko ahala.

11. Korapiloak eta eratzunak tabututa

Ikusia dugu Erromako Flamen Dialisak gorde beharreko tabu ugarietako batek korapiloa arropetan egitea debekatzen ziola, eta beste batek eratzuna eramatea, salbu eta hautsita bazegoen. Antzeratsu, Mekara erromes doazen musulmanak santutasun edo tabuegoeran daude, eta ezin eraman dezakete korapilorik edo eratzunik aldean. Arau hauek esanahi berdintsukoak dira, eta egoki har daitezke batera. Korapiloek gagozkiola, mundu osoko herri askok traba handiak jartzen dizkio sasoi jakin batzuetan aldean korapiloren bat izateari, batez ere erditzean, ezkontzan eta heriotzan. Transilvaniako saxoniarren artean, emakumeren bat hurgintza-lanetan ari denean, arropetako korapilo guztiak askatzen zaizkio, hartara erditzea erraztuko zaiolakoan, eta asmo berberaz irekitzen dira etxeko sarraila guztiak, ate eta kaxetakoak. Laponiarrek uste dute hurgintzan ari den emakumeak ez lukeela korapilorik izan behar arropetan, korapiloak zaildu eta minberatu egingo baitu erditzea. Ekialdeko Indietan superstizioa haurdunaldi osora hedatzen da; jendeak uste du emakume haurdun batek korapiloak edo txirikordak, edo beste edozein lotura izango balu, haurra estutu egingo lukeela, edo, garaia etorrita, emakumea bera "estekatuta" geratuko litzatekeela. Are gehiago, batzuek, jaio beharrekoaren ama ezezik,

aita ere behartzen dute araua gordetzera. Itsasoko dayaken artean ez aita eta ez ama lot dezakete ezer sokaz edo egin dezakete lakiorik emaztea haurdun den aldian. Celebesko iparraldeko Toumbuluh tribuan, zeremonia bat burutzen da emakume baten haurdunaldiaren laugarren edo bosgarren hilabetea, eta ondoren senarrak debeku izaten ditu, besteak beste, korapiloric lotzea eta zangoak bata bestearen gainean gurutzatuta dituela esertzea.

Kasu hauetan guztietan ideia hauxe legoke, alegia korapiloa lotzeak, Ekialdeko Indietan dioten bezala, "estekatu" egingo lukeela emakumea, hots, galarazi egingo lukeela erditzea, edota haurra egin ondorengo ohealdia luzatu egingo lukeela. Homeopatiatzko edo antzezko magiaren printzipioen arabera, soka bateko korapiloaren traba edo eragozpen fisikoak antzeko traba edo eragozpena eragingo luke emakumearen gorputzean. Arauaren arrazoiak hauxe dela, agerian geratzen da Afrikako mendebaldeko hasek hurgintza zailtan gordetako ohitura batean. Emakume bat hurgintza-minetan erditu ezinik ari denean, aztiari deitzen diote laguntzeko. Aztiak emakumeari begiratu eta hala esango du: "Haurra lotuta dago umetokian, horregatik ezin da irten". Senide emakumezkoen erreguei erantzunez, lotura askatuko duela agintzen die, emakumea erditu ahal dadin. Hartarako, basotik aihen sendo bat bilatzeko manaten die, eta harekin ohean datzanari eskuak eta oinak lotzen dizkio atzealdean. Gero hartu labana eta emakumearen izena esaten du ozenki, eta hark erantzuten duenean, ebaki egiten du aihena, hau esanez: "Gaur ebaki egiten ditut zure loturak eta haurraren loturak". Horren ondoren, txiki-txiki egiten du aihena, puskak urez betetako ontzi batean ipini eta emakumea ur horretan bainatzen du. Kasu honetan, emakumearen eskuak eta oinak lotzen dituen aihena txikitzea homeopatiatzko edo antzezko magiaren adierazpidea besterik ez da: magia-gizonak imajinatzen du soinadarrak lokarrietatik askatzearekin batera umetokiko haurra ere jaiotzea eragozten dioten trabetatik askatzen duela. Pentsabide bera datza hainbat herritan sumatutako beste ohitura batean: etxean norbait erditzen ari denean sarraila, ate eta abar guztiak irekitzen dira. Ikusi dugunez, halakoetan Transilvaniako germaniarrek sarraila guztiak irekitzen dituzte, eta gauza bera egiten dute Voigtland eta Mecklenburgen ere. Argyllshireko iparmendebaldean jende superstiziotsuak etxeko sarraila guztiak ireki ohi zituen haurra jaiotzean. Salsette irlan, Bonbaitik gertu, emakumea hurgintza zailean ari denean, ate edo armairuen sarraila guztiak irekitzen dituzte giltza batez erditzea errazteko. Sumatrako mandelinge kofre, kutxa, lata eta abarren tapak irekitzen dituzte; eta halaz guztiz ere nahi den ondoriorik lortzen ez bada, senar urduriak etxeko habe batzuetako mutur irtenak hautsi eta lokatu beharko ditu; halaxe uste baitute, "dena ireki eta lokatu behar dela erditzea errazteko". Chittagongen, emakume bat erditu ezinik dagoenean, emaginak ate eta leiho guztiak zabal-zabal irekitzeko agindua ematen du; botila eta upela guztiei kortxo edo tapak kentzeko, ukuiluko behiak askatzeko; zaltegiko zaldiak, kateko txakurra, ardiak, hegaztiak, ahateak eta abar jaregiteko agindua ematen du. Bizidun nahiz bizigabeentzako askatasun unibertsal hau, haien ustez, hutsegina ezina da emakumearen erditzea eta haurrari jaiotzen uztea segurtatzeko. Sakhalin irlan, emaztea erdi-minetan dagoenean, senarrak desegin daitekeen guztia desegiten du. Ile-txirikordak eta oinetakoetako korapiloak askatzen ditu. Gero, etxean edo auzoan lotuta dagoen guztia askatzen du. Etxeondoan, aizkora sartuta dagoen enborretik ateratzen du; txalupa zuhaitz bati lotuta badago, askatu egiten du; kartutxoak eskopetatik ateratzen ditu, eta geziak arkutik.

Orobat, ikusi dugu toumbuluhtar gizona, korapiloak ez egiteaz gainera, zangoak gurutzatu gabe esertzen dela emaztearen haurdunaldian. Pentsabidea berdina da bi kasuetan. Korapiloa egitean sokak gurutzatzen dituzunean, edo zangoak gurutzatzen dituzunean, berdina ari zara homeopatiatzko magiaren printzipioen arabera, gauzen

etorbide librea gurutzatzen edo galarazten, eta zure ekintzak auzoan gertatzen ari den edozer galarazi besterik ez du egiten. Erromatarrak erabat ohartuta zeuden egia garrantzitsu honetaz. Emakume haurdun baten edo gaixo baten ondoan eskua eskuari emanda esertzea, dio Plinio zuhurak, pertsonari sorkeria gaiztoa egitea da, eta are okerragoa da eskuak elkarri emanda zango bat edo biak hartzen badituzu, edo zango bat bestearen gainean pausatzen baduzu. Halako jarrerak edozertarako traba eta estakurutzat zeuzkaten erromatarrek, eta gerra-kontseiluan edo epaileen bileran, otoitz eta sakrifizioetan, inori ez zitzaion onartzen zangoak gurutzatzea edo eskua eskuari emanda egotea. Alkmenak ematen digu gauza horiek egitearen ondorio beldurgarrien adibide behinena: zazpi egunez eta zazpi gauez egon zen Herkulesez erditu ezinean, zergatik eta Luzina jainkosa etxe aurrean eseri zelako eskua eskuari emanda eta zangoak gurutzatuta, eta haurra ezin izan zen jaio harik eta jainkosa bere jarrera alda zezan engainatu zuten arte. Bulgariar superstizio baten arabera, haurdun dagoen emakumeak zangoak gurutzatuta esertzeko ohitura badu, neke handiak izango ditu erditzean. Bavariako zenbait aldetan, elkarriketa eteten denean eta ondorioz isiltasuna datorrenean, hala esaten dute: "Norbaitek zangoak gurutzatuko zituen".

Korapiloek giza jarduerak trabatzeko eta eragozteko duten eragin magikoa, jaiotzan bakarrik ez, ezkontzan ere agertzen zela uste zen. Erdi Aroan, hemezortzigarren mendera arte, uste arrunta zen Europan ezkontza burutzea eragotzi egin zitekeela zeremonia egin bitartean inork sarraila giltzaz itxi edo sokari korapiloa egin, eta gero giltza edo soka jaurtitzen bazuen. Giltzak edo soka korapilatuak uretan murgildu behar zuten; eta hura aurkitu eta askatu arte, ezinezkoa zen ezkontideen benetako bategiterik. Horregatik, irain larria zen halako araoa botatzea eta giltza nahiz soka korapilatua lapurtzea edo berarekin hanka egitea. 1718. urtean Bordeleko Parlamentuak pertsona bat bizirik erreta hiltzera kondenatu zuen, familia oso bat soka korapilatuen bitartez hondamendira eramateagatik; eta 1705ean bi pertsonari herio-zigorra ezarri zitzairen Eskozian, emakume batzuek egindako korapilo xarmatu batzuk lapurtu zituztelako, Spalding Ashintillykoaren ezkontza zoriontsua galarazteko asmoz. Xarma haien eraginkortasunak, agi danean, hemezortzigarren mendearen hondarrera arte iraun bide zuen Perthshireko mendialdean. Garai hartan Tummel eta Tay ibaien artean dagoen Logieraiteko parrokia ederrean, gauza arrunta zen emazte eta senargaiaren arropetako korapilo guztiak kontu handiz askatzea ezkontza-zeremonia egin aurretik. Superstizio bera eta ohitura bera topatzen ditugu gaur egun Sirian. Siriar senargai bati ezkontzarako arropak janzen laguntzen dioten pertsonak kontu handia izaten dute korapilorik eta botoirik lotuta ez izateko, uste baitute lotutako botoi edo korapilo batek etsaien esku jarriko lukeela magia baliatuz ezkontideak ezkontza-eskubideez gabetzea. Halako xarmen beldurra Afrikako iparralde osoan dago hedatuta gaur egun. Senargai bat gauzaez bihurtzeko, sorginak aski du haren gorputzean nonbait jarritako musuzapi bati korapiloa egitea, senargaia zaldi gainean andregaia jasotzeko prest dagoenean: musuzapiko korapiloak lotuta irauten duen bitartean, senargaia ez da gauza izango ezkontzari dagozkionak burutzeko.

Gaixotasun, ondoez eta zoritxar-mota guztietan ere ager daiteke korapiloen ahalmen gaiztoa. Afrikako mendebaldeko hosen artean, adibidez, sorgin batek zenbait aldiz esango du etsaiaren izena, eta korapiloa egingo du belar-izpi batean, esanez: "Urlia lotu dut korapilo honetan. Gainera bekizkio gaitz guztiak! Landara doanean, suge batek hozka beza! Ehizara doanean, eraso biezaio piztia gosetu batek! Eta ibairen batera sartzen denean, irents beza urak! Euria egiten duenean, jo beza tximistak! Izan bitza gau txarrak!". Ustea da sorginak etsaiaren bizia korapiloan lotu duela. Koranean ere, "korapiloetan putz egiten duten guztien" gaiztakeria aipatzen da, eta arabiar batek pasarte hori iruzkintzean zera azaltzen du, hitzok magia egiten duten emakumeez ari

direla, soketan korapiloak egin eta gero putz eta tu egiten dieten emakumeez. Jarraian kontatzen du nola, behin batean, judutar gaizto batek soka batean bederatzi korapilo eginez sorgindu zuen Mahoma profeta, eta gero soka putzu batean ezkutatu zuen. Hala, profeta gaixotu egin zen, eta auskalo zer gertatuko zen Gabriel goiaingeruak gizon santuari jakinarazi ez balio korapilatutako soka non zegoen ezkutatuta. Ali zintzoak laster jaso zuen gauza hondagarri hura putzutik; eta profetak arao batzuk jaulki zituen haren gainean, hartarakoxe gaztigatu zitzaizkionak. Eta araoen bertso bakoitzeko, korapilo bat askatzen zen, eta profeta bere onera etorri zen.

Korapiloek hil egiten dutela jotzen bada, baita sendatzen dutela ere. Ondorio hori ateratzen da aipatu pasadizo horretatik, alegia gaixoa oneratu egin zela gaixotasuna eragiten zuten korapiloak deseginez. Baina korapilo gaiztoen bertute horretaz gainera, badira korapilo onuragarriak ere, sendatzeko ahalmen positiboa omen dutenak. Pliniok dioskunez, urlia batek amaraun baten hari bat hartu, bertan zazpi edo bederatzi korapilo eginez, eta gero gaixoaren izterondoan lotzen omen zuen izterrondoko gaitzak sendatzeko; baina sendaketa egiteko beharrezkoa zen korapilo bakoitza lotu ahala alargun baten izena esatea. O'Donovanek turkomanok erabiltzen duten sukarrarentzako erremedio bat deskribatzen du. Sorgileak ganbelu-ile bat hartu eta soka lodi batean txirikordatzen du araoa esanez. Ondoren zazpi korapilo egiten ditu soka, estutu aurretik korapilo bakoitzari putz eginez. Soka korapilatu hau pultsera gisa eraman behar du gaixoak eskumuturrean. Egunero korapilo bat askatu eta putz egiten zaio, eta zazpigarren korapiloa desegiten denean soka osoa baloi baten ingurubiran lotu eta ibaira jaurtitzen da. Berekin eramaten omen du sukarra (halaxe uste dute behintzat).

Orobat, korapiloak maitalea irabazteko eta sendo lotzeko erabil ditzake sorgin batek. Horregatik, Virgilioren neska maiteminduak araoen bidez eta kolore desberdinetako hiru haritan hiru korapilo lotuz erakarri nahi du Dafnis hiritik beragana. Halaberean, neska arabiar bat, bihotza gizon bati emanik, bere zartailuan korapiloak eginez saiatu zen haren maitasuna irabazten eta beragana lotzen; baina aurkari jeloskorrak askatu egin zituen korapiloak. Printzipio berdinarean arabera, magiazko korapiloak ihesa galarazteko erabil daitezke. Swazilandian sarri ikusten dira belar-izpiak korapilatuta bidebazerretan. Korapilo horietako bakoitza etxe batean gertaturiko tragedia baten adierazle da. Emazte batek ihes egin dio senarrari, eta honek bere lagunekin atzetik segitu dio, bideak estekatuz, haiek esan ohi duten bezala, hartara iheslaria bide horietatik itzul ez dadin. Sarea, korapilotan ugaria izaki, beti hartu izan da Errusian sorginen kontrako erremedio oso eraginkortzat; horregatik, leku batzuetan, andregai bat ezkontzarako janzen ari direnean, arrantzarako sare bat esekitzen diote gainean kaltetik libratzeko. Antzeko xedez, senargaia eta honen lagunak ere sare-puskez lotzen dituzte, edo gutxienez gerriko estuez, magia-gizonen batek kalte egin nahi izanez gero, sareko korapilo guztiak desegin edo fajak kendu behar dituelako. Baina sarritan errusiar kuttuna soka korapilatu bat besterik ez da izaten. Artile gorrizko mataza bat beso eta zangoetan lotuta, paludismoaren eta beste sukarren kontra gordetzeko omen da; eta bederatzi mataza haur baten lepo inguruan lotuta, eskarlatinaren babesgarritzat hartzen dira. Tverren, mota berezi bateko poltsa bat lotzen zaio behi bati lepoan, eta beste ganaduaren aurrean jartzen dute, otsoak hurbil ez daitezen; poltsaren indarrak piztia gosetuen masailezurak lotzen ditu. Printzipio beraren arabera, hiru bira ematen dira giltzarrapo batez zaldi-saldo baten inguruan, udaberrian mendialdera abiatu baino lehen, eta zaldi-eramaleak ireki eta itxi egiten du joan doala, esanez: "Giltzarrapo honen bidez otso nabarren ahoak nire zaldi-saldoarentzat itxita uzten ditut".

Korapiloek eta sarrailek, aztiak eta otsoak ezezik, heriotza bera atzerarazteko ere balio dezakete. St. Andrews-en, 1572an, emakume bat, sorgina zela eta, sutan bizirik erretzera zeramatenean, arropa zuri bat aurkitu zioten lepoaren jiran lotuta, korapiloz betetako

hariekin. Kendu egin zioten bere borondatez kontra: uste baitzuen korapilodun hariak zituen arropa hura aldean bazeraman ez zela hilko sutan. Kendu ziotenean, hala esan omen zuen: "Orain ez daukat inolako itxaropenik". Ingalaterrako alde askotan uste da pertsona bat ezin dela hil etxean sarrailek eta txingetak itxita badaude. Beraz, oso ohitura arrunta da gaixoa azkenetan dagoenean sarrailek eta txingetak askatzea, hiltoria behar baino gehiago luza ez dadin. Adibidez, 1863 urtean, Tauntonen, haur bat gaixorik zegoen elgorriarekin, eta heriotzak ezinbesteko zirudien. "Etxekoandreen epaimahai bat eratu zen eta haurrak fin latza izan ez zezan, etxeko ate guztiak, armairu guztiak, kutxa guztiak zabal-zabalik utzi zituzten, giltzatutakoak ere bai, eta haurra zutabe baten azpian jarri zuten, bertatik betierekotasunera errazago eta seguruago pasatuko zelakoan". Harritzekoa bada ere, haurrak itzuri egin zien Tauntongo etxekoandreen zuhurtziak eta esperientziak, hain borondate onez, hiltzeko jarri zizkioten erraztasunei; nahiago izan zuen bizi azken hatsa eman baino.

Zeremonia magiko eta erlijioso batzuetan ilea solte eta oinutsik eduki behar dela dioen arauak ere beldur berdina du oinarri: egilearen buruan zein oinetan egindako korapilo edo loturaren baten bitartez, ez ote duten ekintza oztopatu eta galaraziko, ekintza hori zeinahi delarik ere. Hala jarduera izpiritualak nola gorputzekoak lotzeko eta galarazteko antzeko ahalmen bat egozten diete zenbait herrik eraztunei. Karpatos irlan, adibidez, jendeak inoiz ez ditu lotzen gorpu baten jantzietako botoiak, eta kontu handia izaten dute eraztun guztiak kentzeko; "izan ere izpiritua, diote haiek, hatz txikian bertan ere geraraz daiteke, eta hala ezin hartuko luke atsedetik". Hemen argi ageri denez, nahiz hiltzean arima hatz-puntetatik irteten denik guztiz segurutzat jotzen ez den, hala ere uste da eraztunak baduela ahal bat, izpiritu hilezkorra gerarazteko eta atxilotzeko, nahiz lurrezko tabernakulutik ihes egiteko eginahalak egin. Laburtuz, eraztunak, korapiloak bezala, izpirituarentzako traba gisa jokutzen du. Hortik datorke Pitagorasi leporatzen zaion esaera greko zahar hura, jendeari eraztunak eramatea debekatzen ziona. Inork ez dauka Likosurako Anderearen arkadiar santutegi zaharrean sartzerik, atzamarrean eraztuna badarama. Faunoren orakulua kontsultatzen zuten pertsonak kastu izan behar zuten, eta ez zuten okelarik jan ez eraztunik eraman behar.

Bestetik, arima irtetea galarazten duen lotura berak izpiritu gaiztoen sarrera galaraz dezake; horregatik aurkitzen ditugu deabru, sorgin eta izpirituen kontrako kuttun gisa erabilitako eraztunak. Tirolen esan ohi da hurgiten ari den emakumeak inoiz ez lukeela kendu behar bere ezkontza-eraztuna, bestela izpiritu eta sorginek esku izango bailukete haren gainean. Laponiarren artean, gorpu bat hilkutxan jarri behar duen pertsonak letoizko eraztuna hartzen du hildakoaren senar, emazte edo seme-alabengandik, eta eskuineko besoan ipinita erabili behar du gorpua hilobian laga arte. Uste da izpirituak egin diezaiokeen edozein kalteren kontrako kuttun gisa baliatzen zaiola eraztuna pertsonari. Kontu egitekoa litzateke eraztunek arima gorputzean egonarazteko kuttun gisa duten ahalmenean sinesteak zenbateraino eragin duen eraztunak eramateko ohitura arrunta, ea ohitura hori sineste horretatik sortu den. Hemen zera interesatzen zaigu sineste honetatik Flamen Dialisak, hautsita izan ezik, eraztunik ezin eraman dezakeelako araua argitzen digula. Jantzieta korapilorik izatea debekatzen zion arauarekin batera hartuta, beldur bat erakusten du, beragan gorputzutako izpiritu ahaltsuari irtetea eta sartzea galarazteko eta traba egiteko beldurra (gorputzarentzako eta izpirituarentzako traba ziren eraztunen eta korapiloen bidez).

XXII

Tabututako hitzak

1. Pertsona-izenak tabututa

Hitzak eta gauzak garbi bereizteko gai ez delarik, basatiak sarritan imajinatzen du izenaren eta izendatutako pertsona edo gauzaren arteko lotura ez dela elkarketa

arbitrario eta ideala, baizik eta egiazko eta errotiko lotura, biak lotzen dituen, hala non magia ilearen, azkazalen edo pertsonaren beste parte material baten bitartez bezain erraz eragin daitekeen gizakiagan bere izenaren bidez. Izan ere, gizaki primitiboak bere buruaren osagai garrantzitsutzat dauka bere izena, eta horren arabera zaintzen du. Adibidez, Iparramerikako indiarrek "izena, etiketa huts gisa ez baina bere nortasunaren parte berezi gisa hartzen du, begiak edo hortzak bezala, eta sinesten du berdin etorriko zaiola kaltea izena gaiztoz erabiltzetik nahiz gorputzeko edozein partetan egiten zaion zauritik. Sineste hau Atlantiar Ozeanotik Ozeano Barerainoko tribuetan aurkitu izan da, eta hainbat arau bitxi sorrarazi ditu izenak ezkutatzeaz eta aldatzeaz". Eskimal batzuek izen berriak hartzen dituzte zahartzean, hartara bizia luzatuko dutelako itxaropenez. Celebesko tolampuek sinesten dute gizon baten izena idatziz gero, izenarekin batera arima ere eramán daitekeela. Basati askok gaur egun beren buruen osagai garrantzitsutzat hartzen dituzte beren izenak eta, beraz, neke handiak hartzen dituzte benetako izena ezkutatzeke, borondate gaiztoko pertsonen kalte egiteko biderik ez emateko.

Gizarte-eskalaren hondoan kokatutako basatietatik hasiz, australiar jatorrikoen artean pertsona-izenak hainbesteko sekretuz gordetzea, kontatu zaigunez, "sineste honetatik dator neurri handi batean: zure izena dakien etsai batek magia zure kaltetan erabil dezakeen zerbait duela hura". "Australiar beltz batek", dio beste idazle batek, "sekula ez dizu esango bere benetako izena, eta hori beldurrari zor zaio ezbairik gabe, izenaren bitartez sorgileek kalte egingo ote dioten beldurrari". Australiako erdialdeko tribuen artean gizon, emakume eta haur bakoitzak, eskuarki erabilitako pertsona-izenaz gainera, izen sekretu edo sakratu bat du, jaio eta berehala agureek emandakoa, eta taldeko kide erabat iniziatuek ezik inork ezagutzen ez duena. Izen sekretu hori inoiz ez da aipatzen, abagune larrietan izan ezik; beste talde bateko gizon edo emakumeek entzuteko moduan esatea tribuko ohituraren haustura larriena litzateke, gure artean sakrilegorik nabarmenena bezalakoa. Izena esaten denean, txutxu-mutxu batean ahoskatzen da, eta neurri guztiak hartu ondoren taldekideek baino entzun ez dezaten. "Bertakoak uste du izen sekretua ezagutzen duen arrotzak ahalmen berezia izango lukeela bera magiaren bitartez gaixotzeko".

Beldur berak ohitura berdintsua sorrarazi zuen antzinako egiptoarren artean. Hauen zibilizazioa, beste batzuen aldean aurreratua bazen ere, basakeria baxuenaren aztarnekin galgatua eta azpiratua zegoen. Egiptoar bakoitzak bi izen hartzen zituen: egiazko izena eta izen ona, edo izen handia eta izen txikia; eta izen on edo txikia jendeari jakinarazten zitzaion bezala, izen egiazko edo handia, nonbait, kontu handiz ezkutatzen zen. Haur brahman batek bi izen hartzen ditu, bat eguneroko erabilerarako, bestea izen sekretua, inork ez dakiena, aitamek ezik. Bigarrena ezkontza eta gisa horretako zeremonietan bakarrik erabiltzen da. Pertsona magiatik babesteko omen da ohitura hori, xarma bat izen egiazkoarekin bakarrik sartzen baita indarrean. Era beretsuan, Nias irlakoek sinesten dute pertsona baten izena entzuten duten deabruak gaitz egin diezaioketela pertsona horri. Horregatik, inoiz ez da esaten haurren izenik, izpiritu gaiztoen erasoan arriskurik handienez baitaude; eta sarritan, leku sorginduetan, hala nola basoko lekuri ilunenetan, ibai ertzetan, edo iturri polpolkari baten ondoan, gizakiek ez diote beren izenez deitzen elkarri, arrazoi beragatik.

Chiloé irlako indiarrek isilpean gordetzen dituzte beren izenak, eta ez dute gogoko haiek ozenki esatea; diotenez, kontinentean edo auzo-irletan maitagarriak eta iratxoak dira eta, jendearen izenak jakingo balituzte, kalte egingo liekete; baina izenik ez dakiten bitartean, izpiritu gaizkile horiek indarge omen dira. Araukaniarrek nekez esango diote beren izenik arrotzen bati, beldurrez hartara arrotzak ez ote lukeen naturaz gaundiko ahalen bat beren gainean. Arrotzen batek, haien superstizioak ezagutu ezta, izena

galdetuko balio, araukaniarrak "ez dut" erantzungo du. Ojibwari izena galdetzen diotenean, handik pasatzen den norbaiti begiratu eta erantzuteko eskatuko dio. "Beldur hori gaztetan bereganatzen duten sineste sendo batetik sortua da, alegia beren izenak errepikatuko balituzte, ez liratekeela haziko, txiki geratuko liratekeela. Izena esan nahi ez hau dela eta, arrotz askok pentsatu izan dute indiar horiek ez dutela izenik, edota ahaztu egin zaiela".

Azken kasu honetan ageri denez, ez dirudi inolako kezkarik dagoenik beste inoren izena arrotzei jakinarazteko, eta ez dirudi izenaren jabea ondorio txarren beldurrez dagoenik. Kaltea nork bere izena esaten duenean etorriko litzateke. Zergatik ote hau? Eta zergatik hain zuzen hazkundera galarazi nork bere izena esanez gero? Aieru hau egin genezake, hala jarduten eta pentsatzen duten basatiei norberaren izena nork bere hatsaz esaten duenean bakarrik iruditzen zaiela norberaren osagai; besteren hatsaz esanda, ez du lotura hertsirik berarekin, eta hortik ezin etor dakioko gaitzik. Aldiz, honela argudiatuko lukete filosofo primitibo hauek: gizon batek bere izena ezpainez kanpora pasatzen utziko balu, hura beraren bizi-puska batekin batera doa, eta hain modu axolagabean jarduten segitzen badu, azkenean alferrik galduko ditu bere indar guztia eta gorpuzkera. Moralista sinple hauek bizioak akitutako asko, gaixotasunak ahuldutako asko erakutsiko zizkieten beren ikasle ikaratuei, bere izena esateko ohitura atseginean neurrigabe irauten zuen lizunkoiari lehenago edo geroago etorriko zitzaion patuaren adibide beldurgarriak zirelakoan.

Arrazoia edozein izanda ere, kontua da basati askok nahiezik handiena ageri duela bere izena esateko, baina aldi berean ez duela inolako erreparorik bestek esan dezan, eta beste hori bultzatu ere egingo duela galdezka datorren arrotz baten jakinmina asetzeko. Madagaskarko zenbait aldetan, tabu da nork bere izena esatea, baina esklabo edo laguntzaileak esan dezake. Zentzugabekeria bitxi bera, halaxe iruditzen zaigu behintzat guri, ikusi izan da zenbait tribu amerindiarretan. Kontatu zaigunez, "Amerikako indiarren izena gauza sakratua da, jabeak berak behar besteko ardura jarri gabe zabaldu behar ez duena. Eskatu tribu bateko gerrari bati izena emateko, eta uko biribila egingo dizu, edota, ihesbide xuriagoz, erantzungo dizu ez duela ulertzen zer esaten zaion. Lagun bat hurbiltzen denean, gerrariak eskatu zaionaren berri emango dio ahapeka, eta lagunak esango du izena, baita bestearengandik gizabidezko esker ona jaso ere". Adierazpen orokor hau dagokie, adibidez, Britainiar Columbiako tribu indiarrei. Hara zer esaten den hauetaz: "Aurriritzirik arraroena, antzeko tribu guztiak kezkatzen bide dituen nonbait, beren izenak esateko gogorik eza da; inork ez dizu bere izena esango; baina inolako zalantzarik gabe emango dizkizute elkarren izenak". Ekialdeko Indietako artxipelago osoan gauza bera gertatzen da. Arau orokor gisa, inork ez du bere izenik esango. "Nola duzu izena?" galdetzea oso galdera traketsa da gizarte hartan. Arazo administratibo edo judizialak direla eta, bertako bati izena galdetzen diotenean, erantzun beharrean lagunari begiratuko dio, hark erantzun dezan, edota zuzenean esango du "galde honi". Superstizioa Ekialdeko India osoan zabalduta dago, salbuespenik gabe, eta berdin aurkitzen da Motu eta Motumotu tribuetan, Ginea Berriko iparraldean dagoen Finsch Havengo papuengan, Holandar Ginea Berriko nufurengan, eta Bismarck artxipelagoko melanesiarrengan. Hegoafrikako tribu askotan, gizon eta emakumeek inoiz ez dute beren izena esaten beste inor hori egiteko hurrean bada, baina ez dira inola ere isiltzen beste biderik ez dutenean.

Batzuetan pertsona-izenen bahitura ez da betiko izaten; hainbat gora-beheraren arabera izaten da, eta gora-behera horiek aldatzean amaitu egiten da. Nanditar gizonak, adibidez, erasoaldi batean urrun direnean, etxean inork ez ditzake ahoska kanpoan diren gerrarien izenak; txoriak bailiran aipatu behar dira. Haurren batek hau ahaztu eta urrundutako baten izena aipa baleza, amak errieta egingo lioke hau esanez:

"Ez hitz egin zeruan diren txoriez". Kongo Garaiko bangalatarren artean, gizona arrantzan ari den bitartean eta arrantzarekin itzultzen denean, haren izenak isilpean egon behar izaten du, inork ez dezake aipa. Arrantzalearen izena zeinahi delarik, mwele deitzen diote, bereizketarik gabe. Zergatik? Ibaia izpirituz beteta dagoelako; izpirituok, arrantzalearen benetako izena entzunez gero, haren kontra jardun lezakete oso gutxi edo batere harrapa ez dezan. Arrainak harrapatu eta lehorreratu ondoren ere, eroslea ez zaio bere izenez zuzenduko, mwele esango dio; zeren eta orduan ere, izpirituek haren izena entzungo balute, gogoan gorde bailezakete eta hartaz baliatu beste egunen batean, edota harrapatutako arraina alferrik galduko bailukete, hark salmentan oso diru gutxi atera lezan. Horregatik, arrantzaleak kalte-ordain handiak jaso litzake bere izena esaten duen edonorengandik, edo hitzun burugabea arraina prezio onean jartzera behar dezake, hartara bere zorte ona itzul dakion. Britainia Berriko sulkak gaktei etsaien lurralde inguruetan dabiltzanean, kontu handia izaten dute haien izenik ez aipatzeko, hala egitera etsaiek eraso eta hil egingo lituzketelakoan. Horregatik, halakoetan gakteiak aipatzeko o lapsiek esaten dute, hau da, "zuhaitz-enbor ustelak", eta imajinatzen dute hala deituta etsai beldurgarrien soin-atalak astun eta trakets bihurtuko dituztela, enborrak bailiran. Adibide horrek argitzen du basatiek zein ikuspegi materiala duten hitzen izaeraz; uste dute trakestasuna adierazten duten hitzak esate hutsak trakestasuna damaiela urruneko etsaien soin-atale. Kafreen superstizio batek ematen digu burugabekeria honen beste adibide bat: lapur baten izaera aldarazi egin omen daiteke haren izena sendagaidun ura irakiten daukan lapiko baten gainean oihukatuz, gero lapikoa tapa batez estaliz eta izena zenbait egunez uretan utziz. Ez da beharrezkoa lapurra bere izena ezkutuan nola erabiltzen duten ohar dadin; aldaketa morala hark jakin gabe gertatuko da.

Gizon baten benetako izena isilpean gordetzea derrigorrezko jotzen denean, sarritan, goitizen edo ezizen batez deitu ohi zaio, ikusi dugunez. Benetako edo lehen izenaren desberdina denez, bigarren izen hori nonbait ez da hartzen gizonaren osagaitzat, eta hartara libre erabil daiteke eta edonori jakinarazi, hori egitean pertsona arriskuan jarri gabe. Batzuetan norberaren izena erabiltzea saiheste aldera, gizon bati bere haurraren izenaz deitzen zaio. Jakinarazi zaigunez, "gippsland beltzek eragozpen handiak jartzen zituzten tribuz kanpoko nornahiri beren izenak gaztigatzeko, etsaiek, haiek entzunik, sorginkeriarako bidea hartu eta bizia ken ziezaiketelakoan. Haurrek etsairik ez zutela ematen zenez, gizon batez hitz egitean "halakoren aita, osaba edo lehengusua" deitzen zioten, haurra izendatuz; baina pertsona helduaren izena aipatzeke beti ere". Posoko alfurek, Celebesen, ez dute beren izenik ahoskatuko. Beraz, haietako inoren izena jakin nahi bazenu, ez daukazu gizonari berari galdetzerik, beste batzuei baizik. Baina hori ezinezkoa bada, hurbilean inor ez dagoelako edo, haurraren izena galde zeniezaioke, eta gero "halakoren aita" esanez jardun berarekin. Are gehiago, alfur horiek izu izaten dira are haurren izenak botatzeko ere; beraz, mutiko edo neskato batek ilobarik badu, "halakoren osaba" edo "halakoren izeba" esanez zuzentzen zaizkio. Malakar gizarte jatorrean, kontatu zaigunez, gizon bati inoiz ez zaio izena galdetzen, eta gurasoei haurren izenez deitzeko ohitura, gurasoen beren izenak ez erabili ahal izateko bakarrik onartzen da. Adierazpen hau egiten duen idazleak eranstean du, berrespen gisa, haurrik gabeko pertsonen anai-arreba gazteenen izenez deitzen zaiela. Lehorreko dayaken artean, haurrak hazi ahala, sexuaren arabera, aitaren edo amaren anaia edo arreba gazteenaren haurraren aita edo ama deitzen diete, hau da, guk lehengusu deituko geniokeenaren aita edo ama. Kafreek begirunez kontrakoa jotzen zuten emaztegai bati bere izenaz deitzea eta, beraz, "Urliaren ama" deitzen zioten, nahiz ezkontitza besterik emana izan ez, emazte edo ama izan gabe alegia. Assamgo kuki eta zemi edo cacha nagatarren artean, haurra jaio ondoren, gurasoek utzi egiten dituzte beren izenak eta halakoren aita eta ama deitzen zaie. Haurrik gabeko bikoteek "haurrik gabeko aita",

"haurrik gabeko ama", "inoren aita ez dena", "inoren ama ez dena" hartzen dute izentzat. Aita haurraren arabera izendatzeko ohitura hedatu hori aitaren nahi batetik sortua dela jo izan da batzuetan, alegia bere aitatasuna berresteko desiratik sortua dela. Hartara, haurren gaineko eskubideak bereganatuko zituzkeen, alegia aurrez amak zeuzkan eskubideak, amaren araberrako genealogi sistema izaki haiena. Baina orduan zergatik izendatu ama haurraren bitartez? Hau ere aita haurraren bitartez izendatzearen pareko ohitura baita. Bide beretik, zergatik deitu haurrik gabeko bikoteei ez dituzten haurren aita eta ama, zergatik izendatu jendea anai-arreba gazteagoen arabera, eta zergatik izendatu haurrak halakoren osaba-izebak edota lehengusu-lehengusinen aita edo ama? Guztiz desagokia da azalpen hori. Baina ohitura horiek guztiak era sinple eta naturalez azal daitezke honako hau onartuz gero, alegia pertsonen benetako izenak esateko gogorik ezetik sortuak direla. Gogorik ez hori, seguruenik, alde izpiritu gaiztoen arreta erakartzeko beldurrean oinarritzen da, eta alde izena sorginei jakinarazteko beldurrean, hartara izenaren jabeari kalte egiteko bidea izango bailukete.

2. Senideen izenak tabututa

Pentsa liteke pertsona-izenen kasuan hain arrunta den ardura hori alde batera utz litekeela edota gutxienez laxatu egingo dela sendi barruan eta lagunartean. Baina sarritan alderantziz gertatzen da. Hain zuzen, lotura estuenak dituzten pertsonen dagokie araua batez ere, odolez eta bereziki ezkontzaz lotutakoei alegia. Halako jendeari debekatu egiten zaio sarritan, elkarren izenak esatea ezezik, izen horien antza duten edota silaba bakar bat berdina duten hitz arruntak esatea ere. Elkarren izena aipatu ezin duten pertsonak senar-emazteak, senarra eta emaztearen gurasoak, eta emaztea eta senarraren aita dira. Adibidez, kafreen artean emakume batek ez dauka senarraren edo honen anaien jaiotzazko izena jendaurrean esaterik, eta ez dauka hitz debekatua bere zentzu arruntean erabiltzerik. Baldin eta senarrak izena, konparazio batera, u-Mpaka balu (impaka-tik dator izen hau, katuki txiki baten izenetik alegia), beste izen bat erabiliz hitz egin beharko du piztia horretaz. Gainera, emazte kafreak debekatuta dauka aitagarrebarren eta senarraren beste arbaso gizonezkoen izenak ahoskatzea, are gogoan izatea ere; eta haien izenen baten silaba tonikoa beste hitzen batean ageri bada, saihestu egin behar du, hitz osoa ordezkatzuz edota, besterik ezean, haren orde besta silaba bat jarritz. Horregatik, ohitura horretatik hizkera berezia sortu da emakumeen artean, kafreak "emakume-hizketa" deritzotena. "Emakume-hizketa" horren interpretazioa oso zaila da noski, "ez baitago arau zehatzik ordezeko hitz horiek eratzeko, eta ez daitezke hiztegiak osa, hain kopuru handia izaki; izan ere, tribu bereko emakume askok jatorrizko hitzak berak erabiltzeko bezain askatasun gutxi dute beste emakume batzuek erabilitako ordezekoak erabiltzeko". Gizon kafreak, bere aldetik, ezin du aipatu amagarrebarren izena, ezta honek ere harena; baina gizonezkoak libre du emakumearen izenaren silaba tonikoa beste hitz batzuetan ageri arren hitz horiek esateko. Emakume kirgiza ez da ausartuko senarraren senide zaharren izenak esatera, ezta hotsean haien antza duten izenak erabiltzera ere. Adibidez, senide horietako bati Artzain baderitza, ez dauka ardiez hitz egiterik, "marraka egiten dutenak" esanez aipatu behar ditu; haren izena Bildots bada, bildotsez hitz egitean "marraka egiten duten gazteak" esango du. Indiako hegoaldean emazteek uste dute senarraren izena esanez gero, are ametsetan ere, hura garaiz baino lehen hilko litzatekeela. Itsasoko dayaken artean, gizonak ezin du ahoskatu aitagarrebarren edo amagarrebarren izena izpirituak haserrarazi gabe. Eta aitagarreba eta amagarrebatzat, emaztearen aita eta ama ezezik, anaien emazteen eta arreben senarren aitamak eta lehengusu guztien aitamak ere badauzkanez, tabututako izenen kopurua izugarri handia da, eta huts egiteko aukerak ere bai. Gauzak are gehiago nahasteko, pertsona-izenak gauza arrunten izenak izaten dira sarri, hala nola ilargi, zubi, oilolo, kobra, leopardo. Beraz, gizon baten aitagarreba edo

amaginarreba ugarietako baten izena horietako bat bada, ezin ahoska dezake hitz arrunt hori. Minahassako alfuren ohitura, Celebesen, areago doa: hotsez pertsona-izenen antzekoak diren hitzak erabiltzea debekatzeraino. Batez ere aitaginarrebaren izena jartzen da debekuean. Esate batera, hari Kalala baderitza, haren suhiak ezin hitz egingo du zaldiaz kawalo izen arrunta erabiliz; "zamalkatzeko aberea" (sasakajan) deitu beharko dio. Adibidez, Buru irlako alfurentzat tabu da gurasoen eta aitamaginarreben izenak esatea, edo are gauza arruntez mintzatzea ere hots-antzeko diren hitzak erabiliz. Esaterako, amaginarrebari Dalu baderitza, "betel" alegia, ez dago izen arrunt hori erabiliz betelaz galdetzerik, "aho gorria" eskatu behar da; betel-hostoa nahi bada, ezin da esan betel-hosto (dalu ´mun), karon fenna esan behar da. Irla hartan tabu da anaia zaharragoaren izena beraren aurrean aipatzea ere. Arau hauek haustea isunez zigortzen da. Sundan uste dute labore jakin bat galdu egingo dela baldin eta gizon batek aitaren eta amaren izenak aipatzen baditu.

Holandar Ginea Berriko nufuren artean, ezkontzaz senide egiten diren pertsonen debekatua dute elkarren izena aipatzea. Tabututa daude, besteak beste, emaztea, amaginarreba, aitaginarreba, emaztearen osaba-izebak eta aiton-amonen anai-arrebak eta senarraren edo emaztearen familia osoa, senar edo emazte horren belaunaldian. Salbuespen bakarra, gizonek koinatuen izenak aipatu ahal izatea da; emakumeek, ordea, ez. Tabua ezkontitza eman bezain laster eta ezkontza bera ospatu baino lehen sartzen da indarrean. Bi kideren ezkontitzez senidetutako familiek, elkarren izena esatea debekatuta izateaz gainera, ezin begira diezaiokete elkarri, eta arau honek ikuskizunik barregarrienak sorrarazten ditu inoiz ezustean topo egiten badute. Eta izen hutsei ezezik, haien antza duen edozein hitzi ere kontu handiz egiten diote izkina, eta beste hitz batzuk erabiltzen dituzte ordeztu. Norbaitek oharkabea debekatutako izen bat esatea gerta baledi, bat-batean etzan behar du lurtean eta hauxe esan, "oker esan dut izena. Zoruko zirrikituetatik jaurtiko dut, ondo jan ahal dezadan".

Torres itsasartearen mendebaldeko irlatan gizon batek inoiz ez zuen esango aitaginarrebaren, amaginarrebaren, koinatu-koinaten izenik; eta debeku berak lotzen zuen emakumea ere. Koinatuaz, izendagarri zen norbaiten senarra edo anaia zela esanez hitz egin zitekeen; eta era berean, koinatari halakoren emaztea dei zekioketen. Gizon batek oharkabea koinatuaren izena erabiltzen bazuen, lotsa-lotsa eginda eta burua makur geratzen zen. Lotsa hura gainetik kenduko bazuen, opari bat egin behar zion premiarik gabe erabilitako izenaren jabeari. Ordain berdina egiten zitzaion koinatari eta amaginarrebari, haien izenak nahi ezta esanez gero. Britainia Berriko Gazelle penintsulako kostaldean bizi diren natiboei, koinatuaren izena aipatzea da egin dakiekeen irainik larriena; heriotzaz zigor daitekeen krimena da. Banks irlatan, Melanesian, ezkontzaz senidetutako pertsonen izenetan jarritako tabuak oso estuak dira. Gizon batek ez du aipatuko aitaginarrebaren izena, askoz gutxiago amaginarrebarena, ezta emaztearen anaiarena ere; baina izenda dezake emaztearen ahizpa, hura ez baita ezer berarentzat. Emakumeak ezin du izendatu koinaturik edo suhirik, inondik inora. Seme-alabak elkarrekin ezkondu zaizkien bi pertsonak ere debekatua dute elkarren izenak aipatzea. Eta pertsona horiek guztiek ez dute elkarren izenak esateko debekua bakarrik; ezin dituzte ahoskatu izen horien berdinak edota silabaren bat berdina duten hitz arruntak ere. Entzuna dugu irla horietako batek ezin zituela erabili "zerri" eta "hil" adierazteko hitz arruntak, hitz horiek suhiaren izen silabanitzean ageri zirelako. Beste zorigaitzoko batek ere ezin omen zituen ahoskatu "esku" eta "bero" hitz egunerokoak, emaztearen anaiaren izena zela eta, eta bat zenbakia ere ezin omen zuen esan, "bat" adierazteko hitza emaztearen lehengusu baten izenean ageri zelako.

Hiztunarekin ezkontzaz senidetutako pertsonen izenak edota silabak aipatzeko gogorik eza nekez bereiz daiteke hainbat jende beren izenak edo hildakoen nahiz buruzagi eta

erregeen izenak esateko ageri duten nahiezetik; eta azken izen hauekiko isilgura batez ere superstiziotik sortzen bada, ondorio hau atera genezake, lehenekiko isilgurak ere ez duela beste oinarririk. Dagoeneko erakutsia dugu basatiak bere izena aipatzeko borondaterik eza, besteak beste, beldur superstiziotsu batean oinarrituta dagoela, alegia etsaiek, gizaki nahiz izpiritu, hartaz egin dezaketen erabileraren beldurrean. Orain hildakoen eta erregeen izenez egiten den antzeko erabilera geratzen zaigu aztertzeko.

3. Hildakoen izenak tabututa

Hildakoen izenak inola ere ez aipatzeko ohitura zuten antzina Kaukasoko albaniarrek, eta gaur egun indar-indarrean dago tribu basati askotan. Kontatu digutenez, australiar jatorrikoek atxikimendu handienaz gordetako eta betearazitako ohitura bat dute: hildako pertsona baten izena inoiz ez aipatzea, gizonetzkoa nahiz emakumezkoa izan. Zendutako baten izena ozenki esatea haien aurriritzi sakratuenetako bati bortxa larria egitea litzateke, eta kontu handia izaten dute halakorik ez egiteko. Horren arrazoi nagusia izpirituari dei egiteko beldurra da, antza denez, nahiz iraganeko tristurak berpizteko berezko gogorik ezak ere, ezbairik gabe, bere pisua duen hildakoen izenen gainean ahanzturaren oihala zabaltzeko. Behin batean Oldfield jaunak izugarri ikaratu zuen bertako bat hildako pertsona baten izena deiadarka esanez. Gizon hark hanka egin zuen ziztu bizian, eta egunetan ez zen berriro agertzera ausartu. Hurrengo bildu zirenean, garrazki aurpegiratu zion gizon zuri zakarrari hain aho-handi izatea; "eta ezin izan nuen inola ere behartu" diosku Oldfield jaunak, "hildako gizon baten izenaren hots izugarria esatera, hala eginez gero izpiritu gaiztoen menpe jarriko baitzukeen bere burua". Victoriako natiboen artean oso-oso gutxitan hitz egin ohi zen hildakoez, eta halakoetan ere inoiz ez haien izenak aipatuz; ahapeka, "galdutako hura" edo "zendutako gizajoa" esanez aipatzen zuten hildakoa. Haietaz izen eta guzti jarduteak, nonbait, Couit-gil-en -hots, zendutakoaren izpirituaren- gaiztorakoak piztuko zituzkeen, lurrean ibiltzen baita aldi batez hara eta hona, sartaldeko eguzkirantz betiko aldegin aurretik. Murray ibaiaren behe-ibilguko tribuez kontatu zaigunez, norbait hiltzen denean "kontu handia izaten dute izena ez aipatzeko; baina aipatu beharra izanez gero, oso ahapetik, txutxu-mutxuka esaten dute, izpirituak ahotsik ez entzuteko moduan". Australiako erdialdeko tribuetan, dolualdian ez dago hildakoaren izena esaterik behar-beharrezko ez bada, eta orduan ere susmur batean, gizakiaren izpiritua gogaitarazteko eta nekarazteko beldurrez, izpiritu gisa baitabil han zehar. Izpirituak bere izena adituko balu, pentsatuko luke senideek ez dutela dolua behar bezala ekartzen; izan ere, tristura benetakoa izatera, ez lukete bere izena hala erabiliko. Beraz, haien bihotz gogorragatik minduta, izpiritu haserretua ikaratzera etorriko zaie ametsetan.

Hildakoen izenak esan nahi ez berberak irauten du, agi danean, Amerikako tribu indiar guztietan, hasi Hudson badiako lurretatik eta Patagoniaraino. Kolonbiako guajiroen artean oso irain larria da hildakoa senideen aurrean aipatzea, eta sarritan heriotzaz zigortzen da; aipamena hildakoaren rantxoan gerta baledi, ilobaren edo osabaren aurrean, hauek ahal izanez gero, jo eta bertan hilko lukete iraingilea. Baina honek ihes egitea lortzen badu, zigorra isun handi bat izaten da, idi bat edo bikoa gehienetan.

Hildakoen izenak aipatu nahi ez berdina omen dute elkarretarik oso urrun dauden herriek, hala nola Siberiako samoiedoek eta Indiako hegoaldeko todatarrek; Tartariako mongolek eta Saharako tuaregek; Japoniako ainoek eta Afrikako ekialdeko akanba eta nandiek; Filipinetako tingianek eta Nikobar irltako, Borneoko, Madagaskarko eta Tasmaniako biztanleek. Kasu guztietan, baita argi eta garbi adierazten ez denean ere, baztertze honen arrazoi nagusia izpirituari dioten beldurra dateke. Tuaregen artean behintzat horixe da arrazoia, jakinarazi zaigunez. Beldur dira hildako gizakiaren izpiritua itzuliko ote den, eta ahal duten guztia egiten dute halakorik gerta ez dadin: heriotza baten ondoren kanpalekua aldatu, zendutakoaren izena esateari betiko utzi, eta

haren arimaren oroigarri oro ekidin. Horregatik, ez dituzte norbanakoak pertsona-izenei gurasoen izenak erantsiz izendatzen, arabiarrek bezala; inoiz ez dute esaten urlia, sandiaren semea; gizon bakoitzari izen bat ematen diote, berarekin bizi eta berarekin hiltzen dena. Halaxe zen Australiako Victoria aldeko tribu batzuetan ere, pertsona-izenak oso gutxitan pasatzen ziren belaunaldi batetik bestera: uste zuten inork hildako baten izena hartuz gero, ez zela luze biziko; izenkide zuen izpiritua etorri eta berekin eramango zuela izpirituen lurraldera.

Izpirituaren beldur berak, jendea izenez aldatzera behartzen duenak, berez eramaten ditu antzeko izena duten pertsona guztiak beste batez ordezkatzera, hura esateak izpirituaren arreta erakar ez dezan; pentsatzekoa baita izpirituak ez dituela bereiziko izen horren erabilpen desberdinak. Kontatu digutenez, Australiako hegoaldeko Adelaidan eta Encounter badian bizi diren tribuetan, hil berri direnen izenak aipatzeko narda hainbestearainokoa da, non hildakoaren izen bera duten pertsonak beste izen bat hartzen baitute aldi baterako, edota duten beste izenen batez aipatzen dituzte. Gisa horretako ohiturak irauten du Queenslandeko tribuetan; baina hildakoen izenak erabiltzeko debekua ez da behin-betikoa, nahiz eta urteetan iraun dezakeen. Australiako zenbait tributan hala gertaturiko izen-aldaketa behin-betikoa izan ohi da; izen zaharra betiko baztertzen da, eta gizakia izen berriaz ezagutzen dute bizi osorako, edota gutxienez, arrazoi bera dela medio, atzera aldatzera behartzen den arte. Iparramerikako tribu indiarretan hil berri zen norbaiten izena zuten pertsona guztiak, gizon eta emakume, behartuta zeuden hura utzi eta beste bat hartzera, eta egin ere halaxe egiten zuten hildakoaren doluzko lehen zeremonian. Mendi Harritsuen ekialdeko tribu batzuetan izen-aldaketa honek dolualdian irauten zuen, baina Iparramerikako Ozeano Bareko kostaldean bizi ziren beste tribu batzuetan badirudi behin-betikoa izaten zela.

Batzuetan, arrazoibide horren hedapenez, hildakoaren senide hurbil guztiek aldatzen dute izena, zeinahi delarik ere, izen ezagunen hotsak noraezean dabilen izpiritua etxe zaharrera erakarriko ote lukeen beldurrez, ezbairik gabe. Victoriako zenbait tributan, esaterako, senide hurbilen izen arruntak baztertu egiten ziren dolualdian, eta azturak ezarritako hitz orokor batzuk hartzen zituzten haien ordeiz. Dolu-ekarle bati bere izenaz deitzea hildakoarentzako iraintzat hartzen zen, eta sarritan borroka eta odol-isurtzea ekartzen zuen. Amerikako iparmendebaldeko tribu indiarren artean, hildakoaren senide hurbilek maiz aldatzen dituzte izenak, "izpirituak, behin eta berriz errepikatutako izen ezagunak entzuten badituzte, lurrera etorriko direlakoan". Kiowa indiarren artean, hildakoaren izena inoiz ez da senideen aurrean esaten, eta familiako norbait hiltzen denean, beste guztiek izen berriak hartzen dituzte. Raleighen kolonoak ere ohartu ziren ohitura honetaz Roanoke irlan, orain dela hiru mende baino gehiago. Lengua indiarren artean, hildako gizon baten izena inoiz ez aipatzeaz gainera, bizirik geratutako guztiek aldatzen dituzte izenak. Esan ohi dutenez, Herio beren artera etorri da, bizidunen zerrenda eraman du, eta laster itzuliko da biktima gehiagoren bila; horregatik, haren asmo ankerrak huts egin dezan, izenak aldatzen dituzte; Heriok, denak bere zerrendan dituen arren, ezin ezagutuko omen ditu izen berriekin, eta beste norabait aldegingo omen du bila. Nikobarko dolu-ekarleek izen berriak hartzen dituzte izpirituaren arreta nardagarriari ihes egiteko; eta xede berberaz moztortzen dira buruak erabat soilduz, hartara izpirituak ezagut ez ditzan.

Are gehiago, hildako baten izena objektu arrunt batena denean, hala nola abere batena, landare batena, sua edo ura, batzuetan beharrezko irizten diote hitz hori hizketa arruntean baztertu eta beste batez ordezkatzeari. Horrelako ohitura, bistan da, oso erraz bihur daiteke hizkuntza-aldaketarako eragile indartsu; izan ere, ohiturak hedatu samar irauten duen lekuan, hitz asko zaharkituko dira etengabe, eta berriak sortuko dira. Hainbat azterlarik azpimarratu dute joera hau, aztura Australian, Amerikan eta beste

hainbat lekutan aurkituta. Adibidez, australiar jatorrikoei dagokienez, "dialektoak tribu batetik bestera aldatzen dira. Tribu batzuek naturako gauzen izenak ematen dizkiete haurrei; eta halako izena duen pertsona hiltzen denean, hitz arrunt hori ez da berriro aipatzen; beste hitz bat asmatu behar izaten da, beraz, haurraren izen berdina duen gauzarentzat". Idazleak gizon baten adibidea ematen du: haren izenak, Karla, "sua" esan nahi zuen; Karla hil zenean, beste hitz bat hartu behar izan zen sua adierazteko. "Horregatik", eransten du idazleak, "hizkuntza beti ari da aldatzen". Orobat, Australiako hegoaldeko Encounter badiako tribuan, baldin eta Ngnke -ura- deritzan norbait hilko balitz, denboraldi luzean beste hitz bat erabili beharko luke tribu osoak ura adierazteko. Ohitura honen berri ematen duen idazleak dio ulertzekoa dela tribuaren hizkuntzan hainbeste sinonimo izatea. Aieru hau berretsi egiten du Victoriako zenbait tribuz dakigunak: hauen hizketak sinonimo-multzo erregularra zeukan, tribukide guztiek dolualdietan hitz arrunten ordeztatu erabiltzekoak. Adibidez, Waa ("bele") zeritzan gizon batek bizia galtzen bazuen, harentzako dolualdian inork ez zeukan beleari waa deitzerik; denek esango zuten narrapart txori horretaz hitz egitean. "Eratzunezko isasdun zarigueia" (weearn) titulua izateko ohorea zuen lagun bat, bizidun orok zor duenez, zendu zenean, senide tristatuek eta tribu osoak, zarigueiez aritzean, manuungkuurt izen ozenagoa erabili behar izan zuten aldi batez. Baldin komunitatea Indioilar Basoilo izen ohoretsua zuen emakume itzal handikoa galtzeagatik doluminean murgilduta bazegoen, indioilar basoiloentzako izena, barrim barrim alegia, baztertu egiten zen, eta tillit tilliitsh hartzen zen. Eta halaxe mutatis mutandis, Kakatua Beltz, Ahate Arre, Kurriilo Erraldoi, Kangura, Arrano, Dingo eta beste guztien kasuan ere.

Antzeko ohitura batek etengabe eraldatzen zuen Paraguayko abiponeen hizkuntza; hauen artean, ordea, badirudi hitz bat ezabatu ondoren inoiz ez dela berpiztu. Dobrizhoffer misiolariak dioenez, perretxikoak gau batean bezala hedatzen ziren urtero hitz berriak; hildakoen izenen traza zuten hitz guztiak ezabatuta geratzen baitziren aldarrikapen baten bidez, eta beste batzuk asmatzen ziren haien ordeztatu. Hitzak sortzea tribuko andre zaharren esku zegoen, eta beren onarpenaz zigilatutako eta bideratutako hitz oro berehala onartzen zuten denek, handiek nahiz txikiek, inolako murmurrik gabe, eta sua basoan bezala zabaltzen zen tribuko kanpamentu eta kokaleku guztietan zehar. Harrigarria da, dio misiolari horrek, zein emeki onesten duen nazio osoak atso ximur baten erabakia, eta zein modu erabatekoan geratzen diren hitz ezagun zaharrak erabileratik kanpo, eta inoiz ez diren berriro esaten, ezta ohituraren edo ahazturaren poderioz ere. Dobrizhofferrek indiar haien artean eman zituen zazpi urteetan, jaguar adierazteko hitza hiru aldiz aldatu zen, eta krokodilo, arantza eta ganadu-hiltzea adierazteko hitzek ere antzeko gora-beherak jasan zituzten, hainbesteko aldaketarik gabe baina. Ohitura honen ondorioz, misiolarien hiztegiak zirriborrotz belztuta zeuden: hitz zaharrak ezabatu, baliogabeak izaki, eta berriak ezarri behar izaten zituzten haien lekuan. Britainiar Ginea Berriko tribu askotan, pertsonen izenak gauza arrunten izenak ere izan ohi dira. Bertakoek uste dute hildako pertsona baten izena esaten bada, haren izpiritua itzuli egingo dela, eta hura atzera beren artean ikusteko gogorik batere ez dutenez, izen hura aipatzea tabututa dago; beraz, hitz berria asmatzen dute haren lekua hartzeko, hitza hizkuntzako izen arrunta denean. Ondorioz, hitz ugari galtzen dira etengabe, edota esanahi aldatu edo berriekin berpizten dira. Nikobar irletan antzeko aztura batek eragin berdintsua izan du bertakoen hizkuntzan. "Ohitura bitxi-bitxiak irauten du haien artean" dio de Roepstorff jaunak, "pentsatzekoa da eragin handia izango duela "historiagintza" edota, gutxienez, narrazio historikoaren transmisioa galarazten". Nikobarko superstizioaren pisu osoa duen arau estu baten aginduz, norbait hil ondoren ez dago haren izena aipatzerik. Hainbestearino betetzen da hau non, oso sarri gertatzen denez, pertsona horrek izentzat "Hegazti", "Kapela", "Su", "Bide" eta

abar hartzen dituenean (bertako hizkuntzako hitzetan noski), hitz horien erabilera saihestu egiten baita handik hara, hildakoa izendatzeko ezezik baita gauza arrunt horiek adierazteko ere; hitzak hil egiten dira, eta hitz berriak asmatzen dituzte kasuan kasuko gauza adierazteko, edota ordezkotzat aurkitzen dute Nikobarko beste dialektoetan edota atzerriko hizkuntzaren batean. Ohitura harrigarri horrek, hizkuntzari aldakortasuna eransteaz gainera, bizitza politikoaren iraupena galarazten du, eta iraganeko gertaeren oroitzapena hala-holako eta ilun uzten du, edota ezinezko".

Alor honetako beste ikertzaile batzuek ere seinatu izan dute hildakoen izenak ezabatzen dituen superstizio batek erro-errotik moztu behar duela tradizio historikoa. A. S. Gatschet jaunak dioenez, "Klamath herriak ez du ehun urte baino atzerago iristen den tradizio historikorik, arrazoi sinple batengatik, alegia lege zorrotz batek hildako edonoren edo bere ekintzen aipamena izena erabiliz egitea debekatzen zuelako. Lege hau zorrotz gordetzen zen hala kaliforniarren nola oregondarren artean, eta legea hautsiz gero, herio-zigorra ere ezar zitekeen. Ezbairik gabe, aski da hau herri baten ezagutza historiko oro ezabatzeko. Nola idatzi historia izenik gabe?"

Tribu askotan, ordea, giza adimenaren berezko joera batek ahuldu egin du neurri batez superstizio honek iraganaren oroitzapena desagiteko zuen indarra. Denborak, zirrarak sakonenak ere higitu egiten baititu, ilundu egiten du ezinbestean, erabat ezabatu ere bai batzuetan, heriotzaren misterioak eta izularriak basakumearen gogoan utzitako zantzua. Lehenago edo geroago, maiteen oroitzapena itzaldutako ahala, haiez hitz egiteko gogo berritzen zaio eta, hala, ikertzaile patxadatsuak sarritan berreskuratu egiten dituzte haien izen gogorrak iraganaren linbo mugagabe eta bereizgarri gabean erabat desagertu baino lehen, udazkeneko orbela edo neguko elurra bezala. Victoriako zenbait tributan, hildakoen izenak aipatzeko debekuak dolaaldian bakarrik irauten zuen indarrean; Port Lincoln tribuan, Australiako hegoaldean, urte asko irauten zuen. Iparramerikako chinook indiarren artean "ohiturak debekatu egiten du hildako gizakiaren izena gutxienez galera gertatu zenetik urte asko iragan arte aipatzea". Puyallup indiarren artean, tabua laxatu egiten da zenbait urteren ondoren, dolugileek beren samina ahaztu ondoren; eta hildakoa gerrari ospetsua izanez gero, haren ondorengoetako bati, ilobaren ilobari esate batera, haren izena emango zaio agian. Tribu honetan tabua hildakoaren senideek bestek ez dute gordetzen. Era berean, Lafitau misiolari jesulagunak dioskunez, zenduaren izena eta bizirik geratutako antzeko izenak, nolabait esan, gorpuarekin batera ehorzten ziren, harik eta, saminaren indarra ematzean, senideei "zuhaitza jaso eta hildakoa ateratzeko" gogoak ematen zien arte. Hildakoa ateratze horrek zenduaren izena beste norbaiti ematea esan nahi omen zuen. Izena hartzen zuena hildakoaren berrargiztapen bihurtzen zen; izan ere, basakumearen filosofiaren printzipioetako baten arabera, izena gizonaren osagai garrantzizkoa da, arima ia.

Laponiarren artean, andrea haurdun zegoenean eta erditzeko garaia hurbil, hildako arbaso edo ahaide bat agertu ohi zitzaion ametsetan, eta jakinarazten zion hildako zein pertsona jaioko zen berriro haurraren. Beraz, haren izena hartu behar zuen haurrak. Andreak halako ametsik ez bazuen, aitari edota ahaideei zegokien izena erabakitzeko, asmatuz edo azti bati aholku eskatuz. Khonden artean, jaiotzak zazpigarren egunean ospatu ohi dira apaizari eta herrixka osoari emandako jai batez. Haurraren izena erabakitzeko, apaizak arroz-aleak jaurtitzen dituzte urez betetako edalontzi batera, ale bakoitzeko arbaso bat izendatuz. Haziak uretan egiten duen mugimenduetatik eta haurraren sumatutakotik, haurraren zein arbaso birjaio den esaten du hark, eta haurrak, gehienetan, iparraldeko tribuetan bederen, arbaso haren izena hartu ohi du. Yorubatarren artean, haurra jaio eta laster, azien jainko den Ifaren apaiz bat agertzen da, haurraren zein arbasoren arima birjaio den erabakitzeko. Erabaki bezain laster, haurrak zer guztietan bizi duen arbaso haren bizimodura egokitu behar duela esaten zaie

gurasoei eta, sarri gertatu ohi denez, arbasoaren berri ez badute, apaizak ematen die behar duten informazioa. Haurrak berarengan berriz jaio den arbasoaren izena hartu ohi du gehienetan.

4. Erregeen eta beste pertsona sakratuen izenak tabututa

Gizarte primitiboetan pertsona arrunten izenak, bizienak zein hildakoenak, halako kontu handiz hartzen direla ikusita, ez da harritzekoa errege eta apaiz sakratuen izenak kaltetik babesteko neurri handiak hartzea. Dahomeyko erregearen izena sekretupean gordetzen dute beti, hura ezagutzeak gaiztakeriaren bat egiteko gaituko bailuke pertsona gaiztoa. Dahomeyko erregeek europarrentzat izan dituzten izenak ez dira haien benetako izenak, titulu hutsak baizik, edo bertakoek "izen gogorrak" deriztenak. Bertakoen ustez, agi danean, titulu horiek jakitetik ez datorke inolako kalterik, ez baitira jabeei atxikiak, jaiotizenak bezala. Gherako gallen erresuman, menpeko batek ezin esan dezake erregearen jaiotizenik, herio-zigorra dagokio horri, eta hoscide diren hitz arrunten ordeztu batzuk hartzen dira. Afrikako erdialdeko bahimatarren artean, erregea hildakoa, haren izena ezabatu egiten da hizkuntzatik, eta animaliarena izanez gero, animalia horri deitura berria aurkitu behar izaten zaio berehala. Adibidez, erregeari lehoi deitu ohi zaio sarri; horregatik, Lehoi izeneko errege bat hiltzen denean, lehoientzako izen berria asmatu beharra dago. Siamen zaila izaten zen erregearen benetako izena jakitea, kontu handiz gordetzen baitzen sekretupean sorginkerien beldurrez; hura aipatzen zuena atxilotu egiten zuten. Erregea hots handiko titulu batzuen bidez bakarrik aipa daiteke, hala nola "itzaltsua", "betegina", "orotz gairikoa", "enperadore handia" eta abar. Birmanian gaiztakeriarik izugarrientzat jotzen zuten erregearen izena aipatzea; birmaniar herritarrek beren herrialdetik urrun zeudenean ere, ez zegoen hartara behartuko zituenik; tronura igo ondoren, erregea errege-tituluek bakarrik ezagutzen zuten.

Zuluen artean, inork ez ditzake aipa bere tribuko buruzagiaren izena edota buruzagiaren arbasoen izenak, gogoratzen baditu; eta ez ditu esango tabututako izen horien hoscideak, berdinak edota antzekoak diren hitz arruntak. Dwandween tribuan bazen Langa izeneko buruzagi bat (izen horrek eguzkia esan nahi du haien hizkuntzan); horregatik, eguzkiaren izena langa-tik gala-ra aldatu zuten, eta hala da gaur egun, nahiz eta Langa erregea hil zela ehun urte baino gehiago badiren. Halaber, Xnumayo tribuan "ganadua zaindu" adierazteko hitza aldatu egin zuten alusa edo ayusa-tik kagesa-ra, buruzagiak u-Mayusi zuelako izena. Tribu bakoitzak bere aldetik gordetzen zituen tabu hauek gainera, tribu zulu guztiek bat egiten zuten nazio osoaren errege zenaren izena tabutzeko. Horregatik, adibidez, Zululandiako erregea Panda zenean, aldatu egin zuten "zuhaitz baten zain bat" esateko hitza, inportatzea alegia, eta nxabo jarri zuten haren ordeztu. Orobat, "gezurra" edo "kalumnia" adierazteko hitza aldatu egin zen, amacebo- ren ordeztu amakwata jarri, zeren amacebo hitzak Cetchwayo errege ospetsuaren izenaren silaba bat baitauka. Ordeztatze hauek, dena den, gizonezkoen artean ez dira emakumezkoen artean bezainbatekoak. Emakumeek tabututako izen baten hots bakoitzaren antzik txikiena duten hots guztiak aldatzen dituzte. Erregearen kraalean (harenean), hain zuzen, batzuetan zail izaten da erregearen alargunen hizketa ulertzea, hauek gisa horretan tratatzen dituztelako, erregearen eta honen arbasoen izenak ezezik, arbasoen hainbat belaunalditako anai-arrebenak. Tribuko eta nazioko tabu hauei familiakoak gehitzen badizkiegu, aurrez deskribatu ditugun ezkontzazko loturei dagozkienak alegia, erraz ulertuko dugu Zululandian tribu bakoitzak bere hitz bereziak izatea, eta emakumeek hiztegi-zati handi bat bere-berea izatea. Familia bateko kideek ez dituzte erabiliko beste familia batekoen hitzak. Kraal bateko emakumeek, esate baterako, bere izen arruntaz deituko diote hienari; hurrengo kraalekoek ordeztu arrunta erabil dezakete; eta hirugarrenekoek -ordeztu ere legeztu kontraktua izan daiteke-eta-

beste hitz bat asmatu beharra izango dute. Horregatik, gaur egun zuluen hizkuntzak itxura bikoitza du; hain zuzen, gauza asko eta askotarako hiru edo lau sinonimo dauzka, tribuen arteko nahasketa dela medio Zululandia osoan ezagun direnak.

Madagaskarren antzeko ohiturak iraun du nonahi eta, zuluen artean bezala, tribu desberdinen hizketen arteko hainbat desberdintasun dialektal sorrarazi ditu. Madagaskarren ez da famili deiturarik, eta ia pertsona-izen oro eguneroko hizkuntzatik hartzen da, eta gauza edo ekintza edo nolakotasun arrunt bat esan nahi du, hala nola txori bat, piztia bat, zuhaitz bat, landare bat, kolore bat eta abar. Hitz arrunt horietako bat tribuko buruzagiaren izena denean, sakratu bihurtzen da eta handik hara ezin erabil daiteke ohiko esanahiaz, zuhaitz baten, intsektu baten edo beste edozeren izen gisa. Horregatik, gauza horrentzako izen berria asmatu behar izaten da baztertutakoaren ordeiz. Bistan da zer nahaste eta koloka sor daitekeen bide horretatik hizkuntzan, bertako hainbat tribu txikitik hitz egiten den hizkuntzan alegia, eta horietako bakoitzak bere buruzagia duenean, izen sakratu eta guzti. Alabaina, hitzen tirania horren azpian dauden tribu eta herri asko, arbasoak aspaldi bateko garaiaz geroztik egon diren bezalaxe. Ohituraren eragozpenak nabarmenagoak dira irlaren mendebaldeko kostan: buruzagitza independenteen kopuru handiagatik, gauza, leku eta ibaien izenek hainbeste aldaketa jasan dute non nahasketa sarri sortzen den, zeren eta buruzagien hitz arruntak baztertuz geroztik, bertakoek ez baitute onartuko haiek beren esanahi zaharrenekin ezagutu izan dituztenik.

Baina Madagaskarren, bizi diren errege eta buruzagien izenak bakarrik ez daude tabututa; hildako erregeenak ere baztertuta daude, irlaren zenbait aldetan bederen. Sakalavattarren artean, adibidez, errege bat hiltzen denean, nobleak eta jendea batzarrean biltzen dira hildakoaren inguruan eta beste izen bat aukeratzen dute handikiro, handik aurrera hildako erregeari emateko. Izen berria onartu ondoren, izen zaharra, erregeak bizirik zegoenean zuena, sakratu bihurtzen da eta heriotza-zigorra ezartzen zaio esaten duenari. Gainera, debekatutako izenarekin nolabaiteko antza duten hizkuntza arrunteko hitzak ere sakratu bihurtzen dira, eta beste batzuek ordezkatu behar izaten dituzte. Hitz debekatuok esaten dituzten pertsonak, baldrestzat ezezik, gaizkileztat ere hartu ohi dituzte, krimen larria egiten baitute. Baina hiztegi-aldaketa horiek hildako erregea errege zen barrutira mugatzen dira; aldameneko barrutietan, lehengo hitzak beren esanahi zaharraz erabiltzen dira.

Polinesiar buruzagien pertsonen aitortutako santutasuna izenetara ere iristen da, bidezkoa denez, lehen gizakien ikuspegi horiek ezin baitira jabeengandik bereizi. Horregatik, Polinesiar debeku berbera dugu buruzagien izenak edo antzeko hitz arruntak esateko, Zululandian eta Madagaskarren bezala. Zeelanda Berrian buruzagiaren izena hain sakratutzat daukate non, hitz arrunta denean, ezin erabil daitekeen hizkuntzan, eta haren ordeiz beste bat aurkitu behar den. Adibidez, Ekialdeko Lurmuturraren hegoalderantz bizi zen buruzagi batek Maripi zuen izena, labana alegia, eta horregatik hitz berria (nekra) aurkitu zen labana esateko, eta izen zaharra baztertu egin zen. Beste leku batean aldatu egin behar izan zuten ura esateko hitza (wai), zergatik eta buruzagiaren izena gertatu zelako, eta, isurkin arrunt hori haren pertsona sakratua bezala izendatzeko erabiliz gero profanatu egingo baitzuten. Tabu honek, jakina, sinonimo-pila ugaria sorrarazi zuen maorien hizkuntzan, eta lurralde hartara berriki iritsitako bidaiariak batzuetan harrituta geratzen ziren gauza berberak elkarren auzoan zeuden tribuetan oso izen desberdinak zituztela aurkituta. Tahitin, errege bat tronuratzean, haren izenaren hoslakide diren hitz guztien ordeiz beste batzuk jarri behar izaten dira. Garai batean, gizonen bat ohitura honi jaramonik ez egiteko bezain burugabea izan eta debekatutako hitzak erabiltzen bazituen, bera ezezik beraren senide guztiak hiltzen zituzten. Baina hala egindako aldaketak aldi baterako bakarrik izaten

ziren; erregea hildakoan utzi egiten zitzaion hitz berriak erabiltzeari, eta jatorrizkoak berpiztu egiten ziren.

Grezia zaharrean apaizen eta Eleusisko misterioetan parte hartzen zuten beste funtzionari garaien izenak ezin esan zitezkeen haiek bizi ziren artean. Izenak ahoskatzea legea haustea zen. Luzianoren pertsonaia batek, Pedanteak, kontatzen digu nola aurkitu zituen jende agurgarri haiek morroi likits bat poliziagana herrestan zeramatela, haien izenak esatera ausartu zelako, nahiz eta jakin sagaratzetik aurrera hura egitea legez kontrakoa zela (izengabe bihurtuak baitziren, hots, izen zaharrak galdu eta titulu berri eta sakratuak bereganatuak). Eleusisen aurkitutako bi inskripziotatik atera daitekeenez, apaizen izenak itsasoaren sakonera bidaltzen omen ziren; seguruenik brontzezko edo berunezko tauletan grabatu eta ur sakonetara jaurtiko zituzten Salamisko golkoan. Xedea izenak sekrelopean edukitzea zen ezbairik gabe. Eta nola egin hori haiek itsasoan hondoratuz baino seguruago? Zein gizakiren ikusmenak atzeman lezake haien dizdizik ur berdearen sakonik sakonenean? Nekez aurkitu ahalko da gorpuztunaren eta gorputzik gabearen, izenaren eta beroni dagokion gorputzaren arteko nahasketaren adibide argiagorik, Grezia zibilizatuko aztura hartan baino.

5. Jainkoen izenak tabututa

Aspaldi-aspaldiko gizakiak bere irudira sortzen zituen jainkoak. Xenofanes aspaldi ohartu zen beltzen jainkoak beltzak eta sudur-zapalak zirela; traziarrak jainkoak, berriz, gorritak eta begi-urdirak zirela; eta zaldi, idi eta lehoiek jainkoengan sinetsiko balute eta haiek eskuz marrazteko gauza balira, beren jainkoak ezbairik gabe zaldi, idi eta lehoi itxuran eratuko lituzketela. Horregatik, basakume beldurtiak bere izena ezkututzen duen bezala, beldur delako sorgileek ez ote duten gaizki erabiliko, imajinatzen du bere jainkoek ere izenak ezkutuan gorde behar dituztela, beste jainko batzuek edota gizakiek, haien hots sekretua ikasita haiekin konjurioak egiteko gai izango lirakeelako. Jainkoen izenen sekretuaren eta bertute magikoaren ikusmolde gordin hau Egipto zaharrean gorde eta garatu zen beste inon baino gehiago. Han, antzina-antzinako superstizioak jendearen bihotzetan hilonduta zeuden, ia-ia harrizko hilobietako katu, krokodilo eta beste jainkozko zer guztiak bezain hilonduta. Ikusmolde hau ondo ageri du kondaira batek, Isisek Ra eguzki jainko egiptoar handiari beronen izena nola atera zion kontatzen digun kondairak. Isis, hala dio kondairak, oso emakume ahaltsua zen hitzetan; nazkatuta zegoen gizonen munduaz, eta jainkoen munduaren irrikaz zegoen. Eta hala egin zuen gogoeta bere baitan, esanez: "Raren izen handiaren bertutez jainkosa bihurtuko banintz, hura bezala zeru-lurren nagusi izateko...". Izan ere, Rak izen asko zituen, baina jainkoen gainean ahalmen osoa ematen zion izen handia inork ez zuen ezagutzen, Rak berak ezik. Baina ordurako jainkoa zahartuta zegoen; ahotik adurra zeriola egoten zen, eta listua lurrera erortzen zitzaion. Isisek listua eta lurra bildu zituen, eta oretu eta sugedorria moldatu zuen, eta jainko handia egunero, bere bihotzaren desirari men eginez, bere erresuma bikoitzera bidean pasatzen zen leku batean utzi zuen. Eta jainkoa handik pasatu zenean, jainkoen segizio osoarekin ohi bezala, sugedorri sakratuak hozka egin zion, eta jainkoak ahoa zabaldu eta oihu egin zuen, eta haren oihua zeruetara iritsi zen. Eta jainkoen segizioak ere oihu egin zuen: "Non duzu min?" eta jainkoek garrasi egin zuten, "Hara, begira!". Baina berak ezin erantzun zezakeen ezer; masailezurrek karraska egiten zioten, pozoia gorputzean zabaltzen zitzaion Nilo ibaiak lurrak hartzen dituen bezala. Jainko handiak bihotza lasaitu zuenean, oihu egin zien jarraitzaileei, "Zatozte, ene haurrok, nire gorputzetik sortuok. Printzea naiz, printze baten semea, jainko baten jainkozko hazia. Nire aitak asmatu zidan izena; aitak eta amak eman zidaten izena, eta gorderik geratu ziren neure gorputzean jaio nintzenetik, inongo magia-gizonek nigan magiazko ahalmenik izan ez zezan. Irten naiz egindakoa ikustera, eta hara! zerbaitek hozka egin dit. Zer zen, ez dakit. Sua ote zen? Ura ote zen? Bihotza

sutan daukat, haragia ikara, gorputzeko atal guztiak dardara. Ekariezazkidazue jainkoen haurrak beren hitz sendatzaileekin eta ezpain ulerkorrekin, haien ahalmena zeruetaraino iristen baita". Gero jainkoen haurrak etorri zitzaizkien, eta oso triste zeuden. Eta Isis ere, zeinen ahoa biziaren hatsaz betea baita, zeinen esanek oinazea urruntzen baitute, zeinen hitzak hildakoak biziartzten baititu, etorri zen bere trebetasunarekin. Hala esan zuen: "Zer duzu, Aita Jainko horrek? Zer duzu?" Jainko santuak ahoa ireki eta hala esan zion: "Bihotzeko desirari men eginez, neure bidean nindoan neuk egindako bi lurraldeetan zehar, sortu dudana ikusteko, eta hara!, ikusi ez dudana sugorri batek hozka egin dit. Sua ote da? Ura ote da? Ura baino hotzago nago, sua baino beroago nago, soin-atall guztiak izerditan ditut, ikara naiz, begia lauso dut, ez dut ortzia ikusten, hezetasunak aurpegia blaitzen dit udan bezala". Orduan Isis honela mintzatu zen: "Esaidazu zure izena, Aita Jainko horrek, bere izenaz deitu gizona bizi egingo baita". Eta Rak erantzun zion, "Zeru-lurrak sortu nituen, mendiak ordenatu, itsaso handi zabala egin, bi horizonteak gortina baten gisan zabaldu ditut. Begiak irekitzen ditut eta argia da, ixten ditut eta iluna. Nire esanera Nilo ibaiak gainezka egiten du, baina jainkoek ez dakite nire izena. Khepera naiz goizean, Ra naiz eguerdian, Tum naiz gauerdian". Baina pozoia ez zitzaion joaten; sakonago sartu zitzaion eta jainko handia ezin zen ibili. Orduan Isisek: "Ez didazu zure izena esan. Esaidazu, eta pozoiak alde egingo dizu; izena esaten zaion hura bizi egingo baita". Baina pozoiak sua bezala erretzen zuen, sugarra baino beroagoa zen. Jainkoak hala esan zuen: "Onartzen dut Isisek nire baitan bila dezan, eta nire izena nire bularretik harenera pasa dadin". Jainkoa beste jainkoengandik ezkutatu zen, eta haren lekua hutsik zegoen betikotasunaren ontzian. Hala, jainko handiaren izena berarengandik atera zen, eta Isisek, sorginak, honela esan zuen: "Alde, pozoia, zoaz Rarengandik. Neuk, bai, neuk garaitzen dut pozoia, eta lurrera jaurtitzen dut, jainko handiaren izena kanporatua delako. Bizi bedi Ra, eta hil bedi pozoia". Hala hitz egin zuen Isis handiak, jainkoen erreginak, Ra eta Raren benetako izena ezagutzen dituenak.

Istorio honetan ageri denez, esan liteke jainkoaren benetako izena, zeinekin haren boterea estu-estu lotuta baitzegoen, haren bular barruan zegoela gordeta, zentzu ia fisikoan, handik atera baitzuen Isisek ebakuntza moduko baten bidez eta haren naturaz gaindiko ahalmen guztiekin beregana aldatu. Egipton Isisena bezalako saioak (jainko garai baten ahala norbereganatzeko, jainkoaren edo haren izenaren jabe eginez), ez ziren iraganaldi urruneko izaki mitikoez kontatzen ziren legenda hutsak; egiptoar magia-gizon guztiek antzeko botereak bereganatu nahi zituzten antzeko bitartekoez. Ustea baitzen jainko edo gizon baten benetako izenaren jabe zena haren izanaren jabe ere bazela, eta are jainkoa ere makur zezakeela bera obeditzera, esklabo batek bere jabeari obeditzen dion bezala. Beraz, magia-gizonaren antzea jainkoengandik beren izen sakratuen agerpena lortzean zetzan, eta ez zuen harririk irauli gabe utziko bere helburua lortzeko. Jainko batek ahultasun edo ahaztura une batean sorgileari bere sekretu harrigarriak jakinarazi ondoren, jainkoak ez zeukan beste aukerarik: gizonaren menpe umilki jarri ala bere burugabekeriagatik zigorra jasan.

Erromatarrek ere sinesten zuten jainkoen izenen magiazko bertutean. Hiri bat setiatzen zutenean, apaiza hiriko jainko zaindariari zuzentzen zitzaion otoitz edo arao batez, setiatutako hiritik aldegin zezan eta erromatarren alde jar zedin gonbidatuz, ordura arteko etxean bezain ondo edo hobeto tratatuko zutela eta. Horregatik, Erromako jainko zaindariaren izena sekreturik sekretuenean gordetzen zen, errepublikaren etsaiek erakar ez zezaten, erromatarrek berek jainko asko erakarri zituzten bezala, zertarako eta egun zorientsuagoetan babesleku izan zituzten hirien fortuna gaiztoari arratoien gisan ihes egin ziezaioten. Jainko zaindariaren benetako izena ezezik, hiriarena bera ere misterioaren babesean edukitzen zen, eta ez zegoen inoiz esaterik, ezta errito

sakratuetan ere. Valerio Sorano izeneko bat, hain sekretu preziatua hedatzen ausartu zena, heriotzera kondenatu zuten, edota fin gaizto egin zuen. Era beretsuan, dirudienez, antzinako asiriarrek debekatua zuten beren hirien izen sekretuak aipatzea; eta gaur egun, Kaukasoko keremissek ere isilpean gordetzen dituzte beren herrixken izenak, superstizioagatik.

Irakurleak pertsona-izenei dagozkien superstizioen azterketa honi jarraitzeko pazientzia izan badu, bat etorriko da gurekin honetan, alegia erregezko pertsonaien izenak maiz biltzen dituen misterioa ez dela gertaera isolatua, gorteko zurikeria eta koipekerien adierazpide arbitrarioa, baizik eta pentsaera primitiboaren lege orokor baten aplikazio partikularra, bere baitan jende arrunta eta jainkoak, erregeak eta apaizak biltzen dituen.

XXIII

Basakumeari zor dioguna

Erraza litzateke errege eta apaizen tabuen zerrenda luzatzea, baina aski bitez aurreko orrialdeetan bildutako adibideak. Gure aztergaiaren parte hau amaitzeko, ikerketak ekarri dizkigun ondorio orokorrak laburbiltzea besterik ez zaigu geratzen. Ikusi dugunez, gizarte basati edo barbaroan, sarritan, gehienen superstizioak naturaren nondik-norakoa kontrolatzeko ahalmena aitortu izan die gizon batzuei. Ondorioz, gizon horiek jainkotzat hartu eta gurtu izan dira. Hemen ez dagokigu bereiztea ea giza jainko horiek gurtzaileen bizitza eta fortuneen gainean botere sekularra ere izan ote zuten, ala betekizunak izpiritual hutsak eta naturaz gaindikoak ziren; bestela esanda, errege eta jainko ote ziren, ala jainko besterik ez. Haien ustezko jainkotasuna da guk ikergai hartu beharrekoa. Horren arabera, gizateriak bizirik irauteko beharrezko dituen fenomeno fisikoen jarraipenaren eta hurrenkera ordenatuaren promesa eta bermea dira jainkoak gurtzaileentzat. Beraz, halako gizon jainkoaren bizia eta osasuna kezka bide larri dira ongizatea eta are izatea bera hari lotuta dituen herriarentzat; herriak behartu egiten du lehen garaiko gizonaren asmamenak sortutako arauetara egokitzea, haragiak zor dituen gaixotasunetatik gordetzearen, azken gaixotasuna -heriotza, alegia- barne. Arau horiek, azterketak erakutsi duenez, gizaki zentzudun guztiek, gorde beharreko legeak besterik ez dira, antzinako ikuspegiz, lurrian luze biziko badira. Baina gizaki arrunten kasuan arauak gordetzea norberaren esku dagoen bezala, jainko gizakiaren kasuan zigorraren edo bere kargu garaia galtzearen menpe dago, edota are heriotza-zigorraren menpe. Izan ere, gurtzaileek arrisku handiegian dute bizitza jainko hari arinkeriaz jokatzeko. Beraz, filosofo basatien xalotasunak aspaldi-aspaldian asmatu zituen superstizio nabarmenak, mundu zaharreko esakerak, ele zaharrak, hau da, zaharrek oraindik ere supazterrean bildutako ondorengoei neguko ilunabarretan altxor baliosa bailiran jaulkitzen dizkietenak... Fantasia zaharren bilduma horiek guztiak, garunaren amaraun horiek guztiak errege zaharrentzat, giza jainkoaren inguruan ehundu ziren. Eulia armiarmaren sareetan bezala harrapatuta geratu zen, eta apenas mugi zezakeen hatz bat ohituraren lokarrien artetik. Lokarriok "airea bezain arinak, baina burdinazko lokarria bezain gogorrak" ziren; elkarrekin gurutzatuz eta gurutzatuz azkenik gabeko labirintoan, betebeharren sarean, estu lotzen zuten. Hortik heriotzak edo kargutik kentzeak bakarrik aska zezaketen jainko gizakia.

Beraz, iraganaren aztertzaileentzat irakaspenez beteta dago antzinako errege eta apaizen bizitza. Bizitza hartan laburbiltzen zen mundua gazte zenean jakituriatzat zeukatena. Eredu betegina zen, eta gizaki bakoitza bizitza haren arabera moldatzen saiatzen zen. Akatsik gabeko eredu zen, doitasun zehatzez eraikia filosofia barbaro batek marratutako lerroen gainean. Guri gordina eta izuna irudituko bazaigu ere, ez litzateke bidezko filosofia horri sendotasun logikoaren merezimendua ukatzea. Bizi-printzipioa bizidunagan dagoena baina besterik eta bereizgarri den izakitxo edo arima baten gisa sumatzetik hasiz, arau-sistema ateratzen du bizitzarako gida praktikoa gisa; oro har, arau

guztiak ondo datoz elkarrekin, eta osotasun biribil eta harmoniatsua eratzen dute. Sistemaren akatsa -eta akats handia da- ez datza arrazoiketan, premisetan baino; bizitzaren izaeraz duen ikusmoldean, ez ikusmolde horretatik ateratzen dituen ondorioetan. Baina esker txarrekoa litzateke gezurra erraz sumatzen diegulako premisa horiek barregarritzat hartzea, eta filosofiaren kontrakoa ere bai. Guk aurrez pasatu diren belaunaldiek eraikitako zimenduak ditugu oinarri, eta apenas ohar gaitzkeen zenbat ahalegin eta neke luze kostatu zaizkion gizateriari lortu dugun punturaino iristea - hainbestekoa ere ez den punturaino, egia esan-. Gure esker ona zor diegu borrokalari izengabe eta ahaztu haiei, beren pentsamendu pazientziatsuaz eta ekinaren ekinez neurri handi batean garen honetara ekarri gaituztelako. Belaunaldi batek, are gehiago gizaki batek, biltegi amankomunera ekar dezakeen ezagutza berria urria da noski, eta pila horri ezikusia egiteak eta aldi berean ale bakan batzuk gehitzeko pribilegioaz harrotzeak nabari uzten du inozokeria edo zitalkeria, esker txarraz gainera. Gaur egun ez da inola ere gutxiesten, jakina, garai modernoek eta are antzinate klasikoak gizakion aurrerabide orokorrerako egin dituzten ekarpenak. Baina muga horiez harantzago joaten garenean, besterik da. Kexua eta barregarritzat jotzea edo gorrotoa eta salaketa dira oso sarri basakumeari eta haren jardunbideei egin ohi diegun kasu bakarra. Alabaina, gure esker ona azaldu beharra diegun ongileetarik asko, agian gehienak, basatiak ziren. Izan ere, esanak esan eta eginak egin, basakumearekin ditugun antzak aldeak baino askoz ugariagoak dira; eta harekin batzen gaituena eta deliberatuki egiazkotzat eta baliagarritzat gordetzen duguna gure arbaso basatiei zor diegu, eskarmentuaren eskarmentuz pixkanaka bereganatu eta belaunaldiz belaunaldi transmititu baitzizkiguten guk original eta intuiziozkat hartzen ditugun ideia funtsezkoak. Altxor baten oinordekoak gara: hainbeste denbora da hura bildu zela, non biltzaileen oroitzapena galdu egin den, eta oraingo jabeek munduaren hasieratik halaxe, aldaezin izan bailitzan ikusten dute altxor hura. Baina hausnarketak eta ikerketek erakutsi behar ligukete gure jotzen ditugun gauza asko eta asko gure aurrekoei zor dizkiegula, eta haien hutsegiteak ez zirela burugabekeriak edo eromenaren emaitzak, hipotesi sinpleak baizik, proposatu ziren garaian justifikagarri, nahiz eta esperientzia osoagoak desegoki direla frogatu duen. Hipotesiak banan-banan probatuz eta faltsuak arbutatuz bakarrik ateratzen da azkenean egia. Izan ere, egia deritzoguna ondoen funtzionatzen duen hipotesia besterik ez da. Horregatik, garai eta arraza gordinagoetako iritziak eta jarduerak berrikustean, hobe genuke haien hutsegiteak errukiz juzkatzea; nahitaezko estropezuak dira egiaren bilaketan, eta haiei ere eman behar diegu agian guk geuk egunen batean behar izango dugun barkamena: cum excusatione itaque veteres audiendi sunt.

XXIV

Jainkozko erregeak hiltzea

1. Jainkoen hilkortasuna

Gizakiak bere antzera eta irudira sortu ditu jainkoak, eta bera hilkorra denez, pentsatu izan du berak sortutakoek ere fin triste berbera zutela. Groenlandiarrek, adibidez, sinesten zuten haize batek hil egin zezakeela beren jainkorik indartsuena, eta zakur bat ukituz gero erremediorik gabe hilko zela. Kristauen jainkoaren berri izan zutenean, galdetzen zuten ea inoiz ez zen hil, eta ezetz erantzuten zitzaientean, harri eta zur geratzen ziren, esanez oso jainko handia izan behar zuela hark. Dodge koronelaren galderei erantzunez, Iparramerikako indiar batek esan zuen mundua Izpiritu Handiak egina dela. Galdetu zitzaionean ea zein Izpiritu Handiz ari zen, onaz ala gaiztoaz, "O, ez bataz ez besteaz" erantzun omen zuen, "mundua egin zuen Izpiritu Handia aspaldi batean hil zen. Ez zeukan gaur arte bizirik irauterik". Filipinetako tribu batek kontatu zien espainiar konkistatzaileei Egilearen hilobia Cabuniano mendiaren gainean zegoela. Heitsi-eibib, hotentoteen jainko edo heroi jainkotiar bat, askotan hiltzen zen, eta berriro

berpizten. Haren hilobiak mendialdeko haizpitarte estuetan egoten dira gehienetan. Hotentoteak horietako batetik pasatzen direnean, harri bat jaurtitzen dute zorte ona izateko, batzuetan ahapeka hauxe esanez: "Emaiguzu ganadu ugari". Kretan, Zeus Greziako jainko handiaren hilobia erakusten zitzaien bisitariei gure aroaren hasieran. Dionisosen gorpua Delfosen ehortzi zuten, Apoloren urrezko estatuaren ondoan, eta haren hilobiak inskripzio hau zuen, "Hemen datza hilda Dionisos, Semeleren semea". Kontakizun baten arabera, Apolo bera ere Delfosen ehortzi zuten. Pitagorasek inskripzio bat grabatu omen zuen haren hilobian, adieraziz nola Pitonek jainkoa hil zuen eta nola tripodearen azpian ehortzi zuen.

Egiptoko jainko handiek berek ere ez zioten ihes egiten denen patu horri. Haiek ere zahartu eta hil egiten ziren. Baina aurrerago hilontzeko era aurkitzeak beste bizialdi bat eman zien hildakoen arimek, haien gorpuak aldi baterako usteltzetik gordez, eta jainkoak ere baliatu ahal izan zuten aurkikuntza hura, hala gizakiei nola jainkoei hilezkortasun-itxaropen pixka bat eskaintzen ziena. Beraz, probintzia bakoitzak izan zituen hildako jainkoaren hilobia eta momia. Osirisen momia Mendesen ikus zitekeen; Thinis hiria harro zegoen Anhouriren momiaz; eta Heliopolisek atsegin hartzen zuen Toumourena edukitzeagatik. Babiloniako errege garaia ere, gurtzaileei amets eta irudimenezko ikuspenetan bakarrik agertzen bazitzaizkien ere, gizaki irudikatu zituzten gorpuzkeraz, gizaki beren grinetan, eta gizaki patuan ere; haiek ere, gizakiak bezala, mundura jaioak ziren, eta gizakiak bezala maitatu eta borrokatu eta hil egiten ziren.

2. Indarrak galdutakoan eraildako erregeak

Jainko garaia, lurreko bizitza honetako pena eta nekeetatik urrun bizi diren arren, azkenean hil egiten badira, pentsatzekoa da haragizko gordailu hauskorrean bizi den jainkoak ez ziola ihes egingo patu horri. Dena den, entzuna dugu afrikar erregeek beren buruak hilezko imajinatu izan dituztela beren sorkerien bertutez. Baina lehen gizakiek, ikusi dugunez, batzuetan uste izan dute beren osasuna eta are munduarena horietako jainko-gizon edo jainkoaren gizakuntza baten bizitzari lotuta dagoela. Beraz, konturik handiena izaten dute haren bizitzaz, berena estimu handitan dutelako noski. Baina kontu eta arretarik handienak ere ez du gordeko jainko-gizona zahartzetik eta ahultzetik, eta azkenean hiltzetik. Haren gurtzaileek kontuan izan behar dute halabehar triste hori, eta ahal duten hoberen maneiatu. Arriskua izugarria da. Naturaren aribidea giza jainkoaren bizitzaren menpe badago, zer hondamendi ez ote lirateke etorriko haren ahalmenak ahultzean eta azkenez hiltzean? Bide bakarra dago arrisku horiek saihesteko: giza jainkoa hil egin behar da ahalmenak galtzen hasi orduko, eta haren arima ondorengo indartsu batengana pasarazi behar da gainbehera beldurgarriak gehiegi ezgai dezan baino lehen. Giza jainkoa zahardadez eta gaixotasunez hiltzen utzi ordez erailtzearen abantailak, bista-bistakoak zaizkio basakumeari. Izan ere, giza jainkoa berez hiltzen bada, horrek hauxe esan nahi du basatiaren arabera, arimak bere borondatez aldegin diola gorputzetik eta ez duela itzuli nahi, edota maizago, deabru edo sorgileren batek atera duela edo gutxienez bere ibilietan geldiarazi egin duela. Kasu hauetan guztietan gurtzaileek galdu egiten dute giza jainkoa, eta harekin batera zorianak aldegitik die, bizitza osoa arriskuan jarritz. Jainkoa hiltzean harrapatzea lortuko balute ere, ezpain artetik edo sudurzuloetatik irtetean alegia, eta hala ondorengoari pasatu, alferrik litzateke; izan ere, gaixotasunez hilez gero, arimak ezin ahulago eta akituago aldegingo luke gorputzetik, eta hala makal eta kaxkar iraungo luke beste edozein gorputzetara aldatu eta gero ere. Aldiz, hura erailez gero, gurtzaileek, batetik, arima irtetean seguru harrapatu eta ondorengo egoki batengana aldatuko lukete; eta bestetik, indarrak berez urritu baino lehen erailez gero, giza jainkoaren gainbeherarekin batera munduak gainbeherarik ez izatea segurtatuko lukete. Beraz, helburu guztiak bete eta arrisku

guztiak saihestuko omen lirateke, giza jainkoa erailez eta haren arima ondorengo indartsu batengana sasoi betean aldatuz.

Kanboiako suaren eta uraren jainko ezkutukoei ez zaie uzten berez hiltzen. Horregatik, haietako bat gaixorik dagoenean eta zaharrek onera egingo ez duela pentsatzen badute, sastagaiz hiltzen dute. Ikusi dugunez, Kongoko herria sinestuta zegoen ezen, beren pontifize txitomea berez hiltzera, mundua amaitu egingo litzatekeela, eta berehala ezereztuko litzatekeela Lurra, hark bere ahalmen eta merezimenduz bakarrik sostengatzen zuen Lurra. Horren arabera, hura gaixotuz gero, eta hiletsian bazirudien, haren ondorengo izan behar zuenak, hartu soka edo makila bat eta pontifizearen etxera sartzen zen, eta irato edo makilatuta hiltzen zuen. Meroeko errege etiopiarrek jainko gisa gurtzen zituzten herritarrek, baina apaizek erabakitzen zutenean, mezularia bidaltzen zioten erregeari bere burua hiltzeko aginduz, jainkoen orakulu batek agindu hura emateko esan ziela eta. Erregeek Ergamenesen erregealdiraino obeditu zioten agindu hari. Egiptoko Ptolomeo II.aren garaikoa zen Ergamenes hori. Greziako erara hezia izaki, Ergamenes aske zen nekazarien superstizioetatik, eta apaizen aginduari men ez egitera menturatu zen: soldadu-talde batekin Urrezko Tenpluan sartuta, ezpataz hil zituen apaizak.

Badirudi gisa honetako ohiturek garai modernoetaraino iraun dutela Afrikako alde honetan. Fazoqleko zenbait tributan erregeak justizia banatu beharra zuen egunero zuhaitz jakin baten azpian. Baldin eta gaixotasunagatik edo beste arrazoren batengatik, eginbehar hura hiru egunetan betetzeko gai ez bazen, korapilodun soka batetik zintzilikatzen zuten; korapiloak bi labana zituen, eta erregearen gorputzaren pisuaz korapiloa estutzean, labanek lepoa moztzen zioten.

Nilo Zuriko shilluken artean ia oraintsu arte iraun du errege jainkozkoak sendotasunik ezaren edo zahardadearen lehen arrastoak agertu bezain laster hiltzeko ohiturak, gaur egun ezkutuan ezezik erabat itzalia bada ere. Azken urteotan ikertu du gai hori C. G. Seligman doktoreak. Shillukek erregeari erakusten dioten begirunea, dirudienez, dinastia sortu eta tribua oraingo lurraldean ezarri zuen Nyakang heroi erdi-jainkozkoa harengan berraragiztatu dela sinestetik sortzen da batez ere. Shilluken sinesmenaren oinarritzko artikulua da Nyakang jainko edo erdi-jainkoaren izpiritua erregeagan haragiztatzea eta, ondorioz, erregeari neurri batez jainkotasuna aitortzen zaio. Baina shillukek erregeei lotsa handia erakusten badiete ere, eta neurriak hartu arren ezbeharrez hil ez dadin, hala ere uste hau dute, alegia "erregeari ez zaiola gaixotzen edo zahartzen utzi behar, indarrak galtzean aziendak gaixotu eta ez liratekeelako ugalduko, uza usteldu egingo litzatekeelako soroetan, eta gizonak, gaixotasunak erasanda, gero eta ugariago hilko liratekeelako". Izurrite hauetatik gordetzeko, shillukek horixe egin ohi zuten, erregea hil, osasuna edo indarrak galtzen hasten zenean. Gainbeheraren seinaleetako bat emazteen sexu-grinak ase ezina izaten omen zen. Emazte asko izaten zituen, Fashodako etxe askotan banatuak. Ahuldura lotsagarri hori agertzen zenean, emazteek buruzagiei jakinarazten zieten, eta hauek, erregeari zigorra jakinarazteko, zapi zuri bat zabaltzen omen zioten aurpegi gainean eta belaunetan bazkalondo sargoritsuko lo-kuluxkan zegoenean. Herio-epaia berehala betetzen zen. Etxola bat egiten zuten bereziki hartarako: bertan sartzen zuten erregea, etzanda eta burua neskatala birjina baten altzoan zuela: etxolako atea itsutu ondoren, bikotea janaririk, urik edo surik gabe uzten zuten, goseak eta itota hil zedin. Hau zen ohitura zaharra, baina orain bost bat belaunaldi ezabatu zuten, era horretan hildako errege baten gehiegizko sufrikarioa kontuan hartuta. Buruzagiek patu hori iragartzen omen diote erregeari, eta handik laster irato egiten dute hartarako bereziki eraikitako etxolan.

Seligman doktorearen ikerketetatik ageri denez, shilluken erregea, gainbeheraren lehen arrastoak agertzean ezezik, osasun eta indar betean zegoelarik ere hil zezaketen behar

bezalako zeremoniaz; edozein unetan eraso zezakeen etsairen batek, eta hil arteko borrokan defendatu behar zuen koroa. Shilluken tradizio arruntaren arabera, erregearen edozein semek zuen haren kontra borrokatzeko eta, hiltzea lortzen bazuen, haren ordeztu errege jartzeko eskubidea. Errege guztiek emazte-multzo handia eta seme asko zituztenez, erregearen kopurua ez zen inoiz txikia izango, eta errege zenak noiz erasoko zioten zain pasatuko zuen bizitza. Baina haren kontrako erasoak gauean bakarrik izan zezakeen arrakasta; egunez erregea lagunez eta goardiaz inguratuta ibiltzen baitzen, eta tronua bereganatu nahin zuenak ez zeukan harengana heldu eta lortu nahi zuena lortzeko ahalbide handirik. Gauez, ordea, besterik zen. Orduan goardakoek alde egiten baitzuten, eta erregea bakarrik geratzen zen emazte gogokoenekin, eta hurbilean ez zuen izaten defendatuko zuen gizonik, etxola inguruetakoa artzain eta unai bakan batzuk izan ezik. Beraz, ordu ilunak ziren erregearentzat arriskuaren aldia. Etengabeko zelatan pasatzen omen zituen, erabat armatuta, etxolen artean batera eta bestera, itzalik beltzenei erne, edota isilik eta zain, begirale bat bere egitekoan bezala, bazter ilunen batean. Azkenez, etsaia agertzen zenean, borroka isiltasun beldurgarrian izaten zen, ezpata-ezkutuek elkar jotzean hautsitako isiltasunean; ohore-kontua ere bai baitzen erregeak artzainei laguntza ez eskatzea.

Nyakang fundatzailea bera bezala, shilluken errege bakoitza ere gurtu egiten dute hil ondoren kapera batean; kapera hilobiaren gainean eraikitzen da, eta hilobia erregea jaiotako herrixkan izaten da beti. Errege baten hilobi-kaperak Nyakangen kaperaren antza du: etxola batzuk hesi batez inguratuta; etxoletarik bat erregearen hilobi gainean eraikita dago, eta besteak kaperaren begiraleentzat dira. Nyakangen kaperak eta erregeenak apenas bereizten diren elkarretarik, eta denei eskaintzen zaizkien erlijio-erritualak berdinak dira formaz, eta xehetasuntxo batzuetan bakarrik desberdintzen dira, Nyakangen kaperei santutasun handiagoa aitortzen zaielako. Erregeen hilobi-kaperen ardura, Nyakangen kaperen begiraleen pareko diren gizon eta emakume zahar batzuek dute. Hildako erregearen alargunak edo zerbitzari zaharrak izan ohi dira gehienetan, eta hauek ere hiltzean beren seme-alabek hartzen dute kargu hori. Gainera, ganadua ematen da erregeen hilobi-kaperetarako, eta sakrifizioak eskaintzen dira bertan, Nyakangen kaperetan bezala.

Oro har, badirudi shilluken erlijioaren osagai nagusia errege sakratu edo jainkozkoei, hilda nahiz bizirik daudenei, gordetzen dieten gurtza dela. Izpiritu bakar batek biziarazten dituela uste da, dinastiaren fundatzaile erdi-mitiko baina beharbada historikoagandik, oinordekoz oinordeko, gaur egun arte transmitituta. Horregatik, erregeak gizon, ganadu eta laboreen ongizatea beren menpe daukaten jainko haragiztatutzat hartuz, shillukek begirunerik handiena diete eta kontu handiz babesten dituzte; eta guri oso bitxia iruditu arren, errege jainkozkoa osasun eskasaren edo indar galtzearen seinaleak erakutsi orduko erailtzea, berari dioten begirune handiari zor zaio, eta haiek biziarazten dituen jainkozko izpiritua bere eraginkortasunik beteenean mantentzeko kezkari. Are gehiago esan genezake: beren erregeei dieten begirune handiaren frogarik hoberena da erregea hiltzearen ohitura. Ikusi dugunez, uste dute erregearen bizia edo izpiritua herrialde osoaren ongizateari hain sinpatiazko eraz lotuta dagoela, non, gaixotu edo zahartuko balitz, ganadua ere gaixotu egingo litzatekeen eta ez litzatekeen ugalduko, aleak usteldu egingo liratekeen soroetan, eta gizakiak gaixotasuna zabaldu eta hil egingo liratekeen. Horregatik, haien iritziz, izurrite horiek guztiak saihesteko modu bakarra erregea osasunez eta indarrean dagoen artean erailtzea da, zertarako eta artean indar betean dagoelarik pasa diezaion ondorengoari aurrekoengandik etorri zaion jainkozko izpiritua, gaixotasunaren eta zahardadearen ahuldurak menostu baino lehen. Alde honetatik, erregearen herio-epaiari bide ematen omen dion ezaugarria oso adierazgarria da: bere emazte ugarien sexu-grinak ase ezin

dituenean; bestela esan, partez edo osorik, bere askazia ugaltzeko gai izateari utzi dionean, heltzen zaio hiltzeko eta ondorengo indartsuagoari lekua uzteko ordua. Erregea hiltzeko ematen diren beste arrazoien aldean, beste honek zera iradokitzen du, gizonen, ganaduen eta uztaren emankortasuna erregearen sormen-indarraren menpe dagoela sinpatiaz, hala non indar horrek erabat huts egiteak gizon, abere eta landareetan ere pareko hutsegitea lekarkeen, eta horrenbestez berandu baino lehen bizitza osoaren iraungitzea ekarriko lukeen: bai gizonena, bai abereena, bai landareena. Ez da harritzekoa, beraz, begien aurrean halako arriskua izanik, shillukek konturik handiena izatea erregeak berezko heriotza deitu ohi duguna izan ez dezan, alegia gaixotasunez edo zahardadez hil ez dadin. Horra erregeen heriotzaren aurrean duten jarreraren ezaugarri bat, heriotza ez aipatzea: ez dute esango erregea hil egin dela, baizik eta "joan egin dela", haren aitzindari Nyakang eta Dag bezala, dinastiako lehen bi erregeak bezala alegia, biak ere hil ez baina desagertu egin omen ziren eta. Beste herri batzuetan lehen erregeen desagertze misteriotsuaz dituzten antzeko legendek, Erroman eta Ugandan adibidez, antzeko ohitura agertuko lukete: erregea denen bizia gordetzeko xedez hiltzeko ohitura.

Oro har, shilluken jainkozko erregeen teoria eta praktika bat datoz Nemiko apaizen - basoko erregeen- teoria eta praktikarekin. Bi kasuetan ageri zaizkigu jainkozko errege batzuk, zeinen biziaren gora-behera dagoen gizonen, ganaduaren eta landaretzaren emankortasuna; bi kasuetan hiltzen dituzte erregeok, buruz buruko borrokan edo beste era batez, zertarako eta haien jainkozko izpiritua indar betean, ahuleziaren eta gaixotasunaren edo zahardarearen kutsurik gabe ondorengoetara iragan dadin. Izan ere, gurtzaileen iritziz, erregea indargetzeak gizateriaren, ganaduaren eta uztaren indargetzea ekarriko luke. Aurrerago jorratuko dira xeheago jainkozko erregeak hiltzeko ohituraren azalpeneko zenbait puntu, batez ere jainkozko arimak ondorengoetara iragaiteko era. Bitartean, aztura orokorraren beste adibide batzuk ematen segituko dugu.

Dinkak Nilo Zuriaren haraneko tribu independenteen multzo bat dira. Artzainak dira batez ere, abelgorri-saldo ugariak zaintzera gogo betez emanak. Ardiak eta ahuntzak ere badituzte, eta emakumeek artatxikia eta sesamoa lantzen dituzte sail txikietan. Uztari eta batez ere belazeari dagokienez, eurien erregularitasunaren menpe daude; lehorte luzeetan behar gorrian izaten omen dira. Horregatik, eurigilea oso pertsonaia garrantzitsua da gaur egun ere haien artean; hain zuzen, bidaiariak buruzagi eta jeke izendatzen dituzten agintedun gizonak tribu edo komunitateko eurigileak dira, izan. Haietako bakoitza eurigile handi baten izpirituak animatzen duela uste dute, eurigilez eurigile beragana iritsita; eta goiko hats horren bertutez, eurigile arrakastadun batek botere handia du eta arazo garrantzitsu guztietan eskatzen zaio aholku. Baina ohore handi horren ordainetan, edota horren bertutez agian, ezein eurigile dinkari ez zaio berez hiltzen uzten, gaixotasunez edo zahardadez alegia; zeren eta dinkek uste baitute halakorik gertatuko balitz, gaixotasunek eta goseteak joko luketela tribua, eta aziendak ez liratekeela ugalduko. Beraz, eurigileak zahartzen eta ahultzen ari dela sentitzen duenean, hil egin nahi duela esaten die bere seme-alabei. Agar dinkek, esate batera, hilobi handi bat zulatzen dute eta eurigilea han etzaten da, lagunez eta senideez inguratuta. Aldian-aldian hitz egiten die, tribuaren iraganaren historia kontatuz, nola aritu den eta zein aholku eman dizkien gogoraziz, eta aurrerako ere argibideak emanez. Gero, esatekoak esan ondoren, estal dezatela eskatzen die. Beraz, lurra botatzen diote gainera bera hilobian etzanda geratzen delarik, eta laster hiltzen da itota. Aldeak alde, halakoxea dirudi eurigile baten lanbide ohoretsuaren azkena dinken tribu guztietan. Khor-Adar dinkek Seligman doktoreari kontatu ziotenez, eurigilearentzako hilobia zulatu eta gero, bere etxean iratutzen omen dute. Seligman doktorearen informatzaile baten aita eta osaba bat eurigile izanak omen ziren biak, eta biak hil omen zituzten erarik arauzko eta

ortodoxoenean. Nahiz eta eurigilea oso gaztea izan, hil egingo dute gaixorik hiltzorian badago. Gainera, neurri guztiak hartzen dira eurigilea ezbeharrez hil ez dadin; izan ere, halako azken batek, gaixotasunez edo zahardadez hiltzea bezain arazo larria ez izan arren, izurritea ekarriko lioke seguruenik tribuari. Eurigilea hil bezain laster, haren izpiritu baliotsua ondorengo egoki batengana pasatzen omen da, dela seme batengana, dela odol bereko beste senide batengana.

Afrikako erdialdeko Bunyoro erresuman, orain dela urte gutxi arte, erregea larriki gaixotu edo zaharminez hasi bezain laster, bere burua hil behar izaten zuen, hala agintzen zuen ohiturak. Izan ere, profetia zahar baten arabera, tronua dinastiaz aldatuko baitzen inoiz erregea berez hiltzen bazen. Edabe pozoitu bat hartuz hiltzen zuen bere burua. Zalantzatan hasten bazen edo edabea hartzeko gaixoegi bazegoen, emazteari zegokion edabea ematea. Kongo Garaian den Kibangako erregea hiltzorian dagoela dirudienean, sorgileek soka bat jartzen diote lepo-inguruan, eta gero eta indar handiagoz egiten diote tira hura hil arte. Gingiroko erregea gerran zauritzen badute, beretarrek hiltzen dute, eta haiek ezean senide batek, nahiz bestea erruki eske hasi. Etsaien eskuz hil ez dadin jokatzeko omen dute hala. Jukoak Niger ibaira doan Benue ibai handiko tribu pagano bat dira. Haien herrialdean "Errege batek gobernatzen du Gatri hiria, eta honelaxe aukeratzen dute hiriko handikiek. Handikien iritziz erregeak nahikoa denboran gobernatu duenean, "erregea gaixorik dagoela" zabaltzen dute -formula honekin denek ulertzen dute hil egingo dutela, nahiz eta inoiz ez den hain argiro azaltzen. Orduan, hurrengo erregea nor izango den erabakitzen dute. Zenbat denboraz gobernatuko duen ere erabakitzen dute handikiek bilera batean: gizon bakoitzak galdera egin eta erantzun egiten du, bere iritziz errege berriak gobernatu beharreko urte bakoitzeko ziritxo bat lurrera jaurtiz. Gero erregeari esaten zaio, eta jai handi bat prestatzen da, eta bertan erregea basarotz egindako ardoaz mozkortzen da. Ondoren lantza hiltzen dute, eta aukeratutako gizona errege bihurtzen da. Jukoen errege bakoitzak, adibidez, badaki ez dela urte askoan biziko eta bere aurrekoaren patu berbera izango duela. Hala ere, ez dirudi hautagaiak batere beldurtzen direnik. Erregea hiltzeko ohitura berak iraun omen du Quonde eta Wukarin ere, Gatriri bezala". Gobir, Katsina eta Daura, hausatarren hiru erresumetan, erregeak osasuna galtzen ari zela edo zaharminak jotzen hasita zegoela lehen zantzuak ageri orduko, "elefantearen hiltzaile" titulua zuen ofizial bat agertu eta irato egiten zuen.

Matianboa Angolako barnealdeko errege edo enperadore handi bat da. Herrialde hartako menpeko erregeetako batek, Challa izenekoak, honako hau kontatu zion portugaldarren espedizio bati, matianboaren azkenaz: "Ohitura izan da matianbo guztiak gerran edo heriotza bortitzez hiltzea, eta oraingo matianboak ere halakoxe azkena izan behar du. Izan ere, bere gehiegikeriei esker, nahikoa bizi izan baita. Azkenez, hura hiltzea erabakitzen dugunean, gure etsaien kontra gerra egitera gonbidatzen dugu, eta denok egiten diegu lagun berari eta bere familiari, eta guretar zenbait galtzen ditugu orduan. Zauririk gabe libratzen bada, berriro itzultzen gara gerrara eta hiru edo lau egunez borrokatzen gara. Gero bat-batean bakarrik uzten ditugu bera eta bere familia, etsaiaren eskuetan. Bere burua bakarrik ikusten duenean, tronua ekarrarazten du eta, bertan eseriz, familiari deitzen dio bere ingurura. Orduan amari agintzen dio hurbiltzeko; hau aurrean belaunikatzen zaio; lehenik berari moztan dio lepoa, gero semei banan-banan; ondoren emazteei eta senideei eta, azkenean, Anacullo deritzan emazte maiteenari. Sarraski hau burutu ondoren, matianboa, bere edertasun osoan apainduta, heriotzaren zain geratzen da; berehala etortzen zaio, caniquinha eta canica, auzoko buruzagi indartsuek bidalitako ofizial baten eskutik. Ofizial honek lehenik zangoak eta besoak moztan dizkio giltzaduretatik, eta azkenez lepoa; ondoren ofizialari ere lepoa moztan diote. Ahaltsu guztiak erretiratu egiten dira kanpamentutik, haren heriotzaren lekuko ez

izateko. Niri dagokit geratzea eta haren heriotzaren lekuko izatea, eta bi buruzagi handiek, matianboaren etsaiek, burua eta besoak utzitako lekua markatzea. Bi horiek hildako erregearen eta familiaren ondasun guztiez jabetzen dira, eta beren egoitzetara eramaten dituzte. Nik matianbo azkenduari hondar trenkatuen hiletarako erabakiak hartzen ditut, eta ondoren haren hiriburura erretiratu eta gobernu berria aldarrikatzen dut. Gero burua, besoak eta zangoak utzitako lekura itzultzen naiz eta berrogei esklaboren truke erreskatatzen ditut, hildakoaren ondasunekin eta beste jabetza batzuekin batera, eta matianbo izendatu berriari ematen dizkiot. Hauxe gertatu zaie matianbo askori, eta hauxe gertatu behar zaio oraingoari ere".

Badirudi zuluaren ohitura erregea ehen zimurrak azaldu edo ilea urdintzen hasi bezain laster hiltzea izan dela. Ondorio hau atera daiteke bederen denboraldi batez Chaka tirano zulu ospetsuaren gortean bizi izan zen batek XIX. mendearen hasieran idatzitako ondorengo pasartetik: "Erregeak amorru izugarri bortitza hartu zidan ileentzako olioarengatik, orosendagaia zelakoan, Farewell jaunak harrituta utzi baitzuen adinaren zantzu guztiak kentzeko botika bat zela esan zionean. Botika hura lortzerik bazegoela aditu zuen unetik bertatik, hura eskuratzeko gogoa azaldu zuen, eta abagune guztiak baliatzen zituen hartaz zuen antsia guri gogorazteko; bereziki misiotik alde egin behar genuenean, gauza hari buruzko aginduak eman zizkigun. Jakin behar da zuluaren arteko ohitura barbaroa dela erregeak, hautatzen dutenean, ez duela ez zimurrik ez ile urdinik izan behar, biak ere edonor atzera botatzeko adinako seinaleak baitira herri gerrazale haren errege izatera iritsi nahi badu. Era berean, nahitaezkoa da erregeak inoiz ez erakustea gobernatzeko desegoki eta ezgai bihurtu delako frogak horiek; beraz, garrantzi handia du seinaleak ahal den denbora luzeenean ezkutatzeko. Chaka oso urduri zegoen ile urdinak hurbil zituela eta; huraxe zuen ilargipeko mundu honetatik aldegitara prestatzeko seinalea, ondoren erregearen heriotza etorri ohi baitzen beti". Ileentzako olioaren pasadizo jakingarri hau zor diogun idazleak ez digu zehazten zertan zetzan buruzagi zulu ile-urdin eta zimurdun batek "ilargipeko mundu honetatik aldegitik" hori, baina, analogiaz baliatuz, pentsa genezake hil egiten zutela.

Erregeak akatsen bat izan bezain laster hiltzeko ohiturak iraun egiten zuen orain dela bi mende Sofalako kafreen erresuman. Ikusi dugu jendeak jainkotzat zeuzkala Sofalako errege haiek, eta lehiaz eskatzen zela euria ala eguzkia emateko, bataren ala bestearen beharra izatea kontu. Alabaina, gorputzeko akats ñimiño bat, hala nola hortza galtzea, aski zen jainko-gizon haietako bat hiltzeko, antzinako historialari portugaldar baten pasarte honetan ikus dezakegunez: "Lurralde honetako erregeen ohitura zen pozoia hartuta beren burua hiltzea, hondamendiren bat edo berezko akats fisikoren bat gertatzen zitzairenean, hala nola inpotentzia, gaixotasun infekziotsua, aurrealdeko hortza galdu eta itxuragabetuta geratzea, edota beste akats edo gaitzen bat. Akats horiei amaia emateko, beren buruak hiltzen zituzten, esanez erregeak akats orotarik libre behar zuela, eta hala ezean hobe zuela bere ohorerako hil eta osorik izango zen beste bizitza bat bilatu, beste bizitza bat non gauza guztiak beteginak baitziren. Baina ni inguru haietan nengoenean gobernatzen zuen kитеveak (erregeak) ez zion aurrekoen bidetara segitu horretan, bere zuzentziaz eta sartzen zuen beldurraz baliatuta: aurrealdeko hortz bat galdu zuenean, erresuma osoari gaitzigitzea agindu zuen, denak hortza galdu zuela jakin zezaten, eta hortzik gabe ikusitakoan ezagut zezaten; aurrekoek halako gauzengatik beren buruak hil bazituzten, oso ergelak izan zirela, eta berak ez zuela halakorik egingo; alderantziz, tristatu egingo zela oso berez hiltzeko garaia etor zekionean, bere bizia oso beharrezkoa baitzen erresuma babesteko eta etsaieganetik defendatzeko; eta berak bezala egiteko gomendatu zien oinordekoei.

Sofalako errege hura, aurrealdeko hortza galdu ondoren bizirik segitzea lortu zuena, berriztatzaile ausarta izan zen, Ergamenes Etiopiako erregea bezala. Pentsatzekoa da

Etiopiako erregeak hiltzeko arrazoia, Sofalako eta zuluen erregeen kasuan bezala, beren baitan akatsen bat edo gainbeheraren zeinuren bat azaltzea zela; eta apaizek erregea terreatzeko aipatzen zuten orakuluak zera zioela, kalte handiak etorriko zirela gorputzean akatsen bat zuen erregearen gobernutik. Halaxe gaztigatu zion orakulu batek Espartari, "erregealdi herrenik" ez izateko, hots, errege herrenik ez izateko. Uste honen berrespena dateke Etiopiako erregeak beren altuera, indar eta edertasunagatik aukeratzea, haiek hiltzeko ohitura ezabatu baino askoz lehenagotik. Gaur egun Wadaiko sultanak ez du ageriko akatsik izan behar gorputzean, eta Angoyko erregea ezin koroa daiteke akats ñimiñoena badu, hala nola hortz hautsi edo gaizki lerrotua, edota zauri zahar baten orbaina. Acaillen liburuaren eta beste hainbat autoritateren arabera, akatsen bat zuena ezin zen Irlandako errege izan Taran, hiriburuan. Horregatik, Cormac Mac Art errege handiak begia istripuz galdu zuenean, bertan behera utzi zion tronuari.

Dahomeyko hiriburu zaharra den Abomeyko iparreki aldera, zenbait eguneko bidean, Eyeoko erresuma dago. "Dahomeyko erregea bezain ahalguztiduna den errege batek gobernatzen ditu eyeoak, baina umiliagarria eta ezohikoa den estatu-araudi baten menpe dago. Herrian gobernu txarra dutelako iritzia zabaldu denean, eta iritzi hori batzuetan ministro nahigabetuek zabaltzen dute trikimailuz, ordezkari batzuk bidaltzen dizkiote loro-arrautzen opariarekin benetakotasunaren seinale gisa, adierazteko gobernuaren zamak hainbeste nekarazi duela non, beren ustez, garai egokia den atsedean har dezan eta bere buruari lokuluskatxoa opa diezaion. Erregeak eskerrak ematen dizkie menpekoei atsedena opa diotelako, bere geletara erretiratzen da lotara bailihoan, eta han argibideak ematen dizkie emazteei irato dezaten. Berehala egiten dute hori, eta semea ohiko baldintzapean jartzen da tronuan, alegia herriaren onarpena merezi duen bitartean gobernua bere esku izango duelakoan". 1774. urtea aldera, Eyeoko errege bat, ministroek ohiko eran eraitsi nahi izan zutenean, ukatu egin zen loro-arrautzak bere eskuetan hartzera, lokuluskatxorik egiteko batere asmorik ez zuela eta; aitzitik, bere menpekoei ona begiratzera erabakita zegoela esan zien ministroei. Ministroek, harrituta eta suminduta hala aurpegi eman zielako, matxinada sorrarazi zuten, baina garaituak izan ziren sarraski handi baten ondoren, eta hala, bere jokabide ausartari esker, erregea libratu egin zen bere aholkularien tiraniatik, eta aurrekari berria ezarri zuen oinordekoen argibiderako. Alabaina, badirudi ohitura zaharra berpiztu egin zela eta hemeretzigarren mendearen azken aldera arte iraun zuela, zeren eta misiolari katoliko bat, 1884ko idatzi batean, aztura hura artean indarrean bailegoen mintzatu baitzen. Beste misiolari batek, 1881eko idatzi batean, honela deskribatzen du Afrikako mendebaldeko egba eta yorubatarren usadioa: "Herrialde hartako ohituretan bitxienetariko bat, ezbairik gabe, erregea epaitu eta zigortzea da. Bere eskubideak gainezkatuz herriaren gorrotoa bereganatu balu, egiteko astun hau agindu zaion aholkulari batek "lotara joateko" eskatzen dio printzeari, alegia "har ezazu pozoia eta hil zaitez". Baldin eta azken une hartan kemenak huts egiten badio, lagun batek egiten dio azken zerbitzu hori, eta astiro, sekretua jakinarazi gabe, erregearen heriotzaren albisterako prestatzen dute herria. Yoruban apur bat desberdin burutzen da auzi hau. Oyoko erregeari semea jaiotzen zaionean, haurraren eskuin-oinaren eredia egiten dute buztinez, eta zaharren etxean (ogboni izenekoan) gordetzen dute. Erregeak herrialdeko ohiturak gordetzen ez baditu, mezulari batek, hitzik esan gabe, haurraren oina erakusten dio. Erregeak badaki horrek zer esan nahi duen. Pozoia hartu eta lotara joaten da". Antzinako prusiarrek jainkoen izenean gobernatzen zuen agintari bat zeukaten jaun gorentzat, eta "Jainkoaren Ahoa" izenez ezagutzen zuten. Hark bere burua ahul eta gaixo sentitzen zuenean, atzetik izen ona utzi nahi bazuen, sasi eta lastozko meta egiteko agintzen zuen eta, haren gainera igota, hitzaldi luzea botatzen zien herritarrei, jainkoak zerbitza zitzatela eskatuz eta jainkoengana joango zela eta herriaren alde hitz egingo ziela esanez. Gero, haritz

sakratuaren aurrean egon ohi zen betiereko sutik gar batzuk hartu eta, metari su emanez, bere burua erreta hiltzen zen.

3. Epe jakin baten buruan eraildako erregeak

Orain arte deskribatutako kasuetan, kanpotiko akats batek, osasuna falta zaiola edo adinean aurrera doala agerian jarririk, bere eginkizun jainkotiarrek betetzeko gai ez dela erakusten dien arte jasaten dute bere karguan herritarrek jainkozko errege edo apaiza; baina sintoma horiek agertu bitartean erregea ez dute hiltzen. Herri batzuek, ordea, badirudi ez dutela batere segurua ikusi gainbeheraren zantzurik ñimiñoena noiz agertuko zain egotea, eta erregea artean indar betean zegoenean hiltzea izan dute nahiago. Ondorioz, epe bat ezarri izan diote erregeari gobernurako, eta aldi horren buruan hil beharra zeukan, jarritako epea indarrak galtzen hasteko arriskurik ez izatekoeko bezain laburra izaten zelarik. Indiako hegoaldeko zenbait aldetan ezarritako epea hamabi urtekoa zen. Aspaldiko bidaiari batek dioenez, Quilacare probintzian "jentilentzako otoitz-etxe bat dago, eta bertan gauza handitzat daukaten idolo bat, eta hamabi urtero jai handia ospatzen dute haren omenez, eta jentil guztiak jubiliora bezala joan ohi dira bertara. Tenplu hark lur eta errenta asko ditu; oso negozio handia da. Probintzia hark errege bat du buru, hamabi urteko erregealdia izaten duena, jubiliotik jubiliora. Haren bizimodua honelakoa da: hamabi urteak bete direnean, ezin konta ahala jende biltzen da han jai-egun horretan, eta diru asko gastatzen da brahmanentzako janaritan. Erregeak egurrezko oholtza egiteko agintzen du, zetazko zintzilikarioz betea: eta egun hartan bainatzera joaten da urmael batera, zeremonia eta musika eta hots handiz, eta ondoren idoloa dagoen lekura itzuli eta otoitz egiten dio, eta oholtzara igotzen da, eta han, jende guztiaren aurrean, oso laban zorrotz batzuk hartu eta gorputz-atalak ebakitzen hasten da: sudurra, eta gero belarriak, eta ezpainak, eta atal guztiak, eta ahal duen haragi gehiena; eta oso bizkor jaurtiz dena harik eta hainbeste odol galdu ondoren konortea galtzear jartzen den arte, eta orduan bere lepoa mozten du. Eta sakrifizio hau idoloari eskaintzen dio, eta beste hamabi urtez errege eta idoloaren maitasunagatik martiri izan nahi duen orok bertan egon behar du dena ikusten; eta leku hartantxe izendatzen dute errege".

Malabarko kostan dagoen Calicuteko erregeak samorin edo samory titulua du. Hark "brahmanak baino goragoko maila aitortzen dio bere buruari, gainetik jainko ikustezinak besterik ez omen ditu; menpekoek ere onartzen diote hantuste hori, baina brahmanek burugabekotzat eta nardagarritzat daukate, eta sudratzat jotzen dute". Lehenago samorinak lepoa moztu behar zuen jendaurrean hamabi urteko erregealdiaren ondoren. Baina hamazazpigarren mendearen hondarraldera arau hori honela aldatu zuten: "Ohitura bitxi asko gorde izan dira herrialde honetan aspalditik, eta batzuek hala darraite oso bitxiak izan arren. Bazen ohitura zahar bat: samorina ezin zen errege izan hamabi urte baino gehiagoz. Epe hori baino lehenago hiltzen bazen, hartarako eraikitako oholtzaren gainean bere lepoa mozteko zeremonia erdeinagarritik libratzen zen. Lehenik festa bat antolatzen zien oso ugari ziren noble eta handikiei. Festaren ondoren gonbidatuak agurtu eta oholtza gainera igotzen zen, eta erabide handiz bere lepoa mozten zuen bildutako jendearen aurrean, eta geroxeago, haren gorputza erre egiten zuten handikiro eta zeremonia larriz, eta handikiek samorin berria aukeratzen zuten. Ohitura hau erlijiosoa ala zibila zen ez dakit, baina egun baztertua da. Ohitura berri bati segitu diote gaur egungo samorinek: beren menpeko lurralde guztietan jubilioa aldarrikatzen dute hamabi urteren buruan, eta denda bat eraikitzen zaie lautada zabal batean, eta festa handia ospatzen da hamar edo hamabi egunetan, alaitasun eta bozkario handiz, armak tiroka gau eta egun, eta festaren amaian gonbidatuen arteko lau lagunek edo, koroa itxaropenik gabeko ekintza batez bereganatzeko asmoa hartzen dute, alegia hogeita hamar edo berrogei mila goardiaren artetik borrokatuz bidea ireki eta samorina

bere dendan hiltzekoa. Hiltzen duena izango da oinordeko, eta boterea bereganatuko du. 1695. urtean jubilio horietako bat izan zen, eta denda Pennany izeneko itsasportu baten ondoan eraiki zuten, Calicuteko hegoaldean, hamabost bat legoatara. Hiru gizon besterik ez ziren menturatu itxaropenik gabeko ekintza hartara, ezpata eta ezkutua hartuta, goardien artean, eta asko eta asko hil eta zauritu ondoren, azkenean beraiek ere hil egin zituzten. Desesperatu haietako batek hamabost edo hamasei urteko iloba zuen, goardiei erasotzerakoan osabari ondo-ondotik jarraitu ziona, eta hura hiltzen ikustean, gaztea goardien artetik sartu zen dendan, eta kolpe latza jaurti zion Maiestateari, eta eskerrak sabaitik zintzilik zeukan lanpara irazeki batek kolpea jaso zuenari, bestela harenak egin zuen noski. Beste kolpe bat jotzeko astia izan baino lehen, goardiek hil egin zuten mutil hura ere; eta uste dudanez, samorin berbera da errege oraindik. Garai hartan itsasbazter hartatik pasatzea egokitu zitzaidan, eta tiro-hotsak aditu nituen bizpahiru egunez eta gauez etengabe".

Aipua hartu diodan bidaia ingelesak ez zuen bere begiz ikusi deskribatzen duen jaialdia, urrunera tiroen hotsa aditu bazuen ere. Zorionez, jaialdi hauen eta bertan hil ziren gizonen kopuruaren albiste zehatzak gorde dira Calicuteko errege-familiaren agiritegietan. Hemeretzigarren mendearen hondarraldera, W. Logan jaunak aztertu zituen agiritegiok, erregearen beraren laguntzaz, eta haren lanari esker hamabi urtez behingo berri zehatz eta zuzenak ditugu, 1743an zeremonia azkenekoz burutu zen arte, jokatzeko tragedia eta ikuskariarekin.

"Sakrifizio Handia" zeritzan Calicuteko erregeak guduaren emaitzari begira koroa eta bizia arriskatzeko zituen jaialdiari. Hamabi urtetik behin egiten zen, Jupiter planeta Cancer zeinuan eretrogradazioan ari zenean, eta hogeita zortzi egun irauten zuen, zortzigarren ilargi-asterismoarekin batera Makaramen hilean amaitzeko. Jaialdiaren data Jupiterrek ortzian zuen kokaerak erabakitzen zuenez, eta bi jaialdiren arteko aldia hamabi urtekoa zenez, hots, Jupiterrek Eguzkiari bira ematen behar duen denbora gutxi gora-behera, pentsa genezake planeta eder hori erregearen izarra-edo zela, eta haren patua gobernatzen zuela: batak zeruan bira emateko zenbat denbora behar zuen, hainbestekoa izaten zen bestearen lurreko erregealdia. Nolanahi ere den, zeremonia handikiro burutzen zen Tirunavayi tenpluan, Ponnani ibaiaren iparraldeko bazterrean. Leku hura oso gertu dago gaur egungo trenbidetik. Trena handik pasatzen delarik, doi begiratu bat eman dakioke tenpluari, ia ezkutatuta baitago ibai-ertzeko zuhaitz-multzo baten ostean. Tenpluaren mendebaldeko atetik errepide zuzen-zuzena abiatzen da, inguruetako arroz-sailen gainetik nekez gora eta zuhaitz-ilarak itzal egiten diotela, eta ia kilometro batez oraindik ere hiruzpalau terrazaren arrastoak antzeman daitezkeen hegi zuteko muino garai bateraino doa. Terraza horien tontorrean kokatzen zen erregea egun seinalatu hartan. Handiko ikusmira ederra da benetan. Arroz-sailen lautada zabalean zehar, ibai zabala haien artetik mantso doalarik, begiak goi-ordeka batzuk atzematen ditu ekialderantz, hegi-barrenak baso trinkoz estalita dituztenak, eta urrun-urrunean mendebaldeko Ghauts mendikatea ageri da, eta are urrunago Neilgherries edo Mendi Urdinak, goiko ortzi urdinetik ia bereizi ere gabe.

Baina erregearen begiak ez ziren hain urruneko ikuspegi hartara zuzentzen, kinka larri hartan. Hurbilagoko ikuskizunak hartzen zion arreta, beheko lautada osoa tropaz mukurua baitzegoen, banderak eguzkipean alai uhinkatzen, kanpamentu ugarietako denda zuriak zehatz ebakita arroz-sailetako berde eta errearen kontra. Berrogei mila gerrari edo gehiago biltzen ziren han erregea defendatzeko. Baina lautada soldaduz irakiten zegoen bezala, hura ebakitzen duen errepidea, tenplutik erregearen kokalekuraino, garbi zegoen. Han ez zen arimarik ageri. Bidearen bi ertzak oholesiz mugatuta zeuden, eta oholesietatik, ezker-eskuin, beso indartsuek eutsitako lantza-lerro luzea ateratzen zen errepide hutsera, burdinek erdian bat eginez altzairuzko arku

dirdaitsua eratzen zutelarik. Dena prest zegoenean, erregeak ezpata altxatzen zuen. Une hartan, urre betezko katea handia, medailoiz jantzia, jartzen zuten erregearen aldameneko elefante baten gainean. Huraxe zen seinalea. Une berean irakite bat sumatuko zen kilometro batera tenpluaren atean. Ezpatari-talde bat, lorez apainduta eta errautsez pintarkatuta, hor aurreratu da jendetzatik. Egin berria dute beren azken otordua, eta lagunen azken bedeinkazioak eta agurrak jasotzen ari dira. Beste lipar bat eta badatoz lantzen arteko bidetik, lantzadunei zizta eta sasta ezker-eskuin, jira eta bira, burdina artean bihurrika, gorputzean hezurrik ez bailuten. Dena alferrik. Bata bestearen atzetik erori dira, batzuk erregeagandik gertu, beste batzuk oso urrun, denak ere pozik hiltzean, ez koroaren itzalagatik, ezpada beren bihotz ausarta eta ezpata izukaitza munduaren agerian jartzeagatik. Jaialdiaren azken egunetan ausardi ikuskizun bera, alferrikako bizi-eskaintza bera errepikatzen zen behin eta berri. Baina beharbada, ohorea biziaren aurretik jartzen duten gizonak badirela frogatzen duen sakrifizioa ez dateke guztiz alferrikakoa.

Hara zer dioskun Indiako historialari zahar batek: "Ohitura bitxia da Bengalan, odol bereko oinordekorik apenas izaten den erregetzan... Erregea hiltzen duena, tronuan jartzea lortzen badu, bere hartatik hartu ohi dute erregetzat; amir, wazir, soldadu eta nekazari guztiek bertatik obeditzen diote eta haren esanera geratzen dira, eta bere erregetzat hartzen dute, aurreko printzea hartu zuten bezala, eta ondorioz haren aginduak betetzen dituzte. Bengalako herriak honela dio: "Fio gara tronuaz; nornahik daukala, obeditu egingo diogu, eta leial izango gatzaizkio". Era beretsuko ohitura zegoen antzina Passierko erresuma txikian, Sumatrako ipar kostaldean. De Barros antzinako historialari portugaldarrak ematen digu beraren berri, eta harriduraz azpimarratzen du ezein gizon zuhurrek ez lukeela Passierko errege izan nahi, menpekoek ez baitzioten erregeari luze bizitzen uzten. Aldian-aldean, halako sumin batek hartzen zuen herria, eta hiriko kaleetan zehar abiatzen zen, zorigaiztoko hitzak ozenki kantatuz: "Erregeak hil egin behar du!". Erregeak herio-kanta hura aditzen zuenean, jakiten zuen bere ordua iritsia zela. Hiltzeko kolpea jotzen zuen gizona errege-jatorrikoa izaten zen, eta odol-egintza hori bete eta tronuan eseri bezain laster, legezko erregetzat onartzen zuten, baldin eta bere eserlekuan egun bakar batez bakean egotea lortzen bazuen. Errege-hiltzaileak, ordea, ez zuen beti hori lortzen. Fernão Peres d'Andrade, Txinarako bidaian, Passierren espezia-kargamentu baten bila sartu zenean, bi errege sarraskitu zituzten, eta erarik baketsu eta ordenatuenean egin ere, hirian abarrots edo matxinadaren arrasto txikienik gabe, dena bere ohiko bidetik zihoalarik, errege baten hilketa eguneroko kontua bailitzan. Hain zuzen, behin batean hiru errege goiune arriskutsu hartara jasoak izan ondoren, egun berean abiatu ziren bata bestearen atzetik heriotzaren bidetik. Herriak defendatu egiten zuen ohitura, oso laudagarritzat eta are Jainkoak ezarritakotzat baitzeukan: Jainkoak inoiz ez omen zukeen utziko erregea bezalako izaki garai eta ahaltsua, lurrean bere ordezkari gobernatzen zuena, bortizkeriaz hiltzen, baldin eta bere bekatuengatik halakorik merezi ez bazuen. Sumatrako irla tropikaletik urrun, era beretsuko araua betetzen omen zuten antzinako eslaviarrek. Gunn eta Jarmerik gatibuek eslaviarren errege-erreginak hiltzea lortu eta ihesari eman ziotenean, barbaroak atzetik jarraika joan zitzaizkien, "itzultzen bazarete hildako erregearen lekuan gobernatuko duzue" oihukatuz; izan ere, arbasoen estatutu publiko baten arabera, tronuaren oinordekotza erregearen hiltzaileari zegokion. Baina erregea hil zuten iheslariak entzungor egin zieten promesa haiei, erakartzeko eta ondoren hiltzeko amua besterik ez zirelakoan; beren lasterraldiari segitu zioten, eta barbaroen oihuak eta abarrotsa atzean ematuz joan zitzaizkien gero eta urrunago.

Erregeak urte-kopuru jakin baten buruan, beren nahiz besteren eskuz, hil beharrak zirenean, ulertzekoa da betebeharrak mingarri hura, erregetzaren zenbait pribilegiorekin

batera, erregearen ordezkariak zuten ordezkari bati bizkarreratzen saiatu izana. Irtenbide honetaz baliatu omen ziren Malabarko printze batzuk. Herrialde hartako agintari batek jakinarazten digunez, "zenbait lekutan botere guztiak, bai exekutiboak bai judizialak, herritarrei uzten zien erregeak epe jakin baterako. Instituzio horri Thalavettiparothiam zeritzan, alegia lepoa moztearen bidez lortutako agintea... Bost urterako kargua zen, eta denboraldi horretan haren jabeak guztizko botere despotikoak izaten zituen bere barrutian. Bost urteok amaitzean lepoa mozten zioten eta burua airera botatzen zuten, jende artera; han lehiatzen ziren denak, hura erortzean nork hartuko. Lortzen zuena hurrengo bost urteetarako izendatzen zuten kargurako.

Erregeei, ordura arte hainbat urteren buruan heriotza bortitza izatera behartuta egon ondoren, hiltzea besteren gain uztea otu zitzaenez geroztik, berehala jarriko zuten praktikan; beraz, ez da harritzekoa halako irtenbide ezaguna edo beraren arrastoak lurralde askotan aurkitzea. Eskandinaviar tradizioek aipatzen dute suediar erregeek bederatzi urteko erregealdia izaten zutela aspaldidanik, eta ondoren hil egiten zituztela edota beren ordezkari hilko zen norbait aurkitu behar izaten zela. Aun edo On, Suediako erregeak, hainbat egunetan jardun omen zuten Odini sakrifizioak eskaintzen, eta jainkoak zera erantzun omen zion, bere semeetariko bat bederatzi urtetik behin opagaitan eskaintzen zion bitartean biziko zela. Hark bederatzi sakrifikatu omen zizkion era hartan, eta hamargarren eta azkena ere sakrifikatuko zion, suediarrek galarazi ez baliote. Beraz, hil egin zen eta Upsalako muino batean ehortzi zuten. Korroa eskuratzeko antzeko moduaren adierazpena ageri da Odinen kargu-gabetze eta kanporatzea kontatzen duen legenda bitxi batean. Beste jainkoek, haren gaiztakeriek irainduta, legez kanpo utzi eta erbestera bidali omen zuten, baina ordezkaria jarri zuten haren lekuan, Oller izeneko azti maltzurra, eta hari eman zizkioten erregetzaren eta jainkotasunaren sinboloak. Ordezkariak ere Odin izena hartu zuten beretzat, eta hamar bat urtez izan zen errege; tronutik bota zuten, benetako Odin itzuli zenean. Garaitutako arerioa Suediara erretiratu zen, eta handik laster hil zuten, galdutakoa berreskuratzeko egin zuten saio batean. Jainkoak, maiz, tradizioaren lauso artean eskergak diruditen gizonak besterik ez direnez, pentsa genezake eskandinaviar legenda honek antzinako suediar erregeen arrasto nahasia gordetzen duela: bederatzi edo hamar bat urteko agintaldia izaten zuten erregeak; gero abdikatu egiten zuten, beren herrialdearen mesedetan hiltzeko pribilegioa besteri utziz. Upsalan bederatzi urtez behin ospatzen zen jaialdian hilko zuten erregea edota honek aukeratutako ordezkaria. Badakigu giza opagaiak ere izaten zirela erritoetan. Bada oinarriak sinesteko antzinako errege greko askoren agintaldia zortzi urtekoa zela, edo gutxienez zortzi urteko epearen amaian beharrezkotzat jotzen zela haiek berriro sagaratzea, jainkoen grazia berriro haien gainera isurtzea, eginkizun zibilak eta erlijiozkoak betetzeko gai izango baziren. Espartako konstituzioaren araua zen zortzi urtez behin eforoek gau argi eta ilargirik gabea aukeratzea, eta eserita, ortziari begira isilik egotea. Baldin eta beila hartan meteoro bat edo izar uxoren bat ikusten bazuten, erregeak jainkoen kontra bekatu egin zuela ondorioztatzen zuten, eta bere kargutik kentzen zuten harik eta Delfos edo Olinpiako orakuluak berrezarri arte. Are espartar monarkiaren azkenaldian ere ez zuten utzi antzina-antzinakoa dirudien ohitura honek indarra gal zezan; hain zuzen, gure aroaz aurretiko hirugarren mendean, errege bat kendu egin zuten kargutik, salaketa faltsu batzuk zirela medio, alderdi erreformazaleak begitan hartua zuelako; besteak beste, garrantzi handia eman zitzaion ortzian lotsakizunaren zeinua ikusi izanari.

Antzinako espartarrentzat errege-kargua zortzi urterako bazen, berez datorke galdera: zergatik aukeratu zen denboraldi zehatz horixe erregealdiaren neurritarako? Arrazoia, seguruenik, lehen egutegi grekoa taxutzen zuten astronomiazko kontsideroetan aurkitu behar da. Ilargiaren araberrako denbora eguzkiaren araberrako denborarekin

bateratzeko zailtasuna buruhauskarria da oraindik, barbarotasunetik irteten ari diren gizonen asmamena probatu dutenetako bat. Zortzi urtekoa da Eguzkiak eta Ilargiak denbora batera markatzen duten zikloa; bitarte horretan bata bestea gainezkatuz ibiltzen dira. Adibidez, zortzi urtez behin bakarrik etorri ohi dira bat ilbetea eta egunik laburrena edo luzeena; eta batetortze hori eguzki-erloju sinple batez froga daitekeenez, datu hori lehenetarikoa da ilargi-denbora eta eguzki-denbora harmonia zehatz-zehatzera ez baina onargarri samarrera ekarriko dituen egutegiaren oinarria emateko. Baina lehen egun haietan erlijioari zegokion egutegiaren doiketa, egutegiaren menpe baitzegoen jainkoei sakrifizioak eskaintzeko sasoi egokiak ezagutzea, haien faborea komunitatearen ongizaterako ezinbestekoa izaki. Ez da harritzekoa, beraz, erregea, estatuko apaizburu gisa, edota are jainko gisa, astronomialdi baten buruan kargutik kentzeko zorian izatea. Bi argizagi handiek goietan zeharko ibilia egin eta ortzitiko biraketa berritzez zeudenean, pentsa liteke erregeak ere bere indarrak berritu beharko zituela, edota frogatu egin beharko zuela ez zituela urritzen hasiak, eta bestela ondorengo indartsuagoren bati utzi beharko ziola lekua. Ikusi dugunez, Indiako hegoaldean erregearen agintaldia eta bizitza Jupiter planetak Eguzkiaren inguruan egindako birarekin batera amaitzen ziren. Bestetik, Grezian badirudi erregearen patua zortzi urtez behin jartzen zela balantzaren plater batean, zertarako eta, beste platera izar uxu batez zamatzu gero, hura ere hegaldatzeko eta itzaltzeko.

Dena dela izan duen sorrera, zortzi urteko zikloa bat dator, nonbait, erregealdiak Greziako beste alde batzuetan, Espartaz kanpo, duen iraupen normalarekin. Minos, Kretako Knososeko erregeak, zeinen jauregi handia orain dela urte gutxi atera duten lurpetik, zortzi urteko aldietan izaten zuen kargua. Zortziurteko bakoitzaren buruan denboraldi batez erretiratzen zen Ida mendiko orakuluaren kobazulora, eta han bere aita Zeusekin biltzen zen, iragan urteetako erregealdiaz kontuak azaltzeko, eta hurrengo zortzietarako argibideak jasotzeko. Tradizioak argi eta garbi uzten du zortziurteko bakoitzaren amaian erregearen ahalmen sakratuek jainkoen buruarekin harremanak izanez berritu behar izaten zutela, eta halako berritzerik gabe galdu egingo zukeela tronurako eskubidea.

Ez litzateke burugabekeria handiegia pentsatzea atenastarrek Minosi zortzi urtez behin bidali behar zizkieten zazpi mutil eta zazpi nesken ordainketak baduela loturaren bat erregearen ahalmena beste zortzi urterako berritzearekin. Kondaira desberdinak ditugu neska-mutil gazteei Kretara iristean zegokien patuaz; baina uste arruntena hauxe da, labirintoan atxilotzen zituztela Minotauroak jan zitzaizkien edota, gutxienez, bizi gutziraiko preso geratzeko. Agian opagaitan eskaintzen zituzten, zezen baten edo zezen-buruko gizon baten brontzezko irudi batean bizirik errez, zertarako eta erregearen edo eguzkiaren indarra berritzeko -erregeak eguzkia nortzen baitzuen. Nolanahi ere den, horixe iradokitzen digu Talosen legendak: brontzezko gizon bat zen, jendea bere bularraren kontra estu besarkatu eta sutara salto egiten zuena, hala non bizirik erretzen baitziren. Zeusek Europari eman omen zion, edo Hefestok Minosi, Kreta gordetzeko, eta egunero hirutan arakutzen omen zuen irla. Kontaera baten arabera, zezena zen; beste baten arabera, eguzkia. Beharbada Minotauroa bera zen, eta bere ezaugarri mitikoak gabe eguzkiaren brontzezko irudia besterik ez zatekeen, burua zezenarena zuen gizon gisa irudikatua. Eguzki-suak berritze aldera, giza opagaiak eskaintzen bide zitzaizkion idoloari; haren gorputz barren-hutsean erreko zituzten, edo haren eskuetan jarri eta suzko putzu batera lerraraziko zituzten. Azken era horretan sakrifikatzen zizkieten kartagoarrek haur jaio berriak Molok jainkoari. Haurrak brontzezko txahal-burudun estatua baten eskuetan uzten zituzten, eta handik labe sugartu batera lerratzen ziren, jendea xirula eta panderoen musikaz dantzatzen zen bitartean, biktimen garrasiak ez entzuteko. Kretako tradizioek Kartagoko ohiturarekin duten antzak iradokitzen digu

Minos eta Minotauroa izenekin lotutako gurtzak Baal semitar baten eragin handia jaso bide duela. Falaris Agrigentoko tiranoaren eta haren brontzezko zezenaren kondairan Siziliako antzeko erritoen oihartzunak ditugu apika, kartagoarren botereak sustrai sakonak baitzituen han.

Lagosko probintzian yoruba arrazako Ijebu tribua bitan banatuta dago: batzuei Ijebu ode deritze, eta besteei Ijebu remon. Ode adarrekoen buruzagiak awujale titulua du, eta misterioz erabat inguratuta dago. Ia oraintsu arte, menpekoek ere ez zeukaten haren aurpegia ikusterik, eta inoiz harekin hitz egin beharra suertatzen bazen, hura aurrean pantaila bat jarrita mintzatzen zen, ez ikusteko moduan. Ijebu tribuko remon adarrekoen buruzagia awujalearen menpe dago. John Parkinson jaunari jakinarazi ziotenez, lehenago menpeko buruzagi hau zeremonia batean hil ohi zuten hiru urteko gobernuaren ondotik. Herrialde hura orain britainiarren babespean dagoenez, aspaldi abolitu zen buruzagia hiru urteko erregealdiaren amaian hiltzeko ohitura, eta Parkinson jaunak ezin izan zigun xehetasunik eman gai honetaz.

Babilonian, garai historikoetan, errege-kargua bizi artekoa izaten zen praktikan, baina teorian badirudi ez zela urtebetekoa besterik. Izan ere, urtero, Zagmuken jaialdian, erregeak bere boterea berritu behar izaten zuen eskuak Marduken irudi batekin neurtuz, honek Babilonian zuen Esagilgo tenplu handian. Are Babilonia Asiriaren menpean geratu zenean ere, asiriarrak erregeak urtero legeztatu behar izaten omen zuten tronurako eskubidea, Babiloniara joan eta Urte Berriko jaialdiko zeremonia zaharra eginez, eta haietako batzuei hain astuna iruditu zitzaien betebeharrak hori non, bete ordez, errege-tituluari uko egin eta gobernadore titulu apalagoa askietsi omen zuten. Hala ere, antzina-antzina, garai historikoak baino lehen, Babiloniako erregeak koroa ezezik, bizia ere galtzen omen zuten urtebetez kargua izan eta gero. Horixe adieraziko luke behintzat ondoko datuak. Beroso historialariaren arabera (gaiaren aitzin-gibelak ondo ezagunak zituzkeen honek, Babiloniako apaiza izaki), Babilonian urtero ospatzen omen zen Sacaea izeneko jaialdi bat. Lous hilaren hamaseigarren egunean hasten omen zen, eta bost egun irauten zuen; bost egunotan, nagusiek eta menpekoek lekuak trukatzeko zituzten: menpekoek aginduak ematen eta nagusiek haiei obeditzen jarduten zuten. Herio-zigorra jasotako preso bat erregearen arropaz janzten zuten, erregearen tronuan eserarazten, eta nahi adina agindu eman zitzan uzten zioten, nahi adina jaten, edaten eta dibertitzen, baita erregearen ohaideekin etzaten ere. Baina bost egunen buruan arropak kentzen zizkieten, zigorkatu eta urkatu edo paldoan sartzen zuten. Kargua izaten zuen aldi labur hartan Zoganes tituluaren jabe izaten zen. Ohitura hau txantxa ikaragarritzat ere har lezake norbaitek, festa-sasoian kriminal zorigaiztokoren baten lepotik egina. Baina xehetasun bat -txantxetako erregeari benetakoaren ohaideez gozatzeko ematen zitzaion baimena- erabakitzailea da interpretazio horren kontra. Ekialdeko despotaren hareneko emakumeen atxilo-egoera zorrotza kontuan izanik, segurutzat eman genezake despotak inoiz ez zukeela emango bertan sartzeko baimena, are gutxiago kondenatutako kriminal bati, guztiz arrazoi larriren batengatik izan ezik. Arrazoi hori ezin besterik izan, kondenatutako gizona erregearen ordezkari hil beharra izatea baino. Eta ordezkariaren erabatekoa izan zedin, beharrezkoa zen bere erregealdi laburrean erregetzako eskubide guztiez gozatzea. Ez da ezer harrigarrikerik ordezkariaren horretan. Ezbairrik gabe, erregeak, lehenago edo geroago, kentzen edo aldatzen saiatuko ziren gorputzean zahartzearen arrastoren bat agertu orduko edo epe jakin baten buruan erregea hil egin behar zelako araua. Ikusia dugu Etiopian, Sofalan eta Eyeon errege argi batzuek ausarki baztertu zutela arau hori; eta Calicuten erregea hamabi urteren buruan hiltzeko ohitura zaharra aldatu egin zutela, hamabi urtekoaren buruan erregeari eraso egiteko eta, hura hilez gero, haren ordezkari jartzeko baimena edonori emanaz (baimena, izan, forma hutsa besterik ez izan arren). Arau zahar gogorra aldatzeko beste modu bat ikusi dugu

deskribatu berri dugun babiloniar ohituran. Erregea hiltzeko denbora hurbil zenean (Babilonian, nonbait, urtebeteko erregealdiaren buruan), abdikatu egiten zuen bost egunerako, eta egun horietan ordezeko errege batek gobernatzen eta jasaten zituen hari zegozkion guztiak. Lehen ordezeko erregea pertsona errugabea izango zen, erregearen beraren familiakoa agian; baina zibilizazioa aurreratu ahala, errugabea sakrifikatzeak jendearen sentimenduak astinduko zituen eta, beraz, kondenatutako kriminalari emango zioten zorigaiztoko erregealdi laburra. Segidan beste adibide batzuk emango ditugu, hiltzen zen kriminalak hiltzen zen jainko bat ordezkatzeko zuela frogatzeko. Izan ere, ez dugu ahaztu behar hau: errege shilluken kasuak argi eta garbi erakusten duenez, erregea jainko edo erdi-jainko den aldetik hiltzen dute, eta haren heriotza eta berpiztea, bide bakarra izaki jainkoaren bizi beteari jarraia emateko, beharrezkotzat jotzen dira herria eta mundua salbatzeko.

Erregea urtebeteko erregealdiaren buruan hiltzeko ohituraren arrasto batek Macahity izeneko jaian iraun du, dirudienez. Jai hau Hawaiin ospatzen zuten, urteko azken hilean. Orain dela ehun bat urte, errusiar bidaiari batek honelaxe deskribatu zuen ohitura hau: "Macahity tabua ez da gure Eguberri jaiaren oso bestelakoa. Hilabete irauten du, eta denboraldi horretan jendea dantzari, antzerkian eta era guztietako sasi-borroketan dibertitzen da. Erregeak eman behar dio hasiera jai horri, nonahi delarik ere. Egundorretan bere soingainekorik ederrena eta kaskoa janzten ditu, eta kanoa batean eramaten dute itsasertzetik zehar, batzuetan menpeko asko atzetik dituela. Goizean goiz ontziratzen da, eta eguzkia sartzean amaitu behar du txangoa. Gerrarietan indartsuena eta eskarmentu handikoena aukeratzen dute hura lehorreratzeko harrera egin diezaion. Gerrari hau kanoaren zelatan ibiltzen da hondartzan zehar; eta erregea lehorreratu eta soingainekoa erantzi bezain laster, lantza jaurtitzen dio, hogeita hamar bat pausoko distantziatik; eta erregeak lantza eskuaz hartu edota kolpea jaso behar du: ez da txantxetako gauza, inola ere. Eskuaz hartu eta gero, besapean eramaten du, punta zorrotza beheara duela, tenplu edo heavoo-ra. Hura tenplura sartutakoan, bildutako jendetzak txantxetako borrokei ekiten die, eta berehala airea abagune hartarako egindako lantza punta-kamutsez betetzen da itzal egiteraino. Hamameari [erregeari] aspaldi gomendatu izan diote urtero bizia arriskuan jartzen dion zeremonia irigarri hori ezerezteko, baina alferrik. Hark beti bera erantzuna: irlako edonor berari lantza jaurtitzeko gai den bezala dela bera ere gai lantzari hiltzeko. Macahity jaiak iraun bitartean, zigor guztiak indargabe geratzen dira herrialde osoan; eta inork ez dezake aldegin opor-egun horiek hastean zegoen lekutik, arazoa denik garrantzitsuena izanda ere".

Erregea urtebeteko erregealdiaren ondoren hiltzea ez da batere harrigarria, bai baitakigu gaur egun ere badela erresuma bat erregealdia eta erregearen bizia egun bakar batera mugatzen dituen. Ngoion, Kongoko erresuma zaharreko probintzia batean, arau hau dute: erregetzako kapela janzten duen buruzagia hil egiten dute beti koroatu eta ondorengo gauean. Oinordekotza-eskubidea musurongoen buruzagiari dagokio, baina ez da harritzekoa hark hura ez baliatzea, eta tronuak hutsik irautea. "Inork ez du bizia galdu nahi Ngoioko tronuan ordu batzuetako loriaren truke".

XXV

Aldi baterako erregeak

Babilonian nagusitu zen erregea hiltzeko ohitura zaharraren aldaera malgua malguagotu egin da leku batzuetan. Erregeak urtero abdikatu ohi du oraindik aldi labur baterako, eta haren lekuan izen hutsezko erregea jartzen da; baina erregealdi labur horren buruan ez dute hiltzen, nahiz oraindik ere iraun txantxetako exekuziok, benetan hil ohi zuten garaien oroigarri. Eman ditzagun adibideak. Meac-en hilean (otsailean), Kanboiako erregeak hiru egunez abdikatzen zuen urtero. Epe horretan ez zuen agintea erabiltzen, ez

zigiluak ukitzen, ezta zor zitzaizkion zergak jasotzen ere. Haren ordezt, Sdach Méac - hots, Otsail-Errege- zeritzan aldi baterako erregeak agintzen zuen. Aldi baterako erregearen kargua oinordetzakoa zen errege-etxearekin urruneko senidetza zuen familia batean, semeak aitari eta anaia gazteak zaharragoari segitzen ziotelarik, benetako erregeen oinordekotzan bezala. Astrologoek ezarritako egun batean, mandarinek prozesio arranditsuan eramaten zuten aldi baterako erregea. Erregearen elefanteetako baten gainean joaten zen hau, erregearen eserlekuan. Segizioko soldaduak behar bezala jantzita joaten ziren, Siam, Annam Laos eta beste auzo-herrialdeen ordezkari gisa. Urrezko koroaren ordezt txano txuria eramaten zuen, eta aginte-makila urrezkoa eta diamantez josia ez baina zur landugabekoa izaten zen. Benetako erregeari omen egin ondoren, hiru egunetarako erregetza jasotzen zuen harengandik, baita epe horri zegozkion zerga guztiak ere (nahiz eta azken ohitura hau kenduta egon den aldi batez), prozesioan joaten zen jauregiaren biran eta hiriburuko kaleetan zehar. Hirugarren egunean, ohiko prozesioaren ondoren, aldi baterako erregeak elefanteek "arrozezko mendia" zapal zezatela agintzen zuen, arroz-azaoz inguratutako banbuzko aldamioa alegia. Jendeak arroza biltzen zuen, nork bere pixkatxoa hartuz uzta ona segurtatzeko. Erregeari ere pixka bat ematen zitzaion, eta hark egosi eta monakoei emateko agintzen zuen.

Siamen, seigarren hileko seigarren ilargi-egunean (apirilaren hondarrean) aldi baterako erregea izendatzen dute, eta hiru egunez erregearen eskubideak bereganatzen ditu, benetako erregea jauregian preso geratzen delarik. Aldi baterako errege honek mandatari ugari bidaltzen ditu alde guztietara, bazar eta saltokietan aurkitzen duten guztia hartu eta bahi dezaten; hiru egunotan porturatzen diren itsasontzi eta junkoak ere bahituran hartzen dira, eta ordaindu beharra dago bahitik ateratzeko. Hiri barruko lursail batera joaten da, eta ondo apaindutako zezen bik tiratutako goldea eramaten dute bertara. Goldea koipeztatu eta zezenei intsentsu eman ondoren, txantxetako erregeak bederatzi ildo egiten ditu goldeaz, atzetik jauregiko andere zaharrek sasoi horretako lehen hazia zabaltzen dutelarik. Bederatzi ildoak egin bezain laster, ikusleen jendetzak hazia biltzeari ekiten dio arrapataka, uste izanik bere arroz-haziarekin nahastuz gero uzta oparoa segurtatuko duela. Gero uztarria kentzen diete zezenei, eta arroza, artoa, sesamoa, sagoa, bananak, azukrea, meloiak eta abar jartzen zaizkie aurrean; ustea da lehenik jaten duten jeneroak egingo duela preziorik onena hurrengo urtean, nahiz eta zenbaitek iragarpen hori alderantziz ulertu. Bitartean, aldi baterako erregea zuhaitz baten kontra jarrita egoten da, eskuineko oina ezkerreko belaun gainean jarrita. Hanka bakarraren gainean egon ohi delako, jendeak Errege Herrena deitzen dio; baina titulu ofiziala Phaya Phollathep du, "Zeruetako Osteen Jauna". Nekazaritzako ministroaren antzekoa da; soro, arroz eta abarri buruzko eztabaida guztiak harengana bideratzen dira. Gainera beste zeremonia batean ere erregea ordezkutzen du. Bigarren hilean gertatzen da hori (urtaro hotzean), eta hiru egun irauten du. Brahmanen tenpluaren aurrez aurre dagoen leku zabala batera eramaten dute prozesioan; han haga ugari izaten dira, maiatz-arbolon gisan jantziak, eta haietatik zintzilik jarritako zabuetan, berriz, brahmanak. Brahmanok zabuan dilindan ibili eta dantza egin bitartean, Zeruetako Osteen Jaunak hanka bakarrean egon behar du, zapi zuri batez estalitako eta tapizez apaindutako adreiluzko eserleku baten gainean. Errezel urre-kolorea duen zuraje baten gainean egoten da, eta brahman bana izaten ditu alboetan. Brahman dantzariak bufalo-adarrak dituzte eskuetan, eta haiekin kobrezko galdara handi batetik ura hartu eta ikusleak zipriztintzen dituzte; horrek zori ona ekartzen omen du, bakea eta lasaitasuna, osasuna eta ongizatea. Zeruetako Osteen Jaunak hiru orduz egon beharra izaten du hanka bakarraren gainean. Hau "Devatten eta izpirituen asmoak frogatzeko" omen da. Baldin eta oina lurreratzen badu, "bere jabetzakoak gal ditzake eta familia osoa erregearen

esklabo gera daiteke. Oina lurreratze hori oso aztikeria txartzat jotzen da, estatua suntsitu ekarri eta tronua kili-kolo jarriko dituen. Baina zutik irauten badu, izpiritu gaiztoen gainean garaitza handia lortu duela egiten dute, eta gainera hiru egun horietan portuan sar dadin edozein itsasontzi bahitzeko eta hark dakarren guztia hartzeko eskubidea du, itxuraz behintzat, baita hiriko edozein dendatan sartu eta aukeratzen duen edozer eramatekoa ere".

Halakoxeak ziren Siamgo Errege Herrenaren betebeharrak eta pribilegioak hemeretzigarren mendearen erdialdera edo beranduago arte. Azken errege buru-argiaren erregealdian, pertsonaia bitxi hari loriak apaldu eta karguaren astuna arindu, biak egin zizkioten. Oraindik ere begira egoten da, antzina bezala, brahmanek lauogeita hamarna oin garaiak badiren bi tantairen artean zintzilikatutako zabuan egiten dituzten joan-etorriei; baina zutik egon gabe, uzten diote esertzen eta, herri-iritziak oraindik ere zeremonia osoak iraun bitartean eskuineko oina ezkerreko belaunaren gainean ipiniko duela espero duen arren, ez luke legerik hautsiko baldin eta, herriaren samin handiz, oina lurrean jarriko balu. Beste seinale batzuek ere adierazten dute Mendebaldeko ideiek eta zibilizazioak Ekialdekoak inbaditu dituztela. Ikuskizunaren gertalekurako bideak gurdiz blokatuta geratzen dira; jendetza larri hartan ahal dutenak farol eta telegrafo-posteetara igotzen dira, tximinoen gisan, gertatzen dena ikusteko irrikaz; eta antigoaleko erako musika-banda pildartsu bat, gorri-horiz nabar jantzita, itxura zaharkituko danborrak eta turutak joka eta puzka ari bitartean, soldaduek, oinutsik baina uniforme distiratsuetan, bizi-bizi desfilatzen dute "Marching through Georgia" jotzen duen banda militar moderno baten konpasean.

Seigarren hilaren lehen egunean (urtearen hasieratzat zeukaten hau), Samarkandeko erregeak eta herritarrek arropa berriak jantzi eta ilea eta bizarrak moztzen zituzten. Gero hiriburutik gertu zegoen baso batera joaten ziren, eta han zaldi gainean gezi-jaurtika jarduten zuten zazpi egunez. Azken egunean itua urrezko txanpon bat izaten zen, eta jotzen zuenak egun batez errege izateko eskubidea izaten zuen. Egipto Garaian, kontaketa koptoaren arabera eguzki-urtearen lehen egunean, hots, irailaren hamarrean, Nilo ibaiak gehienetan bere gorena iritsi duenean, ohiko gobernuaren eten egiten da hiru egunez, eta hiri bakoitzak bere gobernadorea hautatzen du. Aldi baterako jaun honek pailazo baten txano luzearen antzekoa eta iztupazko bizarra eramaten ditu soinean, eta kapa arraro batean bilduta joaten da. Eskuan aginte-makila bat duela eta izkribatzailez, borraroz eta abarrez moztutako gizonez inguratuta, gobernadorearen etxera abiatzen da. Honek bere kargutik ken dezaten onartzen du, eta txantxetako erregeak, tronura igota, epaimahaia osatzen du, eta are gobernadoreak eta beronen zerbitzariak ere men egin behar izaten diete haren erabakiei. Hiru egunen buruan txantxetako erregea hiltzera kondenatzen dute; bildu duen azala edo maskorra sutara jaurtitzen dute, eta haren errautsetatik lerratzen da fellah delakoa. Ohitura hori agian aspaldiko ohitura baten arrastoa da, benetako erregea erretzeko ohiturarena alegia. Ugandan errege egiten zituzten erregearen anaiak, errege-odolik isurtzea legezkoa ez zelako.

Marokon, Fezko mahometar ikasleek beren arteko bat sultan izendatzeko eskubidea dute. Aste gutxi batzuetan gobernatzen du, eta Sultan-tulba izenez da ezaguna, "Izkribatzaileen Sultana" alegia. Agintaldi labur hau enkantean jartzen da eta gehien eskaintzen duenari ematen zaio. Zenbait pribilegio eder ditu berekin, handik aurrera kargua duenak ez baitauka zergak ordaindu beharrik, eta benetako sultanari fabore bat eskatzeko eskubidea du, oso gutxitan ukatzen zaiona. Preso bat libre uztea izan ohi da gehienetan. Gainera, ikasle-sultanaren agenteek zergak eskatzen dizkiete dendari eta etxajaunei, eta hainbat salaketa umorezko asmatzen dituzte haien kontra. Aldi baterako sultana benetako gorteko dotoreziaz inguratzen da, eta kaleetan zehar desfilatzen du musika eta zarats handiz, buru gainean erregearen eguzkitakoa eusten diotelarik.

Isunen ordain nahiz doan eskaintzen zaizkion gauzekin, eta halakoei benetako sultanak gehitutako hornizio ugariarekin, ikasleek aski izaten dute sekulako oturuntza egiteko; hots, atsegin handia hartzen dute, era guztietako joko eta dibertsioetara emanda. Lehen zazpi egunetan alegiazko sultana ikastetxean geratzen da; gero hiritik kilometro t´erdira edo aldendu eta ibai-ertzean kanpatzen da, ikasleek eta hiritar ez gutxik lagun egiten diotela. Hiritik kanpo zazpi egun egin ondoren, benetako sultanak bisita egiten dio, eta eskariari baietz erantzunez, beste zazpi eguneko erregealdia ematen dio. Beraz, "Izkribatzaileen Sultanaren" erregealdiak hiru bat aste irauten du. Baina azken astearen sei egun pasatutakoan, alegiazko sultana hirira itzultzen da gauez. Sultan-kargu hau udaberrian izaten da beti, apirilaren hasiera aldera. Honako jatorri hau omen du. Mulai Rasheed II.a tronua lortzeko borrokatzen ari zelarik, 1664 edo 1665. urtean, judutar bat errege-aginteaz jabetu zen Tazan. Baina laster azpiratu zuten matxinada ikasleen leialtasun eta eraspenari esker. Beren helburua lortzeko, amarru zuhur batez baliatu ziren ikasleak. Haietako berrogei lagun kutxetan sartu ziren, eta kutxok usurpatzaileari bidali zitzaizkion oparitan. Gauaren isilean, judutarra, batere susmorik egin gabe, kutxen artean bake osoan lo zetzalarik, berrogei ausart haiek tapak isil-isilik jaso eta irten egin ziren; hil egin zuten usurpatzailea, eta hiriaz jabetu ziren benetako sultanaren izenean. Honek, beharra zuenean halako laguntza eskaini ziotenei bere esker ona adierazteko, ikasleei beren arteko bat sultan izendatzeko eskubidea eman zien. Kontakizun honek ohitura zahar baten azalpena emateko asmatutako fikzioaren itxura guztiak ditu; irudi luke ohituraren benetako esanahia eta jatorria ahaztu egin direla.

Urteko egun bakar baterako txantxetako erregea izendatzeko ohitura gorde zen Kornuallesko Lostwithielen hamaseigarren menderaino. "Bazko igandetxoan" herriko etxajaunak eta baserritarrak bildu egiten ziren, berak edo ordezkioak, eta haietako bat, txanda zegokiona, apain jantzita eta zaldi gainean dotore jarrita, buruan koroa, eskuan aginte-makila eta aurrean ezpata zituela, kale nagusitik elizaraino joaten zen, beste guztiak behar bezala zaldi gainean segizioan zituela. Elizgizonek harrera egiten zioten bere jantzi ederrenez elizatariko eskaileretan, eta meza entzutera eramaten zuten. Elizatik irtenda, dotorezia berberaz, hartarako prestaturiko etxe batera joaten zen. Han oturuntza izaten zuten zain berak eta segizioak eta, mahaiburu jarrita, belauniko zerbitzatzen zuten, printzeari dagozkion errito guztiez. Zeremoniari afariak ematen zion buru, eta nor bere etxera erretiratzen zen.

Batzuetan aldi baterako erregeak urtero ez baina behin bakarrik hartzen zuen tronua, erregealdi bakoitzaren hasieran. Jambiko erresuman (Sumatran), esaterako, ohitura da erregealdi berriaren hasieran herritar batek tronua hartzea eta egun bakar batez erregearen ahalbideak izatea. Kondaira batek azaltzen du ohituraren jatorria: behin batean ba omen ziren bost anaia, erregearen semeak, eta lau zaharrenek uko egin zioten tronuari, lau-laurek gorputzean akatsen bat zutelako, eta gazteenari utzi zioten. Baina zaharrena egun batez eseri zen tronuan, eta pribilegio berbera gorde zuen bere ondorengoentzat, erregealdi bakoitzaren hasierarako. Beraz, aldi baterako erregearen kargua herentziazkoa da errege-etxearekin senide egiten den familia batean. Bilaspuren, rajaren heriotzaren ondoren, ohitura omen da brahman batek raja hil horren eskutik arroza jatea, eta gero tronua urtebetez hartzea. Urte horren buruan brahmanak opariak hartzen ditu eta erbesteratu egiten da; itxuraz debekatu egiten zaio itzultzea. "Ideia hauxe litzateke, rajaren izpiritua, bera hilda dagoenean khir delakoa (arroza eta esnea) eskutik jaten dion brahmanarengan sartzen dela; horregatik egoten zaizkio brahmanari urte osoan beha, eta ez diote inora joaten uzten". Ohitura berberak edo antzekoak irauten du, nonbait, Kangra inguruko mendietako estatuetan. Erregearen ordezkio den brahmana erbesteratzeko ohitura, hari heriotza ematearen ordain jarria dateke. Karintiako printze batek kargua hartzen zuenean, nekazari bat, ofizio hori herentziazkoa

zuen familia batekoa, haran zabal batean eta zelaiz inguratuta zegoen marmolezko haitz baten gainean jartzen zen, eskuinean behi ernaria eta ezkerrean behor argal itsusia zituela. Nekazari-jendetza biltzen zen haren inguruan. Orduan printze izatekoa agertzen zen, nekazari-jantzian eta artzain-makilarekin, gorte-gizonak eta magistratuak lagun zituela. Hura ikustean, hala esaten zuen nekazariak: "Nor da hain harro datorren hau?" "Herrialde honetako printzea" erantzuten zion jendeak. Marmolezko eserlekua printzeari uzteko eskatzen zitzaion nekazariari, hirurogei penike, behia eta behorra hartzearen eta zergak ordaintzetik libre geratzearen truke. Baina bere lekua utzi aurretik zapladatxoa ematen zion printzeari.

Aldi baterako errege hauen inguruko zenbait puntuk aipamen berezia merezi dute datu gehiago ematera pasatu aurretik. Lehenik, Kanboia eta Siamgo adibideek argi eta garbi erakusten dute erregearen jainkozko edo magiazko betekizunak aldi baterako ordezkioagana aldatzen direla. Hala ageri du oina altxata mantenduz gero Siamgo aldi baterako erregeak izpiritu gaiztoak garaitzen zituelako sinesmenak; aldiz, hura lurrean jarritik gero estatuaren izatea bera jartzen omen zuen arriskuan. Orobat, Kanboiako zeremonia, "arroz-mendia" zapaltzekoa, eta Siamgo beste hura, goldatzeko eta ereiteko sasoiari hasiera ematekoa, uzta ugaria erakartzeko xarmadurak dira. Horixe adieraziko luke zapaldutako arroz pixka bat edo ereindako hazi-pixka bat etxeratzen dutenek seguru-seguru uzta ona jasoko dutela sinesteak. Gainera, Siamgo erregearen ordezkariak goldea daramanean, jendea larri-larri egoten zaio begira, ez ildoa zuzen egiten duen ikusteko, ezpada zetazko soinekoaren barrena zangoan noraino iristen zaion ikusteko; izan ere, horren gora-beheran omen dago eguraldia hurrengo sasoiaren nolakoa izango den. Baldin eta Zerueta Osteen Jaunak jantziak belaun gainetik badaramatza, eguraldia hezea izango da eta euri handiek alferrik galduko dituzte ereinak. Orkatilaraino zintzilik uzten badu, lehortea datorren seinale. Baina jantziaren barrena aztal erdiraino iristen bazaio, eguraldi ederra eta uzta oparoa etorriko dira. Horrenbestearaino atxikitzen baitzaio naturaren aribidea, eta berarekin batera herriaren zoriona edo zorigaitza, erregearen ordezkariaren egintzarik edo keinurik ñimiñoenari! Haatik, ereinak eratortzeko lana, aldi baterako erregeen esku utzia, lehen gizarteetako erregeen betekizun magikoetako bat da. Txantxetako erregeak arroz-saileko eserleku garai batean oin baten gainean egon behar zuela zioen araua, ereinak asko haz zitezen asmatutako xarma zen beharbada hasiera batean; horixe zen behintzat antzinako prusiarrek gordetzen zuten antzeko zeremoniaren helburua. Neskari altuenak, eserleku baten gainean hanka bakarrean jarrita, mantala opilez beteta, eskuineko eskuan pattar-kopa eta ezkerrekoan zumar-azal edo ezki-azal pusketak zituela, otoitz egiten zion Waizganthos jainkoari, arren bera iristen zen altueraraino haz zedila lihoa. Gero, kopa edan ondoren, berriro betetzen zioten, eta patarra lurrera isurtzen zuen Waizganthosentzako eskaintza gisa, eta opilak jainkoak lagun zituen iratxoei jaurtitzen zizkien. Zeremonia osoan zehar oin bakarraren gainean irauten bazuen, lihoa ugari jasoko zen seinale; baina hanka lurrean jartzen bazuen, uzta eskasaren beldur izaten ziren. Esanahi berbera izango lukete brahmanek zabuan egiten zituzten ibiliek ere, Zerueta Osteen Jauna antzina oin baten gainean begira zuten bitartean. Homeopatiatzko edo antzezko magiaren printzipioen arabera, pentsa liteke zenbat eta altuago hegaldatu apaizak zabuan, hainbat gehiago haziko zela arroza. Zeremonia uztaroko ospakizun gisa deskribatzen baita, eta zabuan ibiltzea Errusiako letoniarrek ere egiten dute, uztak ugalarazteko asmo zehatzaz. Udaberrian eta uda hasieran, Aste Santuaren eta San Joan egunaren artean (udako solstizioan) letoniar nekazari bakoitzak zabuan ematen omen ditu aisiako orduak; zenbat eta altuago iritsi airean, hainbat gehiago haziko baita lihoa sasoi horretan.

Aurreko kasuetan, aldi baterako erregea urtero izendatzen zen ondo araututako ohitura baten haritik. Baina beste kasu batzuetan izendapena ustekabe bereziren bati aurre egiteko izaten zen, hala nola benetako erregea gaitzen batetik libratzeko, gaitza ordezkorengana bideratuz. Hartarako, ordezkoreak benetako erregearen lekua hartzen zuen tronuan aldi labur batez. Persiako historiak shahren ordezkoren adibide ugari eskaintzen dizkigu. Abbas Handia shah, adibidez, 1591. urtean astrologoek arrisku larriren bat gainera zetorkiolako abisua eman ziotelarik, aztien esana saihesten saiatu zen, tronua utzi eta Yusuf izeneko sinesgabe bat, kristaua nonbait, izendatuz beraren lekua har zezan. Eta ordezkora koroatu eta hiru egunez, persiar historialariei sinetsi behar badiogu, izena ezezik erregearen boterea ere berea izan zuen. Erregealdi labur haren ondoren hil egin zuten. Izarrek iragarritakoa bete zen sakrifizio haren bitartez; eta Abbas berriro eseri zen tronuan berarentzako une egokiagoan, eta astrologoek erregealdi luze eta loriosa agindu zioten.

XXVI

Erregearen semea opagai

Aldi baterako erregeez kontuan hartzeko puntu bat, aurreko kapituluan jorratutako puntua hain zuzen, hauxe da: bi lekutan (Kanboian eta Jambin) errege-familiaren ahaide den familia batekoak izaten zirela. Aldi baterako erregetzaren jatorriaz hemen azaldu dugun ikuspegia zuzena bada, erraz ulertuko dugu zergatik batzuetan erregearen ordezkoreak odol berekoa izan behar zuen. Erregeak lehen aldiz lortu zuenean bere biziaren ordezkor besteren bizi onartua izatea opagaitarako, beste horren heriotza berea bezain baliozko zela frogatu beharko zuen. Baina jainko edo erdi-jainko gisa hil behar zuen erregeak eta, beraz, haren ordezkor hilko zenak ere, abagune hartan bederen, erregearen jainkozko tasunez jantzi beharra zeukan. Halaxe gertatzen zen, ikusi dugunez, Siam eta Kanboiako aldi baterako erregeen kasuan: naturaz gaindiko betekizunak ezartzen zitzaizkien, are lehenagoko gizarteetan erregearen tasun bereziak ziren betekizunak. Baina erregea jainkoren ezpalekoa zen aldetik, inork ez zezakeen bere semeak bezain ondo ordezkatu, aitarene jainkozko hats bera izango zuela eta. Hortaz, inor ez zen erregearen semea bera baino egokiagoa erregearen eta herri osoaren ordezkor hiltzeko.

Ikusi dugunez, tradizioaren arabera, Aun edo Onk, Suediako erregeak, bederatzi seme sakrifikatu zizkion Odini Upsalan bere bizi salbatzeko. Bigarren semea sakrifikatu eta gero, erantzuna jaso zuen jainkoarengandik, alegia bederatzi urtez behin seme bat opagaitan eskaintzen zion bitartean biziko zela. Zazpigarrena sakrifikatu zuenerako, hain zegoen ahulduta, non ez zen oinez ibiltzeko gauza eta aulki batean eraman behar zuten. Hala ere, zortzigarren semea eskaini eta beste bederatzi urtez bizi izan zen ohean etzanda. Ondoren, bederatzigarrena ere sakrifikatu eta beste bederatzi urtez bizi izan zen, baina titia kendu berri dioten haurrari bezala eman behar zioten jaten, zezen-adar batetik. Hamargarren eta azken semea ere sakrifikatu nahi izan zuen, baina suediarrek ez zioten utzi. Beraz, hil egin zen eta Upsalako mendi batean eman zioten lurra.

Grezia zaharrean, badirudi gutxienez errege-leinu bat izan zela, oso antzinakoa, zeinetan seme zaharrenak aitarene ordezkor sakrifikatu behar baitziren beti. Xerxes Tesalian zehar barrendu zuenean bere oste indartsuen buru, espartarrei Termopiletan erasotzeko, Alus herrira iritsi zen. Han Zeus Lafistiosen jainkotegia erakutsi zioten, eta gidariek ipuin bitxia kontatu zioten jainko hari buruz. Honela dio gutxi gora-behera. Behin batean herrialde hartako erregea, Athamas izenekoa, Nefele izeneko emakumearekin ezkondu zen, eta honek Frixos izeneko semea eta Helle izeneko alaba eman zizkion. Gerora bigarren emazte bat hartu zuen, Ino izenekoa, eta honek bi seme eman zizkion, Learko eta Melizertes. Baina bigarren emaztea jeloskor zen lehen bi seme-alaba Frixos eta Hellerengatik, eta haiek nola hilko asmatzeari ekin zion. Maltzurkeria handiz saiatu zen

bere helburua lortzen. Lehenik, hazitarako alea lurrean zabaldu baino lehen isilpean txigortzeko konbentzitu zituen herrialdeko emakumeak. Horregatik, hurrengo urtean ez zen uztarik izan eta jendea gosez hiltzen zen. Orduan erregeak mezulariak bidali zituen Delfosko orakulura antzutasun haren arrazoia jakiteko. Baina amaorde gaizto hark erosi egin zuen mezularia, jainkoaren erantzun gisa haxe esan zezan antzutasun hura ez zela amaituko harik eta Athamasek lehen emaztearekin izandako haurrak Zeusi sakrifikatu arte. Athamasek hura entzun zuenean, haurren bila bidali zituen gizon batzuk, ardiekin baitzeuden mendian. Baina urrezko ilea zuen ahari batek ezpainak ireki eta, giza ahotsez hitz eginez, arriskua gaztigatu zien hurrei. Eta ahariaren gainera igo eta hegan abiatu ziren lurraren eta itsasoaren gainetik. Itsasoaren gainetik zihoazenean, neska uretara erori eta ito egin zen. Baina haren anaia Frixos salbu iritsi zen eguzkiaren seme bat errege zuen Koltxisko lurretara. Frixos hango erregearen alabarekin ezkondu zen, eta honek seme bat eman zion, Zitisoro. Eta urrezko ilea zuen aharia sakrifikatu zion Zeus hegaldien jainkoari; baina batzuek uste dute aberea Zeus Lafistiosi eskaini ziola. Urrezko ilea emaztearen aitari eman zion, eta hark lorik egiten ez zuen herensuge batek gordetako haritzean iltzatu zuen Aresko zuhaizti sakratu batean. Bitartean, etxean, orakulu batek agindu zion Athamas erregeari berak hil behar zuela sakrifizioan, herrialde osoaren aldeko ordainkizun. Beraz, herriak lore-sortaz apaindu zuen opagai gisa, eta aldarera eramane zuen; sakrifizioa egitera zihoazen unean, Koltxistik garai-garaian iritsi zen Zitisoro bilobak salbatu zuen, edo agian Herkulesek, Frixos semea artean bizirik zelako berria ekarri ziolarik. Beraz, Athamas salbatu egin zen, baina geroago zoratu eta bere seme Learko hil zuen piztia zelakoan. Ondoren geratzen zitzaion seme Melizertesi ere bizia kendu nahi izan zion, baina haren ama Inok erreskatatu zuen haurra eta, semea hartuta, haitz handi batetik itsasora bota zuen bere burua. Ama-semeak itsas jainko-jainkosa bihurtu ziren, eta semeari omen berezia egin zitzaion Tenedos irlan, non haurrak sakrifikatzen zitzaizkion. Orduan, emazte eta haurrik gabe, Athamas zorigaitzekoak herrialdetik aldegin zuen, eta orakuluari non bizi zitekeen galdetuta, esan zitzaion piztiekin jaten emango zioten edonon izango zuela bizilekua. Ardiak jaten ari ziren otso-samalda batekin egin zuen topo, eta otsoek ikusi zutenean hanka egin zuten, ehizaren hondarrak utzi zizkiotelarik. Hartara bete egin zen orakulua. Baina Athamas erregea ez baitzen opagaitan eskainia izan herri osoaren barkamenerako, jainkoek zera erabaki zuten, haren askaziako lehen haurra, belaunaldi bakoitzean, salbuespenik gabe, sakrifikatu egin beharko zela baldin eta hiriko etxean oinik ezartzen bazuen. Leku hartan Athamasen etxeko batek eskaintzak egiten zizkion Zeus Lafistiosi. Familiako asko, halaxe jakinarazi zioten Xerxesi, erbestera aldeginak ziren patu hari ihes egiteko; baina batzuk itzuli ere egin ziren aurrerago eta, zaindarien hiriko etxera sartzean harrapatu zituztelarik, opagaiak bezala lorez apaindu, prozesioan eramane eta sakrifikatu egin zituzten. Badirudi halakoak ezagunak izan zirela, oso maiz gertatu ez arren; izan ere, Platonena omen den elkarrizketa baten idazleak, kartagoarrek giza opagaiak sakrifikatzen zituztela aipatu ondoren, haxe gehitzen du, halakoak ezagunak zirela grekoen artean ere, eta bihotz-ikaraz aipatzen ditu Likaio mendian Athamasen ondorengoek eskainitako sakrifizioak.

Ohitura barbaro hau are geroago ere galdua ez zelako susmoa, Plutarkoren garaian Orkomenon gertaturiko giza sakrifizio baten kasuak indartzen du. Orkomeno Boeziako hiri zahar-zaharra zen, historialariaren jaiotokitik kilometro batzuetara zegoena, lautadan. Han familia bat bizi zen, gizonazkoei Psoloeis esaten zieten, "kedartuak" alegia, eta emakumei Oleae edo "desegileak". Urtero, Agrioniaren jaian, Dionisosen apaizak ezpata eskuan zuela segitzen zien emakume haiei, eta bat harrapatuz gero hiltzeko eskubidea zuen. Plutarkoren denboran eskubide hura Zoilo izeneko apaiz batek erabiltzen zuen. Urtero giza opagaia eman beharra zuen familia erregeen leinukoa zen:

beren leinua Minias, Orkomenoko errege zahar batengandik zetorren. Errege izugarri aberats honen altxorak oraindik ere han dautza, hondakinetan, Orkomenoko harritzko mendi handiak Kopaiko lautada zabalarekin bat egiten duen lekuan. Tradizioaren arabera, erregearen hiru alabek mesprezatu egiten omen zituzten herriko beste emakumeak eraldi bakotarretara ematen zirelako, eta erregearen etxeko sutondoan esertzen ziren destainaz, goruetan eta ehuntzen; aldiz, beste guztiak, lorez apainduta, biloak haizetara, mendi gorrietan barrena alderrai ibiltzen ziren estasian, zinbalo eta danborren musika basatiaz, mendietako bakardadea oihartzunez betez. Baina denboraren harian, jainkozko sukar hark errege-etxeko andereñoak ere hartu zituen beren gela lasaian; giza haragia probatzeko nahikeria indartsuak astindu zituen, eta zotzetara egin zuten beren artean, nork haurra emango oturuntza kanibala egiteko. Zotza Leuziperi tokatu zitzaion, eta hark bere seme Hippaso eman zuen, eta hiruren artean atalez atal zatikatu zuten. Gaiztora jotako emakume haiengandik datoz Oleae eta Psoloeis izenak: gizonezkoei beren doluaren eta saminaren frogagarri zekarten doluagatik deitzen zieten hala.

Orkomenon giza opagaiak erregeen askaziko familiatik hartzeko ohitura hau oso adierazgarria da, Athamas bera ere Orkomenoko errege izan zelako, are Miniasen garaia baino lehen, eta hiriaren kontra Lafistio mendia altxatzen delako; han, Tesaliako Alus mendian bezala, Zeus Lafistiosen jainkotegi bat zegoen. Tradizioaren arabera, Athamasek bere bi haurrak, Frixos eta Helle, hantxe sakrifikatzeko asmoa omen zuen. Oro har, Athamasen kondaira eta garai historikoetan haren ondorengoei dagokienez irauten zuen ohitura konparatuz, ondorio hau atera genezake, alegia Tesalian eta beharbada baita Boezian ere, jatorri zahar-zaharreko dinastia bateko erregeak Zeus Lafistiosi sakrifikatu beharrak zirela herrialdearen onerako, baina zoritxarreko erantzukizun hura beren haurrei pasatzen asmatu zutela eta, beraz, seme zaharrena aldarerako izan ohi zela. Denboraren harian, ohitura anker hura asko ematu zen, eta ahari bat onartzen zen errege-jatorriko harakaiaren orde, beti ere printzeak hiriko etxean, alegia beretar batek Zeus Lafistiosi sakrifizioak eskaintzen zizkion lekuan, oinik ezartzen ez bazuen. Baina printzea zorigaiztoko leku hartara sartzera ausartuz gero (bere kabuz frogatzera ea jainkoak borondate onez onartu zuen ahariaren ordaina), antzinako betebeharrak indar osoa hartzen zuen, eta printzeak hil beharra zuen nahitaez. Erregearen edo haren haurren sakrifizioa urrialdi handiarekin lotzen zuen tradizioak argi eta garbi seinalatzen du sineste bat, oso arrunta lehen garaietako gizakien artean, alegia erregea eguraldiaren eta uztaren erantzule dela, eta bere bizia eman beharra daukala bata txarra bada edo besteak huts egiten badu. Laburtuz, badirudi Athamasek eta bere askaziak jainkozko edo magiazko betekizunak erregetzakoekin bat egin zituztela, eta honen froga sendoa litzateke Salmoneok, Athamasen anaiak, jainkotasuna beretzako aldarrikatu izana. Ikusi dugunez, gizaki harroputz hark Zeus bera zela esaten omen zuen, eta trumoi eta tximistei agintzen zien, imitazio kaxkarra eginez lapikoen txiliniz eta antortxen dizdizaz. Analogiaz juzkatzerik bageneuka, txantxetako trumoi-tximistak ez ziren izango erakusketa soila, ikusleei sinestarazteko eta harritzeko; magia-gizon erregezko hark egiten zituen xarmadurak ziren, hain pattal imitatzen zituen zeruko fenomenoak eragiteko asmoz.

Asiako mendebaldeko semiten artean erregeak, nazioarentzako arrisku handiren bat zenean, batzuetan bere semea sakrifikatzeko zuen herriaren mesedetan. Hara zer dioen Biblosko Filok judutarrei buruzko lanean: "Ohitura zaharra zuten arriskualdi handiren batean, hiriko edo nazioko gobernariak bere seme maitea Heriori eman behar ziola herri osoaren alde, deabru mendekatzaleei eskainitako ordain gisa; eta hala eskainitako haurrak errito sekretuz hiltzen zituzten. Hala Kronosek, feniziarrek Israel deitzen zutenak, lurreko errege izanik eta Jeoud izeneko seme bakarra zuelarik (feniziarren

hizkuntzan Jeoud hitzak “seme bakar” esan nahi baitu), errege-arropaz jantzi zuen eta aldare batean sakrifikatu zuen gerra-garaian, etsaiek herrialdea arrisku handian jarria zutenean”. Israeldarrek Moabeko erregeari setio gogorra ezarri ziotenean, hartu zuen hark bere seme zaharrena, beraren ondotik errege izan behar zuena, eta opagaitan eskaini zuen harresiaren gaineko garretan.

XXVII

Arima oinordetzea

Antzina, eta arraza barbaroen artean, erregeak, sarri, agintaldi laburraren ondoren, hil egiten bazituzten, pentsa liteke halako ohiturak errege-familiaren azkena ekarriko zuela. Baina hori ez da horrela: lehenik, erregetza ez dagoelako familia bakar batera mugatua, baizik eta zenbaiten artean txandaka daitekeelako; bigarren, kargua sarritan ez delako herentziazkoa, baizik eta familia askotako gizonei irekia dagoelako, baita atzeritarrei ere, baldin eta bete beharreko baldintzak betetzen badituzte, alegia printzesa batekin ezkontzea edo erregeari borrokan irabaztea; eta hirugarren, nahiz ohitura hark dinastia bat azkentzeko bidean jarri, hori ez dela arrazoia ohitura ez betetzeko, batez ere etorkizunari hain begira ez dagoen eta bizia guk bezain aintzakotzat hartzen ez duen jendearen artean. Arraza asko, norbanako asko bezala, beren fin gaiztoa ekarri dieten ohituretara emanak izan dira. Polinesiarrek hiru haurretatik bi hiltzen omen zituzten erregulariki. Afrikako ekialdeko toki batzuetan jaiotakoan sarraskitutako haurren proportzioa berdintsua omen zen. Egoera jakin batzuetan jaiotako haurrak bakarrik uzten zituzten bizirik. Jagatarrek -Angolako tribu konkistatzaile bat da hau- beren haur guztiak hiltzen omen zituzten, emakumeek haurren trabarik izan ez zezaten martxetan. Kanpotik hamahiru edo hamalau urteko neska-mutilak hartuz ugaltzen ziren, aurrez gurasoak hil eta jan ondoren. Hegoamerikako mbaya indiarren artean emakumeek haur guztiak hiltzen zituzten, azkena edota azkena izango zela uste zutena izan ezik. Bat edo batek haren ondotik beste haurren bat izaten bazuen, hil egiten zuen. Ez da harrizkekoa, beraz, ohitura hark mbaya nazioaren adar bat osorik suntsitu izana, urte asko eta askotan espainiarren etsairik gogorrenak izan ondoren. Chaco Handiko lingua indiarren artean, misiolariak honela deskribatu dute aurkitu zutena: "Arrazaren suizidiorako arreta handiz planeatutako sistema, hurgaltzearen eta beste metodo batzuen bidez". Eta haurrak hiltzea ez da tribu batek suizidioa burutzeko modu bakarra. Hori bezain eraginkorra gerta daiteke pozoizko froga sarri burutzea. Orain dela denboraldi bat, Uwet izeneko tribua jaitsi zen mendialdetik eta Calabar ibaiaren ezkerraldean hasi zen bizitzen, Afrikako mendebaldean. Misiolariak tokia lehenengoz bisitatu zutenean, jendetza handi samarra aurkitu zuten, hiru herritan banatua. Orduz geroztik pozoizko ordalia etengabe erabiltzeak ia erabat garbitu du tribua. Behin batez, herritar guztiek hartu omen zuten pozoia beren inozentzia frogatzeko. Erdiak-edo hantxe bertan hil omen ziren eta, esan zaigunez, enparauek laster behar dute denak hilda, beren praktika superstiziozkoan segitzen baitute. Halako adibideak aurrean jartzen zaizkigularik, erraz sinets genezake tribu askok ez dutela batere kezkarik edo barren hesturik izan familia bat azkentzeko bidean jartzen duen ohiturari eusteko. Haiei halako kezkak leporatzea behin eta berriz egin ohi den hutsa egitea da, alegia basatia europar zibilizazioaren ikuspegitik neurtzea. Baldin eta nire irakurleren batek uste hori badu, alegia giza arraza guztiek ingeles hezi batek bezalatsu pentsatzen eta jarduten dutela, aski izan behar lituzkete lan honetan bildutako sineskeria eta ohitura superstiziotsuak oker horretatik ateratzeko.

Jainkozko pertsonak hiltzeko ohituraz eman dugun azalpenean onartu egiten da hildako jainkoa ondorengoarengana iragaiten delako ideia, edota azalpenarekin batera ideia hori ere ageri da behinik behin. Iragaite horren froga zuzenik ez daukat, shilluken kasua ezik. Hauen artean forma tipikoan irauten du jainkozko erregea hiltzeko ohiturak, eta

oinarrizko sinesgaia da dinastiaren fundatzailearen arima bortxaz hildako ondorengo bakoitzarengana dagoela. Baina halako sinesteaz eman dezakedan adibide bakarra hori bada ere, analogiaz litekeena da beste kasu batzuetan ere ontzat eman izana bortxaz hildako jainkoaren arima oinordetzen delakoa, nahiz froga zuzenak falta zaizkigun. Izan ere, erakutsi dugu jadanik hainbaten ustez jainko gizon eginaren arima beste norbaitengana iragaiten dela hiltzean; eta hau heriotza berezkoa denean gertatzen bada, zergatik ez luke gertatu behar heriotza bortxatua izan denean? Lehen herriek oso ezaguna dute hiltzen den pertsonaren arima ondorengoarengana iragan daitekeelako ideia. Nias irlan, seme zaharrenak aitari situ ohi dio buruzagitzan. Baina gorputzeko nahiz buruko akatsen bat dela-eta seme zaharrena gobernatzeko gai ez bada, aitak erabakitzen du, bizirik den artean, semeetarik zeinek segituko dion. Oinordekotza-eskubidea erabakitzeko, ordea, beharrezkoa da aitak aukeratutako semeak haren azken hatsa bere ahoan edo poltsa batean jasotzea, eta harekin batera hildako buruzagiaren arima. Izan ere, haren azken hatsa harrapa dezan edonor buruzagi izango da izendatutako ondorengoarekin batera. Horregatik, beste anaiak, eta batzuetan baita atzeritarrak ere, hiltzean dagoen gizonaren ingurubiran paratu ohi dira arima harrapatzeko. Niasko etxeak zutarrien gainean daude, lurretik altxata, eta gertatu izan da hiltzera doan gizona zoruan ahozpe egotea eta hautagaietako batek zuloa egitea azpitik eta buruzagiaren azken hatsa banbuzko tutu batez hartzea. Buruzagiak semerik ez duenean, haren arima poltsa batean jasotzen da, eta poltsa hildakoa irudikatzen duen irudiari lotzen zaio; arima irudira pasatzen delakoan daude.

Batzuetan irudi luke erregearen eta aurreko beste erregeen arimen arteko lotura izpirituala hauen pertsonen zati bat edukita sortzen dela. Hegoaldeko Celebesen erregetzaren ezaugarriak hildako rajen gorpu-zatiak izaten dira sarri; erlikia sakratuen gisa gordetzen dira eta tronurako eskubidea ematen dute. Era berean, Madagaskarko hegoaldeko sakalavatarren artean, hildako erregearen lepa-ornoa, azkazala eta ile-xerloa krokodilo baten hortzean jarri eta kontuz gordetzen dira aurreko erregeen erlikiekin batera, hartarako eta aparte dagoen etxe batean. Erlikia horiek edukitzeak tronurako eskubidea ematen du. Legezko oinordekoak galduko balitu, herriaren gaineko aginte guztia galduko luke, eta alderantziz, usurpatzaileraren bat erlikiez jabetuko balitz, errege onartuko lukete inolako eztabaidarik gabe. Alakea -Afrikako mendebaldean dagoen Abeokutako erregea- hiltzen denean, gizon printzipalek lepoa moztzen diote, eta burua lurrezko ontzi handi batean ipinirik, errege berriari eskaintzen diote; honen fetitxe bihurtzen da hura, eta errege berria behartuta dago hura ohoratzen. Batzuetan, errege berriak aurreko erregeen magia eta beste bertuteak seguruago jaso ditzan, aurreko hildakoaren puska bat jatea eskatzen zaio. Hala, Abeokutan, azken erregearen burua ondorengoari aurkeztu ezezik, mingaina moztu eta jan zezan ematen zitzaion. Horregatik, bertakoek norbait errege dutela adierazi nahi dutenean, hala esan ohi dute, "errege jan du". Era horretako ohitura bat indarrean dago oraindik Ibadanen, Lagosko barrualdeko hiri handi batean, Afrikako mendebaldean. Erregea hiltzen denean, lepoa moztu eta izenezko erregeari bidaltzen zaio, Oyoko alafinari, yorubatarren errege nagusiari alegia; baina bihotza ondorengoak jaten du. Orain urte asko ez dela egiten zen zeremonia hau, Ibadango errege berria tronuratzean.

Aurreko froga guztiak kontuan hartuz, pentsa dezakegu jainkoen errege edo apaiza erailtzen denean, ustea dela haren izpiritua ondorengoarengana pasatzen dela. Egia esan, Nilo Zuriko shilluken artean, jainkoen erregeak hil egiten baitituzte, errege bakoitzak zeremonia bat burutu behar izaten du tronuratzean: aurreko errege guztiak, bata bestearen atzetik, tronuan biziartzat zituen izpiritu sakratu eta gurgarri berbera etor dakion pentsatutako zeremonia, hain zuzen.

Zuhaitz-izpirituaren hilketa

1. Mendekosteko maskaradak

Orain jainkozko errege edo apaiza hiltzeko ohiturak gure azterketaren helburu nagusian zer argi egiten duen galdetzea falta zaigu. Lan honen lehenagoko parte batean ikusi dugu badela arrazoirik pentsatzeko Nemiko Basoko Erregea zuhaitz-izpiritu baten edo landaretzaren izpirituaren gizakuntza zela, eta alde horretatik, bere gurtzaileen sinestearen arabera, ahalmen magikoa zuela zuhaitzek fruitua eman zezaten, laboreak haz zitezen eta abar. Beraz, haren bizia oso gauza preziatua zelakoan gordeko zuten gurtzaileek, eta seguruenik neurri edo tabuen sistema oso landuaz inguratuta zegoen, beste hainbat lekutan giza jainkoaren bizia deabru eta sorgileen eragin gaiztoaren kontra gorde izan den bezala. Baina ikusi dugunez, giza jainkoaren biziari aitortutako balio horretxek behartzen du hura bortxaz hiltzera, adinak nahitaez dakarren gainbeheratik gordetzeko bide bakarra horixe izaki. Arrazoiketa berbera ezar dakioke Basoko Erregeari ere: hau ere hil egin beharko zuten, beragan haragi hartutako jainkozko izpiritua bere osoan ondorengoari iragan zekion. Indartsuagoren batek hil arte karguari eusten ziola zioen arauak bi gauza segurtatuko zituen: jainkozko bizia indar betean gordetzea eta ondorengo egokiari iragaitea indar hura gutxitzen hasi orduko. Izan ere, esku sendoz bere lekuan mantentzeko gauza zen bitartean, pentsa liteke haren indarra ez zela gutxitzen hasia; aldiz, inoren eskuz azpiratua eta hila izateak frogatuko zuen haren indarra agortzen hasia zela eta ordua zela jainkozko biziak hain hondatuta ez zegoen tabernakuluan ostatu har zezan. Basoko Erregea bere ondorengoak hil behar duelako arauaren azalpen honek guztiz ulergarri egiten du arau hau. Nahikoa froga ematen dituzte shilluken teoriak eta praktikak: osasuna galtzen hasi zela erreparatu orduko, hil egiten zuten jainkozko erregea, zaharminak laboreei, ganaduari eta gizakiei bizi-indarraren galera ekar ez ziezaien. Gainera, txitomearekiko analogiak ere laguntzen dio: munduaren izatea honen biziaren menpe zegoen eta, beraz, ondorengoak indarrez hiltzen zuen ahuleziaren lehen zantzuak agertu bezain laster. Orobat, Calicuteko erregeak orainago karguari eusteko modua Basoko Erregeak bere karguari eusteko moduaren berdin-berdina da, salbuespen batez: lehenari erregegai batek noiznahi eraso diezaioke, eta Calicuteko erregeari hamabi urtez behin bakarrik. Baina Calicuteko erregeari emandako baimena, bere burua etor zitezkeen guztien kontra defendatzeko gai zen artean errege izatea alegia, erregearen biziari muga jakin bat ezartzen zion arau zaharraren biguintzea zenez, pentsa genezake Basoko Erregeari emandako baimen berdina ere ohitura zaharrago baten biguintzea zela: aldi jakin baten amaian erailtzekoarena, alegia. Bi kasuetan, arau berriak bizirik segitzeko aukera bat ematen zion behinik behin jainko-gizonari, arau zaharrak ukatzen ziona; eta herriak seguruenik horrexegatik eman zion amore aldaketari, pentsatu zuelako jainko-gizonak bere burua eraso guztietatik ezpataz defenda zezakeen bitartean, ez zegoela arrazoirik zorigaiztoko gainbehera hasi zela uste izateko.

Basoko Erregea hasieran epe jakin baten amaian -bizirik irauteko aukerarik eman gabe- hiltzen zutelako aierua, berretsia geratuko litzateke baldin eta froga baledi haren parekoak ere, Europako iparraldeko zuhaitz-izpirituaren giza ordezkariak alegia, aldiro hiltzen zituztela. Eta egia esan, halako ohiturak zantzu nabariak utzi ditu nekazarien ospakizunetan. Eman ditzagun adibideak.

Niederporingen, Bavaria Beherean, zuhaitz-izpirituaren Mendekosteko ordezkaria -Pfungstl deritza- hostoz eta lorez biltzen zuten goitik behera. Buruan txano garai zorrotza eramaten zuen, sorbaldetaraino sartuta eta bi zulo besterik ez zituela, begien parean. Txanoa uretako lorez estalita egon ohi zen, gainean peonia-sorta batekin. Jantziaren maukak ere uretako landarez eginak ziren, eta gorputza haltz eta hurritz-hostoz bildua. Alde banatan mutil bat joaten zen Pfungstl delakoa besotik hartuta. Bi

mutil haiek ezpata biluziak eramaten zituzten, baita segizioa osatzen zuten beste gehienek ere. Etxez etxe geratzen ziren, opariaren zain; eta jendeak, ezkututik, urez mela-mela egiten zuen hostoz jantzitako mutila. Atsegin handia hartzen zuten denek blaitzen zutenean. Azkenez, errekan gerriraino sartzen zen eta mutiletako batek, zubi gainetik, lepoa moztan ziolakoa egiten zuen. Wurmlingenen, Suabian, mutiko-aldra bat praka eta brusa zuriz janzten dira Mendekoste-jaiaren biharamunean, gerriko gorritz eta gerrikoetatik ezpatak zintzilik dituztela. Zaldiz joaten dira basora, bi tronpetari tronpetei puzka dituztela buru. Basoan haritz-abar hostotsuak ebakitzen dituzte, eta horiekin burutik oinetaraino biltzen dute herritik azken heltzen dena. Zangoak, ordea, banaka biltzen dizkiote, berriz ere zaldi gainean ibil ahal dadin. Gainera, sasi-lepo luze bat egiten diote, gainean sasi-burua eta aurpegi izuna dituen. Gero maiatz-arbola bat moztan dute, hamar bat oineko lertxuna edo pagoa gehienetan; eta kolorezko zapiz eta zintaz apaindu ondoren, "maiatz-eramale" berezi baten eskuetan uzten dute. Zaldizkoak musikaz eta kantuz itzultzen dira herrira. Prozesioan doazen pertsonaien artean, aurpegia belztuta eta buru gainean gurutzea daraman errege mairu bat, Burdinbizar doktorea, kaporalak eta berreroak joaten dira. Herriko zelai batean geldialdia egiten dute, eta pertsonaia bakoitzak hitzaldia egiten du bertsotan. Berreroak hostoz jantzitako gizonari herio-zigorra ezarri zaiola iragartzen du, eta lepo izuna moztan dio. Gero zaldizkoek lasterketa egiten dute, urrun samar zutik ipini duten maiatz-arbolaraino. Lauhazkan ondotik pasatzean lurretik erauzten duen lehen gizonak bere apaindura eta guzti jasoko du. Zeremonia hau bi edo hiru urtez behin burutzen da.

Saxonian eta Turingian bada Mendekosteko zeremonia bat, "Basagizona sasiartetik iraitzea" edo "Basagizona basoan atxitzea" deritzana. Mutil gazte bat hosto edo goroldiotan biltzen dute, eta Basagizon deitzen diote. Basoan ezkututzen da eta herriko beste gazteak haren bila hasten dira. Aurkitzen dutenean, basotik preso atera eta kartutxorik gabeko eskopetez tirokatzen dute. Hilda bezala erortzen da, baina mediku jantzitako mutil batek odola ateratzen dio, eta berriz ere bizkortu egiten da. Orduan denak pozten dira, eta gurdi baten gainean lotuta jarri eta herrira ekartzen dute, eta jende guztiari esaten diote nola atxitu duten Basagizona. Opariak jasotzen dituzte etxez etxe. Erzgebirgen, ondoko ohitura hau berritzen zen urtero ihauterietan hamazazpigarren mendearen hasieran. Bi gizon basagizon-itxuran, bat sasiz eta goroldioz, bestea lastoz, kalerik kale eramaten zituzten merkatu-plazaraino; han esetsi egiten zieten harrapatu arte, baita tirokatu eta makilatu ere. Erori aurretik, zabuka ibiltzen ziren barregarri eta jendeari puxika batzuetatik odol-txorrotadak jaurtiz. Lurreratu ondoren, ehiztariek oholen gainean jarri eta garagardotegira eramaten zituzten, meatzariak ere ondoan zituztelarik, beren lanabesak airean astinduz ehizaki ederren bat harrapatu izan bailuten. Ihauterietako ohitura berdintsua dago oraindik ere Schluckenaun, Bohemian. Basagizon jantzitako gizon bat jazartzen dute kaleetan zehar, kalexka estu bateraino ekarri arte. Han soka bat izaten da alderik alde jarria, eta estropezu egin eta erori egiten da, eta erasotzaileek harrapatu egiten dute. Berreroak korrika etorri eta ezpataz zulatzen du Basagizonak gorputzaren jiran daraman puxika odolez betea; hala, Basagizona hil egiten da, odol-jarioak lurra blaitzen duen bitartean. Biharamunean Basagizonaren antzez egindako lastozko gizon bat eramaten dute putzu batera eta berreroak bertara jaurtitzen du. Zeremonia honi "Ihaute ehorztea" deritza.

Semicen (Bohemian) erregeari lepoa mozteko ohitura Mendekoste-jaiaren biharamunean egiten da. Gazte-jende koadrila bat mozorrotu egiten da; bakoitzak zuhaitz-azalezko gerrikoa izaten du, eta zurezko ezpata eta sahats-azalezko tronpeta. Erregeak zuhaitz-azalezko jantzia izaten du, lorez apaindua, buruan ere lorez eta abarrez apaindutako azalezko koroa, oinak garotan bilduak; aurpegia maskara batek estaltzen dio, eta elorri-ziria izaten du eskuan aginte-makila gisa. Mutil batek herrian zehar

eramaten du oinari lotutako sokatik, eta beste guztiak inguruan dantzan, tronpetei puzka eta txistu eginez. Etxalde bakoitzean esetsi egiten diote erregeari, eta koadrilako batek, zaratots eta garrasi handien artean, kolpatu egiten du ezpataz zuhaitz-azalezko jantzian hotsa ateratzen dion arte. Gero saria eskatzen dute. Lepoa moztearen zeremonia, leku honetan galdu samarra dagoena, egi itxura handiagoz egiten dute Bohemiako beste alde batzuetan. Koniggratz barrutiko herri batzuetan, esaterako, Mendekoste-biharamunean neskak ezki baten azpian biltzen dira, eta mutilak beste ezki baten azpian, denak ere beren arroparik onenekin eta zintaz apainduta. Gizon gazteek lore-uztaia txirikordatzen dute erreginarentzat, eta neskek beste bat erregearentzat. Errege-erreginak hautatu dituztenean, denak prozesioan joaten dira binaka garagardotegira, eta hango balkoitik pregonari batek errege-erreginen izenak aldarrikatzen ditu. Biei ezartzen zaie beren karguaren adierazlea eta lore-uztaiez koroatzen dituzte, musika jo bitartean. Gero, norbaitek banku baten gainera igo eta erregea salatzen du, hainbat arau-hauste egin dituela eta: ganaduari tratu txarra eman diola eta gisa horretakoak. Erregeak lekukoak eskatzen ditu, eta epaiketa dator ondoren. Epaiaketaren buruan epaileak, karguaren adierazgarritzat ziri zuria daramalarik, epaia ematen du, "errudun" edo "errugabe". Epaia "errudun" bada, epaileak ziritxoak hausten du, erregea zapi txuri baten gainean belauikatzen da, denek buruko kapelak erantzten dituzte, eta soldadu batek hiru edo lau kapela jartzen dizkio erregeari bata bestearen gainean. Gero epaileak "errudun" hitza esaten du hiru aldiz ozenki, eta erregeari lepoa mozteko agintzen dio pregonariari. Pregonariak obeditu egiten dio: Erregearen kapelak erauzten ditu zurezko ezpataz.

Baina beharbada, gure asmorako, alegiazko exekuzio hauetan irakasgarriena Bohemiako hauxe dateke. Pilsengo barrutiko zenbait lekutan, Erregea zuhaitz-azalez jantzten dute, lorez eta zintaz apainduta; paper urre-kolorezko koroa duelarik, zaldi gainean joaten da, hau ere lorez apainduta. Epaile bat herriko plazara joaten da, borrarera eta beste pertsonaia batzuk lagun dituela, eta atzetik soldadu-taldea, denak zaldi gainean, eta han abar berdezko etxola izaten dute eraikia maiatz-arbolen azpian. Zuhaitzok izai moztu berriak izaten dira, goraino zurituak eta lorez eta zintaz apailatuak. Herriko andre eta neskak kritikatu eta igel bati lepoa moztu ondoren, zaldizkoak aurrez erabakitako plazara joaten dira; kale zuzen eta zabal batean dago plaza hori. Han bi lerrotan jartzen dira eta erregeak lasterrari ematen dio. Abantaila-pixka bat uzten diote eta bere ahal guztian abiatzen da, atzetik tropel osoa duelarik. Harrapatzen ez badute, errege jarraitzen du beste urtebetez, eta arratsaldean lagunak ordaindu egin behar diote garagardotegian. Baina harrapatzen badute, makilatu egiten dute hurritz-ziriz edo zurezko ezpatez, eta zalditik jaistera behartzen dute. Gero borrarera galdetzen du: "Lepoa moztuko al diot Erregeri?". Erantzun egiten zaio: "Motz iezaiozu". Beraz, borrarera aizkora altxatzen du eta, "bat, bi eta hiru, bego Errege bururik gabe" esanez, burua erauzten dio. Bertaratuen oihu eta garrasien artean, erregea lurrera erortzen da; gero hilkutxan jarri eta etxalde hurbilenara eramaten dute.

Halako era alegiazkoan hiltzen dituzten pertsonaia gehienek ezagun-ezaguna dute zuhaitz-izpirituaren edo landaretzaren izpirituaren ordezkariak direla, izpiritu hori udaberrian agertzen baita. Aktoreek jantzten dituzten zuhaitz-azalak, hostoak eta loreak, eta zein urtarotan agertzen diren ikusita, argi ageri da Belar erregea, maiatz-erregea, Jack-in-the-Green eta lan honetan lehenago aztertu ditugun landareen udaberriko izpirituaren beste ordezkari batzuen mota berekoak direla. Honi buruz izan litezkeen zalantzak ezabatzeko, honako hauxe dugu, bi kasutan bederen indarrez hildako gizonok lotura zuzena dutela maiatz-arbolekin; maiatz-arbolak zuhaitz-izpirituaren irudikapen nortu gabea baitira, maiatz-erregea, Belar erregea eta abar izpiritu horren irudikapen nortua diren bezala. Pfingstl delakoa blaitzea eta errekan gerriraino sartzea, beraz, lehenago deskribatu ditugunak bezalako euri-xarmak dira ezbairik gabe.

Baina pertsonaia hauek udaberrian landaretzaren izpiritua irudikatzen badute -horixe irudikatzen baitute-, galdera hau sortzen zaigu: zergatik horiek hil? Zertarako hil landaretzaren izpiritua edozein sasotan eta batez ere udaberrian, hain zuzen haren zerbitzuak beharrezkoen direnean? Galdera horri eman lekiokkeen erantzun bakarra, nonbait, jainkoen errege edo apaiza hiltzeko ohiturari eman diogun azalpena dateke. Jainkoen bizitza, gorputz hezur-haragizko eta hilkor batean zertua, orbandu eta usteldu egin dezake aldi baterako itxitura duen tresna hauskor horren ahuleziak; eta gizon egitearekin batera, urteak aurrera ahala, derrigor ahuldu behar horretatik salbatzekotan, berorretatik askatu beharra dago gainbeheraren arrastoak azaltzen hasi baino lehen edo hasi orduko, oinordeko indartsuago baten baitara alda dadin. Hau jainkoaren ordezkari zaharra erailez eta jainkoen izpiritua beste nor berri batera bideratuz egiten da. Beraz, jainkoa erailteaz, jainkoaren giza ordezkaria erailteaz alegia, derrigorrezko urratsa besterik ez da, itxura hobez pizt ahal dadin. Jainkoen izpirituaren itzaltzea ez baina izpiritu horren agerpide garbiago eta indartsuagoaren hasiera besterik ez da hori. Jainkoen errege eta apaizak erailteko ohituraren azalpen honek orokorrean balio badu, are egokiagoa da, bistakoa denez, zuhaitz-izpirituaren edo landaretzaren izpirituaren ordezkaria udaberriko hiltzea ulertzeko. Izan ere, neguko landare-bizitzaren gainbeheraldia landaretzaren izpirituaren ahultze gisa ulertzen zuen lehen gizonak; izpiritua, halaxe pentsatzen zuen berak, zahartu eta ahuldu egin da eta, beraz, berritu egin behar da; nola?, hilez eta bizitzara gazteago eta kementsuago ekarriz. Horregatik, zuhaitz-izpirituaren ordezkaria udaberrian erailteaz beti lotzen da (hala pentsatu behar dugu) inplizituki, eta batzuetan baita esplizituki ere, bera itxura gazte eta indartsuagoan berritze edo piztearekin. Saxonia eta Turingiako ohituran, adibidez, Basagizona tirokatu ondoren, medikuak berriro biziarazten du; eta Wurmlingengo zeremonian Burdinbizar medikua ageri da, seguruenik noizbait horrelako betekizuna izan zuena; gaur egun deskriba daitekeen udaberriko beste zeremonia batean halaxe da: Burdinbizar doktorea hildako gizon bati bizia ematen saiatzen da. Baina jainkoaren berritze edo berpizteaz izango dugu zer esanik aurrerago.

Europako iparraldeko pertsonaion eta gure aztergaiaren -Nemiko Basoko Errege edo apaizaren- arteko antzak nahikoa harrigarriak dira. Iparraldeko mozturor horietan erregeak ageri zaizkigu: azal eta hostozko jantziek, abar hezezeko etxolak eta izaiek -zuhaitz hauen azpian baitute beren gortea-, basoko errege direla adierazten dute ez bairik gabe, Italiakoa den bezala. Honek bezala, haiek ere heriotza bortitza dute, baina bai bata eta bai besteek ihes egin diezaiokete, behin-behinekoz, beren indarrari eta zalutasunari esker. Iparraldeko ohitura horietako batzuetan, erregearen ihesa eta berari esestea zeremoniaren osagai garrantzitsua da, eta kasu batean behintzat erregeak jarraitzaileei irabazten badie, bizia eta kargua gordetzen ditu beste urtebetez. Azken kasu honetan, erregeak lasterka egin behar izaten du urtean behin bizia salbatzeko, karguari eutsiko badio, Calicuteko erregeak azkenaldian eusten zion bezala, hamabi urtez behin bizia erasotzaile guztien kontra defendatuz gero; edota Nemiko apaizak eusten zion bezala, eraso guztiei noiznahi aurre eginez. Adibide hauetan guztietan, jainko gizonaren bizia luzatu egiten da baldin eta, borroka edo ihesaren lehia gogorrean, gorputz-indarrak urritzen ez bazaizkio eta, beraz, bortxazko heriotza, lehenago edo geroago derrigor etorriko den arren, atzerarazi egin badaiteke. Ihes egiteari dagokionez, aipagarria da ihesa argi eta garbi ageri dela Basoko Erregearen bai legendan eta bai ohituran. Ihes egindako esklaboa izan behar zuen, tradizioak gurtzaren fundatzaile egiten duen Orestesen ihesaren oroigarri. Horregatik, idazle zahar batek honela deskribatzen ditu basoko erregeak: "eskuz indartsu eta oinez arin". Beharbada, Ariciako zuhaitziko erritualak osoki ezagutuko bagenu, aurkituko genuke erregeari bizitzeko aukera ematen zitzaioela ihesaren bidez, Bohemiako bere anaiari bezala. Lehenago bota

dut aieru hau: Erromako errege apaizaren urteroko ihesa (regifugium) antzerako ihesa zela hasieran; bestela esan, jatorriz errege haietako bat izango zela bera ere: edota epe jakin baten amaian heriotza ematen zitzaiena, edota eskuaren indarraz nahiz oinaren bizkorraz beren jainkotasuna indartsua eta paregabea zela frogatzen uzten zitzaien errege haietako bat. Beste antz bat aipatu beharra dago Basoko Errege italiarraren eta iparraldeko parekoen artean. Saxonia eta Turingian, zuhaitz-izpirituaren ordezkaria hil ondoren, atzera bizira ekartzen du sendagile batek. Horixe dio hain justu legendak gertatu zitzaiola Nemiko basoko lehen erregeari, Hipolito edo Virbiori: bere zaldien hankapean hil ondoren, atzera bizira ekarri zuela Eskulapio sendagileak. Legenda hori ondo egokitzen zaio Basoko Erregearen hilketa oinordekoarengan berritzeko edo berpizteko urrats bat besterik ez zela dioen teoriari.

2. Ihaute ehorztea

Orain arte, Nemiko apaiza bere ondorengoak hil behar zuela zioen arauaren azalpena eskaini dut. Gauzak horrela izan bide zirela, ez diot gehiagorik; ohituraz eta ohituraren historiaz dugun ezagutza eskasak galarazi egiten dit segurantzia handiagoz jardutea. Baina probabilitatea areagotu egingo da, azalpenaren baitan ageri diren arrazoiak eta pentsaera-moduak lehen gizartean indarrean egon zirela frogatzea daukagun neurrian. Orain arte zuhaitz-jainko baten heriotzaz eta berpizteaz arduratu gara. Baina erakusten badut jainkoa erailtzeko eta pizteko ohitura gizartearen ehiztari eta artzain-aroetan sortu zela, bortxaz hildako jainkoa abere bat zenean, edota garai hartarako ohitura hori bazela behinik behin, eta erakusten badut, orobat, nekazaritza-aroan iraun egin zuela, bortxaz hildako jainkoa laborea edota laborearen ordezkari zen gizakia zenean, nire azalpenaren probabilitatea asko handituko da. Horixe egiten saiatuko naiz segidan, eta espero dut eztabaidaren harian oraindik ere geratzen diren zenbait ilun argituko ditudala, eta ilun horiek irakurleari iradoki dizkioten zenbait korapilo ere askatuko ditudala.

Etendako puntutik ekingo diogu hariari tiraka, hots, europar nekazarien udaberriko ohituretatik. Deskribatutako zeremoniez gainera, badira bi aztura-multzo elkarren hurbil, zeinetan jainkozko edo naturaz gaindiko izakiaren heriotza simulatua ezaugarri nabarmena den. Bietako batean heriotza antzezten zaion izakiak ihauteria nortzen du; bestean Herio bera. Lehen zeremonia ihauterien amaieran tokatzen da, noski olgeta-egunotako azken egunean, ihaute motz edo astearte-ihautean alegia, edota Garizumako lehen egunean, hots, Hausterre-egunean. Beste zeremoniaren data -Herio Iraiztea edo kanporatzea, halaxe deitu ohi zaio eskuarki- ez da guztiz finkoa alde guztietan. Gehienetan Garizumako laugarren igandea izan ohi da, eta horregatik deitzen zaio Igande Hila; baina beste leku batzuetan astebete lehenago izaten da, eta beste batzuetan, hala nola Bohemiako txekiarren artean, astebete beranduago; aldiz, Moraviako alemaniar herrietan Hausterre ondorengo igandean ospatzen dute. Beharbada, hau ere esan izan da, eguna aldakorra izango zen jatorriz, lehen enara edo udaberriaren beste iragarleren bat noiz agertzen zen. Idazle batzuek jatorriz eslaviartzat daukate zeremonia. Grimmek uste zuen antzinako eslaviarren artean Urte Berriko jaieguna zela, urteari martxoan ematen baitzioten hasiera. Lehenik Ihauteren alegiazko heriotzaren adibideak emango ditugu, egutegian bestea baino lehenago baitator beti.

Lazioko Frosinonen, Erroma eta Napoliren arteko erdibidean, Radica izenaz ezaguna den antzinako ospakizun batek era atseginean hausten du Italiako hiri probintziar haren bizimodu hits beti-berdina ihauterien azken egunean. Arratsaldeko laurak aldera hiriko bandak, musika alaia joz eta atzetik jendetza handia duela, Piazza del Plebiscitora jotzen du, Suprefetura eta beste gobernu-eraikinak dauden lekura. Han, plaza erdian, lore-sorta koloreanitzez apaindutako eta lau zaldik daramaten gurdi eskerga baten ikusmirak gozatu egiten ditu erne eta aiduru dagoen jendetzaren begiak. Gurdi gainean aulki handi-handi bat izaten da, eta aulkia tronutzat hartuta Ihauteren irudi itzaltsua, hiru bat

metro garai den igeltsuzko gizona, aurpegi gorritzat eta irribarretsuz. Izugarritzko botek, Italiako itsas armadako ofizialen buruak luzitzen dituztenak bezalako latorritzko kaskoak, eta bitxikeria arraroz edertutako jaka koloreanitzak apaintzen diote kanpoaldea pertsonaia harrigarri hari. Ezkerreko eskua aulkiaren beso gainean pausatuta izaten du, eta eskuinaz jendetza agurtzen du airoski; eserlekuaren azpian denen bistatik gordetako gizon batek tiraka darabilen sokak mugiarazten dio besoa. Eta jendeak, gurdia inguruan egonezinez, haize ematen die bere sentipenei alaitasunezko oihu eroz, jende dotorea eta jende xehea denak elkarrekin nahasian eta Saltarello delakoa heriosuhar dantzan. Ospakizun horren bereizgarri bat du; denek eraman behar dute eskuan radica ("sustrai") bat, alegia aloearen edota, are hobeto, agabearen hosto handia. Inor jendartera halako historik gabe ausartuko balitz, kanpora botako lukete batere gupidarik gabe, salbu eta haren ordeztza handia edota bitxiki txirikordatutako belar-pila eramango balu makila luze baten muturrean. Jendetza, jira laburraren ondoren, mantso-mantso doan gurdia Suprefeturako atera lagundu ondoren, gelditu egiten da, eta gurdia, zoru berdindu gabean binbili-banbala, patioan sartzen da. Gero isiltasuna egiten da jendartean, eta ahapekako txutxumutxuak aditzen dira itsaso harrotuaren murmurra antzo, bertan izandako baten deskribapenaren arabera. Begi guztiak zuzentzen dira irrikaz Suprefeta bera eta legearen beste ordezkari guztiak egun hartako heroiari omen egitera irtengo diren atera. Une batzuek aiduru egon ondoren, biba eta txalo-zaparrada batek agurtzen ditu agintariak agertzean: irten, eskailerak jaitsi eta beren lekua hartzen dute prozesioan. Ihauterietako himnoak burrunbaka betetzen du airea, eta ondoren, orro ikaragarrien artean, aloe-hostoak eta azak gora jaurtitzen dira, eta denen buru gainetara erortzen dira, zintzoen nahiz bekatarien buru gainetara, eta horrek indarberritu egiten ditu ordura artekoak, denak borroka librean lotzen direlarik. Hasi-masi horiek guztiak denen atseginez amaitu ondoren, prozesioak bideari ekiten dio berriz. Atzealdean ardo-barrikaz zamatutako orga bat eta poliziak doaz; poliziok ardoa zerbitzatzen diete eskatzen dieten guztiei, eta ingurukoak borrokarik zabalenean lotzen dira, garrasi, kolpe eta biraoka, orgaren ondoko ilaran lekua hartu nahiz, diru publikoari esker mozor galanta harrapatzeko aukera paregabea galdu nahi ezta. Azkenez, prozesioa kale nagusietan barrena halako era arranditsuz ibili ondoren, Ihauteren irudia herriko plaza baten erdira eramaten dute: bitxiez gabetu, egur-pila baten gainera bota eta erre egiten dute jendetzaren garrasien artean, orduan ere Ihauteren kantak bazterrak burrunbaz betetzen dituelarik. "Sustrai" deitzen dituztenak sutara botatzen dituzte, eta inolako trabarik gabe ematen dira dantzaren plazerretara.

Abruzziko mendietan Ihauteren kartoizko irudia eramaten dute ezpain artean pipa bana eta praka-uhaletatik zintzilik ardo-botilak daramatzaten lau ehorzlek. Aurrean Ihauteren emaztea joaten da, beltzez jantzia eta negar-malkotan urtu beharrean. Noizbehinka taldea gelditu egiten da, eta emazteak jendeari hitz egiten dion bitartean, ehorzleek barruko gizonttoa freskatzen dute botilari muin emanez. Plaza zabalean alegiazko gorpua egur-pila baten gainean uzten dute, eta danbor-hotsean, emakumeek garrasi kirrinkariak eta gizonek orro latzak jaurtitzen dituztelarik, su ematen diote. Irudia erre bitartean, gaztainak jaurtitzen dira jendartera. Batzuetan haga baten gainean jarritako lastozko gizon batek egiten du Ihauteren ordeztzkoa. Bazkalondoan, mozorrotutako tropel batek eramaten du herrian zehar. Arratsaldean, lau mozorrotuk manta edo izara bat ertzetatik hartu eta haizatu egiten dute. Gero partaideek berriro ekiten diote prozesioari, malko lodiak isuriz eta beren saminaren handia lapiko eta txintxarrien laguntzaz are handiagotuz. Abruzziko mendietan, halaber, batzuetan gizon bizi batek nortzen du hildako Ihaute, hilkutxa batean etzanda, beste batek apaizarena egiten duelarik, bainontzi batetik ur bedeinkatua erruz botaz.

Kataluniako Lleidan bidaiari ingeles bat Ihauteren hiletaren lekuko izan zen 1877an. Ihaute-igandean oinezkoen, zaldizkoen eta zaldi nahiz gurdi gainetan zihoazen era askotako mozorrotuen prozesio handiak egin zion lagun Bere Grazia Pau Piri -halaxe deitzen zioten irudiari-, ospe eta arrandi handiz kalerik kale. Hiru egunez festa-giroa sekulakoa izan zen, eta ihauterietako azken eguneko gauerdian prozesioak berriz korritu zituen kaleak, baina beste era eta beste amaiera batez. Garai-gurdiaren ordeztu hil-gurdia atera zen, eta bertan Bere Grazia hilaren gorpua: mozorrotuen tropela, aurreko prozesioetan irri eta barre handiekin Ikasle Eroena egin zutenak, orain apaiz eta apezpiku jantzian zihoazen poliki, argizari handiak eskuetan eta hil-otoia kantatuz. Mozorrotu guztiak krespekin zihoazen, eta zaldizko guztiak zuzi irazekiekin. Kale nagusian zehar bere bide tristeari segitu zion prozesioak, etxe garai, solairu eta balkoi askotako artean. Leihoko bakoitza, balkoi bakoitza, etxegain bakoitza ikuslezu mukuru zegoen, denak ere fantasia handiz jantzi eta mozorrotuta. Ikuskizun guztiaren gainean zuzi mugikorren argi-itzalak dantzan; bengalargi gorri eta urdinak piztu-itzalika; eta zaldien ferra-hotsaren eta jendearen pauso geldia gainetik apaizen ahotsak aditzen ziren, requiema kantatuz, banda militarren danbor-hots hitsen artean. Plaza Nagusia iritsitakoan prozesioak tenk egin zuen, trufazko hileta-otoitza esan zitzaion Pau Pi zenduari, eta argiak itzali egin ziren. Berehala, deabruak eta beren aingeruak jendartetik irten, hartu gorpua eta hanka egin zuten, jendolde osoa atzetik zutela txilioka, garrasika eta bibaka. Jakina, harrapatu eta barreiatu egin zituzten deabruak; eta gorpu faltsua, haien atzaparretatik libratuta, hartarakoxe prestatutako hilobi batean utzi zuten. Halaxe hil eta halaxe ehortzi zuten Ihaute Lleidan 1877an.

Era honetako zeremonia ospatzen dute Proventzan Hausterre-egunean. Karamantran deritzan irudi bat, xelebre jantzita, zalgurdi batean edo andetan eramaten dute, jendetzak, barregarri jantzita halaber, lagun egiten diolarik, ardoz betetako kalabazak eramanez eta txantxetan edo benetan mozkor galanta dutelako itxuraz. Prozesioaren buruan epaile eta abokatu mozorrotutako zenbait gizon joaten dira, eta Garizumaren mozorroa duen pertsonaia garai flakosta bat; haien atzetik gazte-jendea joaten da zaldixka triste batzuen gainean ehorzle-jantzian, Karamantranek zain duen patuaz negar-itxurak eginez. Plaza Nagusian prozesioak tenk egiten du, epaimahaia osatzen da eta Karamantran salatuen aulkian esertzen dute. Epaiketa formal baten ondoren, herio-zigorra ezartzen diote, jendearen lantu artean; defendatu duen abokatuak azkenekoz besarkatzen du bezeroa; justiziaren ofizialek beren egitekoa betetzen dute; kondenatua bizkarra hormaren kontra duela jartzen dute, eta harri-zaparrada batek bidaltzen du eternitatera. Itsasoak edo ibai batek hartzen ditu haren gorpu-atal deseginak. Ia Ardena osoan zehar bazen eta oraindik ere bada ohitura bat, Hausterre-egunean Ihauterena omen den irudia erretzekoa, erre bitartean hartarako jarritako bertso batzuk kantatzen diren bitartean. Oso sarri, emazteari fideltasuna gutxien gorde ohi dion senarraren itxura eta antza eman nahi izaten zaio irudiari. Pentsa litekeenez, erretratu horretarako aukeratua izateko ohoreak sesioak eta xextrak sortu ohi ditu maiz etxeetan, batez ere erretratua eredu duen alai ibilzalearen etxe aurrean erretzen denean, lagunek eta auzoek miau, marraka eta beste hots goxo batzuek haren bertute pribatuek duten iritzia jendaurrean azaltzen dutenean. Ardenetako zenbait herritan, hezur-haragizko mutil gazte batek, albitzez eta lastoz jantzita, Mardi-gras-ena egiten zuen, halaxe deitzen baitzaio sarri Frantzian Ihaute nortuari, ordeztu duen aldiaren azken egunaren ondoren. Txantxetako epaimahaiaren aurrera eramaten zuten eta, heriotza-zigorra eman ondoren, bizkarra hormaren kontra jarri, soldadua exekuzio militarrean bezala, eta tiro egiten zioten kartutxo hutsez. Vrine-aux-Boisen, Thierry izeneko barregarri inuxente horietako bat ezbeharrez hil zen eskopeta bat oharkabea kargatuta zegoelako. Ihaute gizajoa tirokatuta erori zenean, jendeak luze eta indartsu jo zitkion txaloak, hain erori

zen natural; baina jaikitzen ez zela ikusita, berarengana joan zirenean, gorpu aurkitu zuten. Orduz geroztik ez da izan txantxetako beste exekuziorik Ardenetan.

Normandian, Hausterre-eguneko arratsaldean, ohitura zen Ihauteren Ehorzketa zeritzan ospakizuna egitea. Zarpail eskas batzuez jantzitako irudi ahul batek egiten zuen memelo zahar ospigabearena, aurpegi itsusian kapela zahar zimurtua belarrietaraino sartuta zuela, tripa handi biribila lastoz beteta; bizialdi luzea laxokeria guztiei emanda pasatu ondoren, bekatuen ordaina hartu behar zuen. Pisuaren azpian zabuka zihoan morroi sendo baten sorbalden gainera igota, ihauteriaren herri-pertsonifikazio honek bere azken ibilia egiten zuen kalerik kale, arranditsua ez bestelako moduan. Aurretik atabalaria eta inguruan jendaila ugaria irainka zuela -tartean herriko birigarro, purtzil-jende eta arlote guztiak-, zuzien argi ikaratien artean eramaten zuten irudia, pala eta kurriken, lapiko eta sartaginen, adar eta eltzeen zarata kirrinkarien artean, garrasi, marru eta fiuekin nahastuta. Noizean behin prozesioak tenk egiten zuen, eta moraltasunean gailen zen norbaitek salatzen zuen bekatari zahar porrokatua egindako gehiegikeria guztiez, hura bizirik erretzeko adinakoak ziren bekatuez alegia. Erruduna, ez baitzuen ezer esatekorik bere alde, lasto-pila batera jaurtitzen zuten, zuzia ezartzen zioten, eta berehala gar handiak altxatzen ziren, inguruan saltoka eta Ihauteren heriotzari buruzko bertso ezagunak oihukatuz zebiltzan haurren gozamenerako. Batzuetan irudia mendi-hegal batean behera jira-biraka botatzen zuten erre aurretik. Saint-Lon, Ihauteren irudi zarpailtsuaren atzetik alarguna joaten zen, morroskote handi bat emakume jantzian, aurpegian doluzko beloa zuela, lantu eta aiene ozenak jaurtiz. Mozorrotu-pila batek kaleetan zehar andetan eramanez ondoren, irudia Vire ibaiara botatzen zuten. Azken eszena oso grafikoki deskribatu zuen Octave Feuillet andreak, berak hirurogei urte lehenago, haurretan, ikusi bezala: "Nire gurasoek lagun batzuk gonbidatu zituzten Jeanne Couillarden dorre gainetik prozesioa pasatzen ikustera. Handixe ikusi genuen, arrasbeheran, limonada edan bitartean -barau-garaia izaki, ez zegoen beste ezer edaterik-, gogoan bizi-bizi betiko gordeko dudak ikuskizuna. Gure azpian Vire ibaia harritzko zubi zaharretik pasatzen zen. Zubi erdian Ihauteren irudia zegoen hostozko anda batzuen gainean, eta inguruan mozorrotu-koadrilak dantzatzen, kantuan eta zuziak eskuetan zituztela. Batzuek, arropa nabarrak soinean zituztela, deabruen gisan korritzen zuten baraldaren gainetik. Besteak, parrandaz nekatuta, pilareetan eseri eta lokartuta zeuden. Halako batean, dantzariak geratu egin ziren, eta tropeleko batzuek zuzia hartu eta sua eman zioten irudiari, eta ondoren ibaira bota zuten aurrekoak baino garrasi eta abarrots handiagoen artean. Lastozko gizona, erretxinaz ondo igurtzita, ur gainean joan zen garretan, suak ertzetako basoak eta gaztelu zaharren hormak argitzen zituela; gaztelu hartan lo eginak ziren Luis XI.a eta Frantzisko I.a erregeak. Txorimalo gartuaren azken distira, izar uxoa baten gisan, haranaren azken mugan itzali zenean, denak erretiratu ziren, jendetza eta mozorrotutakoak ere bai, eta guk geure gonbidatuekin aldegin genuen dorre harresitu hartatik".

Tubingengo inguruetan, astearte-ihautean ihauterietako hartza deritzan lastozko gizona eraikitzen dute; praka-pare zahar batzuk jantzten dizkiote, eta odolkoa edo odolez betetako bi puxika lotzen dizkiote lepoan. Epaietaren ondoren, lepoa moztzen diote, hilkutxan jartzen dute eta Hausterre-egunean lur ematen diote elizatarian. Honi "Ihaute ehorztea" deritza. Transilvaniako zenbait saxoniarren artean, Ihaute urkatu egiten dute. Hala, Brallerren, Hausterre-egunez edo astearte-ihautez, bi zaldi zurik eta bi gorrik lera bat eramaten dute, eta bertan zapi zurian bildutako lastozko gizona; haren ondoan gurdi baten gorpila etengabe jira-biraka. Bi mutilek, agure mozorrotuta, lerari segitzen diote lantuka. Herriko beste mutil guztiek, zaldi gainean eta zintaz apainduta, lagun egiten dute prozesioan; buruan bi neska jartzen dira hosto bizkorrez koroatuta, orga edo leran hauek ere. Epaiaketa egiten da zuhaitz baten azpian, eta soldadu mozorrotutako mutilek

herio-epaia ematen dute. Bi agureak lastozko gizona askatzen eta berarekin hanka egiten saiatzen dira, baina alferrik: bi neskek harrapatu egiten dute eta borrareroangana eramaten, eta honek zuhaitz batetik urkatzen du. Alferrik saiatzen dira bi agureak zuhaitzean gora igo eta lastozko gizona eraisten; erori egiten dira beti, eta azkenean lurrean etzan eta negar-zotinka hasten dira urkatutako gizonarengatik. Ondoren, ofizial batek hitzaldia botatzen du, esanez gaitz egin dielako kondenatu dutela heriotzara Ihaute, beren oinetakoak jantzi zituelako eta nekatuta eta logurak utzi zituelako. Lechrainen, "Ihautearen ehorzketan", lau gizonak emakume-soineko beltzez jantzitako gizon bat eramaten dute andetan edo hilkutxa batean; arropa beltzez jantzitako gizonak erosta egiten dute, eta ondoren herriko goroztegira jaurti, urez blaitu, goroztegiaren ehortzi eta lastoz estaltzen dute. Astearte-ihauteko arratsaldean, estoniarrek lastozko irudia egiten dute, metsik edo "basoko izpiritua" deritzana; urte batean gizonetzkoen jaka-kapelez janzten dute, eta hurrengo urtean emakumezkoen sonbreroaz eta gonazpikoaz. Irudi hori haga luzean iltzatzen dute eta herri-inguruetatik zehar eramaten alaitasunezko irrintzi artean, eta basoan zuhaitz baten gain-gauean lotzen dute. Zorigaitz ororen kontrako babesgarritzat hartu ohi da zeremonia hau.

Batzuetan, ihauterietako edo Garizumako zeremonia hauetan, ustez hildako pertsona horren berpiztea ere antzezten da. Hala, Suabiako alde batzuetan, astearte-ihautez, Burdinbizar medikuak odola ateratzen dio gizon gaixo bati, eta berehala hau hilda bezala erortzen da lurrera; baina doktoreak azkenean bizitzara ekartzen du, tutu batetik putz egin eta hatsa emanez. Harz mendietan, ihauteriak amaitu direnean, gizon bat ore-mahaian etzaten dute eta hil-otoitzen artean eramaten dute hilobi batera; baina gizonaren ordeztar-pattar-botila ehorzten dute. Hitzaldia egiten da eta gero jendea herriko plazara edo biltokira itzultzen da, eta han hiletetan banatu ohi diren buztinezko pipa luzeetan erretzen dute. Hurrengo urteko astearte-ihauteko goizean, pattarra atera eta denek handik edanez ematen zaio hasiera ospakizunari. Esan ohi den bezala, hura ere berpiztu egin da.

3. Herio iraiztea

"Herio iraiztearen" zeremoniak "Ihaute ehorztearen" ezaugarri asko ditu. Salbuespena: Herio iraiztearen ondotik zeremonia bat izaten da gehienetan, edo gutxienez aldarrikapena egiten da harekin batera, Uda, Udaberri edo Bizitza ekartzeko. Esaterako, Frankoniako erdialdean -Bavariako probintzia bat da hau-, Garizumako laugarren igandean herriko umeteriak Herioren irudia egin ohi zuen lastoz, eta kalerik kale erabiltzen zuten irrigarritzko arrandiz, eta gero erre egiten zuten herritik kanpora, oihu eta zarata artean. Honelaxe deskribatzen du Frankoniako ohitura hori hamaseigarren mendeko idazle batek: "Garizuma erdian, Elizak bozkarioa agintzen digun garaian, nire jaioterriko gazte-jendeak Herioren irudia egiten dute lastoz, eta haga batetik lotuta auzo-herrietara eraman ohi dute garrasi eta oihu artean. Batzuetan ondo hartzen dituzte, eta esnea, ilarrak eta madari ihartuak eskaini ondoren -alegia, sasoi horretako ohiko janaria-, atzera etxeratu egiten dira. Beste batzuetan, ordea, harrera ona ez beste edozer egiten diete: zorigaitzaren aitzindaritzat edo hartzen baitituzte, heriotzarenak alegia, herritik kanpo botatzen dituzte armaz eta irainez". Erlangen inguruko herrietan, Garizumako laugarren igandea hurbil zenean, neska baserritarrek beren arropa dotoreenez janzten ziren, ilean loreak jarritz. Halako gisan, herrira joaten ziren, hostoz apaindutako eta zapi zuriz estalitako panpinak eramanez. Etxerik etxe ibiltzen ziren binaka, ate guztietan gelditu eta hitz batzuk kantatuz, Garizuma erdia zela eta Herio ibaira bota behar zutela iragartzeko. Esku-saritxoak jaso ondoren, Regnitz ibaira joan eta uretan sartzen zituzten Herioren irudi ziren panpinak. Urte emankor eta oparoa segurtatzeko egiten zen hau; gainera, izurritearen eta supituko heriotzaren kontrako babesgarritzat hartzen zen. Nurembergen zazpi eta hemezortzi urte bitarteko neskak kalez kale joaten dira

hilkutxatxo irekia eramanez, eta bertan panpina hilatorraz estalita. Beste batzuek pagoabarra eramaten dute, mutur batean sagarra lotuta duena, kutxa ireki batean. Hala kantatzen dute, "Uretara botako dugu Herio, ondo dago hori" edo "Uretara botako dugu Herio, sartu eta atera egingo dugu". Bavariako zenbait aldetan, 1780. urtea aldera, uste zen izurrite gaiztoa etorriko zela "Herio iraitzeko" ohitura ospatzen ez bazen.

Turingiako herri batzuetan, Garizumako laugarren igandean, hurrek urki-abartxo egindako panpina eramanez ohi zuten herrian zehar, eta ondoren putzu batera botatzen zuten, honela kantatuz: "Herio zaharra daramagu artzainaren etxe zahararen osterara; uda dugu, eta Kroden-en boterea desegina da". Debschwitz edo Dobschwitz, Geratik hurbil, "Herio iraitzeko" zeremonia martxoaren lehenean ospatzen zen. Gazte-jendeak irudia egiten zuen lastoz edo antzeko gaiez, herriko etxeetan eskean jasotako arropa zaharrez jantzen zuen, eta herriko atera eta ibaira botatzen zuen. Herria itzultzean berri ona zabaltzen zieten herritarrei, eta arrautzak eta beste opari batzuk jasotzen zituzten saritan. Zeremoniak herria garbitzen omen zuen, hala uste zen, eta bertakoak gaixotasunetik eta izurrietatik gordetzen omen zituen. Turingiako beste herri batzuetan, biztanleak jatorriz eslaviarrak direnetan, panpina eramatearekin batera honela hasten den kanta kantatzen dute: "Orain Herio daramagu herriko kanpo, eta Udaberri dakargu herria". Hamazazpigarren mendearen hondarrean eta hemezortzigarrenaren hasieran segidan azalduko dugun bezala ospatzen zuten ohitura hau. Neska-mutilek irudia egiten zuten lastoz edo antzeko gairen batez, baina irudiaren itxura aldatu egiten zen urte batetik bestera. Urte batean agurea irudikatuko zuen agian, hurrengoan atsoa, hirugarren urtean mutil gaztea eta laugarrenean neska, eta irudiaren jantzia ere aldatu egiten zen urtean urteko pertsonaiaren arabera. Sesio latzak izan ohi ziren irudia zein etxetan egin erabakitzerakoan; izan ere, jendeak uste zuen hura zein etxetatik irtengo, urte hartan heriotza ez zela azalduko etxe hartara. Egin ondoren, panpina haga baten muturrean lotzen zuten, eta neska batek eramaten zuen irudia agurearena bazen, baina mutil batek atsoarena bazen. Hala, prozesioan eramanez ohi zuten, gazte-jendeak eskuetan makilak zituelarik eta Herio kanporatzen ari zirela kantatuz. Ur-ertzeratik iristen zirenean, bota irudia bertara eta bizkor atzeratzen ziren, beldurrez bizkar gainera salto egin eta lepoa bihurrituko ez ote ziren. Kontu handia izaten zuten hura ez ukitzeko, ihar ez zitzan. Bueltan makila haietaz akuilatzen zuten ganadua, sinetsiz hartara abereak gizendu egingo zirela edo umeak egingo zituztela. Ondoren, Herioren irudia zein etxetatik atera zuten, etxe hura edo etxe haiek bisitatzen zituzten, eta han erdi-egositako ilar batzuk ematen zitzaizkien. Saxonian ere gordetzen zen "Herio iraitzeko" ohitura. Leipsicen sasikoek eta emakume publikoek Herioren irudia egin ohi zuten lastoz urtero Garizumaren erdialdera. Kale guztietan zehar eramaten zuten kanta artean, eta emakume gazte ezkonduak erakusten zieten. Azkenean, Parthe ibaira jaurtitzen zuten. Zeremonia haren bidez uste zuten emazte gazteak haurrak izango zituztela, hiria garbitu egingo zela, eta urte hartan herritarrek izurri eta beste gaitzetatik babestuta izango zirela.

Silesian ere gisa beretsuko zeremoniak ospatzen dira Garizumaren erdialdera. Hala, leku askotan neska haziak, mutilen laguntzaz, lastozko irudi bat emakume arropaz jantzi eta herriko kanpo ateratzen dute arratsean. Herri-mugan arropak erantzten dizkiote, txiki-txiki egin eta soroetan zehar sakabanatzen dituzte puskek. Honi "Herio ehorzte" deitzen diote. Irudia eramanez, Herio herriko irteten dadin, haritz baten azpian lur ematera doazela kantatzen dute. Batzuetan Herio goi-mendi eta ibarretan barrena daramatela dio kanta, berriz itzul ez dadin. Poloniako Gross-Strehlitz auzoan Goik deitzen diote panpinari. Zaldi gainean eramanez eta errekarik hurbilenean botatzen dute. Jendeak pentsatzen du zeremonia horrek hurrengo urtean era guztietako gaixotasunetatik babestuko dituela. Wohlau eta Guhrau eskualdeetan, auzo-herriko mugek barruan bota ohi zuten Herioren irudia. Baina auzokoak ere, hain zorigaitzoko

imaginaren beldur baitziren, zain egoten ziren errefusa egiteko, eta egur-partitzea izaten zen batzuen eta besteen artean. Silesia Garaiko zenbait alde poloniarretan Marzana deritza atso zahar bat irudikatzen duen irudiari, heriotzaren jainkosa alegia. Azken hildakoa zein etxetakoa den, etxe hartan egiten dute irudia, eta haga batean eramaten dute herriko mugaraino; han putzu batera bota edo erre egiten dute. Polkwitzen "Herio iraitzeko" ohitura arrotzu egin zen; baina zeremonia egiteari utzi eta berehala gaixotasun latz bat sortzean, jendeak berriro ekin zion ospatzeari.

Bohemian haurrak Herio irudikatzen duen lastozko txorimaloarekin joaten dira herri-mugaraino, eta han erre egiten dute honela kantatuz:

"Orain herritik kanporatzen dugu Herio,

Uda berria dakargu herrira

Ongi etorri, Uda maitea,

labore berdetxoa".

Bohemiako Taboren Herioren irudia herritik atera eta haitz garai batetik uretara botatzen dute, honela kantatuz:

"Herio uretan dago,

Laster dugu hemen Uda,

Herio urrun eramán dugu zuentzat,

Uda ekarri dugu.

Marketa donea,

emaiguzu urte ona

gari eta zekaletan".

Bohemiako beste alde batzuetan honela kantatuz eramán ohi dute Herio herritik:

"Herritik kanpo daramagu Herio,

Eta Urte Berria dakargu herrira.

Udaberri maite, ongi etorri,

Belar gizen, ongi etorri".

Herri ostean erregai-pila bat eraikitzen dute, eta han erretzen dute lastozko txorimaloa, irainka eta trufaka. Gero itzuli egiten dira, haxe kantatuz:

"Urrun eramán dugu Herio,

Eta Bizia ekarri dugu.

Herrian geratu da,

Beraz, kanta itzazue kanta alaiak".

Moraviako herri alemaniar batzuetan, hala Jassnitz eta Seitendorfen, gazte-jendea Garizumako hirugarren igandean biltzen da, eta lastozko txorimaloa moldatzen dute, larruzko kapelaz eta larruzko azpantarrez apainduz gehienetan, halakorik aurkituz gero. Ondoren, irudia haga batean altxatu eta herri inguruko soroetara eramaten dute neska-mutilek. Bidean kanta bat kantatzen dute, esanez Herio daramatela eta Uda maitea dakartela etxera, eta Udarekin batera maiatza eta loreak. Seinalatutako lekura iritsitakoan, dantza egiten dute irudiaren inguruan, oihu eta garrasika, eta bat-batean jo eta txiki-txiki egiten dute eskuez. Azkenez, puskez pila egin, haga ere hautsi eta su ematen diote denari. Erre bitartean, tropelak dantza egiten du alai bira, bozkarioz Udaberrik lortutako garaitzagatik; eta sua ia itzali denean, etxajaunengana joaten dira arrautza batzuk eskatzera, eta oturuntza egiten dute, eskaeraren arrazoia ematerakoan Herio kanporatu dutela aipatzeke utzi gabe.

Aurreko adibideak erakusten digunez, Herioren irudiari beldur izaten diote sarritan, eta gorrotoz eta erdeinuz tratatzen dute. Hortik dator herritarren larria irudia lehenbailehen beren lurretatik auzo-herrira ateratzeko, eta auzokoek bisitari adu txarrekoa hartzeari dioten higuina. Lusazian eta Silesian panpina etxe bateko leihotik barrura begira jartzen da batzuetan, eta uste da urtebeteren barruan etxe horretako norbait hilko dela baldin eta

txanpon bat ordainduz bizia berriz erosten ez bada. Orobat, irudia jaurti ondoren, eramaleek batzuetan lasterka etxeratzen dira, Herio atzetik etorriko ote zaien beldurrez, eta norbait lasterrean erori egiten bada, urtebete horretan hilko dela uste da. Bohemiako Chrudimen, Herioren irudia gurutze batez egiten da, goialdean burua eta mozorroa jarritz eta alkandora batean bilduz. Garizumako bosgarren igandean, mutilek hurbileneko erreka edo putzura eramaten dute irudia eta, denak ilaran jarrita, uretara botatzen dute. Gero denak sartzen dira uretan; baina hari eskua erantsi bezain laster ezin daiteke inor sar. Uretan sartu ez den edo azkena sartu den mutila urtebeteren barruan hilko da, eta behartuta dago Herio atzera herrira eramatera. Gero irudia erre egiten da. Aldiz, ustea da Herioren irudia atera den etxean ez dela inor hilko urtebeteren barruan; eta Herioren irudia atera duen herria gaixotasunen eta izurrien kontra babestuta geratzen dela uste da batzuetan. Silesia austriarreko zenbait herritan, Igande Hilaren bezperan, irudia egiten dute arropa zaharrez, albitzez eta lastoz, Herio herritik kanporatzeko asmoz. Igande horretan jendea, makilak eta uhalak eskuetan, irudia dagoen etxe inguruan biltzen da. Lau mutilek soketatik tarraska eramaten dute irudia herrian zehar, garrasi alaien artean, beste guztiek makilez eta uhalez jotzen duten bitartean. Auzo-herri bateko soro batera iritsitakoan, irudia utzi, gogotik egurtu eta puskak soroan zabaltzen dituzte. Herritarrek uste dute Herio hala iraitzi duen herria libre izango dela urte osorako gaixotasun kutsagarrietatik.

4. Uda ekartzea

Aurreko zeremonietan ez da argi ageri Udaberria, Uda edo Bizia etorri egiten ote den, Herioren iraitzearen ondorioz; gehienez ere iragarri egiten da. Ondorengo zeremonietan argi eta garbi antzezten da hori. ohemiako zenbait aldetan, adibidez, ito egiten dute Herioren irudia, arrasbeheran uretara botata; gero neskak basora irteten dira eta adaburu berdeko zuhaitz gaztea mozten dute; emakume jantzitako panpina zintzilikatzen dute bertatik, zinta berdez, gorritz eta zuriz oso-osorik apainduta, eta herrira joaten dira prozesioan beren Litorekin (Udarekin), opariak bilduz eta honela kantatuz:

"Herio uretan dago,
Udaberri bisitan datorkigu,
arrautza gorriekin,
Opil horiekin.
Herio herritik iraitzen dugu,
Uda herrira dakargu".

Silesiako herri askotan Herioren irudia begirunez tratatu ondoren, arropak erantzten dizkiote eta uretara botatzen dute birao artean, edota txiki-txiki egiten dute sororen batean. Gero gazte-jendea basora abiatzen da, izai txikia moztu, enborra zuritu eta hosto bizien sortaz, paperezko larrosaz, arrautza-azal margotuz, zapi-zati nabarrez eta abarrez apaintzen dute. Hala apaindutako zuhaitzari Uda edo Maiatz deitzen diote. Mutilek etxerik etxe eramaten dute, abagune horri dagozkion kantak kantatuz eta saria eskatuz. Besteak beste, hona hemen kanta bat:

"Herio iraitzi dugu,
Uda maitea dakargu,
Uda eta Maiatza,
eta lore alai guztiak".

Batzuetan, oso polit apaindutako imajina bat ere ekartzen dute basotik, Uda, Maiatz edo Emaztegai deitzen diotena. Poloniar barrutietan Dziawanna deritza, udaberriko jainkosa alegia.

Eisenachen, Garizumako laugarren igandean, gazte-jendeak Herioren irudi zen lastozko txorimaloa lotzen zioten gupil bati, eta biraka jasotzen zuten muino baten gainera. Gero, irudiari su eman eta gupila maldan behera botatzen zuten jira-biraka. Ondoren

izai garaia moztu, zintaz apaindu eta lurrean zutik tinkatzen zuten. Gizonak zuhaitzetik gora igotzen ziren zintak hartzera. Lusazia Garaian azkena ezkonduak emaztegaiak eramandako beloa eta azken heriotza gertaturiko etxeok emandako alkandora janzen dizkiote lastoz eta trapuz egindako Herioren irudiari. Hala paratuta, irudia haga luze baten muturrean jarri eta neskari garai eta indartsuenak bizkor-bizkor eramaten du, beste guztiek makilaz eta harriz erasotzen dioten bitartean. Irudia jotzen duenak badaki urte osoan biziko dela. Horrela kanporatzen dute Herio herritik eta uretara edo auzo-herriko mugen barrura botatzen dute. Etxerakoan, bakoitzak abar heze bat hartzen du eta alai eramaten du herrira iritsi arte. Orduan jaurti egiten du. Batzuetan auzo-herriko gazte-jendeak, irudia beren lurretan hartu baitute, atzetik etorri eta atzera jaurti egiten diete, Herio berenean hartu nahi ezta. Horregatik, inoiz bi aldeetakoak muturka ere hasi izan dira.

Kasu hauetan jaurtitzen den panpinak Herio irudikatzen du, eta bueltan ekartzen diren abar edo zuhaitzek Uda edo Bizia. Baina batzuetan bizi-indar berri bat egozten omen zaio Herioren irudiari berari, eta berpizkunde moduko batez berrikuntza orokorrerako tresna bihurtzen da. Hala, Lusaziako zenbait aldetan, emakumeena eta ez beste inorena da Herio eramateko lana, eta ez dute ametitzen gizonezkoen partaidetzarik. Egun osoko doluan, lastozko panpina egiten dute, alkandora zuria janzen diote, eta esku batean erratza eta bestean sega jartzen dizkiote. Kantuan, atzetik haurrak harrika dituztela, herriko mugaldera eramaten dute panpina, eta han txiki-txiki egiten dute. Gero zuhaitz fin bat moztzen dute, alkandora bertatik eseki eta etxera ekartzen dute kantuan. Igokunde egunean, Transilvanian, Hermannstadtetik urrun ez dagoen Braller herriko saxoiarrek honelaxe burutzen dute "Herio iraitzeko" zeremonia: goizeko mezaren ondoren eskolako neska guztiak haietako baten etxera joaten dira, eta han Herio janzen dute. Hau, jotako arto-azao bat halamoduzko giza gorputz baten itxuran lotuz egiten dute, armen ordezkariak jartzen diotelarik, zeharka. Irudia baserritar emakume gazte baten jaieguneko arropaz janzen dute, txano gorritz, zilarrezko brotxez eta zinta ugariz besoetan eta paparrean. Neskak gogor lehiatzen dira, bezperetako kanpalek laster joko baitute, eta Heriok gertu egon behar du leihotik irekian jarria izateko, elizarakoan jende guztiak ikusi ahal dezan. Bezperak amaitutakoan iristen da hainbeste luzetsitako unea, eta Heriorekiko lehen prozesioa hasten da; pribilegio hori eskola-neskena beste inorena ez da. Neska zaharrenetako bik besoetatik heltzen diote irudiari eta aurrean jartzen dira: beste guztiak bi ilaratan segitzen diete. Mutilek ere parte har dezakete prozesioan, baina tropelean joaten dira, ahoa zabalik "Herio ederrari" begira. Era horretan, prozesioak herriko kale guztiak pasatzen ditu, neskek himno zahar bat kantatzen dutelarik. Honela hasten da:

"Gott mein Vater, deine Liebe

Reicht so weit der Himmel ist",

ohiko doinua ez den beste batez. Prozesioak kale guztiak pasatu ondoren, neskak beste etxe batera joaten dira, eta atzetik egonezinez zelatan duten mutil-saldoari atea itxiz, arropak erantzten dizkiote Heriori eta lastozko azao biluztua leihotik atera eta mutilei ematen diete; hauek hartu eta herritik kanpo eramaten dute kantatu gabe, eta ondoko erreka batean sartzen dute irudi biluztua. Hau egin ondoren, dramatxoaren bigarren ekitaldia hasten da. Mutilek Herio herritik atera duten bitartean, neskak etxean geratu dira, eta haietako batek jantzi ditu irudiak soinean zituen fineria guztiak. Hala dotoretuta, prozesioan eramaten dute kalerik kale aurreko himno bera kantatuz. Prozesioa amaitutakoan neska horren etxera jotzen dute denek. Han oturuntza izaten dute zain; mutilek ez daukate sartzerik. Herri-sineste baten arabera, haurrek batere kuidaorik gabe jan ditzakete larre-mahatsa eta beste fruta batzuk, Herio gisa horretan kanporatutako egunetik aurrera. Izan ere, ordura arte larre-mahatsean ezkutatu den

Herio suntsituta dago orain. Gainera, orain badaukate etxetik kanpo bainatzerik. Oso antzeko zeremonia gorde izan da urte gutxi batzuk arte Moraviako alemaniar herri batzuetan. Neskak eta mutilak Bazko ondorengo lehen igandearen bazkalondoan biltzen ziren, eta lastozko panpina moldatzen zuten denen artean Herioren irudira. Kolore anitzeko zintaz eta zapiz apainduta, eta haga baten muturretik lotuta, irudia kantu eta irrintzi artean eramaten zuten hurbileko muino batera, eta han arropa alaiak erantzi eta aldapan behera botatzen zuten. Nesketako batek Herioren irudiari kendutako bitxiteria guztiak janzten zituen eta, bera buru zela, prozesioa herrira etortzen zen. Herri batzuetan irudiari osperik txarrena duen inguruetako lekuan lur ematea da ohitura; beste batzuetan erredera botatzen dute.

Gorago deskribatutako Lusaziako zeremonian, Herioren irudia desegin ondoren etxera eramaten den zuhaitza beste ohitura hauetan ageri diren zuhaitz edo abarren baliokidea da argi eta garbi: Herio jaurti eta suntsitu ondoren, Uda edo Biziazen ordezkari gisa etxeratzen ziren zuhaitz edo abarren baliokidea. Baina Herioren irudiaren alkandora zuhaitzari janzteak nabarmen adierazten du zuhaitza suntsitutako irudi berpiztua dela, itxura berrian. Hauxe bera ageri da Transilvania eta Moraviako ohituretan ere: neska bat Heriok eramandako arropaz janzteak, eta herrian zehar Herio eramatean kantatutako kanta berbera kantatuz eramateak, erakusten dute suntsitu berri den irudiak ordeztu izakiaren berpizte modukoa izan nahi duela. Beraz, adibide hauek iradokitzen dutenez, zeremonia hauetan desegiten duten Herio ez dago guk hartzen dugun bezala hartzerik, hots, agente suntsitzailea besterik ez bailitza. Berriz bizkortzen hasi den landaretzaren gorpuzte gisa herriratzen duten zuhaitzari Herio suntsitu berriak jantzitako alkandora janzten bazaio, helburua ez daiteke inola ere izan landaretzaren berpizte hori geldiaraztea eta kontra egitea; aitzitik, bultzatzea eta laguntzea besterik ezin da izan helburua. Beraz, eman beharra dago suntsitu berri den izakia -Herio deitzen diotena- eragin biziarazle eta bizkortzailez jantzia dagoela, eta landareei eta are abereei ere kutsa diezaiekeela eragin hori. Herioren irudiari bizia emateko ahala egozte hau guztiz garbi uzten du zenbait lekutan gordetako ohitura batek: Herioren imajina egiteko erabilitako lasto-puska bat hartu eta soroetan jartzea laboreak haz daitezen, edota ganaduaren asketan aziendak hobe daitezen. Hala, Spachendorfen, austriar Silesiako herri batean, herritik kanpoko leku ireki batera eramaten dute Herioren irudi lastoz, sasiz eta trapu zaharrez eginga, kantu eroen artean, eta han su ematen diote, eta erre bitartean denak borrokan hasten dira nork puska bat bereganatuko, eta esku hutsez ateratzen dituzte garretatik. Irudiaren zati bat bereganatzen dutenek beren baratzako zuhaitzik garaienaren abar batetik zintzilik jartzen dute, edo beren alorrean lurperatzen, ustez horrela laboreak hobeto haziko direla. Austriar Silesiako Troppauko barrutian, neskek emakumez janzten dute mutilek Garizumako laugarren igandean egiten duten lastozko txorimaloa, eta zintak, idunekoak eta lore-sortak esekitzen dizkiote. Haga luze batean lotuta, herritik kanpora eramaten dute, atzetik gazte-jendea tropelean dutela, noiz txantxak, noiz lantua eta kantua txandakatuz. Helmugara iritsirik -herritik kanpo dagoen alor batera-, irudiari jantziak eta apaingarriak erantzten dizkiote; ondoren, jendetza oldartzen zaio eta txiki-txiki egiten dute, puskak harrapaka. Nork bere lasto-eskutada hartu nahi izaten du, eskutada horrek, ganaduaren asketan jarrita, aziendak hobetuko dituelako. Edota lastoa oiloen erruntegian jartzen da, hartara askoz arrautza gehiago emango dutelakoan. Heriori leporatzen zaion emankortzeko ahalmen berbera ageri da beste sineste batean: baldin eta irudia eramaten dutenek, hura jaurti eta gero, ganadua beren makilez jotzen badute, abereak gizendu egingo direla edo umeak egingo dituztela. Beharbada makila horiek aurrez Herio jotzeko erabili dira, eta hala irudiari leporatutako emankortzeko ahalmena bereganatu dute. Ikusi dugu, halaber, Leipsicen Herioren lastozko txorimaloa erakusten zitzaiela emazte gazteei, haurrak izan zitzaten.

Zaila iruditzen zaigu Herioren suntsiketaren ondoren herrira ekartzen diren zuhaitz edo abarrak maiatz-arboletatik erabat bereiztea. Ekarleek Uda dakartela aldarrikatzen dute; beraz, zuhaitzak Udaren irudi dira nabarmen; hain zuzen, Silesian Uda edo Maiatza deitzen diete, eta udako zuhaitzari batzuetan lotzen zaion panpina Udaren ordezkari bikoiztua da, Maiatza batzuetan maiatz-arbolak eta maiatz-andereak batera irudikatu ohi duten bezala. Gainera, udako zuhaitzak maiatz-arbola gisa apaintzen dira, zintaz eta abarrez; maiatz-arbolak bezala, handi direnean, lurrean landatu eta zutik paratzen dira; eta maiatz-arbolak bezala, txikiak direnean, atez ate eramaten dituzte neska-mutilek kantuan eta dirua bilduz. Eta bi ohitura-multzoen berdintasuna frogatu nahi bailuten, udako zuhaitzaren eramaleek Uda eta Maiatza dakartzatela iragartzen dute batzuetan. Hala bada, Maiatza eta Uda ekartzeko ohiturak gauza berbera dira funtsean; eta udako zuhaitza maiatz-arbolaren beste forma bat besterik ez da; alde bakarra (izenarenaz gainera), bata eta bestea ekartzen diren aldia izanik: maiatz-arbola maiatzaren lehenean edo Mendekoste-jaian ekartzen baita, eta udako zuhaitza Garizumako laugarren igandean. Beraz, maiatz-arbola zuhaitz-izpirituaren edo landareen izpirituaren gorpuztea bada, udako zuhaitzak ere, bide beretik, zuhaitz-izpirituaren edo landareen izpirituaren gorpuztea izan behar du. Baina ikusi dugu udako zuhaitza kasu batzuetan Herioren irudi berpiztua dela. Ondorioz, kasu horietan Herio deritzan irudiak zuhaitz-izpirituaren edo landareen izpirituaren gorpuztea izan behar du. Ondorio horren berme da, lehenik, Herioren irudiaren puskek ustez duten bizkortzeko eta emankortzeko ahala, bai landareetan eta bai abereetan; ahal hori, lan honetan lehenago ikusi dugunez, zuhaitz-izpirituaren tasun berezitzat jotzen da. Ondorio horren berme da, bigarren, Herioren irudia batzuetan hostoz apaindua edo abartxoz, abarrez, kalamuz edo jotako uzta-azaoz egina izatea; eta beste batzuetan zuhaitz txiki batetik zintzilikatu eta neskek horrela garraiatu izana diru-bilketan, maiatz-arbolarekin eta maiatz-anderearekin egiten den bezala, baita udako zuhaitzarekin eta bertan lotutako panpinarekin ere. Laburtuz: Herio iraitzea eta Uda ekartzea, landaretzaren izpirituaren heriotzaren eta udaberrian izaten duen berpiztearen beste aldaera bat direla jo behar dugu, kasu batzuetan behintzat; Basagizonaren hilketa-berpizteetan jokatura ikusi ditugu izpiritu horren heriotza eta berpiztea. Ihauteren ehorzte-berpizteak ere ideia bera adierazteko beste bide bat dira seguruenik. Ihauteren ordezkaria goroztegiaren sartzea bidezkoa da, baldin eta Herioren irudiari leporatzen zaiona bezalako eragin bizkortzaile eta emankortzailea aitortzen bazaio. Estoniarrek, hain zuzen, astearte-ihautean lastozko txorimaloa ohiko moduan herritik kanpo eramaten dutelarik, ez diote Ihaute deitzen, ezpada basoko izpiritua (Metsik), eta argi eta garbi adierazten dute irudia eta basoko izpiritua bat direla, basoko zuhaitz baten gainean josiz. Urtebete irauten du han, eta ia egunero joaten zaizkio otoitz eta eskaintzekin abere-taldeak babes ditzan erreguka. Izan ere, benetako basoko izpirituari dagokion bezala, Metsik hori ganaduaren patroiz zaindaria da. Batzuetan uzta-azaoz egiten dute Metsik.

Hala bada, bidezkoa dugu aieru hau egitea, alegia Ihaute, Herio eta Uda izenak adierazpide beranduko eta desegoki samarrak direla orain arte aztertu ditugun ohituretan nortu edo gorpuztutako izakientzat. Izen horien abstraktutasunak berak frogatzen du jatorri modernoak dutela; izan ere, ihauteria eta uda bezalako sasoiak edo heriotza bezain nozio abstraktua nortzea ez da primitiboa. Baina zeremoniek berek antzinatasun zehatzekinaren marka daramate; beraz, nola ez pentsatu jatorriz gorpuzten zituzten ideiak sinpleagoak eta zehatzagoak zirela? Zuhaitz baten nozioa, zuhaitz-mota jakin batena (basati batzuek ez dute hitzik orokorrean "zuhaitza" adierazteko), edota zuhaitz jakin batena, nahikoa zehatza da oinarritzat hartu eta, orokortze-prozesu gradualaren bidez, landaretzaren izpirituaren ideia zabalagora iristeko. Baina landaretzaren ideia orokor hori laster nahastuko zen landareak agertu ohi direneko urtaroarekin; horregatik,

udaberriak, udak edo maiatzak erraz eta naturalki ordezkatu zituzten zuhaitz-izpiritua edo landaretzaren izpiritua. Orobat, hiltzen ari den zuhaitzaren edo landaretzaren ideia zehatza, heriotzaren nozio orokor bilakatuko zen antzeko prozesu baten bidez; hartara, hiltzearen edo hilda dagoen landaretza, berriro aitzin, udaberrian iraizteko ohitura, Herio oro har heritik edo eskualdetik bidaltzeko saio bilakatuko zen denboraren joanean. W. Mannhardtek bermatzen digu, bere itzalaz, udaberriko zeremonia horietan Heriok jatorriz hiltzearen edo hilda zegoen neguko landaretza adierazten zuela: heriotza izena analogiaz labore helduaren izpirituari aplikatzen zaiola erakutsiz berresten du hori. Gehienetan ez da esaten labore helduaren izpiritua hil egin denik, zahartu egin dela baizik, eta horregatik Gizon Zaharra edo Emakume Zaharra hartzen du izentzat. Baina leku batzuetan uztaroan moztutako azken azaoari, oro har alearen izpiritua egoitatzat hartu ohi denari, "Hildakoa" deritza; hurrei ez zaie uzten labore-soroetan sartzen, Herio baitago laborean; eta Transilvaniako saxoniar hurrek artoaren uztagarai egiten duten jolas batean, goitik behera arto-hostoz estalitako haurra izaten da Herioren irudia.

5. Udaren eta Neguaren arteko borroka

Batzuetan, nekazarien herri-ohituretan, neguan lo dauden landareen ahalmenen eta udaberrian esnatzen den bizi-indarraren arteko kontrasteak lehia dramatikoaren itxura izaten du: hurrenez hurren, Neguarena eta Udarena egiten duten antzezleen arteko lehia alegia. Hala, Suediako herrietan, maiatzaren lehenean, gizon gazteen bi talde, zaldi gainetan, hil artekoa lirudikeen borrokan lotzen ziren. Talde baten buru Neguaren ordezkaria joaten zen, larrutan bilduta, elur-bolak eta izotza jautiz negu hotza luzarazteko. Beste taldeak Udaren ordezkaria zuen buruan, hosto berdez eta lorez estalita. Alegiazko borrokan Uda ateratzen zen garaile, eta zeremonia oturuntzarekin amaitzen zen. Orobat, Rhin Erdialdean, Udaren ordezkaria, huntzez jantzia, lastoz edo goroldioz jantzitako Neguaren ordezkariaren kontra borrokatzen da, eta azkenean garaitu egiten du. Garaitutako etsaia lurrera botatzen dute eta lastozko jantzia kentzen diote; zehatu eta puskak barreiatu egiten dituzte, bi buruen lagun gazteek kantu-kantari ari direlarik Udak Negua garaitu izana ospatzeko. Ondoren, udako lore-sorta edo abartxoak garraiatzen dute, eta arrautzak eta hirugiharrea biltzen dituzte oparitan etxez etxe. Batzuetan Udarena egiten duen txapelduna hostoz eta lorez jantzita joaten da, eta buruan lorez egindako kapela eramaten du. Palatinatuan alegiazko gatazka hau Garizumako laugarren igandean izaten da. Bavaria osoan zehar drama berbera jokutzen zen egun horretan, eta zenbait lekutan artean irauten zuen hemeretzigarren mendearen erdi aldera edo beranduago. Uda goitik behera berde-berde ageri zen bezala, zinta hegalariz apainduta eta abar loratua edota sagarrez eta madariz zamatutako zuhaitztoa eramanez, Negua kapelaz eta larruzko longainan ondo bilduta joan ohi zen, eta elurretako palaz edo idaurraz batez. Nork bere segizioa ondotik zutela, egoki jantzita beti ere, herriko kale guztietan zehar ibiltzen ziren, etxaurreetan tenk eginez eta kanta zaharren ahapaldi batzuk kantatuz, eta horren truke ogia, arrautzak eta fruta jasoz oparitan. Azkenez, borroka laburraren ondoren, Udak Negua garaitzen zuen, eta hau herriko iturrian sartzen zuten edota heritik kanpo eramaten zuten algara eta builaka basoraino.

Goepfritzen, Austria Beherean, Uda eta Negua nortzen zituzten bi gizon etxez etxe joan ohi ziren astearte-ihautez, eta alde guztietan hurrek ongi etorria egiten zieten bozkario handiz. Udaren ordezkaria zuriz jantzita joaten zen, aldean igitaia zuela; lagunak, Neguarena egiten zuenak, larruzko kapela eramaten zuen buruan, besoak eta zangoak lastotan bilduta eta idaurra eskuan. Bertsoak kantatzen zituzten txandaka etxe guztietan. Brunswickeko Dromlingen, gaur egun ere, Mendekoste-jaian mutil-saldo batek eta neska-saldo batek urtero antzezten dute Udaren eta Neguaren arteko lehia. Mutilak

korrika joaten dira etxez etxe, kantuan, garrasika eta txintxarriak joz; atzetik neskak, emeki kantatuz eta maiatz-emaztegaia buru dutela, distiratsu jantzita eta lorez eta sortaz apainduta udaberri abegikorraren etorrera irudikatzeko. Lehenago, mutilek garraiatutako lastozko txorimaloak egiten zuen Neguarena; orain benetako gizon batek egiten du.

Iparramerikan, erdialdeko eskimalen artean, magiazko zeremonia gisa gordetzen da udaren eta neguaren ordezkarien arteko lehia, European emanaldi dramatiko huts bilakatu den arren, eta eguraldian eragina izateko asmo deklaratuaz burutzen da. Udazkenean, ekaitzek Arktiar lurraldeko negu ilunaren etorrera iragartzen dutenean, eskimalak bitan banatzen dira: eper zuriak batetik eta ahateak bestetik. Eper zuriak neguan jaiotako pertsona guztiak dira, eta ahateak udan jaiotakoak. Foka-larruzko soka luzea jartzen da, eta talde bakoitza, mutur batetik heldu eta indarrez tiraka, beste taldea beren aldera ekartzen saiatzen da.

6. Kostrubonko hil eta berpiztu

Errusian "Ihaute ehorztea" eta "Herio iraztea" bezalako zeremoniak, Herio edo Ihauteren izenez ez baina irudi mitiko batzuen izenez ospatzen dira: Kostrubonko, Kostroma, Kupalo, Lada eta Yarilo. Errusiar zeremonia hauek bai udaberrian eta bai udan burutzen dira. Hala, "Errusia Txikian, Bazkoz, ohitura zen udaberriaren jainkoa zen Kostrubonko izeneko izakiaren hileta egitea. Kantari batzuk biribilean jarri eta poliki-poliki mugitzen ziren lurrean hil-itxuran etzanda zegoen neska baten inguruan, eta mugitu ahala kantatuz:

"Hil da, hil da gure Kostrubonko!

Hil da, hil da gure maitea!"

harik eta neska bat-batean jaikitzen zen arte; orduan koruak bozkarioz kantatzen zuen:

"Etorri da bizira, etorri da bizira gure Kostrubonko!

Etorri da bizira, etorri da bizira gure maitea!"

San Joan bezperan (udaren hasieran), Kupaloren irudia egiten da lastoz eta "emakume arropak janzten zaizkio, idunekoa eta lorezko koroarekin. Gero zuhaitza botatzen dute eta, zintaz apaindu ondoren, aukeratutako lekuren batean jartzen dute zutik. Marena (Negu edo Herio) izendatzen duten zuhaitz horren ondoan, lastozko irudia ipintzen dute, mahai batekin batera, eta bertan edariak eta jakiak. Ondoren sua pizten da, eta neska-mutilek bikoteka egiten dute salto gainera, irudia berekin eramanez. Biharamunean biluztu egiten dituzte zuhaitza eta irudia, eta biak elkarrekin botatzen dituzte errekarara".

San Pedro egunean (ekainaren hogeita bederatzian) edo hurrengo igandean, "Kostromaren hileta", edo Ladarena edo Yarilorena egiten da Errusian. Penza eta Simbirsk hirietan hileta honela jokatzen zen. Sutzar bat pizten zen ekainaren hogeita zortzian, eta biharamunean neskek beren arteko bat aukeratzen zuten Kostromarena egiteko. Lagunek erreberentzia handiz agurtzen zuten, ohol baten gainean ipini eta erreka ertzera eramaten zuten. Han uretan bainatzen zuten, neskarik zaharrenak ezki-azalezko saskia egin eta danborra bezala jotzen zuelarik. Gero herrira etortzen ziren eta eguna prozesio, joko eta dantzekin amaitzen zen. Murom eskualdean, emakumez jantzitako eta lorez apaindutako lastozko irudiak irudikatzen zuen Kostroma. Aska batean etzan eta laku edo ibai batera eramaten zuten kantu artean. Han jendetza bitan banatzen zen; batzuek eraso eta besteek defendatu egiten zuten irudia. Azkenean erasotzaileek irabazten zuten: irudia biluztu eta puskak egiten zituzten; lastoa hankapean zanpatu eta uretara botatzen zuten. Bitartean, irudiaren defendatzaileek, eskuak aurpegian, lantu-plantak egiten zituzten Kostromaren heriotzagatik. Kostromako eskualdean, Yariloren ehorzketa ekainaren hogeita bederatzian edo hogeita hamarrean ospatzen zen. Jendeak agure bat aukeratzen zuen eta hilkutxa txikia ematen zion, barruan Yariloren irudi zen Priapo-itxurako irudia zeukana. Herritik kanpora ateratzen zuten, atzetik emakumeak zituela hil-otoitzak kantatuz eta keinuka samina eta etsipena

adieraziz. Soro zabalean hilobia zulatzen zuten, eta bertara jaisten zuten irudia negar-zotinka. Ondoren, jokoak eta dantzak hasten ziren, "aspaldi batean eslaviar paganoek ospatzen zituzten hileta-jokoak gogorazten zituztenak". Errusia Txikian, Yariloren irudia hilkutxan jarri eta kalerik kale eramaten zuten eguzkia sartu eta gero, lelo berbera tristeki errepikatzen zuten emakume hordituz inguratuta: "Hil da! Hil da!" Gizonek irudia pixka bat jaso eta astindu egiten zuten, hildakoa bizira ekarri nahiz bezala. Gero hala esaten zieten emakumeei: "Emakumeok, ez egin negarrik. Nik badakit zer den ezitia baino gozoagoa". Baina emakumeek beren deitore eta lantuetan segitzen zuten, hiletetan egin ohi duten bezala. "Zer erru zuen bada? Hain zen ona. Ez da berriz jaikiko. Nola aldegingo dizugu bada? Zer da bizitza zu gabe? Jaiki zaitez, ordubate eskas batez besterik ez bada ere. Baina ez da jaikitzen, ez da jaikitzen". Azkenez, hilobian ehorzten zuten Yarilo.

7. Landaretza hil eta piztu

Errusiar ohitura hauek Austrian eta Alemanian "Herio eramatea" izenez ezagunak diren beste haien berdinak dira nabarmenki. Beraz, orain arte hauetaz egindako interpretazioa zuzena bada, Errusiako Kostrubonko, Yarilo eta enparauak ere landaretzaren izpirituaren gorpuzteak izan bide ziren jatorrian, ernaberritu aurretik derrigor hil beharrak. Ernaberritzea heriotzaren ondorengo gisa, deskribatutako lehen zeremonian antzezten da, Kostrubonkoren hiltze-berpizteetan. Landaretzaren izpirituaren heriotza uda betean ospatzeko arrazoa hauxe dateke, alegia udaren gainbehera San Joan egunetik aurrera hasten dela, orduantxe hasten baitira egunak laburtzen, orduantxe hasten eguzkia bere beheabidean:

"Sakon ilunetara

Neguko izotzak dautzan lekura".

Urtearen aldaune hori, ustez landaretzak udako gainbehera doi eme baina ia ohartezin hori bere egiten dueneko, ederki asko aukera zezakeen lehen gizonak magiazko erritoak baliatzeko une egokitza, hots, landareen biziaren gainbehera geldiarazteko edo, gutxienez, ernaberritzea segurtatzeko itxaropenez burutzen dituen erritoak baliatzeko.

Baina landaretzaren heriotza udaberriko eta uda-hasierako zeremonia guztietan, eta ernaberritzea zeremonia batzuetan irudikatu dela ematen badu ere, horietako batzuetan ageri diren ezaugarri batzuk nekez azal daitezke hipotesi honen bidez bakarrik. Hileta itzaltsua, deitoreak eta dolu-jantziak, errito hauetako askotan ageri direnak, egokiak dira noski landaretzaren izpiritu ongilearen heriotza adierazteko. Baina zer esan genezake irudia eramaterakoan sarri agertu ohi den bozkarioaz, jotzen dizkioten makilkada eta harrikadez, eta jaurtitzen zaizkion irain eta biraoez? Zer esan irudiari dioten beldurraz, alegia eramaleek hura jaurti bezain laster etxera hanka egiteko hartzen duten presan, eta hura izan den etxeren batean norbait hilko delako sinestean ageri den beldurraz? Beldur honen arrazoi bat, agian, honako sineste honek eman lezake, alegia landaretzaren izpiritu hilean zerbait kutsagarria badela, harengana hurbiltzea arriskutsu bihurtzen duena. Baina azalpen hau, arraro samarra izateaz gainera, ez zaio egokitzen Herio iraitzean sarri jartzen den alaitasunari. Beraz, bi ezaugarri desberdin eta agian kontrajarri bereizi behar ditugu zeremonia hauetan: batetik, tristura heriotzagatik, eta onginahia eta begirunea hildakoarentzat; bestetik, beldurra eta gorrotoa hildakoari, eta poza hura hiltzean. Orain arte ezaugarri hauetako lehena nola azal daitekeen erakusten saiatu naiz; segidan, bigarrena lehenarekin estu lotuta nola dagoen argitzeari ekingo diot.

8. Antzeko erritoak Indian

Indiako Kanagra eskualdean, bada neskek burutzen duten ohitura bat, deskribatu berri ditugun udaberriko europar zeremonien antz handia duena. Ralî Ka melâ deritza, Ralîren festa alegia. Ralî hori Siva edo Pârvatîren irudi margotua da. Ohitura indarrean

dago Kanagra eskualde osoan, eta ospakizunak, nesken kontua erabat, Chet-etik (martxo-a-apirila) Baisâkh-eko (apirileko) Sankrânt-era arte irauten du. Martxoko goiz batez, herriko neska guztiek dûb belarrez eta lorez osatutako saskitxoak eramaten dituzte leku jakin batera, eta han pila batera botatzen dituzte. Pila horren biran eseri eta kantatu egiten dute. Hala egiten dute hamar egunez, harik eta belar eta lorezko pila oso garaia egin arte. Orduan bi abar mozten dituzte basoan, biak ere mutur banatan hirukoizten direnak, eta lore-pilaren gainean jartzen dituzte, hiru oinak behera jarrita, bi tripode edo piramide osatuz. Abar horien goiko muturrean buztinezko bi irudi egiteko eskatzen diote irudigile bati, bat Sivarena eta bestea Pârvatîrena. Gero neskak bi taldetan banatzen dira, bat Sivarena eta bestea Pârvatîrena, eta ohi bezala ezkontzen dituzte elkarrekin, zeremoniaren xehetasunik nimiñoena ere ahaztu gabe. Ezkontzaren ondoren eztei-bazkaria egiten dute gurasoei eskatutako dirulaguntzei esker. Gero, hurrengo Sankrântean (Baisâkhekoan, apirilekoan alegia) ibai-ertzeroa joaten dira denak elkarrekin, irudiak putzu sakon batera bota eta negarrez hasten dira, hiletetan bezala. Inguruetakoa mutilek barre egin ohi diete, murgildu eta imajinak ateraz, eta jolas eginez neskak negarrez ari diren bitartean. Jaiaren helburua senar ona lortzea omen da.

Indiako zeremonia honetan Siva eta Pârvatîren irudiak belar eta lore-pila baten gaineko bi abarretan paratzeak frogatuko luke jainkoak landaretzaren izpiritutzat hartzen direlako. Han, maiz Europako herri-ohituretan bezala, landaretzaren jainkoak bitara irudikatzen dira, landare gisa eta panpin gisa. Indiako jainko-jainkosa horien udaberriko ezkontza Europako zenbait zeremoniaren pare-parekoa da: bedatseko landaretzaren izpirituen ezkontza maiatzeko errege-erreginek, maiatz-emaztegaiak, maiatz-senargaiak eta abarrek ordezkatzeko dituzteneko zeremonia alegia. Irudia uretara botatzeak eta dolu egiteak Europako zenbait ohitura dituzte parez pare: landaretzaren izpiritu hila uretara jaurtitzea, Herio, Yarilo, Kostroma eta beste izen batzuk emanez eta lantu eginez. Orobat, Indian, maiz European bezala, emakumeek bakarrik burutzen dute erritua. Landaretzaren izpirituak hala gizakien nola landareen gainean ustez duen eragin bizkortzaile eta ernarazleak azalduko luke zeremoniaren helburua neskentzat senarrak lortzea delako ideia.

9. Udaberri magikoa

Zeremonia hauetaz eta beste antzeko askotaz eman dugun azalpen orokorra hau da: udaberriaren naturaren berritzea segurtatzeko errito magikoak direla edo izan zirela jatorrian. Helburu hori lortzeko bitartekoak imitazioa eta sinpatia ziren. Gauzen benetako arrazoen ezjakinean, lehen gizonak sinesten zuen nahikoa zuela bere bizia menpean zeukaten naturako fenomeno handiak imitatzea, eta hala egiten bazuen ezkutuko sinpatia edo eraginez, aktore ahaltsuagoek eszenategi garaiagoan jaso eta errepikatuko zutela basoko soilunean edo mendiko ibarxkan, basamortuko lautadan edo haizeak zigortutako hondartzan antzeztu zuen dramatxoa. Hala jotzen zuen, hosto eta lorez maskaratuta lagundu egiten ziola lur biluziari bere burua berdetzen, eta neguaren heriotza eta ehorzketa antzeztuz iraitzi egingo zuela urtaro goibel hau, eta udaberriari itzulbidea leunduko ziola. Geure buruak hartara jartzea, halakoak posible balira bezala hartzea alegia, txanxetan ere zaila egiten zaigun arren, errazago imajina genezake zernolako larria sentituko zuen basatiak bere pentsamenduak lehen aldiz abere-grina hutsak asetzetik goratu eta gauzen kausez gogoeta egin zuenean, orain naturaren legeak deitzen ditugunen jardun etengabearen aurrean. Guretzat, ezaguna baitzaigu fenomeno kosmiko handiek uniformitatez eta erregulartasunez segitzen diotela elkarri, ez dago beldurrarentzako leku handirik, ondorio horiek eragiten dituzten kausak desagertu egingo ote diren, etorkizun hurbilean bederen. Baina naturaren iraupenaz dugun konfidantza hau behaketa zabalak eta tradizio luzeak emandako eskarmentuak ematen digu, beste ezerk ez; eta basatiari, behaketarako hain ikuspegi estua eta tradizio laburra

izanda, eskarmentu hori falta zaio, naturaren alderdi beti aldakor eta sarri mehatxugarrien aurrean lasai dezakeen gauza bakarra. Ez da harritzekoa, beraz, eklipse batek izulaborria sorraraztea eta, baldin eta oihuka eta gezi ahulak airera jaurtika hasten ez bada argizagiak jateko mehatxu egiten duen mustroarengandik defendatzeko, eguzkia edo ilargia hil egingo direla pentsatzea. Ez da harritzekoa izututa egotea gauaren ilunean bat-batean meteoroko batek ortziaren zati bat argitzen duenean, edo aurora borealen argi beteak ortzi osoa argitzen duenean. Are tarte jakin eta beti berdinetan errepikatzen diren fenomenoak ere larriduraz ikusiko zituen errepikapenaren nondik-norakoak ezagutu aurretik. Naturako aldaketa periodiko edo zikliko horiek bizkor edo astiro ezagutzea kasuan kasuko zikloaren luzeraren gora-beheran egongo dira gehienbat. Adibidez, egunaren eta gauaren zikloa hain da laburra eta horrexegatik hain sarri gertatzen da nonahi, polo inguruetan ezik, non gizakiek laster galdu baitzuten noizbait errepikatuko ez zen beldurra; hala eta guztiz ere, antzinako egiptoarrak, ikusi dugunez, egunero burutzen zituzten xarmak arratsean mendealdeko oskorrian murgildutako suzko globoa goizean ekialdera ekartzeko. Baina guztiz bestera gertatzen zen urtaroen zikloarekin. Urtebete aldi luze samarra da edonorentzat, gizakiok hartzen ditugun urteak, onenean ere, ez baitira asko-asko izaten. Lehen basati harentzat, bere oroitzapen laburra eta denboraren hegaldia markatzeko zituen bitarteko eskasekin, urtebeteko zikloaz ez jabetzeko adina luze izango zen agian, eta harridura etengabe ikusiko zituen zeru-lurren aldaketak, orain pozik orain larri, noiz alai noiz lur jota, segun eta argiak eta beroak, landareen eta abereen bizitzak, erosotasuna ematen zieten ala bizia arriskuan jartzen zieten. Udazkenean, haize-zirimola izoztuek basoko orbela harrotzen zutenean, eta gizakiak abar biluztuetara begiratzen zuenean, nola jakin seguru berriz ere berdetuko zirela? Egunez egun eguzkia ortzian gero eta beherago amiltzen zenean, egon al zitekeen seguru argizagiak atzera ortziko bide gorenari berrekingo ziola? Ilbeheran zegoen ilargia bera ere, igitai zurbilaren irudira, gauetik gauera meheagotuz ageri zelarik ekialdeko ortzi-mugaren gainean, beldurra sorraraziko zion: berriz ere agertuko ote zen ilargirik erabat ezabatu ondoren?

Hauek eta beste mila beldur pilatuko zitzaizkion irudimenean eta galaraziko zioten bakea gizonari, bizi zen munduko misterioez hausnarketan eta biharamuna baino geroaldi urrunagoaz pentsatzen hasi zenean. Bidezkoa zen, beraz, halako pentsamendu eta beldurrekin ahal zen guztia egitea zuhaitzeko abarrari zimeldutako loreak atzera sor zekizkion, neguko eguzki beheara ortzian gora udako lekura ekartzeko, eta ilbeherako ilargi zilarrezkoa biribiltasun biribilenaz osatzeko. Irribarre egingo dugu agian alferriko saio horiek guztiak ikusita, baina esperimendu-segida luzearen ondorioz eta ez bestela - tartean askok eta askok huts egiten zutelarik ezinbestean- ikasi zuen gizakiak saiaturako zenbait metodoren alferrikakoa eta beste batzuen emankortasuna. Izan ere, magiazko zeremoniak esperimentuak besterik ez dira, huts egin duten eta behin eta berriz errepikatzen diren esperimentuak, zergatik eta, esan ditugun arrazoiak medio, jardulea ez delako ohartzen huts egin izanaz. Ezagutzak aurrera egin ahala, edota ez dira gehiago egiten, edota ohituraren ohituraz matentzen dira, hasierako asmoa ahaztu eta askoz geroago ere. Horregatik, beren gradu garaitik erorita, jadanik ez dira hartzen errito itzaltsutzat, hots, garaiz burutzen ez badira komunitatearen ongizatea eta are bizia arriskuan jartzen dituzten errito itzaltsutzat. Ikuskizun, maskarada eta denbora-pasa hutsen mailara jaisten dira pixkanaka, harik eta azken-azkenean zaharrek bertan behera utzi arte. Garai batean jakitun zuhurraren eginbeharrik serioena izatetik, haurren jolas hutsal bihurtzen dira azkenean. Gaur egun gainbeheraren azken etapa honetan irauten dute gure europar arbasoen magiazko errito zahar gehienek, eta egoera azkendu honetatik ere laster ezabatuko ditu indar ugariren gorak, indar moral, intelektual eta sozialen gorak alegia, gizateria helmuga berri eta ezezagunera aurrerarazten duenak.

Beharbada halako samin bat sentituko dugu ohitura bitxiok eta zeremonia ohargarriok desagertzen direla-eta, antzinako garaien zaporea eta freskotasuna, munduaren udaberriaren hatsa, triste eta prosaikotzat jotzen den garai bateraino ekarri ondoren. Baina gure samina ematu egingo da ikuskizun polit horiek, orain inozenteak diren atsegingarri horiek, ezjakintasunean eta superstizioan sortu zirela gogoratzen badugu; giza kemenaren gogorazle badira ere, xalotasun antzuaren, alferrikako lanaren eta itxaropen zapuztuen erakusgarri ere badirela gogoratzen badugu; eta gogoratzen badugu, azkenez, beren dotorezia alai eta guzti -lore, zinta eta musikak- gehiago dutela tragediatik jolas hutsetik baino.

W. Mannhardti orpoz orpo jarraituz zeremonia hauetaz ematen saiatu naizen interpretazioa, ondotxo berretsi du liburu hau idatziz geroztik egindako aurkikunde batek, alegia Australiako erdialdeko natiboen magiazko zere moniak burutu ohi dituztela naturaren indar lokartuak iratzartzeko asmoz, australiar udaberria hurbiltzean. Inon ez dira urtaroen aldaketak Australiako erdialdeko basamortuetan baino bat-batekoago eta kontraste harrigarriagoak; lehortaldi luzearen amaian, mortu hareatsu eta harritsu zena, heriotzaren isiltasunaren eta hondamenaren hedalekua, paisaje berde, irribarretsu eta intsektuz eta muskerrez, igel eta txori-saloz betetako bihurtzen da egun batzuetan eurijasa handiak egin ondoren. Halakoetan, naturaren aurpegiak izaten duen aldaketa zoragarria magiaren eraginarekin konparatu izan dute europar behatzaileek ere; ez da harritzekoa, hortaz, basakumeak ere gauza bera pentsatu izana. Hain zuzen, urtaro onaren hurbilean burutu ohi dituzte Australiako erdialdekoek magiazko zeremonia horiek, bizigai dituzten landare eta abereak ugaltzeko asmo argi eta garbiz. Zeremonia horiek, beraz, analogia estua dute gure europar nekazarien udaberriko ohiturekin; ospatzen diren garaian ezezik, helburuan bertan ere bai. Izan ere, ez dago zalantza egiterik: oso kontsidero praktikoen bultzatu zituzten gure antzinako arbasoak udaberrian landareen bizia bizkortzen laguntzeko pentsatutako erritoak ezartzera. Kontsidero horiek ez zituzten formulatu abstraktuki, noski, oso modu praktikoa baizik: gizakiaren bizia estu-estu lotuta dago landareenekin, eta hauek hilez gero, hark ere ez luke iraungo. Ez zituen bultzatu lehen bioletak usaintzeko, edo udaberri-loreak biltzeko, edo nartziso horiak haizeak nola kulunkatzen dituen ikusteko desira sentimentalak. Eta Australiako basakumeak bere magiazko erritoen eraginkortasunean duen fedea saritua geratzen denez haiek burutu eta gero, lehenago edo geroago landare eta animali bizitza ugaltu egiten delako, horrenbestez, pentsa genezake halaxe zela aspaldi europar basakumeen artean ere. Sasi eta sastraketan berdetza freskoa ikustea, udaberriko loreak leku goroldiotsuetan kulunkari ikustea, hegoaldeko enarak iristen ikustea, eta eguzkia ortzian egunetik egunera gorago igotzen ikustea, beren xarmen ondorio nabaritzat hartuko zituzten, eta konfidantza txuri-gorria emango zien: ondo zihoan dena, beren desirari egokitzeko moduan molda zezaketen mundua. Udazkeneko egunetan, ordea, uda ezarizarian zimelduz zihoanean, zalantzek eta beldurrek hautsiko zieten konfidantza gainbeheraren arrastoak ikusita, horrela adierazten baitzitzairen alfer-alferrekoak zirela neguaren eta heriotzaren etorrera betiko urruntzeko ahalegin guztiak.

XXIX

Adonisen mitoa

Lurraren azal gainean urtero gertatzen diren aldaketa handien ikuskizunak zirrara handia egin die giza gogoei aro guztietan, eta hain aldaketa handi eta harrigarrien arrazoiez hausnar egitera bultzatu ditu. Jakinmin hori ez da izan doakoa, noski; basatiari ere nabaria baitzaio zeinen estu dagoen lotuta bere bizia naturaren biziarekin, eta ibaiak izozten dituzten eta lurra landarez gabetzen duten prozesu berberak suntsitzeko arriskuan jartzen dutela bera ere. Garapen-maila batera iritsita, gizakiek imajinatuko zuten beren esku zeudela hondamendi beldurgarriari itzuri egiteko bitartekoak, eta

magiaren bidez bizkortu ala geldotu egin zezaketela urtaroen joan-etorria. Horren arabera, zeremoniak burutzen zituzten eta sorgin-hitzak esaten zituzten euria erakartzeko, eguzkiak argitzeko, abereak ugaltzeko eta lurraren igaliak hazteko. Denboraren joanean, jakintzaren aurrerapen mantsoak, hainbat eta hainbat ameskeria maite ezabatu ahala, konbentzituko zituen gizaki azkarrenak udaren eta neguaren, udaberriaren eta udazkenaren txandaketak ez zirela magiazko erritoen emaitza, baizik eta arrazoi sakonagoren bat, botere ahaltsuagoren bat ari zela naturaren eszenategi aldakorren atzean. Orduan jainko eta jainkosen indarrak haztearen edo urritzearen ondorio gisa irudikatu zituzten landaretzaren hazkundera eta gainbehera, bizidunen jaiotzea eta hiltzea. Jainko eta jainkosa horiek ere jaio eta hil egiten ziren, ezkondu eta haurrak izaten zituzten, gizajendeak bezala.

Hala bada, erlijioaren teoriak ordezkatu zuen -edo gaineratu zitzaion- urtaroen magiaren teoriari. Orain, nahiz eta gizakiek aldaketaren urteroko zikloa lehenik jainkoengan gertatzen ziren aldaketei egotzi, artean pentsatzen zuten magiazko errito jakin batzuk burutuz gero bazeukatela biziaren printzipioa zen jainkoari laguntzerik heriotzaren printzipioaren kontrako borrokan. Pentsatzen zuten berriro eman ziezaioketela hark galdutako indarra, are heriotzatik jaso ere egin zezaketela. Hartarako burututako zeremoniak, funtsean, erraztu nahi zituzten prozesu naturalen antzezpen dramatikoak ziren; izan ere, magiaren printzipio bat hauxe baita, lortu nahi den efektua, efektu hori imitatuz lor daitekeela. Eta lurraren hazkunderaren eta gainbeheraren, ugaltzearen eta agortzearen gora-beherak jainkoen ezkontza, heriotza eta birjaiotza edo berpiztearen bidez azaltzen zituztenez, haien drama erlijioso edo, hobeki, magikoak gai horien inguruan aritzen ziren. Emankortasunaren ahalmenen batze emankorra, jainko-bikoteetako kide baten heriotza tristea eta haren berpizkunde pozgarria irudikatzen zituzten. Horrela, teoria erlijiosoa nahastu zen magiaren praktikarekin. Nahasketa hau ezaguna da historian. Hain zuzen, erlijio gutxik lortu dute magiaren traba zaharretatik erabat libratzea. Bi printzipio kontrajarriren gainean jardutearen kontraesanak, filosofoaren gogoia sumin badezake ere, oso gutxitan kezkatzen du gizaki arrunta; ohartu ere, oso gutxitan ohartzen da horretaz. Ekitea du bere arazoa, ez ekintzaren arrazoiak analizatzea. Gizateriak beti logikaz eta zuhur jokatu izan balu, historia ez zatekeen erokeria eta krimenen kronika luzea.

Urtaroek ekarri ohi dituzten aldaketetan, landaretzari dagozkienak dira harrigarrienak munduko zona epelean. Urtaroek abereengan duten eragina ez da hain nabaria, handia izan arren. Horregatik, negua urruntzeko eta udaberria ekartzeko asmatutako drama magikoetan landaretza ageri da batez ere, zuhaitz eta landareak piztia eta txoriak baino nabarmenago ageri dira. Baina bizitzaren bi aldeak, landareena eta abereena, ez zeuden aparte zeremoniak burutzen zituztenen gogoan. Izan ere, sinetsita zeuden animalien eta landareen munduen arteko lotura berez dena baino estuagoa zela; horregatik, sexu-harreman benetako edo antzeztuekin nahasten zuten maiz landareak bizkortzeko antzezpen dramatikoak, aldi berean eta ekintza beraren bidez fruituak, abereak eta gizakiak ugalarazteko. Haientzat, bat bera zen abereen nahiz landareen biziaren eta emankortasunaren printzipioa, bakarra eta banaezina zen. Bizitzea eta besteei bizia ematea, elikatzea eta haurrak izatea, horiek ziren gizakien ardurak iraganean, eta horiexek izango dira gizakien ardura nagusiak geroaldian ere, mundua mundu deino. Beste gauza batzuk ere erants daitezke giza bizitza aberasteko eta edertzeko, baina lehenik ardura horiek asetzen ez badira, gizateria bera akabatu egingo da. Beraz, bi gauza hauek saiatzen ziren lortzen batez ere gizakiak: janaria eta haurrak; nola, eta urtaroak erregulatzeko magiazko erritoak burutuz.

Dirudienez, inon ez dira errito horiek zabalago eta handikiroago ospatu Mediterraneoaren ekialdeko lurretan baino. Osiris, Tammuz, Adonis eta Atis izenak

emanez, Egiptoko eta Asiako mendebaldeko herriek biziaren urteroko gainbehera eta berritzea adierazten zituzten, batez ere landare-bizitzarena: urtero hiltzen eta berriro hilen artetik jaikitzen zen jainko gisa irudikatzen zuten hura. Izenez eta xehetasunetan, erritoak aldatu egiten ziren leku batetik bestera; funtsean, berdinak ziren. Sortaldeko jainko honen ustezko heriotza eta berpizkundea, izen askotako baina funtsez izate bakarreko jainko honena, aztertuko ditugu orain. Tammuz edo Adonisekin hasiko gara. Adonis Babilonia eta Siriako herri semitikoek gurtzen zuten, eta Kristo aurreko zazpigarren menderako grekoek haiengandik jaso zuten. Jainkoak Tammuz zuen benetako izena; Adonis deiturak hizkuntza semitiko Adon, "jauna" esan nahi du, gurtzaileek eman ohi zioten ohorezko titulua. Baina grekoek oker ulertu eta izen bihurtu zuten ohorezko titulu hori. Babiloniako literatura erlijiosoa, Tammuz Astarteren senar edo maitale gazte gisa ageri da, jainkosa ama handiaren, naturaren indar emankorren gorpuztearena alegia. Mitoan eta erritualean, bien arteko loturari buruzko erreferentziak zatikakoak eta ilunak dira, baina erakusten digutenez, urtero Tammuz hil egiten zela sinesten omen zuten, lur alaitik lurrazpiko mundu goibelera joaten zela, eta maitalea urtero abiatzen zela haren bila "itzulbiderik ez duen lurrera, iluntasunaren etxera, non ate eta sarrailek hautsak estaltzen dituen". Hura hara joana zen bitartean amodio-grinak eten egiten ziren; gizonak eta abereak ahaztu egiten zuten beren askazia ugaltzea; bizitza guztia desagertzeko zorian jartzen zen. Jainkosarekin hain estu lotuta zeuden animali erreinu osoko sexu-betekizunak, non hura gabe ez zegoen haiek burutzerik. Ea jainko handiaren mezularia bidaltzen zuten, beraz, jainkosa erreskatatzera, hainbeste gauza haren menpe izaki. Ifernaldeko erregina gogorrak, Allatu edo Eresh-Kigal izenekoak, gogoz kontra uzten zion Astarte biziaren uraz ziprztintzen eta abiatzen, bere maitale Tammuzekin batera seguruenik, biak elkarrekin itzul zitezen goiko mundura eta biak itzultzean natura osoa berpiz zedin.

Babiloniako zenbait eresitan Tammuzen heriotzagatiko auhenak datoz. Eresi horietan laster zimeltzen diren landareekin konparatzen da Tammuz. Hara:

Milazka bat, lorategian urik edan ez duena,

Zeinen adaburuak landan lorerik eman ez duen.

Sahats bat, errekek pozten ez zuena,

Sahats bat, zainak erauzi dizkiotena.

Landare bat, baratzen urik edan ez duena.

Gizon eta emakumeek haren heriotzarengatik erosta egiten zuten urtero udan, nonbait, xirulen musika kirrinkariz, haren izena zuen mendian, Tammuzen mendian. Hil-kantak jainko hilaren irudiaren gainean abesten bide ziren. Ur gardenez garbitzen zuten, olio ilundu eta soineko gorria janzten zioten, intsentsuaren kea aireratu bitartean, urrin sarkorrak haren sentimen lokartuak kitzikatu eta heriotzako lotatik iratzartzeko edo. Hil-kanta horietako batek Tammuzengatik xirula-auhena du izena, eta esan liteke oraindik ere kantarien ahotsak entzuten ditugula lelo tristea kantatzen, eta xirulen nota negartiak hautematen ditugula, urruneko musika bailitzan:

"Hura desagertzean berak auhen egiten du,

"Ene haurra!" hura desagertzean berak auhen egiten du;

"Ene Damu!" hura desagertzean berak auhen egiten du.

"Nire sorgile eta apaiza!" hura desagertzean berak auhen egiten du.

Zedro distiratsua dagoen lekuan, leku zabalean errotuta,

Eannan, goian eta behean, berak auhen egiten du.

Etxeak bere jabearengatik bezala, berak auhen egiten du.

Hiriak bere jaunarengatik bezala, berak auhen egiten du.

Mintegian hazten ez den landarengatik du bere auhena,

Aletzen ez den uztarengatik du bere auhena,

Haren logela jabegorik ez dakarren jabegoa da,
Emakume unatua, haur unatua, nekatua.
Bazterretan sahatsik ez duen ibai handiarengatik du bere auhena,
Labore eta landararik hazten ez den soroarengatik du bere auhena.
Arrainik ez duen putzu arengatik du bere auhena.
Kanaberarik ez duen kanaberadi arengatik du bere auhena.
Milazkarik ez duten basoengatik du bere auhena.
Altzifrerik ez duen basamortuarengatik du bere auhena.
Eztirik eta ardorik ematen ez duen zuhaiztiaren bihotzagatik du bere auhena.
Landararik ez duten zelaiengatik du bere auhena.
Bizialdia luzatzen ez deneko jauregi batengatik du bere auhena.

Adonisen kondaira tragikoa eta errito malenkoniatsuak ezagunagoak zaizkigu idazle grekoen bidez Babiloniako literaturako zatien edota Ezekiel profetaren aipu laburraren bidez baino. Honek Tammuzengatik negarrez ikusi zituen Jerusalemgo emakumeak tenpluaren iparraldeko atean. Greziako mitologiaren ispiluko islara, Afrodita maite zuen gazte ederraren gisan ageri zaigu sortaldeko jainkoa. Haurra zenean jainkosak kutxa batean ezkutatu zuen, eta Persefone behealdeko munduko erreginari eman zion gorde zezan. Baina Persefonek kutxa ireki eta haurraren edertasuna ikusi zuenean, ukatu egin zen Afroditari itzultzeraz, nahiz maitasunaren jainkosa ifernura jaitsi maitea hilobiaren menpetik erreskatatzera. Maitasunaren eta heriotzaren bi jainkosen arteko liskarra Zeusek erabaki zuen: Adonis azpiko munduan biziko zen urte-zati batez, eta goiko munduan Afroditarekin urtearen beste zatian. Azkenez, gazte ederra basurde batek hil zuen ehizan ari zela, edota Ares jeloskorak hil zuen, basurde-itxura hartuta. Auhena samina egin zuen Afrodita bere maite Adonis galtzeagatik. Mitoaren aldaera honetan, Afroditaren eta Persefoneren arteko borrokak, Adonis nork eramango, argi ispatzen du Astartek eta Allatuk hildakoen lurraldean izandako liskarra; aldez, Zeusen erabakiak, alegia Adonisek lur azpian pasatu behar zuela urte-zati bat eta lur gainean beste zatia, Tammuzen urteroko desagertze-agertzeen aldaera grekoa besterik ez da.

XXX

Adonis Sirian

Adonisen mitoa Asiako mendebaldeko bi tokitan errotu zen, eta hots handiz ospatzen ziren haren erritoak bietan. Bat Biblos zen, Siriako kostaldean, eta bestea Pafos, Txipren. Biak ere Afroditaren gurtzaleku handiak ziren, edo haren pareko semitikoa den Astarterenak; eta legendak onartuz gero, bietako errege izan zen Ziniras, Adonisen aita. Bi hirietan Biblos zen zaharrena; izan ere, Feniziako hiririk zaharrena egiten zuten. El jainko handiak fundatu omen zuen munduaren hasieran. Jainko hau Kronosekin eta Saturnorekin identifikatzen zuten, hurrenez hurren, grekoek eta erromatarrek. Nolanahi ere, garai historikoetan leku santua zen, herrialdeko hiriburu erlijiosoa, feniziarren Meka edo Jerusalem. Hiria itsasertzeko goiune batean zegoen, eta Astarteren jainkotegi handia zeukan; han, patio zabal baten erdian, klaustroz inguratuta eta behetik eskailerak bertaraino iristen zirelarik, kono edo obelisko garaia altxatzen zen, jainkosaren irudi santua. Jainkotegi hartan ospatzen ziren Adonisen erritoak. Egia esan, hiri osoa zegoen hari sagaratua; Biblostik apur bat hegoalderaxeago itsasoratzen den Nahr Ibrahim ibaiak Adonis zuen izena antzinatean. Hura zen Ziniraren erreinua. Lehen garaietatik azkenetaraino, itxura denez, erregeek gobernatu zuten hiria, agian senatu edo zaharren kontseilu baten laguntzaz.

Biblosko azken erregeak izen zahar hori zuen, Ziniras, eta Ponpeio Handiak lepoa moztu zion bere tiraniako gehiegikeriengatik. Haren izenkide Ziniras legendakoak fundatu omen zuen Afroditaren, hots, Astarteren jainkotegia, Libano mendiko leku batean, hiriburutik egun bateko bidean. Lekua Afaka izango zen seguruenik, Adonis

ibaiaren sorlekuan, Biblos eta Baalbecen arteko erdibidean; Afakan Astareren zuhaizti eta jainkotezia zegoen, Konstantinok suntsitu zuena gurtzaren nardagarria zela eta. Tenpluaren kokalekua herrixka kaxkar batetik hurbil aurkitu dute bidaiari modernoek. Herrixkak Afka du izena oraindik ere, eta Adonis ibaiaren zintzur basotsu erromantikoaren buruan dago. Intxaurdi zaharren artean dago, urjauziaren ertzean. Handik gertu, ibaia haitzulo batetik irteten da oldarrean, labar garaien anfiteatro erraldoiaren oinean, eta jauzika-jauzika karkabaren sakon ilunetan barneratzen da. Zenbat eta beherago, hainbat ugariagoa eta trinkoagoa basotza; haitzen arrail eta pitzatu artetik ernetzen da, eta urlaster orrokari eta murmurkariaren gainean estalki berdea hedatzen du ebaki izugarrian behera. Bada zerbait laketgarria, kutsagarria, ur saltokari honen freskotasunean, mendiko haize leun eta garbian, landareen berde bizian. Tenpluak -harritzar gastatu batzuek eta sienita-granitozko zutarri fin batek markatzen dute oraindik ere kokalekua- ibaiaren sorgunearen pareko terraza hartzen zuen, ikusmira ezin ederragoa zuelarik. Urjauzien apar eta burrunbaren artetik, haitzuloa ikus daiteke goian, eta gainean, urrun, amildegi zoragarrien ertzak. Hain da garaia labarra, paretetan muskil-janean dabiltzan ahuntzak inurriak iruditzen zaizkio ehundaka urrats beherago dagoen ikusleari. Itsasaldera, ikuspegia bereziki harrigarria da eguzkiak zintzur sakona argi urre-kolorez betetzen duenean, mendi-harresiaren dorre biribilak eta horma-bular izugarriak bistaratuz. Legendak dioenez, hantxe topatu zuen Adonisek Afrodita lehen edo azken aldiz, eta hantxe ehortzi zuten haren gorpu xehatua. Ezin imajina daiteke gertaleku hoberik amodio tragiko eta heriotzazko istorioarentzat. Alabaina, ibar hura hain aparte egon arren, ez da erabat jendez gabetua. Han-hemenka komenturen bat edo herriren bat ikus daiteke ortziaren kontra harkaitzen batetik zintzilik, edo labar guztiz zutetik esekita ibaiaren apar eta burrunbaren gainean; eta arratsean, ilunabarrean dizdiz egiten duten argiek giza bizilekuak seinalatzen dituzte gizakiari ia iristezinak zaizkion mazeletan. Antzina ibar polit hura osorik zegoen Adonisi sagaratua, itxura denez, eta gaur egun haren oroitzapena gordetzen du: goialdeetan, hondatutako monumentuak ageri dira gailur gisa zenbait puntutan, gurtzaren lekukotza emanez, batzuk amil beldurgarrien gainean zintzilik. Behera begiratuz gero, zorabioa sentiarazteko modukoak dira; arranoak askoz beherago ikusten dira beren habien inguruetan hegan. Halako monumentu bat dago Ghinehn. Harkaitz handi baten gainazalean, latz ebakitako sargune baten gainean, Adonis eta Afroditen irudiak daude landuta. Mutila lantzarekin ageri da, hartz baten erasoaren zain, eta jainkosa eserita eta jarrera tristez. Baliteke bere irudi samindua Makrobiok deskribatutako Libanoko Afrodita erostaria izatea, eta harkaitzeko sartunea haren maitalearen hilobia dateke. Urtero, gurtzaileen sinestearn arabera, hil arte zauritzen zuten Adonis mendietan, eta urtero tindatzen zen naturaren aurpegia haren odol sakratuaz. Horregatik, urtez urte, Siriako neska gazteek negar egiten zuten betiko patuagatik, anemona gorria, haien lorea, Libanoko zedroen artean loratzen zen bitartean, eta ibaia gorri itsasoratzen zen, Mediterraneo urdinaren ertz sartu-irtenez betea purpurazko zerrendaz azpilduz, haizeak itsasbazterrerantz jotzen zuenean.

XXXI

Adonis Txipren

Txipre egun bakar bateko bidean dago Siriako kostaldetik. Izan ere, udako arrats epeletan hango mendiak garbi begizta daitezke, baxu eta ilun, arrasbeherako oskorriaren kontra. Kobrezko meategi eta izaien eta zedro dotoreen basoekin, irlak berehala erakarri zituen feniziarrek, merkatari-herri itsastarra; labore, ardo eta olioaren ugariak Agindutako Lurra begietaratuko zien, beren itsasbazter malkartsu, erkin, mendien eta itsasoaren artean hesituarekin konparatuta. Horren arabera, oso goiz jarriko ziren Txipren, eta bertan geratuko ziren grekoak ere, kostalde hartara iritsi eta askoz geroago

arte; inskripzio eta txanponetatik dakigu Citiumgo erregeak feniziarrek zirela, hebraitarren Chittimgo erregeak alegia, Alexandro Handiaren garaira arte. Jakina, kolonizatzaile semitek beren jainkoak eramango zituzten hara beren sorlekutik. Libanoko Baal gurtzen zuten, Adonis zatekeena, eta Amathosen hegoaldeko kostaldean Adonis eta Afroditarren -edo Astarteren, esan beharko genuke- erritoak ezarri zituzten. Han, Biblosen bezala, Osirisen egiptoar gurtzaren antza zuten errito haiek, hainbeste non zenbaitek identifikatu egiten baitzituen Amathosko Adonis eta Osiris.

Baina Adonis eta Afroditarren gurtzaleku nagusia Pafos zen Txipren, irlaren hegomendebaldean. Txipre lehen garaietatik gure aroaz aurreko laugarren mendearen azkenerraino banatu zuten erreinutxoetan, Pafos izango zen hoberena. Muinoz eta bizkar kulunkariz osatutako lurra da hau, soro eta mahastiek nabartua, eta denboraren joanean oso ubide sakonak zulatu dituzten ibaiak ebakia, hala non barrualdetik bidaiatzea zail eta nekagarri gertatzen den. Olinpo mendikatea garaiak (egungo Trudosek) ia urte osoan elurrez estaliak, iparraldeko eta ekialdeko haizeetatik babesten du Pafos, eta irlako beste aldeetatik isolatzen du. Mendikatearen mazeletan daude Txipreko azken pinudiak, han eta hemen monasterioak ezkututzen dituztela Apeninoez oso bestelakoa ez den parajea. Pafos hiri zaharrak muino baten gaina hartzen zuen, itsasotik kilometro t´erdira edo; hiri berria portutik hamabost bat kilometrora dago. Afroditarren jainkotegia, antzinateko kaperarik ospetsuenetakoa izan zen Pafos zaharrean (gaur egungo Kuklian). Herodotok dioenez, Askalondik etorritako kolonizatzaile feniziarrek fundatu omen zuten; baina baliteke bertan emankortasunaren jainkosa bat gurtu izana feniziarrek iritsi aurretik, eta etorri berriek beren Balaath edo Astarterekin identifikatu izana. Bi jainkosek bat egin bazuten, pentsa genezake biak ere amatasunaren eta emankortasunaren jainkosa handi baten aldaerak zirela, Asiako mendebalde osoan zehar lehen-lehen garaietatik gurtu izan zuten jainkosarenak alegia. Uste hau berretsi egiten dute haren irudiaren itxura zaharkituak eta haren erritoen izaera lizunak; izan ere, bai itxura eta bai erritoak Asiako beste jainkosa batzuenak baitzituen. Irudia ez zen kono edo piramide zuria besterik. Konoak ziren, halaber, Biblosko Astarteren enblema, grekoek Panfiliako Pergan Artemis deitzen zioten jainkosarena eta Siriako Emesan Heliogabalo eguzki-jainkoarena ere. Itxuraz idoloak ziren harri konikoak aurkitu dira Txipreko Golgin eta Maltako feniziar tenpluetan ere; eta hareharritzko konoak aurkitu zituzten "Turkesazko Anderearen" kaperan ere, Sinaiko muino antzu eta amildegi beldurgarrietan.

Txipren, itxura denez, ohiturak emakume guztiak behartzen zituen ezkondu aurretik jainkosaren tegian beren gorputzak arrotzei saltzera, jainkosa horren izena Afrodita izan, Astarte izan nahiz beste edozein izan. Antzeko ohiturek iraun zuten Asiaren mendebaldeko hainbat lekutan. Zeinahi dela arrazoia, ohitura hori ez zen hartzen haragikeriazko orgiatzat, erlijioaren betebeharrak itzaltsutzat baizik, Asiako mendebaldeko jainkosa ama handi haren zerbitzuan burutua. Jainkosaren izena aldatu egiten zen tokitik tokira, baina izana bat bera zuen denetan. Babilonian, adibidez, emakume guztiak, aberats nahiz pobre, bizitzan behin arrotz baten besarkadei eman behar zitzaizkien Mylittaren, hots, Ishtar edo Astarteren tenpluan, eta jainkosari eskaini behar zizkieten prostituzio santu hartatik irabazitako diruak. Barruti sakratua ohitura hori gauzatzeko zain zeuden emakumez gainezka egoten zen. Batzuek urteetan egon behar izaten zuten zain. Siriako Heliopolis edo Baalbecen, tenplu hondatuen handitasun izugarriagatik ezaguna den tokian, herrialdeko ohiturak eskatzen zuen neska guztiek arrotzei saldu behar zietela gorputza Astarteren tenpluan, eta hala andreek nola neskek era berean agertzen zuten jainkosarenganako eraspenna. Konstantino enperadoreak abolitu zuen ohitura; tenplua suntsitu eta eliza eraiki zuen haren ordeiz. Feniziako tenpluetan emakumeak beren buruak erlijioaren zerbitzuan alokatuz prostituitzen ziren, ustez jokabide hartaz jainkosa eztitu eta haren aldekotza irabaziko zutela. "Amorritek lege

bat zuten, ezkontzekotan zen emakumeak zazpi egunez eseri behar zuela tenpluko atean larrua jotzera". Biblosen jendea erabat kaskamozten zen urtero Adonisen omenezko doluan. Beren ilea galdu nahi ez zuten emakumeak arrotzei eman behar zitzaizkien ospakizunen egun jakin batean, eta hala irabazitako dirua jainkosarentzat zen. Lidiako Trallesen aurkitutako inskripzio greko batek frogatzen du erlijiozko prostituzioak artean iraun egiten zuela lurralde hartan gure aroaren bigarren mendean. Aurelia Emilia izeneko emakumearen berri ematen du: jainkoaren zerbitzupean omen zegoen prostituta modura, eta hori ezezik, amak eta emakumezko beste arbaso batzuek ere gauza bera egina omen zuten berak baino lehen; eta horren berri publikoki emateak, zinitzezko eskaintza esekita zuen marmolezko zutarri batean grabatuta baitzegoen, argi eta garbi erakusten du halako bizitzari eta halako senidetinari ez zegokiela orbanik. Armenian familiarik nobleenak Anaitis jainkosaren zerbitzupean jartzen zituzten beren alabak Acilisenako tenpluan. Han, andereñoak prostituta aritzen ziren denbora luzez, ezkondu aurretik. Inork ez zuen kezkarik izaten halako neska bat emaztetzat hartzeko bere zerbitzualdia amaitu ondoren. Orobat, Ma jainkosa, prostituta sakratu ugari zerbitzatzen zuen Pontoko Komanan, eta gizon eta emakumezkoen saldo handiak joaten ziren haren jainkotegira inguruetako hiri eta herrietatik, bi urtez behingo ospakizunetara edo jainkosari agindutako eskaintzak eramatera.

Gai honi buruzko datu horiei guztiei begiratzuz gero -batzuk aurrerago aurkeztuko zaizkio irakurleari-, ondorio hauek atera ditzakegu: Asiako mendebaldeko herri askok jainkosa ama handi bat, naturaren ugal-indar guztien pertsonifikazioa, gurtzen zutela izen desberdinen pean, baina mitoa eta errituala funtsez oso antzekoak izanik; harekin jainkozko baina hilkorra zen maitale bat edota batzuk ere lotzen zituztela, eta urtero batzen zirela biak, beren arteko harremanak nahitaezkoztat jotzen zirelarik animaliak eta landareak, zein bere askaziaren arabera, ugal zitezen; eta gainera, gizon eta emakumeen bategite benetako baina aldi baterakoek simulatzen eta, nolabait, biderkatzen zutela bikote jainkotiarraren alegiazko bategitea jainkosaren tegian, zertarako eta hartara lurraren emankortasuna eta gizon eta abereen ugaltzea segurtatzeko.

Pafosen erlijiozko prostituzioaren ohitura Ziniras erregeak ezarri omen zuen, eta haren alabek gauzatu omen zuten, Adonisen arrebeak; Afroditararen haserrea bereganatu zuten, arrotzekin batu ziren eta Egipton eman zituzten beren azken egunak. Tradizioaren aldaera honetan, Afroditararen haserrea beranduagoko agintariren batek erantsitako ezaugarria dateke, bere zentzu moralarekin talka egiten zuen jokabidea jainkosaren zigor gisa ulertu bide zuelako, eta ez bere jarraitzaileei aldioro ezarritako sakrifizio gisa. Nolanahi ere den, istorioak erakusten duenez, Pafosko printzesek men egin behar izan zioten ohiturari, jaiotza apaleko emakumeek bezala.

Ziniras, Pafosko errege apaizen arbaso eta Adonisen aitari buruzko kondairen artean, batzuek gure arreta merezi dute. Lehenik, laboreen jainkosaren omenezko jaietan bere alaba Mirrarekin izandako sexu-harreman intzestuzkoetatik izan omen zuen bere seme Adonis; jaialdi hartan emakumeek, zuriz jantzita, labore-sortak eskaini ohi zituzten uztaren lehen igali gisa, eta bederatzi egunez erabateko kastitatea gorde ohi zuten. Antzinako errege askok alabarekin egin intzestuen berri iritsi zaigu. Ez dirudi berri horiek oinarririk gabeak direnik, ezta, beharbada, naturaren kontrako haragikeriaren ustekabeko lehertzeak zirenik ere. Susma genezakeenez, zirkunstantzia berezietan arrazoi jakinen batengatik burututako praktikan oinarritzen dira. Errege-odola emakumeen bidezkoa bakarrik zen herrialdeetan, eta erregeak oinordeko zen printzesarekin ezkontzeari esker jasotzen bazuen kargua, hots, benetako erregetza printzesaren esku bazegoen, pentsa liteke sarri gertatuko zela printzea bere arrebarekin ezkontzea, hartara koroa ere eskuratzen zuenez; bestela beste gizon batengana joango baitzen koroa hori, atzerritar batengana agian. Ez ote zuen oinordekotzaren arauak berak

ematen alabarekiko intzesturako bidea? Halako arauaren berezko ondorioa baitirudi erregeak emaztea hildakoan tronua utzi behar izatea, berarekin ezkontuta zegoenez geroztik baitzeukan tronu hori. Ezkontza hori amaitzean, tronurako zuen eskubidea ere amaitu egingo zen, eta alabaren senarraren eskuetara pasatuko zen. Horregatik, emaztea hil ondoren erregeak errege segitu nahi bazuen, alabarekin ezkontzea zuen legezko bide bakarra, eta hartara haren bidez emango zion jarraia lehenago amarengandik eskuratutako tituluari.

Ziniras ospetsu izan omen zen bere edertasun handiagatik eta Afrodita berak amodioz errekeritzen zuelako. Hala bada, irudi luke, jakintsuek esan bezala, Ziniras alde bere seme Adonisen kopia zela, jainkosa garberak bihotza emandako gaztearena alegia. Gainera, Afrodita Pafosko errege-etxeko bi kidez hartutako amodioari buruzko kondaira hauek ezin bereiz daitezke Pigmalioni buruz kontatzen den legendatik. Hau Txipreko errege feniziarra zen, Afroditaren irudi batez maitemindu eta berarekin oheratu omen zena. Kontuan izanez gero Pigmalion Ziniraren aitagarreba zela, Ziniraren semea Adonis zela, eta hirurek ere, hurrenez hurrenko belaunaldietan, Afroditarekin amodio-tratuak izan zituztela, ezin beste ondoriorik atera: Pafosko lehen errege feniziarrek, edo haien semeek, jainkosaren apaizak ezezik haren maitale ere bazirela aldarrikatu zuten erregulariki, hots, beren erregetzakoan Adonis nortzen zutela. Nolanahi ere, Adonis Txipreko errege izan omen zen, eta badirudi Adonis titulua eraman zutela irlako errege feniziarren seme guztiek. Egia da tituluak berez "jauna" besterik ez zuela esan nahi; baina Txipreko printze horiek maitasunaren jainkosarekin lotzen dituen legendaren arabera, badaiteke haiek Adonisen jainkozko izaera eta giza gorentasuna, biak batera aldarrikatu izana. Pigmalionen istorioak ezkontza sakratu baten zeremonia erakusten digu, zeinetan erregea Afroditaren irudiarekin esposatzen baitzen, edo beharbada Astarterenarekin. Hau hala izatera, kondairak egia adieraziko luke, ez gizon bakar batez, gizon-sail oso batez baizik, eta guztiz bidezkoa litzateke Pigmalion oro har errege semiten eta bereziki Txiprekoen izen arruntzat hartzea. Nolanahi ere den, Pigmalion zuen izena Dido arrebak ihes egin zion Tiroko errege famatu batek; eta Txipreko Citium eta Idaliumgo errege batek ere, Alexandro Handiaren garaioak, Pigmalion zuen izena. Pumiyathon zen feniziar eran, eta grekoek Pigmalion bihurtu zuten. Gainera, merezi du aipatzea Pigmalion eta Astarte izenak elkarrekin ageri direla Kartagoko hilobi batean aurkitutako urrezko medailoian; inskripzioaren karaktereak lehen garaietakoak dira. Erlijiozko prostituzioaren ohitura Pafosen Ziniras erregeak sortu eta alabek gauzatu zutela esan dugunez, pentsa genezake Pafosko erregeek estatua batekiko ezkontzan baino inozentzia gutxiagoz egiten zutela jainkozko senargaiarena: jaialdi batzuetan haiek tenpluko prostituta batekin edo gehiagorekin batuko ziren, bata Adonisen eta besteek Astarteren eginez. Hori horrela izatera, uste baino egiagoa da lehen arbaso kristauk egindako gaitzespena, alegia Zinirasek gurtutako Afrodita emagalduta arrunt bat zela. Beren harremanen fruituak jainkoaren seme-alabatzen hartuko ziren, eta denboraren joanean jainko eta jainkosen guraso bihurtuko ziren berak ere, beren aitamek aurrez egin bezala. Era hartan, Pafos, eta agian prostituzio sakratua burutzen zen Asiako jainkosa handiaren jainkotegi guztiak, giza jainkoz mukuru egongo ziren, jainkozko erregeari beren emazte, ohaide eta tenpluko prostitutek emandako giza jainkoz. Beharbada haietako batek jarraituko zion aitari tronuan, edota honen ordezkari sakrifikatuko zuten gerrak edo beste abagune batzuek errege-odoleko opagaia hil beharra eskatzen zutenean, batzuetan gertatu bezala. Halako zerga erregearen seme-alaba ugarien artetik noizbehinka hartzeak, herrialdearen onerako, ez zuen agortuko leinu jainkotiarra, ez hautsiko aitaren bihotza ere, bere maitasuna hainbesteren artean banatua izaki. Nolanahi ere den, baldin eta errege semitak aldi berean oinordetzazko jainkotzat hartzen baziren -eta bada hori sinesteko arrazoirik-, erraz ulertzekoa da

hainbeste izen semitak adieraztea izen horiek zeramatzenak jainko baten seme edo alabak, anaia edo arrebak, aita edo amak zirela, eta ez daukagu zenbait jakintsuk hitzen zentzu arruntari ihes egiteko erabilitako jokoetara jo beharrik. Interpretazio hau Egiptoko antzeko erabilera batek berresten du: han jainko gisa gurtzen zituzten erregeak, erreginari "jainkoaren emazte" edo "jainkoaren ama" deitzen zioten, eta erregearen benetako aitak ezezik aitagarrebak ere bazuen "jainkoaren aita" titulua. Era berean, agian, semiten artean, alaba erregearen harena ugaltzera bidaltzen zuen gizonari, onartuko zitzaion bere buruari "jainkoaren aita" deitzea.

Izenari kasu ematen badiogu, Ziniras izena hartu zuen lehen errege semita harpajolea zen, Dabid erregea bezala; izan ere, Ziniras izena grekozko cinyra (lira) hitzarekin lotuta dago nabarmen, eta hau kinnor (lira) semitikoarekin, Dabidek Saulen aurrean jo zuen tresnaren izenarekin alegia. Ez gaudeke oker esaten badugu Pafosen, Jerusalemen bezala, liraren edo harparen musika ez zela aisialdirako denbora-pasa hutsa, erlijioaren zerbitzurako osagaia baizik, eta doinuen eraginak, ardoaren eraginak bezala, jainkoaren inspirazio zuzena bideratuko zuela. Izan ere, Jerusalemen, tenpluko apaiz arruntek harpen, salterioen eta zinbaloen musikaz egiten zituzten beren iragarpenak; eta itxura denez, apaiz bereziek ere, igarleek alegia, eragile horiek behar izaten zituzten jainkoarekiko harreman zuzenetarako estasi egoeran jartzeko. Hala, irakur dezakegunez, igarle-saldoa goialde batetik jaitsi omen zen aurrean salterioa, panderoa, xirula eta harpa zituztela, eta ibilian-ibilian iragarpenak emanez. Orobat, Juda eta Efraimen armada etsaiaren atzetik Moabeko basamortua zeharkatzen ari zirenean, ezin izan zuten urik aurkitu hiru egunez, eta ia egarriak hil ziren, berak eta zamariak. Kinka hartan, Eliseo igarleak, armadarekin baitzihoan, musikari bati deitu eta jotzeko agindu zion. Musikaren eraginpean, erreka baten hondarrezko ubidean erretenak egiteko agindu zien soldaduei, ubide lehortu hura hartua baitzuten bidetzat. Hala egin haiek, eta bihamun goizean erretenak urez beteta agertu ziren, alde bietako mendi mortu soilduetatik iragazita. Profetak basamortuan ura biltzen izandako arrakasta hark gaur egungo ur-aztien lorpenak gogorazten dizkigu, nahiz haren jokaera desberdina izan. Bidenabar, beste fabore bat egin zien bere herritarrei. Izan ere, harkaitz artetik zelatan zeuden moabtarrek uretan islatzen zen basamortuko eguzkia ikusi zuten, eta etsaien odola zelakoan, edota are hobeki, etsaien odolaren iragarpena zelakoan, kanpamentuari erasotzera ausartu ziren, eta garaituak eta sarraskituak izan ziren.

Orobat, Saul erregearen gogo aldartetsua aldika iluntzen zuen malenkoniazko gandua Jaunak nahigabetzeko bidaltzen zion izpiritu gaizto gisa ikusten zen bezala, hala bestetik, pentsamendu asalatuak ematen eta eratzen zizkion harparen doinu gozoak Jainkoaren ahotsa bera irudituko zitzaizkion errege atsekabetuari, edo haren aingeruarena bakea xuxurlaka. Gure egunotan ere, idazle erlijioso handi batek, bera ere oso sentibera izaki musikaren sorginkeria, zera esan du, musika-notak, odola gartzeko eta bihotza nahasteko indar guztiarekin, ezin izan daitezkeela hots hutsak; ez, goragoko lekuren batetik ihes eginak direla, harmonia betierekoaren isuriak, aingeruen ahotsa, santuen Magnificat-a. Beraz, lehen gizakiaren imajina zakarrak itxuraldatu egiten dira eta haren zizaka motelak durundiozko dirdiraren oihartzun bihurtzen dira Newmanen prosa musikazkoan. Hain zuzen, musikak erlijioaren garapenean izan duen eraginak oso azterketa atseginerako bidea ematen du. Ez daukagu zalantzan jartzerik hau, alegia arteetan barnekoen eta eragingarrienak asko egin duela erlijiozko emozioak sortzeko eta adierazteko, eta hartara, sakonagotik edo azalagotik, aldatu egin duela sinesmenaren eraiketa, lehen begiratuan haren zerbitzuan dagoela badirudi ere. Musikariak bere zeregina izan du erlijioa egiterakoan, igarleak eta pentsalariak izan duten bezala. Fede orok du bere musika, eta sinesmenen arteko aldeak musika-notazioz adieraz litezke beharbada. Esate baterako, Zibelezen barbuila basatia eta Eliza Katolikoaren erritual

handiosa bereizten dituen tartea, batetik zinbaloen eta danborren zaratots gozakaitza eta bestetik Palestrina edo Haendel banantzen dituen amilaren pareko da. Izpiritu desberdinaren hatsak ditugu musiken desberdintasunean.

XXXII

Adonisen errituala

Asiaren mendebaldean eta Greziako lurretan ospatzen ziren Adonisen jaietan, urtero ekartzen zen dolua jainkoaren heriotzagatik, erosta saminak eginez, batez ere emakumeek. Haren imajinak, gorpu-itxura hartzeko jantzita, lur ematerakoan bezala eramaten ziren, eta itsasora edota ibaietara botatzen zituzten; eta zenbait lekutan, haren berpiztea biharamunean ospatzen zen. Baina zeremonien era zerbait aldatzen zen lekutik lekura, bai ta ospatzeko garaia ere. Alexandrian Afroditararen eta Adonisen irudiak bi ohantzetan erakusten ziren; haien ondoan era guztietako fruta helduak, opilak, landareak lorontzietan, eta anisarekin nahastutako erramu berdeak ipintzen zituzten. Maitaleen ezkontza egun batean ospatzen zen, eta biharamun goizean, emakumeak, ehorzle jantzian, biloak aske eta bularrak agerian, itsasertzera eramaten zuten Adonis hilaren irudia, eta uhinetara botatzen zuten. Alabaina, tristura hura ez zen itxaropenik gabea, galdutako hura atzera itzuli egingo zela esaten baitzuten kantuan. Alexandriako zeremonia hau noiz egiten zen ez dago zehatz-mehatz esaterik; baina fruta helduak aipatzen direnez, apika udaren azkenetan izango zen. Astarteren feniziar jainkotegian, Biblosen, urtero ekartzen zen dolua Adonisen heriotzagatik, xirularen nota negarti kirrinkariz, negar, lantu eta bularreko kolpeen artean; baina biharamunean atzera bizitzara itzultzen zela sinesten zen, eta zeruetara igotzen zela gurtzaileen aurrean. Sinestun kontsolatu gabeak, lurrean bakarrik utzita, erabat kaskamozten ziren, egiptoarrek Apis jainkoazko zezenaren heriotzan egin ohi zuten bezala; beren trentza ederrez gabetu nahi ez zuten emakumeek arrotzei eman behar izaten zitzaizkien gorputzez ospakizunen egun jakin batean, eta bere lotsakizunaren irabaziak Astarteri eskaini behar izaten zizkieten.

Feniziar jaialdi honek udaberri partekoa izan behar zuen, eguna Adonis ibaiaren kolore-aldatzeak erabakitzen baitzuen. Hau udaberrian gertatzen da, bidaiari modernoek ikusi ahal izan dutenez. Urtaro horretan, euriak mendietatik ekarritako lur gorriak ibaiko ura tindatzen du, itsasoa ere bai zati handi batean odolaren gorritz, eta tintura purpura hori Adonisen odola zela sinesten zen. Orobat, anemona eskarlata urtero basurdeak Libano mendian zauritutako Adonisen odoletik sortua omen da, edota odol horrek tindatua; eta anemona Sirian Aste Santu aldera sortzen denez, hori omen Adonisen jaialdia, edo haren jaialdietako bat behintzat, udaberrian izaten zelako frogatzen du. Lorearen izena Naaman ("lantzana", "maitea") hitzetik datorke, alegia Adonisen epiteto batetik nonbait. Arabiarrek oraindik ere "Naamanen zauriak" deitzen diote anemonari. Arrosa gorriak ere gertaera triste berberari zor omen zion bere ñabardura: Afrodita, zauritutako maitalearengana lasterrean zihoala, lore zurizko arrosadi batetik pasatu omen zen; arantza krudelek haragi samurra urratu eta odol sakratuak gorritz tindatu omen zituen arrosak betiko. Arinkeria dateke loreen egutegitik ateratako datuari garrantzi handia ematea, eta bereziki arrosaren kapuluarena bezain argudio ezdeusari. Alabaina, kontakizun horren arabera, Siriako arrosa Adonisen heriotzarekin lotzen duen ipuinak haren pairamena udaberrian ez baina udan ospatzen zela seinalatuko luke. Atikan behintzat, jaialdia uda betean izaten zen. Atenasek Sirakusaren kontra fleitatu zuen itsas armada, eta desegin ondoren boterea betiko galtzea ekarri ziona, uda-udana itsasoratzen zen, eta -hara zer zoritxarreko kointzidentzia- Adonisen errito ilunak orduantxe ari ziren ospatzen. Soldaduak portura bidean zihoazela, ontziratzeko, zerraldoak eta gorpuen antzeko irudiak zeuden lerrokatuta pasatzen zituzten kaleetan, eta Adonisen heriotzagatik negar egiten zuten emakumeen zaratak urratzen zuen airea. Gora-behera

hark tristura-kutsua ezarri zien Atenasek sekula itsasoratutako armada ederrenaren abiamenei. Handik urte askotara, Juliano enperadorea Antiokian lehen aldiz sartu zenean, antzera aurkitu zuen ekialdeko hiriburu alai eta dotorea, alegiazko saminean Adonisen urteroko heriotzagatik; eta gaitza zetorkiolako susmoren bat baldin bazuen, belarrietara zetozkion lanturuek bere hiletakoak irudituko zitzaizkion.

Begi-bistakoa da zeremonia hauek beste nonbait deskribatu ditudan Indiako eta Europako zeremoniekin duten antza. Batez ere, ospakizunen data zalantzazko samarra alde bat utzita, Alexandriako zeremonia Indiakoaren berdin-berdina da ia. Bietan, bi jainko-jainkosaren ezkontza ospatzen da imajinen bidez landaretzarekiko atxikimendua inguratzen dituzten landare freskoek adierazten dutelarik, eta irudiak ehortzi edo uretara botatzen dira ondoren. Ohitura horiek elkarrekin eta Europa modernoko udaberriko eta uda erdiko ohiturekin duten antza medio, pentsa genezake denek ere azalpen bera izan dezaketela. Horregatik, azkenekoez eman dudana azalpena zuzena bada, Adonisen heriotza-berpizteen zeremonia landareen bizitzaren gainbehera ernaberritzeen antzezpena izango zen. Ohituren arteko antzetik ateratako ondorioa, Adonisen legendaren eta erritualaren honako ezaugarri hauek berresten dute. Landaretzarekiko atxikimendua haren jaiotzaren istorio hedatuan ageri da. Mirra-arbola batetik jaio omen zen: arbola honen azala hiru hilabeteko izorraldiaren ondoren lehertu eta haur ederra sortu zen. Zenbait idazlek diotenez, basurde batek bere letaginez zartatu omen zuen azala, haurrari irteteko bidea eginez. Legendari arrazoi-kolore pittin bat eman zitzaion esanez ama Mirra izeneko emakumea zela, haurraz izorra geratu eta laster mirra-arbola bihurtu zena. Adonisen jaialdian mirra intsentsu gisa erabiltzetik sortuko zen ipuin hori. Ikusi dugu intsentsua erretzen zela Babiloniako erritoetan ere, baita hebraitar idolatrek ere Zerueta Erreginaren ohorez, Astarteren ohorez alegia. Orobat, Adonisek urtearen erdia, edota beste batzuen arabera herena, azpimunduan eta beste guztia gaineko munduan ematen zuelakoa, erarik sinpleen eta naturalenean azal daiteke suposatuz landaretza irudikatzen zuela, batez ere laborea, urte erdi lur azpian egon ohi dena eta beste erdian lur gainera ageri dena. Naturako urteroko fenomenoetan ez da bakar bat heriotzaren eta berpiztearen ideia landaretzaren udazken-udaberrietako desagertze-berragertzeek bezain nabarmen iradokitzen duenik. Adonis eguzkitzat ere hartu izan da; baina lurralde epel eta tropikaletan eguzkiaren urteroko ibiliak ez du inola ere aditzera ematen urtearen erdia edo herena hilda egon ohi denik, eta bizirik beste erdian edo bi herenetan. Pentsa liteke neguan ahuldu egiten dela, baina hil ez; egunero agertzeak kontraesango luke uste hori. Arktiar zirkuluan bai, han eguzkia aldiro desagertu ohi da, hogeita lau ordu eta sei hilabeteren arteko denboraldian latitudearen arabera, urtero hiltzea eta berpiztea begi-bistako ideia izan liteke; baina Bailly astronomo erratuak izan ezik, inork ez du esan Adonisen gurtza Arktiar lurraldeetatik etorria denik. Bestalde, landaretzaren urteroko heriotza eta berritzea, gizakiei basatasun eta zibilizazioko etapa guztietan agertu izan zaien ideia da; eta batetik betiereko gainbehera eta berritze hauek hain zabal eta nonahi gertatzeak, eta bestetik gizakiak bizirik iraungo badu beraren menpe egon beharrak, bat egiten dute biek gizakiari naturako urteroko gertaera harrigarriena izan dakion, lurralde epeletan bederen. Ez da harritzekoa hain fenomeno garrantzitsu, harrigarri eta unibertsalak antzeko erritoak sorrarazi izana lurralde askotan, antzeko ideiak iradokitzearen bidez. Beraz, onargarria zaigu Adonisen gurtzaren azalpen hau, naturako gertaerekin hain ondo datorrena eta beste lurralde batzuetako antzeko erritoekin halako analogia duena. Gainera, azalpen hau antzinakoek berek zituzten hainbat ustek sendotzen dute, behin eta berriz interpretatu baitzuten hiltzen eta berpizten zen jainkoa alearen uzta eta ernetzea baliran.

Tammuz edo Adonis laboreen izpiritua izate hori argi eta garbi ageri da hamargarren mendeko arabiar idazle batek jaialdi honetaz egindako kontakizunean. Siriako Harrango

paganoek urtean zehar ospatzen zituzten errito eta sakrifizioak deskribatzean, honela dio: "Tammuz (uztaila). Hil honen erdian da el-Bûgât-en jaia, hots, emakume negartiena, Tâ-uz jaia alegia, Tâ-uz jainkoaren omenez ospatzen dena. Emakumeek negar egiten dute harengatik, haren jaunak hain ankerki hil zuelako, hezurak errota batean eho eta lau haizetara zabaldu zituelako. Emakumeek (jaialdi honek irauten dueino) ez dute jaten errotan ehotako ezer, jaki hauek besterik ez dituzte hartzen: gari ernea, ilar txikia, datilak, mahatsa eta horrelakoak". Tâ-uz, Tammuz alegia, Burns poetaren John Barleycorn (Joanes Garagar) bezalakoa da hemen:

"Gar kiskalgarrian erre zioten
hezurretako muina;

baina errotari batek egin zion okerrena,
bi harriren artean xehatu baitzuen".

Adonisen izaera zerealetan kontzentratzea, nolabait esateko, haren gurtzaileek garai historikoetan lortutako kultur mailaren ezaugarri da. Atzean utzia zuten noraezean dabilen ehiztariaren eta artzainaren bizimodu nomada; urte asko zeramaten lurralde batean bizitzen jarrita, eta bizi ahal izateko laborantzako emariei lotuta zeuden gehienbat. Basamortuko bihi eta sustraiak, zelaietako belarra, beren arbaso hezigabeagoentzat oso garrantzi handiko gauzak izan baziren ere, munta txikikoak ziren orain berentzat; oinarrizko bizigaiak, laboreak alegia, gero eta gehiago bazkatu zizkien beren pentsamendu eta indarrak; horren arabera, beren erlijioaren ezaugarri orokor bihurtu zen oro har emankortasunaren jainkoak eta bereziki laborearen izpiritua eztitzea. Erritoak ospatzean zuten helburua praktikoa zen batez ere. Ez zuten poesi sentipen lausorik, landaretzaren birjaiotzari ongi etorri alaia ematera eta gainbehera doluz hartzera bultzatzen zituenik. Gosea, goseak egotea edo gosearen beldur izatea, horra Adonisen gurtzaren arrazoi nagusia.

Aita Lagrangek iradoki duenez, Adonisengatik dolua uztaroko erritoa zen batez ere; alearen jainkoa eztitzea zuen xede, uzta-biltzaileen igitaipen edo larrainean idien hankapean hiltzen zelako. Gizonak hiltzen zuten bitartean, emakumeek malko lodiak isurtzen zituzten etxean haren sumina ematzeko, heriotzagatik beren atsekabea erakutsiz. Teoria hau oso ondo dator jaialdien datekin, udaberrian edo udan egokitzearekin alegia; Adonis gurtzen zuten lurraldeetan udaberrian eta udan izaten baita garagarraren eta gariaren uztaroa, ez udazkenean. Gainera, hipotesi hau egiptoar igitarien praktikak berresten du: Isisi deitzen zioten deitorez lehen alea mozten zutenean; eta tribu ehiztari askoren antzeko ohiturek ere egiantzeko egiten dute, begirune handia erakusten baitzieten hiltzen eta jaten zituzten animaliei.

Hala interpretaturik, Adonisen heriotza ez da landaretza berez zimeltzea, oro har, udako beroan edo neguko hotzean; gizakiak laborea bortxaz desegitea da, soroan moztu, larrainean eultzitu eta errotan birrindu egiten baitu. Onar daiteke Adonis azken aldera gisa horretan agertzen zitzaizela nagusiki sortaldeko herri nekazariei; baina zalantza egitekoa da hasiera-hasieratik Adonis laborea besterik ez dela izan. Lehenago, artzainarentzat, euriaren ondotik sortzen den belar biguina izango zen, ganadu argal eta gosetuarentzako bazka gizona. Are lehenago, basoek udazkenean ehiztari basatiari eta bere emazteari jaulkitzen zizkieten intxaur eta bihiaren izpiritua gorpuztuko zuen. Eta nekazariak jaten zuen laborearen izpiritua eztitu behar duen bezala, artzainak ere bere ganaduak jaten zituen belarraren eta hostoen izpiritua ematu beharko zuen, eta ehiztariak ateratzen zituen sustraien izpiritua gozatu beharko zuen, baita adaburuetatik bildutako fruituena ere. Kasu hauetan guztietan, irelu iraindu eta haserretua eztitzeak aitzakia eta barkamen-eske bihurriak ekarriko zituen, heriotzagatik lantu ozenekin batera, noiz eta, ezbeharren bat edo behar gorria bera zela medio, hil edo lapurtu behar zuten guztietan. Gogoan izan behar dugu lehen egun haietako ehiztari basatiak eta

artzainak artean ez zirela iritsiak landaretza orokorraren ideia abstraktura; horren arabera, Adonis denentzat existitzen zenez, zuhaitz eta landare bakoitzaren Adon edo jauna izango zen, ez landare guztien biziaren pertsonifikazioa. Beraz, zenbat zuhaitz eta zuhaixkak adina Adonis izango ziren, eta Adonis bakoitzak berari edo berea zuenari egin kalteen ordaina jaso beharko zuen. Eta urtez urte, zuhaitzak hosto galkorrekoak zirenean, Adonis bakoitza udazkeneko hosto gorriekin hil arte odolusten zela emango zuen, eta atzera bizira itzultzen zela udaberriko berde freskoaz.

Bada arrazoirik pentsatzeko lehenengo Adonis hura gizon bizi batek nortzen zuela, jainko gisa bortxaz hiltzen zuten gizon batek. Gainera, datu batzuek erakusten dutenez, Mediterraneoko ekialdeko herri nekazarietan, uzta-soroan indarrez hildako giza harakaiek nortuko zuten urtez urte laborearen izpiritua, zeinahi izen hartzen zuelarik ere. Hau honela izatera, pentsatzekoa da alearen izpirituaren ezitzeak hildakoen gurtzarekin nahastera joko zuela neurri batez. Izan ere, pentsatuko zuten harakai haien izpirituak beren odolaz gizendu zituzten galburuetan itzuliko zirela bizitzara, eta bigarrenez hiltzen zirela laborea moztean. Baina indarrez hildakoen izpirituak haserre izango ziren, eta hiltzaileen gainean mendeku hartzeko prest, aukera izanez gero. Horregatik, hildako biktimen arimak ematzeko saioa berez nahastu bide zen, jende xehearen gogoan bederen, hildako ale-izpiritua baketzeko saioarekin. Eta hildakoak ernetako ale berrian itzultzen ziren bezala, pentsatuko zen udaberriko loreetan ere itzultzen zirela, udaberriko haizexka leunak loaldi luzetik iratzarrita. Zer naturalago bioletak eta hiazintoak, arrosak eta anemonak haien hautsetik ernetzen zirela, haien odolak gorrimitzen zituela, eta haien izpirituaren parte bat zutela imajinatzea baino?

"Batzuetan pentsatzen dut inoiz ez dela hain gorri loratu

Arrosa, Zesar batek odola isuri zuen lurrean baino;

Lorategia janzten duen Hiazinto oro

Haren Magalean sortu zela inoiz maitagarri izandako Burutik.

"Eta landare biziberritu hau, zeinen Berde samurrak

Azpiltzen duen ibai-ertza non gu makurtzen garen

Ah, makur zaitez tentuz, zeren nork daki

Behinola maitagarri izandako zein Aho ikustezinetatik sortzen den?

Landengo guduaren ondorengo udan, Europan XVII. mendean izan den gudurik odoltsuenean, lurra, hoge mila hildakoren odolaz ase, milaka mitxoletaz erditu zen, eta izara eskarlata amaigabe hartatik pasatzen zen bidaiariak erraz irudikatuko zuen lurrak bere hildakoak askatu zituela. Atenasen, Hildakoen Oroitza handia udaberrian izaten zen, martxoaren erdialdera, lehen lore-begiak ageri direnean. Hildakoak beren hilobietatik jaikitzen zirela sinesten zen, eta kaleetan zehar joaten zirela eliza eta ermitetan sartu nahian; alferrik, ordea, sokaz, sasiz eta galipotez itxita egoten baitziren izpiritu asaldu haien kontra. Jaialdiaren izenak, interpretazio bistakoen eta naturalenaren arabera, Loreen Jaia esan nahi du, eta titulu hori ondo egokitzen zaio zeremonien edukinari, pentsatzen baitzen sasoi horretan arima gajoak loreak irekitzearekin batera egiten zutela ihes beren etxe estutik. Beraz, bada egia zerbait Renanen teorian, Adonisen gurtzan heriotzaren gurikeriazko eta ametsezko kultua ikusi zuenean; ez zuen ikusi Adonis Zukurutzen Errege gisa ezpada bere biktimak erakarri eta betiereko loan urrumakatzen dituen sorgile maltzur gisa. Naturak Libanon ageri duen xarma mugagabeak, pentsatzen zuen, sentimen eta ameskeriazko emozio erlijioso hauetara makurtzen du bat, oinazearen eta plazerraren, ametsaren eta malkoen artean hega-biraka. Oker geundeke, zalantzarik gabe pentsatuko bagenu nekazari siriarrak heriotzaren ideia orokorra -hain ikusmolde abstraktu hutsa- gurtzen zutela. Alabaina, egia liteke haien adimen sinpleetan landaretzaren izpiritu berrituaren ideia hildakoen arimek buruzko nozio zehatz batekin nahasten zela: udaberriko egunetan lore

goiztiarrekin, alearen berde biguinarekin eta zuhaitzetako kimu koloreanitzekin biziratzen zirela alegia. Beraz, naturaren hiltze-berpizteez zuten ikuspegia gizakiaren hiltze-berpizteez zeukaten ikuspegiak tindatuko zuen; nekazari haien tristura, itxaropen eta beldurrek, alegia. Era berean, ez daukagu duda egiterik Renanek Adonisi buruz zuen teoria bera ere oroitzapen grinatsuek sakonki tindatzen zutela: begiak itxi zizkioten heriotzaren hurbileko loaren oroitzapenek; Libano mendiko hegaletan, Adonisen lurrean, atzera inoiz ez esnatzeko, anemona eta arrosekin lo datzan arrebaren oroitzapenek.

XXXIII

Adonisen baratzak

Beharbada Adonisen baratzek ematen digute -halaxe deitzen zitzaaien- Adonis landaretzaren eta bereziki laboreen jainkoa zelako frogarik onena. Lurrez betetako saski edo poteak ziren, eta bertan garia, garagarra, letxugak, mihilua eta hainbat lore-motaren hazia erein eta zortzi egunez zaintzen ziren. Eguzkiaren berotan, landareak laster etortzen ziren, baina zainik ez eta berehala zimeltzen, eta zortzi egunen buruan Adonis hilaren irudiekin batera eramaten zituzten, eta harekin batera botatzen itsasora edo erreketara.

Adonisen baratza horiek Adonisen ordezkari edo haren ahalmenaren agerpen gisa interpretatzen dira erarik naturalenean; jainkoa bere jatorrizko izaeran irudikatzen zuten, landare-itxuran; haren imajinak, berriz, berarekin eramaten eta uretara jaurtitzen baitzituzten, jainkoa bere azken gizaki-itxuran agertzen zuten. Zuzen banago, Adonisen zeremonia haiek guztiak, landareen hazkundea edo berritzea bultzatzeko xarmadura gisa egin ziren lehen-lehenik, efektu hori homeopatiatzko edo antzezko magiaren printzipioaren arabera eragiten zutelari, jende ezjakinak uste baitu nahi den ondorioa imitatuz gero, ondorio hori benetan eragiten dela; horregatik, ura isuriz euria eragiten da, sua irazekiz eguzkia ateratzen da, eta abar. Era berean, uztaren hazkundea imitatuz uzta onaren itxaropena izango da. Garia eta garagarra Adonisen baratzetan bizkor hazteak alea bizkor eratortzen omen zuen; eta baratzak eta imajinak uretara jaurtitzea ur ernarazle aski segurtatzeko xarmadura zen. Helburu berbera zuen, nire ustez, Herio eta Ihauteren irudiak uretara botatzeak Europa modernoko zeremonietan. Izan ere, hostoz jantzitako pertsona bat, zalantzarik gabe landaretza nortzen duena, urez blaitzeko ohitura euria eragiteko xede zehatzaz egiten da oraindik ere European. Era berean, uztan moztutako azken laboreari edo hura etxera daraman pertsonari ura botatzeko ohitura (Alemanian eta Frantzia irauten du oraindik, eta ia oraintsu arte iraun du Ingalaterran eta Eskozian), hurrengo urteko uztarentzat euria erakartzeko xede agerikoz egiten da zenbait lekutan. Walachian eta Transilvaniako errumaniarren artean, adibidez, neska batek uztaroan moztutako azken labore-buruez egindako koroa etxera daramanean, aurkitzen duten guztiek ura botako diote, eta bi morroi jartzen dira atean horretarako; uste baitute hala ez egitera, lehortek hondatu egingo lukeela hurrengo urteko uzta. Prusian, udaberriko goldaketan, goldatzailea eta ereileak arratsean soroetako lanetik etxeratzen zirenean, baserritarraren emazteak eta zerbitzariak ura bota ohi zieten. Goldatzaileak eta ereileak, berriz, jarraitu egiten zieten harrapatuz gero askara botatzeko. Baserritarraren emazteak bera ez botatzea eska zezakeen isuna ordaintzearen truke, baina beste guztiak murgilarazi beharra zegoen. Ohitura honen bidez haziarentzat nahikoa euri segurtatzea espero izaten zuten.

Adonisen baratzak funtsean landaretzaren eta batez ere uzten hazkundea bultzatzeko xarmadurak direlako iritzia, eta beste nonbait deskribatu ditudan Europa modernoko udaberriko eta udako ohituren mota berekoak direlako, ez da probabilitate hutsean oinarritzen. Zorionez, badaukagu erakusterik oraindik ere landatzen direla Adonisen baratzak (esamolde hau zentzu orokorrean erabiltzerik bageneuka): batetik arraza

primitibo batek hazia ereiteko sasoian, eta bestetik europar nekazariak udan. Bengalako oraon eta mundatarren herrialdean, mintegietan hazi den arroza aldatzeko garaia heltzen denean, gazte-talde bat, neska eta mutil, basora joaten da eta han karma zuhaitz gazte bat mozten dute, edota zuhaitz horietako baten abarra. Garaipen-hotsean ekartzen dute dantzatzu, kantatzu eta danborrak joz, eta herriko dantzalekuaren erdi-erdian landatzen dute. Sakrifizioa eskaintzen zaio zuhaitzari; eta biharamun goizean neska eta mutil gazteak, elkarri besoa emanda, dantza egiten dute karma zuhaitzaren jiran biribil handia osatuz; zuhaitza koloreetako xingolaz eta lasto tindatuz egindako eskuturrekoz eta idunekoz apaintzen dute. Jaialdirako prestaketa gisa, herriko buruzagiaren alabek modu berezian landatzen dituzte garagar landareak. Hazia zoru heze eta hareatsuan ereiten dute kurkumarekin nahastuta, eta landareak udaberri-loreen horitzaz ernetzen eta zabaltzen dira. Jaialdiaren egunean neskek hartu landareok eta saskietan eramaten dituzte dantzalekura, eta han, ahozpe jarrita, karma zuhaitzaren aurrean ipintzen dituzte landare batzuk. Azkenez, karma zuhaitza hartu eta erreka batera edo putzu batera botatzen dute. Garagarra landatzearen eta gero karma zuhaitzaren aurrean jartzearen esanahia ez da batere iluna. Zuhaitzek bizkortu egiten omen dute aleen hazkundera, eta herri horrek -munda edo mundariak alegia- "zuhaiztiko jainkoak dauzka uztaren erantzulezat". Beraz, arroza aldatzeko sasoian mundek zuhaitza ekarri eta hainbeste begirunez tratatzen dutenean, aldatu behar duten arrozaren hazkundera zaintzea beste xederik ez dute; eta garagar-landareak bizkor ernearazteko eta zuhaitzaren aurrera eramateko ohiturak ere xede berbera duke, beharbada zuhaitz-izpirituari uztarekin duen betebeharra gogoratuz, eta haren jarduna bizkortuz landareen hazkunde bizkorren adibide nabarmen honen bidez. Karma zuhaitza uretara botatzea euri-xarma gisa interpretatu behar da. Ez da esaten garagar-landareak ere uretara botatzen diren ala ez; baina aztura horretaz egin dudan interpretazioa zuzena bada, baliteke haiek ere botatzea. Bengalako aztura honen eta Greziako Adonisen erritoen arteko alde bat honako hau da: lehenengoan zuhaitz-izpirituak zuhaitz-itxuran agertzen da jatorrizko forman; aldiz, Adonisen gurtzan giza itxuran ageri da zuhaitz-izpirituak, hildako gizon gisa, nahiz Adonisen baratzek landare-izaera adierazten duten; baratza horiek, nolabait esan, zuhaitz-izpirituaren jatorrizko ahalmenaren bigarren mailako ager-modua dira.

Hinduek ere lantzen dituzte Adonisen baratzak, itxuraz bai lurraren eta bai gizateriaren emankortasuna segurtatzeko. Horregatik, Rajputanako Udeypuren, jaialdia ospatzen da Gouri edo Isani, ugaritasunaren jainkosaren omenez. Erritoak eguzkia Ram-en zeinuan sartzen denean hasten dira, hots, hinduen urte-hasieran. Gouri jainkosaren irudia egiten da lurrez, eta beste txikiago bat haren senar Iswararena, eta biak jartzen dituzte elkarrekin. Gero ildaska bat egiten dute, bertan garagarra erein eta lurra ureztatu eta berotu egiten da artifizialki alea erne arte; emakumeek dantzan egiten dute haren jiran, elkarri eskua emanda, Gourik senarra bedeinka diezaiela erregutuz. Honen ondotik labore gaztea hartu eta emakumeek gizonei banatzen diete, eta hauek beren turbanteetan gordetzen dute. Errito hauetan garagar-menduak gizonei banatzeak, eta emazteek senarrak bedeinkatuak izan daitezen egiten duten erreguak, argi adierazten dute zeremonia hau burutzeko arrazoi bat haurrak izateko desira dela. Horrexegatik erabiltzen bide dira Adonisen baratzak Madrasen, brahmanak ezkontzen direnean. Bost edo bederatzi motatako haziak nahastu eta hartarakoxe egindako lurrezko eta lurrez betetako poteetan ereiten dira. Senar-emaztegaiek goizean eta arratsaldean ureztatzen dituzte lau egunez; eta bosgarren egunean ereindakoa bota egiten da putzu edo erreka batera, Adonisen benetako baratzak bezala.

Sardinian Adonisen baratzak uda-hasierako jaialdi handiarekin lotuta landatzen dira, San Joan egunarekin alegia. Martxoaren hondarrean edo apirilaren hasieran herriko mutil batek bere burua aurkezten dio neska bati, eta galdetzen dio ea bere comare-a

(komaia edo maiteñoa) izan nahi duen, bere burua compare-tzat eskainiz. Gonbita ohoretzat hartzen du neskaren familiak, baita pozik onartu ere. Maiatzaren azkenera neskak artelatz-azalezko ontzia egiten du, lurrez bete eta eskua bete gari eta garagar ereiten du bertan. Ontzia eguzkitan jarri eta sarritan ureztatzen denez, alea laster ernetzen da eta buru ederra izaten du San Joan bezperarako (ekainaren hogeita hirurako). Ontziari Erme edo Nenneri deitzen diote orduan. San Joan egunean mutila eta neska, beren arropa onenez jantzita, atzetik segizio luzea eta aurretik haurrak saltoka eta jauzika dituztelarik, herritik kanpo dagoen eliza batera joaten dira prozesioan. Han elizako atearen kontra hausten dute ontzia. Gero biribilean esertzen dira denak belar gainean, eta arrautzak eta berdurak jaten dituzte xirulen musikarekin. Ardoa godalet batean atera eta errondan pasatzen da, bakoitzak handik edaten duelarik. Gero, eskuetatik helduta, "San Joaneko maiteñoa" (Compare e comare di San Giovanni) abesten dute behin eta berriz, xirulen musikaz. Kantuan aspertzen direnean, zutitu eta alaiki dantzatzen dute biribilean arratsaldera arte. Hau da Sardiniako ohitura orokorra. Ozierin egiten denak bereizgarri batzuk ditu. Maiatzean artelatz-azalezko ontziak egin eta laborea ereiten da, esan bezala. Gero, San Joan-bezperan, leihoaldeak zapi ederrez janzten dira, eta han ipintzen dituzte ontziak, zeta eskarlata eta urdinez eta koloreetako xingolaz apainduta. Lehenago estatuatxo edo trapuzko panpina ipini ohi zuten ontzi bakoitzean, emakume jantzia, edota Priaporen antzeko irudia, pastaz egina; baina ohitura hau, Elizak gogor debekatuta, galdu egin da. Herriko mutilak taldean ibiltzen dira ontziak eta apaindurak ikusiz eta neskei itxaronez; herriko plazan biltzen dira jaia ospatzera. Han su handia pizten da, eta inguruan dantza eta alaitasuna izaten dute. "San Joaneko maiteño" izan nahi dutenek honela jokatzeko dute. Gizon gaztea suaren alde batean jartzen da, eta neska bestean, eta eskuak elkarri ematen dizkiote nolabait, mutur banatatik makila luze bati helduta; hirutan pasatzen dute makila hori sutan atzera eta aurrera, eskuak hiru aldiz garretan bizkor sartuz. Horrek elkarren artekoa zigilatzen du. Dantzak eta musikak gau berandura arte irauten dute. Sardiniako ontzi hauen eta Adonisen baratzen artean zerikusi zuzena dagoela dirudi, eta lehenago bertan ipintzen ziren irudiak baratzetan jartzen ziren Adonisen irudien pareko ziren.

Antzerako ohiturak izaten dira sasoi horretantxe Sizilian ere. Neska-mutil bikoteak San Joaneko adiskide (komai-konpai) bihurtzen dira bakoitzak burutik ile bat erauziz eta haien gainean zeremonia batzuk eginez. Hala, elkarrekin lotzen dituzte ileak eta airera botatzen dituzte, edota trukatu egiten dituzte lorontzi-puska baten gainean, eta gero puska erdibitu eta bakoitzak bere zatia arreta handiz gordetzen du. Azken era honetan osatutako lotura bizitza osorako omen da. Siziliako zenbait aldetan San Joaneko adiskideak ernetako ale, dilista eta kalamu-hazizko platerekin aurkezten zaizkio elkarri, jaialdia baino berrogei egun lehenago landatuta. Platera hartzen duenak landare gazteen zurtoin bat erauzten du, zinta batez lotu eta bere altxor handien artean gordetzen du, platera emaileari itzuliz. Catanian adiskideek albahaka eta pepino handiko ontziak trukatzeko dituzte; neskek albahaka zaintzen dute, eta zenbat eta ederrago hazi, hainbat preziatuago izaten dute.

Sardiniako eta Siziliako uda-ohitura hauetan baliteke San Joanek Adonis ordeztu izana, R. Wunschek uste duenez. Ikusi dugu Tammuz edo Adonisen erritoak udan ospatu ohi zirela gehienbat; San Jeronimoren arabera, ekainean.

Sizilian Adonisen baratzak udaberrian eta udan ereiten dira oraindik ere; hortik atera genezake Sizilian ere, Sirian bezala, aspaldidanik ospatzen zela jainko hil eta berpiztuaren jaia udalehenean. Bazkoa hurbiltzean, Siziliako emakumeek garia, dilistak eta kalamu-hazia ereiten dute plateretan, eta itzalean edukitzen dituzte bi egunez behin ureztatuz. Landareak laster etortzen dira; elkarrekin lotzen dituzte zurtoinak zinta gorritz, eta eliza katoliko eta grekoetan Ostiral Santuan Kristo hilaren irudiekin eraikitzen diren

hilobien gainean ipintzen dira platerak, Adonisen baratzak Adonis hilaren hilobi gainean ipintzen ziren bezala. Ohitura hau ez da Siziliakoa bakarrik, Calabriako Cosenzan ere bada, eta beste leku batzuetan ere bai, beharbada. Ohitura osoa -hilobiak eta ernetako alezko platerak- Adonisen gurtzaren jarraipena besterik ez dateke, beste izen batez.

Ez dira Siziliako eta Calabriako ohiturak Adonisen erritoen antza duten Bazkoako zeremonia bakarrik. "Ostiral Santu osoan zehar, Kristo hilaren argizarizko irudia erakusten da eliza greko guztietan, eta jendetzak muin eta muin egiten dio, eliza osoak hil-kanta goibelak kantatzen dituelarik. Arratsean, ilundu eta gero, apaizek kalera ateratzen dute argizarizko irudia, limoiz, arrosaz, jasminez eta beste lorez apaindutako tumulu baten gainean, eta han hasten da jendetzaren prozesio handia errenka hertsietan, pauso mantso eta solemnez, herri osoan zehar. Gizonak, nor bere kandelarekin, negar saminetan lehertzen dira. Etxe guztietan, prozesioa pasatzean, emakumeak intsentsontziekin egoten dira eserita, jendoldeari kea botaz. Komunitateak bere Kristoa ehortzen du hots handiz, hil berri balitz bezala. Azkenez, argizarizko irudia elizan uzten da berriz ere, eta atzera kantu goibel berberen oihartzuna entzuten da. Erosta hauek, erabateko barauarekin batera, larunbat gauerdiraino segitzen dute. Erlojuak hamabiak jotzarekin batera, apezpikua agertzen da eta berri alaia iragartzen du, "Kristo piztu da", eta jendetzak erantzuten dio "Bai, piztu da Kristo", eta bat-batean hiri osoa zalaparta alaiaren lehertzen da, txilio eta garrasika, kanoikaden eta mosketeen tiro amaigabeen artean, eta era guztietako suzirien leherketen artean. Ordu horretantxe, jendeak barau gorritik Bazkoko arkumera eta ardo hutsera pasatzen da".

Era beretsuan, Eliza Katolikoa ohituta dago bere jarraitzailei Salbatzailearen heriotzaren eta berpizkundearen ikuskizuna erakustera. Drama sakratu horiek oso egokiak dira hegoaldeko arraza sentikorraren irudimen bizia inarrosteko eta sentimendu beroak kitzikatzeko; jite hotzagoko herri teutoniarrek baino bereago sentitzen ditu Katolizismoaren arrandia eta ospea.

Elizak fede berriaren hazia paganotasunaren jatorri zaharrean ereitea zein trebeki asmatu duen gogoeta egiten dugunean, susma genezake Bazkoko Kristoren heriotza-berpizkundeen ospakizuna Adonisen heriotza-berpizkundeen antzeko ospakizunaren gainean txertatu zela. Izan ere, ikusi dugunez, Sirian sasoi berean ospatzen zen. Jainkosa nahigabetua besoetan hiltzorian duen maitalearekin: artista grekoek sortutako tipoak arte kristauko Pietà gogoratzen du, eta beronen eredu dateke: Ama Birjina Semearen gorpua altzoan duela, zeinen adibiderik miretsiena Michelangelorena baita, San Pedro basilikan. Talde garai hau, zeinetan amaren atsekabe bizia hain harrigarriki kontrajartzen zaion seme hilaren hildurari, marmolezko konposiziorik finenetakoa da. Antzinako arte grekoak lan gutxi utzi dizkigu hain ederrak, eta bakar bat ere ez hain patetikoa.

Honekin lotuta, San Jeronimoren adierazpen oso ezagun bat ez dateke esanahirik gabea. Hark dioskunez, Beleni, Jaunaren jaioleku tradiziozkoari, Adonis siriar jaun are zaharragoaren zuhaizti batek egiten omen zion itzal, eta Jesus haurrak negar egindako lekuan Venusen maitalea aurrez negar egina omen zen. Argi eta garbi esaten ez badu ere, badirudi San Jeronimok pentsatzen zuela paganoek Kristoren jaiotzaren ondoren landatu zutela Adonisen zuhaiztia, leku santua laidoztatzeko asmoz. Honetan baliteke oker egotea. Baldin eta Adonis, argudiatu dudan bezala, laborearen izpiritua bazen, nekez topa zitekeen Belen, "Ogiaren Etxea" baino izen egokiagorik haren bizilekuarentzat, eta baliteke Ogiaren Etxe hartan Adonis gurtu izana, "ni naiz biziaren ogia" esan zuen Hura jaio baino askoz lehenago. Are Adonis Belenen Kristo baino lehenagokoa ez baina ondorengoa izanda ere, kristauak beren Jaunarengandik desbideratzeko irudi triste hau aukeratzeak harritu besterik ez gaitu egiten, oso egokia

baita bien heriotza-jaiotzak oroitzen zituzten erritoen arteko antzak gogorazteko. Jainko berriaren gurtzaren lehen kokalekuetako bat Antiokia zen, eta Antiokian, ikusi dugunez, jainko zaharraren heriotza ospatzen zuten hots handiz urtero. Juliano enperadorea Adonisen jaia ospatzen zen garaian hiri hartan sartzean gertaturiko zerbaitek argituko digu agian zein datatan ospatzen zen. Enperadorea hirira hurbiltzean otoitzekin hartu zuen jendeak, jainkoa bailitzan, eta liluratuta geratu zen jendetza handiaren ahotsak entzunda, ekialdean Salbazioaren Izarra agertu zitzaiela garrasika. Hau, ezbairik gabe, ekialdeko jendetzaren zurikeriak Erromako enperadoreari egindako gehiegizko kunplimendua besterik ez dateke. Baina baliteke, halaber, izar distiratsu bat agertzeak ematea beti jairako seinalea eta, zoriak hala ekarrita, enperadorea etortzearekin batera izar bat goratzea ekialdeko zerumugan. Kointzidentziak, halakorik gertatu bazen, jendetza superstiziotsu eta kitzikatuaren irudimena astinduko zuen nahitaez, eta bibaka hartuko zuen gizon handia, zeruetako seinale batek etorrera iragarri zion jainkoa bailitzan. Edo baliteke enperadorea oker egotea izarrari zuzendutako garrasiak berari egindako ongi etorritzat hartzean. Dena den, Astarte, Adonisen maitale jainkotiarra, Venus planetarekin identifikatzen zuten, eta Babiloniako astronomoak arretaz ohartu ziren haren aldaketez, goizeko izarra izatetik arratseko izarra izatera, eta etorkizunaren zantzuak ateratzen zituzten haren agertze-desagertzeetatik. Horregatik, pentsa genezake Adonisen jaia Venus Goizeko edo Arratseko Izar gisa agertzearekin batera paratzen zutela. Baina Antiokiako herriak jaialdian agurtu zuen izarra ekialdean agertu zen; beraz, Venus izatera, Goizeko Izarra behar zuen izan. Siriako Afakan, non Astarteren tenplu ospetsua baitzegoen, erritoak ospatzeko seinalea meteoro baten distirak ematen omen zuen, halako batean izar baten antzera Libano menditik Adonis ibaiara erortzean. Meteoroa Astarte bera zela jotzen zuten, eta hegaldi hartan amodioz betetako jainkosa bere maitalearen besoetara jaisten zela. Antiokian eta beste nonahi Goizeko Izarra jaiaren egunean agertzea ere, era berean, maitasunaren jainkosa bere maite hila lurrezko ohetik iratzartzera etortzea zelakoan egingo zioten ongi etorria. Hau honela izatera, pentsa genezake Goizeko Izarrak gidatu zituela Errege Magoak ekialdetik Belenera; San Jeronimoren hitzetan, Kristo haurraren negarra eta Adonisen adia entzun zituen leku santura.

XXXIV

Attisen mitoa eta errituala

Beste jainko bat, zeinen heriotza-berpizteek sustrai sakonak baitzituzten Asiako mendebaldeko fedean eta erritualean, Atis zen. Nola Adonis Sirian, halaxe hau ere Frigian. Adonis bezala, landaretzaren jainkoa izan zela dirudi, eta urtero, udaberriko jai batean, dolua ekartzen zen haren heriotzagatik, eta berpiztea ospatzen zen. Bi jainkoen legenda eta erritoak hain ziren antzekoak, antzinakoek berek ere identifikatu egiten zituzten batzuetan. Atis artzain edo unai gazte eder bat omen zen, Zibeles jainkoen Amak, emankortasunaren asiar jainkosa handiak, maite zuena. Frigian zuen egoitza nagusia. Batzuen ustez Atis haren semea zen. Attisen jaiotza, beste hainbat heroirena bezala, mirari bidezkoa izan omen zen. Ama, Nana izeneko birjina bat, magalean almendra bat edo granada bat ipiniz ernaldu omen zen. Hain zuzen, Frigiako kosmogoniaman almendrondoa ageri zen gauza guztien aitatzat, beharbada bere lili fina udaberriaren lehen iragarleetako bat delako, abar biluzietan hostoak azaldu baino lehen agertzen baita. Birjina diren amen ipuin hauek aro ezjakin bateko erlikiak dira, gizakiak artean jaiotzea sexu-harremanen ondorio zela ohartu ez ziren garaikoak. Attisen heriotzaren bi kontakizun desberdin zabaldu ziren. Baten arabera, basurde batek hil zuen, Adonis bezala. Bestearen arabera, bere burua irendu zuen pinu baten azpian, eta bertan odolustu eta hil egin zen. Bigarren kontakizuna Pessinosko Zibelesen gurtzaleku handi bateko herritarrek kontatzen omen zuten. Kontakizun honek beste batzuekin

batera osa tzen duen legenda osoak zakarkeria eta basakeria ditu ezaugarri: oso legenda zaharra zelako seinale. Ohiturak berresten ditu bi ipuinak, edota biak asmatu bide ziren gurtzaileek zituzten ohitura batzuk azaltzeko. Attisen auto-irentzearen istorioa, ezbairik gabe, haren apaizen auto-irentzearen berri emateko saioa da, jainkosaren zerbitzura sartzean beren buruak zikiratu ohi baitzituzten. Basurde batek hil zuelako istorioa gurtzaileek, eta bereziki Pessinoko herriak, zergatik ez zuen zerrikerik jaten azaltzeko kontatuko zen. Adonisen gurtzaileek ere ez zuten zerrikerik jaten, beren jainkoa basurde batek hil zuelako. Hil eta gero Atis pinu bihurtu omen zen.

Jainkoen Ama frigiarraren gurtza K.o. 204an hartu omen zuten erromatarrek, Hanibalekiko gudu luzearen amaiera aldera. Profezia batek (burugabekerien ontzi den Sibilaren Liburutik ateratakoak izan behar du, nonbait) une egokian suspertu zituen haien bihotz eroriak: alegia inbaditzaile arrotza Italiatik kanporatuko zutela baldin eta sortaldeko jainkosa handia Erromara ekartzen bazuten. Hala bada, enbaxadoreak igorri zituzten Frigiako Pessinos hiri santura. Jainkosa ahaltsua gorpuzten zuen harritxo beltza eman zitzaizen eta Erromara ekarri zuten, non begirune handiz hartu eta Palatino muinoko Garaipenaren tenpluan ezarri baitzuten. Apirilaren erdi aldera iritsi zen jainkosa, eta berehala jarri zen lanean. Urte hartako uzta aspaldian ikusi ez bezalakoa gertatu zen, eta hurrengo urtean bertan Hanibal eta bere beteranoak Afrikarako ontziratu ziren. Italiako kostaldeari azkenekoz begiratzean, urrunean nola desagertzen zen ikusiz, ezin izan zuten aurikusi Europak, armei jarki bazitzaizen ere, sortaldeko jainkoei men egingo ziela. Konkistatzaileen abangoardia Italiaren bihotzean kanpatua zen ordurako, armada garaituaren erretagoardia, aspertuta, kostaldetik urundu baino lehen.

Esan ez bazaigu ere, pentsa genezake Jainkoen Amak berekin ekarri zuela maitale gazte edo semearen gurtza ere mendebaldeko egoitza berrira. Erromatarrek ezagunak zituzten galliak, Attisen apaiz irenduak, Errepublikak amaitu baino lehen. Izaki sexugabetu haiek, sortaldeko janzkeran, paparretik iruditxoak zintzilik zituztela, ikuskizun ezaguna izan bide ziren Erromako kaleetan zehar: prozesioan ibiltzen omen ziren han barrena, jainkosaren irudia eramanez eta beren himnoak kantatuz zinbalo eta danbolinen, xirula eta adarren musikaz lagunduta; jendeak, ikuskizun izugarri hark harrituta eta zaratots basati hark inarrosita, limosna ugari ematen omen zizkien, eta arrosa-zaparradaz estaltzen omen zituen jainkosa eta eramaleak. Beste urrats bat Klaudio enperadoreak eman zuen, zuhaitz sakratuaren frigiarr gurtza, eta beharbada Attisen errito orgiazkoak ere bai, Erromako erlijio ofizialari erantsi zizkionean. Udaberriko Zibeles eta Attisen jai handia ezagunagoa zaigu Erroman ospatzen zuten eran; baina Erromako zeremoniak Frigiakoak ere bazirela jakinarazi zaigunez, esan genezake ez zutela apenas alderik izango asiar jatorrizkoarekin. Jaialdi hura honelakoa izan omen zen.

Martxoaren hogeita biau pinua moztu eta Zibelesen jainkotegira eramaten zuten, eta han jainko handia bailitza tratatzen zuten. Zuhaitz sakratua garraiatzeko zeregina zuhaitz-garraiatzaileen kongregazio bati zegokion. Enborra gorpu baten gisan hilotzen zuten artilezko zerrendaz, eta bioleta-sortaz apaintzen zuten, bioletak Attisen odoletik ernetakoak omen zirela eta, arrosak eta anemonak Adonisen odoletik bezala; eta enborraren erdian gizon gazte baten irudia lotzen zuten, Attisena berarena ezbairik gabe. Jaialdiaren bigarren egunean, martxoak hogeita hiru, zeremonia nagusia tronpeta-jotzea izaten zen nonbait. Hirugarren egunak, martxoak hogeita lau, Odolaren Eguna zuen izena: artxigallos edo apaiz nagusiak odola isurtzen zuen besoetatik, eta eskaintza gisa aurkezten zuen. Eta ez zen bakarrik odol-sakrifizioa egiten: zinbaloen zarta, danborren tarrapata, adarren zaratotsa eta xirulen doinu zorrotza, musika barbaro hark kitzikatuta, maila apalagoko apaizak dantza batean aritzen ziren buruak eta ileak astinduz, harik eta, asalduraren erordian eta minik sentitu ere egin gabe, beren gorputzean ebakiak egiten zituzten buztinontzien puskez edo labanez, aldarea eta zuhaitz sakratua odolez

zipriztintzeko. Errito beldurgarri hura Attisen doluaren parte zen agian, eta piztuerarako indartzeko xedea izango zuen. Australiar jatorrikoek berdintsu zuritzen dituzte beren buruak lagunen hilobien gainean, berriro jaiotzeko gai izan daitezen nonbait. Gainera, argi eta garbi esan ez zaigun arren, Odolaren Egun horretan eta xede berberaz sakrifikatuko zuten apaizgaiek beren gizontasuna. Erlijiozko asalduraren gorenera iritsirik, moztutako parteak jainkosa krudelaren irudiaren kontra jaurtitzen zituzten. Ugalmen-organo hondatu haiek begirune handiz bildu eta lur ematen zieten edota Zibelesi sagaraturiko lurpeko ganbaretan gordetzen zituzten, non, odol-eskaintza bezala, eraginkortzat joko baitziren Atis bizitzara ekartzeko eta naturaren berpizkunde orokorra bizkortzeko, orduantxe izaten baitziren hosto-loretzeak, udaleheneko eguzkitan. Aieru hau Attisen istorio basati batek berresten digu, alegia ama bere magalean Attisen doble moduko baten, Adgestis izeneko gizon-mustro baten ernaltze-organo ebakietatik sortutako granada bat ipiniz ernaldu zela.

Ohituraren azalpen aieruzko honetan egia apurrik bada, laster ulertuko dugu zergatik emankortasunaren beste asiar jainkosak ere apaiz eunukoek zerbitzatzen zituzten: jainkosa haiek beren betekizun onuragarriak burutzeko bitartekoak hartu behar izaten zituzten jainkozko maitaleen pertsonifikazio ziren apaiz arrendandik; bizi-indarra munduari transmititu aurretik, bereganatu egin behar zuten. Apaiz eunukoek zerbitzatutako jainkosak ziren Efesoko Artemis handia eta Hierapolisko Astarte siriarra. Honen jainkoteaira erromes-oldeek jotzen zuten, eta Asiria eta Babiloniako, Arabia eta Feniziako eskaintzek aberasten zuten; egunik loriatsuenetan ekialdeko ezagunena zen. Siriarrak jainkosa honen apaiz sexugabetuek hain antz handia zuten Zibelesenekin, non zenbaitek bat bera zirela uste baitzuten. Eta batzuk eta besteak erlijio-bizitzara ematen ziren modua antzekoa zen. Urteko jairik handiena, Hierapolisen, udaberriaren hasieran izaten zen: jendolde handiak joaten ziren jainkoteaira Siria eta inguruko lurraldeetatik. Xirulek eta danborrek jo bitartean, apaiz eunukoek beren buruak irentzen zituzten labanez; erlijio-narritadura uhin baten gisa zabaltzen zen pixkanaka ikusleen artean, eta asko eta asko jaialdia ikustera etortzerakoan gutxien uste zutena egitera iristen ziren. Gizon ugari, musika zainetan dardarka, begiak odol-jario hark liluratuta, arropak erauzten zituzten, salto egiten zuten garrasika, eta hartarakoxe prest zeuden ezpatetako bat hartuz, hantxe bertan irentzen zituzten beren buruak. Gero hirian zehar korrika abiatzen ziren, parte odolduak eskuan zituztela, harik eta lasterketa ero hartan etxeren batera jaurti arte. Halako ohorea jasotzen zuen etxe-jabeak emakume arropaz eta apaingarritz hornitu behar zuen, eta halaxe jantzita ibili beharko zuen bizi osoan. Emozioaren zalaparta eta abarrots hura ematzean, eta gizona atzera bere onera etortzean, sakrifizio atzeraezin haren ondotik tristura beltza eta bizi osorako atsekabea etorriko ziren sarri. Giza sentimen naturalaren erreakzio hau, erlijio fanatikoaren gehiegikerien ondoren, indartsu azaldu zuen Katulok poema ospetsu batean.

Siriako debozio hauen parekotasunak berretsi egiten du Zibelesen gurtza berdintsuetan ere Odolaren Egunean sakrifikatzen zela gizontasuna, jainkosaren udaleheneko erritoetan, hots, bioletak, maitale zaurituaren odol-tantetatik ernetzen omen zirenak, pinu artean agertzen zirenean. Hain zuzen, Attisek bere burua pinu baten azpian irendu zuelako istorioa haren apaizek asmatua da argi eta garbi, zertarako eta jaialdiko zuhaitz sakratu bioletaz estaliaren ondoan gauza bera zergatik egiten zuten azaltzeko. Nolanahi ere, ez da dudarik Odolaren Eguna Attisenganako dolua agertzeko zela; haren irudiari agertzen zitzaion, eta gero irudia ehortzi egiten zen. Hilobiratutako irudi hori zuhaitzetik zintzilik egondako berbera izango zen seguruenik. Dolualdian zehar gurtzaileek ogi-barau egiten zuten, Zibelesak halaxe egin omen zuelako Attisen heriotzaren saminagatik; baina benetako arrazoia, Harrango emakumeak Tammuzengatik negar egiten zuten bitartean errotan ehotako ezer jatetik atzentzen zituen huraxe zatekeen:

sasoi hartan ogia edo irina hartzea jainkoaren gorputz zehatu eta hautsiaren profanazio barkaezintzat hartuko zen. Edo baraua bazkari sakramentalerako prestaketa izango zen agian.

Baina gaua etorritakoan, gurtzaileen tristura alaitasun bihurtzen zen. Izan ere, argia pizten baitzen ilunean: hilobia ireki egiten zen; jainkoa hildakoen artetik jaikitzen zen; eta apaizak ehorzle negartien ezpainak baltsamuz ukitzen zituenarekin batera, salbazioaren berri alaia jaulkitzen zien belarrira. Jainkoaren berpizteari bibaka hasten zitzaizkion jarraitzaileak, berak ere hilobiko usteltzetik garaile irtengo zirelako promesa baitzen hura. Martxoaren hogeita bosteko goizean, udaleheneko ekinoziotzat hartzen zen egunean alegia, jainkoaren berpizkundea ospatzen zen alaitasun-leherketa izugarriz. Erroman, eta beharbada baita beste leku batzuetan ere, ospakizunak ihauteri itxura hartzen zuen. Alaitasunaren jaia zen (Hilaria). Dena zen libre. Herritarrek nahi zutena esan eta egin zezaketen. Jendea mozarrotuta ibiltzen zen kaleetan. Ez zen hiritar apalenak har ez zezakeen kargurik, zigorrik gabe noski. Komodo enperadore zenean, konspiratzaile-talde bati mozarroez baliatzea otu zitzaion, Goardia Inperialaren uniformeak jantzi eta hartara, dibertitzen ari zirenen oldean nahastuta, enperadorea sastakatzeko adina hurbiltzea. Baina planak huts egin zien. Alexandro Severo zorrotzak berak ere, egun alai hartan laxatu eta bere jaki arinei faisaia gehitzen zien. Biharamuna, martxoaren hogeita seia, atsedenerako izaten zen, oso beharrezkoa noski aurreko egunetako kitzikadura eta nekeen ondoren. Azkenez, Erromako jaialdia martxoaren hogeita zazpian amaitzen zen, Almo erre kara egindako prozesioaz. Aurpegia harri beltzean landuta zuen jainkosaren zilarrezko irudia, idiek tiratutako gurdian jartzen zen. Aurrean nobleak joaten ziren oinutsik. Poliki mugitzen zen, xirulen eta danborren musika astunaz lagunduta, Porta Capenatik irten eta Almo erre karen ertzetaraino (erreka honek doi Erromako harresien azpian egiten du bat Tiberrekin). Han apaiz nagusiak, purpuraz jantzita, gurdia, irudia eta beste gauza sakratuak garbitzen zituen erre kato urretan. Bainutik itzultzean, gurdia eta idiak udaberriko lorez estaltzen zituzten. Dena izaten zen alaitasun eta bozkario. Inor ez zen oroitzen ia ordura arte isuritako odol guztiaz. Eunukoek berek ere ahaztu egiten zituzten beren zauriak.

Horrelakoa zen, nonbait, Attisen heriotza eta berpiztea zirela-eta urtero udaberrian egin ohi zen ospakizun arranditsua. Baina errito publiko hauez gainera, gauza jakina da haren gurtzak bazituela zeremonia sekretu edo mistikoak. Zeremonia hauen helburua gurtzailea, eta bereziki hasi berria, jainkoarekin komunikazio estuagoan ezartzea izango zen. Misterio hauen izaeraz eta ospatzen zireneko dataz dugun informazioa oso urria da zoritxarrez, baina badirudi bazkari sakramentala eta odolezko bataioa izaten zirela tartean. Sakramentuan, nobizea danbor batetik janez eta zinbalo batetik edanez, hots, Attisen orkestran leku nabarmena zuten tresnetatik jan-edanez, bihurtzen zen misterioen partaide. Jainkoaren heriotzagatiko doluarekin batera egindako barauak komekatzailearen gorputza sakramentu santurako prestatzea zukeen helburu, elementu sakratuak orban zitzakeen orotarik garbituz. Bataiorako, jarraitzailea, urrez koroatuta eta zintetan bilduta, zurajeaz estalitako zulo batera jaisten zen. Lore-sortaz apaindutako zezen bat, bekokia urrez dizdizka, zurajearen gainean jartzen zuten eta han labankadaz hiltzen. Odol bero ketsua turrustaka isurtzen zen zirrituetatik eta irrikaz jasotzen zuen gurtzaileak bere soin eta jantzi guztietan; ondoren zulotik irteten zen, blai, odola zeriola, eta burutik oinetara gorrituta, kideen omena, are gehiago, gurtza hartzeko, betiereko bizitzara jaio zelako eta bere bekatuak zezenaren odoletan garbitu zituelako. Denboraldi batez birjaiotzaren fikzioari eusten zioten, eta esnez bazkatzen zuten hura, haur jaio berriak bezala. Gurtzailearen ernaberritzea jainkoaren ernaberritzearekin batera gertatzen zen, hau da, udaleheneko ekinozioan. Erroman, Vatikanoko muinoko jainkosa frigiarraren jainkotegian burutzen zen batez ere zezenaren odola isurtzearen bidezko

jaiotza berria eta bekatuen barkamena; itxura denez, gaur egun San Pedroren basilika handia dagoen lekuan edo leku horretatik gertu; izan ere, erritoei buruzko inskripzio asko aurkitu ziren eliza handitu zenean, 1608 edo 1609. urtean. Gunea Vatikanon zuelarik, badirudi superstizio-sistema barbaro hau erromatar inperioko beste alde batzuetara barreiatu zela. Galian eta Germanian aurkitutako inskripzioek frogatzen dute probintzietako jainkotegiek Vatikanokoaren arabera moldatzen zutela beren errituala. Iturri beretik jakin dugu zezenaren barrabilek eta odolak parte garrantzitsua zutela zeremonietan. Beharbada xarma ahaltsutzat hartzen ziren emankortasuna bultzatu eta jaiotza berria bizkortzeko.

XXXV

Atis, landaretzaren jainko

Attisen jatorrizko izaera, zuhaitz-izpirituia alegia, argi ondorioztatzen da pinuak haren legendan, erritualean eta monumentuetan duen agerpenetik. Pinu bihurtutako gizakia zelako istorioa sineste zaharrak razionalizatzeko saio garden horietako bat besterik ez da; mitologian sarri aurkitu ohi ditugu halakoak. Basotik pinua ekartzea, bioletaz eta artilezko zerrendaz apainduta, gaur egungo herri ohituretan maiatz-arbola edo udako zuhaitza ekartzeren parekoa da; eta pinuari eransten zitzaion irudia Atis zuhaitz-izpirituaren doblea besterik ez zen. Zuhaitzetik eseki ondoren, irudia urtebete edukitzen zuten han, eta gero erre egiten zuten. Gauza bera egiten zen batzuetan maiatz-arbolarekin ere; eta era berean, laboreen izpirituaren irudia, uztaroan egiten zena, hurrengo urteko uztan irudi berri batek ordeztu zuen arte gordetzen zen. Ohitura hauen jatorrizko xedea, zalantzarik gabe, landareen biziaren izpirituia urte osoan bizirik mantentzea zen. Ez dago jakiterik frigiarrak zergatik gurtu zuten pinua eta ez beste zuhaitz batzuk. Auskalo. Agian haien berde aldakaitz baina iluna mendi garaietako gainetan ikusita, haranetan udazkeneko basoen edertasuna zimeltzen zen bitartean, bizitza jainkotiaragoaren bizileku irudituko zitzaien, edo urtaroen joan-etorri tristeetatik kanpo zegoen zerbait, haiekin bat egiten zuen ortzia bezain etengabe eta betiereko. Arrazoi berberagatik, agian, sagaratzen zitzaion huntza Attisi. Nolanahi ere den, irakurria dugu haren apaiz eunukoek huntz-hostoen irudiak zituztela tatuatuta. Pinuaren santutasunerako beste arrazoi bat, bere baliagarritasuna zatekeen. Pinaburuen haziak jan egin daitezke, eta antzinatik erabili izan dira janari gisa; gaur egun ere hala erabili ohi dituzte, esate batera, Erromako klase pobreek. Gainera, hazi horietatik ardoa egiten zen, eta hori litzateke, neurri batean behintzat, Zibelesen erritoen izaera orgiastikoaren arrazoia; antzinakoek Dionisosen erritoekin konparatzen zituzten. Bestetik, pinaburuak emankortasunaren sinbolotzat, edo hobeto esan, tresnatzat hartzen ziren. Horregatik, Thesmoforiako jaialdian, zerriekin eta emankortasunaren beste eragile edo enblemekin batera, pinaburuak jaurtitzen zituzten Demeterren esparru sakratura, lurra eta emakumeen sabelak bizkortzeko.

Pentsatzen zen zuhaitz-izpiritu guztiek bezala, Attisek ere ahalmena zuela lurreko fruituen gainean, are laborea bera zela. "Oso emankorra" zuen deitura bat; "galburu berde (edo hori) moztua" ere deitzen zioten; eta haren sufrikario, heriotza eta berpizteen istorioa -igitariak moztu, bihitegian gorde eta atzera lurrean ereinda-, bizira itzultzen zen alea bailitzan interpretatzen zen. Erromako Latrango Museoan dagoen haren estatua batek argi adierazten du lurreko fruituekiko erlazioa, eta bereziki laboreekikoa; eskuan galburu eta fruitu-eskutada bat eta buruan pinaburuak, granadak eta beste fruitu batzuk dituela irudikatuta baitago, frigiarrak txanoaren gainean ere galburuak ernetzen zaizkiolarik. Artxigallo edo Attisen apaiz nagusi baten errautsak gordeta zeudeneko harritzko urna batean, ideia bera era desberdinez dago adierazita. Urnaren gaina erliebean landutako galburuz apainduta dago, eta gainetik isatsa galburuz osatua duen oilar baten irudia du. Zibeles ere lurreko fruituak eman edo ken zitzakeen

emankortasunaren jainkosatzat zeukaten; Augustodunumgo (Autumgo) biztanleek, Galian, gurdi batean eraman ohi zuten haren irudia soroen eta mahastien onetan, haren aurrean dantza eta kanta jardun bitartean, eta ikusi dugu Italian Ama Handia berriki etorri izanari leporatu ziotela ohi baino hobea gertatu zen uza. Jainkosaren irudia ibaian bainatzea euri-xarma izan zitekeen, ereinentzako hezetasun ugaria segurtatzeko.

XXXVI

Attisen giza ordezkariak

Inskripzioetan ageri denez, bai Pessinosen eta bai Erroman Zibelesen apaiz nagusiak Atis hartu ohi zuen izentzat. Beraz, arrazoi osoz pentsa daiteke urteroko jaialdian bere izenkidearena egiten zuela, legendako Attisena. Ikusi dugu Odolaren Egunean odola isurtzen zuela besoetatik, eta Attisek pinu azpian bere burua hiltzearen imitazioa izango zen hau. Uste honekin egoki dator Atis imajina batek ere irudikatu izana zeremonia haietan; eman daitezkeen zenbait adibidetan, jainkozko izakia lehenik pertsona bizi batek eta gero irudi batek errepresentatzen du, ondoren irudi hori erre edo beste moduren batez desegiten delarik. Beste urrats bat eman genezake, eta pentsatu apaizaren alegiazko hilketa hau, bere odolaren benetako jarioarekin batera, aspaldi benetan eskaintzen ziren giza sakrifizioen ordezeko bat zela Frigian, beste leku batzuetan izan zen bezala.

Jainkoaren antzinako ordezkari haiek hiltzeko moduaren arrasto bat dugu agian Marsiasen istorio famatuan. Frigiako satiro edo sileno bat omen zen; beste batzuek diote artzain edo unai bat zela, xirula oso gozo jotzen zuena. Zibelesen laguna izaki, lurralde hartan alderrai zebilen batetik bestera jainkosa kontsolaezinarekin, honek Attisen heriotzagatik zuen samina ematzeko. Frigiako zelenetarrek ziotenez, hark konposatu omen zuen "Amaren airea", Jainkosa Ama Handiaren ohorez xirulaz jotzen zen doinua. Bere trebetasunaz harrotuta, erronka bota zion Apolori, berak xirulaz eta Apolok liraz jotzera. Marsiasen galdu zuen, eta Apolo irabazleak, edo esklabo eszita batek, pinu batera lotu eta larrutu edo atalez atal xehatu zuen. Haren larrua garai historikoetan erakusten omen zen Zelenen. Gotorlekuaren oinean zintzilik jarrita egoten zen, haitzulo batean; Marsias ibaia indar eta zarata handiz irteten zen bertatik Meander ibaiarekin batzeko. Halaxe sortzen da Adonis ibaia ere Libano mendiko amildegietatik; halaxe Ibreez ibai urdina, kristalezko zurrustada batean jauzi eginez Tauro mendiko haitz gorrietatik; halaxe distiratzten zuen une batez orain lur azpitik doan korronteak, ilunetik ilunerako pasieran, koriziar haitzuloko argi-itzaletan. Iturri emankor hauetan guztietan, emankortasunaren eta bizitzaren promesa alaia eginez, gizonak aspaldi ikusi zuten Jainkoaren eskua, eta gurtu egin zuten ibai oldarkorraren ondoan, belarrietan ur jauzikarien musika zutelarik. Zelenen, tradizioari sinetsiz gero, Marsias xirulariak, haitzuloan zintzilikatuta, ba omen zuen arimarik harmoniarako, hilda egonik ere; bere frigiar jaioterriko doinuak adituta, hildako satiroaren larrua ikaratu egiten omen zen, baina musikariak Apoloren ohorezko aireren bat jotzen bazuen, gor eta zirkinik egin gabe egoten omen zen.

Zibelesen adiskide izan, haren erritoetako musika ezaguna jo eta arbola sakratuan bortxazko heriotza izan zuen frigiar satiro, artzain edo unai honengan, ez ote dugu nabari Atis, jainkosaren artzain edo unai gogokoenaren antz handia? Berau ere xirulari gisa deskribatzen dute, pinu baten azpian hil omen zen, eta pinu baten azpian zintzilikatutako imajina batek irudikatzen zuen urtero, Marsias bezala. Pentsa genezake aspaldi-aspaldi, Zibelesen udaberriko jaialdian, Atis zeritzan eta Attisena egiten zuen apaiza urkatu edo beste era batera hiltzen zutela pinu sakratuaren azpian, eta gerora ohitura barbaro hau leundu egin zela, gaur egun dakigun eran: apaizak bere odola isurtzen zuen zuhaitz azpian eta bere buruaren ordezkari irudia lotzen zion enborrari. Upsalako zuhaizti sakratuan gizon eta abereak sakrifikatzen zituzten zuhaitz

sakratuetatik zintzilikatuz. Odini eskainitako giza harakaiak urkatuta edota urkatu eta sastakatuta hiltzen zituzten, gizona zuhaitz batetik edo urkamendi batetik esekiz eta gero lantzaz zaztatuz. Horregatik deitzen zioten Odini Urkamendien Jauna edo Urkatuen Jainkoa, eta urkatzeko arbola baten azpian eserita irudikatzen dute. Hain zuzen, bere burua ohiko eran sakrifikatu omen zuen, havamal-eko bertso izugarrietan irakur dezakegunez, non jainkoak deskribatzen duen nola lortu zuen bere jainkozko ahala, runa magikoak ikasiz:

"Badakit haizeak jotako zuhaitzetik zintzilik egon naizela
Bederatzi gau osoz,
Lantzak zaurituta, Odini eskainita,
Ni neure buruari".

Filipinetako Mindanaoko bagogoek berdin sakrifikatu ohi zituzten giza harakaiak urtero, ereinen onerako. Abenduaren hasieran, Orionen konstelazioa arratsaldeko zazpietan agertzen zenean, jendea ohartzen zen bazela soroak garbitu eta bertan ereiteko eta esklabo bat sakrifikatzeko garaia. Sakrifizioa izpiritu ahaltsu batzuei aurkezten zitzairen, herriak izandako urte onaren ordain, eta hurrengo urtarorako izpirituen aldekotza segurtatzeko. Biktima basoko zuhaitz handi batera eramaten zuten; han bizkarra zuhaitzaren kontra eta besoak buru gainetik zituela lotzen zuten, antzinako artistek Marsias erretratatu zuten bezala, zorigaiztoko zuhaitzetik zintzilik. Besoetatik zintzilik zegoen bitartean, lantza batez hiltzen zuten bularretik zaztatuz. Gero gorputza gerritik erdibitu zuten, eta goiko partea zuhaitzetik kulunka uzten zen denbora batez, eta beheko partea odoletan lohizatzen zen lurrian. Azkenez bi parteak zuhaitzaren ondoko lubaki batean ehorzten zituzten. Hau egin aurretik, nahi zuenak haragi-puska edo ile-xerloa motz ziezaiokeen gorpuari eta senideren baten hilobira eramanez, honen gorpua banpiroren batek zurgatzen bazuen. Gorpu hil berriak erakarrita, banpiroak bakean utziko baitzuen gorpu zahar ustela. Sakrifizio hauek oraindik ere bizi diren gizonek eskaini izan dituzte.

Grezian, itxura denez, Artemis jainkosa handia bera egoten omen zen irudiz zintzilikatuta Kondileako zuhaitzi sakratuan, Arkadiako muinoen artean, eta horren arabera Urkatua deitzen zioten han. Hain zuzen, antzeko errito baten arrastoa Efeson ere aurki daiteke, haren jainkotegirik ospetsuenean, bere burua urkatu eta ondoren jainkosa gupidatsuak bere jainkozko arropaz jantzi zuen emakumearen legendan; Hekate zuen izena. Era berean, Phthiako Meliten, Aspalis izeneko neska baten istorioa kontatzen zuten; bere burua urkatu omen zuen honek ere, baina Artemisen agerpide bat besterik ez omen da. Izan ere, hil eta gero ezin aurkitu izan zuten haren gorpurik, baina irudi bat idoro zuten Artemisen irudiaren ondoan, eta jendeak Hekaerge edo arkulari titulua eman zion, jainkosaren epitetik arruntenetako bat. Urtero, birjinek antxume urkatua eskaintzen zioten irudiari, Aspalisek ere bere burua urkatu omen zuelako. Sakrifizioa Artemisen irudia edo giza ordezkari bat urkatzearen ordaina izango zen. Orobat, Rodasen, Helena ederra Helena Zuhaitzeko izenaz gurtzen zuten, irlako erreginak hura abar batetik esekitzera behartu zituelako bere neskameak, Furiar mozorrotuta. Iliumgo txanponek frogatzen dute Asiako grekoek abereak honela sakrifikatzen zituztela: idi edo behia ageri da haietan, zuhaitz batetik zintzilik, eta gizon batek labanaz sastakatzen duela, abar artean edo aberearen bizkar gainean eserita. Hierapolisen ere biktimak zuhaitzetatik urkatzen zituzten erre aurretik. Grezia eta Eskandinaviako parekotasun hauek aurrean ditugula, nekez bazter genezake, guztiz ezinezkoa dela eta, Frigian giza jainko bat urtez urte zuhaitz sakratu baina zorigaitzekotik urkatzen zutelako aierua.

XXXVII

Sortaldeko erlijioak Mendebaldean

Jainkoen Ama Handiaren eta bere maitale edo semearen gurtza oso hedatuta zegoen Erromako Inperioan. Inskripzioek frogatzen dutenez, jainkozko ohoreak jasotzen zituzten biek, bananduta edo batera, Italian ezezik, baita Espainian, Portugalen, Frantzian, Alemanian eta Bulgarian ere. Haien gurtzak iraun egin zuen Konstantinok kristautasuna ezarri eta gero ere; Simakok Ama Handiaren jaialdia aldiro errepikatzen zela gogoratzen digu, eta San Agustinen garaian haren apaiz emeak Kartagoko kale eta plazetan ibili ohi ziren aurpegiak zurituta, ilea urrintsu eta ibilera milikaz, Erdi Aroko fraide eskaleak bezala, jendeari limosna eskatuz. Grezian, aitzitik, Asiako jainkosaren eta beronen senarraren orgia odoltsuek ez zuten aldekotza handirik izan, dirudienez. Gurtzaren izaera barbaro eta ankerra, bere gehiegikeria eroekin, higuingarria zitzairen ezbairik gabe grekoen gustu onari eta gizatasunari, eta itxura denez nahiago zituzten Adonisen errito berdintsu baina leunagoak. Baina grekoei harrigarri eta higuingarri iruditzen zitzaizkien ezaugarri berberak erakarriko zituzten erromatarrek eta mendebaldeko barbaroak. Haien estasi eroak, jainkoengandiko hatsa zelakoan, haien gorputz-trenkatzeek, berriz jaiotzearen eta bekatuak odol-jarioaren bidez barkatzearen teoriak, denek ere basatasunean dute jatorria, eta erakarri egiten zituzten basati-sena artean indartsua zuten herriak. Haien benetako izaera sarri interpretazio alegoriko edo filosofikoaren ganduez mozorrotzen zen, eta hori aski zatekeen gurtzaile estasiatu eta gartsuek onar zitzaten, are ikasienek ere men egiten baitzieten bestela laztu eta nazkatu egingo zituzketen gauzei.

Ama Handiaren erlijioa, basakeria latza eta goranahi izpirituala era bitxiz nahasten zituen, sortaldeko hainbat eta hainbat antzeko federen artean fede bat gehiago besterik ez zen. Paganismoaren azken egunetan Erromako Inperioan zehar hedatu ziren fede horiek, eta europar herriak bizitza-eredu arrotzez aseztu, antzinako zibilizazioaren eraikuntza osoari azpiak jan zizkioten pixkanaka. Grezia eta Erromako gizartearen ideia honen gainean zegoen eraikita: norbanakoak komunitateari, hiritarrak estatuari egin behar ziotela men; denentzako ona ezarri zuten jokabidearen xede nagusitzat norberaren onaren gainetik, hala mundu honetan nola etorkizunekoan. Umetatik batera norberekoia ez zen eredu honetan hezita, hiritarrek zerbitzu publikoari eskaintzen zioten bizia, eta prest zeuden beren buruak denentzako onagatik ukatzeko; edo sakrifizio nagusiaren aurrean atzera egiten bazuten, inoiz ez zitzairen bururatzen gaizki jarduten ez zutenik beren bizia herrialdearen interesen gainetik jarrita. Hau guztia aldatu egin zen sortaldeko erlijioak hedatutakoan: arima Jainkoarekin bat egitea eta betiko salbazioa aldarrikatzen zuten bizitzaren helburu bakar; helburu horien aldean estatuaren ona eta izatea bera ere ez ziren ezer. Doktrina norberekoia eta immoral honen ezinbesteko ondorioa sineslea zerbitzu publikotik gero eta gehiago aldentzea izan zen, pentsamenduak bere emozio izpiritualetan kontzentratzea, eta oraingo bizitzarekiko destaina haztea beragan, beste bizitza hobe eta betiereko baterako frogatzea gisa besterik ez baitzuen ikusten. Santua eta paderra, lurreko destainaz eta zeruari begi emanda estasian, gizateriaren ideal gorena bihurtu ziren jendearen iritzian, aberriaren eta heroiaren ideal zaharra baztertuz; hauek, beren buruak ahaztuta, prest daude beren herriaren mesedetan bizitzeko eta hiltzeko. Lurreko hiria pobrea eta mesprezagarria iruditzen zitzairen begiak zeruetako laino artean, Jainkoaren Hiria noiz etorriko zain jarrita zeuzkaten gizakiei. Hala, grabitate-zentrua, nolabait esan, oraingo bizitzatik geroaldikora aldatu zen, eta beste munduak asko irabazi bazuen ere, ez da dudarik hemengo honek asko galdu zuela aldaketan. Gorputz politikoaren desegite orokorra etorri zen. Estatuaren eta familiaren arteko lokarriak laxatu egin ziren: gizartearen egitura bere osagai indibidualetan deseginez joan zen eta, beraz, barbarokerian eroriz; zeren eta zibilizazioa hiritarren lankidetzaren aktiboaren bidez eta beren interes pribatuak denentzako onaren menpe jartzearen bidez baita posible, ez bestela. Gizonek uko egin

zioten beren herrialdea defendatzeari eta beren askazia iraunarazteari. Beren arimak eta besteenak salbatzeko urduritasunez, ez zien axola mundu materiala beren inguruan hiltzen uztea, gaitzaren printzipioarekin identifikatzen baitzuten. Obsesio honek mila bat urtez iraun zuen. Erdi Aroa amaitzean, Europa bizitzaren eta jokabidearen jatorrizko eredueta itzultzen zela adierazi zuen Erromako legearen, Aristotelesen filosofiaren, antzinako artearen eta literaturaren berritzeak, munduaren ikuspegi sanoago eta gizatiarragoetara itzultzen zela. Amaitua zen zibilizazioaren martxan izandako etenaldi luzea. Sortaldeko inbasioaldiak atzera egin zuen azkenean. Oraindik ere atzera darrai. Antzinako munduan Mendebaldeak beren esanetara jartzeko elkarren lehian ibili ziren jainko sortaldetarren artean, Persiako Mitra jainko zaharra zen bat. Erromako Inperio osoan zehar sakabanatuta aurkitu izan diren monumentuek frogatzen dute honen gurtzaren hedadura izugarria zela. Doktrinei eta erritoei dagokienez, Mitraren kultuak antz handia zuen, itxura denez, Jainkoen Amaren erlijioarekin ezezik, Kristautasunarekin berarekin ere. Antz horrek harritu egin zituen jakintsu kristauak ere, eta deabruaren lana zela azaldu zuten, gizonen arimak benetako fedetik urrundu nahi zituela imitazio faltsu eta maltzurren bidez. Era berean, Mexiko eta Peruko espainiar konkistatzaileentzat ere, bertako errito pagano asko kristauen sakramentuen antzeko deabrukeriak iruditu zitzaizkien. Egiatik hurbilago ezbaierik gabe, erlijio konparatuaren aztertzaile modernoak giza adimenaren emaitza pareko eta independentetzat jotzen ditu batzuk eta besteak, unibertsoaren sekretua atzemateko eta bere bizitza txikia misterio larrietara egokitze saio zintzo baina ankertzat. Hau hala izanik ere, ez da zalantzarik Mitraren erlijioa kristautasunaren etsai izugarria gertatu zela, erritual itzaltsua garbitasun moralarekin eta hilezkortasun-itxaropenarekin konbinatzen baitzuen. Hain zuzen, bi fedeen arteko gatazka orekatuta egon zen aldi batez. Eguberriak ditugu borroka luze horren arrasto adierazgarria; Elizak bere aurkari paganoari hartutakoa da, itxuraz, jai hau. Zesarren egutegian abenduaren hogeita bosta neguko solstiziotzat eta eguzkiaren jaioteguntzat hartzen zen, eguna luzatzen hasten delako eta eguzkiaren ahala haziz joan ohi delako urtearen une horretatik aurrera. Jaiotzearen errituala, Sirian eta Egipton ospatu bide zen bezala, gogoangarria zen. Ospatzaileak barneko kapera batzuetara erretiratzen ziren, eta gauerdian garrasi ozen batez irteten ziren, "Birjina erditu da! Argia hazten ari da!". Egiptoarrek haur baten irudiz agertzen zuten jaio berria, bere jaiotegunean ateratzen zuten, neguko solstizioan alegia, eta gurtzaileei erakusten zieten. Zalantzarik gabe, abenduaren hogeita bostean semea hala sortu zuen Birjina sortaldeko jainkosa handia zen, semitek Zeruetako Birjina edota, besterik gabe, Zeruetako Jainkosa deitzen zutena; semiten lurraldeetan, Astarteren aldaera bat zen. Mitra eguzkiarekin identifikatzen zuten bere gurtzaileek, Eguzki Garaitezinarekin, hala deitzen baitzioten; horregatik, haren jaiotza ere abenduaren hogeita bostean izaten zen. Ebanjelioek ez diote ezer Kristoren jaiotegunaz eta, beraz, lehen Elizak ez zuen ospatzen. Denboraren joanean, ordea, Egiptoko kristauak urtarilaren seia hasi ziren hartzen Natibitate eguntzat, eta Salbatzailearen jaiotza egun hartan ospatzeko ohitura zabalduz joan zen pixkanaka, hala non laugarren mende aldera Ekialde osoan ezarrita baitzegoen. Baina hirugarren mendearen hondarrean edo laugarrenaren hasieran, Mendebaldeko Elizak, inoiz ez baitzuen onartu urtarilaren seia Natibitate eguntzat, abenduaren hogeita bosta hartu zuen egiazko datatzat, eta gerora erabaki hura onartu egin zuen Ekialdeko Elizak ere. Antiokian aldaketa hori K.o. 375 urtean edo sartu zen. Zein kontsiderok eraman zituzten Elizako agintariak Eguberri-jaiak ezartzera? Berrikuntzarako arrazoiak lañotasun handiz ematen ditu siriar idazle batek, kristaua bera ere: "Elizaren lehen gurasoek ospakizuna urtarilaren seitik abenduaren hogeita bostera aldatzeko arrazoiak haxe zen. Paganoen ohitura zen abenduaren hogeita bost horretan eguzkiaren jaiotza ospatzea, eta jaialdi horren sinbolotzat argiak pizten zizkioten.

Kristauiek ere parte hartzen zuten ospakizun eta jaialdi horietan. Beraz, Elizako jakintsuak ohartu zirenean kristauiek bazutela halako jaiera bat ospakizun hartara, kontseiluan bildu eta erabaki zuten benetako Natibitatea egun hartan ospatu behar zela, eta Epifania urtarrilaren seian. Horren arabera, azturarekin batera, seira arte sua pizteko ohiturak iraun du". San Agustinek Eguberrien jatorri paganoa argi eta garbi iradokitzen du -onartzen duela ez esateagatik-, bere senide kristauak arren eskatzen dienean ez ospatzeko egun handi hura paganoek bezala, eguzkiagatik, baizik eta eguzkia egin zuen harengatik. Era beretsuan, Leon Handiak kondenatu egin zuen Eguberria eguzki berriaren -halaxe deitzen zuten- jaiotzagatik eta ez Kristo jaiotzeagatik ospatzen zelako sineste higuigarria.

Badirudi eliza kristauak paganoen jaiera aldatzeko aukeratu zuela abenduaren hogeita bosta beren fundatzailearen jaiotegunaren ospakizuntzat, eguzkiarekiko jaiera Zuzentasunaren Eguzki deitzen zuten Harengana aldatzeko alegia. Hau hala izatera, ondoko aieru hau ere ez da ezinezkoa, alegia era beretsuko arrazoiek eramango zituztela Elizaren agintariak Aste Santuko jaia, beren jaunaren heriotza eta berpizkundearena, sasoi hartantxe tokatzen zen beste asiar jainko baten heriotza eta berpiztearekin bat egitera. Oraindik ere Grezian, Sizilian eta Italiaren hegoaldean ospatzen diren Aste Santuko erritoek antz harrigarria dute Adonisen erritoekin, eta iradoki dut Elizak agian nahita egokituko ziola jai berria aitzindari paganoari, arimak Kristorentzat irabazteko. Baina egokitze hori mundu zaharrean grekoz mintzatzen ziren lurraldeetan gertatuko zen, ez latinez mintzatzen zirenetan; Adonisen gurtzak, grekoen artean loratu zen bezala, ez zuen zirrara handirik sortu Erroman eta mendebaldean, itxura denez. Inoiz ez zen izan Erromako erlijio ofizialaren osagai. Herriaren zaletasunetan izan zezakeen lekua beteta zegoen jadanik, Atis eta Ama Handiaren gurtza antzeko baina barbaragoak beteta. Attisen heriotza eta berpiztea martxoaren hogeita lauan eta hogeita bostean ospatzen ziren ofizialki Erroman. Azken data udaberriko ekinoziotzat ere jotzen zen eta, beraz, egunik egokiena zen landaretzaren jainko bat suspertzeko, negu osoan hilda edo lo egon ondoren. Baina tradizio zahar eta zabaldu baten arabera, Kristok martxoaren hogeita bostean pairatu zuen Nekaldia, eta horren arabera zenbait kristauk egun hartantxe ospatzen zuten Gurutziltzatzea, ilargia nola zegoen kasu egin gabe. Ohitura hau Frigian, Kapadozian eta Galian ospatzen zen, eta badagoke arrazoirik behinola Erroman ere ospatu zutela pentsatzeko. Hala bada, Kristoren heriotza martxoaren hogeita bostean kokatzen zuen tradizioa zaharra zen, eta sustrai sakonekoa. Oso aipagarria da, zeren eta, astronomiazko kontsideroek frogatzen dutenez, ezin izan baitu oinarri historikorik izan. Ondorioak ezinbestekoa dirudi: Kristoren nekaldia hautaz lotuko zen data horrekin, zertarako eta udaberriko ekinozioaren jai zaharragoarekin bateratzeko. Hau da Duchesne elizgizon eta historialari ikasiaren ikuspuntua: Salbatzailearen heriotza sineste oso zabaldu baten arabera mundua sortu zeneko egunean tokatzea nahi izan omen zen. Baina Attisen berpizkundera, bere baitan Jainko Aitaren eta Jainko Semearen izaerak biltzen zituenarena, egun hartantxe ospatzen zen Erroman. Gogoan hartzen badugu apirileko San Jurgiren jaiak Parilia jaialdi paganoa ordeztu duela; ekaineko San Joan Bataiatzailearen jaia uraren jaialdi pagano baten ondorengoa dela; Ama Birjinaren Jasokundeak, abuztuan, Dianaren jaiari kendu diola lekua; azaroko Arimen eguna hildakoen jaialdi pagano zahar baten jarraipena dela; eta Kristoren Natibitatea bera ere neguko solstizioarekin batu zela egun hura eguzkiaren jaiotza omen zelako; horiek denak gogoan, ezin esango zaigu ausarkeriaz edo arrazoirik gabe jokatzeko dugunik zera pentsatuta, alegia eliza kristauaren beste jai handi bat ere - Aste Santuko ospakizuna-, antzeko arrazoi onbidezkoengatik, Atis frigiarraren jainkoaren antzeko ospakizunari egokitu zaiola udaberriko ekinozioan.

Kointzidentzia aipagarria da gutxienez, gehiagorik ez bada, jainkoen heriotza eta berpizkundeak jai kristauak eta paganoak sasoi eta leku beretan ospatzea. Izan ere, Kristoren heriotza udaberriko ekinozioan ospatzen zuten lekuak Frigia, Galia eta, itxuraz, Erroma ziren, hau da, Attisen gurtzaren sorlekua bata, eta gurtza hori sakonen sustraitu ziren lekuak besteak. Udaberriko ekinozioa, lurralde epeletan natura osoak bizi-indarraren lehertze berria ageri duen sasoi, antzina-antzinatik jo izan bazen mundua urtero jainko baten piztuerarekin birsortzen zen garaitzat, zer berezkoagorik jainko berriaren piztuera ere urtearen puntu nagusi horretantxe paratzea baino? Gauza bat aipatu behar da, dena den: Kristoren heriotza martxoaren hogeita bostean gertatu bazen, berpizkundeak, tradizio kristauaren arabera, martxoaren hogeita zazpian gertatu beharko zuela, hots, udaberriko ekinozioa eta Attisen berpizkundera baino bi egun geroago, Zesarren egutegiaren arabera. Era berean, ospakizun kristauak paganoekin egokitu nahi izan arren, bi eguneko tartea dago San Jorjeren egunean eta Ama Birjinaren Jasokundean ere. Ordea, beste tradizio kristau batek, Laktantziok eta agian Galiako Elizak jarraitzen ziotenak, martxoaren hogeita hiru ezartzen zuten Kristoren heriotza, eta berpizkundera berriz hogeita bostean. Hau hala izatera, berpizkundera Attisen berpizkundearekin bat etorriko zen zehatz-mehatz.

Gure aroaren laugarren mendean idatzi zuen kristau anonimo baten lekukotzatik ageri denez, kristauak eta paganoak berak ere harrিতa zeuden beren jainkoen heriotza-berpizteen arteko kointzidentzia nabarmenagatik, eta kointzidentzia hori eztabaida garratzetarako gai izan zen erlijio baten eta bestearen aldekoen artean; paganoek zioten Kristoren berpizkundera Attisenaren imitazio izuna zela, eta kristauak berotasun berdinez erantzuten zieten Attisen berpizkundera Kristoren berpizkundearen ondorengo deabruzkoa zela. Eztabaida itsusi haietan azaletik behatzen duenarentzat, paganoek zuten oinarri sendoa: beren jainkoa zaharragoa izaki, jatorrizkoak ere zaharragoa izan behar zuela argudiatzen baitzuten, ez zela izuna alegia, jatorrizkoa berez kopia baino zaharragoa izan ohi baita beti. Argudio ahul hau erraz ukatzen zuten kristauak. Onartzen zuten, bai, denborari begira Kristo jainko gazteagoa zela, baina berez lehenagokoa zela frogatzen zuten distiratsuki: Satanen maltzurkeria aipatuz, halako abagune garrantzitsuan naturaren ohiko ordena atzekoz aurrera jarri zuela eta.

Batera hartuta, jaialdi kristauen eta paganoen kointzidentziak handiegiak eta ugariak dira halaber hutsaren ondorio izateko. Konpromezua adierazten dute, Elizak bere garaipenaren orduan arerio bentzutu baina artean arriskutsuekin egin behar izan zuen konpromezua. Lehen misiolarien protesta-izpiritu makurrezina, paganotasuna gogor salatuz, aldatu egin zen, eta elizgizon zuhurren jokabide malguak, tolerantzia errazak, karitate ulerkorrak ordezkatu zuen, argi ikusten baitzuten kristautasunak mundua konkistatuko bazuen, bere Fundatzailearen printzipio zurruneak laxatuz bakarrik lor zezakeela halakorik, salbamenera daraman ate estua pittin bat zabalagotuz. Alde honetatik, irakasbide gerta dakiguke kristautasunaren eta budismoaren historien artean ezar daitekeen parekotasuna. Bi sistemok erreforma etikoak ziren funtsean jatorriz; beren fundatzaileen bihotz zabal suharretik, desira bikainetik, gupida samurretik sortutako erreforma etikoak; fundatzaileek, noizbehinka mundura jaio ohi diren izpiritu eder horietako bi, beste mundu hobe batetik etorritako izakiak ziruditen, gure izate ahul eta erratuari laguntza emateko eta gidatzeko etorriak. Biek predikatzen zuten bertute morala bizitzaren xede nagusitzat zeukaten hura lortzeko, hots, norberaren arimaren salbazio betierekoa, nahiz eta, hau bai antitesi bitxia, batek betierekotasun zoriontsu gisa ikusten zuen salbazio hori, eta besteak sufrikariotik askatze gisa, ezereztapen gisa. Baina aldarrikatzen zituzten santutatsun-ereduak, gizateriaren ahulezien kontrakoak ezezik, berezko sen-grinen kontra-contrakoak ere baziren, kontrakoegiak jarraitzaile bakan batzuek baino gehiagok praktikara eraman ahal zituzten: familiaren eta estatuaren

loturei uko egitea, norberaren salbamena klaustroaren itxitura tristean lortzeko. Halako fedeak nazio osoek edota are munduak onartuko bazituen, ezinbestekoa zen lehenik eraldatuak izatea, nola edo hala jende xehearen aurriritzi, grina, superstizioekin bat etortzeko. Egokitze-lan hau jarraitzaileek burutu zuten ondorengo garaietan; maisuak bezain gai finez eginak ez izaki, egokiagoak ziren horrexegatik haien eta jende arruntaren arteko zubi izateko. Hala, denboraren harian, bi erlijioak, gero eta ezagutza eta hedapen handiagoarekin batera, gero eta osagai lurtar gehiago bereganatu zituzten, hain zuzen osagaiok ezabatzeko ezarriak baziren ere. Gisa horretako gainbehera izpirituala ezinbestekoa da. Mundua ezin baita bizi gizon handien mailan. Baina ez litzateke bidezkoa gizateriaren ahulezia intelektual eta moralari egozte budismoa eta kristautasuna lehen ildo nagusietatik gero eta gehiago aldentzea. Ez baita ahaztu behar bi erlijio hauek, pobretasuna eta zelibatoa goretsita, zuzen-zuzenean jotzen zutela, egundoko kolpea jo ere, gizarte zibilaren kontra ezezik, giza bizitzaren beraren sustraien kontra. Kolpea gizateriaren gehiengo zabalaren jakituriak edo erokeriak indargetu zuen, uko egin baitzion norberaren arima salbatzeko aukerari. Izan ere, bide horretatik gauza segurua zatekeen giza askazia bera akabatzea.

XXXVIII

Osirisen mitoa

Egipto zaharrean, bertako jainko ezagunena zen Osirisen heriotza eta berpiztea ospatzen ziren urtero, tristuraz eta alaitasunez hurrenez hurren; eta bada oinarririk Adonisen eta Attisen sail berean jartzeko, naturaren urteroko gertaera handien pertsonifikazio gisa, laborearena bereziki. Baina urte eta urteetan izan zuen ospe handiak beste jainko askoren tasun eta ahalak haren gainean ezartzera bultzatu zituen bere gurtzaileak, eta ez da beti erraza izaten, nolabait esan, hari besteren lumak kendu eta berez bere dituenak soilik uztea.

Osiris, lurreko jainkoa zen Seb (Keb, Geb ere idatzi izan da batzuetan izen hau) eta Nut ortziko jainkosaren arteko amodiotik jaio zen. Grekoek Kronos eta Rea beren jainko-jainkosekin identifikatzen zituzten gurasoak. Ra eguzki-jainkoa bere emazte Nutek ezkontza hautsi zuela ohartu zenean, madarikazioa jarri zion, ez zela inongo hilabete edo urtetan erdituko haurraz. Baina jainkosak beste maitale bat zuen, Tot jainkoa, edo Hermes, grekoek deitzen zuten eran, eta Tot honek ilargiarekin dametan jokatu zuen eta egun bakoitzaren hogeita biren bat irabazi zion, eta zati horiekin bost egun osatuz, Egiptoko egutegiak zituen hirurehun eta hirurogei egunei erantsi zizkien. Hauxe da egiptoarrek, ilargi-denboraren eta eguzki-denboraren arteko harmonia ezartzeko, urtearen amaian gehitzen zituzten osagarritzko bost egunen jatorri mitikoa. Bost egun horien gainean, hamabi hilabeteko urtetik at zeudela jotzen zenez, eguzki-jainkoaren erabakiak ez zuen indarririk eta, beraz, Osiris lehen egunean jaio zen. Hura jaiotzean ahots bat aditu zen, esanez jaioa zela mundura Guztien Jauna. Batzuek diotenez, Pamiles izeneko batek ahots bat aditu omen zuen Tebasko tenplutik, agintzen omen ziona iragar zezala errege handi bat jaio zela: Osiris ongilea. Baina Osiris ez zen izan bere amaren haur bakarra. Osagarritzko bigarren egunean Horus zaharraz erditu zen; hirugarrenean, Set jainkoaz, grekoek Tifon deitzen dutenaz; laugarrenean, Isis jainkosaz; eta bosgarrenean Neftis jainkosaz. Gerora, Set bere arreba Neftisekin ezkondu zen, eta Osiris bere arreba Isisekin.

Lurreko errege zelarik, Osirisek basakeriatik atera zituen egiptoarrak, legeak eman zizkien, eta jainkoak gurtzen irakatsi zien. Aurrez egiptoarrak gizajale ziren. Baina Osirisen arreba eta emazte Isisek garia eta garagarra aurkitu zituen larrean, eta Osirisek bere herrian sartu zuen ale horien laborantza, eta berehala giza haragia jateari utzi eta laboreak jaten hasi ziren. Gainera, Osiris izan omen zen lehena arboletatik fruituak biltzen, mahatsondoak saretzen eta mahatsa zanpatzen. Aurkikuntza onuragarriok gizon

guztiei jakinarazteko irrikaz, Egiptoren gobernu osoa Isis emazteari utzi eta munduan zehar abiatu zen, zibilizazioaren eta laborantzaren onurak noranahi hedatuz. Klima gogor edo zoru pobreko herrialdeetan mahatsa lantzea ezinezkoa zenean, garagarretik garagardoa ateraz erakutsi zien asetzen ardoaren tirria. Esker oneko nazioek emandako ondasunez mukuru, Egiptora itzuli zen eta, gizakiei ekarri zizkien onurengatik, jainkotzat hartu eta gurtu zuten denek aho batez. Baina anaia Setek (grekoek Tifon deitzen zutenak) haren kontrako plana asmatu zuen beste hirurogeita hamabi lagunekin batera. Anaiari gorputzaren neurriak maltzurkeria bidez hartu ondoren, Tifon anaia gaiztoak neurri haietako kutxa egin eta bikain apaindu zuen, eta denak edaten eta atsegin hartzen ari ziren batean, ekarri kutxa eta txantxetan agindu zien bertan doi-doi sartzen zenari emango ziola. Hala bada, denak saiatu ziren bata bestearen atzetik, baina inor ez zen doi sartzen. Azkenez Osiris sartu eta etzan egin zen. Orduan, azpikariek tapa itxi zuten brastakoan, iltzatu, berun urtuz soldatu eta kutxa Nilora bota zuten. Hau Athyr hilabetearen hamazazpigarren egunean gertatu zen, eguzkia Scorpius zeinuan dagoenean, Osirisen erregealdi edo bizitzako hogeita zortzigarren urtean. Isisek hura jakin zuenean, bere iletik xerlo bat moztu, dolu-arropak jantzi eta batera eta bestera ibili zen kontsolamendurik gabe, gorputzaren bila.

Jakituriaren jainkoaren aholkuz Deltako papiroen aintziretan bilatu zuen babes. Zazpi eskorpioi izan zituen lagun hegaldian. Arratsalde batez, nekatuta zegoelarik, emakume baten etxera iritsi zen eta honek, eskorpioiak ikusi zituelako ikaratuta, atea itxi zion. Orduan eskorpioietako bat atepetik sartu eta emakumearen haurra ziztatu zuen, eta haurra hil egin zen. Baina amaren lantua aditu zuenean, bihotza beratu zitzaion Isisi, eta eskuak haurraren gainean ezarri eta bere arao ahaltsuak esan zituen. Hala, pozoia haurraren gorputzetik irten eta haurra bizi egin zen. Gero Isisek berak haurra izan zuen aintziretan. Senar hilaren gorpuaren gainean belatz-itxuran hegaztatu zen batean zen ernaldua. Haurra Horus gaztea zen, gaztetan Harpokrates zeritzana, hots, Horusen semea. Buto iparraldeko jainkosak gorde zuen Set osaba gaiztoaren gorrotetik. Baina ezin izan zuen babestu zoritxar orotarik; egun batez, Isis semetxoaren ezkutalekura etorrita, zerraldo aurkitu zuen lurrian, gogortuta: eskorpioi batek ziztatuta. Orduan Isisek laguntza eskatu zion Ra eguzki-jainkoari. Jainkoak aditu egin zion eta bere ontzia geldiarazi zuen ortzian, eta Tot bidali zion, semea biziaraziko zuen otoitza irakats ziezaion. Hitz ahaltsuak esan zituen, eta berehala pozoia irten egin zen Horusen gorputzetik, airea sartu zitzaion, eta bizi egin zen. Gero Tot ortzira igo zen eta berriz ere eguzkiaren ontzian hartu zuen bere lekua, eta argizagi distiratsuak bozkarioz jarraitu zuen aurrera.

Bien bitartean, Osirisen gorputza zeukan kutxa ibaian behera joan zen itsasoraino, harik eta azkenean, Biblosen, Siriako kostaldean alegia, hondoa jo zuen arte. Han erika izeneko zuhaitza sortu zen bat-batean eta kutxa bere enbor barrenean hartu zuen. Herrialde hartako erregeak, zuhaitza nola hazi zen harrituta, mozteko eta bere etxeko habe bihurtzeko agindu zuen; baina ez zekien Osiris hila zeukan kutxa bertan zela. Honen berri iritsi zitzaion Isisi eta jainkosa Biblosera joan zen, eta putzu baten ondoan eseri zen, itxura umilean, aurpegia malkoz bustita. Ez zuen inorekin hitz egin erregearen neskameak iritsi ziren arte, eta orduan adeitsu agurtu zituen, eta ilea txirikordatu zien, eta bere jainkozko gorputzeko urrin zoragarria putz egin zien. Erreginak neskameen txirikordak ikusi eta urrin gozoa arnastu zuenean, emakume arrotzaren bila bidali zituen batzuk, eta etxera eraman eta bere haurraren inude egin zuen. Baina Isisek hatza eman zion haurrari titiaren ordeztu, eta gauez haurrari hilkor zuen guztia erretzen hasi zitzaion, bera enara baten itxuran anaia hilaren gorpua zeukan habearen biran hegaztaten zen bitartean, tristeki txioka. Baina erreginak zer egin zuen ikusi eta txilioa bota zuen haurra garretan ikusi zuenean, eta hartara hura hilezko bihurtzea galarazi zuen. Gero jainkosak

bere burua azaldu zuen, eta sabaiko habea eskatuta eman egin zioten, eta barruko kutxa atera zuen, eta gainean etzan eta besarkatu eta hain ozenki egin zuen negar non erregearen haur txikiena bertan hil baitzen beldurrez. Zuhaitzaren enborra liho finetan bildu zuen, eta gantzutu egin zuen, eta errege-erreginei eman zien, eta zura Isisen tenplu batean dago eta Biblosko herriak gurtu egiten du orain ere. Eta Isisek kutxa ontzi batean ipini eta erregearen haur zaharrena berekin hartu eta abiatu egin zen. Urrundu bezain laster, kutxa ireki egin zuen eta, aurpegia anaiaren aurpegiaren gainean ezarritik, musukatu egin zuen negarrez. Baina haurra atzetik isil-isilik etorri eta zertan ari zen ikusi zuen, eta jainkosa jiratu eta haserre begiratu zion; haurrak ezin izan zion eraman begirada hura eta hil egin zen. Baina batzuek diote ez zela hala gertatu, itsasora erorita ito zela. Berari abesten diote egiptoarrek beren oturuntzetan, Maneros izena emanez.

Baina Isisek kutxa utzi eta bere seme Horus ikustera joan zen Butoko hirira, eta Tifonek kutxa aurkitu zuen gau batez basurde-ehizan zebilela, ilargi betearen argitan. Eta gorputza ezagutu zuen, eta hamalau zati egin eta zatiak barreiatu zituen. Baina Isis paduretan batera eta bestera ibili zen papiroz egindako txalupa batean, zatien bila; eta horregatik, jendea papirozko txalupan dabilenean, krokodiloek ez diote kalterik egiten, jainkosaren beldurrez edo begirunez. Eta horregatik, halaber, daude Osirisen hainbeste hilobi Egipton, soin-atal bakoitza aurkitu ahala ehortzi zuelako. Baina beste batzuek diote hiri bakoitzean haren irudi bat ehortzi zuela, gorputza bailitzan, Osiris leku askotan gur zezaten, eta Tifon benetako hilobiaren bila hasten bazen, aurki ez zezan. Ordea, Osirisen zakila arrainek jan zuten, eta Isisek haren ordezkio irudia egin zuen, eta irudi hori erabiltzen dute egiptoarrek gaur egungo jaietan ere. "Isisek" idatzi zuen Siziliako Diodoro historialariak, "gorputzaren parte guztiak bildu zituen, sexu-organoak salbu; eta senarraren hilobia non zegoen inork jakin ez zezan eta Egipton bizi ziren guztiak ohora zezaten nahi zuelako, honako hau asmatu zuen. Osirisen garaierako giza irudiak moldatu zituen argizariz eta espeziez, eta gorputzaren zati bakoitza irudi batean sartu zuen. Gero apaizei deitu zien, familiaz familia, eta denei zin eragin zien ez ziotela inori azalduko esan behar ziena. Bakoitzari esan zion berari bakarrik ematen ziola gorputzaren hileta egiteko enkargua, eta lehendik jasotako onurak gogoraziz, eskatu zien gorputza beren lurrian ehortzeko eta Osiris jainko gisa ohoratzeko. Beren lurraldeko animalia bat jainkoari sagaratzeko ere eskatu zien, zeinahi aukeratzen zutela, eta bizi zen artean ohoratzeko aurrez Osiris ohoratu zuten bezala, eta hiltzean hari bezalako hileta egiteko. Eta apaizak esandako ohoreak burutzera bultzatu nahi zituelako, lurraren heren bat eman zien jainkoei zerbitzuan eta gurtzan erabil zezaten. Horren arabera, apaizek, Osirisen onurez ohartuta, erreginari esker ona agertzeko desiratzen eta irabaziko zutena gogoan, Isisek agindutako guztiak burutu omen zituzten. Ordur geroztik eta gaur arte, apaiz bakoitzak uste du Osiris bere lurraldean ehortzita dagoela, eta hasieran sagaratu ziren piztiak ohoratzen dituzte, eta animalioek hiltzen direnean apaizek Osirisen hileta berritzen dute haien ehortzetan. Baina bi zezen sakratuak, Apis izenekoa eta Mnevis izenekoa, Osirisi eskaini zitzaizkion, eta egiptoar guztiak jainko gisa gur zitzatela agindu zen, abere horiek beste guztiak baino gehiago lagundu zirelako laborearen aurkitzaileei hazia ereiten eta laborantzaren onura unibertsalak ekartzen".

Hauxe da Osirisen mito edo legenda, greziar idazleek kontatu bezala eta Egiptoko literaturan sakabanatuta ageri diren aipu edo berri gutxi gora-beherakoen arabera. Denderahko tenpluko inskripzio luze batek jainkoaren hilobien zerrenda gorde du, eta beste testu batzuek jainkotegi bakoitzean erlikia santu gisa gordetzen ziren gorputz-atalak aipatzen dituzte. Adibidez, bihotza Athribisen zegoen, bizkarrezurra Busirisen, sudurra Letopolisen, eta burua Menfisen. Halakoetan sarri gertatu ohi denez, haren soin-atal jainkotiarrak biderkatu egin dira miragarriki. Burua, esate baterako, Abydosan eta

Menfisen zegoen, eta zangoak ugari ziren, hainbat gizakirentzat adina. Alde honetatik, ordea, Osiris ez zen ezer San Dionisioren aldean: zazpi buru, zazpi, utzi ditu honek, denak jatorri onekoak.

Plutarkoren kontakizuna osatzen duten Egiptoko istorioen arabera, Isisek Osiris senarraren gorpua aurkitu zuenean, bera eta Neftis ahizpa ondoan eseri eta erosta jo omen zuten, gerora egiptoarrek hildakoengatik egindako dolu guztien eredu bihurtu dena. "Zatoz zeure etxera" egiten zuten intzirika, "Zatoz zeure etxera, gazte eder hori, zatoz zeure etxera, etsairik ez duzun hori. Gazte eder, zatoz zeure etxera, ikus nazazun. Zeure arreba nauzu, maite zenuen huraxe; ez zara niregandik partituko. Mutil eder hori, zatoz zeure etxera... Ez zaitut ikusten, baina nire bihotzak gurtu egiten zaitu eta nire begiek desiratu egiten zaituzte. Zatoz maite zaituenarengana, maite zaituenarengana, Unnefer, bedeinkatu hori! Zatoz zeure arrebarengana, zatoz zeure emaztearengana, zeure emaztearengana, bihotza hilda duzun hori. Zatoz zeure etxekoandrearengana. Zeure arreba nauzu, ama batenak gara biok, ez zara niregandik urrun izango. Jainko eta gizakiek zuregana jiratu dituzte aurpegiak eta denak batera ari dira negarrez... Negarrez deitzen dizut, eta nire negarra zeruan aditzen dute, baina zuk ez duzu nire ahotsa entzuten; hala ere, zure arreba nauzu, lurrean maite zenuen hura; ez zenuen ni besterik maite izan, anaia!, anaia!". Biziaren onenean hildako gazte ederrarengatik erosta honek Adonisen erostak gogorazten dizkigu. Unnefer edo "Izaki On" tituluak tradizioak unibertsalki Osirisi egozten dion onuragarritasuna adierazten du; aldi berean, titulurik arruntena eta errege gisa zegokion izenetako bat zuen, biak batera.

Bi ahizpen auhenak ez ziren alferrikoak izan. Haien saminaz errukiturik, Ra eguzki-jainkoak Anubis jainko txakal-burua bidali zuen zerutik. Honek, Isis eta Neftisen, Tot eta Horusen laguntzaz, hildako jainkoaren gorputz-atalak batu zituen, lihozko bendetan bildu, eta egiptoarrek zenduen gorputzen gainean egin ohi zituzten beste errito guztiak burutu zituen. Gero Isisek haize eman zion buztin hotzari bere hegoez: Osiris berpiztu egin zen, eta handik aurrera hildakoen errege izan zen beste munduan. Han Azpimunduko Jauna, Jaun Eternala, Hildakoen Erregea tituluak ditu. Han, halaber, Bi Egien Gela handian, berrogeita bi laguntzailerekin -Egiptoko eskualde nagusi bakoitzetik bat-, epaile izaten zen zenduen arimen auzian. Haiek beren aitorten larria egiten zuten haren aurrean eta, bihotza justiziaren balantzan pisatu ondoren, bertutearentzako saria jasotzen zuten betiereko bizitzan, edota beren bekatuei zegokien zigorra.

Egiptoarrek hilobiaz haraindiko bizitza eternalaren agindua ikusten zuten Osirisen berpiztean. Sinesten zuten gizaki oro betiko biziko zela beste munduan, baldin eta lagunek jainkoek Osirisen gorputzari egin ziotena egiten bazioten. Horregatik, egiptoarrek hildako gizakiei egindako zeremoniak Anubis, Horus eta besteek hildako jainkoari egindakoen kopia zehatza ziren. "Ehorzketa guztietan Osirisen omenez antzinatek egindako misterioa antzezten zen. Haren semeak, arrebek, lagunek gorputz-atal zehatuak inguratu eta, beren arao eta ariketen bitartez, gorputz hautsia lehenengo momia bihurtzea lortu zuten, eta ondoren bizkortu eta hilobiaz haraindiko bizitza berrira sartzeko bitartekoez hornitu zuten. Hildako bakoitzaren arima Osiris zen; emakume ehorzle profesionalak haren bi arrebak ziren, Isis eta Neftis; Anubis, Horus eta legendako jainko guztiak biltzen ziren gorpuren inguruan". Horrela, hildako egiptoar bakoitza Osirisekin identifikatzen zen eta haren izena hartzen zuen. Erdiko Inperiotik aurrera, ohikoa zen zenduari "Osiris Urlia" deitzea, jainkoa bera bailitzan, eta "egiatia" titulu aipagarria gehitzea, egiaz hitz egitea Osirisen ezaugarria zelako. Niloren ibarrean zulatu ziren milaka hilobi hilaitez eta margoz apainduak frogatzen dute berpiztearen misterioa egiptoar ororen onerako burutzen zela; Osiris hil eta atzera hildakoen artetik

jaiki zen bezala, halaxe gizon guztiek ere, heriotzatik betiereko bizira igotzea itxaroten zuten.

Hortaz, bertakoen tradizio orokorra izan bide denaren arabera, Osiris Egiptoko errege on eta maitatua izan zen, bortxazko heriotza izan zuena, baina hildakoen artetik jaiki eta harrez gero jainko gisa gurtu zutena. Tradizio honekin bat etorritz, eskultore eta margolariek giza itxuran irudikatzen zuten, hildako errege gisa, momia-oihaletan bilduta, baina buruan errege-koroa eta esku batean, eskuak bendetatik libre utzi baitzizkioten, errege-makila zituela. Beste guztien gainetik, bi hirik zuten zerikusia haren mito edo oroitzapenarekin. Bat Busiris zen, Egipto Beherean, jainkoaren bizkarrezurra zuela aldarrikatzen zuena; bestea, berriz, Abydos, Egipto Garaian, burua zeukalako aintzaz. Jainko hil baina biziaren ospeari esker, Abydos, jatorriz leku ezezaguna, Egiptoko lekurik santuena bihurtu zen Inperio Zaharraren amaieratik aurrera; nola Jesuralemgo Hilobi Santua kristauentzat, halaxe haren hilobia ere egiptoarrentzat. Gizaki zintzo ooren desira zen bere gorputz hilak lur santuan atseden hartzea, Osiris goretsiaren hilobitik hurbil. Baina gutxi ziren neurritz gaineko pribilegio hori izateko bezain aberats; izan ere, hiri santuan hilobia oso garestia izateaz gainera, momiak hain distantzia handietan garraiatzea bera ere zaila eta garestia zen. Baina hainbesteko gogoz zeuden asko eta asko hilobi santutik barreiatzen zen eragin santua hildakoan jasotzeko, non bizirik geratutako lagunak bere gorpua Abydosera eramatera behartzen baitzituzten, han denboralditxo batez eduki eta gero ibaitik ekarri eta jatorrizko lurraldean prest zeukaten hilobietan ehorzteko. Beste batzuek zenotafioak edo oroigarritzko taulak eraikitzen zituzten berentzat Jaun hil eta piztuaren hilobitik gertu, berarekin batera izateko berpizkunde alaiaren zoriona.

XXXIX

Osirisen errituala

1. Herri-erritoak

Jainko edo jainkosa baten jatorrizko izaera ezagutzeko lorratz baliagarri bat, haren jaia ospatzen den sasoiak ematen du sarri. Baldin eta jaia ilberrian edo ilbeteen bada, egin liteke hala ohoratutako jainkoa ilargia bera dela, edota ilargiarekin zerikusirik baduela behintzat. Jaia neguko edo udako solstizioan bada, pentsa liteke jainkoa eguzkia dela, edota argizagi horrekin estu lotuta dagoela nolanahi ere. Era berean, jaia ereite eta uzta-sasoiaren bada, suma genezake jainkoa lurraren edo laborearen gorpuztea dela. Uste edo ondorio hauek, berez, ez dira erabatekoak inola ere; baina beste seinale batzuek ere berresten badituzte, froga sendo samartzat jo daitezke.

Zoritarrez, Egiptoko jainkoez ari garela, neurri handi batean ez daukagu lorratz hau erabiltzerik. Ez jaien datak beti ezezagunak zaizkigulako, baizik eta urtetik urtera aldatu egiten zirelako, hala non aldi luze baten buruan uztaro guztietan zehar pasatuak baitziren. Egiptoko jai-zikloaren biratze gradual hau eguzki-urteari doi egokitzen ez zitzaion eta aldika tartear sartuz zuzentzen ez zen egutegia erabiltzen zelako gertatzen zen.

Antzinako egiptoar baserritarrari, aldi bakan batzuetan izan ezik, ez bazitzaion baliatzen apaizen egutegi ofiziala, bere kabuz ikusi beharko zituen nekazaritzako lanentzako aldiak markatzen zituzten naturako seinaleak. Datuz ezagutzen ditugun aro guztietan, egiptoarrak nekazaritzara emandako herria izan dira; laborearen haztearen menpe zeuden, biziko baziren. Lantzen zituzten zerealak garia, garagarra eta, nonbait, basartoa (*Holcus sorghum*, Lineo), fellahim edo egiptoar nekazari modernoek doara deitzen dutena ziren. Orduan, orain bezala, lurralde osoan, Mediterraneoko kostaldeko zerrenda estu batean salbu, euria urri izaten zen, eta bere emankortasun izugarria Niloren urteroko uholdeari zor zion. Kanal eta albateen sistema konplexu batek erregulatuta, ura soroetan zehar banatzen zen, urtez urte lurzorua berrituz ekuadore aldeko eta Abisiniako mendietatik

herrestan ekarritako lokatzezko jalkin berriaz. Horregatik, ibaiaren gorakada sekulako larritasunez ikusi izan dute betidanik bertakoek: neurri batetik gora edo behera iristen bada, eskasia eta gosea dira nahitaezko ondorioak. Ura ekain hasieran hasten da gora, baina uztailaren azken aldera arte ez da ur-etorri handi bihurtzen. Irailaren amaiera aldera uholdea bere gorenean izaten da. Orduan lurraldea urpetuta egon ohi da, eta ur arrezko itsasoa dirudi. Herri eta herriak, goialdeetan eraikiak izaki, irlen antzeko agertzen dira. Hilabetez-edo uholdeak bere horretan irauten du, eta ondoren gero eta azkarrago beheratzen da, harik eta abenduan edo urtarrilean ibaia bere ohiko ubidera itzuli arte. Uda hurbildu ahala, uraren mailak behera eta behera egiten du. Ekaineko lehen egunetan, Nilo bere etorriaren erdian izaten da; eta Egiptok, eguzkiak kixkalita, Saharatik egun askotan jo duen haizeak idortuta, basamortuaren segida besterik ez dirudi. Zuhaitzak hauts grisezko geruza lodiak itota egoten dira. Baratzatxo erkin batzuk ageri izaten dira herri inguruetan, nola edo hala ureztatuak, bizirauteko neke handiz. Berdetasun-itxura ageri izaten da kanal-ertzetan eta hezetasuna erabat galdu ez duten sakonetan. Lautadak arnasestuka dirudi eguzki galdatan, biluzik, hauspean, errauts-kolore, arrailduta eta zartatuta begiak hartzen duen zabalera osoan. Apirilaren erditik ekainaren erdira arte, Egiptoko lurra erdi bizirik baino ez da izaten, Nilo berriaren zain.

Mende eta mendeetan naturako gertaeren ziklo honek erabaki ditu Egiptoko nekazarien urteroko lanak. Laborantza-urteko lehen egitekoa ordura arte gainez egindako ibaiari kanal eta soroak urpetzea galarazi dioten dikeak haustea izaten da. Abuztuaren lehen erdian egiten da hau, urei beren eginkizun onuragarria betetzen utziz. Azaroan, uholdeak atzera egin duenean, garia, garagarra eta basartoa ereiten dira. Uztaroa aldatu egiten da eskualde batetik bestera: iparraldean hegoaldean baino hilabete lehenago izaten da. Egipto Garaian edo hegoaldekoan, garagarra martxoaren hasieran segatzen da, garia apirilaren hasieran, eta basartoa hil horren amaiera aldera.

Pentsatzekoa da egiptoar nekazariak errito erlijioso sinple batzuekin ospatuko zituela laborantza-urteko gertaera desberdinak, jainkoek laboreak bedeinka zituzten asmatutako erritoekin. Laborantza-giroko zeremonia hauek urtero sasoi berean egingo zituen; aldiz, apaizen jai itzaltsuak aldatu egiten ziren, egutegi aldakorrarekin batera, udatik udaberrira eta udaberritik negura, eta hala, atzeraka, udazkenetik udara. Nekazarien erritoak egonkorrak ziren, naturaren behaketa zuzena zutelako oinarri; apaizen erritoak ez ziren egonkorrak, kalkulu faltsuak zituztelako oinarri. Alabaina apaizen jai asko laborarien jai zaharrak besterik ez ziren izango, urteen joanean apaizeriaren handi-hotsak moztortuta eta, egutegiaren hutsegiteagatik, urtaroen berezko zikloan zituzten sustraieetatik erauziak.

Aieru hauek Egiptoko herri-erlijioaz eta erlijio ofizialaz dakigun apurrak berresten ditu. Kontatu zaigunez, egiptoarrek Isisen jaialdia izaten zuten Nilo gora hasten zen garaian. Uste zuten jainkosak orduan egiten zuela dolu Osiris galtzeagatik, eta begietatik zerizkion malkoek ibaiaren etorria hazten zutela. Baina baldin Osiris alderdi batetik laborearen jainkoa bazen, zer bidezkoago hari uda betean dolu egitea baino. Izan ere, uztaroa igaro ondoren, soroak biluzik, ibaia urri, bizitzak geratuta zirudien, laborearen jainkoa hilda zegoen. Halako une batean, jendeak naturaren jarduera guztietan ikusiko zuen jainkoen eragina; jainkosak bere senar laborearen jainko onuragarria hil zenean isuritako malkoei egotziko zien korrante sakratuaren uraunditzea.

Eta lurrean urak gora egitearen seinalearekin batera, zeruko seinaleak agertzen ziren. Egiptoko historiaren lehen egunetan, gure aroa baino hiru edo lau bat mila urte lehenago, Sirius izar ederra, izar finko guztietan distiratsuna, arratsean agertzen zen ekialdean doi eguzkia sartu aurretik, udako solstizioan, Nilo goraka hasia denean. Egiptoarrek Sothis deitzen zioten, eta Isisen izartzat zeukaten, babiloniarrek artizarra Astarteren izartzat zeukaten bezalaxe. Bi herriei, nonbait, goizeko bi argizagi

distiratsuak biziaren eta maitasunaren jainkosak irudituko zitzaizkien, zendutako maitale edo senarrari dolu egitera etorriak, eta hildakoen artetik iratzartzera. Horregatik, Siriusek agerpenak egiptoar urte sakratuaren hasiera markatzen zuen, eta jai batez ospatu ohi zen, urte ofizialaren aldaketarekin batera aldatzen ez zen jai batez.

Presak haustea eta urari kanal eta soroetarako sarbidea ematea gertaera handia da Egiptoko urtean. Alkairon lan hori abuztuaren seiaren eta hamaseiaren artean burutu ohi da gehienetan, eta antzina-antzinatik zetozkeelako aipatzea merezi duten zeremoniak egiten ziren berandu arte. Kanal zahar bat, Khalīj izenaz ezaguna, Alkairo hiritik igarotzen zen behinola. Sarreraren hurbilean kanala lurrezko dike batek zeharkatzen zuen; oso zabala zen hondoan eta zabalera txikiagotzen zitzaion gora ahala. Nilo gora hasi baino lehen edo hasi eta berehala eraikitzen zuten. Dikearen parean, ibai-ertzean, lurrezko kono-enborra eraikitzen zuten, arooseh edo "emaztegaia" deitua, zeinen gainean arto edo artatxiki-pixka bat ereiten zen. "Emaztegai" hau urgorak eramaten zuen dikea hautsi baino astebete edo hamabost egun lehenago. Tradizioak dioenez, ohitura zaharra omen zen birjina gazte bat soineko ikusgarritz jantzi eta ibaira botatzea, bazter guztiak asebeteko zituen uholdea lortzeko. Hau honela izan nahiz ez, badirudi ohituraren intentzioa ibaia, ar-indar gisa harturik, laster urak emankortuko zuen labore-lur emaztegaiarekin ezkontzea zela. Beraz, zeremonia hau ereinen hazkundera segurtatzeko araoa zen. Garai modernoetan, abagune horretan txanponak jaurtitzen ziren kanalera, eta bertako jendea dirua harrapatzea murgiltzen zen. Ohitura hau ere aspaldikoa dela dirudi: Senekak dioskunez, Niloren Zainak zeritzan leku batean, Filetik ez oso urrun, apaizek txanponak eta urrezko eskaintzak botatzen omen zituzten ibaira ustez uholdea handitzean egin ohi zuten jaialdian.

Egiptoko nekazal urteko hurrengo lan handia hazia ereitea da, azaroan, uholdearen ura soroetatik erretiratu denean. Egiptoarren artean, antzinateko beste hainbat herritan bezala, hazia lurrari emateak errito larri eta tristearen itxura zuen. Honi buruz, Plutarkoren hitzak aldatuko ditut hona. "Nola azalduko ditugu" galdegiten du, "sakrifizio goibel, pozgabe eta tristeak, okerra bada ezarritako erritoak isiltzea edo jainkoez ditugun ideiak susmo burugabeekin nahastea eta bestelakotzea? Grekoek ere egiptoarrenak diruditen eta sasoi berean egiten diren errito asko egiten baitituzte. Adibidez, Tesmoforietako jaialdian, Atenasen, emakumeak lurlean eseri eta barau egiten dute. Boeziarrek Nahigabetuaren lurpeko aretoak irekitzen dituzte, jaialdiari nahigabezkoa deituz Demeter nahigabetuta dagoelako Neskutsaren jaitsieragatik. Hilabetea, ereiteko hilabetea da Pleiadeak desagertzen direnean. Egiptoarren Athyr deitzen diote, atenastarrek Pianepsion, boeziarrek Demeterren hilabetea... Urte-sasoi hartan fruitu batzuk desagertzen eta zuhaitzetatik erortzen ikusten baitzituzten, eta beste batzuk ereiten zituzten gogoz kontra eta nekez, lurra eskuez atzaparkatuz eta berriro pilatuz, lurlean jartzen zutena inoiz helduko ote zen seguru jakin gabe. Hortaz, alderdi askotatik begiratuta hildakoak ehortzi eta dolua egiten dietenek bezala jokatzeko zuten".

Egiptoko uzta, ikusi bezala, udazkenean ez baina udaberrian izaten da, martxo-apiril-maiatzetan. Nekazariarentzat uztaroak, urte ona denean behintzat, alaitasunezko sasoi izan behar du: azaoak etxeratuta lan luze eta larri egindakoaren ordaina jasotzen du. Baina antzinako egiptoar baserritarrak alaitasun sekretua sentitzen bazuen alea moztean eta biltegian gordetzean, behar-beharrezkoa zuen emozio natural hura histasun sakonaren itxurapean gordetzea. Ez al zuen bada mozten laboreen jainkoaren gorputza igitiaz eta ganaduaren hankapean xehatzen larrainean? Honen arabera, ohitura zaharra omen zen Egiptoko igitarien artean bular-kolpeka eta lantuka moztea lehen azaoa, aldi berean Isis izendatzen zutelarik. Izendatze horrek kanta malenkoniatsuaren itxura hartzen bide zuen, grekoek Maneros deitzen zutena. Antzeko eresiak kantatzen zituzten igitariak Fenizian eta Asiako mendebaldeko beste parte batzuetan ere. Beharbada eresi

hauek guztiak uzta-biltzaileen igitaiek hildako laboreen jainkoarengatiko lantuak ziren. Egipton, hildako jainkoa Osiris zen, eta badirudi kantari ematen zitzaion izena, Maneros, "zatoz zeure etxera" esan nahi duten hitzetatik datorrela. Hitzak sarri agertu ohi dira hildako jainkoarengatiko lantuetan.

Mota bereko zeremoniak izan dituzte beste herri batzuek ere, xede berberaz nonbait. Kontatu zaigunez, landare guztien artean laboreak, esan nahi baita artoak, lehen lekua zuen cherokeeen ekonomian eta zeremonietan, eta "Emakume Zaharra" izena ematen omen zioten, mito baten arabera seme doilorrek hil zuten emakume zahar baten odoletik sortzen delako. Uztaroko azken lana burutu ondoren, apaiza eta bere laguntzailea sorora etorri eta dei-kantak abesten zizkioten laborearen izpirituari. Ondoren, susmur ozen bat aditzen zen, ustez Emakume Zaharrak artoa sorora eramatean egiten zuena. Sorotik etxera bide bat garbi edukitzen zen beti, "artoa etxean egon zedin eta beste inora aldegin ez zezan". Beste zeremonia bitxi bat, zeinen oroitzapena ia osorik galdu den, artoaren lehen lanaren ondoren antzezten zen, jabea edo apaiza soroaren lau izkinetan jartzen zelarik hurrenez hurren, eta negar eta deitore egiten zuelarik ozenki. Gaur egun apaizak berak ere ez dira gai jarduera horren azalpena emateko. Seluren (Alearen Emakume Zaharraren) heriotza odoltsuarengatiko lantua izan bide zen. Cherokeeen ohitura hauetan Artoaren Emakume Zaharraren auhen eta dei hauek egiptoarren antzinako ohituren antza dute, haiek ere moztutako lehen laborearen gainean adiaka eta Isisi deika jarduten baitzuten, jainkosa hau ere, besteak beste, Laborearen Emakume Zaharra izaki. Gainera, cherokeeek hartzen zuten neurriak, sorotik etxera bide bat garbi uztekoak, Osirisi egiten zitzaion gonbita dirudi, "zatoz zeure etxera" delako hura. Ekialdeko Indietan ere, gaur egun arte zeremonia landuak dituzte Arrozaren Arima soroetatik biltegiara erakartzeko xedez. Afrikako ekialdeko nandiek ere zeremonia bat egiten dute irailean, garia heltzen ari denean. Ereintzak dituzten emakume guztiak beren alabekin joaten dira soroetara eta sua pizten dute zuhaitz batzuen abar eta hostoekin. Gero, gari-ale batzuk hartu eta bakoitzak ale bat ipintzen du idunekoa, beste bat murtzikatu eta berarekin bekokia, lepoa eta bularra igurtzitzen du. "Emakumeek ez dute inolako alaitasunik erakusten abagune hartan, eta saskikada bat ale mozten dute nahigabez, eta etxera eraman eta ganbaran uzten dute ihartzen".

Laborearen izpiritua zahartzat eta uztaroan hildakotzat sumatze hau argi eta garbi ageri da Moabeko arabiarrek duten aztura batean. Uztagileek beren eginkizuna amaitu berri dutenean eta soroaren baztertxo bat besterik geratzen ez denean igitaitzeko, jabeak gari-eskutada bat hartzen du azao batean lotuta. Hilobi itxurako zuloa egiten da, eta bi harri jartzen dira zutik, bat buruan eta bestea oinean, ehorzketa arrunt batean bezala. Gero hilobian uzten dute gari-azaoa, eta jekeak hitz hauek esaten ditu: "Hil da agurea". Ondoren lurra botatzen da azaoa estaltzeko, otoitz batekin: "Alak ekar diezagula hildakoaren garia".

2. Errito ofizialak

Horiexek ziren, bada, nekazarien egutegiko gertaera nagusiak Egipto zaharrean, eta horrelakoxeak gertaerok ospatzeko egiten zituzten erlijio-erritoak. Baina oraindik egutegi ofizialeko Osirisen jaiak ditugu aztertzeko, idazle grekoek deskribatzen dituzten edo monumentuetan azaltzen diren bezala. Haiek aztertzean, gogoan izan behar da ezen, Egiptoko egutegi zaharreko urte aldakorraren arabera, jai ofizialen data benetako edo astronomikoak urtetik urtera aldatuko zirela, gutxienez K.o. 30. urte alexandriar finkora arte. Orduz geroztik, dirudienez, egutegi berriak ezarri zituen jaien datak eta, beraz, ez ziren gehiago aldatu eguzki-urtean zehar. Nolanahi ere, Plutarkok, lehen mendearen amaieran idazten duelarik, inplizituki aditzera ematen digu ordurako finkoak zirela, ez mugikorrak; alexandriar egutegia aipatzen ez badu ere, haren arabera ematen ditu jaialdien datak. Gainera, Esneren jai-egutegi luzea -Inperio-aroko agiri garrantzitsu bat

da hau- alexandriar egutegi finkoan oinarrituta dago: Urte Berri eguna abuztuaren hogeita bederatzian ezartzen du, alexandriar urteko lehen egunean alegia, eta Niloren gorakadaz, eguzkiaren posizioaz eta nekazaritzako lanez egiten dituen aipuak, ondo datoz denak gure uste honekin. Hala bada, segurutzat jo dezakegu K.o. 30. urtetik aurrera egiptoar jaialdiak eguzki-urtean finkatuta geratu zirela.

Herodotok kontatzen digu Osirisen hilobia Saisen zegoela, Egipto Beherean, eta han laku bat zegoela, non jainkoaren sufrimenduak misterio gisa antzezten baitziren gaez. Jainkoaren nekaldiaren oroitzapen hau urtean behin egiten zen; jendeak dolu egiten zuen bular-kolpeka, jainkoaren heriotzagatiko samina adierazteko; eta zur urre-kolorean landutako behiaren irudia, adar artean urrezko koroa zuena, ateratzen zuten urte osoan edukitzen zuten gelatik. Behia Isisen irudi zen ezbairik gabe, behiak hari sagaratuta baitzeuden, eta behi-adarrez irudikatu ohi baitzuten, edota behiaren burua zuen emakumearen itxuran. Baliteke behi-itxurako irudia kanpora ateratzeak jainkosa Osirisen gorpua bila ibili zenekoa sinbolizatzea; Plutarkoren garaian hauxe baitzen neguko solstizioan burutzen zen antzeko zeremonia baten egiptoar interpretazio jatorra, behi urre-koloreari tenpluaren inguruan zazpi bira emanarazten ziotenean. Jaiaren ezaugarri nagusi bat gaueko argiteria zen: jendeak lanpara-ilarak jartzen zituen etxeen kanpoaldean, eta lanparak gau osoan erretzen ziren. Ohitura ez zen Saiskoa bakarrik, Egipto osokoa zen.

Urteko gau batean etxe guztiak argitzeak ematen du aditzera jai hori, hildako Osirisen oroimenez ezezik, hildako guztien oroimenez ere egiten zela. Bestela esan, Arima Guztien gaua izango zela. Sineste zabaldua baita hildakoen arimek urteko gau batean beren etxebizitza izandakoak bisitatu ohi dituztela; eta abagune larri horretan jendea izpirituak hartzeko prestatzen da, kanpoan janaria utziz eta argia piztuz hilobira bitarteko bide ilunean zehar. Herodotok, jaialdia labur deskribatzen badu ere, ez du datarik aipatzen, baina seguru samar zehatz dezakegu beste iturri batzuen bidez. Hala, Plutarkok dioskunez, Osiris Athyr hilaren hamazazpian hil zuten eta, ondorioz, egiptoarrek Athyr hilaren hamazazpitik aurrera egiten zituzten hileta erritoak, lau egunez. Alexandriar egutegian, berriz, Plutarkok horixe erabiltzen baitzuen, lau egunok azaroaren hamairua, hamalaua, hamabosta eta hamaseia dira, eta data hauek zehatz-mehatz egokitzen dira Plutarkok emandako beste seinale batzuekin. Hark dio jaiaren sasoiari Nilo ibaia beheraka aritzen zela, iparraizea ere ematu egiten zela, gauak luzatu egiten zirela, eta hostoak zuhaitzetatik erortzen zirela. Lau egunotan behi urre-kolore bat erakusten zen, oihal beltzez estalia, Isisen irudi gisa. Hau, ezbairik gabe, Herodotok jaiaren berri ematean aipatutako irudia zen. Hilaren hemeretziaren jendea itsasertzera jaisten zen, apaizek urrezko hilkutxa zeukan kaperatxoa zeramatelarik. Hilkutxa hartara ur freskoa isurtzen zuten, eta handik aurrera ikusleek Osiris aurkitu zutela esaten zuten ozenki. Ondoren, lurbeltz pixka bat hartzen zuten, urez hezetu eta, espezia eta intsentsuarekin nahastu eta oreto ondoren, ilargi-itxurako irudia moldatzen zuten, baita jantzi eta apaindu ere. Hortaz, antza denez, Plutarkok deskribatutako zeremonien xedea, lehenik, Osirisen gorpua bilatzea eta, bigarren, beraren aurkikuntza alaigarria antzezteaz zen, baita lurbeltz eta espezieen irudi berrian bizitzara itzultzen zen hildako jainkoaren berpizkundea ere. Laktantziok kontatzen digu nola abagune haietan apaizek, beren gorputz ilez gabetuetan, bular-kolpeka eta deiadarka jarduten zuten, Isisek Osiris semearen bila egindako ibilera tristeak imitatuz, eta nola ondoren tristura hura alaitasun bihurtzen zen Anubis jainko txakal-buruak, edo hobeto esan, haren ordezkari mozorrotutako norbaitek, mutil txiki bat egiten zuenean, galdu eta aurkitutako jainkoaren ordezkari bizia. Hala, Laktantziok Isisen semetzat zeukan Osiris, ez senartzat, eta ez du aipatzen lurbeltzezko irudirik. Baliteke drama sakratuan agertzen zen mutilak Osirisena ez baina Horus haren semearena egitea; baina jainkoaren heriotza eta berpiztea Egiptoko hiri

askotan ospatzen zirenez, baliteke, halaber, leku askotan jainko piztua aktore batek jokatzea, ez irudi batek. Beste idazle kristau batek deskribatzen du nola egiptoarrek, erabat kaskamoztuta, erosta izaten zuten urtero Osirisen idolo ehortzi batengatik, bularra kolpatuz, bizkarra zigortuz, zauri zaharrak berrituz, harik eta, egun batzuetan dolu egin ondoren, alaitasunez aitortzen zuten jainkoaren gorputz-atal zehatuak aurkitu zituztela. Zeremoniaren xehetasunak tokitik tokira aldatu egingo baziren ere, jainkoaren gorputza aurkitzearena, eta agian bizira ekartzearena, gertakizun handia zen egiptoarren ospakizunen urtean. Idazle zahar askok deskribatzen edo aipatzen dituzte orduan jaurtitzen zituzten alaitasunezko oihuak.

Ptolomeotar garaiko inskripzio luze batean deskribatzen dira nola egiten ziren Osirisen hiletak, Egiptoko hamasei probintzietan jai handi batean. Inskripzio hau Denderahn, grekoen Tenitran, jainkoaren tenpluko hormetan zegoen grabatuta. Hiri hori Egipto Garaian zegoen, Niloren mendebaldeko ertzean, Tebastik hirurogei bat kilometrora iparralderantz. Zoritzarrez, han ematen den informazioa puntu askotan oso ugaria eta zehatza den arren, inskripzioan duten eraketa hain da nahasia eta adierazpidea sarri hain iluna, non bertatik apenas atera daitekeen zeremonien kontakizun argi eta garbirik, bere osoan, apenas atera daitekeen bertatik. Gainera, agiri hartatik jakin dugunez, zeremoniak aldatu egiten ziren zerbait hiri batetik bestera. Abydosko errituala eta Busiriskoa, adibidez, desberdinak ziren. Tokian tokiko berezitasun guztiak ematen saiatu gabe, laburki adieraziko ditut jaialdiaren ezaugarri nagusi diruditenak, segurtasun onesgarritz eman daitezkeen heinean.

Erritoek hemezortzi egun irauten zuten, Khoiak hilaren hamabitik hogeita hamarra arte, eta bere hiru alderdietan azaltzen zuten Osirisen izaera: hilda, zehatuta eta, azkenez, atzera osatuta, sakabanatutako atal guztiak bildu ondoren. Hiru alderdietako lehenean Txent-Ament (Khenti-Amenti) deitzen zitzaion, bigarrenean Osiris-Sep, eta hirugarrenean Sokari (Seker). Jainkoaren iruditxoak egiten ziren hondarrez edo lurbeltzez eta zereal-alez, eta batzuetan intsentsua gehitzen zitzaion; aurpegia horiz margotua izaten zuen, eta masailezurak berdez. Irudiok urre hutsezko molden egiten ziren. Moldeak momia-itxuran agertzen zuen jainkoa, buruan Egiptoko koroa zuria zeramala. Jaia Khoiak hilaren hamabigarren egunean hasten zen, goldatze eta ereite-zeremonia batez. Bi behi beltz lotzen zitzaizkion goldeari; hau milazkaren zurez egina izaten zen, eta nabarra kobre beltzekoa. Mutil batek zabaltzen zuen hazia. Soroaren mutur batean garagarra ereiten zen, bestean galtzuria eta tartean lihoa. Lan hori egin bitartean buruzagiak erritualaren "soroak ereitea" kapitulua errezitatzen zuen. Busirisen, Khoiak hilaren hogeian, hondarra eta garagarra ipintzen ziren jainkoaren "baratzan"; lorontzi handi batean alegia. Hau Shenty behi-jainkosaren aurrean egiten zen. Jainkosa hau sikomoroaren zur urre-kolorez egindako eta barruan bururik gabeko giza gorputza zuen behiaren imajinak irudikatzen zuen, dirudienez. "Gero ur freskoa isurtzen zen urezko ontzi batetik jainkosaren eta "baratzaren" gainera, eta garagarrari hazten uzten zitzaion, jainkoaren piztueraren oroigarri gisa lurtean ehortzi ondoren, "baratza haztea jainkozko gaia haztea baita"". Khoiak hilaren hogeita bati, zortzigarren orduan, Osirisen irudiek, beste hogeita hamalau jainko-irudi lagun zituztela, bidaia misteriotsua egiten zuten papirozko hogeita hamalau ontzixotan, hirurehun hirurogeita bost argik argituta. Khoiak hilaren hogeita lauan, eguzkia sartu ondoren, Osirisen irudia, masustondo-zurezko hilkutxan, hilobian sartzen zuten, eta gaueko bederatzigarren orduan aurreko urtean egin eta utzitako irudia kendu eta sikomoro-abar artean ipintzen zen. Azkenez, Khoiak hilaren hogeita hamargarrenean, hilobi santura abiatzen ziren, lurpeko gela batera, zeinen gainean ahuakatondo-multzoa omen zegoen. Lurpeko hartan mendebaldeko atetik sartzen ziren eta, begiramen osoz, hareazko ohean jartzen zuten hilkutxan zetzan hildako jainkoaren irudia. Han uzten zuten atsedean har zezan, eta

ekialdeko atetik irteten ziren hilobitik. Halaxe amaitzen ziren zeremoniak Khoiak hilean.

Aurreko kontakizun hau Denderahko inskripzio handitik aterata dago. Osirisen ehorzketa nabarmen ageri da bertan, baina berpiztea ez da argi eta garbi adierazten. Baina inskripzioarekin batera dagoen baxuerliebe-sail aipagarri batek ondo baino hobeto betetzen du agiriaren hutsune hori. Baxuerliebe horietako eszena-sail batean, hildako jainkoa etzanda ageri da zerraldoan, momia bat bezala jantzita; ondoren, jaikitzen ari dela ageri da, gero eta gorago, harik eta azkenez zerraldotik erabat irten eta zutik ageri den arte Isis leialaren hego babesleen artean. Isis atzean du, eta gizonezko baten irudiak crux ansata delakoa dauka begien artean, biziaren sinbolo egiptoarra. Jainkoaren berpizkundea ezin ager liteke garbiago. Are irakasgarriagoa da, baina, gertaera beraren beste irudikatze bat, Fileko Isisen tenpluan Osirisi eskainitako gela batekoa. Osirisen gorpua ageri zaigu; harengandik labore-zurtoinak sortzen dira; eta apaiz batek eskuan duen pitxer batez ureztatzen ditu zurtoinak. Horrekin batera doan inskripzioak azaltzen duenez, "hau da izendatu ezin denaren forma, misterioetako Osirisena, itzultzen diren uretatik sortzen denarena". Batera hartuta, irudiak eta hitzek ez diote lekurik uzten zalantzari: Osiris laborearen pertsonifikazio gisa ageri da han, uholdeak emankortu ondoren soroetan ernetzen den laborearen pertsonifikazio gisa. Inskripzioaren arabera, hauxe zen misterioen muina, iniziatuei jakinarazitako misteriorik sakonena. Esaterako, Demeterren erritoetan, Eleusisen, moztutako galburu bat erakusten zitzaien gurtzaileei erlijioaren misterio nagusi gisa. Orain erabat uler dezakegu zergatik ehorzten zituzten apaizek, Khoiak hileko ereintzaren jaialdi handian, lurrez eta zerealez egindako Osirisen irudiak. Irudi haiek urtearen amaian edo aldi laburragoaren ondoren berriro hartzen zirenean, laborea Osirisen gorputzetik erne zela ikusiko zuten, eta alearen ernetze hori iragarpentzat hartuko zuten, edo areago, ereindakoak haztearen kausatzat. Laboreen jainkoak berarengandik sortzen zuen alea: bere gorputza ematen zion jatera herriari; herria bizi zedin hiltzen zen.

Eta beren jainko handiaren heriotza-berpizteetatik egiptoarrek, bizitza honetarako euskarria eta laguntza ezezik, hilobiaz haraindiko betiereko bizitza eternalerako itxaropena ere jasotzen zuten. Itxaropen hau erarik argienean adierazten digute Egiptoko hilerrietan aurkitu diren Osirisen irudi guztiz aipagarriek. Tebasko Erregeen Ibarrean, adibidez, K.a. 1500 inguruan bizi izandako erregearen haizegin baten hilobia aurkitu zuten. Hilobiko edukin aberatsen artean hilkutxa bat zegoen, eta bertan ihizko koltxoia lihozko hiru geruzaz estalita. Lihoaren goialdean, Osirisen irudia margotuta, gizabeteko tamainan; eta urik ez iragazteko moduko irudiaren barruan lurbeltza, garagarra eta jariakin itsaskorra nahastuta. Garagarra erne eta bost-zortzi zentimetroko zainak botata zegoen. Orobat, Zinopolisko hilerrian "Osirisen irudien hilobi ugari zeuden. Oihalean bildutako alez eginak ziren, Osirisen itxura trakets emanez, eta adreiluzko tegi baten barruan jarriak hilobiaren ondoan, batzuetan buztinezko hilkutxatxoetan, beste batzuetan belatz-momien itxurako zurezko hilkutxatxoetan, eta beste batzuetan inolako hilkutxarik gabe". Alez betetako irudi horiek momien gisan zeuden bendatuta, han-hemenka urre-kolorezko txaplatekin, ereite-jaietan Osirisen itxurako irudiak egiteko erabilitako urrezko moldeen antzera edo. Orobat, Tebasko nekropoliaren ondoan ere aurkitu ziren Osirisen irudiak, aurpegiak argizari berdezkoak eta barrua alez beteta zituztela. Azkenez, Erman profesoreak esan digunez, momien zangoen artean "batzuetan lokatzez egindako Osirisen irudia egoten da, alez beteta, eta alearen ernetzeak jainkoaren berpiztea esan nahi luke". Ezbairik gabe, ereite-jaietan Osirisen irudiak hazia bizkortzeko ehorzten ziren bezala, halaxe hilobian ere: antzeko irudiak hildakoa bizkortzeko ehorzten ziren; bestela esan, izpirituaren hilezkortasuna segurtatzeko.

XL

Osirisen izaera

1. Osiris, laborearen jainko

Osirisen mitoaz eta erritualaz egin dugun azterketa aski izan daiteke honako hau frogatzeko, alegia jainkoa laborearen pertsonifikazio zela, besteak beste; izan ere, esan daiteke labore urtero hiltzen eta urtero itzultzen dela bizira. Gerora apaizek haren gurtza handikiro eta distiraz jantzi dutenez, laborearen jainkotzat hartzen zutelakoa argi agertzen da bere heriotza eta berpiztearen jaian, lehenik Khoiak hilean eta geroago Athyr hilean ospatzen zen hartan. Antza denez, jai hau ereite-jaia izan zen batez ere, nekazariak hazia lurrari ematen zioten sasoikoa. Abagune hartan laboreen jainkoaren irudia, lurrez eta alez egina, ehorzten zen hileta-erritualen artean, zertarako eta, han hilez, atzera bizira itzul zedin uzta berriarekin. Zeremonia, berez, xarmadura zen sinpatiazko magiaren bidez laborearen hazkundera segurtatzeko, eta pentsa genezake alde horretatik egiptoar nekazari guztiek burutzen zutela era sinplean beren soroetan, apaizek hura bereganatu eta tenpluko erritual handi bihurtu baino askoz lehenagotik. Osiris laboreen jainkoaren gurtza garatzeko bidea eman zuen ernamuina agertzen zaigu, seguruenik, aztura arabiar moderno baina ezbairik gabe aspaldidaniko batean ere: "gizon zaharra", gari-azao bat alegia, ereindako sailean ehorzteko eta hildakoen artetik itzul dadila otoitz egiteko azturan, hain zuzen.

Mitoaren xehetasunak ondo egokitzen zaizkio jainkoaren interpretazio honi. Osiris Ortziaren eta Lurraren umea omen zen. Zer senidego aproposagorik asma dakioke laboreari, zeruetako urak emankortu duen lurretik sortzen delarik? Egia da Egiptoko lurak Nilo ibaiari zor ziola bere emankortasuna, ez euriari; baina bertakoek jakingo zuten, edota susmatuko zuten, ibai handia barrualde urrunean eroritako euriak hazten zuela. Berebat, Osiris gizakiei laborea nola erabili erakutsi zien lehena izan zelako legenda ezin hobeto egokitzen zaio laboreen jainkoari. Gainera, haren atal zehatuak han-hemenka barreiatu eta leku desberdinetan ehortzi zirela, hazia haizetara jaurtiz ereitea adierazteko modu mitikoa izan daiteke. Azken interpretazio honen berme izan daiteke Isisek Osirisen atal bananduak galbahe batean jarri zituelako kondaira. Edo litekeenago, kondaira hori aztura baten arrastoa izan daiteke: gizaki bat, agian laborearen izpirituaren ordezkari bat, bortxaz hiltzeko eta haren haragia edo errautsak soroetan zabaltzeko azturaren arrastoa alegia, zertarako eta soroak emankortzeko. Europa modernoan Herioren irudia zatikatu egiten dute batzuetan, eta zatiei lur ematen zaie ereindakoa ondo haz dadin, eta munduko beste parte batzuetan giza opagaiak eskaintzen dira. Antzinako Egiptori dagokionez, Manetonek esanda dakigu gizon ilegorriak erre ohi zituztela eta haien errautsak haizemailez zabaltzen zituztela, eta oso esanguratsua da sakrifizio barbaro hau erregeek Osirisen hilobian eskaini izana. Pentsa genezake opagaiek Osiris bera ordeztzen zutela, hots, haiengan jainkoa hiltzen, xehatzen eta ehorzten zutela urtero, hazia lurrean bizkor zedin.

Beharbada historiaurrean erregeek berek egingo zuten jainkoarena eta, horrenbestez, berak izango ziren hilak eta xehatuak. Set, Osiris bezala, zatikatu egin omen zuten hemezortzi eguneko erregealdiaren ondoren. Beste hemezortzi egun irauten zuen jaialdi batek oroitzen zuen erregealdi hura urtero. Istorio baten arabera, Romulo, Erromako lehen erregea, puska-puska egin omen zuten senadoreek, eta ondoren puskok ehortzi egin omen zituzten; eta tradizioz haren heriotza-eguna omen dena, uztailaren zazpia, errito bitxi batzuez ospatzen zen, itxuraz pikondoaren ernalketa artifizialarekin lotuta zeuden erritoez. Orobat, legenda greko batek kontatzen digunez, Penteo, Tebasiko erregea, eta Likurgo, Traziako edoniarren erregea, Dionisos mahastien jainkoari jazarri zitzaizkion, eta errege donge haiek ere zatikatuak izan ziren, bata Bakanal ero-amorratuek eta bestea zaldiek. Greziako tradizio hauek gizakiak -batez ere errege

jainkotiararak, Dionisosen ordezkari ziren aldetik- sakrifikatzeko azturaren aztarna itxuraldatuak izan daitezke. Jainko honek Osirisen antza du alde askotatik; bera ere xehatu egin zuten. Kiosen ere gizonak zatikatzen omen zituzten Dionisosi eskainitako sakrifizioan; eta jainkoa bezala hiltzen zirenez, pentsa daiteke hura ordezten zutela. Traziako Orfeo ere Bakanalek atalez atal xehatu zutelako kondairak gauza bera adieraziko luke, hura ere jainko-hotsean hil zela, jainkoa bezala hil zenez. Oso adierazgarria da Traziako Likurgo, edoniarren erregea, lurra berriz emankor bihur zedin hil zutela, lurrak, antzututa, fruitu emateari utzia baitzion.

Gehiago: Halfdan Beltza izeneko norvegiar errege batez irakurri dugunez, hil ondoren gorpua zatikatu eta erresumako hainbat aldetan ehortzi omen zituzten zatiak, lurraren emankortasuna segurtatzeko. Berrogei urte zituela ito omen zen, udaberrian izotza urtzean. Snorri Sturluson eskandinaviar historialari zaharrak kontatzen digu hura hil ondoren gertatu zena: "Errege guztietan aberatsena (hitzez hitz: ugaritasunak bedeinkatuena) izan zen. Hain estimu handitan zeukaten beretarrek non, hil egin zela eta gorpua Hringarikin ehorzteko asmoz eraman zutelako berria zabaldu zenean, Raumariki eta Westfold eta Heithmorkeko buruzagiak bildu eta denek haren gorpua nahi zutela eskatu baitzuten, zeinek bere probintzian ehorzteko; hura lortzen zuenari onura ugariak ekarriko zizkiolakoan. Azkenez, gorpua lau lekutan banatzea erabaki zuten. Burua Hringarikiko Steinngo hilobi batean utzi zuten, eta talde bakoitzak bere zatia eraman zuen ehorzteko. Hilobi horiei guztiei deritze Halfdanen hilobi". Gogoan hartzeko modukoa da Halfdan hau Ynglingdarren familiakoa zela; Frey, emankortasunaren jainko eskandinaviar handiaren jatorrikoa alegia.

Kiwai irlakoek, Britainiar Ginea Berriko Fly ibaiaren bokalean, Segera zeritzan eta totemtzat sagoa zuen magia-gizon baten kondaira kontatzen dute. Segera zahartu eta gaixorik zegoelarik, esan omen zien herritarrei laster hil beharra zela, baina hala ere beren baratzei fruitua emanaraziko ziela. Horren arabera, esan zien hiltzen zenean zatikatu eta zatiak denen baratzetan ipini behar zituztela, baina burua bere baratzan ehortzi behar zutela. Ohi baino urte gehiago hartu omen zituen, eta inork ez omen zion aitarik ezagutu, baina sagoa on bihurtu omen zuen, eta harrezkero ez zen inor goseak egon. Orain dela urte batzuk bizi ziren agureek ziotenez, beren gaztaroan ezagutu omen zuten Segera, eta kiwaitarren artean iritzi zabaldua da ez direla izango bi belaunaldi baino gehiago hura hil zela.

Denak batera hartuta, legenda hauek erakusten dute erregearen edo magia-gizonaren gorputza atalkatzeko eta han-hemenka sakabanatuta ehorzteko ohitura oso zabaldua zela, zertarako eta lurraren emankortasuna segurtatzeko eta, agian, gizonena eta animaliena ere bai.

Lehengo harira itzuliz, hau da, egiptoarrek erraustu eta lau haizetara zabaltzen zituzten giza opagaietara, halakoen ile gorriak bazukeen esanahirik. Izan ere, Egipton sakrifikatzen ziren idiek ere gorriak izan behar zuten; ile beltz edo zuri bakar bat aurkituz gero, aberea baliorik gabe geratzen zen opalketarako. Baldin eta, nik uste bezala, giza sakrifizio haiek ereintzen hazkundera bizkortzeko egiten baziren -eta erraustak haizetara emateak ikuspuntu hau indartuko luke-, opagai ilegorriak agian ale gorritaren izpiritua nortzeko egokiagoak zirelakoan aukeratuko zituzten. Izan ere, pertsona bizi batek jainkoa ordezten duenean, guztiz bidezkoa da giza ordezkaria jainkoarekin duen antzagatik aukeratua izatea. Horregatik, antzinako mexikarrek, artoa nor zela jotzen baitzuten, ereitetik uztarora arte bizitzaren nondik-norako osoa egiten zuena, haur jaio berriak opaltzen zituzten artoa ereiterakoan; haur kozkortuak artoa ernetzen zenean; eta horrela artoa erabat heltzen zen arte; orduan agureak sakrifikatzen zituzten. Osirisen izen bat "uzta" zen; eta antzinakoek batzuetan labore nortutzat jotzen zuten.

2. Osiris, zuhaitz-izpiritu

Baina Osiris laborearen izpiritua baino gehiago zen; zuhaitz-izpiritua ere bazen, eta horixe izan bide zuen lehen izaera, zuhaitzen gurtza berez zerealen gurtza baino lehenagokoa baita erlijioaren historian. Osirisen zuhaitz-izpiritu izaera oso grafikoki adierazita dago Firmiko Maternok deskribatutako zeremonia batean: pinu-arbola bat moztu ondoren, barrualdea husten zioten eta ateratako zuraz Osirisen irudia egiten zen; ondoren gorpua bailitzan ehorzten zuten enborraren hutsunean. Nekez adieraz daiteke argiago nor batek zuhaitzean egoitza hartuta daukala. Osirisen irudi hura urtebetez gorde eta gero erre egiten zuten, pinuari lotzen zioten Attisen irudia erre ohi zuten bezalaxe. Zuhaitza moztearen zeremonia, Firmiko Maternok deskribatu bezala, Plutarkok ere aipatzen du, antza denez. Osirisen gorpua erica zuhaitzaren barruan aurkitu zuteneko pasadizo mitikoaren pareko errituala litzateke. Osirisen tenpluko sarrera-gelan, Denderahn, jainkoaren momia belatz-buruduna zeukan hilkutxa zuhaitz baten barruan sartuta bailegoen ageri da marraztuta argi eta garbi, pinu baten barruan nonbait; hilkutxaren gainetik eta azpitik ageri baitira zuhaitzaren enborra eta abarrak. Beraz, eszena hau guztiz bat dator Firmiko Maternok deskribatutako mitoarekin eta zeremoniarekin.

Osirisen zuhaitz-izpiritu izaerarekin bat dator, halaber, haren gurtzaileek frutarbolei kalte egitea debekatua izatea; eta landare ororen jainko izatearekin bat dator gurtzaileek iturbegiak estali ezina ere, hain garrantzizkoak izaki hegoalde beroko lurrak ureztatzeak. Legenda baten arabera, berak irakatsi omen zien gizakiei mahastiak zurkaizten, soberako hostotza kimatzen eta mahatsari muztioa ateratzen. K.a. 1550. urte inguruan idatzia den Nebseniko papiroan, Osiris kaperatxo batean eserita ageri da, eta sabaitik mahats-lukuak daude zintzilik; eta Nekht erret eskribaren papiroan jainkoa putzu baten parean, tronuan eserita ikus dezakegu, putzuaren ertzetatik mahasti oparoa hazten delarik jainko eseriaren aurpegirantz. Huntza ere hari sagaratuta zegoen, eta haren landare deitzen zioten, beti berde dagoelako.

3. Osiris, emankortasunaren jainko

Landaretzaren jainkoa zenez, sormen-indar orokorraren jainkotzat ere jo zuten Osiris, gizakiek beren bilakabideko etapa batean ez baitzituzten bereizten animalien eta landareen ugalkortasunak. Horregatik, haren gurtzaren ezaugarri harrigarri bat zen bere izaeraren alderdi hau inizatuei ezezik jendeari aurkezteko erabiltzen zen sinbolismo gordin baina adierazkorra. Haren jaiaren emakumeak herriz herri joaten ziren jainkoaren ohorez kantuan eta soken bitartez mugiarazitako irudi lizun-gordinak eramanez. Aztura hau ereinen hazkundera segurtatzeko xarma zen seguruenik. Haren antzeko irudi bat, lurraren igali guztiez apainduta, Isisen irudiaren aurrean egon omen zen tenplu batean, eta Filen berari eskainitako geletan hildako jainkoa bere hilkutxan etzanda ageri da, erarik nabarienean erakutsiz hilda ere haren ahalmen ernarazlea ez zela agortua, etena baizik, eta munduarentzako bizi eta emankortasun-iturri izateko prest zegoela abagunea etortzean. Osirisi eskainitako himnoek haren izaeraren alderdi hori aipatzen dute. Haietako batean esaten da mundua hari esker berdetzen dela; eta beste batek honela dio: "Zu zara gizadiaren aita eta ama, zure hatsean bizi dira denak, zure gorputzeko haragiaren gainean bizi dira". Hortik ondorio hau ateratzeko, aitatasun-alderdi hori zela medio, berak ematen zizkiela haurrak gizon eta emakumeei, eta haren jaieguneko prozesioak hartarako zirela, lurrari emandako hazia bizkortzeko ere baziren bezala. Antzinako erlijioa gaizki ulertzea litzateke egiptoarrek jainkoaren boterea irudikatzeko erabiltzen zituzten enblema eta zeremoniak lizun eta laxotzat jotzea. Errito haietan zituzten helburuak bidezkoak eta laudagarriak ziren; haiek lortzeko bitartekoak, ordea, oker zeuden. Antzeko falazia batek bultzatzen zituen grekoak Dionisosen jaietan sinbolismo berdintsua onartzera, eta gisa horretan bi erlijioen artean sortutako

antzekotasun horrek agian beste ezerk baino gehiago nahastu ditu ikertzaileak, bai antzinakoak eta bai modernoak, berez senide izan arren jatorriz erabat desberdin eta bereiz ziren gurtza horiek bat eginez.

4. Osiris, hildakoen jainko

Ikusi dugu Osiris, besteak beste, hildakoen gobernari eta epaile zela. Egiptoarren herriari, alegia hilobiaz harantzagoko bizian sinetsi ezezik horretarako denbora, lan eta diru asko eman zuen herriari, jainkoaren betekizun hori apenas irudituko zitzaien lurrari bere fruituak dagokion garaian emanaraztea baino garrantzi txikiagoko. Pentsa genezake gurtzaileen fedean jainkoaren bi betekizunok estu lotuta zeudela. Hildakoei lur emanez, jainkoaren zaingopean jartzen zituzten: hautsetik betiereko bizira jasoko zituen jainkoak, hazia lurretik ernearazten zuen bezala. Fede horren lekukotza adierazkor eta ez bairik gabekoa ematen dute Egiptoko hilobietan aurkitutako Osirisen irudi zerealez beteek. Berpizkundearen enblema eta berpizkunderako tresna ziren aldi berean. Horregatik, antzinako egiptoarrek giza hilezkortasunaren iragarpena ikusten zuten erne berrian. Ez ziren bakarrik izan, noski, hain oinarri ahuletik hain itxaropen garaiak ateratzen.

Bere herriari bizitza honetan bere gorputz zatikatua jaten ematen zion jainkoa, eta mundu honen ondoren beste mundu hobe batean betiko zoriontsu izango zirelako promesa egin ziena, nagusi izan behar derrigor beren nahi eta atxikimenduetan. Ez gaitu harritu behar, beraz, Egipton Osirisen gurtzak beste jainkoenari itzal egin izanak, eta haiek zein bere barrutian gurtzen zituzten bezala, hau eta beronen jainko-lagun Isis denetan gurtu izanak.

XLI

Isis

Isis jainkosaren jatorrizko esanahia zailagoa da zehazten bere anaia eta senar Osirisena baino. Haren tasun eta deiturak hain ziren ugariak non hieroglifikoetan "izen ugari", "mila izeneko" deitzen baitzaio, eta inskripzio grekoetan "ezin konta ahala izeneko". Alabaina, bere izate askotariko horretan agian atzeman ahalko dugu oraindik muin jatorrizkoa. Muin horren inguruan bildu bide zitzaizkion -ezari-ezarian erantsi zitzaizkion- gainerako osagaiak. Haren anaia eta senar Osiris, besteak beste, laborearen jainkoa bazen (eta ikusi dugu hori sinesteko arrazoirik), bera laborearen jainkosa izango zen seguruenik. Badira hala pentsatzeko zenbait arrazoi behintzat. Diodoro Siziliakoari sinestez gerotan -Maneton egiptoar historialaria hartu zuen oinarri-, garia eta garagarraren aurkikuntza Isisi egozten zitzaizkion, eta haren jaietan ale horien lastoa eramaten zen prozesioan hark gizakiei egindako opariaren oroigarri. San Agustinek beste xehetasun bat gehitzen du: Isisek senarra eta bien arbaso errege izanei sakrifizioa eskaintzen ari zelarik aurkitu omen zuen garagarra, eta garagar-buru aurkitu berriak erakutsi omen zizkien Osirisi eta honen aholkulari Toti edo, erromatar idazleek deitzen zioten izena emanez, Merkuriori. Horregatik, eransten du San Agustinek, Zeresekin identifikatzen dute Isis. Gainera, uztaroan, egiptoar igitariak lehen zurtoinak moztzen zituztenean, bertan utzi eta bular-kolpeka hasten ziren, Isisi negarrez deika. Jadanik azaldu dugu aztura hau igitaiak hildako laboreen izpirituarengatiko lantua zela. Inskripzioetan Isis izendatzeko erabiltzen diren deituren artean, hauek ditugu: "gauza berdeen sortzailea", "lurraren berdetzaren pareko berdetasuna duen jainkosa berdea", "ogiaren anderea", "garagardoaren anderea", "ugaritasunaren anderea". Brugschen arabera, "lurra estaltzen duen landaretzaren berdetasunaren sortzaile ezezik, labore-soro berdea bera da, jainkosa gisa norturik". Sochit edo Sochet deiturak, "labore-soro" alegia, berresten du hori. Hitz honek adiera horixe du oraindik ere koptoeraz. Grekoek laborearen jainkosatzat hartzen zuten Isis, Demeterrekin identifikatzen baitzuten. Epigrama greko batean honela deskribatzen da: "Lurraren fruituez erditu den hura" eta

"ale-buruen ama"; eta beraren ohorez konposatutako himno batean honela dio bere buruaz: "Galsoroaren erregina", eta "ildo emankor garitan ugaria zaintzeko ardura duena" hitzez deskribatzen da. Horren arabera, artista greko eta erromatarrek buruan edo eskuan ale-buruak zituela irudikatzen zuten sarri.

Halakoa zen Isis hasiera batean, pentsa dezakegunez: laboreen ama trauskila, egiptoarrek errito zakarrez gurtua. Baina jainkosa trauskilaren ezaugarri itsusiak apenas ageri diren geroagoko gurtzaileen begietan. Finduta eta santututa, mendeetako erlijio-bilakaerak izpiritualduta ageri da: benetako emazte, ama samur, naturaren erregina onurakor gisa; garbitasun moralaren, betiko eta misteriozko santutasunaren koroaz inguratuta. Hala araztu eta itxuraldatuta, bihotz asko bereganatu zituen bere jatorrizko lurraldeko mugez kanpo ere. Antzinatean, bizitza nazionalaren gainbeherarekin batera gertatu zen erlijio-nahasmendu hartan, haren gurtza ezagunenetakoa zen Erroman eta inperio osoan. Erromako enperadore batzuk ere gurtza hartara emanak ziren erabat. Eta Isisen erlijioa bizitza laxoko gizon eta emakumeek sarri mozturiko gisa erabili izan bazuten ere, oro har haren erritoak duintasunez eta erabidez, ospe handiz eta lotsaz burutu ziren, oso egoki gogo urduria lasaitzeko, bihotz astuna arintzeko. Beraz, izpiritu finei, eta bereziki emakumeei deitzen zien, sortaldeko beste jainkoen errito odoltsu eta gordinek atzerarazten eta harritzen zituzten pertsonak. Ez dugu harritu behar, beraz, gainbeheraldi hartan, tradizioaren fedea astindu, sistemak hautsi, gizonen gogoak urduritu, inperioaren egiturari berari, behinola betikotzat joa izan arren, haustura eta arrakala izugarriak agertu zitzaizkionean, Isisen irudi narea, bere baretasun izpiritualaz, bere hilezkortasun-promesa politaz, askori ortzi ekaiztsuan izar baten gisa agertu izana, eta haien bihotzetan Erdi Aroan Ama Birjinari ziotena bezalatsuko jaiara piztu izana. Hain zuzen, haren erritual ospetsuak antz handiak zituen katolizismoaren ponpa eta zeremoniekin: apaiz burusoildu eta tontsuratuak, goiz-otoitzak eta bezperak, musika tilinkaria, bataiatzea eta ur santuz ihizatzea, prozesio itzaltsuak, Jainkoaren Amaren irudi bitxiz beteak. Egipto zaharrak baduke bere ekarririk Eliza Katolikoaren sinbolismo distiratsuan, baita teologiaren abstrakzio zurbiletan ere. Isis Horus haurrari titia ematen ageri duen irudia hain da Ama Birjina eta Haurraren irudiaren antzekoa non batzuetan kristau ezjakinek gurtu egin izan duten. Eta Isisi zor dio Ama Birjinak, gerora marinelen zaindari bihurtzean, Stella Maris, "Itsasoko Izarra" deitura ezin ederragoa. Horrela gurtzen dute enbatak astindutako marinelek. Grezia eta Alexandriako itsas merkatariek ezarriko zizkieten Isisi marinelen jainkosaren tasunak. Izan ere, tasunok arrotzak zaizkie jatorrizko izaerari eta egiptoarren azturei, hauek ez baitzuten itsasoa maite. Hipotesi honen arabera, Sirius izango zen benetako Stella Maris, "Itsasoko Izarra"; Sirius, Isisen izar distiratsua, uztaileko goizetan ekialdeko Mediterraneoko uhin kristalezkoetatik goratzen zena, marinelei eguraldi ona iragarritz.

XLII

Osiris eta eguzkia

Osiris eguzki jainko gisa interpretatu izan da batzuetan, eta garai modernoetan ikuspegi hau hainbeste idazle puntakok izan dutenez, azterketa laburra merezi du. Galdetuko bagenu zein frogatan oinarrituz identifikatu den Osiris eguzkiarekin edo eguzki jainkoarekin, azterketak erakutsiko liguke froga horiek urriak direla kopuruz, eta zalantzazkoak edota guztiz baliogabeak kalitatez. Esate batera, Jablonski saiatuak - idazle klasikoek Egiptoko erlijioaz emandako testigantzak bildu eta aztertu zituen lehen jakintsu modernoak- hauxe diosku, era askotara erakuts daitekeela Osiris eguzkia dela, eta nahi adina lekukotza aipa ditzakeela hori frogatzeko, baina ez dagoela horren beharrik, edozein gizaki ikasik dakiela-eta horrenbeste. Aipatzen dituen idazle zaharren artean, Diodoro eta Makrobio dira Osiris eguzkiarekin espreski identifikatzen dituzten bakarrak. Horiek diotena, ordea, ez da oso pisuzkoa: Diodororen adierazpena

zehaztasunik gabea eta erretorikoa da, eta Makrobiok, eguzkiaren mitologiaren gurasoetako batek, arrazoi arinegiak ematen ditu identifikazio horretarako.

Idazle moderno batzuek honako hauxe hartzen dute oinarri nagusitzat Osiris eguzkiarekin identifikatzeko: haren heriotza hobeto egokitzen zaiela eguzki-fenomenoei bestelako ezeini baino. Eguzkiaren eguneroko agertze-desagertzeak haren heriotza-berpizteei buruzko mito baten bidez adieraz daitezke, guztiz onargarria da hori; eta Osiris eguzkia dela dioten idazleen iritziz, mito hori eguzkiaren eguneroko ibiliari dagokio, ez urtekoari. Esate baterako, Renoufek, Osiris eguzkiarekin identifikatzen zuenetako batek, hauxe zioen, Egipton eguzkia ezin dela inola ere hila bailitzan deskribatu neguan. Baina legendaren gaia eguneroko heriotza bazen, zergatik ospatzen zen urtean behingo zeremonia batez? Honek besterik gabe ezinezko egiten du mitoa eguzkiaren irtete-sartzeen deskribapen gisa interpretatzea. Orobat, esan liteke, bai, eguzkia egunero hiltzen dela, baina nolatan gero esan puskatan banatzen dela?

Gure azterketan zehar, nik uste, argi geratu da badela beste fenomeno bat naturan, heriotza-berpizteen ikusmoldea ondo doakiona, eguzkiaren irtete-sartzei bezain ondo. Hain zuzen, hala sumatu eta irudikatu izan da herri-azturetan. Fenomeno hori landaretzaren urteroko gora eta behera da, urteroko hazte eta zimeltzea. Osirisen heriotza eguzki-sartze gisa ez baina landaretzaren gainbehera gisa interpretatzeko arrazoi sendoa antzinatean nagusi bai baina ahobatekoa ez zen iritzian aurki daiteke: Osiris, Adonis, Atis, Dionisos eta Demeterren gurtza eta mitoak sail batean sartzen zituen iritzi horrek, funtsean mota bereko erlijio gisa. Antzinakoek gai honetaz zuten iritzi bateratua handiegia dirudi fantasia hustzat jota baztertzeko. Osirisen erritoek hain antz handia dute Biblosko Adonisenekin, non zenbait biblostarrek berek ere zioten Osirisen heriotzarengatik egiten zutela dolu, ez Adonisenarengatik. Ezbairik gabe, ez zuketan izango halako ikuspegiak baldin eta bi jainkoen erritualak ia-ia bereiztezinak ez balira. Herodotok hain antz handiak aurkitu zituen Osirisen eta Dionisosen erritoen artean, non pentsatu baitzuen ezinezkoa zela bigarrena berez sortu izana; grekoek egiptoarrei mailegatuak behar zuten, aldaketa xume batzuk gora-behera; hala uste zuen berak. Berebat, Plutarkok, erlijio konparatuaren ikertzaile zorrotz hark, Osirisen eta Dionisosen erritoek xehetasunetan zuten elkarren antza azpimarratzen du. Ezin bazter dezakegu hain lekuko argi eta fidagarrien testigantza, berei zegozkien aztergaiez emana izaki. Arbuia daitezke gurtzez ematen dituzten interpretazioak, noski, erlijio-kultuaren esanahia eztabaidagarria izaten baita sarri; baina erritualaren antzak behaketa-kontua dira. Beraz, Osiris eguzkia dela diotenek bi aukera dituzte: antzinatearen testigantza - alegia Osiris, Adonis, Atis, Dionisos eta Demeterren erritoak antzekoak direla- okertzat jo, ala errito horiek eguzki-gurtza gisa intepretatu. Jakintsu moderno bakar batek ere ez ditu onartzen ez bata ez bestea. Lehena onartzea zera esatea litzateke, erritogileek berek baino hobeto ezagutzen ditugula jainko horien erritoak. Bigarrena onartzea, berriz, mitoa eta errituala aldatzea, moztea, desegitea eta itxuragabetzea litzateke, Makrobio bera ere ausartu ez zen moduan. Aitzitik, errito horien guztien funtsa landaretzaren alegiazko heriotza-berpizteak zirelako ikuspegiak banan-banan eta denak batera argitzen ditu era sinple eta naturalean, eta bat dator antzinakoek haien arteko antzaz emandako testigantza orokorrarekin.